

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

IDAZKI HAUTATUAK

GOTTHOLD EPHRAIM LESSING

Idazki hautatuak



Euskaratzailea: Pello Zabaleta
Berrikuslea: Joxe Azurmendi
Hitzaurregilea: Joxe Azurmendi

Lehen argitalpena: 2002ko irailean

© Itzulpenarena: Pello Zabaleta
© Itzaurrearena: Joxe Azurmendi
© Klasikoak, 2002
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

ISBN: 84-88303-21-1
Lege gordailua: BI.-2255-02

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

«Trinitate alemana» literaturan, irakaskuntza sisteman batik bat, Goethe, Schiller eta Lessing dela, dago esaera. Alemanentzat, Goethe eta Schiller klasikoak diren artean, hirugarrena preklasikoa da, nolanahi ere. Lessing, idazle eta pentsalaria, literaturan bezain figura gailena filosofiaren nahiz teologiaren historia modernoan eta kristautasunaren kritikan, *Aufklärung* edo Ilustrazio alemanaren adierazle nagusietakoa da, nagusia ez esateko, bere obra askotarikoagatik bezainbat —poeta, dramaturgo, fabulista, kritiko, itzultzaile, estetikaren teoriko, filosofo, polemista (anti)teologiko— berak ausarki plazaratu arazo gordiarrek handik aurrera Alemaniako kultura eta pentsamenduan jokatu ko duten paper zentralagatik, idealismoan eta ezkerreko Hegelzaleengan bereiziki eta protestantismo liberal Bibliaren kritikoan. Erlijio naturalari eta errebelatuari buruzko gogoeta ilustratu ingelesa eta frantsesa erradikalduz, arrazionalismo goiztiar horren nolabaiteko itxikeria eta zurruntasuna ere gaingiduz aldi berean, sinesmenaren eta arrazoiaren erlazioen auzia planteamendu global batera zabaldu zuen, Jainkoa, Natura eta Historia aurrenik batera, gero ordea arrazionalki bai, baina baita historikoki ere, aditzeko ahaleginean, arrazoimenaren beraren historikotasuna gogoanduz bide batez; horrela Ilustrazioa bere barrutik zapartarazi eta bilakabide berriak garatzera behartu baitu.

Lessingen gaurkotasuna aipatzen da egunotan. XIX. mendeko sistema handien porrotaren ondoren, pentsamendua berriro krisian

ikusiz, W. Diltheyk Lessingen gaurkotasuna aldarrikatzen zuen: «hura da gaur beharra daukagun gizona»; «gure belaunaldiko poeta hura da» (hura Goethe «klasikoari» kontragarritz, alafede!). Eta apur bat bitxia bada, zeren eta Goethek berak, beste krisialdi batean egon uste zue-nean, berak ere Lessingen premia aitortzen baitzuen *Eckermannekin Solasetan* (1825eko urriaren 15a): «Lessing bezalako gizon batek egingo liguke falta!»... Krisialdiko gizona da, zalantza gabe.

Bizitza nahasi bateko geltokiak

Gotthold Ephraim Lessing (1729-1781) urtarrilaren 22an jaio zen, Saxoniako Kamenz herrixkan, pastore-familia protestante kulto batean, hamabi haurretatik hirugarrena bera. Arestian, Saxonia –Leipzig, Halle eta Dresden hiriekin— Ilustrazio alemanaren erdigune bizkorra zen. Aita eta aitona ere idazki teologiko eta filosofikoak argitara emandakoak zituen, eta etxean, txiki-txikitatik, haurra begizabaltzen zuen liburutegi oparo bat izan zuen eskura. Aurreneko maisua aita bera izan zuen. Aita maisuak, irakaskuntza erlijiosoaren eta hizkuntza klasikoaren hastapenak transmititzeaz gainera, hizkuntza modernoetan ere —ingelesa eta frantsesa—, hau ezohikoagoa orduan, oso txikitatik iniziatu zuen. Gero bere ikasketak herrixkako latin-eskolan hasi zituen haurrak. Buru argikoa baitzen, beka bat lortu zuen hamabi urterekin ikasketak St. Afra Printze Eskolan jarraitu ahal izateko. Printze Eskolak, kombentu sekularizatuetan kokatuak gehienak (Württembergeko Kombentu Eskolak deituko dira), Alemania protestanteko ikastegi bereziak dira, batzuek txit famatuak jakintsu aleman handienen mintegiak izan direlako: gure Seminarioen antzera antolatutak, erresumako haur —ez noble— dohaintsuenak, aski txikitatik, Printzearen zerbitzuko pertsonala izateko (pastoreak batik bat), prestatzeko internatuak ziren, diziplina estu eta estudio intentsokoak. Ikasgaien planak batez ere «humanitateei» eta formazio protestante sendo bati begiratzen zion (latina, grekoa eta hebraiera, eta Bibliaren eta doktrina luteranoaren estudio sakona, matematika eta astronomia zerbaitekin; alemanik ia ez eskola barruan). Eskola honek ezarri ditu Lessingek «*Laokoon*»-en eta polemiketan erakutsiko duen formazio klasiko itzelaren oinarri zabal gotorrak. Bere teatrozaletasuna ere bertan piztu da, St. Afran, hegoaldean eskola jesuitek egiten zuten antzera, festa berezietan antzerkiak errepresentatzen baitziren (latinez, jakina) eta Terentzio eta Plautoren irakurketa ere ikasplanetan sartzen

baitzen. Hamazazpi urterekin humanitateak bukatu eta, beka bati eskerrak berriro, Leipzigeke Unibertsitatean matrikulatu da teologia estudiantzeko (1747).

Leipzig da momentu horretan —ez Berlin—, bere Unibertsitate, liburu azoka, literatura eta teatro bizitza alaiarekin, Ipar Alemaniako kultura eta modernitate zentro nagusia. Lessing gaztea, teologia estudiantearen biziera erretiratua utzi eta, hiri handi urduriko mundutxo literario eta teatrozalean murgildu da laster buru-belarri. Lessingentzat bere askatasuna deskubritzea izan da hori. «Jabetu nintzen liburuek erudito bat egingo nindutela, baina ez nindutela gizaki bat sekula egingo». Liburuetakoa «zeinu hilez garunean itsasten den jakitate teoritsu hotza» laga eta «arima osoaz ikasten den eskolan» («Nathan» V, 6) sartu zen buruz behera. Perretxikoak bezala agertzen eta desagertzen ziren aldizkarien inguruko lagun-taldeetan ibiliz idatzi eta argitaratu ditu bere lehen poesiak: anakreontikoak, gustu ilustratu ofizialari zego-kionez, bera aski berrizalea bazetorren ere. Eta halaxe idatzi eta arrakastaz estreinatu du, hemeretzi urte besterik ez zuela, lehen komedia («*Der junge Gelehrte*», Erudito gaztea), «tipoen komedia saxoniararren» era tradizionalen. Irakurleak gogoratu behar du, teatro herrikoia garai hartan gutxi gorabehera deabruaren eskolatzat zegoela gaitzikusia. Beraz, konpainia gaizto hauen berri jakin orduko aita pastoreak bere eginahalak egin ditu estudiantetunantea bide oneratzeko; eta, ama gaixotu delako aitzakiarekin, etxera etorrarazi du. Lau hilabete egin du etxean gurasoekin etengabeko tirabiran eta, azkenean, teologia utzi eta medikuntzan matrikulatzea onartarazi ahal izan die. Hilabete batzuek Wittenbergen estudiatu ostean, ordea, elkorkeria haiek ikasteko gogorik batere gabe, bere jokozaletasunak zorrez beteta, literatur munduko lagun inbidian beti, ihes egin du Berlinera askatasun bila, hogeitau urte bete gabe oraindik. Biak, ihes egitea eta diru falta, Lessingen bizitza osoan gaitz kronikoak izan dira.

1748-1751 (lehenengo egonaldia) eta 1752-1755 urteetan (bigarren egonaldia), biziera bohemio literarioa orduantxe ari da sortzen ehun mila biztanle inguruko Berlin probintziano baina indartsu goituketan ari denean, egundoko aktibitatea burutu du Lessingek, idazle, itzultzaile, librotekari, kritikoa, erredaktore eta edotariko idazkintzetan. Aldi berean frantsesa, espainola eta italianoa perfektionatzen dihardu. Ezaupide inportanteak egin ditu: Nicolai editorea, Mendelssohn filoso-

foa (honekin batera idatzia du «Pope, metafisiko bat?»): filosofia eta literatura nahastearen aurka), etab., luzaroan adiskide eta lankide izango dituenak. Lessingek idazle bizitza bizi nahi du, baina oraindik Alemanian ez dago lumatik bizitzerik, mila zama modu gainean hartuta ere biziraun ahal izateko (Frantzian ere, burgesia askoz landuagoa zuen arren, Diderot izan da, orduantsu, hori lortu duen lehena, eta ez problemarik gabe). Idazlearen itxaropena Gortean dago. Baina Prusiako Errege Handiak literatura eta kultura alemana arrunt destainatzen ditu; Sanssouci deritzo Potsdamgo haren jauregi dotoreari, modelo frantsesen antzera eraikia eta antolatua dena, kanpotik hala barrutik, eta berton jaun eta nagusi bizi da Erregearen gonbidatu gisa «der Herr von Voltaire», alemanen mesprezatzailerik handiena. (1751-1752 urteetan Voltaire hainbat izkribu itzuliko du Lessingek alemanera). Gortean frantsesez bakarrik mintzatzen ohi da. Diplomazian bezala solas aristokratikoan, teatroan, Zientzien Akademian (Berliren Unibertsitaterik ez dago), alemanen hizkuntza barbaroa erdeinatu egiten da. Lessingek, ordea, literatura alemanezkoa eta alemana gura du altxatu, hots, ez hizkuntzaz bakarrik alemana, baizik alemana izaeraz ere (nolabait «antifrantsesa» hortaz: baina, kasu, ez adiera politikoan!); beraz, nekez aurki zezakeen onespelik Gortean. Are, inkontru gaitz batek behin eta betiko zapuztu ditu Lessingentzat Federiko II. arekin inoiz harremanik lotzeko posibilitate guztiak. 1751ko urte bukaera aldera Sanssoucin Voltairek amaitutzat eman zuen bere «*Siècle de Louis XIV*» (prezeski!), Erregeak eta Gorteak hain igurikia. Voltaireren esan espresoaren aurka, Richier haren idazkari pribatuak eskuizkribua Lessingen eskuetan utzi zuen. Honek lagunei erakutsi —halako altxorrra!—, eta itzulpena berak egingo ote duen ere itxaropena adierazi nonbait. Gortean pasadizoa jakin denean, Voltaire olinpikoak oso minduta erreakzionatu du (aski gizon portatu da, hala ere), Erregeak ez dio Lessingi sekula barkatuko, eta bizitzeko Prusian Estatu kargu edo kargutxorik inoiz eduki ahal izateko, ez du ukanen gehiago aukerarik. Lessing, bere aldetik, oso kritikoa izango da bere bizi guztian, Sanssoucin pertsonalki ezagutu eta, ez asko, tratatu izan duen Voltairerekiko.

Idazle gisa Berlinen bizitzeko insegurtasunak titulu akademiko baten komenentzian pentsarazi dio Lessingi. Wittenbergera itzuli eta —aita lasaitzearren ere—, medikuntza serio ikasten entzarratu da,

beraz; gero berriro estudio historiko-filologikoetan murgildu, literaturari heldu, hala ere hilabete gutxian Magister Artium titulua eskuratu du, hain zuzen Joanes Huarte mediku Donibane Garaziko gaineko estudio batekin (latinez, 1751). Urte berean aurreneko bere-bere liburua eman da argitara, Txikikeriak, poesia bilduma bat. Huarteren etorkiaz eta bizitzaz Lessing ez da oso ongi informatua ageri (aitortzen du). Haren espirituaz zera dio: «ausarta da —derizkio—, ez du jokatzeko iritzi arrunten arabera, guztia era bereizi batean juzgatzen eta gidatzen du, bere pentsamendu guztiak askatasunez azaltzen ditu eta bera da bere buruaren gidaria. Baina gauza jakina da gisako espirituak mila paradoxatan jausten direla»; beharbada estudianteak pixka bat bat bere burua marraztu digu berba horietan.

Berriro Berlinen, bere erreseina eta polemika sekula baino zorrotzagoek berehala «Criticus berri» (Sulzer) terriblearen izena Alemania literario osoan zabaldu dute. Professore sonatua lotsagabe zigortu, antzinateko autore ofizialki madarikatuen ohorea bindikatu, iritzi ezarriez burlatu, errespeturik ez erakutsi Luterori berari, ortodoxia protestantea probokatu eta xaxatu, ideia frantses edo ingeles berrien berri eman, haizeak franko astindu ditu inguruan. Literatura aleman berrian kasi arbitro baten autoritatea irabazi du: berak ongi deritzonak, bidea zabalik du. Arrakastarik handiena, alabaina, «Miss Sara Sampson» puskaren estreinoa izango du (1755), publikoaren aldetik berebiziko ongietorria izan duena, tragedia burgesaren hastapentzat obra hori hartu ohi baita gaur. (Ikuspegi historikoan Lessingen «tragedia burgesa» Brechten «teatro epikoarekin» konparatu ohi da). Garaipenaren erdi-erdian, bat-batean, Berlin utzi eta Leipziger doa berriro, «munduaren bilduma» bezala ikusten duen «musen eta diruaren hirira», momentuko arrakasta aprobetxatzeko asmotan, posibilitate berriak irekiko dizkiolakoan bizitzan idazle bezala aurrera irteteko. Eskaini zaion posibilitatea guztiz ustegabekoa izan da: patrizio seme gazte aberats bati «formazio suspirioa» ohikoan European zehar lagun egitea mentore gisa hiruzpalau urtetan, gastu guztiak ordainduta gehi sari polit bat urteko. Bera den bezalako esperientzia berrien gose-egarria izanik, hogeita sei urteko Lessingek, plan literarioak errekaratuta eta, ezin ezetz esan izan dio eskaintzari (1756). Amsterdamen, ordea, Zazpi Urteko Gerraren albisteak harrapatu ditu: tropa prusiarrek Saxonia inbaditu eta Leipzig okupatu dute, lehenbailehen etxera itzu-

li beharrean dira. Gerrapeko hirian, egiteko iraunkorrik gabe, mila zeregintxotan zipriztinduta ibiliko da (erreseinak, itzulpenak), proiektu berriez burua bero-bero, antzerkiaren inguruan batik bat (esperimentu antiheroiko baten ideiarekin, geroago «*Emilia Galotti*» izango dena). Kilikolo horietan E. C. von Kleist okupazio tropako ofizial poetarekin ezaupidea egin du. Lessingek ez du inoiz ahaztuko pertsonalitate harrigarri hau, militarra eta poeta, laster hilko dena prusiarren austriar eta errusiar elkartuen aurkako Kunersdorfeko bataila odoltsuan jasandako zaurien ondorioz, eta «*Mina von Barnhelm*» drama errealistako Tellheim Maiorra (komandantea) haren irudira trazatuko du. Azkenean ostera Berlingo lagunengana biltzea erabaki du Lessingek (1758). Han, Nicolai eta Lessingekin batera, «Briefer» («Gutunak literatura berrienari buruz») argitalpen asterokoa, literatura alemanaren garapidean garrantzizkoa, martxan jarri du. Famatua egin da, esaterako, 17. Gutuna, Gottsched antzerkiaren teoriko printzipalari egiten dion kritika zehakorraz. Fabulak argitaratzen ditu, eta —antzerkiarekin ere egin ohi duen moduan— fabulari buruzko azterketa teorikoak ber denboran. «*Philotas*» ekitaldi bakarreko drama argitaratzen du, gerrak inspiratua; Sofoklesi buruzko ikerketa, Dideroten itzulpenak, etab. Etengabe lanean ari da beti mila lanetan, arrakastatsu.

Eta bat batean, berriro, ez zer eta ez hura, desagertu egin da Berlindik, inori inolako esplikaziorik emateke eta lagunak adiotu ere gabe. Mundu guztia zur eta lurtuz, beste ezer ez baina segurantzia ekonomiko osoa ematen zion Herrialde Gobernamentuko idazkari kargua onartu du, Leipzigen von Kleisten bidez ezagutu izaniko Bogislaw F. von Tauentzien Jeneral prusiarren zerbitzuan Silesiako Breslaun (orain Wroclav). Bera saxoniarra izanik, eta are gerra garaian, prusiarren zerbitzu hori ez zen egiten ulerterrazegia. Zergatik egin zuen? «Egia aitortzeko, badut egunero gutxienez ordu laurden bat, ni neu ere harritzen naizena». «Ihesi», zalanza gabe; baina bere buruaren bila ere bai agian. Ez zuen lan handirik, irabazi ona, arratsalde guztiak libre bere grinetarako (antzerkia, jokoa) eta estudiorako. Hiriko Bibliotheca Rhedigerana bikainaz baliatuz, «*Laokoon*»erako aurrelanak apailaketan (ordura arte ibili izan ez zuen alor bat hain zuzen) eta «*Minna von Barnhelm*» bukatzen/orrazten eman zuen denbora (1759an agertu da Voltaireren «*Candide*», Ibon Sarasolak euskaratua dagoena; Men-

delssöhnen esanean, aipaturiko «*Minna von Barnhelm*», eta are gehiago «*Nathan*», *Anti-Candide* saioak bezala uler litezke) eta batez ere, azken bi urteak, lehen lau mendeetako Elizako Gurasoen idazki denak sistematikoki irakurtzen. Gero, Fragmentoen polemika handia sortzen denean, Lessingek teologian *dilettante* soiltzat joko du axolagabeki bezala bere burua; baina H. Thielickek karrerako teologo baten formazio sakona baieztaketan dio. Prusiaren garaipen mirarizkoarekin gerra amaitu eta bere mezena von Tauentzieni Potsdamera lagundu dionean (1763), erregearen zerbitzuan ofizioaren bat, oraingoan bai, Jeneralaren gomendioarekin eskuratuko zuen ustea ustela atera zaio berriro. 1766an «*Laokoon*»-en lehen parteak publikatu du, ezusteko osoa, txalo beroz txalotua, publiko letrazale alemanarentzat, ordura arte Lessing ez zuena antzinatearen ikertzaile gisa ezagutzen: baina autoreari Kasselgo Antzinaki eta Moneta Gabinetean arduradun karguko atea irekitzeko ez da izan aski. Gomendio guztiak ez dira aski izango, Berlingo Erret Bibliotekan bi bider harentzat eskatuko den bibliotekari postua eskuratu ahal izateko. Federiko II.ak uko egin dio beti.

Horrela, Breslau utzi eta, Berlinen batera eta bestera lanbide finko baten bila bi urte pasa ondoren (1765-1766), Hamburgotik etorri zaio eskaintza.

Bitartean, azken urteetan bestelakotuxea dago jadanik Europa, eta bereiziki Alemania, kulturalki edo ideologikoki bezala politikoki. Prusia bazterreko probintzia bat izatetik europar potentzia bat izatera pasa da. Austriako Jose II.a erreformatzen ari da jo ta ke bere lurraldeetan. Tortura sorginen epaiketak ezabatuak izan dira Austria nahiz Prusian. Hain zuzen erresuma bion norgehiagoka bat bezala dago zein ilustratuago (Ilustrazio despotikoa). Hirietako burgesia anbizio politikoa erakusten hasia da, Bernan Henziren erreboltak patriziatuaren aurka porrot egin eta buruzagiari bi lagunekin lepoa moztu dioten arren. (Lessingek «*Henzi*», fragmento geratu den tragedia bat idatzi du). Voltaire eta Rousseau, zenitean daude («*Contrat social*», 1762; «*Traité sur la tolérance*», 1763), Entziklopediaren bolumenak urtez urte agerketan eta Europa osoan zabalketan dira, Parisetik zabaltzen baitira Argiak. Baina, bestetik, aurreneko jardin ingelesa Alemanian 1750ean landatu da Hamelinen; hau da, Lehen Ilustrazioko edo Ilustrazio frantseseko arrazionaltasun linealaren tokian, bizidunago eta sentikorrago bat —«ingelesagoa», zilegi bada— goitiketan hasi

da, estetikoago eta libreagoa hain zuzen. 1750 urte horren inportantzia, bai R. Koselleck eta bai O. Marquardek aski azpimarratua dago pentsamendu modernoko biragune handiaren orpo gisa. 1750 urtea, politiko eta ekonomikoki seguruenik ezdeusa da, baina emankorra oso kulturalki. «Kapastak azido butirikora bezala kontzeptuen historialariak beti 1750era datoz», idatzi du Marquardek. Antropologia, estetika, historiaren filosofia, orduan pizten dira. Autokontzientzia berri bat hasi da argitzen.

Hamburgoko burges aberats talde batek Hansa-hiri horretan «Teatro Nazionale» sortu gura du eta «dramaturgo» bezala Lessing kontratatu. Lessing ez dago prest dramak seriean kontsumorako ekoizten dituen makina izateko; baina interesatzen zaio proiektuan parte-hartzea. Ordura arte antzerkia, edo Gortekoa (Alemanian Gorte eta Gortetxo pila dago, noski) edo herritar ibiltaria izaten zen. Erret Teatro edo Gortekoak nobleentzat eksklusiboak ziren eta jauregian egiten zen antzezpena; herriaren teatroa —nekazari nahiz burgesena— ibiltaria zen herriz herri eta ez zuen izaten antzezteko lokal finkorik: teatro taldea kirmesetan- edo zetorrenean, ataurre edo egilorren (barrakoi) batean antzezten zen, herri edo hirian jendea biltzeko zegoen edozein aterpe itxurosotan, edo aire librean (elizan ez!, antzerki herritarra Elizak gaitzetsia zegoen-eta). Hamburgon, bada, «Teatro Nazionale» bat, hots, antzoki burges edo herritar egonkor bat, bere eraikin eta bere aktore talde propioarekin eta programa bariatu jarraituarekin, fundatu dute. Lessingen zeregina programazioan aholkatzea izango da antzezteko obren aukeran, testuak sortzea (nahi bazuen), eta antzezturiko obra guztien erregistro kritikoa egitea astean bi aldiz agertzeko aldizkari batean, jendaurre antzerkizalearen informazio eta formaziorako. Horrela sortu da «Hamburgoko dramaturgia», Lessingen izenburu ezagunenetarikoa bat. Idazleen autonomia ekonomikoaren betiko bere gogoarekin, Lessingek enpresa editorial bat berak eratu du, inprenta bat muntatu berria zuen Johann Boderekin batera, aldizkaria ateratzeko, bere aurrezki denak proiektu horretan inbertituz, urteetan zehar eta batez ere Breslaun bere soldataz eta jokoan irabazitako ez gutxiaz osaturiko 6.000 bat liburuko bere biblioteca pertsonal ederra ere enkantean salduz kapitala gehitzeko. Enpresa honek laster lur jo du, eta Teatro Nazionalaren egitasmoak ere bai, jendeak teatro modu tradizionalari atxikiagoa jarraitzen baitzuen (komedia barregariari), gure gizona berriro leporaino zorretan geratuz. Lessing 1767ko

apirilean iritsi zen Hamburgora; 1769ko irailean Wolfenbüttelgo Bibliotheca Augustan (Leibniz ere bibliotekari izan zen berean) ardura-dun izateko eskaiutza, bere egoeran nekez uko egin ziezaiokeen eskaintza, helarazi zion Braunschweigeko Dukeak. Dena den, Hamburgoko egonaldi laburrean besoak antxumatuta ez da egon. «*Laokoon*» zakar kritikatu zuen Klotzi apenas leunago erantzunez, «*Gutunak antzinatea - rekiko gaia*z» eta «*Antzinakoek heriotza nola irudikatu*» paratu ditu azkar, «*Laokoon*»en segidari ekinez halaber. Hamburgon König eta Reimarus familiak eta Goeze Pastorea ezagutu ditu. Hansa-hiria uztlear, Herder hogeita sei urtekoa bisitan izan du hamalau egunez. Nekrologiorik objektiboena eta idazlea sakonki bezain aberats ezagutzailena, Lessing hil dadinean, gazte horrexek idatzia izango da.

Wolfenbüttel (1770-1781) izango da bere azken geltokia. Hemen, Bibliotekan aurkituriko hainbat eskuizkriburen argitalpenez gain, mendeko polemikarik sonatuena letra alemanetan piztuko du; «*Emilia Galotti*» estreinatu, «*Nathan*» poema dramatikoa ondu, etab., eta «*Gizadiaren hezkuntza*», «*Zerbait gehiago Ezezagunaren papere - tatik errebelazioari buruz*», «*Erljio errebelatuaren jatorria*», testu polemikoak, heldutasuneko obra gailenak, Ilustrazio alemanaren gailurra eta eztanda. Lessingek sasoi betean ematen du. Baina bakardadea gogorra egiten zaio. Osasuna ere laster etorri zaio behera. Depresioak eta melankoliak, borroka eta amorruarekin tarteka, zantzen dute. 1776an, Eva König, Hamburgon ezagutu zuen enpresari baten alarguntsarekin ezkontzen da. Jaio eta hogeita lau ordurako haurra hil egin zaie («ene poza laburra izan da»); egun batzuek geroago emaztea hil da («egin dut falta zitzaidan esperientzia»). Gainbeherako bizigiroa. 1778an (Voltaire eta Rousseau hil diren urtea) J. H. Campe pedagogoak bisitatzen du, Wilhelm eta Alexander von Humboldt anaien, aristokratek ohi zuten haurren etxekomaisua izan baita hori, ilustratu eta iraultzazalea. 80ko uztaillean Jacobik bisitatu du: honen «*Solasak*» argitaratzeak Lessingen inguruan polemikarik sutsuena haren heriotzaz haraindi luzatuko du, istiluon erdian hilko baita Mendelssohn adiskide leiala. Aro bat ilunabartzera doa. 1781eko otsailaren hamabostean hil da Lessing. «Eszena hau bukatu da», esan bide du koman sartu baino minutu batzuek lehenago. Perpaus horixe bera Mendelssohn adiskideari azken gutunean idatzia zuen. Hiru hila-bete geroago Kanten «*Arrazoimen hutsaren kritika*» agertu da.

Antzerkiaren erreforma, publikoaren erreformarak o

Ilustrazioko teatro alemana Italia, Frantzia eta Ingalaterrako influentzien emaitza da: Alemania batez ere hartzailea izan da, eta poliki-poliki (Lessingen eraginez, besteren artean) eraldatzailea gero, berria horrelaxe sortzen baita literaturan eta kulturean, elkar eragintzaz. «Commedia dell'arte» italiarraren influentzia Alemanian XVI. mendeaz gero nabaritzen da. Horrek eta komedianta ibiltari ingelesekin arierak bidea urratu diote, testuari lazoki bakarrik loturiko teatro herritar, jokamolde zaparrastatsuko, maiz astakilo edo obszenoraino gordin, herri xumearen dibertimendua beste xederik gabeko bati. Komedian pertsonaia tipifikatuak antzeztzen ziren (Pantalone, Arlecchino, Capitano, Dottore, etab.), eta akzio eta amaierak ere eske- ma jakina izaten zuen. Hasi eta buka bitarte horretan aktoreek jendea entretenitzeko libre zeukaten testuaren nahiz ekintzaren nahi adina inprobisazio. Teatro honetan aktorea eta akzioa bera zen dena —garraisi, keinutzar eta kolpeka—, ez testua, beti aski topikoa; eta landatar jende kaskarroaren kontsumorako bakarrik izaten zen, noble-ek eta elizak —Orixek esango zukeenez— gorotzetsia. XVII. mende- an, Frantzian aurrena, komedia hori arrafindu eta Gorteko trebatu da, hots, literarioa bihurtu da, laster Europa osoan imitatua izateko. Frantzia ilustratu honi Alemaniak asko zor dio. Hemendik garatu da «tipoen komedia saxoniarra», Gottsched prezeptista akademikoak erreformatu eta burgotarrak —burgesia— hezitzeko tresna bihurtua, hau da, hirietako jendea «ilustratzeko». Teatro aski sinplea da. Pertsonaiak bizioren baten (lukurreroa, jokalaria, kapitain harroputza) esterotipoak izaten dira; eta komedia guztia, hura ahal bezainbat ridi- kulizatzean datza.

Besterik zen Gorte eta jauregiako teatroa (Corneille, Racine). Aktore taldeak printzipioz berdinak ziren Gorteko eta antzerki ibiltari-koak, alegia berdin profesionalak ziren, eta Gorteren baten kontratua lortzea eta hala jarraitzea izaten zen talde guztien uzia. Baina jendau- rrea noblea izatean, gaiak ere nobleak izaten ziren eta «nobleagoa» jokamoldea ere: testua elizkizunetako antzera solemneki errezitatzen zen, aktoreen keinuek marioneten mimika rokoko mekanikoa errepro- duzitzen zuten eszenatokian. Eta, oroz gain, Errenazimentuaz gero eta batez ere barrokoan aginketan zuen poetologian, «estamentuen klau- sula»ren arabera, tragediako pertsonaiek klase nobleetako jende gur-

garria izan behar zuten, komediakoek klase behereetako barregarriak; zenbat altuagoa izan sozialki edo sinbolikoki antzezturiko heroi tragi-koa, hainbat hunkigarriagoa suposatzen zen hark eragin ondikoa, hainbat handiagoa tragediaren efektua. Tragedia —beraz, teatro serioa— nobleentzako bakarrik zen, eta gai heroiko eta sentimendu eta pertsonaia nobleetakoa. Nekazari eta kaletar edo burgesen tragediarik ez zegoen; horien istorioak, definizioz, komediak bakarrik izan zitezkeen. Hain zuzen jauregietan sarbidea aurkitu ahala joango da antzaldatuz komedia, izaera komiko satirikoa alboratu eta, baserritar edo burgotarren maitasun istorio sentiberetan espezializatzen hasiz hasieran («*sentimental comedy*» ingelesa, «*comédie larmoyante*» frantsesa). Eboluzio honekin, gehi Dideroten praktika («*Père de famille*») eta kritika teorikoa («*De la poésie dramatique*»), bidea zabalik zegoen Lessingentzat Ilustrazioko tragedia burges alemanaren oinarritzatzailea bilakatzeko.

Gaur zinema eta telebista diren legez, XVIII. mendean kaletar- raren —burgesiaren- ikuskizuna, haren entretenimendua eta kultur kontsumoa, teatroa zen, hots, komedia. Jeneralean ez dugu pentsatzen zinema eta telebista ikusliarrak moralizatzeko daudenik. Baina ezta- baidak behin eta berriro sortzen dira, gazteen biolentzian, esaterako, telebistako filmeek zer eragin duten. «Zein da komediaren xedea? Ikusliarren ekanduak eratzea eta hobetzea», deritzo Lessingek («*Beschluss der Kritik über die Gefangenen des Plautus*»). Itxuragabekoa begitandu dakiguke gaur apika moralismo hau. Goethek berak, teatroan sartzen den bezain ona edo gaiztoa ateratzen dela ikuslea, baieztatzen zuen. Nietzscherentzat jasanezina zen artea- ren halako ikuskera «deprimentea». Schadewaldt, bien iritzioi lotu eta, tradizio hau Aristotelesen interpretazio oker baten gainean eusten dela frogatzen, entseatu da. Guretzat hori berdintsu da. Komediari hobere- na —dio garbi asko Lessingek— ez da arauak zorrozki betetzen dituen, helburu moralari gehien hurbilketan zaiona baizik. Errenazimentuaz gero nagusituz joan den Aristotelesen Poetikaren interpretazio arruntean, artearen eta literaturaren helburua morala da, *prodesse et delectare* horaziarra ere halaxe endelegatuz. Lessingek berdin moralki definitu ditu fabula edo alegiaren xedea, edo epigra- maren funtzioa ere (eta Lessingentzat, teologiaren edo erlijioaren xedearekin ez da oso bestela izango, azken batean). Ilustrazio arrazio-

nalistan artearen helburua beti morala da, erreforma soziala eragitearen zentzuan. Beraz, antzerkiarentzat ez da aski izango banitate aristokratikoaren asegarria izatea jauregietan, edo bulgo arlotearen entretenigarria izatea hiri eta baserrietan, ezpada sozialki eraldatzailea izan dadila, esijituko du kritiko ilustratuak. Oinarrizko puntu honetan Lessing ez da Gottsched eta Ilustrazio zaharretik deusetan bereizten. Gero bai, beste arazo bat da, moralismoa nola konprenitzen den kasu bakoitzean. Esaterako, Goethek objektatzen duen hori, Lessingek aski ongi ikusia zuen hark baino lehen. Ados, —irakurtzen diogu «Hamburgoko Dramaturgian», 29. atala—, Molieren lukurrak ez du sekula lukur bat hobetu, Regnarden jokalaria sekula ez jokalaria bat hobetu; ero hauek ez ditu barreak hobetzen. Baina, «beraientzat okerrago, ez komediarentzat!», erantzuten du. Komediak aski du, gaixo erremediogabeak sendatu ezin baditu, osasuntsuak osasunean sendotuz. Molieren lukurrak, lukurrari irakatsi ezin diona, eskuzabalari irakas diezaioke; eta Regnarden jokalaria, jokatzeko ez duenarentzat lezio ona da. «Poesiaren genero guztiek behar gaituzte hobetu —idazten du—, hori frogatu beharrik baldin badago, tamalgarria da; are tamalgarriagoa, horretan zalantza egiten duten poetak badaude» («*Hamburgische Dramaturgie*», 77. atala). Izan ere, poesiak —literaturak, alegia— gizatiartu, humanizatu egiten gaitu. Karakter hau edo hura ridikulizatzen duen komediak, edozertarako ridikuluaren zentzuan sentiberatzen gaitu; tragediak, erruki sentimendua gure baitan sakontzen. Ezin dugu morala mekanikoki ulertu: Lessingek ez du antzerkia «bertuteen eskola» bat bihurtu gura. Egia da Ilustrazioan bazegoela joera arrazionalista, antzerki ona bezalaxe morala, perfektio arauen suma batek txiki-txikieneraino dena arautua suposatzeko. Baina Lessing, puntu horretan, ilustratua baino erromantikoagoa kontsideratu ahal izango genuke; edo, agian hobe (*Sturm und Drange*ko desmasiekin kritiko agertu baita), humanistago eta protestanteagoa soil: askatasun edo kreatibitate indibidualaren alde, arau edo estereotipo guztien gainetik.

«Tipoen komediatik» hasi izan zen arren, antitipoaren drama da, Lessingek laster apropos egiten duena, «Juduak» adibidez (1754; baina 1749an paratua, autorearen esanean: hogeitaz besterik ez zuela, beraz): judu jantzitako lapurrek basoan asaltatu duten baroi jaun, juduen aurka aurreiritziz betea, itxuragatik kristaua zirudien judu

batek salbatzen du. Hots, bertutea ez dago «tipoetan», ez da inkarnatzen klase edo taldeetan (klase bat, karakter bat, bertute —edo bizio— bat, identifikazioen maneran: kristauak onak, juduak gaiztoak; handiak sentimendu noblekoak, laborariak zekenak, ateistak inmoralak), pertsona konkretuetan baizik. Urte berean idatzi du Lessingek «Henzi», agitu berria zen matxinada politiko baten protagonistaz, orduan ez baitzen batere ohikoa eszenarako heroia honelako jazoera hurbiletan hautatzea. Militararren bertute tipikoa ohorea bada, «*Minna von Barnhelm*»en ofizial prusiar batek, amodioagatik bakarrik ezin eta, azkenean errukiagatik nola lortzen duen askatzea ohorearen bere kartzelatik, planteatzen da. Lessingek subjektu modernoaren sorrera azaltzen du —komentatzen du Peter J. Brennerrek—, aldi berean hasieratiko bertatiko horren hauskortasuna erakutsiz. Norbanako modernoa hozitzen hasi da, bere kontraesan guztiekin, teatroan.

Urte batzuek geroago, «*Sturm und Drang*»eko aldagoiak idazle aleman gazteen artean jeinuaren erabateko jareitasunaren doktrina barreia dezanean, ez tradizioi eta ez eskolari inolako estekarik gabe, Lessing norma finkoen eta idazlearen diziplinaren alde agertuko da. (Werther «*Emilia Galotti*» eskuetan duela hiltzen da: Lessingi omenaldi keinu bat. Baina honi ez zaio batere gustatu, antza, eta Goetheren «*Berlichingen*»ek ere entusiasmatu ez beste guztia egin bide du). «Jeginuaren eusleen mugimendutik aldaratzen duena, zerbait inportantea da, —ohartzen du Max Kommerellek—: bere fedea artearen legezkotasunean eta artean legearen betegintza gisa, baina, batez ere, batere aintzat ez hartzean poetaren subjektibitatea, poesian hori espresatzen den bezainbatean». Poeta, beti, artisau maisu bat da harentzat. Erromantiko bat izatera inoiz heldu gabe, hortaz, autorearen independentziaren borrokari bat izan da bera hala ere estekadura klasizisten (arrazionalisten) aurka. Ilustrazio goizean, J. C. Gottsched gogotik permatu da literatura barrokoa —herri teatroa bereiziki- erradikalki erreformatzen eta jasotzen (zibilizatzen!), klasizismo frantsesaren antzera erregela akademiko estuekin arautuz («*Versuch einer Critischen Dichtkunst vor die Deutschen*», 1730). Leipzigeke bere katedratik, letretako maisu eta autoritate sakratu bezala agintzen zuen. Lessingek, ordea: «Inork ez du ukatuko, diote Bibliotekako autoreek, teatro alemanak bere estreinako hobekuntzaren parte handi bat Professore Gottsched Jaunari zor diola. Inor ez hori, ni naiz; nik zeharo ukatzen

dut», exabrupto lotsagabearekin hasten du, Gottschedekin kontuak garbituko dituen «17. Gutun»eko eraso famatua (1759). Egiaz, Lessingek asko zor zion Gottschedi, eta agian berak uste baino hurbilago zegoen orduantxe ere harengandik, artearekiko esijentzia moraletan esaterako. Ez dago zergatik lehen Ilustrazioaren merezimenduak ukatu. Gottschedek, bai teoriko gisa eta bai autore eta itzultzaile gisa, ekarpen handia egin zuen Alemania ilustratuan jendauarrearen gustu literarioak txukuntzeko, leuntzeko. Bakarrik, profesore arrazionalistak sentimendu eta inspirazio plantxatuak soilik dastatu ahal zituen, eta, azken batean, arlotekeriak eta mintzamoldeko sinomino eta haizepuzkeriak bezalaxe, miragarritzkoa oro poesiatic edo grinatsua teatrotik desterratzen zituen, neurri eta hharmonia klasikoen aitzakiaz: Shakespearen indar basatiak higuin eragiten zion eta Klopstocken poesia biziberoa ezin eramangarria zitzaion. Lessingek leporatzen zion Gottschedi, literatura alemana, imitazio artifizialen bidetik sarrarazi (frantsesen imitazioa), eta abiada berri propio baten sorrera eta bilakaera, lagundu ordez, eragotzi egin zuela, bere prezeptiba klasizista/arrazionalista itxiarekin. (Filosofian funtsean berdina izango da Kanten kritika Ilustrazioari, dogmatismoa baita, hau da, arrazionalismoaren —«arrazoimen hutsaren»— kritika falta, hark ere egozten diona). Garaiko eztabaida literario nagusian —eredu klasizistarena— Gottscheden eta «suintzarren» artean (Bodmer eta Breitinger), Lessingek hartu duen posizioa konplexuegia da hitz bitan esateko. Dena zen katramilatsuegia. Edo, gauza gehiegi zegoen dena denarekin korapilatuta. Arauaren ala inspirazioaren (jeinuaren) lehentasunaren auziarekin, eredu frantses ala ingelesaren eztabaida nahasten da: Shakespeare versus Racine/Corneille; guztiaaren barnean nolabait Antzinako eta Modernoen kereila dabil jokoan; honez gero Antzinakoen beren interpretazio zuzen(ago)aren afera eransten zaio ordea: Antzinakoen interpretazio frantsesa versus alemana; honi Winckelmannek eman dio —1755— berealdiko bultzada. Lessingek polemika sistematiko bat eredu frantsesarekin ez dauka, baina hiru batasunen edo nolanahiko arau artifizial guztien gainetik talentua lehenesten du —Bodmer eta Breitingerrek baino areago—, originaltasuna, ekintzaren garapenaren naturaltasuna, eta jendauarrearen hunkipena batez ere, zirrara. Obra ona ez du arauzkotasun perfektuak egiten. Baina joera «antifrantses» honetan —egia da, maiz kritikatu dituela klasiko frantses handienak—, bere aliatu kementsuena Diderot du hain zuzen, berak aparte estimutzen

duen teorikoa eta autorea («Aristotelesez gero ez da egon teatroaz okupatu den beste espiritu filosofikoago bat»). Voltairekiko kritika eta ziri-ka konstante bat izango da Lessingen traiektoria osoan («el adversario mayor y el más agudo crítico que ha encontrado Voltaire en el siglo XVIII» derizkio Cassirerrek: *La filosofía de la Ilustración*, 1972), baina haren itzultzaile, komentatzaile eta ikasle saiatua izan da aldi berean. Topiko faltsu bat badago, oso zabaldua, Alemaniako pentsamendu eta kulturako joera «antifrantsesak» inbasio eta gerra napoleonarrekin esplikatu ohi dituen: lehenengo, gertakariak baino mende erdi bat beranduago jartzen du haien kausa; bigarren, joera «antifrantses» (berdenboran aski frantses) horien jatorria historikoki literario-kulturala izan da, ez politikoa, eta gutxiago nazionalista, Alemania oraindik Inperioaren kontzeptuarekin bizi da eta, inolako aspirazio nazionaletatik urrun.

Ilustrazioarentzat eredua klasiko greko-latinoak zirela dogma zen, Frantzian bezala Alemanian. Klasikoa da «arrazoizkoa», eta arrazoizkoa da naturala, hiruron berdinketa Lessingek ez zuen auzitan jartzen printzipioz (M. Kommerell: «Aristóteles fue equiparado pretendidamente a naturaleza y razón»). Baina, bat, gaur eta gaurkoa produzitu behar zen; eta, bi, egiaz klasikoa al zen —hots, arrazoizkoa eta naturala—, frantsesak halakotzat saltzen eta alemanak erosten ari zirena, ala, askoz gehiago, original klasiko grekoaren imitazio baten (Seneka) imitazioaren (frantsesa) imitazio alemana? Lessingek literatura alemanarentzat bide propio bat bilatzen zuen, imitazioek ez baitute inora eramaten. Dena Frantziaren (Versaillesko Gortearen) imitazioa zen Alemania batean, literatura ere Frantziaren imitazioa lotu zuen Gottschedek. Teatro arloan sekula sartu ez balitz, hobe izango litzatekeela, esateraino zakartu zaio, horregatik, Lessing. Teatro frantses klasizista, azaleko itxurak kendu eta, barnenean eta funtsenean zein ezklasikoa den, salatuko du, egiazko klasikoetara itzulera aldarrikatuz. Klasikoetara berrituzi beharraren aldarrikapena konstante bat da Lessing baitan, genero guztietan (fabulan bertan ere, Lafontainen alegien xarmarentzat sentsibilitate gutxi erakutsiz bide batez). Bide berri eta oinarri berri bila, Lessingek autore klasikoak sakon aztertu ditu, eta —bere interpretazio eztabaidagarriarekin— Aristotelesen berrirakurketa bat egin du, haren *Poetika* zen kanon sakratua irakurketa frantsesetik askatuz, literatura bere jatortasun eta

garbitasunean berragertarazteko, bere naturaltasun zinez klasikoan alegia. Izan ere, umilia daiteke arrazoimen poetikoa, arauen kunplitze mekanikora lotuz. Hala Voltairek denbora eta leku batasun konbentzionalen arauetara bortxatu du nahitaez «*Mérope*»: eta gertatu, gerta daiteke, teorian, egun batean, Voltairek hor gertarazten duen guztia; baina arrazoizko gizaki inork ez luke egingo hori dena egun batean. Ohartzen gara nola hitzetan, ezen ez arrazoietan, Lessingek kritika honekin Akademia Frantsesarekin kointziditzen duen, honek Corneillen Cidari kritika horixe egin baitio (ik. *La Querelle du Cid*, «*Les sentiments de l'Academie Française sur la tragicomédie du Cid*»). Baina kritika berdinarene barnean esanahia kontrarioa da: Akademiak arrazoizkotasuna arauaren pean esijitzen du; Lessingek arrazoizkotasunaren pean araua. Arauak, bestela, ederrari eutsi ordez, artifiziala eta eznaturala probokatzen du. Arrazionala (araua) irrazionalena gertatzen da horrela.

Cassirerrek ongi ikusi du. Lessingen borroka drama frantses klasikoarekin, sentimenduaren borroka arrazoimenak ezarri konbentzioen aurka ematen du estreina (hori ere badela, esango genuke): ginen mintzo bero jatorrizkoaren lekuan, jendetasun eta urbanitate gortesuaaren arazeria artifizial zurbila ipini du teatro frantsesak, Lessingek atelekatzen dionez. «Baina —aipatzen du Cassirerrek haren pasartea— ponpak eta etiketak gizakiak makina egiten baditu, poetaren eginkizuna makina hauek berriro gizaki egitea da». Horrela, Lessingek errebindikatzen duen sentimendu poetikoaren eskubideak, «arrazoimenaren» eskubide eta determinazio berri bat ezkutatzen du substantzian: jeinu dramatikoaren kreazioan errebelatzen dena, arrazoimenaren ahalmen gorena da. Baina arrazoimen berri bat da hau. (Arrazoimenaren kontzeptu berri bat da —alegia, Modernitate berri bat—, Lessingengandik Kant eta Idealismoraino garatuz doana).

Letrak beren jatorrizko jatortasunean berrezartzeko, hau da, arte eta genero bakoitzaren garbitasuna definitzeko, mugatzeko interres horri zor zaio «*Laokoon*» halaber, titulu osoak jakinarazten duenez: «*Laokoon edo pinturaren eta poesiaren mugei buruz*». Lessing ez da sistematikoa izan ohi, hemen ere ez da. Berak esango duenez, irakurketak egin ahala bururatu zaizkion eran joan da idazten artikuluoak (kapitulu bakoitza artikulua bat aparte da bere baitan), inolako sistemaren bila ahalegin gabe. Horrek hainbat parentesi, zeharbide, ohar,

digresio, eskurtso, joan-etorritan ibiltze libreko aukera ematen dio, irakurlea batzuetan galduta senti baitaiteke basoan. Baina gaia, garaian modako «ut pictura poesis» horaziarren aurka, hasieratik zuzen destatua dago, ez da inoiz galtzen bistatik. Alferrik ez nahasteko, irakurleak gogoan izan beharko du, generoen kontzeptuak orduan ez zirela gaur bezala mugatu ohi: «pintura»ren kontzeptuan sartzen da plastika (eskultura); «poesia»k lirika, epika (nobela ere) eta dramatika, denak biltzen ditu. (Beraz, teatroa «poesia» da). Lessingek bi joera kritikatzeko du: poesian, pintatzeko mania (paisaia edo pertsonaien deskribapen barrokoak); pinturan, «alegoriakeria», ideiak aurkeztu edo filosofatu nahi izatea. Generoaren garbitasuna galtzea, funtsean, batean zein bestean. Greziaren espresio ideala Partenoian ikusi ohi dugu, ez Eskiloren tragedia batean. Winckelmannek Laokoonen eskultura eta Virgilioren Laokoon literarioa kontragarri ditu, marmoreari jatorragoa —klasikoago, grekoagoa— iritziz. Gizatasun ideala- ren espresio (greko) gorena plastikan ikusten duen klasizismoaren buruz buru, arte huts gorena, ekintza moldatzen duelako —ez irudi bat edo soil—, eta ekintza delako gizatasunaren espresio gorena, dramatikoa dela, erakusten saiatzen da Lessing. Ederraren espresioa irudimenarekin lotzen da (gaur hori ohikoa da, Lessingi eskerrak hain zuzen); baina ez, aurrenik behintzat, sortzailearen irudimenarekin, hartzailearen irudimenarekin baizik (irudimen birkreatzailea). Arte obraren fruituortasuna, efektuan, ikusleagan eragiten duen irudimenaren mugimenduan neurtzen da. Horretan datza, hain zuzen, literatura- ren gehiagotasuna: pinturak zuzenean ikusaraz dezakeen guztia baino gehiago eta hobeto iradokitzen du Homerok zeharka —hots, bera deskribatu gabe— Helenaren ederra, honek bere ingurukoen artean eragiten duen inpaktoa aipatuz, gure irudimenari hala espazio azkengabeak irekitzen baitizkio. Beraz, estetika honetan ikuslearen irudimena da instantzia erabakigarria. Kant Lessingi jarraituko zaio (Nietzschek puntu horretantxe kritikatu egingo du Kant). Eta Heideggerrek, hain zuzen pinturak —espresio kontzeptualak ez bezala— irekitzen dizkiola irudimenari espazio azkengabeak, erakutsi gurako digu, Van Goghen zapaten adibidearekin.

Ideak bezala, hizkuntzak ere historian ikusi behar dira, eta literaturak hizkuntzaren historiaren barruan. «*Laokoon*»en irakurketak eragin ziola Goethek aitortzen duen sekulako zauskada, eta obra

horren berebiziko inportantzia literatura eta pentsamendu alemanean, ez lirateke ulertuko bertoko ideiegatik bakarrik, hizkuntza alemanak lehen aldiz hor erakutsi duen giharra eta indarragatik ez balitz. Hizkuntza alemanaren berregile bat da Lessing saiogile kritikoa.

Polemika teologiko-filosofiko artean

Historian artista edo intelektual «autonomoa» —teorian Errenazimentuan altxatu omen dena hori— praktikan nahiko berria da. Ilustrazioko autore handiek, goizean kritikoak hasi eta (baina zeren kritiko?), arratsaldean erregeen zilarrezko kuberteriarekin afalduz bukatzen dutela, ikusten dugu, Despotaren faborito (Voltaire Prusiako Federiko II.arena, Diderot Errusiako Katarina II.arena), segurantzia sozial eta ekonomikoa Gorteko jaun eta damen konpainia entretenituan aurkituz. Bere burua jasotzearen aristokraziarekin berdindu-nahastera (askotan ezkontza bidez) aspiratzen zuen burgesiaren fenomenoaren antzera, idazleek eta artistek ere, garai horretan, Gortearen edo jauregi aristokratikoaren abaroan bilatzen dute promozioa — alegia, frantsek (Europa osoan autore frantsesak dira Gortean estimutzen direnak): alemanek Berlinen bertan alferrik bilatuko baitzuten Gortearen adiguria. Potsdamgo Erret Jauregian hainbat ilustratu frantses eta atzerriar topa zitezkeen: Voltairez gain, Maupertuis matematikaria, Berlingo Zientzien Akademiako lehendakaria («Académie Royale des Sciences et Belles-Lettres», guztiz zuzen esateko); La Mettrie, gizaki makinaren asmatzaile materialista, ateista aitorra; Marquis d'Argens «filosofoa», etab., eta Jamets eta George Keith libre-pentsatzaile eskoziarrak, Francesco Algarotti italiarra, etab., erregeak bere solaskide izateko deituak eta printze gisa mantenduak, baina «espiritu argitu» alemaniarrik ez.

Marginazioan bizi ziren letra alemanak. «Teatrorik batere ez dugu! Aktorerik batere ez dugu! Entzulerik [ikuslerik] batere ez dugu!», adiakatzen da Lessing («81. Gutuna»). Zer alde Frantziarekin! «Frantsesak badauka gutxienez antzoki bat; alemanak ez dauka txosna bat besterik. Frantsesaren antzokia hiriburu handi oso baten dibertimendua da gutxienez; alemanaren hiriburuetan, txosna bulgoaren irria da. Frantsesa banaloria daiteke, maiz bere monarka, Gorte handios oso bat, erresumako jaun handiki eta ohoragarrienak, mundurik finena entretenitzen duelako gutxienez; alemanak kontent

izan behar du, dozena pare bat partikularrek entzun nahi badio». Autore alemanetan maiz aurkitzen da plainua hizkuntza alemanaren eta partikulazki literaturaren desanparoagatik printze eta handikien aldetik. «(Literatura alemanak) ez zuen garatu bere lorea/ Printzeen fabore distiratan», kantatuko du Schillerrek («*Die deutsche Muse*»). Zinez, Frantzia edo Ingalaterraren aldean, Alemania oso atzeratuta zegoen XVIII. mendean politiko-ekonomiko nahiz kulturalki. Errenazimentuko pizkunde humanista, lehenengo batean protestantis- moak, estudioen erreforma eta sustapen oldartsuarekin, bere erara bideratu badu, gero, hogeita hamar urteko erlijio gerrek (1618-1648) zeharo abarrikatuta utzi dute Alemania: landerri nekazaria lardastuta, oihal industria kiskaldurik, hiriak deskeginda, garraio eta komunika- zio bideak basatuta, Inperioa mila eskualdetxotan birrinduta, egiazko autoritate bat gabe, politikoki desartikulatua («anarkia osatua» iritzi- ko dio Hegelek), erlijiosoki zatitu eta sakabanatua hainbat konfesio eta sektatan, kulturalki zarpailduta. Inprimeria, Erreformako gatazke- tan alderdien arma efikaz bezala garaturik, bizkorra Alemanian, lur- jota geratu da: urri eta gaizki inprimatzen da, papera txarra da, kalita- te eskasekoa tipografia gotikoa. Liburu merkatarien estamentua arrui- natua badago, idazle eta irakurzaleena (intelektualena) ekonomiko eta sozialki kasi marginala da. «Liburuen inprimaketa eta salmenta arrunt atzeratua zegoen Alemanian, beste eskualde europarrekin alderatzen bada, irakurtzen diogu P. Raaberi. Baina XVIII. mendearen erdi alde- ra hori aldatu egin da, hainbateraino, ezen Alemanian gizarte ilustra- tuaren sorrera eta finkapenean libreroren gremioak modu absolutuki erabakigarri eta profesionalean parte hartu baitu». Raabek 1764tik aurrera seinalatzen du berpizkunde hau, berriztearen zentroak Leipzig eta Berlinen kokatzen dituela. Idazleak, batzuetan, autonomo biziraun ahal izateko iturri ekonomikoen bila, librero edo inprimatzaileekin batu dira, editore eta banatzaile berak bihurtzeko, etengabe liburu, almanaka, aldizkari beti berriak ekoiztera beharturik. Lessingek ere hala entseatu du eta porrot egin Hamburgon. Idazle ofizioa, karakte- rra eskatzen zuen abentura zen, Diltheyrekin esateko. «Mugimendu bortitzak gazte andana bota du, estreinako aldiz Alemanian, lanbide literarioaren besoetara; baina denak, Weise, Engels, Moritz, Dusch edo zirenak zirelako guztiak, biziaren erdi aldera, bizi ahal izateko, beste genero batzuetako zereginetara jotzera behartuak aurkitu dira, ia beti irakaskuntzara. Besteek, poeta lirikoek batik bat, hasieratik berta-

tik bizimodu erosoagoa eraman ohi zuten, beren barne bokazioarekin bat ez zettorrena, baina noizean behin beren gogozko jaieran jarduten uzten ziena, edo Gortetik errentaren bat jasotzen zuten. Bere bokazioarentzat oztopagarri izango zen inolako posturarik hartu ez zuen bakarra, Lessing izan zen», idatzi du Diltheyk. Baina egia, Lessingek ere, amore eman eta, «Printzearen zerbitzuan» lana hartu beharra eduki duela, da, eta lanbide horrek kontrol edo zentsura modu bat ere esanahiko duela, berehala sortu zaizkion (dituen) polemika teologikoetan ikusi denez. Garaikideek ere, Lessingen Braunschweigecko Printzearen eskaintzaren onarpena, beste hainbat kapitulazio pertsonalen zerrendan bat gehiago bezala juzgatu dutela, Matthias Claudiusen gutun batean (Darmstadt 1777.04.20) hautematen da: [Idazle denak kolokatzen ari dira] «Hamannek erdietsi du, Prusiako Erret Herrialdeetako zerbitzu guztietarik berak nahiago zuena eta hautetsia zuena, Goardiaren magazineko inspektoreburu Königsbergen. Lessingek König Andrea esposatu du eta bibliotekaria da oraingoz Wolfenbüttelen (...). Herder superintendente bilakatu da Weimarren eta Stolberg gaztea Eutingo mandataria Kopenhagenen 3.000 taleroekin».

Wolfenbüttelen, bibliotekako saguaren bere senarekin, aurkikuntza harrigarriak egin zituen laster fondoetan, «Historia eta Literaturaz. Wolfenbüttelgo biblioteka dukaleko altxorretatik» saila sortu eta bertan argitaratzen hasi zituenak. Urtea pasa baino lehen Berengario Tourseko, 11. mendeko autorearen, galdua uste zen testu bat eman zuen ezagutzera; Andreas Scultetus poeta barroko silesiarren argitalpenak jarraitu zuen. Baina argitalpen historikoa, Lessing bere bizitzako azken polemika handian nahastuko duena, «*Anonimo baten fragmentoak*» izan da, Reimarusen ondaretik familiak eskuetara ziona, berak bibliotekan topatua balitz bezala jendaurrean zabaldua (1774 eta 1777). «Fragmentoen polemikak» («Fragmentenstreit»), astiro eta nekez bezala hasi eta gero, urteak iraungo du bizi-bizi, eta modernitateko eztabaida teologiko-filosofiko erabakigarrirenetakoa bilakatuko da, ondoriotsua sakonki filosofia alemanarentzat eta, gero, XIX. mendeko Bibliaren kritika protestante liberalarentzat. Polemika horretan edo horren jarraian ekoitzi dira euskaraz eskaintzen den antologia honetako testu gehienak eta mamitsuenak: «*Zerbait gehiago Ezezagunaren paperetatik errebelazioari buruz*», «*Arrazoizko kristau -*

tasuna», «Erljio errebelatuaren jatorria», «Espirituzko eta indarrez -
ko frogantzari buruz», «Nathan jakintsua»...

Hermann Samuel Reimarus (1694-1768) Hamburgoko Johanneum Gimnasioan [Institutua, Lizeoa] hizkuntza orientaletako irakasleak, hiltzean, hainbat eskuizkribu argitaragabe utzi zuen: horietariko fragmentoak argitara ditu anonimoki Lessingek (ik., antologia honetan, «Ezezagunaren paperetatik»). Reimarus —dio A. Schweitzerrek— Jesusen bizitza historikoki ulertzen ahalegindu den lehena da. Alegia, Reimarusen aurretik sekula idatzi izan den Jesusen bizitza bakarra, Schweitzerren arabera, jesulagun batena izan da, pertsiar mintzairan, eta euskaldun bat, Frantzisko Xabierren biloba Hieronimo Xabier Ezpeleta Goñi, Nafarroako Beiren munduratu, izan da idazkiaren egilea, Akbar Hindostango kaiser mongoliarrarentzat. Akbar kaiserra (1542-1605) islamiarra zen bera, baina konkistatu zituen lurraldeetako hinduismoarekin sinpatizatzen zuen, begirune handia erakusten zien misiolari kristauetara halaber. Bere helburua konfessio bakoitzeko baliotsuena hartu eta erlijio bateratu handi bat osatzea zen. Datuen hautapena edo bazterketa kaiser interesatuari Jesusen irudirik bikainena azaltzeko moduan adalatuz, atzera eragin ziezaiokeen dena kendu eta miragarriena pilatuz, ebangelioetatik zein apokrifotatik, Jesulagun nafarraren pertsierazko Jesusen bizitza, *ad usum Caesaris*, «faltsifikazio arrafinatu» bat ei da. Lutertarrek behintzat hala ikusi bide dute. Testu pertsiar hori XVII. mendean merkataritaren bidez Europa heldu zen eta, katolizismoa desmozorrotzeko asmoz, teologo protestante batek latinera itzuli zuen, agerian jartzeko, jesuitek, Mogol Handia irabaztearren, ebanjelioaren nolako manipulazioak egiten zituzten —«*Historia Christi persice conscripta simulque multis modis contaminata a Hieronymo Xavier, lat. reddita et animadd. nota a Ludovico de Dieu*», Lugdunum 1639. Jesuita nafar honi buruz ikus daiteke A. Santos Hernández, *Jerónimo Javier S. J., Apóstol del Gran Mogol (1549-1617)*, Iruñea d/g.—. Jesulagunaren Jesusen bizitza apologetiko honetan ez bezala, Reimarusen ikuspegia zorrozki eta estriktoki historikoa da —premisia teologikorik batere gabekoa—, ulertu ahal izateko XVIII. mendea prestaturik ez zegoen modu erradikalean. Zein izan da zehatz-mehatz Jesusen beraren mezua, galdetzen zuen Reimarusek, apostoluek (eta Elizak) esaten dutena eta Jesusek berak esan zuena ebaki eta bereizi nahiz. Reimarusen konklusioan, Jesusen

funtsezko mezua oso laburra zen: «konberti zaitezte, Jainkoaren erresuma hurbil baita». «Jainkoaren erresuma» bere esanahi judu doian ulertu behar da: Bataiariak eta Jesusek adigai hori ohiko adieran erabili dutela, sekula esplikatu ez dutelakotik ageri da; beraz, juduen ohiko esanahian esaten zuten eta ohiko esanahian nahi zuten ulertuak izan (ez orain egin ohi den adiera teologikoan); beraz, erlijio judutarraren eta itxaropen mesianikoen barruan kokatzen ziren. Jainkoaren erresumaren esanahi arrunta mesianiko politikoa zen: Israel askatu eta munduan nagusiaraziko zuen Mesiasen erresuma. Jesus, hortaz, matxino politikoa bat zen, Israel erromatarren menpetik askatu eta nagusitasunera mundu osoaren gainean jaso nahi zuena. Juduen artean anitz baitziren Mesiasen etorrera hurbila igurikaten zutenak, milaka batzuek aise sinestu zuten agindutako Mesia edo profeta hori Jesus zela. «Jainkoaren semea» kontzeptuak ez zuen deus beste zerutarkirik adierazten: Jainkoaren haurra zen Israel, Jainkoaren semeak ziren Itunaren Herriko erregeak, eta Mesiasa zen bereiziki Jainkoaren semea, hots, kuttuna. Jesus historikoa eta bere mezua historikoki zintzo ulertzekotan, Jainko semetasunaren eta Trinitatearen metafisika dogmatiko guztiak baztertu beharra dago halaber. Orduan garbi ikusten da Jesusek ez zuela inola ere erlijio judua abolitu eta haren lekuan erlijio berririk sortu gura izan. Aitzitik, haren fede ziurra, Mt. 5, 18k dioen bezala, zen, «zeru-lurrek dirauten bitartean ez Legeko hitz ez zipitz batek, zeinu txikienak ere, ez duela baliorik galduko, dena bete arte». Jesus erabat partikularismo erlijioso-nazional juduaren barnean dago; beren beregi debekatu egin zien apostoluei jentilen lurraldeetara joatea, Samarian sartzea ere, eta Israelen soil-soilik predikatzerara mugatzeko agindu zien. Apostoluak izan dira, hortaz, gero, zirkunstantzien zamaren pean, erlijio berri bat unibertsala asmatu behar izan dutenak. Bataioa eta Afari edo Euskaristia sakramentuak, etab., elizaren, hau da, apostoluen asmazioak dira: Jesusek berak inoiz ez zuen bataiatu; Afaria behin bakarreko episodioa izan da, Pazkoa juduaren ospakizunarekin loturik dagoena, sakramenturen baten sorrerarekin zerikusirik gabe. Jesusek sendaketa harrigarriak egin dituela, bere garaikideek miraritzat jo dituztenak, ez dago zergatik ukatu. Baina ebangelioetan kontatzen den mirari asko eta asko, Jesusen Mesiastasuna, esanahi berri batean, erakusteko baliabide literario teologikoa baizik ez da, a posteriori atondua. Zinezko miraririk (bere mesiastasunaren jainkozko erakusgarria izan behar zuena) ez du egin; bestela ez da ulertzen,

Jesusen auzia hasten denean, Jerusalemgo buruzagiek «zeinu bat emateko» eskaera. Eta Jerusalem, mundu guztiak haren mesiastasunaren errebelazioa eta froga espero zuenean, egiaz miraria behar zen une gorian, ez du ezer egin ahal izan. Bi aldiz uste izan du Jesusek berak, mugimendu mesianikoa pizteko bere ordu handia jotzera zihoala. Behin, apostoluak herriz herri predikatzeraz bidali dituen; seguru sentitu da, herri guztia samaldan bilduko zitzaioala. Hala esan die: «Benetan diotsuet: Gizonaren Semea etorri aurretik ez dituzue Israelgo herri guztiak igaroko». Baina apostoluen predikazioak ez zuen itxarondako herri jaikiera masiboa eragin. Bigarren aldian berak pertsonalki nahi izan du probokatu momentu erabakigarria, asteme baten gainean Jerusalem sartuz, herriak keinu horretan Zakariaren profeziako seinalea igarri zezan. Baita jendeak halaxe ulertu eta «Hosanna Dabiden Semeari!» oihuka hari atxiki ere bero-bero. Hori ikusi eta suturik, boteretsuei zuzenki buruz buru jarki zaie oraingoan, Tenpluan autoritate osoaz bera jabetuz, trukalari eta saltzaileen mahaiak irauliz, legemaisuak itsuski irainduz, sermoi eta mehatxu gartsutan herria Sanedrinen eta fariseu eta apaizburuen aurka asaldaraziz. Jesusen portaera guztiak Jerusalem, judu herriaren azken erabakia derrigortu nahi zuela, erakusten du. Bakarrik, hori ez da, berak uste zuen eran etorri. Autoritateek erreakzionatu eta istorio guztiari amaiera azkar bat ipini diote. Jesus, atxilotua izaterakoan, ikara laborriak hartu du. Eta gurutzean, «ene Jainko, ene Jainko, zergatik abandonatu nauzu?» etsiarekin ezbainetan hil da porrot eginda.

Nola burutu dira apostoluak fingaitz honekin? Jesusek itxaropen mesianikoen betetzea «belaunaldi hau iragan baino lehen»erako agintzen zuen. Orain, beste erremediorik ez da gelditu, Mesiasen etorrera zentzu espiritualista batean berrinterpretatu baino. Israelen, egon, bazegoen promesa mesianikoaren bigarren tradizio hori, Daniel profetak hasitakoa, Mesiasen bi etorrera agintzen zuena, estreinakoa gizatasun landerrean eta oinaze artean, bigarrena loriazko nagusitasunean zeruko lainoetan. Gurutzeko heriotza laidozkoaz itxaropen mesianiko politiko-nazionalak betiko huts egin zutenez gero, beste tradizio honi heldu beste biderik ez zitzaien apostoluei gelditzen, Jesus ezagutu baino lehenagoko beren lan astunetara itsasoan edo laborantzan ez itzuli, eta predikazioaren kontura bizitzen jarraitu nahi bazuten, komunitatearen ondasunetatik jabez, denak bigarren etorre-

raren zain-zain Jerusalemen bildurik. Esperientzia egina zeukaten, Jainkoaren erresumaren predikazioak bere gizona mantentzen duela: Lukas 8, 1-3k kontatzen digu, nola Jesus herriz herri eta auzoz auzo zebilenean, Hamabiekin, Jainkoaren erregetzaren berri ona hots eginez, hari eta haren ikasleei emakume multzo batek, Jesusek «espiritu gaiztoetatik sendatuek», beren ondasunekin laguntzen zien. Bakarrik, horretarako Jesusen heriotzari beste zentzu bat, de fakto eduki zuena baino, eman beharra zegoen agudo: halaxe asmatu zen Piztuera. Apostoluek Jesusen gorpua ebatsi eta ezkutatu zuten, eta piztu egin zela eta laster itzuliko zela, aldarrikatu zuten mundu guztiari. (Badaezpadan berrogeita hamar egun itxaron zuten, hila hobiratu eta gero, predikazio hau hasi aurretik). Parusia da, beraz («etorrera»), Lehen Kristautasun edo Elizaren sortzailea eta lehen fedearen eduki guztia. Eliza ez da erne Jesusen predikaziotik, parusiaren esperantzatik baizik; eta haren hutsegiteak iraunkortu du. San Paulo tesalonikarrei mila aitzakia asmatu beharrean ikusten dugu, etorrera zergatik atzeratzen ari den. Eta Pedroren bigarren gutunak jada sofisma lotsagabe batekin konpontzen du arazoa, Jainkoaren begitan mila urte egun bat dela esanez. Gure kristautasuna iruzur historikoaren gainean eraikia da, hortaz.

Reimarusen prosa atseginez irakurtzen da, plazer bat da. Schweizerrek asko goratzen ditu haren zolitasun historikoa, xehetasun exegetikoaren dohaina, testu zentralak atzemateko sen hutsezina, haren pasarte askoren edertasun literarioa ere. Baina Reimarus, historialari paregabeko zorrotza izateaz gainera, arrazionalista bat da; eta arrazionalista ilustratu gisa, erlijio naturalaren, arrazionalaren aitorlea (deista). Kristautasunaren jatorri gizatar, gizatarregitxoa ebidentzian jarri eta gero, dogma eta irakatsi kristauen arrazionaltasuna jausten zaigu auzitan, jada ezin baitira beren jatorri jainkozkoaren arrazoiaz legitimatu. Erlijio orok pretenitzen du jainkozko jatorrikoa bera bakarrik izatea. Baina denak dira historian sortuak. Kristautasuna, historian noizbait hasi eta nolabait garaturiko zerbait den bezainbatean, edozein fenomeno historiko bezalaxe behar dugu aztertu eta argitu, metodo eta irizpide berberekin; haren irakaspenak, edozein beste doktrina filosofiko edo erlijioso bezalaxe behar ditugu arrazionaltasunaren kriterioekin haztatu, probatu, juzgatu. Mirariekin, jainkozko jatorria frogatzen omen dutenek, egon direla onarturik ere hipotesian, ez dute

doktrina baten egia edo ezegia frogatzen. «Mirariekin bi gehi bik bost ematen duela, edo zirkulu batek lau angelu duela, frogatzerik dagoen bezain gutxi dago, mirari pila batekin emendatzerik, kristautasunaren irakaspenetan eta historietan nabarmenki dagoen adina kontraesan».

Lessingek ez ditu Reimarusen fragmentoak, horien edukiarekin ados zegoelako, publikatu. Fragmentoekin batera bere «Diferentziak» edo antitesiak argitara ditu («*Gegensätze*»), eta ez maltzurkeria edo zuhurtzarren bakarrik, jasa bazetorren, bere burua aterian gordezteko. Alta, arrazoi anitz bazuen publikaziorako: ez zen batere kontent Ilustrazio protestanteko teologia («Neologia» esaten zen) «arrazional»arekin; ez zen kontent, teoria eta doktrina abstraktu bilakaturiko kristautasunarekin: egitatera eta «haurtxook, elkar maita ezazue» esentzialera itzularazi nahi baitzuen berak («Joanen Testamentua» — hau funtsezkoa da Lessingentzat: «egia», orduan, egintzan datza, ez doktrinan); ez zen kontent ilustratuen intolerantzia eta, askotan, simplismoarekin ere erlijioaren kritikan, Reimarusena berarena salbuetsi gabe: premiazkoa zelakoan bere ustez erlijioaren kritika bera kritikatut eta eztabaidatzea (Ilustrazioko «erlijio natural» arrazionalistak erlijio historikoen balio positiboa erabat ezezagutzen baitzuen: Lessingek, bada, Gizadiaren Hezkuntzako ikuspidea kontraproposatuko du, jada bidea zabalduz Hegelenganaino iristeko); ez zen kontent, auzi eztandagarriak latinez tratatuz desaktibatzen zituzten ilustratu elitistekin (bere kontrarioek «*Fragmentoen polemika*» alemanez piztu izana aurpegiratuko diote; Herrialdeko Jaun Braunschweigeko Dukeari ere latina ez erabili izana gaitzitu zaio oroz gain). Maiz esan izan denaren oso bestela, «Fragmentoen polemika» ez da Ilustrazioaren eta ortodoxiaren artean borrokatu, Ilustrazioaren barruan baizik. Lessingen arerio gailena, Hamburgoko Goeze Pastorea, bete-beteko ilustratua da; jantziagoa eta estriktuagoa, gainera, filosofia arrazionalista ilustratuan, Lessing baino. Lessing independentea da, hain zuzen. Bibliotekaria da, ez pastorea, Goezeri jaulkiko dionez. Bere zeregina testu galdu edo ahaztuak kaleratzea da; aburu irmoak kolokan jartzea, zenakulu txikiko eztabaidak jendaurreratzea. Auzi batzuek herri xumearen bistan eta alemanez erabiltzea kaltegarria dela, egotz diezaioke pastoreak; are, horixe egotzi behar dio: pastoreak ongi egiten du hala eginez, eta Lessingek ongi egiten du berea eginez. «Onuragarria eta kaltegarria, handia eta txikia bezain erlatiboa da».

Eztabaidak azken finean onuragarriak izaten direla, uste betekoa da bera. «[Egungo publikoak] ahaztu egin gura duela ematen du, hainbat arazo garrantzitsuren argitzapena [«*Aufklärung*»] kontraesan soilari zor zaiola, eta gizon-emakumeak oraindik ez lirakeela munduan deusi buruz bat etorriko, deusi buruz eztabaidatu izan ez balute oraindik (...). Egia inoiz ez dela eztabaida bidez ebatzi, konforme: eztabaida guztietan irabazi egin du egiak, hala ere. Eztabaidak analisiaren espiritua zorroztu du, aurreiritzia eta itxura etengabeko kordokan eduki ditu; hitz batean, ezegia apainduari egiaren lekuan esertzea eragotzi dio», idatzi zuen Klotzekin eztabaidan («Antzinakoek heriotza nola irudikatu»). Bere aurreneko idazlanetatik hasita, Lessingek mundu guztiaren jakinduria arruntak eta topikoak kuestionatu izan ditu («*Librepentsatzailea*»: erlijioaren kritikoa, moralki pertsona zintzoa); zalantzari eta kritikari, hots, Bayleren jokaera «filosofo txikiak» madarikatuari, emankorra oniritzi dio berak («*Zezena eta zeko-rra*» fabula). Egiaren jabe seguruak ezin ditu jasan inolako esferatan. Bere dogma bakarra da, dogmarik ez dagoela (J. Schneider). Bere «*Bipika bat*»eko («*Eine Duplik*») esakune famatu, mila bider aipatua berriro aipatzeko, egiaren jabetasuna baino egiaren bilaketa hobe da. «Ez egiak, gizakiren batek jabetzan duen edo eduki uste duenak, baizik ahalegin zintzoak, egiaraino iristeko egin denak, egiten du giza-kiaren balioa. Izan ere, ez jabetzaren bidez, baizik egiaren ikerketaren bidez zabaltzen dira haren indarrak, horretan bakarrik baitatza haren perfekzio beti hazkorra. Jabetzak lasaitu, nagitu, harrotu egiten du. — Jainkoak bere eskuinean egia oro, eta ezkerrean egiaren irrika beti ernea soilik, egun eta eguzki beti kale egingo dudala gehigarriarekin, eskuan itxita baleuzka, eta esango balit: hauta! Apalpal haren ezkerretara makurtuko nintzaioke eta esan: Aita, emaidazu! Egia hutsa zuretzat bakarrik baita!» [Ez dakit Unamuno gogoratu beharrik egongo den. «Unamuno coincide aquí con Lessing (y acaso con casi todos los románticos), idazten du Ferrater Morak: la incesante conquista de la Verdad es preferible a la propia Verdad», *Unamuno. Bosquejo de una filosofía*, 1985. Hein batean hala da; baina Lessing ez da erromantikoa, noski, eta Lessingen «egiaren bilaketa» inola ere Unamunoren subjektibismoaren zentzuan ulertzerik ez dagoela, E. Cassirerrek aski azpimarratua dago: *Freiheit und Form*, 1975]. Erabakigarria da, pentsatu, jada Descartesez hain berresan zuena, bakoitzak egiten duela soil; inork ez duela ezer pentsatzen, berak pen-

tsatzeke, eta honek fededunen herri xumearentzat berdin balio duela. Pastorea inor ez da besteren lekuan pentsatzeko. Sinplea begitanduko zaigu apika, baina Ilustrazioaren begikera berri bat da Lessingekin hemen argitzen dena, bide luzea ibili beharko duena 1784ko Kanten «Zer da Ilustrazioa?»ren erantzunean berretsita gelditzeraino. Mendelssohnekin konparazio batek erakus diezagukeenez, Ilustrazioa arrazionalista den heinean, lehentasuna zuzen pentsatzeak du, ez libre pentsatzeak (hutsegiteko arriskuarekin — Jainkoaren ezkerreko eskua). Lessingentzat, aldiz, zuzen pentsatzea bigarrentiarra da, lehen-lehenengoa beti «norbere begiekin miratzea» (W. Schneiders). Egiaren kontzeptu diferente bat dago barnenean, Cassirerrek ohartarazi gisan: egia teoria edo doktrina bezala, egia praxi bezala.

Egia kristauari edo erlijiosoari bagagozkio, bada, Lessingek «Jauregiaren Parabolarekin» azaldu du bere ikuspuntua *Fragmentoen polemikan*. Ba omen zen behin errege bat erresuma handi handi batean, jakintsua eta egingogoa, hiriburuan itzelezko palazio bat zeukana [erlijioa edo «jainkozko jakinduria»], arkitekturarik bitxienekoa. Neurtezinezko tamainakoa zen, erregeak zerbitzari eta gobernurako laguntzaile guzti-guztiak bertan elkartu gura izan baitzituen. Bere handitasun eta bakuntasunagatik harritzen zuen, apainduria aberatsak, ez falta zituela, baino erdeinatu egiten zituela, ematen zuen eta. Arkitekturan adituei gaitzi zitzaiena, fatxadak ziren, leiho eta leihatila bakan batzuekin han hemen, handi ala txikiak, borobil ala karra-tuak, batez ere alabaina ate eta portaleak, forma eta handiera ezberdinenetakoak. Ez zen konprenitzen nola leiho bakan haietatik nahikoa argi hainbat eta hainbat aretotan sar zitekeen. BAKAN batzuei bakarrik bururatzen zitzaien egongela gurbilenek beren argia goitik hartzen zutela. Ez zen ulertzen zertarako behar zen ate hainbeste eta hain diferente, alde bakoitzean portale handi batek itxurazkoagoa begitantzen baitzuen, eta sarreraren egitekoak betetzeko aski izango zen. Sarrera txiki ezberdin ugariago haietatik, jauregira deitu bakoitza, doi-doi haren beharra zegoen tokira azkarrago eta bide hutsezinezkotik zihotala, gutxienei otutzen zitzaien. Hala, eztabaidak piztu ziren aditu omenen artean, horietako sutsuenak, jauregia barrutik ikusteko aukerarik gutxiena izandakoak, izaten baitziren. Gorabehera bat bazegoen, lehenengotik, istilua nahitaez erraza eta laburra izango zela pentsarazten zuena; baina horrexek bide eman zuen hura arras korapilatze

eta luzapen setatsuenarako. Antzinako plano ezberdin batzuek eduki uste baitziren [Izkribu Santuak], palazioa eraiki zuten arkitektoenak omen zirenak; eta plano hauetan berba eta zeinu batzuek aurkitzen ziren, gaur egun ia galdutako hizkuntza eta grafia batean zirrimarratuak. Bakoitzak bere ahal iritzira interpretatzen zituen berba eta zeinuok. Antzinako planoekin bakoitzak beste plano berri bat moldatu zuen [konfesioak eta sektak], eta batzuek hartarainoxe grinatzen ziren beren planoarekin, ezen beraiek haren gainean zin egiteaz gain, besteak ere harexen gainean zin egitera bultzatu eta are behartu nahi izaten baitzituzten. Banaka batzuek bakarrik esaten zuten: «zer axola zaizkigu zuen planoak? Bost axola plano bat ala bestea. Aski dugu, palazio guztia jakinduria maitagarritz mukuru dagoela, jakinda; eta ederra eta ordena eta ongizatea besterik ez dela handik lurralde guztian zabaltzen». Zein gaizki hartuak ziren, ordea, maiz, holakoak! Eta inoiz, espiritu barretsuz, plano partikular horietakoren bat ipiapa arakatzen bazuten, haren gainean zin egileek, garraisika, palazioaren beraren suemaile asainotzat jo ohi zituzten. Baina haiek, ezta zirkinik ere. Jauregiaren barruan lanean zihardutenen lankideak izateko aproposalak beraiek ziren, horregatixe; ez asti eta ez gogorik zuten beraientzat zentzugabeko eztabaidetan nahasteko. Halako batean, planoen matrakak [konfesioen gerrak eta polemikak], konpondua baino gehiago, lokartua zegoela, «sua! sua palazioan!» hots egin zuen gauaren erdian zelatariaren deiadarrak [konfesioek mende bat zehar elkar kritikatu ostean, erlijioaren beraren —erlijio ororen— kritika arrazionalista modernoak]. Eta zer gertatu zen, gertatu? Jaiki zen bakoitza bere ohan-tzetik, eta sua jauregian ez balego bezala, bere-bere etxean baizik, ustez zeukan baliotsuenaren bila joan zen arineketan — bere planoaren bila. «Salba dezagun horixe behintzat!», pentsatzen zuen. «Jauregia ezin daiteke propiokiago han erre, hemen dagoena baino». Eta horrela bakoitza bere planoarekin joan zen karrikara lasterka; han, palaziora joaten premiatu ordezt laguntzera, bata besteari, jauregia seguruenik non zegoen sutan, bere planoak erakusten zion. «Begira, auzoa; hementxe ari da erretzen! Hemen mendera dezakegu ongienik sua!». Edo: «Ez, ez; hemen hobeto!». «Zer ari zarete esaten? Sua hemen da!». «Zer premiarik dago sua hor egoteko? Hementxe ari da erretzen!» «Hor itzali nahi duenak, itzali dezala berak! Hor nik ez dut itzaliko!». «Nik ere hor ez!» «Ezta nik ere hor!» Eztabaidalari lanpetuegi horiengatik palazioa goitik behera kiskalia izango zen, suak

hartu izan balu. Baina iparrargi bat [aurora boreal bat] zen, zelatari izutuek sutearekin nahastu zutena.

Suaren metaforekin polemikari jarraituz: Lessingen «aitzakia», Reimarusen testuak argitara zituela, bai, baina bera ez zegoela haien edukiarekin ados —testuek eragin zezaketen eskandaluaren errudun ez zela, adieraziz bezala—, ipuintxo honekin lekugabetu nahi izan zuen Johann Salomo Semler teologo ilustratuak. Londresko Lord Mayorraren aitzinean gizon bat dago, sua piztu izanaz salatua. Erreketan ari zen etxeko ganbaratik irtetzen ikusi dute. «Atzo arratsko lauretan heldu nintzen auzoaren mandiora», justifikatzen da bera, «eta kandela bat aurkitu nuen han pizturik, morroiek beren axo-lagabekerian ahaztuta. Gauean beheraino erre izango zen eta eskaile-rari su eman. Nik, sutea egunez piztu zedin, lasto pila baten gainera bota dut. Segituan garra lukanatik kanpora atera da, suponpakoak etorri dira arin-arin, eta sua, gauean oso arriskutsua izango zena, berehalaxe itzali dute». «Zergatik ez duzu kandela hartu eta itzali, kito?», galdetzen dio Lord Mayorrak. «Argia neuk itzali banu, etxe-ko morroiak ez ziren arduratsuagoak bilakatu izango. Baina orain, halako astrapalada sortu denez gero, kontuzago ibiliko dira etorkizun-ean». «Hauxe bitxia, gero!», dio Lord Mayorrak. «Zinez, gizatxarra ez da; bakarrik, oso-oso ere ez nonbait». Eta eroetxean giltzaperazi zuen, han dago oraindik.

Lessing bere desadostasunaren atzean ezkutatzen zen. Alferrik. Reimarusen ideiak errefutatzeko, eztabaidatu egin behar ziren; eztabaidatzea, sua piztea zen. Eta Lessingi leporaketan zitzaion supiztea. Onenean ere ipuintxoko eroaren parekoa zen. «Eskuetan eskuizkribu bat erori izan balitzaio, bere nagusi Braunschweigeko Etxearen pribilegio eta ondareak halako maneran jaukitzen zituen, eta haien erdies-le maiestatezkoak eta berauen ministrari faltagabeak halako maneran irainketan zituen, nola gure erlijio guztiz santuaren fundatzailearekin eta bere apostoluekin egiten den fragmentoetan, eta Lessing jaunak su-mehatxuzko halako gutun batekin [*Brandbrief*] hura munduan barreiatu gura izango balu, zein izango zatekeen bere saria?», zirikatzen zuen Goezek, Lessing bera adina, haren lurraldeko nagusia. Eskuera honekin, kristautasunaren defentsa Jainkoaren defentsa bihurtzen da, eta Jainkoaren defentsan mundu honetako monarkaren eta ordenaren defentsa, Estatuaren defentsa. Polemika, berez ideiena

eta teologikoa baldin bazen, azpian pertsonal eta politikoa bihurtu zen laster. Izan ere, Goezek ezin onartu zuen, erlijio kristauaren egia guztiak eztabaidatuak izan zitezkeelako printzipioa (bere horretan teologia protestanteak problemarik gabe ameti lezakeena) eztabaidaren publikotasun printzipioarekin loturik («hizkuntza alemanean inprimatuz jendepila handiaren eskuetan ipiniz, berari utziz juzga dezan»), honen dimentsio politikoarekin. Eztabaida haizu da, baina eztabaidarako «gaituen» (ilustratuen) zenakuluan. «Lessing jaunak ez al du ikusten, ala ez du ikusi nahi, zer ondorioztatzen den printzipio hone-tatik? Zer ihardetsiko lioke, inork esanen balio: gobernaririk hoberen eta justuenaren gobernu sistemak ez du merezi txalorik, harik eta haren aurkako erreparo posible guzti-guztiak, zentzugabeenak ere, gobernariaren pertsonaren aurkako marmar eta gezurbeltz posible guztiak inprimaturik azaldu eta menekoei eskuetan ipini izan arte...». Erlijio kristauaren oinarrien eztabaidak irekitasun eta publikotasun hesigabea, autoritate eta ordena sozial ororen oinarriak eraisten ditu, Goezeren gardiz. Hori eragiten duenak, bada, ala kristautasuna superstizio soiltzat dauka, ala ez du ikusi nahi ordena sozialaren doha-tsutasunak kristautasuna duela orpo eta garantia, ala —ebazten edo mehatxatzen du Goezek— honoko printzipio honi atxikitzen zaio: «Herri batek, bat datorren orduko errepublika izan gura duela, zilegi du». Goezek eztabaidazalearentzat iradokitzen duen printzipio hau («dieser rebellische Grundsatz»), mehatxu bezala entzun behar zen momentuko testuinguruan, halaxe agitu zaharra ez zenez gero Ipar Amerikako independentziarekin. «Herriak bere autoritateengandik askatu nahi badu, zilegi du», iraultzaren printzipioa da. (Alegia, Goezeren logikan, bere autoritate erlijiosotik askatzea zilegi badu, autoritate politikotik are gehiago). «Zein arriskutsua den Estatuarentzat berarentzat ez sinestea!» erretolikatuko du Patriarkak *Natan*-en. «Gizarteko lotura guztiak askatuta, hautsita geratzen dira, gizakiari ez sinestea zilegi bazaio» (IV, 2). Kristautasunaren kuestio-natze publikoa, hortaz, matxinadaren edo iraultzaren berdina da («*Rebellion*»; Goezeren testuan behin eta berriro errepikatzen dira adiera honetako hitzak). Dударik ez uzteko, protestantismoaren histo-rian aski ezagunak diren asaldataile eta matxinoak izendatzen ditu halakoxetzat —beren jokabide ergelarekin kalte negargarrienetako ondorioak ekarri dituzten «bufoiak», Goezeren iritzian— : Krechting, Knipperdolling, Johann van Leyden, Münsterko anabaptistak, XVI.

mendean iraultza komunista erradikal bat ebanjelioaren izenean odol eta garretan egin zutenak hiri hartan, eta —horiekin berdindurik!—, guretzat ezustean, Inazio Loiolakoa. Lagunarte horretan, eta Brutoren konpainian, kokatu behar da Lessing. Alusioak aski gordinak dira. Eta Braunschweigecko Printzeari abisu bat bezala hartu behar dira, behin-goz ordena jarri zezan etxean. Honek, azkenean, ez du beste aukerarik izan, Lessingi fragmentoen argitalpenaren jarraipena debekatzeari baino, estreina; polemikaren beraren jarraipena, geroxeago.

Zentsura, Lessingek ez zuen edozein kasutan ezesten. Arte ederretan, arrazoitzen du —txit ilustratuki, puntu honetan—, horien helburua entretenimendua da, berez gizakiarentzat ezpremiatzkoa, horietan legegilearen ikuskapena ezinbestekoa duzu, nolako eta zenbateko entretenimendua herriarentzat haizu izango den erabakitzeko. Zientzian, aldiz, xedea egia baita, eta egia arimarentzat osoki premiatzkoa (egiak norbere jokabide edo praxiarekin bat egiten du), koakziorik txikiena ere tirania litzateke («*Laokoon*», II). Arimaren lehen-tasuna hemen absolutua da. Zentsura, printzipioz, agintearen bete-behar moraletako bat. (Ikuspide hau ohikoa da XVIII. mendean). Baina zentsurarik ezin onar liteke, kontzientziari —arimari— dihoazkion arazoetan. Hala, fragmentoen polemikan arimako interesak zeuden jokoan. Zentsurari ihes egitea erraza zen orduko Alemania lurralde txikitik zatikatuan. Lehenengo batean Lessingek hala egin du, bere erantzunak Goezeri Berlinen eta Hamburgon agertaraziz. Braunschweigecko Dukearen liberaltasunaren frogar bat gehiago da, bere bibliotekari gorbizari polemikako deus inon publikatzea, haren lurraldeetatik landa ere, arras debekatzera soil mugatu bada, beste zigorrik gabe. Lessingek, aitzitik, ezin desobedituz bezala ezin etsiz, «proba egin behar dut, ea gutxienez ene pulpitu zaharrean, antzokian, oztoporik gabe predikatzen uzten zaidan», idatzi dio Elise Reimarus, Anonimoaren alabari. Horrela, fragmentoen polemikaren jarraipen legez umotu da —eskuartearen lehenago zerabilena, erabili— *Nathan Jakintsua* (1779) «poema dramatiko» (Voltairei hartuz generoaren izendaera hau, ez komedia eta ez tragedia izan nahi baitu, disertazio filosofiko-teologikoa baizik elkarriketa forman).

Nathan tolerantziaren poema bat da, erlijiozko aurreiritzi eta dogmatismo guztien aurka. Lessingek, W. Benjaminek nahiko zukeen eran, izan zitekeen eta ez den historia kontatzen du. Protagonistak

berariaz antitipoak dira: Nathan merkataria judua, zurraren topikoa, zuhurraren ideala izango da; Saladin kurdia, konkistatzaile islamikoa, tolerantziaren eredia (Bocacciok eta Voltairek pintatu bezala: musulmanei buruz gaur beti besterik entzun behar izaten dugun arren, Mozarten «*Serailoko bahiketa*»n ere, Nathanen ia garaikidean — 1782,— Selim paxaa tolerantzia eta eskuzabaltasun zaldunaren eredia da); zaldun tenplarioa, ezertan federik gabeko eszeptikoa, etab. Patriarka bakarrik gelditzen da estereotipoan (inkisitoria); Goezeren karikatura bat, seguruena. Protagonista positibo denak dira ez ohikoak, ez gehiengotarrak, ez naziotasunaren eta historiaren gatibuak: etorkizunaren promesak. Ekintza ere historiaren uko antzera garaketan da: mendeetan historia elkar borrokatzen eta jazartzen egin dutenek, elkar besarkatuz bukatzen dute. Ekintzaldiko lekua eta denbora bera iragan irreal (XII. mende aldera iruditzekoa, Gurutzadetako menia aldi batean) eta Jerusalem ukroniko/utopiko bateko alde/aldietan. Denek erlijioaren biktimak dirudite, baina —gizakiak lehenago, juduak eta kristau edo musulmanak baino— denek dakite bakoitzak bere erlijioaren kateak apur-gainditzen, egiaren bilaketa indibidual edo kontzientziaren dei pertsonalaren zentzuan. Gizatasunaren poema bat. Bestetik, antzezpoema osoa Probidentziaren kanta bat ere da («*Anti-Candide*»).

Pieza honetatik ezagunena, ordea, Lessingen originala ez den zerbait, da: «Hiru eratzunen parabola», obra osoaren muina, autoreak berak behin eta berriro anaia Karli (1778. 08. 11), Elise Reimarusi (1778. 09. 06) eta Herderri (1779. 01. 10) gutunetan errepikatu duenez, eta tradizio literarioak aho batez aitortu. Hona hemen: Aita batek hiru seme zituen, hirurak berdin esanekoak, hirurak berdin maiteak. Familiar tradizioa zegoen, antzina-antzinadanik, eratzun miragarritzko bat, haren jabea Jainkoaren hala gizakien aurrean maitagarri bihurtzen zuena, semerik kutunenari jaraunstekoa, zaharrena zen ala ez zen begiratzeke. Eta eratzuna heredatzen zuena, sendiko buru eta printze guztiek maitatua bilakatzen zen. Aitak, hiru semeak berdin kutunak baitzituen, ezin zuen deliberatu, eratzuna bati ematea eta besteei ez. Joan zen, bada, zilargin trebe batengana, eta guztiz halakoxe beste eratzun bi enkargatu zizkion, berdin-berdinak izan behar zutenak osoki. Zilarginak hiru eratzunak ekarri zizkionean, aitak berak ezin zuen bereizi zein zen jatorrizkoa eta zein kopiak, hain ziren erabat

berdinak hirurak. Hiltzeko ordua etorri zitzaionean, bere semeak deitu zituen banaka bere ondora, eta bakoitzari eraztun bana eman zien. Aita hila zelarik, seme bakoitzak bere eraztuna atera zuen, ni naiz primua, uste zuela. Eginahalak egin arren, ezin zuten inola argitu, zeinena zen originala. Semeek auzitara jo zuten, epaile batek epai zezan, zeinek izan behar zuen familiako buru eta printzea. Epailearen «ez epaia» da hain zuzen *Nathan Jakintsua*-ren mezua, Lessingen tolerantziaren ebanjelioa deitu izan dena, irakurleak eskuan duen liburuan aurkituko du testua (III, 7). Hiru erlijio monoteisten alegoria zoragarri hau Lessingek Boccaccioren *Decameronetik* hartu dizu (Giornata I, Nov. 3, «Melchisedech Giudeo»).

Egia erlijiosoaren auzia Lessingek maila teoriko eta praktikoko berri batera pasarazi du. Soluzioa ez da ilustratu askok proposatu duena, hiru erlijioak ezabatu eta «arrazoizko» berri bat asmatzea, «benetan egiazkoa»; hots, ez historikoa. Parabolak erakusten duen bezala, analisiak —arrazoimenak— ez du eraztun bat ala bestea hobesteko biderik ematen. Silogismo eta dedukzio arrazionalenez ezi-nezkoa da, zein den «egiazki errebelatua», ebaztea. Hots, hiru erlijio (errebelatu) diferente baldin badago, bakoitza munduan «egiazko bakarra» bera, egia erlijiosoa ezin da egia logikoaren kuestioa izan, arazoiketa edo analisi logikoz erabakitzekoa. Zer klasetako egia da hori, orduan? Nathanek ez du jada erlijioen artean egiazkotasun nor-gehiagokarik paratzen, behiala, gure Jehuda Halevi Tuterako juduak hain zuzen abiatuta, klasikoa izan den eran erlijio guztietako apologistentzat. Nathaneko epaileak (III/7) hirurentzat berdin balio duen elkarmaitasunaren eta tolerantzia eta obra onen aholkua ematen du, epairik ez; egia-epaia, «hemendik milaka eta milaka urtera»ko epailearen esku uzten da; hots, historiaren esku. Bestela esan, egia erlijiosoa ez da neurtzen balio arrazionalagatik, haren balio historiko, pedagogiko, moralagatik baino. Irakasten edo eragiten duen praxiagatik. «Zer balio du zuzen sinesteak, oker biziz gero?» («*Oldozpenak Herrnhutarrei buruz*»). Eraztunaren eragin magikoa, haren jabea Jainkoak hala gizonek guztiz maitatua bihurtzea baldin bada, hiru semeetarik bakoitzak orain egin behar duena, Jainkoarentzat hala gizon-emakumeentzat guztiz maitagarria bihurtuko duten obretan ahalegitea da. Lehiaketa hori izanen da bakoitzaren «egia-epaia» frogatzea. Gizakia obratzeko baitago sortua, ez subtilezietan burua hausteko.

Gero, historian, norbere kulturatik —erlijiotik— hasita, egia-
ren bila lehiatzea dagokio bakoitzari, heredatu duen egiari itsu-itsu
makurtzeke: bakoitzaren bizitzako eginbidea da, jarauntsi den ondarea
haztatzea, eraldatzea, eta hastantzea edo norbera —ez norbere baka-
rrik— bihurtzea (Goethek esango duen «bilaka hadi, heu haizena»).

«Hi bezalako gizon bat ez duk gelditzen mugitu gabe jaiotzak halabe-
harrez bota duen tokian: edo baldin gelditzen baduk, gelditzen duk
onena ulertu, arrazoitu eta hautatu duelako». Egiaren bilaketa indibi-
dual hau, gizadiaren egiaren bilaketan kokatzen da: ibai handian nabi-
gatzen duen txalupatxo. Korronte handian, bakoitzak bere abiada-
txoa. Egiaren bilaketaren historia da gizadiaren historia. Nathanen
antzezturiko historiaren filosofia optimista hau, modu abstraktuagoan
«*Gizadiaren Hezkuntza*»n garatu du Lessingek. (Sartrek eta baino
lehen, teatroa, funtsean dialogoa, bera ere irakaskuntza baino gehiago
bilaketa praxis bat den filosofiaren espresabide bereiziki egokitzen,
Lessingek ezagutu du). Gauden orain herrialde kristauen esparruan.
Fragmentoen polemikako, eta oro har Lessingen azkenaldi guztiko,
arazo nagusia, errebelazioaren eta giza arrazoimenaren harremana da.
Lessingentzat errebelazioa (edo, hobeki, Itun Zaharreko, Itun Berriko
errebelazioak) urratsez urrats, mailaz maila aitzina doan gizadiaren
heziketa prozesua baizik ez da, gizadiaren hobekuntza etengabeko
batean. Itun Zaharreko haurtzarotik egungo gaztetasun Itun Berrikora
Jesukristok pasarazi du gizadia, ez elizak: alegia, moralitasunaren
araukatzailea gizarte harremanetan, denbora honetako sari eta zigor
materialn kontsidero sinplea izatetik, sari espiritual eternoen peskiza-
tara pasoa. Baina urrun gaude oraindik, ongia ongia izatearren soil
egingo den heldutasun moraletik. Gizadiaren heziketa historia aurkez-
teko, Lessing gorabide triadiko baten irudikapenaz baliatzen da (§§
87-89), Joakin Fiorekoren (1130?-1202) hiru estadio edo ebangelioen
antzera (Hegelek bezalaxe Comtek ere islatu duen irudikapena).
Triada horretan baliabide bat ikusi behar da. Elise Reimarus, azken
urteetako haren konfidente bakanari sinestekotan, «*Gizadiaren
Hezkuntza*» idazten ari zen Lessingek, ez bide zuen jada asko sines-
ten, gizadiaren perfekziozko egoera bat inoiz erdiestekoa zenik.
Nathaneko pasarte batzuek ere, horrelako usterik eza aski garbi adie-
razten dute apika. Baina Joakin Fiorekoren irudikapenak baliabide
abantailatsu bat eskaintzen zion, historiaren bere kontzeptua gizadia-
ren heziketa historia bezalakoa, janzteko. ideia substantziala da, bere

burua errebelatzen ari den Jainkoaren errebelazioa, hura interpreta-tzen ari den gizadiaren hezkuntza dela. Jainkoak bultzadak, intuizio-ak, noranzkoak ematen ditu (ez doktrina itxiak, dogmak!); gizadiak harantz aurreratzen du. Errebelazioa horrela ulertuz —bultzada, kei-nua—, § 4 eta § 77 artean ez da kontraesanik sumatuko. Bere dohain pertsonalak era horretan garatzen eta garatzenago dituen gizakia, bere patuaz eta konpromiso moralaz geroz eta ohartuagoa da, jakitun, «egia errebelatuak arrazoimenaren egiak bihurtzea beharrezkoa dela azken batean» (§ 76), arrazoizkoa, buruenean, ongia ongiaren amorez bilatzea eta egitea izanen delarik. Gizakiaren oraingoxe egoera, behia-lakoaren aldean, gizartean arautzaile moral gisa «mundu honetako zigorrek eta sariak bakarrik» eragiten zutenekoaren aldean (§ 96), gaur egun «behin betiko sariaren itxaropenak» (§ 97) eragitenago gaituela da; baina oraindik ere giza bihotza «bertutea, bere betiko ondorio zoriotsuengatik bakarrik, maitatzeko gai da» (§ 79), hots, bertutea-ren merkataria funtsean. «Bertutea, bertutea delako besterik gabe» maita dadinean (§ 80), erdietsi izango da «argikundeko [«Aufklärung»] maila gorena» eta, horrekin, gizadiaren hezkuntza historiaren helburua (§ 82).

Oso ilun eta problematikoa, bere baitatik etengabe errebelatzen ari eta horrela gizadiaren hezitzaile omen den Jainko hori, zein/zer den zehazki, izanen da. Azkeneko polemika mingotsa horren ingu-ruan lehertu da Lessing hil eta gero kasu honetan. Labur-labur aipa-tzeko: F. H. Jacobik estreinako aldiz 1780ko uztaillean bisitatu du Lessing Wolfenbüttelen bost egun, daborduko nahiko makal zegoela; bigarren aldiz abuztuan, beste bost egun, Halberstadtan, J. L. Gleim lagunaren baitan. Sei hilabete geroago zendu da Lessing. Jacobik bien arteko solasen memoriak argitara dituenean, Lessingen «testamentu filosofikoa» bezala ikusi ziren haiek. Jacobiren anotazioetan, Jainkotasunaren kontzeptu ortodoxoek ez diotela engoitik deus esaten, aitortzen du Lessingek; eta haren lekuan panteismoaren «Hen kai pan» («Bat eta Dena») eslogana beretzen du. Jainkoa eta mundua, dena bat. Jainkoa Natura litzateke, beraz: Deus sive Natura, Spinozaren espresioan. Ez han urrun egote geldo denboragabe bat, Jainkoarena; baizik etengabeko bilakaera hementxe gaindi. Jainkoa, unibertsoaren arima, Naturan zabal-hedatzen, gizakian eta historian errebelatzen, mailaz maila etikotasun gorenera altxatzen. «Spinozaren

filosofia beste filosofiarik ez dago», adierazi ei dio espreski Jacobiri. Hor zegoen, gainera, Lessingen spinozismoa erakusteko, «*Gizadiaren Hezkuntza*»ko § 73 bihurria... Zartada bat izan zen, oroitzen da Goethe («Asmazio eta Egia»); eta halakoa, hartan Mendelssohnek, Alemaniako «gizaseme ohoragarrienetakoak» Goetheren begietan, bizia galdu baitu. Kontatzen baitzen, adiskidearen defentsan Jacobiri lehenbailehen erantzuteko larri, goizeko hotzetan inprimeriara kurritu zuela, eta hala hoztu eta hil. Edonola ere, Jacobiren agerpenetan baze- goen adiskideak zertan larritu. Spinozismoa ateismoaren sinonimoa zen. Ateismoa, aldiz, teologikoa adina bekatu filosofikoa zen orduan, irrazionalismoaren berdina (arrazionalismo klasikoan —eta Poperen poesian, adibidez— Jainkoa mundua arrazionalki ulertzeko matematika bezain elementu ezinbestekoa kontsideratzen baitzen, matematikaren zentzu berean hain zuzen); bekatu politiko heriozkoa zen, batez ere, matxinadaren berdina, Goezeren susmorik beltzenak berresteko. Jarraiko «panteismoaren polemikaz» eta Lessingen baliz- ko spinozismoaz ez daukagu hemen zertan luzatu.

Lessingen bizitza bezala pentsamendua, fragmentoka osatua da. Interprete askoren okerra, dio J. Schneiderrek, Lessing, berak bere burua ulertu zuena baino hobeto, ulertu gura izatea da. Fragmento utzi zituen pentsabide, abiagune, aieru ezberdinak, elkarri doitu eta itsatsi nahi izaten dituzte, hark inoiz izan ez duen pentsamendu borobildu bat osatzeko. (Diltheyk espreski, «haren pentsamendua osatu beste erre- mediorik ez dago», esanez abiatzen du bere ikerketa). Hala, Lessingik diferenteenak eta kontraesankorrenak asmatu izan dira, interpretazio- en arabera. Beharbada interpretazioa bera fragmento uztea dugu zin- tzoena, gure kasuan, euskaraz ere F. Schlegelen juzgua egiaztatu ahal dadin: Lessing dela, autore alemanen artean, norberak pentsatzera era- giten duenena.

Joxe Azurmendi

Bibliografia

a) Lessingen obra

Sämtliche Schriften, arg. K. Lachmann — F. Muncker, 23 bol., Stuttgart-Berlin-Leipzig, 1886-1924 [birrarg.: Berlin 1968]. Bereiz argitaratua: *Briefe von und an G. E. Lessing*, arg. F. Muncker, 5 bol., Leipzig 1904-1907

Werke, arg. J. Petersen — W. V. Olshausen, 25 bol., Berlin 1925-1935 [birrarg.: Hildesheim 1970]

Werke, arg. H. G. Göpfert, 8 bol., München 1970 [birrarg.: Darmstadt 1996]

Werke und Briefe in zwölf Bänden, arg. W. Barner et al., Frankfurt 1985 eta hurr. (oraindik argitarabidean)

Escritos filosóficos y teológicos, arg. A. Andreu Rodrigo, Madril 1982

b) Lessingen biografiak

BARK, J., *G. E. Lessing. Leben und Werk*, Stuttgart 1986

BRENNER, P. J., *G. E. Lessing*, Stuttgart 2000

DANZEL, T. W. - GUHRAUER, G. E., *G. E. Lessing. Sein Leben und seine Werke*, 2 bol., Leipzig 1849-1854

HILDEBRANDT, D., *Lessing. Biographie einer Emanzipation*, Frankfurt/Berlin/Wien 1982

HILLEN, G., *Lessing-Chronik. Daten zu Leben und Werk*, München/Wien 1979

KRÖGER, W., *G. E. Lessing*, Stuttgart 1995

MEHRING, F., *Die Lessing-Legende*, Frankfurt 1974

SEIDEL, S., *G. E. Lessing*, Leipzig 1983

SCHMIDT, E., *Lessing. Geschichte seines Lebens und seiner Schriften*, 2 bol., Berlin 1884-1892 [birrarg.: Hildesheim 1983]

Sichelschmidt, G., *Lessing. Der Mann und sein Werk*, Düsseldorf 1989

c) Sarrera orokorrek: Lessingen garaiaz

ALEY, P., *G. E. Lessing. Ein stilisiertes Vorbild, ein manipulierter Autor, ein falsch verstandenes Genie*, Essen 1994

ANDREU RODRIGO, A., «Lessing: quimera y anagnórisis», in: Lessing, G. E., *Escritos filosóficos y teológicos*, Madril 1982, 25-141

BARNER, W., et al., *Lessing. Epoche, Werk, Wirkung*, München 1975

BARNER, W. - REH, A. M. (arg.), *Nation und Gelehrtenrepublik*.

Lessing im europäischen Zusammenhang, Detroit-München 1984

BAUER, G. eta S. (arg.), *G. E. Lessing*, Darmstadt 1968

GUTHKE, K., *G. E. Lessing*, Stuttgart 1979

HOPPE, K., *Das Geistesleben in Braunschweig zur Zeit Lessings*, Braunschweig 1929

JACOBS, J., *Lessing. Eine Einführung*, München 1986

OEHLKE, W., *Lessing und seine Zeit*, 2. bol., München 1929

RILLA, W., *Lessing und sein Zeitalter*, Berlin 1959

SEIDEL, S., *G. E. Lessing, 1729-1781. Eine Einführung in sein Leben und Werk*, Berlin 1963

VV., *Lessing und die Zeit der Aufklärung*, Göttingen 1968

d) Lessing literaturaren historian

BÖCKMANN, P., *Formgeschichte der deutschen Literatur*, I. bol., »Von der Sinnbildsprache zur Ausdruckssprache«, Hamburgo 1965

GAEDE, F., *Humanismus, Barock, Aufklärung*, Bern-München 1971

GRIMMIGER, R. (arg.), «Deutsche Aufklärung bis zur Französischen Revolution», in: *Hansers Sozialgeschichte der deutschen Literatur*, München 1980

KOMMERELL, M., *Lessing y Aristóteles. Investigación acerca de la teoría de la tragedia*, Madril 1990

VILLACANAÑAS BERLANGA, J. L., *Tragedia y teodicea de la historia. El destino de los ideales en Lessing y Schiller*, Madril 1993

WIESE, B. von (arg.), *Deutsche Dichter des 18. Jahrhunderts*, Berlin 1977

e) Lessing ideien historian

BOLLACHER, M., *Lessing. Vernunft und Geschichte. Untersuchungen zum Problem religiöser Aufklärung in den Spätschriften*, Tübingen 1978

BOTHE, B., *Glauben und Erkennen. Studie zur Religionsphilosophie Lessings*, Meisenheim am Glan 1972

CASSIRER, E., *La filosofía de la Ilustración*, Mexiko 1984

CASSIRER, E., *Freiheit und Form. Studien zur deutschen Geistesgeschichte*, Darmstadt 1975

DILTHEY, W., «G. E. Lessing», in: *Vida y poesía*, Mexiko 1978, 27-125

FRANZBACH, M., *Lessings Huarte-Übersetzung (1752). Die Rezeption und Wirkungsgeschichte des «Examen de ingenios para las ciencias» (1575) in Deutschland*, Hamburgo 1965 [Gaztelaniazko itzulpena dago]

KONDYLIS, P., *Die Aufklärung im Rahmen des neuzeitlichen Rationalismus*, Stuttgart 1981

MATE, R. - NIEWÖHNER, F. (arg.), *La Ilustración en España y Alemania*, Bartzelona 1989

OELMÜLLER, W., *Die unbefriedigte Aufklärung. Beiträge zu einer Theorie der Moderne von Lessing, Kant und Hegel*, Frankfurt 1969

SCHILSON, A., *Lessings Christentum*, Göttingen 1980

SCHNEIDER, J., *Lessings Stellung zur Theologie vor der Herausgabe der «Wolfenbütteler Fragmente»*, 's-Gravenhage 1953

THIELICKE, H., *Offenbarung, Vernunft und Existenz. Studien zur Religionsphilosophie Lessings*, Gütersloh 1957

e) Bibliografiak

KUHLES, D., *Lessing-Bibliographie 1971-1985*, Berlin-Weimar 1988

MILDE, W., *Gesamtverzeichnis der Lessings-Handschriften*, 2 bol., Heidelberg 1982 eta 2000

SEIFERT, S., *Lessing-Bibliographie*, Berlin-Weimar 1973

Lessing Yearbook, München 1969 eta hurr.

LAOKOON:

edo pinturaren eta poesiaren mugei buruz

Ἰὼν καὶ τοῦτον ἀποφασίζων διανοήσας
Πλάτ. ποτ. Ἀθ. κατὰ Π. ἢ κατὰ Σ. ἐνδ.

Bidenabar antzinako artearen historiako arazo desberdin zenbaiti
buruz argibide batzuek eskaintzen direlarik

Lehen atala

HITZAURREA

Pintura eta poesia beren artean erkatu zituen lehenbizikoa, bere gain bi arteen aldetik pareko eragina sentitu zuen gustu fineko gizon bat izan zen. Biek, konturatu zen, urruneko gauzak bertako bezala aurkezten dituzte, itxura errealtate bezala; biek atzipetzen dute eta bien atziphea atsegingarri da.

Bigarren bat ahalegindu zen atsegin horren barnera sartzen, eta aurkitu zuen ezen bietan iturburu bakar berak zeriola. Hasteko guk objektu materialtatik ateratzen dugun edertasunaren kontzeptuak gauza ugari egor dakizkiokeen arau orokorrak dauzka; hala ekintzei, pentsamenduei, eta orobat formei ere.

Arau orokor hauen balioaz eta banaketaz gogoetatzen zuen hirugarren bat ohartu zen batzuek gehiago agintzen zutela pinturan, beste batzuek gehiago poesian; beraz honetan poesiak pinturari, han pinturak poesiari lagun ziezaiokeela argibide eta adibideekin.

Lehenbizikoa maitalea zen; bigarrena, filosofoa; hirugarrena, arte-kritikoa.

Lehen biek nekez egin zezaketen ez beren sentimenaren ezta ere beren ondorioen erabilera oker bat. Aldiz arte-kritikoaren oharretan kontua da ea aukera bakoitzari ezartzean erabilera zuzena egiten ote duen; eta mirari bat litzateke baldin, kritiko zorrotz *baten* aldean berrogeita hamar astakirten dagoenez, erabilera hori uneoro bi arteen

artean dagoen pisuaren orratza berdin eutsi behar duen arreta osoz egingo balitz.

Baldin Apelesek eta Protogenesek, pinturari buruzko beren idazti galduetan, lehenagotik finkaturik zeuden poesiaren arauen bidez egiaztatu eta argitu badituzte pinturaren arauak, ziurtasunez pentsatu behar da hori Aristotelesek, Zizeronek, Horaziok, Kintilianok beren lanetan, ikusten dugun bezala, pinturaren printzipioak eta esperientziak oratoriari eta poesiari egozteko erabili duten neurritasun eta zehaztasun berarekin egingo zutela. Antzinakoen dohaina da gauza orotan ez gehiegi ezta gutxiegi ere ez egitea.

Baina guk, gure egunekook, uste izan dugu zenbait puntutan haiek baino askoz urrunago joan garela, haien pasiabide txikiak estrata bihurtzen genituenean, nahiz estrata laburrago eta seguruago hauek ondoren mortuetara eramaten duten bidesketara jo.

Voltaire greziarraren antitesia distiratsua, alegia poesia mutu bat dela pintura, eta poesia pintura hiztun bat dela, ez zegoen agian inondiko testuliburutan. Burutakizun bat zen, Simonidesek zituen beste hainbat bezalako; baina horren zati egiazkoa hain argigarria da non berarekin zehaztasun gabetik eta faltsutik duena, ez-ikusi egin behar dela uste behar baita.

Antzinakoez, ordea, ez zuten egin ez-ikusia. Baizik, Simonidesen tesia bi arteen eraginera mugatzen zutenean, ez zuten ahaztu azpimarratzea ezen, alde batera utzirik eragin honen erabateko antzekotasuna, haiek halere, beren objektuetan bezala beren imitatze-ko moduan ("Ὑλὴ καὶ τῶν ὁμοίων μιμήσεις") desberdin zirela.

Baina guztiz gisako inolako desberdintasunetik ez balego bezala, egungo kritikoen artean askok pinturaren eta poesiaren arteko kidetasun hartatik munduko gauza gordinenak atera dituzte. Behin, pinturaren muga hertsietara behartu dute poesia; hurrengo, poesiaren alor zabal osoaz gozatzen utzi diote pinturari. Batari dagokion guztia, besteari ere onartu egin behar zaio; batean atsegin edo desatsegin den orok, bestean ere derrigor atsegin edo desatsegin izan behar du; eta ideia horretaz beterik, tonurik irmoenaz adierazten dituzte iritzirik ergelena, beraiek, gai berberaz diharduten poeta baten eta pintore baten obrak erkatzean, obra horien artean igartzen dituzten desberdintasunak akats bezala hartzen dituztenean, akats horiek poetari edo pintoreari egotziz, poesia edo pintura zer hobesten duten kontuan hartuz.

Are gehiago, sasikritika honek maisuak beraiek ere okerrera eramán ditu. Poesian deskribaketa-mania sustatu dute, eta pinturan alegoriakeria; hura pintura hiltun bihurtu nahi baitute, jakin gabe ordea zer pinta daitekeen edo zer pintatu behar den, eta hau poesia mutu bihurtu baitute, gogoetatu gabe ordea zein neurritan adieraz ditzakeen kontzeptu orokorrak, beren esanahitik urrundu gabe, eta kapritxozko idazkera bihurtu gabe.

Gustu faltsu honen kontra, eta oinarririk gabeko iritzi haien kontra lan egitea da hurrengo solasaldien helburu funtsezkoena.

Halabeharrez sortu dira, eta gehiago joan dira hazten nire irakurketen arabera, tesi orokorren garapen metodikoaren bidez baino. Liburu baino gehiago dira liburu baterako ordenarik gabeko gogoeta.

Baina gisa horretan ere, alde batera uzteko ez diren ustea daukat. Guk, alemanok, ez daukagu liburu sistematiko eskasiarik. Definizio pare bat hartu eta ordenarik ederrenean nahi dugun guztia ondorioztatzea: horretan maisu gara gu, munduko beste nazio guztien gainetik.

Baumgarten-ek aitortzen zuen bere estetikako adibideetatik zati handi bat Gesner-en Hiztegiari zor ziola. Baldin nire arrazoiketa, beraz, ez bada Baumgartenena bezain hertsia, nire adibideek iturburuaren keru gehiago izango dute.

Nola nik ere Laokoon abiapuntutzat hartzen dudán, eta sarri hara itzultzen naizen, izenburuan ere zati bat utzi nahi izán diot. Antzinako artearen historiari buruzko beste zenbait zehar-meharka txikik ez dute hainbesteko zerikusirik nire lanaren asmoarekin eta hortxe daude, hain zuzen ere, sekula leku hoberik aurkituko diedán itxaropenik ez dudalako.

Oroitarazi behar dut areago, pinturaren deituraren pean arte plastikoak hartzen ditudala oro har; eta orobat poesiaren deituraren pean helburutzat naturaren imitatze jarraitu bat duten gainerako arteak ere hartzen ditudala.

I

Jarrerari bezala eiteari buruzko sotiltasun noble eta handitasun bare batean ipintzen zuen Winckelmann jaunak pinturako eta eskultu-

rako maisulan greziarren ezaugarririk orokor eta azpimarragarriena. «Itsasoko sakona —esaten du berak^a— azala haserre egon arren, beti bare dagoen bezala, gisa berean agertzen du eiteak greziarren irudietan, grina guztietan ere, arima handi eta zoardi bat».

Arima hau marratzen da Laokoonen aurpegian, eta ez aurpegian bakarrik, baita sufrikario gogorrenen erdian ere. Gorputzeko gihar eta zain guztietan igartzen den mina, eta, aurpegirik eta beste atalik begiztatu gabe ere, saminez hertsaturiko sabela ikusiz, badirudi norberak sentitzen duela; samin hau, esaten dut nik, ez da agertzen inolako amorruarekin ez aurpegian ezta jarrera osoan ere. Ez du botatzen garrasi izugarririk, Virgiliok bere Laokooni buruz kantatzen duenean bezala; ahoren irekidurak ez lioke aukerarik emango: aldiz gehiago da, Sadoletok kontatzen duen bezala, ahuen antsiasi eta eutsi bat. Gorputzaren sufrikarioa eta arimaren handitasuna irudiaren eraikuntza guztian indar berberarekin daude banatuak eta era berean orekatuak. Laokoonek sufritu egiten du, baina sufritzen du Sofoklesen Filoktetok bezala: bere zoritxarra arimaraino iristen zaigu; baina guk ere desiratuko genuke zoritxarra gizon handi honek bezala jasan ahal izango bagenu.

Gisako arima handi baten adierazpena natura ederraren eraketa baino askoz haruntzago doa. Bere marmolari ezarri zion arimaren indarra bere baitan sentitu behar izan zuen artistak. Artistak eta orobat jakintsu ziren pertsonak, eta Metrodoro bat baino gehiago eduki zituen Greziak. Jakituriak eskua ematen zion arteari, eta irudiei arima arrunta baino zerbait gehiago itsasten zien, eta abar».

Erabat zuzena da honen oinarrian dagoen obserbazioa, alegia Laokoonen aurpegian ez dela azaltzen haren sufrikarioa usteko litza-tekeen adinako suminduraz. Orobat ukatu ezinezko da hain zuzen ere hemen, non erdi-aditu batek artista naturaren azpitik geratu dela, saminaren egiazko patetikotasuna ez duela erdietsi usteko lukeen lekuan; hemen, hain zuzen ere, diot nik, distiratzten duela aparteko modu batean artistaren jakituriak.

Winckelmann jaunak jakituria honi ematen dion oinarrian, arauaren orokortasunean, ausartzen naiz bakarrik beste iritzi bateko izaten.

Aitortzen dut berak Virgiliori botatzen dion zeharbegiratu gaitzesleak txokatu nauela lehenbizi; eta ondoren Filoktetesekiko konbarazioak. Hemendik abiatu, eta nire pentsamenduak nire baitan gara-

tzen diren ordenan idatzi nahi ditut nik. «Laokoonek Sofoklesen Filoktetesek bezala sufritzen du». Nola sufritzen du honek? Harrigarria da bere atsekabeak gugan zirrara hain desberdinak eragitea. Sufrikarioak eraginik, kanpamendu osoa betetzen zuten eta opari guztiak, egikera santu guztiak, gogaitarazten zituzten aieneeek, garrasiek, alarao basatiek era ez gutxiago izugarrian segitu zuten durundatzen uharte mortuan eta haietxek izan ziren hara erbesterratu zutenak ere. Haiek haserre, larritasun, desespero oihuak! Eta haiekin durundatzen zuen aktoreak antzezketan antzokia. Antzerki honek, gainerakoen aldean, hirugarren atala askoz laburragoa duela nabarmendu izan da. Hemendik igartzen da, esaten dute arte-kritikoe**k**, antzinakoei ez zitzaizela asko inporta ekitaldiek luzeera bera ez izatea. Hala uste dut nik ere; baina horretarako nahiago dut hau ez den beste adibide batean oinarritzea. Ekitaldi oso hau osatzen eta hitzaldi jarrai batean beharrezko den ez bezalako luzapenez eta geldialdiez deklamatuak izan behar duten atsekabezko oihuek, intziriek, ὦ, ὦ, πέῤ, ἄλλοττοῖ, ὄμοι, μοί! etenek, πομπή, πομπή deiez beteriko lerro osoek antzespenean ekitaldi hau besteak adina luzarazten dute zalantzarik gabe. Ikusleei iruditu behar izan zitzairen baino askoz laburragoa irudituko zaio irakurleari paperean.

Garrasia da gorputzeko saminaren berezko adierazpena. Homeroren gudari zaurituak ez gutxitan garrasika erortzen dira lurre-ra. Venusek, atzaparkatua izan zenean, garrasi egin zuen ozen**c**; ez garrasi honen bidez atseginaren emakumezko jainkosa bezala bera deskribatzeko, bai ordea natura sufritzaileari bere eskubidea emateko. Marte gotorrak berak, Diomedesen lantza sentitzen duenean, hamar mila gudari haserre egingo luketen bezalako garrasi lazgarria egiten du, bi gudarosteak izuturik gelditzen direlarik**d**.

Homeroren heroiak bestela giza naturaren gaindi nahi adina jasoak badaude ere, beti leial segitzen diote natura horri, saminen eta laidoen sentimendua, sentimendu hau garrasien edo malkoen edo irainen bidez azaldu behar dutenean. Beren egintzen arabera, mota goragoko bateko izaki dira; beren sentsazioen arabera, egiazko gizaki.

Badakit, guk ondorengo zuhurrago bateko europar finagook, hobeto menderatzen ditugula gure ahoa eta gure begiak. Garrasiak eta negarrak debekatzen dituzte begiramenak eta molde onak. Mundu zaharreko adore eginkorra gugan pairatzaile bihurtu da. Egiaz gure

arbasoak handiagoak ziren azken honetan beste hartan baino. Baina gure arbasoak barbaroak ziren. Samin guztiak zapaldu, heriotzaren zartatekoari ikararik egin gabe begiratzea, sugedorrien hozkaden artean irribarrezka hiltzea, ez adiskiderik onenaren bekatuak ezta haren galera ere deitoratzea dira antzinako kemen ifartarraren ezaugarriak^e. Jomsburg-eko bere herrikideei beldurrik ez izateko eta beldur hitza sekula ez aipatzeko legea eman zien Palnatokok.

Ez hala greziarra! Sentitu eta beldurtu egiten zen hura; bere saminak eta bere kezak azaltzen zituen; ez zen lotsatzen giza ahuleziengatik; ezerk ez zuen, ordea, aintzarako bidetik eta bere egitekoaren betetzetik aldenduko. Barbaroen artean basatasunetik eta zabartasunetik zetorrena, harengan printzipioek eragiten zuten. Beretzat heroismoa sukarrian ezkutaturik dagoen txinpartaren pareko da, han dago lo kanpoko indarren batek esnatzen ez duen artean, eta harriari ez bere gardentasuna ez bere hotza kentzen ez dio. Barbaroen artean heroismoa gar distiratsu irense bat da, beti haserre dagoena eta beste tasun oro harengan deskegiten duena, edo gutxienez bezten duena. Homerok troiarrak garrasi basati batez, greziarrak aldiz isiltasun bihoztunez eramaten ditu gudura, horrela igartzen dute garbi interpreteek poetak honen bidez haiek barbaro bezala, hauek herri hezi bezala azaldu nahi zituela. Ni harritzen nau nola ez duten sumatu beste pasarte batean gisako kontragartze bat izakerena; beren hila erretzen ari dira, hori bi aldetan malkorik gabe gauzatzen ez delarik; ὄνειαυρα θέρμω χέοντες. Baina Priamok debekatu egiten die bere troiarrei negar egin dezaten; οὐδ' εἶα κλαίειν Πρίαμος μέγας. Negar egitea debekatzen die, dio Dacier-ek, kezkaturik baitago ez ote diren bigunduko eta biharamunean adore gutxiagoz borrokara joango. Ongi; baina, hona nire galdera: zergatik ordea kezkatu behar du Priamok horregatik? Zergatik ez die ematen Agamenonek agindu bera bere greziarrei? Poetaren asmoa sakonago doa. Honek irakatsi nahi digu greziar heziak bakarrik egin dezakeela negar egin eta orobat kementsu izan; troiar hezi gabeak aldiz, kementsu izateko, lehenbizi gizatasun oro ito behar duela. Νεισιθήμηναι γὰρ μὲν οὐδὲν κλαίειν, esanarazten dio beste leku batean^g Nestor jakintsuaren seme zuhurrari.

Jakingarria da, antzinatetik gureganaino iritsi zaizkigun tragedia urrien artean, bi obra aurkitzea, non gorputzeko saminak heroi sufritzailearen zoritxarrean zati bat, eta ez txikiena, hartzen duen.

Filoktetesez aparte, hilzorian dagoen Herkules da bigarrenena. Eta hau ere Sofoklesekin kexuka, uluka, negarrez eta garrasika jartzen du. Gure auzo eratsuei, zindotasunaren maisu hauei esker, orain intzirika ari den Filoktetes, garrasika dagoen Herkules bat, pertsonaiarik barregarrienak eta jasangaitzenak lirateke antzokian. Egia da beren azkenetako idazle bat^h ausartu dela Filoktetesekin. Baina ausart ahal zitekeen haiei egiazko Filoktetes erakusten?

«Laokoon» bat ere badago Sofoklosen obra galduen artean. Ailiezaguru patuak «Laokoon» hori opa! Gramatikalarik zahar batzuekin egiten dituzten aipamen xumeetatik ezin asma daiteke nola tratatu duen egileak gai hau. Gauza bat daukat nik seguru: ez zukeela tratatuko bere Laokoon Filoktetes eta Herkules baino era estoikoagoan. Estoiko oro teatroaren kontrako da; eta interesatzen zaigun objektuak azaltzen duen atsekabearen pareko da beti gure errukia. Baldin ikusten bada bere miseria arima handiz jasaten duela, arima handi horrek gure miresmena esnatuko du egiaz, baina miresmena atxikimendu hotza da, eta harridura pasibo denez bestelako grina beroago oro, halaber bestelako irudikapen garbi oro, baztertzen du.

Eta orain nator nire ondoriora. Baldin egia bada garrasiak gorputzeko mina sentitzean, bereiziki antzinako pentsamolde greziarraren arabera, arima handi batekin batera iraun dezakeela, ezin izan daiteke gisako arima baten adierazpena kausa zergatik ez duen jaso artistak bere marmolean garrasika aritze hori; aldiz beste arrazoiaren bat izan behar du bere aurkaria den poetarengandik apartatzeko, honek berariaz adierazten baitu garrasi hau.

II

Ipuina nahiz historia izan, maitasuna dela arte plastikoan lehen ahalegina egin duena, gauza ziurra da inolaz ez dela nekatu antzinako maisu handiei eskua gidatzen. Izan ere, baldin gaur egun pintura gorputzak lauean kopiatzen dituen arte gailen bezala bere zabalero gutxian hartzen bada, greziar jakintsuak askoz muga estuagoak finkatu zizkion, eta gorputz ederren kopia soil izatera hertsitu zuen. Hango artistak ederra baino ez zuen irudikatzen; edertasun arrunta bera,

mota apalagoko edertasuna, halabeharrezko gaia zen beretzat, ariketa, atsedena. Objektuaren erabatekotasunak berak sortu behar zuen harridura bere obran; handiegia zen bere obra ikusten zutenei lortutako antzaz, bere trebetasunaren azterketatik sortzen den atsegin hotz soilaz asebate zitezen eskatzeko; bere artean ez zegoen beretzat ezer gogokoagorik, ezer nobleagorik, artearen azken helburua baino.

«Nork margotu nahiko zaitu, baldin inork ikusi nahi ez bazaitu», dio antzinako epigramalari^a batek gizaki guztiz zatar bati buruz. Gure garaiko zenbait artistak esango luke: «Izan zaitezke nahi bezain zatarra; nik halere pintatu egin nahi zaitut. Ez zaitu inork gustura ikusiko beharbada; baina nire pinturak gustura ikusiko dituzte; ez zu irudikatzen zaituen neurrian, gisako munstro bat halako berdintasunez itxuratzen asmatu duen nire artearen froga den neurrian baizik».

Egiaz trebetasun nekagarri batez, beren objektuen balioaren bidez nobletzen ez den harrokeria burgoi honetarako joera naturala da, greziarrek ere beren Pauson, beren Pireiko izan ez zitzaizten. Eduki, eduki zituzten; baina zuzentasunez juzgatu zituzten. Pauson, natura arruntaren edertasunaren azpitik geratu zena, bere gustu oso makurrez giza irudian akastuna eta itsusia adieraztea gustuko zuena^b, pobrezia gordinenean bizi izan zen^c. Eta Pireikok, margolari honelandar baten arreta guztiaz, gisako gauzak naturan izugarritzko lilura izan eta oso gutxitan ikusiko balira bezala, bizartegiak, lantegi zikinak, astoak eta barazkiak margotzen zituenak, *Rhyparografo*^d, gorotz margolari, ezi-zena jaso zuen; nahiz aberats mainatiak bere obrak urrez ordaindu, haien ezerezari ustezko balio honen bidez laguntzeko.

Agintaritzak berak ez zuen desegokitzen jo artista berari egiaz zegokion eremuan egotera indarrez behartzea. Ezaguna da artistari kopiatzen zuena ederragotzea agintzen eta kopiatzen zuena itsusiagotzea debekatzen zion tebarren legea. Ez zihoan legea lardaskatzailearen kontra, hala hartu izan bada ere, eta Junius^e berak hala hartu badu ere. Ghezzi greziarrak kondentzen zituen, alegia jatorritzko irudiaren atal itsusiak azpimarratuz objektuaren antza erdiesteko atrikulu zirtzila; hitz batean: karikatura.

Ederraren espiritutik isuria zen orobat helanodikatarren legea ere. Olinpiako garaile orok estatua bat jasotzen zuen; baina hirutan garaitzen zuenari bakarrik egiten zitzaion ikonoa^f. Artelaren artean ez zuen erdi-purdiko erretratu asko egon behar. Izan ere, erretratuak ideal baterako

bide ematen badu ere, ereduaren antzak nagusitasuna hartu behar dio idealari; gizaki jakin baten ideala da, ez gizakiaren ideal orokorra.

Barre egiten dugu entzuten dugunean antzinakoen artean arte-ek ere herriko legen menpe egon behar zutela. Baina ez dugu beti arrazoi barre egiten dugunean. Zalantzarik ez dago legeek ez dutela esku-biderik jakintzen gainean indarra erabiltzeko; jakintzen azken helburua, izan ere, egia da. Arimari beharrezko zaio egia; eta tirania litza-teke funtsezko premia hau asetzeko orduan bortxarik txikiena eragitea. Arteen azken helburua, aldiz, da atsegina; eta atsegina alde batera ere utz daiteke. Horregatik, inolaz legegilearen esku egon behar du zein atsegin mota eta zein neurritan onartuko dion arte bakoitzari.

Arte plastikoek bereiziki, alde batera utzita ere nazioaren iza-keraren gainean duten eragin ziurra, izan dezakete legearen arreta hur-bilagoa eskatzen duen eragin bat. Baldin gizaki ederrek estatua ederrak sortu bazituzten, hauek ere, beren aldetik, haiengan izan zuten eraginik, eta estatuak estatua ederrei eskertu beharko zizkien gizaki ederrak izatea. Gure artean badirudi amen irudimen samurra muns-troetan bakarrik agertzen dela.

Ikuspegi honetatik uste dut, gaur gezur bezala zapuzten diren antzinako kontakizun batzuetan, egiazko zerbait aurkitzen dudala. Haurdun zeudela, Aristomenesen amak, Aristodamasenak, Alexandro handiarenak, Eszipionenak, Augusturenak, Galerioarenak suge batekin zihardutela egin zuten amets. Jainkotasunaren^g seinale zen sugea; eta Bako baten, Apolo baten, Merkurio baten, Herkules baten estatuak eta pintura ederrak oso gutxitan zeuden sugerik gabe. Emakume noble haiek egunez beren begiak jainkoarekin poztu zituzten, eta amets nahasiak aberearen irudia esnatzen zuen. Horrela salbatzen dut nik ametsa eta alde batera uzten dut bere semeen harrokeriak eta balakariaren lotsagabekeriak ematen zuten argibidea. Zergati bat izan behar baitu izan ere, zergatik fantasia lohia beti suge bat izateko.

Baina nire bidetik aldentzen ari naiz. Nik finkaturik utzi nahi nuen antzinakoen artean edertasuna zela arte plastikoetan lege gorena.

Eta hau finkatu ondoren, derrigor ondorioztatzen da ezen arte plastikoek orobat har dezaketen gainerako guztiak, baldin edertasuna-rekin bat ez badator, hura guztiz utzi behar duela, eta baldin harekin bat etor badaiteke, haren menpe egon behar duela gutxienez.

Adierazpenean segitu nahi dut. Badira grinak eta grina mailak, desitxuraketa itsusien bidez aurpegian azaltzen direnak, eta gorputz osoa halako jarrera bortxatuan jartzen dutenak, non bare egonik ere bera inguratzen duten azpegi eder guztiak galdu egiten diren. Antzinako artistek beraz edota egoera hau erabat albora utzi zuten, edota maila oso apalera eraitsi zuten, han oraindik edertasun apur bat izan bazezaketen ere.

Ez amorruak ez desesperoak laidotzen zuten beren obra bat bera ere. Esan dezaket ez zutela irudikatu sekula furia bath.

Haserre seriotasunera makurtu zuten. Poetarengan Jupiter haserre zen tximistak jaurtikitzen zituen; artistarengan jainko serio bat.

Atsekabea tristuran dago apaldua. Eta apaltze hori gauzatu ezin zitekeenean, eta atsekabe hau apaltzailea bezain desitxuratzaila balitz... zer egingo zukeen orduan Timantesek? Ezaguna da Ifigeniaren opakuntzaren bere margoa, non han dagoen bakoitzari berez dagokion tristeziaren maila ematen dion, baina aitaren aurpegia, tristeziarik handiena erakutsi behar zuena, ezkutatu egin zuen, eta gauza zuhur asko esan da hari buruz. Fisionomia tristeetan halako moduan ahitu zen, dio batekⁱ, non zalantza egiten zuen aitari oraindik tristeagoa eman ahal ote ziezaiokeen. Era horretan aitortzen zuen, dio beste batek^k, aita baten samina gisako gertakarietan adieraztezin dela. Nik nire aldetik ez dut ikusten hemen ez artistaren ezgaitasuna, ezta artearen ezgaitasuna ere. Atxikimenduaren mailarekin batera hari dagozkion aurpegiko ezaugarriak ere areagotu egiten dira; mailarik gorenari dagozkio aurpegiko ezaugarriak erabakigarrienak, eta ez dago gauza errazagorik artearentzat hori adieraztea baino. Baina Timantesek ezagutzen zituen Graziek bere arteari ezarri zizkioten mugak. Berak bazekien Agamenoni, aita zenez, zegokion atsekabea desitxuraketen bidez azaltzen dela, eta horiek beti direla itsusiak. Edertasuna eta duintasuna adierazpenarekin lot daitezkeen bezain urrun eraman zituen berak. Gogo onez jo eta pasatuko zukeen itsusieria, arindu ahal izan balu; baina bere sorketak horretarako aukera ematen ez zionez, zer erremedio geratu zitzaion ez bada hura ezkutatzea? Pintatu ezin zuena, sumatzen utzi zuen. Labur: ezkutatze hori artistak edertasunari eskaini zion opalketa izan zen. Adibide bat da hau azaltzeko, ez nola irudikatzea artearen zuinen gaindi eraman

behar den, baizik nola artearen lehen legeari, edertasunaren legeari, makurtu behar zaion.

Eta lege hau Laookonteri egotziz, garbi dago ni bila nabilen zergatia. Maisuak edertasunik gorena lortzeko lan egiten zuen, onartuz baldintza bezala gorputzeko saminak. Hau, samina, bere gogortasun desitxuratzaille guztian, ezin uztar zitekeen edertasunarekin. Arindu egin behar zen, beraz; garrasiak intziri bihurtu behar ziren; ez noble ez den arima bat garrasiak salatzen duelako, horrek aurpegia era itsusi batean eraldatzen duelako baizik. Izan ere, irudika Laokoon irudimenean ahoa zabal-zabal eginda, eta erabaki. Garrasika jarri, eta ikusi. Errukia pizten zuen irudi bat zen, edertasuna eta samina biak batera azaltzen zituelako; orain irudi itsusi, nazkagarri bihurtu da, eta haren aurrean aurpegia biratu egiten da, samina ikusteak higuina sortzen duelako, sufritzen duen izakiaren edertasunak ezin baitu higuin hori errukizko sentimendu samur bihurtu.

Ahoa zabal-zabalik irekitze hutsa —alde batera utzita zein bortitz eta nazkagarri desitxuratzen eta behartzen diren horrela aurpegi-ko gainerako atalak— pinturan mantxa bat da eta eskulturan zulo bat, munduko inpresiorik zatarrena eragiten duena. Montfaucon-ek gustu gutxi erakutsi zuen buru bizardun zahar bat, ahoa irekita zeukana, orakulu bat esaten ari zen Jupitertzat hartu zuenean^l. Garrasi egin behar al du jainko batek etorkizuna iragartzen duenean? Ahoaren ingurune politago batek errezeloa sortuko al luke bere hitzekiko? Ez diot Valeriori sinesten Ajax aipaturiko Timantesen pinturan garrasika ari zenik^m.

Arteak behera egin zuen garaiko artista askoz txarragoek ez dituzte jartzen barbaro basatienak ere, garailearen ezpataren azpian izuturik eta heriotzaren beldurrak harturik daudenean, ahoa garrasika zabalikⁿ dutela.

Gauza jakina da gorputzeko samin ikaragarria sentimendu maila apalago batera jaiste hori, nabarmen ikusten dela antzinako artelan askotan. Antzinako maisu ezezagun baten jantzi pozoinduan sufritzen dagoen Herkules ez zen Sofoklesena, honek hain izugarriko garrasiak botatzen baititu non Lokridako haitzak eta Eubeako mendiak durundarazten dituen. Gehiago zen Herkules ilun bat, basatia baino^o. Pitagoras Leontinoren Filoktetesek bazirudien bere samina helarazten ziela ikusleei, eta eragin hori ez zuen eragozten inolako

azpegi itsusi txikienak ere. Galde dakidake nondik dakidan nik artista honek Filoktetesen eskultura bat egin zuena? Bada, nik zuzendu zain egon beharrik ez zuen Plinioren pasarte batetik, hain nabarmenki baitago faltsutua edo moztua^p.

III

Baina, aipatu bezala, azkenaldi honetan arteak muga askoz zabalagoak erdietsi ditu. Bere imitazioa, esan ohi da, ikus daitekeen natura osora zabaltzen da, natura horren zati txiki baino ez izaki ederra. Egia eta adierazpena dira bere lehen legea; eta naturak berak edertasuna asmo goragokoei uneoro opaltzen dien bezala, hala artistak ere bere xede orokorraren menpe jarri behar du, eta ez du bilatu behar egia eta adierazpenak zilegiztatzen dutena baino haruntzago. Hitz batean: egia eta adierazpenaren bidez naturako itsusia artearen eder bilakatzen da.

Demagun oraingoz ideia horiek uzten ditugula beren balioa edo baliogabezia eztabaidatu gabe: ez al lirateke egin behar beste gogoeta batzuek, haietatik aparte, zergatik halere artistak adierazpenean neurria gorde behar duen, eta ez hura hartu ekintza puntu gorenetik?

Nire ustez, artearen muga materialak bere imitazio guztiak biltzen dituen une bakarrek ere gogoeta horietara beraietara eramango gaitu.

Beti aldatzen ari den naturatik artistak une bat bakarra soilik, eta pintoreak bereiziki une bakar hori bera ikuspegi bakar batetik soilik erabil dezake; baldin ordea beren obrak ez bakarrik ikusiak izan daitezen soilik, baizik ikuskatuak izan daitezen, luzaz eta sarri ikaskatuak izan daitezen eginak badaude, garbi dago une bakar hura eta une bakar haren ikuspegi bakar hura ezin hauta daitekeela era nahikoa emankorrean. Irudimenari joko libre uzten diona bakarrik da, ordea, emankorra. Zenbat eta gehiago ikusi, orduan eta gehiago gaineratu behar diogu guk geuretik hari. Zenbat eta gehiago gaineratzen diogun, orduan eta gehiago sentituko gara behartuak ikustera. Sentimenduaren garapen osoan ez dago, ordea, haren maila gorenak baino abantaila gutxiago duen unirik. Haren gaindi ez dago ezer, eta gorena begiari

erakustea fantasiari hegoak moztea da, eta, inpresio sentsibleaz haruntzago joan ezin duenez, hura baino beherago dauden irudi ahulekin jardutera behartzea, eta irudi haiei dagokienez beldur dio adierazpenaren betetasun nabarmenari bere mugari bezala. Orduan, Laokoon intzirika ari denean, fantasiak garrasika entzun diezaioke; baina garrasika ari denean, irudimenak ezin du irudi honetatik ez maila bat gorago ez maila bat beherago mugitu, bera egoera penagarriago batean, eta, hartaz, interesik gabeago batean begiratu gabe. Zinkurinka entzuten zaio bakarrik, edo bestela hilda ikusten da.

Gehiago oraindik. Baldin une bakar honek artearen bidez iraupen aldaezina hartzen badu, ezin du ezer adierazi iragankor bezala pentsatua baino. Beren izatez, gure usteen arabera, kolpetik agertzen eta kolpetik desagertzen diren fenomenoek, diren hori une batez bakarrik izan daitezkeenek; gisako fenomeno guztiek, atsegingarri nahiz beldurgarri izan, artearen luzapenaren bitartez hartzen dute naturaren kontrako halako itxura bat, non begirada berri bakoitzaz inpresioa ahultzen den, eta azkenik objektu guztiaren aurrean nazka edo izua sentitzen dugu. La Mettrie-k, bere burua bigarren Demokrito bezala pintatu eta grabarazi zuenak, ikusten den lehenbiziko aldian bakarrik egiten du barre. Sarriago begiratzen bazaio, filosofo zena pailazo bilakatzen da; bere barrea irri gaizto bihurtzen da. Gauza bera gertatzen da garrasiaz. Garrasia eragiten duen oinaze alatsua edota berehala arintzen da edota sufritzen ari dena txikitzen du. Gizonik pazientziatsu eta izukaitzenak ere garrasi egiten duenean, ez du garrasi egiten etengabe. Eta itxurazko etengabetasun hau da artearen imitazio materialan bere garrasia emakumezko ezintasun, haur jasangaitasun bihurtuko duena. Hau ekidin behar zukeen gutxienez Laokoon egin zuen artistak, nahiz onartu garrasiak ez diola kalterik egiten edertasunari, eta bere arteari zilegi lekioketela oinazea edertasunik gabe adieraztea.

Antzinako artisten artean, badirudi Timomakok sentimendu goreneko gaiak hobetsi zituela. Bere *Ajax haserre*a eta *Medea bere haurrak hiltzen*, pintura ospetsuak izan ziren. Baina guk ditugun deskribaketetatik argi ikusten da ikusleak ez bakarrik ikusi baizik imajinatzen duen gailurreko puntua, eta guk iragankorraren kontzeptuaz ez hain derrigor lotzen ez dugun fenomeno, luzatuz gero guri desatsegin litzaigukeena, artistak oso bikain ulertu duela eta

bere artean lotzen asmatu duela. Medea ez zuen hartu bere haurrak benetan hiltzen dituen unean; baizik une batzuek lehenago, amaren maitasuna esparekin borrokan dabilenean. Sumatu egiten dugu borroka horren amaia. Aldez aurretik dardarka gaude Medea anker-rra ikuste hutsarekin, eta pintoreak une lazgarri horretan erakus diezagukeena baino haruntzago doa gure irudimena. Baina horregatik hain zuzen ere mintzen gaitu hain gutxi artean Medearen erabakiezintasunak, eta guk nahiago genukeen natura bera horretan gelditu izan balitz, edo denborak eta gogoetak haserre ahuldu eta amatasunezko sentimenduei garaipenaren segurantzia ziurtatu ziezaioten arte gutxienez geldi geratu izan balitz. Bere zuhurtzia horrek laudorio handi eta usuak ekarri zizkion Timomakori, eta Medea bere eromen handienean erakusteko eta eromen handienaren maila iragankor eta arin horri natura higuintzen duen iraupena emateko bezain burubako izan zen pintore ezezagun baten mailatik gora atera zuen. Hori aurpegiratzon dion poetak^a zentzu osoz esaten du gero irudiari berrari zuzentzen zaionean: «Egarri zara etengabe zure semeen odolaz? Beti hor Jason berri bat al dago, beti Kreusa berri bat, etengabe haserretzen dena? Borreroaren esku zu, pinturan bertan ere!», gaineratzen du lazturaz beterik.

Timomakoren *Ajax haserre*a juzgatu dezakegu Filostratoren berriei esker^b. Ajax ez da azaltzen saldoaren erdian amorratuta, giza-kiak bailiran idiak eta ahuntzak lotu eta hiltzen dabilenean. Maisuak, aldiz, erakusten du ekintza ero horren ondoren, leher eginda, eserita dagoenean eta bere buruaz beste egiteko erabakia hartzen duenean. Eta horixe da zinez *Ajax haserre*a; ez une horretantxe haserre dagoelako, baizik haserre egon dela igartzen zaiolako; orain bere amorruegatik berak sentitzen duen lotsa etsitik sumatzen delako bere haserrearen handia. Berak lehorrera bota dituen hondakinetan eta gorpuetan ikusten da ekaitza.

IV

Berriro ikusten ditut aipatu ditudan arrazoiak zergatik Laokoon egin zuen maisuak gorputzeko oinazeen adierazpenean neurria gorde behar zuen, eta jabetzen naiz arrazoi guzti-guztiak artearen izaera pro-

piotik eta berorren muga eta premietatik hartu direla. Beraz, nekez egotz lekiok horietako bat edozein poesiari.

Hemen aztertuko ez badut ere zenbateko neurrian lor dezakeen poetak gorputzeko edertasuna ongi deskribatzea, ukaezinezko da inolaz, haren imitazioaren perfekzioaren amaibako erresuma osoa zabalik daukanez, agiriko estalki hau, noren azpian perfekzioa edertasun bihurtzen den, baliabiderik txikienetako bat baino ezin izan daitekeela, bere nortasunarekin gu interesa gaitezen. Alde batera uzten du berak sarri guztiz baliabide hau; ziur baitago ezen, bere heroiak gure onginahia irabazten badu, bere tasun nobleek edota halako moduan bereganatuko gaituztela, non gorputzeko bere itxuran ez dugun pentsatuko, edota, itxura horretan pentsatzen badugu, halako moduan liluratuko gaituela, non geure kabuz itxura eder bat ez bada, indifereentea bederen eskainiko diogun. Inondik ere ez du bere arreta jarriko berariaz ikusmenerako egina ez den ezaugarri batean. Virgilioren Laokoonek garrasi egiten duenean, nori bururatzen zaio garrasi egiteko ahoa zabal-zabalik jarri behar denik, eta aho ireki hori itsusia denik? Labur: *clamores horrendos ad sidera tollit*, entzumenerako ezaugarri bikain bat da, nahiz ikusmenerako edozer gauza izan. Norbaitek irudi eder bat eskatzen badu, horrekin poetak bere inpresio osoan huts egin du.

Ezerk ez du behartzen poeta bere pintura une bakar batean laburbiltzera. Ekintza bakoitza, nahi badu, bere jatorrian hartzen du, eta aldaketa guztietan barna, azkeneraino eramaten du. Artistari zati bereizi oso bat kostako litzaiokeen aldaketa hauetako bakoitza, poetari arrasto bat kosta lekiok; eta arrasto horrek, bere hartan hartuta, entzulearen irudimena mindu badezake ere, aurretik datorrenak prestatu dezake, edo ondoren datorrenak halako eran arindu eta orekatuko du, non bere inpresio bereizia galduko duen eta testuinguruan munduko eraginik egokiena egingo. Balitz ere desegoki gizon batentzat oinazeen gogortasunean garrasika aritzea, zer eragozpen ekar liezaioke itsusieria txiki iragankor horrek, berorren gainerako bertuteek bere alde jarri gaituztenean? Virgilioren Laokoonek garrasi egiten du, baina garrasika ari den Laokoon hori bera da dagoeneko aberztzale arretatsuen bezala, aitarik maitakorren bezala ezagutu eta maite duguna. Ez dugu lotzen bere garrasia bere izakerarekin, bere samin jasanezinekin baizik. Hau da bere garrasian entzuten dugun gauza

bakarra; eta poetak garrasi horren bidez bakarrik sentiaraz ziezagukeen.

Nork larderiaturio dio, beraz, hori? Nork ez du, aldiz, aitorturiko: baldin artistak ondo jokatu bazuen Laokoon garrasika ez jarritz, poetak ere hark bezain ondo jokatu zuela garrasika jarri zuenean?

Baina Virgilio hemen poeta narratzailea da soilik. Bera zuri-
tzeko, poeta dramatiko ere tartekatua izango da? Gauza bat da nor-
baiten garrasiaren kontakizuna, beste bat garrasi hori bera. Aktorearen
pintura bizirako egina dagoen drama, horrexegatik hain zuzen ere,
pintura materialaren mugetara hertsikiago egokitu beharko litzateke.
Harengan guk uste dugu ikusi eta entzuten dugula ez soilik garrasika
ari den Filoktetes bat; egiaz hura entzun eta ikusten dugu garrasika.
Zenbat eta gehiago hurbildu antzezlea naturara, orduan eta bizikiago
sentitu behar dute gure begiek eta belarriek; ukatu ezinezko baita,
hauxe gertatzen zaiela guk naturan oinazearen era honetako adieraz-
pen ozen eta bortitzak sumatzen ditugunean. Gainera, gorputzeko
oinazea ez da gauza bestelako gaitzek sortzen duten kupida sortzeko.
Gure irudimenak bereizkuntza gutxiegi ikusiko ditu agian han, haren
ikuste hutsak gudan hari dagokion neurriko sentimendua piz dezan.
Sofoklesek horregatik erraz hankapetan erabil zezakeen ez inolahalako,
baizik gure sentimenduen izaeran bertan oinarrituriko begirune
bat, Filoktetes eta Herkules halako gisan intzirika eta negarrez, hala-
ko gisan garrasika eta orruka ipintzen dituztenean. Inguruan daudenek
ezin parte har dezakete haien oinazetan, izugarritzko gorbizte horiek
eskatzen dutela dirudien neurrian. Guri ikusle haiek konbarazio bate-
an hotz irudituko zaizkigu, eta halere haien errukia gurearen neurri
bezala baino ezin dugu ikusi. Hartaz, beraz, aktoreak nekez edo era-
bat ezin eraman dezake ilusioraino gorputzeko oinazearen adierazpe-
na: eta nork daki, ea azken aldiko poeta dramatikoak goraipatzekoak
diren edo larderiartzekoak diren, uharri hau erabat saihesten dutelako
edo xalupa arin batez inguratzen dutelako.

Zenbat gauza ez ote litzazkiguke eztabaida ezinezko irudituko,
baldin jeinuak egintzaren bidez kontrakoa egiaztatu izan ez balu.
Gogoeta hauek guztiak ez dira funtsik gabeko, eta halere Filoktetes
antzokiko maisulanetako bat da oraindik ere. Izan ere, gogoeta haue-
tako zati bat ez dagokio zuzenean Sofoklesi, eta hau beste zatia-
ren gaindi jarri delarik bakarrik, eredu hau gabe arte kritiko emankorre-

nak berak ametstuko ez lukeen edertasuna erdietsi du. Ondoren datozen oharrek erakutsiko dute hau hurbilagotik.

1. Zein harrigarriro asmatu duen poetak indartzen eta zabaltzen gorputzeko oinazearen ideia! Zauri bat hautatu zuen —izan ere, historiako gorabeherak ere bere esku baleude bezala ikus daitezke, hain zuzen beretzat abantaila direlako hautatu duelako historia osoa—, hautatu zuen, esaten nuen nik, zauri bat eta ez barneko eritasun bat; honen aldean, haren irudi biziago bat egin daitekeelako, bata bestea bezain mingarria izan arren. Meleagro barnetik erretzen zuen gar sinpatetikoa, bere amak arreba bezala piztu zitzaion su hilgarrian opaldu zuenean, ez zen egiaz zauri bat bezain teatrala. Eta zauri hau jainkozko zigor bat zen. Naturala baino gehiago zen pozoin bat ari zitzaion barnean etengabe orruka, eta oinaze eraso bortitzago batek bakarrik zeukan finkatua bere garaia, haren ondoren aldioro zorigaiztokoa lo sorgarri batean erortzen zelarik, eta orduan bere natura ahitua indarbertitzen zen oinazearen bide berari berriro ekin ahal izateko. Chataubrun-ek troiar baten gezi pozoindu batek zauritu zuela dio. Zer apartekorik espero daiteke gisako halabehar ohiko batetik? Edozeini gerta zekiokeen hori antzinako gerrateetan; baina nolatan gertatu zitzaion Filoktetesi ondorio hain beldugarriak izatea? Pozoin natural bat, bederatzi urte osoz bere eragina duena, hil gabe, oraindik askoz ezin sinistuzkoagoa da greziarrak hura hornitu duen harrigarritzko guztia baino.

2. Bere heroia-aren gorputzeko saminak handiak eta izugarriak izan arren, oso ondo sentitzen zuen horiek bakarrik ez zirela aski erruki maila estimugarri bat esnatzeko. Horregatik lotu zituen hauek beste zorigaitz batzuekin, eta hauek beren hartan begiraturik biziki hunkitzen ez bazuten ere, lotura horren bidez kolore melankoliko bat hartu zuten, beren aldetik gorputzeko oinazei komunikatuko zieten. Zorigaitz hauek ziren: giza jendartetasuna erabat kentzea, gosea eta zeru gogor baten azpian gabezia horretan gizakia jarria egon litekeen bizitzako deserosotasun oro^a. Pentsa gizaki bat gisako egoeran, baina eman hari osasuna, indarrak eta trebezia, eta Robinson Crusoe bat da, gure errukirik eskatzen ez duena, nahiz bere patua guretzat indiferente ez izan. Izan ere, oso gutxitan gaude gu giza jendartearekin halako moduan pozik, non handik kanpora dastatzen dugun bakea ez zaigun oso erakargarria iruditzen, bereiziki norbanako bakoitza kitzikatzen

duen ideiarekin, alegia laguntza arrotza gero eta gehiago alde batera utz daitekeen ideiarekin. Beste alde batetik, demagun gizaki bat eritasunik mingarriena eta sendagaitzena duena, baina orobat ezer falta ez dakion saiatzaren adiskide arretatsuz inguratua, haien zoritxarra, beren indarren esku dagoen neurrian, arintzen diotenak dituen, haien ondoan disimulatzen ibili gabe intzirika eta aieneka egon daitekeelarik: zalantzarik gabe harekiko erruki izango dugu, baina erruki horrek ez du luzaz iraungo, azkenik bizkarrak astindu eta pazientzia izan dezala gomendatuko diogu. Bi kasuak batera gertatzen direnean bakarrik, bakartiak bere gorputza mendera ezin duenean, gaixoari beste norbaitek lagundu ezin dionean eta berak ere bere buruari lagundu ezin dionean, eta bere auhenak haize mortuetan galtzen direnean: orduan bakarrik ikusten dugu giza naturak idoro dezakeen miseria guztiek zoritxarrekoa jotzen, eta zoritxarrekoaren lekuan pentsa dezakegun pentsamendu arin bakoitzak izua eta laborria sortzen. Gure aurrean desesperoa ikusten dugu bere itxurarik izugarrienean, eta ez dago erruki gogorragorik, ez du beste erruki batek arima gehiago urtzen desesperoaren ideiarekin nahasten denak baino. Gisa honetako da guk Filoktetesentzat sentitzen dugun errukia, eta bere bizitza miserablea iraunarazten laguntzen zion uztairik gabe ikusten dugunean sentitzen dugu bortizkien- Oh frantsesa, bururik batere eduki ez duena hau pentsatzeko, batere bihotzik ez hau sentitzeko! Edo baldin eduki baditu, nahikoa txikiak izan dira bere nazioaren gustu penagarriari hau guztia opaltzeko. Chateaubrun-ek lagunartea ematen dio. Printzesa bat joanarazten du uharte mortura. Eta hau, bere aldetik, ez dator bakarrik, baizik gorteko lehen dama darama berarekin; gauza bat da hori, nik ez dakidana nork gehiago behar zuen edo printzesak edo poetak berak. Joko bikain osoa uztaiarekin erabat alde batera utzi du. Horren ordeztu begi eder batzuek jartzen ditu jokoan. Gezia eta uztaiaren barregarri iruditu bide zitzaizkion noski gaztedi heroiko frantsesari. Aldiz, ez dago gauza serioagorik begi ederren haserrea baino. Filoktetes errukarria uharte galdu batean egongo eta era miserable batean hilko den kezka latzaz mintzen gaitu greziarrak. Bide ziurrago bat ezagutzen du frantziarrak gure bihotzetaraino: Akilesekin semea bere printzesarik gabe joango den beldurra itsastea. Pariseko kritikoei antzinakoaren gainean lorturiko garaipena deitu zioten honi, eta batek proposatu ere proposatu zuen Chateaubrun-en obra «La Difficulté vaincue» deitzea^b.

3. Osotasunaren eraginaren ondoren, begira dezagun eszena bakoitza: Filoktetes ez da gehiago gaixo utzia; itxaropena duen mortu hil hura aurki utzi eta bere erresumara itzuliko da; bere zoritxar guztia bere zauri mingarrira mugatzen da. Uluka, garrasika ari da, gorputz-dardara izugarriena sentitzen du. Honetara hain zuzen doa itxura apaltzearen erreparoa. Ingeles bat da erreparo hau egiten duena; gizon bat, hartaz, norengandik fintasun faltsu bat nekez susmatuko genukeen. Jada adierazi bezala, arrazoi oso on bat ematen du horretarako. Gainerakoek sinpatia oso gutxiz hartuko lituzketen sentimendu eta grina guztiak penagarriak gertatzen dira, baldin biziagi adierazten badi-ra^c. «Arrazoi honengatik ez dago gauza laidogarriagorik eta gizaki batentzat ezainagorik, bere oinazea, gogorrera izanda ere, pazientziaz eraman ezina baino, aldiz negarrez eta garrasika aritzea baino. Egia da badagoela sinpatia bat gorputzeko oinazearekiko. Ikusten badugu norbaitek besoa edo hanka kolpe bat hartu behar duela, guk ere gure besoa edo hanka erarik naturalenean kuzkurtzen dugu; eta kolpea benetan emana bada, guk ere sentitzen dugu hura, hartu duenak bezala. Baina orobat garbi dago guk sentitzen dugun gaizkia ez dela handia; baldin joak horregatik garrasi bortitz bat botako balu, ez genuke utziko hura mespretxatu gabe, gu ez gaudelako berak bezain bortitz garrasi egiteko egoeran». —Ez dago lege orokorrak ezartzea baino gauza gezurrezkoagorik gure sentimenduentzat. Bere bilbea hain da fina eta katramilatua, non espekulaziorik saiaturari ere ezinezko zaion hari bat bakarra garbi harrapatzea eta hari-gurutze guztietan barna hura segitzea. Eta lortuko balu ere, zertarako balioko luke? Naturan ez dago sentimen garbirik batere; bakoitzarekin batera mila gehiago pizten dira, haietarik txikiena gauza delarik funtsezko sentimendua erabat aldatzeko, era horretan salbuespena salbuespenaren gainean hazten da, ustezko lege hori azkenik kasu bakan batzuetara mugatzen delarik.—Gorputzeko oinazeen pean bortizki garrasi egiten duena mespretxatu egiten dugu guk, dio ingelesak. Baina ez beti: ez lehenbizikoa botatzeari; ez sufritzen duenak bere oinazea disimulatzeko ahalegin guztiak egiten dituela ikusten dugunean; ez, baldin bestela irmotasuneko gizon bezala ezagutzen badugu; gutxiago oraindik, oinazeen artean bere irmotasunaren frogak eskaintzen ikusten badugu, ikusten badugu oinazeen egiaz garrasi egitera bai, baina ez beste ezertara behartu ezin duela, nahiago duela oinaze horren iraupen luzea jasan, bere pentsamoldean, bere erabakietan gauzarik txikiena aldatu baino, nahiz alda-

keta horretan bere oinazearen erabateko azkena espero zezakeen. Hau guztia aurkitzen da Foliktetesengan. Handitasun morala zetzan antzina-ko greziarren artean bere adiskideenganako maitasun aldagaitz batean bezala, bere etsaiekiko gorroto iraunkorrean. Handitasun hau gordetzen du Filoktetesek bere tormentu guztietan. Oinazeak ez dizkio bere adiskide zaharren patuaren ganean malkorik gehiago ezin isurtzeraino lehortu begiak. Eta haitza bezalako gizon hau mespretxatu behar zuten atenastarrek, bera hautsi ezin zezaketen uhinek oihu egin arazten ziotelako? Aitortzen dut apenas gusturik aurkitzen dudala Zizeronen filosofian; batere ez ordea *Auzi Tuskularrak*-etako bigarren liburuan gorputzeko oinazearen jasateari buruz mintzo delarik. Usteko litzateke gladiadore bat trebatu nahiko lukeela, hain sutsuki saiutzen da oinazea kanpora azaltzearen kontra. Badirudi azalpen honetan pazientzia falta bakarrik aurkitzen duela, pentsatu gabe hori ez dela norberaren borondatez egiten, eta egiazko adorea aldiz portaera libreetan agertzen dela. Sofoklesengan Filoktetes garrasika eta uluka entzuten du, eta ezikusia egiten dio bere gainerako portaera irmoari. Non hartuko zukeen aukera bestela poeten kontrako bere erasoetarako? «Bigundu egingo gaituzte, gizonik kementsuenak kexuka azalarazten dituztenez». Kexuka jarri behar dituzte; antzokia ez baita gudategia. Gladiadore kondenatuari edo salduari dagokio dena gizalegez egitea edo jasatea. Hari ez litzaioke entzun behar hotsik txikiena, ez ikusi ere oinazezko brastakorik. Izan ere, bere zauriek, bere heriotzak ikusleak jostaarazi behar zituztenez gero, arteak sentimendu guztiak ezkutatzen irakatsi behar zien. Sentimenduaren azalpenik txikienak errukia piztuko zukeen, eta sarriegi pizturiko errukiak berehala emango zien amaia gisako ikuskizun izugarri haiei. Baina hemen piztu behar ez zenak izan behar zuen antzerki tragikoaren helburu bakarra, eta horregatik guztiz kontrako jokabide bat eskatzen du. Bere heroiek sentimendua azaldu behar dute, beren oinazeak kanporatu behar dituzte, eta natura soilari beraianengan eragiten utzi. Heziketa eta hertsadura agertzen badituzte, gure bihotza hotzik uzten dute, eta ezpatariak koturnotan gehienik ere miretsiak izan daitezke. Izen hau merezi dute Senekaren tragedia deiturikoetako pertsonai guztiek, eta guztiz komentziturik nago gladiadoreen jokoak izan zirela arrazoirik inportanteena erromatarrek tragediari dagokionez erdiko mailaren azpitik oso behera geratzeko. Ikusleek anfiteatro odoltsuetan benetako natura gaizki ezagutzen ikasi zuten; Ktesias batek gehienez ere ikas zezakeen han bere artea, baina sekula ez Sofokles

batek. Heriotza eszena artifizial hauetara ohitua zegoen jeinu tragikoak hanturan eta harropuzkerian erori behar zuen. Baina nola harropuzkeria horiek egiazko adorea itsatsi ezin duten, hala ezin dute bigundu Filoktetesen kexuek. Aieneak gizaki batenak dira, baina portaerak heroï batenak. Biek osatzen dute giza heroia, ez bigundua ez gogortua ez dena, baizik behin hau behin hura dirudiena, berari orain naturak, orain printzipioek eta eginbeharrak eskatzen dioten bezala. Bera da jakinduriak sortu eta arteak kopiatu dezakeen gorena.

4. Ez zuen aski Sofoklese bere Filoktetes sentibera mesprextutik segurtatuz; ingelesaren kritikatik bere kontra ekar zitekeen gainerako guztia ere zuhurkiro ekidin zuen. Izan ere, ez badugu ere beti mesprextatu behar gorputzeko oinazeetan egonik garrasi egiten duena, zalantzarik gabeko gauza da orobat guk ez dugula sentitzen harenganako garrasi horrek eskatu irudi lukeen besteko errukia. Nola jokatu behar dute, beraz, garrasika ari den Filoktetesekin zerikusirik dutenek? Oso hunkiturik sentitu behar dute? Hori naturaren kontra doa. Gisako aukeretan benetan egon behar omen den bezain hotz eta iraizean? Horrek disonantziarik desatseginena sor zezakeen ikuslearengan. Baina, esan bezala, hori ere ekidin du Sofoklese. Eta hain zuzen ere, bigarren mailako pertsonaiek beren interes propioak dituztelako; Filoktetesen garrasiak sortzen duen eragina beraiek kezkatzen dituen bakarra ez delako, eta ikusleak hartaz bai garrasiarekiko bere errukiaren desproporzioari, bai areago bere pentsamoldeetan eta bere asmoe-tan errukiaren bidez, dela hau nahi bezain ahula edo bortitza, pizten den edo piztu beharko zukeen aldaketari kaso egiten die. Neoptolemok eta koruak Filoktetes zoritxarrekoari iruzur egiten diote; badakite zer-nola-ko desesperoa sortuko dion beren iruzurrak; gero beren begien aurrean gertatuko zaio bere halabehar izugarria; halabehar horrek beraiengan inolako sentimen sinpatetiko nabarmenik piztu ezin badu ere, eraman ditzake halere bere baitara sartzera, tamaina horretako miseria begizta-tzera eta saldukeriaren bidez hura ez handitu nahi izatera. Hori espero du ikusleak, eta esperantza hori ez da huts aterako Neoptolemo maza-laren aldetik. Bere oinazeak menderatuko zituen Filoktetes batek Neoptolemo bere disimuluzko jarreran iraunaraziko zukeen. Bere oina-zeak inolaz disimulatu ezin dituen Filoktetes batek, ezinbesteko bazaio ere horren itxurak egitea, gero bere bidaia-lagun izango ditueni beraie-kin eramango duten hitza betetzea damu ez dakien; goitik behera natu-

ra den Filoktetesek Neoptolemo bera ere berriro bere naturara itzul arazten du. Aldaketa bikaina da egiaz, eta gizatasun soilak eragina denez hainbat hunkigarriagoa oraindik. Frantziarrari dagokionez, begi ederrek zerikusi handia dute horretan^d. Baina ez dut gehiago pentsatu nahi parodia horretan. — Inguruan daudenengan beste sentimen bat lotzeko, goputzeko oinazeek sortzen duten garrasiak dakarren errukiaz baliatze bera erabili du Sofoklesek Trakiniarretan. Herkulesen oinazea ez da oinaze ahitzaile bat: horrek amorruraino eramaten du, eta orduan mendekua baino ez du arnasten. Dagoeneko Likas harrapatua zuen bere hira horretan eta haitzaren kontra txikitua. Emakumezkoa da korua; horregatik era askoz naturalagoan menderatzen du beldurak eta izuak. Honek eta ea Jainkoren batek Herkulesi lagunduko ote dion, edo Herkules zoritxarraren pean galduko ote den usteak sortzen du hemen benetako interes orokorra, errukiaren aldetik ukitu txiki bat jasotzen duena. Behin emaitza orakuluen irmotasunaren bidez erabakita dagoenean, Herkules baretu egingo da eta bere azken erabakiarekiko miresmenak garaitzen ditu gainerako sentimen guztiak. Baina Herkules sofritzailea Filoktetes sufritzailearekin konbaratzean ez da inolaz ahan-tzi behar, hura erdi-jainkoa zela eta hau gizakia baino ez. Gizakia ez da lotsatzen bere arrenkurengatik; erdi-jainko bat, aldiz, lotsatu egiten da bere atal hilkorak hilezkorrari gaina hartu diolako halako moduan, non neskatala baten gisan negar eta intziri egin behar duen^e. Gaur guk ez dugu erdi-jainkorik sinesten, baina heroirik txikienak erdi-jainko baten gisara sentitu eta jokatu behar du.

Aktoreak garrasiaren eta oinazearen sorgortasuna ilusioraino eramanez ote dezakeen, ez ukatu ez baieztatzerik ez dut nahi nik. Baldin nik ikusiko banu gure aktoreek ezin dutela, orduan nik jakin beharko nuke ea Garrick bat ere ezgauza ote litzatekeen: eta honek ere lortuko ez balu, beti erabaki beharko nuke antzinakoen eskenografiak eta deklamazioak gaur egun pentsa ere pentsa ezin dezakegun bezalako perfekzioa zuela.

V

Badira antzinatean adituak Laokoon multzoa artista greziarren obratzat bai, baina inperadoreen garaikotzat daukatenak, uste baitute

Virgilioren Laokoonek eredutzat balio izan dietela. Iritzi honetakoen artean aditu zaharren artetik Batholomeo Marliani^a aipatu nahi dut, eta berrien artetik Montfaucon^b. Zalantzarik gabe artelanaren eta poetaren deskribaketaren artean halako adostasun bereizi bat aurkitu zuten, non ezinezko iruditutza zitzaion biak, eskulturgilea eta poeta, hala-behar hutsez berez eskaintzen zitzaion zirkunstantzia beretan ados zitezen. Hartaz puntu garbitzat jotzen zuten, asmatzearen eta lehen ideiarekin ohoreari dagokionez, askoz probabilitate handiagoa zegoela poetaren alde, eskulturgilearen alde baino.

Baina badirudi ahortzi dutela hirugarren bide bat ere litekeena dela. Izan ere, litekeena da ez poetak eskulturgileari, ezta eskulturgileak poetari imitatu diola, baizik biek iturburu zaharrago beretik edan dutela. Makrobioren ustez, Pisandro izan zitekeen iturburu zaharrago hori^c. Izan ere, poeta greziar honen obrak oraindik bazeudenean, eskoletan gauza jakina zen, «*pueris decantatum*», Ilion hartzea eta guztiz deskegitea, bere bigarren liburu guztia alegia, hari ez bakarrik imitatu, baizik oso leial itzuli ziola erromatarrek. Baldin, beraz, Pisandro balitz Laokoonen historian Virgilioren aintzindaria, ez daukate eskulturgile greziarrek beren irakasbidea zergatik hartu beharrik poeta latinoari, eta obra egin zen garaia dagokion beren hipotesiak ez du oinarririk.

Halere, baldin nik derrigor Marlianiren eta Montfauconen iritzia eutsi behar banio, honoko ihesbide hau eskainiko nieke. Pisandoren poesiak galdu egin dira; ezin jakin daiteke ziurtasunez nola kontatu zuen Laokoonen historia; baina litekeena da idazle greziarren arrastoak aurkitzen dizkiegun zirkunstantziekin gertatu izana. Baina hauek ez datoz inondik ere bat Virgilioren kontakizunarekin, baizik poeta erromatarrek tradizio greziarra erabat bere ustearen arabera berregin du. Laokoonen zoritxarra kontatzeko modua bere asmakizun propioa da; hartaz, baldin eskulturgileek beren irudikapenean harekin ados egon behar badute, ezinbestean bere garaian bizi izan behar dute eta haren ereduaren arabera lan egin.

Kinto Kalabriok, Virgiliok bezala, Laokooni egurrezko zaldia-
ren aurrean susmo bera harrarazten dio; baina Laokoonek era horretan bere gainera erakartzen duen Minervaren haserrea erabat bestela gauzatzen da. Lurra dardarka hasten da troiarrak arriskua adierazten duenean; lazturak eta beldurrak hartzen dute; oinaze sutsu batek kiskaltzen

dizkio begiak; burua minez dauka; amorratuta dago; itsu geratzen da. Azkenik, jada itsu, egurrezko zaldia erre dezaten aholkatzeari oraindik eusten dionean bakarrik, bidaltzen ditu Minervak bi herensuge izugarri, baina Laokoonen hurrei bakarrik erasotzen dietenak. Alferrik luzaten dituzte haurrek beren besoak aitarengana; gizagaixo itsuak ezin die lagundu; zatikatuak izango dira, eta sugeak lurrazpira lerratzen dira. Laokoon berari ez diote ezer egiten; eta hau Quintoren^d berarena bakarrik ez dela, baizik oro har onartua zela, Lykofron-en pasarte batetik agertzen da: han suge hauei^e haurjale izenlaguna gaineratzen baitzaiei.

Baldin egoera hau greziarren artean orokorki onartua bazen, nekez ausartuko ziren eskulturgile greziarrak handik apartatzen, eta nekez gertatuko litzateke poeta erromatar baten erara jartzea baldin poeta hori ezagutzen ez bazuten, baldin beharbada ez bazuten jaso enkargu bat berariaz hari jarraiki lan egiteko. Puntu honi, iruditzen zait niri, eutsi beharko litzaioke, Marliani eta Montfaucon defendadu nahi badira. Virgilio da, aita bezala semeak ere, sugeek hilarazten lehena eta bakarra^f; eskulturgileek ere gauza bera egiten dute, nahiz greziar bezala halakorik egin behar ez zuten: hartaz egia-itxura badauka Virgilioren eraginez egin izanak.

Oso ongi jabetzen naiz zenbateko neurrian falta zaion ziurtasun historikoa egiantzekotasun honi. Baina handik ezer historikorik ondorioztatu nahi ez dudanez, uste dut gutxienez hipotesi bezala baliozkotzat eman daitekeela, kritikoak bere oharkizunak horren arabera egokitu ditzan. Egiaztatuta edo egiaztatu gabe badago ere eskulturgileak bere lanean Virgiliori segitu ote dion, nik hori onartu egin nahi dut soilik ikusteko nola segitu dioten ondoren. Garrasiari buruz, esan dut dagoeneko esan beharrekoa. Beharbada erkatzen segitzeak ohazkizun ez gutxiago jakingarriagoetara eramango nau.

Aita bere bi semeekin suge hiltzaileek korapilo batean lotzeko burutazioa, zalantzarik gabe burutazio oso polita da, irudimen oso piktoriko bat erakusten duena. Norena da hori? Poetarena, edo eskulturgilearena? Montfauconek ez du aurkitu uste poetarengan^g. Baina nire ustez Montfauconek ez du irakurri poeta behar besteko arretaz.

—illi agmine certo

Laocoonta petunt, et primum parva duorum

Corpora natorum serpens amplexus uterque

Implicat et miseros morsu depascitur artus.

Post ipsum, auxilio subeuntem et tela ferentem

Corripiunt, spirisque ligant ingentibus —

Harrigarritzko luzeera dutelarik deskribatu ditu poetak sugeak. Haurrak inguratu dituzte, eta aita laguntzera datorkielarik, hura ere atrapatzen dute (corripiunt). Beren luzeeragatik ezin zitezkeen askatu kolpetik hurrengandik; une batez, beraz, gertatu behar zuen, beren buruekin eta aurreko aldearekin dagoeneko aita harrapatu zutela, eta beren atzeko aldearekin haurrak lotuta zeuzkatela. Une haxe da ezinbestekoa margo poetikoaren garapenean; poetak oparo sentiarazten digu; baina ez zen oraindik hura margotzeko garaia. Antzinako interpreteek ere une hori benetan sentitu zutela, badirudi Donatoren^h pasarte batek egiaztatzen duela. Zenbat gutxiago ihes egingo zien eskulturgileei, beren begi adituek, beraientzat abantailako den guztia, hain azkar eta garbi jasotzen dutenean?

Sugeek Laokoonen gorputza inguratzeko egiten dituzten biretan, poetak arreta handiz ekiditen ditu besoak, eskuei beren eragin-kortasun guztia uzteko.

Ille simul manibus tendit divellere nodos.

Honetan derrigor segitu behar zioten eskulturgileek. Ez du ezerk adierazpen eta bizitza gehiago ematen eskuen mugimenduak baino; zirraretan bereiziki, aurpegirik adierazkorrenak ez du garrantzirik haiek gabe. Sugeen uztaiak gorputzean irmo josirik zeuzkaten beso batzuek hoztasuna eta heriotza zabalduko zuketzen multzo osora. Hala, bada, ikusten ditugu besook irudi nagusian bezala alboko irudietan bizkortasun osoan, eta une honetan oinazea gogorrena den lekuan ari direla.

Eskulturgileei ez zitzaaien iruditu eskuen askatasunaz aparte beste ezer hartu behar ziotenik poetari sugeen hertsaketari dagokionez. Bi sugeek Laokoonen gorputzaren inguruan bi bira eta beste bi lepoaren inguruan egin zituztela dio Virgiliok, eta beren buruak harenaren gaindi azaltzen zirela.

Bis medium amplexi, bis collo squamea circum

Terga dati, superant capite et cervicibus altis.

Irudi honek gure irudimena erabat asetzen du; atalik nobleenak itotzeraino daude hertsia, eta pozoina aurpegira doa zuzenean. Hala eta guztiz ere, ez zen hau irudi bat, pozoinak eta oinazeak gorputzean eragiten dutena irudikatu nahi duten eskulturgileentzat. Izan ere, hori sumatu ahal izateko, atalik nagusienek ahal bezain libre egon behar zuten, eta inolaz ere ez zuen izan behar sufritzen zuten kirioen eta lanean ari ziren giharren jokoa aldatu eta ahuldu zezakeen kanpoko presiorik batere. Sugeen uztai bikoitzek gorputz osoa estaliko zuket, eta hain zirrargarria den sabelaren kizkurdura mingarri hura ezin ikusteko moduan geratuko litzateke. Uztaien gainetik edo azpitik edo tartetik gorputzetik ikusiko litzatekeena, ez barneko oinazeak baizik kanpoko zamak eragindako herstura eta hantura bezala azalduko zen. Izan ere, birritan inguraturiko lepoak begiari hain atsegin zaion multzoaren egitura piramidala erabat hondatuko zuen; eta mokor honetatik goraka aterako liratekeen sugeen buru zorrotzek neurrien amilketan hain erabateko bat ekarriko zuket, non osotasunaren forma txokantea bilakatuko zen. Badira marrazkilari batzuek, hala eta guztiz ere poetari segitzeko adinako ergelak izan direnak. Handik zer irten zitezkeen, beste zenbaiten artean Franz Cley-enⁱ orri batetik suma daiteke higuinez. Antzinako eskulturgileek begirada bakar batekin ikusi zuten beren arteak hemen erabateko aldaketa eskatzen zuela. Gorputzaren eta lepoaren inguruko bira guztiak izterren eta oinen ingurutara aldatu zituzten. Bira horiek hemen behar adina estali eta zapal zezaketen inpresioari kalterik egiteke. Hemen pizten dute ihesi eragotziaren eta higiezintasun modu baten ideia, egoera horren iraupen artistikoari mesedeko zaiona.

Nik ez dakit nolatan pasatu duten zeharo isilpean arte-kritikok, sugeen biretan artelanaren eta poetaren deskribaketaren artean hain nabarmen agertzen den desberdintasuna. Eskulturgileen jakituria nabarmentzen du desberdintasun honek, kritiko guztiek ez gorai-patzen baizik soilik zuritzen asmatu duten beste hura bezala, alegia jantzien desberdintasuna. Virgilioren Laokoon bere apaiz jantzietan azaltzen da, multzoan ordea bere bi semeekin guztiz biluzik dago. Esan ohi da badagoela jende bat zentzungabekeria handitzat jotzen duena errege baten semea, apaiz bat, oparia eskaintzean, erabat biluzik irudikatzea. Eta jende hauei arteko adituek erantzuten diete, seriotasunik serioenaz, egiaz ohikoaren kontrako oker bat dela hori,

baina eskulturgileak horretara beharturik daudela beren irudiei janzkera egokirik eman ezin dietelako. Eskulturak, esaten dute, ezin duela oihala imitatu; tolesdura handiek inpresio txarra sortzen dutela; bi gaitzetatik txikiena hautatu dutela, eta hobe dela egiaren kontra jokatzea jazkietan oker jokatzea baino^k. Baldin antzinako artistek eragozpen honen aurrean barre egingo balute ere, nik ez dakit zein erantzun emango lioketen. Ezin beheratu daiteke artea horren bidez baino gehiago. Izan ere, demagun pinturak bezain ondo imita ditza-keela eskulturak ehunak, Laokoonek horregatik jantzita egon behar-ko luke derrigor? Ez genuke ezer galduko jantzi horien azpian? Esklaboen obra den ohial batek izan al dezake betiko jakituriak, gorputz eratu batek adinako edertasuna? Gaitasun berberak eskatzen ditu, balio bera du, ohore bera dakar, hura edo hau imitatzeak? Gure begiek engainatuak izatea nahi dute, eta berdin zaie zerekin engainatzen zaien?

Poeta batengan jantzi bat ez da jantzi; ez du ezer ezkututzen; gure irudimenak dena aldenik alde igarotzen du. Jantzita egon ala biluzik, Laokoonek Virgiliogan bere sufrikario guztia bere gorputzeko atal bakoitzean agerian jarri du. Irudimenari dagokionez, bekokia apaiz xingolaz dago inguratua, baina ez ezkutatua. Ez bakarrik ez du ezer eragozten xingola horrek, baizik sufritzailearen zoritxarrari buruz gure baitan egin dugun ideia indartu egiten du oraindik.

Perfusio sanie vittas atroque veneno.

Bere apaiz duintasunak ez dio ezertan laguntzen; alde guztietan begirunea eta ohorea erakartzen dion apaizgoaren ezaugarriak adur pozointsuaz blai eta iraindurik geratuko da.

Baina alboko ideia hau utzi egin behar zuen artistak, obra nagusiak kalterik izango ez bazuen. Baldin xingola hori, besterik ez bada, utzi izan balio Laokooni, bere espresioa izugarri ahulduko zen. Bekokia zati batean estalita geratuko zen, eta bekokia da adierazpenaren lekua. Lehenago, garrasietan, adierazpena edertasunari opaldu zion bezala, orain hemen ohikoa opaltzen dio adierazpenari. Ohikoa antzinakoen artean oso balio gutxi zuen zerbait zen. Beren artearen xede garaienak ohikoa guztiz alde batera uztera eramaten ziela sentitzen zuten. Edertasuna da xede goren hori; premiak asmatu zituen jantziak, eta ba al du zerikusirik arteak premiarekin? Aitortzen dut bada-goela janztearen edertasun bat; baina zer da hori giza formaren eder-

tasunaren aldean? Eta handiena erdietsi dezakeenak aski izango du txikienarekin? Beldur naiz zinez jantzieta denik eta maisurik onenak ez ote duen erakusten, trebezia horren beraren bidez hain zuzen ere, zer falta zaion.

VI

Nire hipotesiak, eskulturgileek poeta imitatu dutela alegia, ez die kalterik egiten. Beren jakituria aldiz azaltzen da imitazio horren bidez argirik ederrenean. Poetari segitu zioten, hari ñabardura txikienan engainatzen utzi gabe. Bazuten eredu bat, baina eredu hori arte batetik beste batera aldatu behar zuten, nahikoa aukera izan zuten beren kabuz pentsatzeko. Eta beren eredutik apartatzean erakusten dituzten beren pentsamendu propio horiek agerian jartzen dute hauek beren artean bestea berean bezain handiak zirela.

Orain irauli egingo dut nire hipotesia: poeta da eskulturgilea imitatu duena. Badira adituak hipotesi hau egiazkotzat daukatena^a. Ez nuke jakingo esaten zeintzuk arrazoi historiko dituzten horretarako. Baina artelana hain burua galtzeko moduan edertzat daukatenez, ezin komentzi zitezkeen hain garai beranduko izan behar zuenik. Arte bere loraldi erabatekoan zegoen garaikoa izan behar zuen, hango izatea merezi zuelako.

Ikusita dago, ezen, Virgilioren pintura hain bikaina izan arren, eskulturgileak haren zenbait ezaugarri ezin erabili ahal izan dituela. Deskribaketa poetiko on batek pintura egiazko on bat eman behar duela, eta poetak artistari bere zertzelada guztietan segitu dion neurrian egin duela deskribaketa ona dioen tesiak ere badu salbuespenik. Badu batek joera salbuespen hori uste izateko, adibideen bitartez hura sendotu aurretik jada; besterik gabe poesiaren esfera zabala aipatuz soilik, gure irudimenaren esparru amaibakoagatik, bere irudien espiritualtasunagatik; hauek, izan ere, beren pila eta oparotasun handian bata bestearen ondoan egon baitaitezke, bata bestea estali edo hondatu gabe, gauzek beraiek edo hauen zeinu naturalek espazioaren eta denboraren muga estuetan egingo luketen bezala.

Txikiagoak handiagoa hertsu ezin dezakeen bezala, hala txikiagoa handiagoaren barruan egon daiteke. Esan nahi baitut: baldin pin-

tatzen duen poetak erabiltzen duen zertzelada orok oihalean edo marmolean ondorio ona eduki ezin badu, artistak erabiltzen duen zertzelada orok beharbada poetaren obran han bezain ondorio ona izan behar al du? Zalantzarik gabe; izan ere, artelan batean eder aurkitzen duguna, ez du hala aurkitzen eder gure begiak, baizik gure irudimenak, begiaren bitartez. Baldin, beraz, irudi bera gure irudimenean zeinu arbitrarioen edo naturalen bidez piztu badaiteke, aldi oro atsegin bera berriro sor daiteke, maila berean ez bada ere.

Hau ontzat emanik, aitortu behar dut Virgiliok eskulturgilea imitatu behar zuela dion hipotesia askoz ulergaitzagoa egiten zaidala horren kontrakoa baino. Baldin eskulturgileak poetari jarraiki bazez, haien aldentze guztiei erantzuna eman diezaieket. Aldendu egin behar zuten, poetaren zertzelada berberak beren lanetan harenean azaltzen ez diren desgokitasunak sortuko zituzkeelako. Baina zergatik aldendu behar zuen poetak? Multzoari zati guztietan eta bakoitzean leial segitu izan balio, ez liguke emango pintura bikain bat?^b Ongi asko ulertzen dut nola bere fantasiak, bere kabuz lan eginez, zertzelada honetara edo bestera eraman diezaiokeen; baina kausak, zergatik bere epaitzeko indarrak, begien aurrean dituen zertzelada ederrak, beste zertzelada hauetan aldatu behar zituela uste zuen, kausa hauek ez ditut batere garbi ikusten.

Iruditzen zait areago, baldin Virgiliok multzoa eredu gisan eduki izan balu, nekez asetuko zela hiru gorputzen hertsaketa korapilo batean asmatzen utziz soilik. Biziki oso hunkituko zuen bere begia, haren eragin apartekoegia jasango zuen, bere deskribaketan gehiago ez nabarmentzeko. Esan dut: hertsadura hori margotzeko garaia ez zen hori. Ez; baina hitz bakar bat gehiagok poetak ilunpetan utzi nahi zuenari zama erabakigarri bat emango zion beharbada. Hitz hori gabe eskulturgileak argitan jarri zezakeena, poetak, eskulturgilearengan ikusi izan balu, ez zukeen hori gabe utziko.

Arrazoi osoa zeukan eskulturgileak Laokoonen oinazea garraitzen ez bukaarazteko. Baina baldin poetak oinazearen eta edertasunaren arteko gisako lotura hunkigarria begien aurrean eduki izan balu, zerk eragin diezaiokeen hain bortizki erabat oinazearen eta edertasunaren arteko lotura honetatik datorren gizonaren eratasuna eta bihotz handiko egonarrria aipatu gabe uztera, eta gu bat-batean Laokoon baten garrasi izugarriaz izutzeraz? Richardsonek dio:

Virgilioren Laokoonek garrasi egin behar duela poetak ez beraren-ganako errukia, baizik troiarren artean beldurra eta izua sortu nahi zituelako. Ontzat emango dut, nahiz Richardson ez dirudi konturatu denik poetak ez duela egin deskribaketa bere pertsona propioan, baizik Eneasenean, eta Didoren aurrean, honen errukia erakarri nahi baitzuen Eneasek kosta ahala kosta. Ni ez nau harritzen inondik ere garrasiak, baizik garrasi honetarainoko mailaketa falta osoak, horra eraman behar baitzuen poeta berez artelanak, baldin, guk ontzat ematen dugun bezala, bere eredua begien aurrean eduki izan balu. Richardsonek gaineratzen du: azken hondamendiaren deskribaketa patetikora eraman baino ez zuen egin egin behar Laokoonen historiak; poetak horregatik ez zuen interesanteago egin behar, azken gau beldurgarriak eskatzen zuen gure arreta herritar bakar baten zoritxarren bitartez gal ez zedin. Auzia pinturako ikuspegi batetik bakarrik begiztatzea esan nahi du horrek, hortik begiztatua izan behar ez duenean. Laokoonen zoritxarra eta hondamendia poetarentzat ez dira bata bestearen ondoan dauden bi pintura; bien artean ez dute osatzen gure begiek kolpe bakarrez begizta zezaketen edo begiztatu beharko zuketzen osotasun bat; eta aukera horretan bakarrik litzateke kezkatzekoa gure begirada gehiago Laokoonengana luzatzea sutan dagoen hirira baino. Bata bestearen atzetik datoz bi deskribaketak, eta ez dut asmatzen zein desabantaila jasan dezakeen hurrengoak, aurrekoak nahi adina biziki hunkitu gaituelako. Ez bada hurrengoak berez nahi-koa hunkigarri ez izatea.

Arrazoi gutxiago edukiko zukeen oraindik poetak sugeen kiribilak aldatzeko. Eskulturan eskuak jardunarazten dituzte, eta hankak lotu. Zenbat eta gehiago gustatu begiari banaketa hau, orduan eta biziagoa da irudimenean gauzatzen den haren irudia. Hain da nabaria eta garbia, non ezin deskriba daitekeen askoz ahulago hitzen bidez zeinu naturalen bidez baino.

— micat alter, et ipsum

Laocoonta petit, totumque infraque supraque

Implicat et rabido tandem ferit ilia morsu

At serpens lapsu crebro redeunte subintrat

Lubricus, intortoque ligat genua infima modo.

Sadoletorenak dira lerro hauek; Virgiliorenak plastikoagoak izango ziren zalantzarik gabe, baldin begien aurrean zeukakeen eredu batek bere fantasia sutu izan balio, eta haien ordezt eman zizkigunak baino askoz hobeak izango ziren:

Bis medium amplexi, bis collo squamea circum

Terga dati, superant capite et cervicibus altis.

Marra hauek gure irudimena betetzen dute, noski; baina ezin du geratu horretan irudimenak, ez du saiatu behar garbi jartzen, orain sugeak bakarrik, orain Laokoon bakarrik ikusi behar du, ez du irudikatzen saiatu behar zein irudi osatzen duten biek batera. Honetan erori bezain laster, Virgilioren irudia hasten zaio desatsegin gertatzen, eta ez du batere pintatzeko moduko aurkitzen.

Halere, Virgiliok eskura zeukan ereduan egindako aldaketak txarrak ez izan arren, apetzakoak zirakeen. Antzeko bihurtzeko imitatzen da; baina antzeko bihur al daiteke, behar baino aldaketa gehiago eginez? Aldiz, hala jokutzen denean, garbi dago asmoa, alegia ez duela antzeko bihurtu nahi, beraz ez dela hura imitatu.

Guztia ez, erantzun daiteke, baina bai atal hau eta bestea. Ongi; baina zeintzuk dira atal horiek, deskribaketan eta eskulturan hain bata bestearekin ados datozenak, non poetak eskulturatik maillegatu dituela diruditen? Aita, haurrak, sugeak, guzti hau historiak eman zion poetari bezala eskulturgileari ere. Historiako datu hauetaz aparte, ez datoz ados ezertan, ez bada haurrak eta aita suge-korapilo berean hertsia egotean. Baina giro historikoa aldatzean etorri zen hona ideia, alegia semeak jo zituen ezbehar berak jo zuela aita ere. Aldaketa hau, ordea, gorago aipatu bezala, badirudi Virgiliok egin dela; tradizio greziarrak, izan ere, guztiz bestelako gauza bat esaten baitu. Hartaz, guztien hertsaketa horri dagokionez, atal batean edo bestean imitaziorik gertatu bada, sinestekoagoa da eskulturgilearen aldetik gertatu dela, poetaren aldetik baino. Gainerakoan bata bestearengandik apartatzen da; alde batekin ordea, alegia baldin eskulturgilea bada aldaketak egin dituen, poeta imitatzeko helburuak bere hartan iraun dezake, bere artearen eginbeharrak eta mugek horretara behartzen duten bitartean; aldiz poeta bada eskulturgilea imitatu duena, aipaturiko aldaketa guztiak frogatzen dira ustezko imitazio honen kontra, eta, hala eta guztiz ere, hori uste dutenek ez dute beste

asmorik izan behar artelana deskribaketa poetikoaren aldean zahar-
rragoa dela esatea baino.

VII

Baldin esaten bada eskulturgileak imitatzen duela poeta, edo poetak imitatzen duela eskulturgilea, bi gauza esan nahi ditu horrek. Edota batak bestearen obra bihurtzen duela bere imitazioaren egiazko objektu, edo biek imitatzeko objektu bera dutela, eta batak besteari imitatzeko modua hartzen diola.

Virgiliok, Eneasen ezkutua deskribatzen duenean, ezkutu hori egin zuen eskulturgilea imitatzen du, lehen esanahian. Artelana da bere imitazioaren objektua, ez artelanean irudikatua dagoena; eta ezkutuan irudikaturik dagoena deskribatzen duenean, ezkutuari atal bezala deskribatzen du, ez objektu bera bezala. Baldin, ordea, Virgiliok Laokoon multzoa imitatu izan balu, bigarren motako imitazioa litzateke hori. Ez baitluke imitatuko multzo hori, multzo horrek irudikatzen duena baizik, eta handik bere imitazioko arrastoak bakarrik mailegatuko zituzkeen.

Lehen imitaziokoan, orijinala da poeta; bigarrengoan kopia-tzaile bat da. Bere artearen funtsa osatzen duen imitazio orokorreko zati bat da hura, eta jeinu bezala lan egiten du, gaia beste arte baten edo naturaren obra bada ere. Bigarrenak, berriz, bere duintasunetik guztiz eraisten du; gauza bera imitatu ordez haren imitazioa imitatzen du, eta bere jeinu propioaren ezaugarri jatorren ordez, jeinu arrotz baten ezaugarrien oroimen hotza ematen digu.

Baina poetak eta eskulturgileak, biek komun duten objektua, ez gutxitan ikuspuntu berberetik begiztatu behar dutenez, ezinbestean beren imitazioek zati askotan ados egon behar dute, beren artean imitaziorik edo lehiarik batere izan gabe. Adostasun hauek eskulturgile eta poeta garaikideen artean, ez dauden gauzei buruz elkarren arteko argibideetara eramán dezakete; baina halabeharra asmo bihurtzeko gisako argibideak konpontzea, eta bereiziki poetari huskeria bakoitzean estatua honi edo pintura hari begiratu bat egozte, poetari nolahalako mesedea egitea litzateke. Eta ez hari bakarrik, baita irakurleari

ere, horrela pasarterik ederrenak, Jainkoak nahi badu, oso garbiak gertatuko baitzaizkio, edo bestela zinez hotzak.

Hauxe da obra ingeles ospetsu baten asmoa eta akatsa. Spencek bere *Polymetis*^a erudizio klasiko handiz idatzi zuen, eta antzinako artetik geratu diren obren ezagutza sakonez. Horien bidez poeta erromatarrek argitzeko, eta poetengandik berriro oraindik argitu gabe dauden artelan zaharrei buruzko argibideak ateratzeko zuen asmoa, sarri ondo erdietsi du. Baina, hala eta guztiz ere, nirekiko daukat gustuko irakurle batentzat bere liburuak erabat jasangaitza izan behar duela.

Normala da, Valerio Flaccok ezkutu erromatarretako oinaztarri hegoduna deskribatzean,

(Nec primus radios, miles Romane, corusci

Fulminis et rutilans scutis diffuderis alas)

deskribaketa hori niri askoz garbiagoa gertatuko zaidala gisako ezkutu baten marrazkia antzinako monumentu batean begiztatzen dudanean^b. Litekeena da Marte, Addison-ek txanpon batean Rhearen gainean ikusi uste zuen^c jarrera hegalarian, antzinako armagileek kasakoetan eta ezkutuetan irudikatu izana, eta Juvenal-ek gisako kasko edo ezkutu bat gogoan izatea Addison iritsi arte interprete guztientzat igerkizun izan diren hitz batzuekin aipatzen zuenean. Nirekiko daukat, nik ere, Zefalus ahituak haize freskoa eskatzen eta bere Prokris-ek Aura aurkari baten izentzat hartzen duen Ovidioren pasartea:

Aura — venias —

Meque juves, intresque sinus, gratissima, nostros!

nik ere, ari nintzen esaten, pasarte hori naruralagoa aurkitzen dudala, antzinakoen artelaneetatik ikusten dudanean horrek egiaz haize samurra pertsonifikatzen duela, eta emakumezko Silfide moduko bat Aura izenaz beneratu zutela^d. Onartzen dut Juvenalek alfer bat Hermes-en pilare batekin konbaratzen duenean, gisako zerbait nekez aurki daitekeela halako pilare bat ikusi gabe; jakin gabe pilare txar bat dela jainkoaren burua bakarrik, gehienez ere enborrarekin, dakarrena, eta han ez eskuak ez oinak ikusten ez ditugunez, gudan nagikeriaren ideia pizten duena^e. Ez dira zapuztu behar gisako argibideak, ez beti beharrezko, ez beti behar hainbateko ez badira ere. Poetak artelana berezko zerbait bezala zeukan begien aurrean, eta ez imitazio bezala; edo eskulturgileak eta poetak kontzeptu berberak zeuzkaten onartuak,

eta horren ondorioz beren irudikapenetan adostasuna azaldu behar zuen, eta hortik ideia horien orokortasuna ondoriozta daiteke.

Baina Tibulok Apoloren irudia pintatzen duenean, ametsetan azaldu zaion bezala: — Mutil gazterik ederrena, lokiak ereinotz garbiaz bildurik; usain siriarrak usaintzen du garondo luzearen biran dabilen urrezko bilotik; zuri distiratsua eta purpura gorria nahasten dira gorputz osoan zehar, bere maitearengana eramana den andregaiaren mazelean bezala: zergatik hartu behar dituzte ezaugarri hauek derrigor antzinako pintura ospetsuetatik? Echion-en *nova nupta verecundia notabilis* Erroman egina izan bada, milaka eta milaka bider kopiatua izan bada, andregaiaren lotsak berak mundutik desagertu behar du horregatik? Pintoreak ikusi zuenez geroztik, ezin zuen poeta batek ikusi, pintorearen imitazioan izan ezik?^f Edo beste poeta batek Vulkano nekatuta dagoela dioenean, eta bere aurpegia labearen aurrean gorri eta sutu deitzen duenean, pintore baten obrari esker ikasi behar zuen lanak nekatu eta beroak gorritu egiten duela?^g Edo Lukreziok urteen aldaketa deskribatzen duenean, eta hura, haizetan eta lurrean dituen eraginen segizio guztiaz, bere ordena naturalean pasaarazten duenean: Lukrezio iragankor bat zen, ez zuen urte oso bat bizi izan, aldaketa guztiak berak esperientziaz ikasteko, jarraigo baten gisan deskriba zitzan, han bere estatuak eramana zirelarik? Estatua hauek behar izan zituen aurretik gisako izaki abstraktuak egiazko izaki bihurtzeko baliabide poetiko zaharra ikasteko?^h Edo Virgilioren *pontem indignatus Araxes*, bere uberkatik gainezka egin duen ibai baten irudi poetiko bikain honek, nola aitzinatzen den bere gainean eraikiriko zubia hautsiz, ez al du bere edertasun guztia galtzen, baldin poetak jainko-ibai hau benetan zubi bat puskatzen duela irudikatzen duen artelan bat aipatzen badu?ⁱ Zertarako behar ditugu guk gisako argibideak, artista baten burutazio bat usma arazteko poeta baten pasarterik gardenenetatik apartatzen bagaituzte?

Sentitzen dut «Polymetis» bezalako liburu bat, hain baliagarria izan zitekeena, antzinako poetei beren fantasia propioaz aritzearen orde z arrotzen ezagutza egin izana leporatzeko gustu txarreko grinagatik, hain nazkagarri bihurtu izana eta idazle klasikoentzat askoz kaltegarriago, etimologilari arinenaren ulermolde ergelenak baino. Oraindik gehiago sentitzen dut Spence-ri Addisonen honetan aurre hartu izana, honek antzinako artelanen ezagutza ulertzeko baliabide

bihurtzeko bere gogo laudagarriak eraginik, hain gutxi bereizi baititu aukerak, noiz artistaren imitazioa poetarentzat egoki izan den, eta noiz txikiagotzen duen^k.

VIII

Poesiak eta pinturak beren artean duten antzaz Spencek iritzirik bitxienak ditu. Berak uste du bi arteak antzinakoen artean halako moduan zeudela lotuak, non eskua-eskuan joan zirela beti, eta ez poetak pintorea, ez pintoreak poeta galdu zuela begietatik. Poesia arte zabalagoa dela; pinturak erdiets ezin ditzakeen edertasunak dauzkala eskura; edertasun ezpiktorikoak piktorkoen aurretik jartzeko arrazoiak dituela sarri: badirudi horretan ez duela pentsatu, eta horregatik antzinako poeten eta artisten artean sumatzen duen desberdintasunik txikienean, nahastuta geratzen da, eta munduko aitzakiarik harrigarrienetara jotzen du.

Antzinako poetek gehienetan adarrak jarri ohi dizkiote Bakori. Horregatik, harrigarria da, dio Spencek, adar horiek estatuetan hain gutxitan ikustea^a. Batzuetan arrazoi hau ematen du, hurrengoan beste bat; antzinazaleen ezjakintasuna, adarren beraien txikitasuna, jainkoaren betiko apaingarri diren mahatsaren eta huntzaren azpian ezkutatuta egongo zirela. Beti dabil biraka benetako arrazoiaren inguruan, baina haren susmorik gabe. Bakoren adarrak ez ziren naturalak, fauno eta satiroenak ziren bezala. Bekokiko apaingarri ziren, ipini eta kendu zitzakeenak.

— Tibi, cum sine cornibus adstas,

Virgineum caput est: — —

esaten du Ovidiok^b Bakori ospatsuki deitzen dionean. Beraz, adarrak gabe ere azal zitekeen; eta adarrak gabe azaldu ere azaltzen zen, bere edertasun birjinan agertu nahi zuenean. Era honetan irudikatu nahi zuten hain zuzen eskulturgileek, eta horregatik itsusitu zezaketen gehigarri guztiak ekidin behar zituzten. Gisako gehigarria ziren diademan finkaturik dauden adarrak, Berlingo errege-ganbaran ikus daitekeenez^c. Gisako gehigarri bat zen diadema bera, bekoki ederra estaltzen duena, eta horregatik Bakoren estatuetan adarrak bezain urri

azaltzen dena, poetek, haren asmatzaile zirenez, hain sarri egotzi badizkiote ere. Poetari adarrek eta diademak jainkoaren egintzei eta izakerari buruzko aipamen finak egiteko aukera ematen zieten; eskulturgileei, aldiz, edertasun handiagoak erakusteko traba gertatzen zitzaizkien; eta baldin Bakok, nire ustez, horregatik Biformis, *Διμορφος*, deitura —hain zuzen ere eder eta itsusi azal zitekeelako— bazeukan, naturala zen artistak bere irudien artean bere arteari egokien zetorkiona hobestea.

Minervak eta Junok poeta erromatarrengan sarri oinaztarria botatzen dute. Baina zergatik ez da gertatzen gauza bera bere irudikapenetan? galdetzen du Spencek^d. Eta erantzuten du: bi jainkotasun hauen eskubide bereizia zen, eta horien berri beharbada misterio samotraziarretan ikasi ohi zen; baina artistak antzinako erromatarren artean jende arrunt bezala hartuak zirenez, eta horregatik misterio hauetara sarrerarik ez zutenez, zalantzarik gabe ez zuten haien berri, eta jakin ez zekitenez irudikatu ere ezin zituzten irudikatu. Nik, ordea, galde nahi nioke Spenceri jende arrunt honek bere kasa, edo misterioen kontura jakinaren gainean zegoen jende nobleagoren agindura lan egiten zuen? Greziarren artean ere artistak hain gutxietsiak ziren? Ez ziren artista erromatarrak, hein handi batean, Grezian jaioak? Eta abar.

Estaziok eta Valerio Flakok Venus haserre bat deskribatzen dute, eta halako aztura hain izugarriez, non une horretan errazago hartuko litzatekeen furiatzat eta ez maitasunaren jainkosatzat. Alferrik saiatzzen da Spence gisako Venus baten bila antzinako artelanen artean. Zer ondorioztatzen du hortik? Poetari gehiago zilegitzen zaiola eskulturgileari eta pintoreari baino? Hori ondoriozta beharko zukeen; baina behin betiko oinarritzat hartzen du, ezen deskribapen poetiko batean ez datorrela ongi, pintura batean edo estatua batean irudikatuz gero, egoki izango ez litzatekeen ezer^e.

Hartaz, poetak dira huts egin dutenak. «Estazio eta Valerio poesia erromatarra gainbehera zetorren garai batekoak dira. Hemen ere beren gustu hondatua erakusten dute, eta beren irizmolde txarra. Garai hobe bateko poeten artean ez da aurkituko gisako hobenik arte plastikoen kontra»^f.

Sen gutxi behar da, egiaz, halako zerbait esateko. Halere ez dut joko ez Estazioren ez Valerioren alde. Artistak irudikatzen dituen jainkoak eta izaki espiritualak ez dira poetak behar dituenekin guztiz ber-

din. Artistarengan abstrakzio personifikatuak dira, beti ezaugarri berberak gorde bahar dituztenak, ezagunak izango badira. Poetengan, aldiz, egiaz jardun diharduten izakiak dira, beren izakera orokorraz aparte bestelako ezaugarri eta sentimenak dituztenak, eta aukeren arabera haiek baino gorago jarri daitezkeenak. Eskulturgilearentzat Venus maitasuna baino ez da; hargatik gu maiteengan erakartzen gaituzten eta hartaz maitasunaren ideia abstraktuarekin batera lotzen dugun edertasun lotsakor eratsu guztia, lilura samur guztia eman behar dizkio. Ideal horretatik apartatze txikienak haren ezagutzea eragozten digu. Edertasuna bai, baina lotsa baino maiestate gehiagoz ez da jada Venus, Juno baizik. Xarma, baina harroskoagoa, suhartsuagoa, xarma samurra baino gehiago, eta Minerva bat dator, Venus baten ordeaz. Azkenik, Venus haserre bat, amorruek eta mendekuek irabiatutako Venus bat, kontraesana da eskulturgilearentzat; maitasuna, izan ere, maitasun denez, ez baita haserretzen, ez mendekatzen. Poeten artean, aldiz, Venus egiaz maitasuna ere bada, baina maitasunaren jainkosa, izakera horretaz aparte, bere nortasun propioa ere baduena da, eta hartaz gorroto izateko bezala txera izateko gauza izan behar du. Nola harritu, beraz, baldin poetak amorruez eta haserrez suturik azaltzen badu, bereiziki maitasun mindua bera bada horretara eramane duena?

Egia da, noski, eskulturgileak ere, irudi desberdinez osaturiko obratan, Venus, edo beste jainkotasun bat edozein, bere izakeraz aparte, poetak bezain ondo aurkez dezakeela izaki ekintzaile bezala. Baina orduan bere egintzek ezin kontraesan ahal izango dute haren izakera, baldin honen zuzeneko ondorio ez badira. Venusek jainkozko bere armak ematen dizkio bere semeari: ekintza hau irudika dezake eskulturgileak, poetak bezala. Ez dio ezerk eragozten hemen, maitasunaren jainkosa bezala berari dagozkion xarma eta edertasuna eman diezazkion; aldiz, era horretan bere obran askoz ezagunerrazago izango da. Baina bera mespretxatzen dutenen kontra, Lemnosko gizonen kontra mendekua hartu nahi duenean, itxura handiagotu basati bat, mazelak gorri-gorri, biloak nahasi dituela, zuzia hartu, soineko beltz batean biltzen delarik: une hori ez da egokia eskulturgilearentzat, une horretan ez baitago ezer Venus ezagun egingo duenik. Poetarentzat da une egokia hori, honek abantaila baitu beste une bat, non jainkosa goitik behera Venus delarik, hain hurbiletik, hain zehazki harekin lotzeko, non Venus furia bezala ere ez dugun begietatik galtzen. Hala egiten du Flakok:

— Neque enim alma videri
 Iam tumet; aut tereti crinem subnectitur auro,
 Sidereos diffusa sinus. Eadem effera eta ingens
 Et maculis suffecta genas; pinumque sonantem
 Virginibus Stygiis, nigramque simillima pallam^g.
 Eta gauza bera Estaziok:
 Ila Paphon veterem centumque altaria linquens,
 Nec vultu nec crine prior, solvisse jugalem
 Ceston, et Idalias procul ablegasse volucres
 Fertur. Erant certe, media qui noctis in umbra
 Divam, alios ignes majoraque tela gerentem.
 Tartarias inter thalamis volitasse sorores
 Vulgarent: utque implicitis arcana domorum
 Anguibus, et saeva formidi ne cuncta replet
 Limina^h.-

Edo esan daiteke: poetak bakarrik dauka bereizgarri ezkorrez deskribatzeko, eta bereizgarri ezkor hauek baikorrekin nahastuz, bi ikuspegi bakar batean emateko baliabidea. Ez da gehiago Venus goxoa; ez da gehiago biloa urrezko orratzez lotua daukana, ez du gehiago jantzi urdinik inguruan aidetan; ez dauka gerrikorik; bestelako suz, bestelako geziz armatua dago; bere antzeko furiak lagun dituela. Baina artistak baliabide hau albora utzi behar duelako, poetak ere albora utzi behar al du? Baldin pinturak poesiaren ahizpa izan nahi badu, ez du gutxienez izan behar ahizpa jeloskorra; eta ez biezazkio debekatu gazteenak zaharragoari berak janzten ez dituen apainduriak.

IX

Baldin, aukera bakoitzean, pintorea eta poeta elkarren artean konparatu nahi badira, ezer baino lehen begiratu behar da ea biek askatasun osoa izan duten, ea kanpoko bortxarik gabe lan egin ahal izan duten beren artearen eragin handiena lortzeko.

Erlijioa zen sarri gisako kanpoko bortxetako bat antzinako artistentzat. Beren obra, kulturako eta gurtzarako jarria, ezin zitekeen izan ikuslearen atsegina helburu bakartzat eduki izan balu bezain osokoa. Sineskeriak jainkoak sinboloz gainezka ipintzen zituen, eta haien arteko ederrenak ez ziren alde guztietan ederren bezala gurtuak.

Bako Lemnosko bere tenpluan, nondik Hypsipyle jaieratsuak bere aita salbatu zuen jainkoaren irudipean^a, adarrak jarrita zegoen irudikatua, eta gisa berean azaltzen zen, zalantzarik gabe, bere tenplu guztietan, adarrak baitziren bere sinboloa, bere izaera izendatzen zutenak. Artista libreak bakarrik, bere Bako tenplu baterako lantzen ez zuenak, alde bat uzten zuen sinbolo hau; eta baldin guk jainko honen gainerako estatuen artean bat bera ere aurkitzen ez badugu adarrak dituelab, Bako benetan gurtua zen irudi sagaratuetatik bakar bat ere ez zaigula geratu egiaztatzeko froga bat izan daiteke behar bada hori bera. Hala eta guztiz ere, oso da litekeena puskatzaile jaieratsuen haserrea kristautasuneko lehen mendeetan azken hauen kontra bereiziki zuzen zedin, amorru horrek izan ere, inolako gurtzaren bidez orbandua izan ez zen artelanan bat salbuesten baitzuen han eta hemen.

Argitara ateratako antzinako obren artean era bateko bezala besteko piezak aurkitzen direnez, nahiago nuke artistak benetan artista bezala, edertasuna bere lehen eta azken helburutzat dutela egin dituenek bakarrik emango balitzaie artelan deitura. Gainerako guztiak, hitzarmen erlijioso baten aztarna nabarmenegiak baitituzte, ez du merezi izen hau, artea arteagatik ez delako hemen landu, baizik erlijioaren laguntzaile soil bezala, eta horrela arteari eskatzen zizkion irudikapen sentsualetan gehiago begiratzen zitzaion esangurari ederrari baino; halere ez dut horrekin esan nahi erlijioak sarri esanguratsua ederrean sartu ez duenik, edo arteari eta mendeko gustu finari amore emanez, hainbeste aldendu denik harengandik non bailirudikeen hau bakarrik dela nagusi.

Baldin halako bereizkuntza egiten ez bada, aditua eta antzinazaleak etengabe ibiliko dira elkarren kontra borrokan, ez duelako bata bestea ulertzen. Adituak, artearen xedea begien aurrean hartuta, esaten badu hau edo bestea antzinako artistak ezin egin ahal izan duela, hain zuzen ere artista bezala ez, askatasunez ez; orduan antzinazaleak gaineratuko du ez erlijioak, ez arteaz kanpo legokeen beste

arrazoi batek ezin duela bihurtu artista eskulangile soil. Hala bada, antzinazaleak adituari erantzun usteko dio irudirik onena aurkeztuz, eta adituak inolako erreparorik gabe, baina mundu ikasiaren haserre-rik handienerako, zakarretatik ateratako estatua, berriro zakarretara kondenatuko du^c.

Alderantziz ere gerta liteke, alegia, erlijioak artearen gainean duen eragina gehiegi areagotzea. Honen adibide bitxia eskaintzen digu Spencek. Spencek aurkitu zuen Ovidiogan, Vesta bere tenpluan inolako irudi pertsonalik gabe ohoratua zela; eta hori aski iruditzen zitzaion erabakitzeko ez zegoea jainkosaren estatuarik batere, eta orainartean haren estatuatzat hartu zen guztiak ez zuela irudikatzen Vesta bera, vestal bat baizik^d. Bitxia, benetan, ondorioa! Eskulturgileak bere eskubidea galdu zuen poetek nortasun jakin bat ematen dioten izaki bat, Saturnoren eta Ops-en alaba egin zutena, Priaporen tratu txarren azpian erortzeko arriskuan ipini zutena, eta beste hainbat kontu egotzi zizkio-tena, eskulturgileak bere eskubidea galdu zuen, esaten nuen nik, horregatik izaki hau bere modura pertsonifikatzeko, tenplu *batean* suaren sinbolopean adoratua zelako bakarrik? Izan ere, Spencek horretan beste oker bat ere egiten du, alegia Ovidiok Vestaren tenplu jakin bategatik, Erromakoagatik hain zuzen ere, esaten zuena^e, jainkosa horren tenplu guztietara, salbuespenik gabe, eta bere adorazio osora zabaltzen duela. Erromako tenplu honetan Vesta gurtua zen modua ez zen alde guztietan adoratua zen modu bera, ezta Numak tenplua eraiki aurretik Italian bertan adoratua zen modua ere. Numak ez zuen ikusi nahi jainkotasun bat ez giza ez abere itxuran irudikatua; eta horixe zen zalantzarik gabe Vestaren mesedetan egin zuen hobekuntzaren arrazoia, alegia haren irudikapen pertsonal oro urruntzea. Ovidio berak jakinarazten digu Numaren garaien aurretik bazirela Vestaren irudiak bere tenpluan, Sylvia bere sazerdotesa ama izan zenean, lotsaz bere esku birjinak begien aurrean ipini zituenaf. Are, hiriaz aparte, probintzia erromatarretan zeuzkan tenpluetan, haren gurtzak ez zuen izan behar erabat Numak agindu zuen modukoa; badirudi hala egiaztatzen dutela *Pontificis Vestae* bat aipatzen duten^g antzinako inskripzio batzuek. Korinton ere bazegoen Vestaren tenplu bat inolako irudirik gabea, jainkosari opariak eskaintzen zitzaizkion aldare soil batekin^h. Baina greziarrek Vestaren irudirik ez zutela izan, esan al daiteke horregatik? Atenasen bazegoen bat Prytaneon, bakearen estatuaren ondoanⁱ.

Iassostarrak harro zeuden zeru irekian zegoen estatua batekin, ez elurrik ez euririk sekula gainera erori ez omen zitzaiolako^k. Pliniok beste irudi eseri bat aipatzen du, Eskopasek egina, bere garaian jardin serbilianotarretan Erroman zegoena^l. Demagun zail gertatzen zaigula vestal soil bat Vesta berarengandik bereiztea, horrek egiaztatzen al du antzinakoek ere ezin zutela bereizi, edo ez zutela bereizi nahi? Ezaugarri batzuek garbi mintzo dira jainkosaren alde eta ez vestalen alde. Zetroa, zuzia, paladioa, jainkosaren eskuetan baino ez dira pentsatzekoak. Kodinok ondoan jartzen dion tinpanoa lurraren jainkosa delako bakarrik datorkio; edo Kodinok berak ez zekien garbi zer ikusi zuen^m.

X

Ohartzen dut oraindik Spenceren beste ustekabeko bat, poesiarren eta pinturaren mugei buruz zein gutxi pentsatu duen garbi erakusten duena.

«Musei berariaz dagokienean, esaten du, harrigarria da zein zikoitz diren poetak haiek deskribatzean, jainkosen deskribaketan — haiekiko duten obligazioagatik— espero zitekeena baino askoz zikoitzagoak»^a.

Zer esan nahi du horrek, ez bada harritzea poetek musei buruz ari direnean, pintoreen hizkuntza mutuan ez direla mintzo? Urania da poetentzat astronomiaren musa; bere izenetik, bere egintzetatik asmatzen dugu bere egitekoa. Eskulturgileak, hura ezagutzeko moduan jartzeko, zeruko sabaia seinalatzen zuen makila batekin irudikatu behar zuen; makila hau, zeruko sabai hau, jarrera hau dira eskulturgileak Urania izena osatzeko erabiltzen dituen hizkiak. Baina poetak esan nahi duenean Uraniak izarren bidez iragarri zuela bere heriotza;

Ipsa diu positis lethum praedixerat astris

Uranie^b -

zergatik tartekatu behar zuen, pintorea kontuan hartuz: Urania, makila eskutan eta zeruko sabaia aurrean duela? Ez al litzateke ozen hitz egin dezakeen eta behar duen gizon bat seinalez baliatuko balitz bezala, turkiarren lizun-etxean mutuek, beren artean jarduteko asmatu dituzten seinaleez baliatuko balitz bezala?

Harridura bera azaltzen du Spencek berriro antzinakoek bertuteen edo giza bizitzaren gidaritzaren buruan ipintzen dituzten izaki moralen edo jainkotasunen aurrean^c. «Nabarmentzekoa da, dio berak, usteko litzatekeena baino askoz gutxiago esaten dutela poeta erromatarrek izaki moral hauei buruz. Artistak askoz ere oparoagoak dira alor honetan, eta bakoitzari zein jantzi ipini dioten jakin nahi duenak, kaiser erromatarren txanponak azter ditzala^d. Poetak egiaz sarri mintzo dira izaki hauei buruz, pertsona bezala; baina beren ezaugarriei buruz, bere jantzi eta gainerako itxurari buruz oso gutxi esaten dute».

Poetak abstrakzioak pertsona bihurtzen dituenean, izenaren bidez eta beren egintzen bidez nahikoa garbi karakterizatzen ditu.

Baliabide horiek gabe aurkitzen da artista. Horregatik, ezagun egingo dituzten sinboloak ipini behar dizkie abstrakzioei. Sinbolo hauek, beste zerbait direlako, eta beste zerbait adierazten dutelako, irudi alegoriko bihurtzen dituzte.

Eskutan uhala duen emakume bat; beste bat pilarearen kontra bizkarra jarrita duena, artean izaki alegorikoak dira. Baina neurritasuna, irmotasuna poetarengan, horiek ez dira izaki alegorikoak, abstrakzio pertsonifikatu soil baizik.

Premiak eraman du artista sinbolo hauek asmatzera. Izan ere, irudi honek edo besteak zer esan nahi duen, ezin du beste ezeren bidez ulergarri egin. Baina premiak eskulturgilea horretara eraman badu, zergatik eraman behar du premiak poeta horretara, premia hori eza-gutu ere ezagutzen ez badu?

Spence hainbeste harritzen duenak mereziko luke jarriko balitz arau bezala poetentzat. Pinturaren premiak ez dituzte bihurtu behar beren altxor. Arteak poesiara hurbiltzeko asmatu dituen baliabideak ez ditu ikusi behar poesiak berak inbidiatu beharko lukeen perfekzio bezala. Artista batek bere irudia sinboloekin apaintzen badu, irudi soila zena izaki goragoko bihurtzen du. Baldin, ordea, poeta apainduria horietaz baliatzen bada, izaki goragoko zena panpina bihurtzen du.

Arau hau antzinakoen aldetik, hura jarraitzen zutelarik, egiaztatua izan den bezala, gaurko poeten aldetik, hura berariaz zapaltzen dutelarik, okerrik gogokoenetakoa bilakatu da. Bere irudimenak sor-

tzen dituen izaki guztiak maskara bihurtzen dira, eta maskarada honez gehien ulertzen dutenek, ez dute ezertxo ulertzen gai nagusiaz: alegia, beren izakiei jokatzeko uzteaz, eta haien jokatzeko eraren bidez karakterizatzeaz.

Bada, halere, artistek beren abstrakzioak apailatzen dituzten ezaugarrien artean, modu bat erabilera poetikoari dagokionez egokia goa eta duinagoa dena. Esan nahi dut, berez ezer alegorikorik ez dutenak, baizik baliabidetzat jo behar direnak eta, ezaugarri horiek egozten zaizkielarik, egiazko pertsona bezala jokatu beharko balute erabiliko lituzketenak edo erabil litzaketenak. Hedeak neurritasunaren eskuan, irmotasunak bermatzeko daukan pilarea, alegoria baino ez dira, poetarentzat baliorik gabekoak erabat hartaz. Pisua justiziaren eskuetan, ez da hain alegoria, pisuaren erabilera zuzena zuzentasunaren atal bat delako egiaz. Baina lira edo xirula musa baten eskuetan, lantza Marteren eskuetan, mailua eta korrika Vulkanoren eskuetan, ez dira inondik ere alegoria, lanabes soil dira, izaki hauek haiek gabe guk izendatzen dizkiegun egintzak ezin gauzatu ahal izango zituzketelako. Gisa honetakoak dira antzinako poetek beren deskribaketetan tartekatzen zituzten ezaugarriak, eta nik horregatik, alegorikoetatik bereizteko, poetiko deitu nahi nituzke. Hauek gauza bera esan nahi dute, haiek antzeko zerbait baino ez^e.

XI

Badirudi Caylus konteak ere eskatzen duela poetak bere irudi-meneko izakiak atributu alegorikoz apain ditzana^a. Konteak gehiago zekien pinturaz, poesiaz baino.

Baina eskakizun hau egiten duen obran ohar sorta bat egiteko aukera aurkitu dut, haietarik, azterketa sakonago baterako, garrantzitsuena hemen aipatuko dudalarik.

Artistak, kontearen ustez, hurbilagotik ezagutu behar du poeta-pintore handiena, Homero, bigarren natura hori. Hala erakusten dio poetari, zein gai oparoa, oraindik erabili gabea, eskaintzen dion greziarrak erabili zuen historiak irudikapen egokienetarako, eta zein hobetoago aterako litzaiokeen egikuntza, baldin erabat zehatz segituko balitu poetak begiz jo dituen zehaztasun txikienak.

Gorago bereizi ditugun bi imitazio motak nahasten dira, beraz, proposamen honetan. Pintoreak ez bakarrik imitatu behar du poetak imitatu duena, baizik areago honek erabiltzen dituen ezaugarri berberekin imitatu behar du; ez bakarrik erabili behar du poeta kontalari bezala, baizik poeta bezala ere erabili behar du.

Poeta hain txiki bihurtzen duen imitaziozko bigarren moduak, ordea, zergatik ez du txiki bihurtzen artista bera? Baldin Caylus kon-teak egozten dion adinako pintura sorta eduki izan balu Homerok bere aurrean, eta guk jakingo bagenu poetak pinturretatik jaso duela bere obra, ez ote luke izugarri galduko gure miresmenetik? Nolatan, orduan, ez du galtzen artistak apurrik gure miresmenetik, baldin poetaren hitzak irudi eta koloreen bidez adierazi baino egiten ez badu?

Badirudi haxe dela zergatia: artistarengan egintza asmakuntza baino zailagoa dela iruditzen zaigu; poetarengan, aldiz, kontrakoa gertatzen da, eta egintza errazagoa iruditzen zaigu asmakuntzaren aldean. Baldin Virgiliok Laokoonen eta bere semeen hertsaketa eskulturatik hartu izan balu, guk bere irudi honetan zailen eta handien bezala jotzen dugun bere merezimenduak huts egingo luke eta eskasena gertuko litzaioke. Izan ere, askoz inportanteago da hertsaketa hau lehen-bizi irudimenean sortzea hura hitzetan ematea baino. Baldin, aldiz, hertsaketa hau artistak mailegatu izan balu poetaren eskutik, gure begietan nahikoa merezimendu edukiko luke oraindik, asmakuntzaren merezimendua galduta ere. Marmolean adieraztea hitzetan adieraztea baino askoz zailago baita; eta baldin guk asmatzea eta irudikatzea elkarrekin erkatzen baditugu, beti izango dugu joera asmatzen maisu denari berea barkatzeko, irudikatzen maisu denarengandik asko jaso dugula uste dugunez.

Badira kasu batzuek, non artistarentzat merezimendu handiagoa den poetaren imitazioaren bidez natura imitatu izana, hura gabe imitatzea baino. Thomson baten deskribaketaren arabera paisaia eder bat irudikatu duen pintore batek gehiago egin du naturatik zuzenean kopia-tu duenak baino. Bere begien aurrean ikusten du honek bere modeloa; hark modeloa bere aurrean daukala uste izateraino behartu behar du bere irudimena. Honek zentzuen inpresio biziaren bidez zerbait ederra sortzen du; hark zeinu arbitrario zalantzati eta ahulen bidez.

Baina artistari asmatzearen merezimendua barkatzeko boron-datea guztiz naturala den bezala, era hain naturalean sort zitekeen

haren epeltasuna asmatzeari dagokionez. Izan ere, ikusten duenean asmatzea ez dela sekula izango bere alderdirik distiratsuen, bere aintzarik handiena egintzatik datorrela, berdin gertatzen zaio hura zaharra edo berria den, behin edo mila bider erabili den, berea den edo beste batena. Berarentzat eta ikusleentzat ohiko gertatzen zaien gai gutxien barruan gelditzen da, eta bere asmatzeko gaitasuna gai ezagunen aldakuntza soilera, objektu zaharren elkarketa berrira mugatzen du. Hauxe da, bestalde, pinturako testuliburuek benetan asmatze hitzarekin lotzen duten ideia. Izan ere, nahiz asmatzea pinturazkoaren eta poesiazkoaren artean bereizi, poesiazkoa ez da iristen ideiaren gauzatzera, baizik azken batean haren antolakuntzara edo adierazmoldera^b. Asmatzea da, baina ez osotasunaren asmatzea, atal bakoitzarena baizik, eta haien tokia beren artean. Asmatzea da, baina Horaziok bere poeta tragikoari aholkatzen zion mota apalekoa:

—Tuque

Rectius Iliacum carmen deducis in actus,

Quam si proferres ignota indictaque primus^c.

Aholkatu, diot, ez ordea agindu. Beretzat errazago, erosoago, onurakorrago bezala; baina ez agindu, bere hartan hobe edo nobleago bezala.

Egiaz, historia ezagun bat, izakera ezagun batzuek derabiltzan poetak urrats handi bat emana dauka jada. Bestela osotasuna ulertzeko ezinbesteko diren ehundaka ñabardura hotz alde batera utz ditza-ke; eta zenbat eta azkarrago ulergarri bihurtu bere entzuleentzat, orduan eta azkarrago interesatuko ditu. Abantaila hau berau dauka pintoreak ere, bere ideia arrotz ez bazaigu, bere konposizio osoaren asmoa eta zentzua lehen begiraturtik ezagutzen badugu, bere pertsonak ez bakarrik mintzatzen ikusi baizik mintzatzen entzuten baditugu. Lehen begiratuaren esku dago eraginik handiena, eta baldin lehen begiratuak neke handiz pentsatzea eta asmatzea eskatzen badu, obrak gu hunki gaitzan gogoia hoztu egiten da; ulertezinezko artistaren kontra mendeku hartzeko, irudikapenaren kontra gogortzen gara, eta erruki berari, baldin edertasuna irudikapenaren aurrean opaldu badu! Orduan ez dugu aurkituko bere obraren aurrean luzaraziko gaituen ezer; ez dugu gogoko ikusten duguna, eta ez dakigu zer pentsatu behar dugun horretan.

Baina elkar ditzagun biak; batetik, gaiaren asmatzea eta berri-tzea ez dela inondik ere guk pintoreari eskatzen diogun gauzarik bikainena; bigarren, gai ezagun batek bere artearen eragina areagotu eta arintzen duela: eta nik uste dut, arrazoia zergatik ez den ausartzen gai berrietara, ez dela bilatu behar, Caylus konteak uste duen bezala, bere erosotasunean, bere ezjakintasunean, bere trebezia guztian, bere denbora guztia eskatzen duen artearen atal mekanikoaren zailtasunean; baizik sakonago finkaturik bilatu behar dela, eta are beharbada hasieran artearen mugatze zela, gure atseginaren ahultasun zela zirudiena artistarengan neurritasun zuhur eta guretzat baliozko bezala goraiatzeko joera izango genuke. Ez dut beldurrik esperientziak hori gezurtatuko didanik. Pintoreek eskertuko diote konteari bere borondate ona, baina nekez joko dute harengana berak usteko zukeen bezain sarri. Hala gertatuko balitz, halere, ehun urte barru Caylus berri bat beharko litzateke, gai zaharrak berriro gogora ekarriko lituzkeena, eta bere aurretik beste batzuek halako koroe hilezkorrak erdietsi dituzten esparrura artista eramango duena. Edo ikusleari eskatu behar diogu aditua bere liburuengatik den besteko jakituna izan dadin? Pintura eder bat ekarriko luketen historiako eta ipuinetako pasarte guztiak ezagutu eta bere egin ditzan? Onartzen dut artistek hobe jokatuko zuketela Rafaelen garaietatik hona, baldin Ovidioren ordeztu Homero hartu izan balute eskuliburu bezala. Baina gauzak hala gertatu ez direnez gero, utz dezagun ikuslegoa bere bidean, eta ez diezaiogun bere gozamenen, gozamenen batek, berak izan behar duena izateko behar duena baino mingotsago bihurtu.

Protogenesek pintatu zuen Aristotelesen ama. Ez dakit zenbat ordainduko zion filosofoak horregatik. Baina edota ordainaren ordeztu, edo ordainaz gainera eman zion aholku bat ordaina baino gehiago balio zuena. Ez baitzait buruan kabitzen bere aholkua lausengu hutsa izan zitekeenik. Aldiz, batez ere artea denentzat ulergarri izan behar zuela aipatzean, Alexandroren egintzak pinta zitzaion aholkatu zion; garai hartan mundu guztiaren ahotan zebiltzan egintzak baitziren, eta ondorengoan artean ere ezin ahazteko modukoak zirela aldeztu aurretik berak igarri zitzaizkeenak. Baina Protogenes ez zen nahikoa zuhurra aholku hori jarraitzeko; «*impetus animi*», dio Pliniok, «*et quaedam artis libido*»^d, bere artearen harrokeria jakin batek eta aparteko eta ezezagunarekiko grinak erabat bestelako gaietara eraman zuten.

Nahiago izan zuen Ialysus^e baten, Zidipe baten edo antzekoen pinta-tu, gaur egun zer irudikatzen zuten asmatu ere ezin daitezkeen isto-rioak, alegia.

XII

Homerok bi izaki eta ekintza mota landu ditu; ikus daitezkee-nak eta ikus ezin daitezkeenak. Bereizkuntza hori ezin eskain dezake pinturak: honetan dena ikus daiteke; eta era bakar batean ikusi ere.

Beraz, baldin Caylus konteak ikus ezin daitezkeen ekintzen pinturak ikus daitezkeenen segidan jartzen baditu etenik gabe; baldin bitariko ekintzen pinturetan, ikus daitezkeen izakiak eta ikus ezin dai-tezkeenak esku hartzen dutenetan, adierazten ez badu, eta beharbada adierazi ezin badu, nola irudikatu behar ditugun azken hauek, —gu, pintura begiratzan dugunok bakarrik izaki, han aurkitu behar ditugu-nak— pinturako pertsonaiak ez dituztela ikusten, edo gutxienez derri-gor ez dituztela ikusten iruditzeke moduan: orduan derrigor sail osoa bezala zati batzuek ere era horretan izugarri nahasi, ulertezinezko eta kontraesanguratsu gertatuko dira.

Akats hau, ordea, liburua eskutan, erraz konpon daiteke. Baina, okerre-na guzti horretan da ikus daitezkeenen eta ezin daitezkeenen arteko desberdintasuna pinturan kenduz, goragoko mota hau behe-ra-gokoaren gainetik jasotzen duten gainerako ñabardura bereiziak ere galdu egiten direla.

Adibidez. Azkenik troiarren patuari buruz banaturik dauden jainkoak beren artean borrokan hasten direnean, poetengan^a borroka oso hau ez ikusteko moduan gertatzen da, eta ezin ikusi horrek bide ematen dio irudimenari eszena irekiago egiteko, eta bide libre uzten dio jainkoe-n pertsonaiak eta beren ekintzak nahi bezain handi, eta gizaki arrunten gainetik izugarri jasorik pentsatzeko. Pinturak, ordea, ikus daitezkeen eszena bat hartu behar du, eta haren derrigorrezko ata-lak han diharduten pertsonentzat neurri izango dira; neurri bat, begiak segituan aurrean daukana, eta izaki goragokoen aldean neurri honek duen proportzio gabeziak izaki goragoko hauek, poetarengan hain handiak zirenak, artistaren azaleroan izugarri bihurtzen ditu.

Borroka honetan Marte erasotzen lehenbizi ausartu zaion Minervak, atzera egiten du eta lurretik esku indartsuz antzina elkarturik giza eskuek mugarritzat haraino ekarri zuten harri beltz, zabar, handi bat hartzen du:

Ἡ δ' ἀναχαισσομένη λίθον εἴλετο χειρὶ παχείῃ,
 Κείμενον ἐν πεδίῳ, μέλανα, τρηχύν τε, μέγαν τε,
 Τὸν ῥ' ἄνδρες πρότεροι θέσαν ἔμμεναι οὖρον ἀρούρης.

Harri horren handitasunaz konturatzeko, gogora Homerok bere heroiei bere garaiko gizon indartsuenen aldean indar bikoitza izendatzen diela, eta heroi horiek, beren aldetik, Nestorrek bere gaztetan ezagutu zituen gizonen aldean askoz gutxiago zirela indarrean. Orduan nik galdetzen dut, baldin Minervak, ez gizon *batek*, baizik Nestorren gaztetako gizonek mugarritzat jarri zuten harri bat, baldin Minervak halako harri bat Marteren kontra jaurtitikizten badu, zenbateko garaiera izan behar zuen jainkosak? Baldin harriak bere garaieraren proportziokoa izan behar badu, harrigarritzko guztia galtzen da. Ni baino hiru bider handiagoa den gizaki batek erarik naturalenean jaurtiki ahal izan behar du hiru bider handiagoa den harri bat. Baina jainkosaren garaiera harriaren proportziokoa ez bada, orduan sinesgarritasun gabezia nabarmena izango du pinturak, eta bitxikeria hori ezin ezabatu ahal izango da jainkosa batek gizagaindiko indarra izan behar duelako gogoeta hotzaren bidez. Eragin handiagoa ikusten dudan lekuan, tresna handiagoa ere ikusi nahi nuke nik.

Eta Martek, harrikada bortitz honek lurrera botata,

Ἐπὶ δ' ἔπεσχε πέλεθρον

«zazpi uztarri egin zituen». Ezinezko zaio pintoreari gisako neurritz gaindiko handitasuna jainkoari ematea. Baina ematen ez badio, ez da Marte lurrean dagoena, ez Homeroren Marte behintzat, gudari arrunt bat baino^b.

Longinok dio berari sarri iruditzen zaiola Homerok bere giza-kiak jainkotara jasotzen ez ote dituen, eta bere jainkoak gizakitara jaitsi nahi ez ote dituen. Pinturak gauzatzen du jaiste hau. Poetarengan jainkoak gizaki jainkotiarrez gaindi ipintzen dituen oro desagertzen da pinturan. Homerok bere heroi bikainenentzat^c baino maila garaia-go, harrigarriago batean bere jainkoentzat beti gordetzen dituen handitasuna, indarra, azkartasuna, gizatasunaren maila arruntera makur-

tzen dira pinturan, eta Jupiter eta Agamenon, Apolo eta Akiles, Ajax eta Marte izaki erabat normal bilakatzen dira, eta ezin bereiz daitezke beren artean kanpoko ohiturazko ezaugarrien bidez ez bada.

Bere konposizioan hau edo hura ikusten ez den izaki bezala begiratu behar dela adierazteko pinturak erabiltzen duen baliabidea hodei mehe bat da, eta hodei honek parte hartzen duten pertsonen alde-tik babesten du. Badirudi hodei hau Homerorengandik berarengandik hartua dela. Izan ere, borrokako nahasmahasean bere heroietako bat arriskuan aurkitzen denean, eta hortik jainkozko indarrak ez beste ezerk atera ezin duenean, orduan poetak jainkotasun babeslearen alde-tik hodei lodi batean edo gauean babesarazten ditu eta handik alden-tzen; hala gertatzen zaio Parisi Venusekin^d, Ideori Neptunorekin^e, Hektori Apolorekin^f. Eta laino hau, hodei hau artistari zinez gomenda-tzea ez zaio ahaztuko Caylusi gisako gertakariak irudika ditzan propo-satzen dionean. Baina nork ez du ikusten poetarengan lainotan edo gauean ezkutatzea ikustezinezko bihurtu dela esateko adierazmolde poetiko bat baino ez dela? Horregatik beti harritu naiz adierazbide poe-tiko hori egiaztatua eta egiazko hodei bat pinturan jarria ikustean, haren ostean, bionbo baten ostean bezala, heroia bere etsaiengandik ezkutaturik dagoelarik. Ez zen hori poetaren asmoa. Hau da, pintura-ren mugetatik ateratzea; izan ere, hodei hori hemen benetako jeroglifi-ko bat da, seinale sinboliko soil bat, heroia ikustezinezko egin ez, bai-zik ikuslea deitzen duena: ikusleak ere ikustezinezko bezala irudikatu behar du. Pintura gotiko zaharretako pertsonaien ahoetatik ateratzen diren orritxo idatzien pareko da hodei hori hemen.

Egia da Akilesi, Apolok Hektor begien aurretik eraman dione-an, bere lantzaz hodei lodian hiru bider jo arazten diola Homerok: *τρίς δ' ἥρα τῷφε βαθείαν*^g. Baina horrek poetaren hizkeran ez du besterik esan nahi ez bada Akiles hain haserre zegoela non hiru bider jo baitzuen lantzaz, bere etsaia gehiago aurrean ez zeukala konturatu aurretik. Akilesek ez zuen ikusten egiazko hodeirik, eta jainkoak ikus-tezinezko bihurtzen zituen atrikulu guztia ez zen inolaz hodeia, baizik eramatearen azkarra. Halere, orobat, eramatea hain azkar gertatu dela non giza begiak eramaniko gorputzari ezin segi diezaiokeen adieraz-teko, lehenbizi laino batean biltzen du poetak; ez, gorputz eramanaren ordezt hodei bat ikusi delako, baizik guk, hodei batean bildurik dago-ena, ikusteko modukotzat jo ez dezagun. Horregatik, alderantziz ere

inoiz gertatzen da, eta objektua ikustezinezko bihurtu orde, subjektua itsutzen da. Hala itsutzen ditu Neptunok Akilesen begiak, Eneas bere esku hiltzaileetatik salbatzeko kolpe batez borrokako nahasmasetik atera eta azken lerroetara eramaten duenean^h. Baina egiaz, ez hemen itsutzen dira Akilesen begiak, ez han biltzen dira lainotan heroi eramanak; baizik poetak bata zein bestea ipintzen ditu, guk desagertzea deitzen dugun eramatearen guztizko azkartasuna sentierrazago bihurtzeko.

Baina Homeroren lainoa ez dute erabili pintoreek Homerok berak erabili duen edo erabiliko zukeen aukeratan; ikustezinezko bihurtzean, desagertzean; baizik pinturako pertsonaiek, denek edo zati batek igarri behar ez dutena ikusleak igarri behar duenean. Minerva Akilesek bakarrik ikus zezakeen, jainkosak Agamenonen kontrako ekintza bat burutzea galarazi zionean. Hori adierazteko, dio Caylusek, ez dut ezagutzen beste biderik, ez bada kontseiluko gainerakoen aldetik hodei batean bildua izatea. Erabat poetaren espirituaren kontra. Ikustezinezko izatea da berez jainkoen egoera naturala; ez dago inor itsutu beharrik, ez argi izpiak moztetik ikusiak izan ez daitezenⁱ; aldiz argitze bat, aurpegi hilkorren areagotze bat behar da, ikusiko badi-ra. Ez da aski, beraz, hodeia pintorearentzat seinale arbitrario bat eta ez natural bat izatea; zeinu arbitrario honek ez du gainera gisako batek beharko lukeen nabarmentasuna; izan ere, hori behar dute bai ikustezinezkoa ikusteko moduko, eta ikusteko modukoa ikustezinezko bihurtzeko.

XIII

Homeroren obrak guztiz galduko balira, bere Iliadatik eta Odiseatik ezer geratuko ez balitz, ez bada Caylusek proposatzen duen gisako pintura sorta bat: pintura horietatik —nahiz maisurik onenaren eskukoak izan—, ez dut esan nahi poeta osoari buruz, baizik pinturarako bere talentuari buruz, gaur daukagun iritzi bera edukiko al genuke?

Egin dezagun aproba lehen zati eta orobat onenarekin. Izurritearen pintura da^a. Zer ikusten dugu artistaren oihalean? Hilotzak, su-metak, hilzorian daudenak hildakoeekin saiatzen, jainko haserrea

hodei baten gainean bere geziak tiratzen. Pintura honetako aberastasunik handiena txirotasuna da poetarentzat. Izan ere, pintura horren araberan Homero berriro konposatu beharko balitz, zer esanaraziko genioke? «Honetan Apolo sumindu egin zen, eta bere azkonak greziarren guradostearen gainera tiratu zituen. Greziar asko hil ziren eta beren gorpuak erreak izan ziren». Irakur dezagun orain Homero bera:

Βῆ δὲ κατ' Οὐλύμποιο καρήνων χωόμενος κῆρ,
 Τόξ' ὁμοισιν ἔχων, ἀμχηρεφέα τε χαρέτριν.
 Ἐκλαξαβ δ' ἄρ' οἴστοι ἐπ' ὤμων χωομένοιο,
 Αὐτοῦ κινήθέντος, ὃ δ' ἦϊε νυκτὶ δοικῶς·
 Ἔεčet' ἔπειτ' ἀπάνευθε νεῶν, μετὰ δ' ἰὼν ἔηκεν·
 Δεινὴ δὲ κλαγγὴ γένετ' ἀργυρέοιο βιοῖο.
 Οὐρήας μὲν πῶρον ἐπῶχετο, καὶ κύνας ἀργούς.
 Αὐτὰρ ἔπειτ' αὐτοῖσι βῆλος ἐχέλευκῆς ἐφείς
 Βάλλ'· αἰεὶ δὲ ποταὶ νεκύων καίοντο θαμναί.

Bizitzak pinturari kentzen dion alde bera kentzen dio hemen poetak pintoreari. Sumindurik, bere uztaiia eta azkon-zorroa hartuta jaisten da Apolo Olinpoko gailurretatik. Ez bakarrik ikusten dut jais-ten, entzun ere egiten dut. Urrats bakoitzean zarata egiten dute azko-nek jainko haserretuaren bizkarrean. Aurrera doa, gaua antzo. Orain itsasontzien aurrean eserita dago, eta tiratzen du —zarata beldurgarria egiten du zilarrezko uztaiak— lehen azkona mandoen eta zakurren kontra. Ondoren segituan, azkon pozointsuenaz jotzen ditu gizonak; eta nonahi altxatzen dira etengabe garretan sumetak hilotzekin. Ezinezko da poetaren hitzek beraiekin entzun arazten duten pintura musikala beste hizkuntza batera itzultzea. Halaber da ezinezko musi-ka hori pintura materialtik igartzea, nahiz hori den pintura poetikoak pintura propio esanaren gainean duen abantaila guztietan txikiena. Abantailarik inportanteena haxe da, alegia: pintura materialak guri erakusten digunera pintura galeria oso baten bidez eramaten gaituela poetak.

Baina izurritea ez da beharbada gairik egokiena pinturarako. Hona hemen beste bat, begiari erakargarriago zaiona: jainkoak kon-teseiluan bildurik edaten^b. Urrezko palazio bat, irekita, irudi ederrenez eta beneragarrienez osaturiko talde bereziak, kopa eskuetan, Hebek,

gaztetasun betierekoak, zerbitzaturik. Hura arkitektura! Haiek argi eta ilunezko masak! Haiek kontrasteak! Hura eiteen ugaritasuna! Non hasi, non amaitu nire begien larrea? Pintoreak gisa horretan liluratzen banau, zenbat gehiago liluratuko nau poetak! Liburua ireki, eta geratzen naiz... txuliatuta. Lau lerro makets aurkitzen ditut, pintura baten idazkuntzarako balioko luketenak, pintura bat egiteko gaia eskaintzen dutenak egiaz, baina berenez inolako pintura ez direnak.

Οἱ δὲ θεοὶ πᾶρ Ζηνὶ καθήμενοι ἡγορόωντο
Χρυσέῳ ἐν δαπέδῳ, μετὰ δὲ σφισι πότνια Ἥβη
Νέκταρ ἐφνοχόει· τοῖ δὲ χρυσεῶις δειπάσσει
Δαιδέχεται ἄλλήλους, Τρώων πόλιν εἰσορόοντες.

Hau ez luke txarkiago esango Apolonio batek edo nolahalako poetatxo edozein batek; eta han pintorea Homeroren azpitik geratu zen bezala, hemen Homero geratzen da pintorearen askoz azpiagotik.

Hara bada: lau lerro horiez aparte, ez du Caylusek bestela beste pinturarik batere aurkitzen Iliadako laugarren liburu osoan. Laugarren liburu honek, dio berak, erasorako susperraldien bidez, izakera argitsu eta ongi eratuen oparotasunaren bidez, eta abian jarri nahi duen jendetza azaltzeko poetak duen artearen bidez nabarmentzen bada ere, ez du balio batere pinturarako. Horri gainera ziezaiokeen: pintura poetiko deitu ohi denean nahi bezain aberats izan arren. Egiaz, izan ere, horietatik laugarren liburuan beste libururen batean bakarrik datozen bezain ugari eta osoko baitatoz. Non dago pintura osoagorik, engainatzaileagorik, Pandaroren hura baino, non Minervak xaxaturik, menia hautsi eta bere azkona Menelaoren kontra jaurtikitzen duen? Edo gudaroste greziarraren hurbiltzea baino? Bi alderdien eraso baino? Ulisesez bere Leukoren heriotza mendekatzen dueneko hura baino?

Baina zer ondorio atera Homeroren pintura ederrenetako ez gutxik artistarentzat inolako pinturarako gairik eman ez izanetik? Berak pinturarik ez daukan lekutik artistak pintura atera izanetik? Eta berak edukirik, eta artistak erabili dezakeelarik, artistak erakusten duena baino gehiago erakutsiko ez balute, oso pintura txarrak izango liratekeela ikusten bada? Zer ondorio atera, ez bada goiko galderaren ezezkoa? Alegia, Homeroren poesiek gaia eskaintzen dieten pintura

materialtatik, nahi bezain ugariak, nahi bezain bikainak izanda ere, ez dutela biderik ematen poetaren talentuari buruz inolako ondoriorik ateratzeko.

XIV

Halere, poesia bat oso emankorra gerta liteke pintorearentzat, berez pinturarako ezer eduki ez arren, eta alderantziz: beste bat oso egokia izan liteke pinturarako, eta pintorearentzat emankor ez izan: hala hankaz gora geratzen da Caylus kontearen ideia, alegia: honek pintoreak erabiltzeko modukoa izatea jotzen du poetarentzat proba-harritzat eta honen maila artistari eskain diezaiokeen pintura kopuruaren arabera zertu nahi luke^a.

Urrun gugandik, isilik egote hutsarekin besterik ez bada, arau baten itxura hartzen uztea. Milton eroriko litzateke horren lehen opari errugabe bezala. Izan ere, egiaz iruditzen zait hari buruz Caylusek ematen duen mespretxuzko iritzia ez datorrela gustu nazional baten kariaz, baizik gehiago bere ustezko arau horren ondorio bezala. Ikusmenaren galera, esaten du Caylusek, izan liteke Miltonek Homerorekin izan duen antzik handiena. Miltonek ezin du bete, noski, galeria bakar bat bera ere. Baina nik gorputzeko begia daukadan bitartean, honen esfera nire barneko begiaren esfera ere izango balitz, nik, muga horretatik libratzeko, lehenaren galerari balio handiagoa eman-go nioke.

«Paradisu galdua», pintura gutxitarako bide eskaini arren, beti izango da lehen epopeia Homeroren ondoren, eta aldiz Kristoren nekealdia, nahiz ezin den sartu kontakizunean orratz baten burua bera ere hainbat artista handiri nahikoa zeregin eskaini dien pasarte bat aurkitu gabe, ez da poema bat horregatik. Ebanjelariak sotiltasun lehor handienaz kontatzen dute gertakaria, eta artistek nekealdiko zati ugariak erabiltzen dituzte, ebanjelariak horretan pinturako jeinu apurrik txikiena ez erakutsi arren. Badira pinta daitezkeen gertakariak, eta pinta ezin daitezkeenak, eta historialariak pintagarrienak erabat ezpintagarri gisan konta ditzake, eta poetak gauza ezpintagarrienak era pintagarrian irudikatzen saiatzen dira.

Hitzaren esanahi bikoitzak desbideratuko gaitu, auzia bestela hartzen bada. Pintura poetiko bat ez da derrigor pintura material bihurtuko dena; aldiz, marra oro, marra zenbaiten lotura oro, zeintzuen bidez guri poetak bere objektua hain sentikor egiten digun, non gu objektu horretaz hobeto jabetzen garen bere hitzez baino, orduan pinturazko deitzen diogu, pintura; hain zuzen ere, ilusioaren mailatik hurbilago eramaten gaituelako, horretarako gauza baita bereiziki pintura materiala, ilusio hori etortzen baita lehenen eta errazenen pintura materialtik^b.

XV

Gauzak horrela, esperientziak erakusten duen bezala, poetak ilusio maila honetaraino jaso ditzake ikusteko moduko ez diren objektuen irudikapenak. Hartaz, poetak bere esku dituen hainbat pinturak ihes egiten dio derrigor artistari. Pintzela lanik gabe uzten duten pintura musikalez beterik dago Santa Zezilia egunerako Drydenen oda. Baina ez dut orain gisako adibideetan galdu nahi, azken batean horietatik ez baita ezer ikasten, ez bada koloreek ez dutela soinurik, eta belarria ez dela begi.

Poetarentzat eta pintorearentzat komun diren ikusteko moduko objektuen pinturetan pausatu nahi dut soilik. Zertan datza gisa honetako pintura poetiko hainbat pintorearentzat baliagarri ez izatea, eta aldiz egiazko hainbat koadro poetaren erabilerarenpean bere eraginare zati handiena galtzea?

Adibide batzuek hartuko ditut gidari. Errepikatu egingo dut: Pandaroren pintura Iliadako laugarren liburuan da bikainetako bat, liluragarrienetako bat Homero guztian. Uztaia hartzeko unetik bertatik geziaren hegadaraino, une oro dago pintatua eta une hauek guztiak hain daude hurbiletik hartuak eta hain bereiziturik beren artean, non, uztaia nola erabiltzen den ez jakinda ere, pintura horretatik bakarrik ikas ahal izango zitekeen^a. Pandarok bere uztaia ateratzen du, soka ipintzen du, gezi-zorroa irekitzen du, gezi oraindik erabili gabea eta lumaz ondo jantzia hautatzen du, soka ipintzen du gezia, geziaren koska kokatuta dagoen sokari eta geziari atzeraka tira egiten die, soka

bularrera hurbiltzen da, geziaren burdinezko burua uztaira, uztai handi kakotua irekitzen da zaratsu, dardara egiten du sokak, jauzi egiten du geziak, eta bere jomugara doa hegan lehiaz.

Ezin pasa zezakeen Caylusek konturatzeke pintura bikain hau. Zer aurkitu zuen, orduan, han, bere artistak horretan ari zitezen desgokitzat jotzeko? Eta zerk eraman zuen kontseiluan edaten ari ziren jainkoen bilkura helburu horretarako egokiagoa zela pentsatzera? Hemen bezala han badaude ikus daitezkeen gaiak, eta zer behar du pintoreak ikus daitezkeen gaiak baino gehiago bere oihala osatzeko?

Hau izan liteke korapiloa. Bi gaiak, ikusteko modukoak direnez, pinturarako, pintura denez, berdín gai izan arren, bada bien artean funtsezko desberdintasun bat, alegia: hartan, garatzen doan ikusteko moduko ekintza bat da, eta haren atal desberdinak denbora pasa ahala gauzatzen dira; honetan aldiz, geldi dagoen ekintza bat da, eta beronen atal desberdinak bata bestearen ondoan, espazioan, garatzen dira. Baldin, beraz, pinturak, espazioan bakarrik uztar ditzakeen bere zeinuen kariaz edo bere imitazioaren bidez denbora erabat albora utzi behar badu, garatzen doazen ekintzak, garatzen doazen bezala, ezin aurki daitezke bere objektuen artean, baizik aski izan behar du bata bestearen ondoan dauden ekintzekin edo beren jarrerren bidez ekintza bat sumatzera ematen duten gorputz soilekin. Poesia aldiz...

XVI

Hala eta guztiz ere, saiatuko naiz auzia bere lehen oinarrietatik ondorioztatzen.

Hona nola argudiatzen dudán. Baldin egia bada pinturak bere imitazioetarako, poesiaren aldean erabat bestelako baliabideak edo zeinuak erabiltzen dituela; hark hain zuzen irudiak eta koloreak espazioan, honek berriz tonu artikulatuak denboran; baldin zalantzarik gabe zeinuk zerikusi eroso bat eduki behar badute adierazi nahi dutenarekin, orduan bata bestearen ondoan antolaturik dauden zeinuk bata bestearen ondoan edo beren atalak bata bestearen ondoan dituzten objektuak bakarrik adieraz ditzakete; elkarren segidan dauden zeinuk, aldiz, elkarren segidan dauden edo beren atalak elkarren segidan dituzten objektuak bakarrik adieraz ditzakete.

Bata bestearen ondoan dauden edo atalak bata bestearen ondoan dauzkaten objektuak gorputz deitzen dira. Hartaz, gorputzak beren ikusteko moduko ezaugarriekin dira pinturaren objektu propioak.

Elkarren segidan dauden edo beren atalak elkarren segidan dauzkaten objektuak ekintza deitzen dira inolaz. Hartaz, ekintzak dira poesiaren objektu propioa.

Baina gorputz guztiak ez bakarrik aurkitzen dira espazioan, aurkitzen dira orobat denboran. Iraun egiten dute, eta beren iraupeneko une orotan bestelako itxura har dezakete, eta erlazio desberdin batean egon. Uneko ikuspegi eta erlazio hauetako bakoitza aurreko beste batek eragina da, eta hurrengo baten zergati izan daiteke, eta orobat ekintza baten muin izan daiteke. Hartaz, pinturak ere imita ditzake ekintzak, baina iradokizun gisan gorputzen bidez.

Bestalde, ekintzek ez dute izaterik beren kabuz, baizik izaki jakinei itsatsirik egon behar dute. Beraz, izaki horiek gorputz diren neurrian, edo gorputz bezala ikusiak badira, poesiak ere gorputzak deskribatzen ditu, baina iradokizun gisan ekintzen bidez.

Pinturak bere konposizio izakideetan ekintzaren une bat bakarrra baino ezin dezake erabili, eta horregatik hunkigarriena hautatu behar du, hortik aurrekoa eta hurrengoa ulergarrien egingo dituen.

Era berean poesiak ere garatzen doan bere imitazioan gorputzaren ezaugarri bat bakarrra baino ezin du erabili, eta horregatik hautatu behar du gorputzaren irudi sentsibleena pizten duena, baina berak behar duen aldetik.

Hortik dator pinturazko izenlagunen batasunaren araua, eta neurritasunaren araua gorputzezko objektuen deskribaketan.

Ez nintzateke gehiegi fidatuko ondorioztatze kate hotz honetan, baldin Homeroren praxiaren bidez guztiz egiaztatua aurkituko ez banu, edo aldiz baldin izan ez balitz Homeroren praxia bera ni horretara eraman nauena. Printzipio hauetatik bakarrik zehaztu eta argitu daiteke greziarraren estilo handia, eta halaber kontrara jarria dagoen gaurko poeta hainbaten estiloari berea eman, pintoreari —honek derrigor gaindituko dituen alor batean— erronka botatzen baitiote.

Konturatzen naiz garatzen doazen ekintzak baino ez dituela margotzen Homerok, eta gorputz guztiak, gauza bakoitza margotzen duela ekintza horretan parte hartzen duen neurrian, eta oro har marra

bakar batekin. Nola harritu, orduan, baldin pintoreak, Homerok pintatzen duen lekuan, zer eginik ezer gutxi edo deus ez badu ikusten, eta bere uzta kontakizunak gorputz eder pila bat, jarrera ederretan, artearentzat egoki den espazio batean biltzen dituen lekuan bakarrik aurkitzen badu, nahiz poetak berak gorputz horiek, jarrera horiek, espazio hori nahi bezain gutxi pintatu? Aski da pintura sorta guztia, Caylusek Homerorengandik proposatzen duen bezala, alez ale segitzea, eta oharkizun honen froga aurkituko da bakoitzean.

Hementxe uzten dut, beraz, pintorearen paleta poetaren proba-harri egin nahi zuen kontea, Homeroren estiloa hurbilagotik azaltzeko.

Gauza *bakar* bakoitzerako, esaten nuen, Homerok oro har marra *bakar* bat erabiltzen duela. Itsasontzi bat behin itsasontzi beltza da, behin intsasontzi ahurra, behin itsasontzi azkarra, gehienara itsasontzi beltz arraunez ondo hornitua. Ez du gehiagorik sartzen itsasontziaren pinturan. Baina ontziratzea, itsasoratzea, lehorreratzea bere pintura osoko bihurtzen du, eta hortik pintoreak bost, sei pintura desberdin egin beharko lituzke, baldin guztia oihaleratu nahi badu.

Gorabehera jakin batzuek behartzen badute Homero gure begirada gorputzeko objektu bakar batean luzaroago atxikitzea, orduan ez da handik sortuko pintura bat pintoreak bere pintzelaz jarrai dezakeena; baizik badaki berak zenbaezinezko hainbat trikimailuren bidez objektu bakar hori une segida batean ipintzen, aldioro beste era batera azaltzen delarik, eta pintoreak azkeneraino itxaron beste biderik ez du izango, guk pintorearengan gauzatzen ikusi duguna, buruturik ikusteko. Adibidez: Homerok Junoren orga ikustarazi nahi digula: Hebek gure begien aurrean zatiz zati osatu beharko du. Ikusten ditugu gurpilak, ardatzak, eserlekua, pertika eta hedeak eta sokak, ez hainbeste pilan, baizik Heberen eskuetan elkartzen diren eran. Gurpiletan bakarrik erabiltzen du poetak marra bat baino gehiago, eta kobrezko zortzi errailak adierazten dizkigu, urrezko makolak, brontzezko makoak, zilarrezko masterrak, gauza bakoitza berariaz. Esan beharko litzateke, gurpilak bat baino gehiago izaki, haien deskribaketan denbora gehiago erabili beharko litzatekeela, berez haiek jartzeak ere denbora gehiago eskatzen duenez^a.

Ἦβη δ' ἀμφ' ὀχέεσσι θεῶς βάλε καμπύλα κύκλα,
Χάλκεα ἀκτάκνημα, σιδηρέω ἄξονι ἀμφίς

Τὼν ἦτοι χρυσέῃ ἵτυσ ἀφθιτος, αὐτὰρ ὑπερθεῖν
 Χάλκε ' ἐπίσσωτρα, προσαρηρότα, θαῦμα ἰδέσθαι
 Πλήμναι δ' ἀργύρου εἰσὶ περίδρομοι ἀμχοτέρωθεν·
 Δίφρος δὲ χρυσέοισι καὶ ἀργυρέοισιν ἰμάσιν
 Ἐντέταται· δοικαὶ δὲ περίδρομοι ἀντιγῆς εἰσι·
 Τοῦ δ' ἐξ ἀργύρεος ῥυμός πέλεν· αὐτὰρ ἐπ' ἄκρῳ
 Λήσε χρύσειον καλὸν ζυγόν, ἐν δὲ λέπαδνα
 Κάλ' ἔβαλε, χρύσεια. . . .

Agamenon nola zegoen jantzita erakutsi nahi digula Homerok? Erregeak gure begien aurrean bere jantzi guztiak, atalez atal jantzi beharko ditu; soinpeko leuna, mantu handia, sandalia ederrak, ezpata; eta hala prest dago, eta hartzen du aginte-makila. Jantziak ikusten ditugu, baina poetak janzte-ekintza pintatzen duen bitartean; beste batek azken printzaraino pintatuko zituzkeen jantziak, eta guk ez genuen ekintzatik ezertxo ere sumatuko*.

— Μαλακὸν δ' ἐνόυκε χιτῶνα,
 Καλὸν, νηγᾶεον, περὶ δ' αὖ μέγα βάλλετο φάρος·
 Ποσσοὶ δ' ὑπὰὶ λιπαροῖσιν εἰδήσατο καλὰ πέδιλα.
 Ἄμφι δ' ἄρ' ὅμοισιν βάλετο ξίφος ἀργυρόηλον,
 Εἵλετο δὲ σκήπτρον πατρώϊον, ἀφθιτον αἰεὶ

Eta guk, hemen arbasoen aginte-makila hilezkorra deitzen den makila honen, beste pasarte batean antzeko bat χρυσεῖοις ἡλουσὶ πεπαρμένον, urrezko ilez apainduriko aginte-makila soilik dena, guk, esaten nuen, aginte-makila garrantzitsu honen irudi osoagoa, zehatzagoa eduki nahi badugu: zer egiten du Homerok? Urrezko iltze- ez aparte, pintatzen al digu egurra, eta buru landua? Bai, baldin deskribaketa heraldikarako balitz, era horretan gerora beste bat, haren berdina, egin ahal izan zedin. Eta ziur naiz zenbait poeta berrik gisako errege-armarri deskribaketa egingo zukeela, irmo usteko zuelarik berak benetan aginte-makila bat pintatu zuela, pintoreak berari jarraiki pinta zezakeelako. Baina zer inporta zaio Homerori zein urrun uzten duen pintorea bere atzean? Errepika baten ordeztu, aginte-makilaren historia eskaintzen digu: Vulkanok lantzen du hasteko; gero

Jupiterren eskuetan distiratzten du; ondoren Merkurioren duintasuna ezagutarazten du; Pelope gudazalearen aginte-makila da gero; gero berriz Atreo baketsuaren artzain-makila da, eta abar.

—Σκήπτρον ἔχων· τὸ μὲν Ἦ φαιος κάμει τεύχων·
 Ἦφαιος μὲν δῶκε Διὶ Κρονίωνι ἀνακτι·
 Αὐτὰρ ἄρα Ζεὺς δῶκε διακτόρῳ Ἄργεϊφόντῃ·
 Ἑρμείας δὲ ἀναξ δῶκεν Πέλοπι πλῆξιππῳ·
 Ἀὐτὰρ ὁ αὖτε Πέλοψ δῶκε Ἀτρεΐ, ποιμένι λαῶν·
 Ἀτρεὺς δὲ θνήσκων ἔλιπε πολύαρνι Θυέστῃ·
 Αὐτὰρ ὁ αὖτε Θυέστῃ Ἄγαμέμνονι λείπε φορῆναι,

Horrela, pintoreak begien aurrean ipini edo bigarren Vulkanok batek eskuetara emango balit baino hobeto ezagutzen dut nik aginte-makila hori.— Ez nintzateke harrituko baldin Homeroren antzinako interpreteetako batek pasarte hau gizakien artean errege agintearen jatorriaren, garapenaren, irmotzearen eta azkenik ondoretzaren alegoriarik osokoen bezala miretsi izan balu. Irribarretxo bat egingo nuke, baldin irakurriko banu Vulkanok —honek landu baitzuen errege-makila— su bezala, gizakiarentzat bere iraupenerako ezinbestekoen bezala, gizakiak gizaki bakar baten azpian jartzera bultzatu zituen premien asetzea adierazten duela; lehen erregea denboraren seme bat (Ζεὺς Κρονίων) izan zela, zahar ohoragarri bat, bere ahalmena gizon zuhur eta trebe batekin, Merkurio batekin (Διακτόρῳ Ἄργεϊφόντῃ) partitu edo guztiz hari eman nahi izan ziola; hizlari trebeak, estatua etsai arrotzek mehatxatzen zutenean, bere ahala gudaririk kementsuenari (Πέλοπι πλῆξιππῳ) utzi ziola; gudari kementsuak, etsaiak menderatu eta erresuma segurtatu ondoren, bere semearen eskutan ipini zuela, eta honek, agintari bakezale bezala, bere herriaren artzain ongile bezala, aisetasuna eta oparotasuna ezagutarazi zizkiola, eta horrela bera hil ondoren bere ahaiderik aberatsenari (πολύαρνι Θυέστῃ) bidea libre utzi ziola, ordurarte konfiantzak eman zuena, eta merezimendua ospetzat baino gehiago zamatzat eduki zuena, opari eta koi-pakerien bidez bereganatzeko eta ondoren bere sendiaren ondasun erosi bezala betiko segurtatzeko. Irribarretxo bat egingo nukeen, baina halere hainbeste gauza egotzi lekiokoen poetarentzat nire begirunea

indartu egingo litzateke. Baina hori nire bidetik at geratzen da, eta errege-makilaren historia trikimailu soil bezala ikusten dut hemen, gauza bakar batean pausatzeko, bere atalen deskribaketa hotzera jo gabe. Baita Akilesek bere errege-makilaren gainean zin egiten duenean ere Agamenonek egin dion mespretxuaren mendeku hartuko duela, Homerok errege-makila honen historia kontatzen du. Mendietan ikusten dugu berdetzen, burdinak mozten du arbolatik, ostoak kendu eta zuritzen du, herriko epaileei beren ohore jainkozkoaren ezaugarri bezala zerbitzeko egokitzen du^c.

Ναὶ μὰ τὸδε σκήπτρον, τὸ μὲν οὐποτε φύλλα καὶ ὄζους
 Φύσει, ἐπεὶ δὴ πρῶτα τομήν ἐν ὄρεσσι λέλοιπεν,
 Οὐδ' ἄναθλήσει· περὶ γὰρ ῥά ἐ χαλκὸς ἔλειψεν
 Φύλλα τε καὶ φλοῖόν· νῦν αὖτε μιν υἱὲς Ἀχαιῶν
 Ἐν παλάμῃς φερέουσι δικαστῶλοι, οἳ τε θέμιστας
 Πρὸς Διὸς εἰρόονται — — —

Homerori ez zitzaion hainbeste inporta gai eta irudi desberdinetako bi makila deskribatzea, baizik makila horiek adierazten zuten ahalaren desberdintasunaz irudi sentikor bat egitea. Hura, Vulkanoren lana; hau, esku ezezagun batek basoan moztua; hura etxe noble bateko ondare zaharra; hau aurkituko duen lehen esku eta onenarentzat egina; hura, uharte askoren eta Argos osoaren gainean zabaltzen den errege batena; hau, beste hainbatekin batera legeak babestea gomentatu zaion greziarren arteko batek eramana. Hori zen Agamenon eta Akilesek bata bestearengandik urruntzen zituen aldea; alde bat, Akiles berak, bere haserrearek itsuturik ere, aitortu gabe utzi ezin zuena.

Hala eta guztiz ere, ez bakarrik bere deskribaketekin beste asmo batzuek lotzen dituenean, baizik baita ere irudi soil bat eman nahi duenean, irudi hori objektuaren historia moduko batean hedatuko du, guk naturan bata bestearen ondoan ikusten ditugun makilaren atalak, bere pinturan orobat erarik naturalenean bata bestearen segidan etor daitezen, eta kontakizunaren jarioarekin batera gara daitezen. Adibidez: Pandaroren uztaia margotu nahi digu; adarrezkoa da uztaia, halako eta halako luzeerakoa, bikain leundua, eta bi muturretan urrez apaindua. Zer egiten du? Ezaugarri hauek guztiak erabat hotz kontatuko dizkigu bata bestearen ondotik? Inondik ere ez; gisako uztai bat

zehaztuko luke horrek, nolakoa behar duen finkatuko, baina hori ez da pintatzea. Basauntzaren ehizatik abiatzen da, haren adarrez egingo baita uztia; Pandarok haitzetan sumatu zuen, eta han hil; neurriz gaindikoak ziren adarrak, eta horregatik hartu zituen uztia egiteko; lanean hasten da, artistak lotzen ditu, leuntzen, apaintzen. Eta horrela, esan bezala, poetarengan sortzen ikusten duguna, pintorearengan eginda baino ezin dugu ikusi^d.

--- τῶξον ἐύξοον, ἰξάλου αἰγός
 Ἀγρίου, ὃν ῥά ποτ' αὐτὸς, ὑπὸ στέρνοιο τυχήσας,
 Πέτρης ἐκβαίνοντα δεδεγμένον· ἐν προδοκῇσιν,
 Βεβλήκει πρὸς στήθος· ὃ δ' ὕπτιος ἔμπεσε πέτρῃ·
 Τοῦ κέρα ἐκ κεφαλῆς ἑκακιδεκάδωρα πεφύκει·
 Καὶ τὰ μὲν ἀσκήσας κεραοξόος ἦραρε τέκτων,
 Πᾶν δ' εὖ λειήνας, χρυσέην ἐπέθηκε κορόνην.

Ez nuke amaituko gisa honetako adibide guztiak eman nahi banitu. Homero ezagutzen dutenei andanaka etorriko zaizkie burura.

XVII

Baina aurpegiratuko zait poesiak dituen ezaugarri hauek ez datozela bakarrik bata bestearen ondoren, era arbitrarioan ere badaudela jarrita; eta zeinu arbitrario bezala gorputzak, espazioan dauden bezala, deskribatzeko gai direla. Homerorengan berarengan aurki daitezke era honetako adibideak; aski da horretarako Akilesen ezkutua gogora ekartzea, hori baita gauza bat bere atalak bata bestearen segidan hartuz zein zehatz baina orobat zein poetikoki deskriba daitekeen ikusteko adibiderik erabakigarrirena.

Eragozpen bikoitz horri erantzungo diot. Bikoitz diot, ondorio zuzen batek adibiderik gabe ere baliozko izan behar baitu, eta, bestalde, Homeroren adibidea garrantzizkoa da zinez niretzat, baita ondorioztapen baten bidez zuritu ezin badaiteke ere.

Egia da: hizketaren zeinuak arbitrarioak direnez, litekeena da guztiz haien bidez naturan bata bestearen ondoan dauden gorputz baten

atalak bata bestearen segidan jartzea. Baina hizkeraren eta bere zeinuen gaitasun bat da bakarrik hau oro har, ez dira ordea poesiak dituen asmotarako egokienak. Poetak ez du ulergarri bakarrik izan nahi, bere irudiek ez dute garbiak eta zehatzak bakarrik izan behar; hori prosistarentzat da aski. Baizik gugan sortzen dituen ideiak hain bizi bihurtu nahi ditu, non guk azkartasunean uste baitugu haren objektuen egiazko inpresio sentikorrak sentitzen ditugula, eta ilusioaren une horretan, horretarako erabiltzen duen baliabidearen, hau da bere hitzen kontzientzia galtzen dugula. Honetara jo nahi zuen goian pintura poetikolari buruzko argibideak. Baina poetak beti margotu behar du; eta orain ikus dezagun zenbateraino gorputzak, beren osagaiak bata bestearen ondoan dituztelarik, pintura honetara egokitzen diren.

Nola iritsiko gara gauza baten irudikapen garbira espazioan? Hasteko begiratzen ditugu haren atalak banaka, ondoren atal horien lotura, eta azkenik osotasuna. Gure zentzuek halako azkartasun harri-garriz burutzen dituzte ekintza desberdin hauek, non guk bakar bat dela uste baitugu, eta azkartasun hori ezinbestekoa da, baldin guk atalen eta haien loturaren ideen ondorio baino ez den osotasunaren ideia bat erdietsi nahi badugu. Demagun beraz poetak objektuaren atal batek bestera ordenarik ederrenean garamatzala; demagun, berak bada kiela atal horien lotura guri guztiz ulergarri egiten digula: zenbat denbora behar du berak horretarako? Begiak kolpe bat bakarrean sumatzen duena, harrigarriro geldi doakigu kontatzen, eta sarri gertatzen da azken marrarako lehenbizikoa ahaztu zaigula. Halere, marra hauetatik osotasun bat moldatu behar dugu guk. Begiari dagokionez, ikusiriko marrak etengabe presente ditu; behin eta berriro igaroarazi ditzake: belarriari dagokionez, aldiz, sumaturiko atalak galdu egiten dira, baldin oroimenean gordetzen ez badira. Eta han geratu ere geratzen dira gordeta: zenbateko nekea, zenbateko ahalegina behar izaten den poetaren inpresioak beren ordenan hain biziro berritzeko, haiek azkartasun neurritsu batez kolpe batean jasotzeko, osotasunaren nolabaiteko ideia batera iritsi ahal izateko!

Saia gaitezen bere gisakoen artean maisulantzat har daitekeen adibide batean^a.

Dort ragt das hohe Haupt vom edeln Enziane
Weit übern niedern Chor der Pöbelkräuter hin,

Ein ganzes Blumenvolk dient unter seiner Fahne,
Sein blauer Bruder selbst bückt sich, und ehret ihn.
Der Blumen helles Gold, in Strahlen umgebogen,
Türmt sich an Stengel auf, und krönt sein grau Gewand,
Der Blätter glates Weiß, mit tiefem Grün durchzogen,
Strahlt von dem bunten Blitz von feuchtem Diamant.
Gerechtestes Gesetz! Daß Kraft sich Zier vermähle,
In einem schönem Leib wohnt eine schönre Seele.

Hier kriecht ein niedrig Kraut, gleich einem grauen Nebel,
Dem die Natur sein Blatt im Kreuze hingelegt;
Die holde Blume zeigt die zwei vergöldten Schnäbel,
Die ein von Amethyst gebildter Vogel trägt.
Dort wirft ein glänzend Blatt, in Finger ausgekerbet,
Auf einen hellen Bach den grünen Widerschein;
Der Blumen zarten Schnee, den matter Purpur färbet,
Schließt ein gestreifter Stern in weiße Strahlen ein.
Smaragd und Rosen blühn auch auf zertretner Heide,
Und Felsen decken sich mit einem Purpurkleide.

Belarrak eta loreak dira poeta adituak arte handiz eta naturaren arabera margotzen dituenak. Margotu bai, baina ilusiorik sortu gabe. Ez dut esango belar eta lore hauek ikusi ez dituenak beren pinturatik haien ideiarik egiteko apenas modurik izango duenik. Litekeena da pintura poetiko orok bere objektuekin nolabaiteko ezagutza eskatzea ere. Ez dut ukatuko orobat, halako ezagutza leukakenari poetak atal batzuei buruz ideia biziago bat pintatuko ez dionik. Baina nik galde-tuko nioke bakarrik, zer gertatzen zaion osotasunaren ideari? Baldin honek biziagoa izan behar badu, atal bakoitza orduan ez da han nabarmendu behar, baizik goragoko argia denen gainera berdin banatu beharko da; gure irudimenak denak berdin azkar pasatu ahal izan behar ditu, haiekin naturan elkarturik ikusten dena bateraturik jartzeko. Hala gertatzen al da? Eta hala ez bada, nolatan esan ahal izan da «pintore baten kopiarik antzekoena guztiz hitsa eta nabarra litzateke-ela deskribaketa poetiko honen parean»?^b.Lerroek eta koloreek oiha-

lean adieraz dezaketena baino askoz beherago dago, eta gehiegizko laudorio hau egin duen kritikoak okerreko ikuspegitik begiratu behar izan du; badirudi gehiago begiratu behar izan diola poetak han nahastu dituen apainduria arrotzei, landare bizitzaren gainetik jasotzeari, kanpoko edertasunak oskol bezala balio dion barneko perfektzioen garapenari, edertasunari berari baino, pintoreak eta hartaz poetak eskain diezagukeen irudiaren bizitasunari eta leialtasunari baino. Hala eta guztiz ere, azken hau da garrantzizkoa eta esaten duenak lerro soil hauek, alegia:

Loreen urre argia, izpitan inguraturik,
lehiatzen da zurtoinean, eta koroatzen du bere jantzi arrea.
Hostoen zuritasun dizdizaria, berde sakonez zuindurik,
diamante hezearen distira koloretsuan.

lerro hauek, eragiten duten inpresioari dagokionez, Huysum baten imitazioarekin lehia daitezkeela, ez die galdetu bere inpresioei, edo nahita ukatu nahi izan ditu. Beharbada, lorea bera eskutan hartuta, oso polita izan daiteke hitzok errezitatzea; baina berenez ez dute ezer edo apenas ezer esaten. Hitz bakoitzean entzuten dut poeta lanean, gauzari berari ordea ez diot hurrik ere ematen.

Berriro, beraz: nik ez diot ukatuko hizkerari gorputzezko osotasun bat bere atalen arabera deskribatzeko posibilitatea; hala egin dezake, bere zeinuak, bata bestearen segidan etorri arren, zeinu arbitrarioak direlako halere: hizkuntzari poesiaren baliabide bezala ukatzen diot, gorputzaren gisako hitzezko deskribaketak poesiak bere duen ilusioa hausten baitu; eta ilusio hau, diot nik, hitzetan hautsi egiten da, gorputzaren koexistenteak hizkeraren kontsekutiboarekin tupust egiten baitu, eta hura honetan deskegiten denean, osotauna bere ataletan deskegiteak guri lana erraztu egiten digu bai, baina atal horiek osotasun batean berriro elkartzea izugarri zail da, eta sarri ezinezko.

Beraz, ilusioari dagokionean, irakurleen ulermenari dagokionean, eta kontzeptu garbi eta ahal den neurrian osokoak nahi direnean: gorputzaren deskribaketek, poesiatic baztertuek, beren lekua izan dezakete, eta ez bakarrik prosazaleak, baita poeta dogmatikoak ere (izan ere, berak dogmatizatzen duenean, bera ez da poeta), onura handiz erabil dezake. Hala deskribatzen du, esaterako, Virgiliok nekazaritzari buruzko bere poeman hazkuntzarako egokia zen behi bat:

- — — Optima torvae

Forma bovis, cui turpe caput, cui plurima cervix,

Et crurum tenuis a mento palearia pendent.

Tum longo nullus lateri modus: omnia magna:

Pes etiam, et a camuris hirtae sub cornibus aures.

Nec mihi displiceat maculis insignis et albo,

Aut juga detractans interdumque aspera cornu,

Et faciem tauro propior; quaeque ardua tota,

Et gradiens ima verrit vestigia cauda.

Edo moxal eder bat:

- — — Illi ardua cervix

Argutumque caput, brevis alvus, obesaque terga:

Luxuriatque toris animosum pectus etc.^c

Nork ez du ikusten, izan ere, hemen poetari osotasunaren deskribaketa baino gehiago interesatzen zaiola atalen analisisia? Moxal eder baten, behi egoki baten ezaugarriak zenbatu nahi dizkigu, baldin haietarik gehiago edo gutxiago aurkituko bagenitu, bataren edo bestearen ontasunaz juzgatzeko egoeran jartzeko; baina ea ezaugarri hauek guztiak irudi bizi batean erraz elkar zitezkeen edo ez, hori beharbada ez zitzaion batere inporta.

Erabilera honetaz aparte, gorputzezko objektuen pintura oso-koak, goian koexistitzen dena segidazko zerbaitetan bilakatzeko aipaturiko Homeroren trikimailua salbu, beti epaile finenek joko hotz bezala aitortu dituzte, eta horretarako jeinu gutxi edo batere ez delarik behar. Poeta ezjakina, dio Horaziok, besterik ezin duenean hasten da pintatzen basotxo bat, aldare bat, soro samurretan barna itzulimitzulika doan erreka bat, erreka xuxurlari bat, ostadar bat:

- — — Lucus eta ara Dianae,

Et properantis aquae per amoenos ambitus agros,

Aut flumen Rhenum, aut pluvius describitur arcus^d.

Popek, bere heldutasunean, bere haurtzaro poetikoko ahalegin pikturikoak mespretxu handiz ikusten zituen. Berariaz eskatzen zuen poeta izana duintasunik gabe eraman nahi ez zuenak, ahalik eta azka-

rrren utzi behar ziola deskribaketako gogoari, eta pinturazko poesia zopa hutsezko mahai bezala jotzen zuen^e. Kleist jaunari dagokionez, bere «Udaberria»z uste oso gutxi zuela ziurta dezaket. Luzaroago bizi izan balitz, erabat bestelako itxura emango zion. Egitasmo bat sartze-ko asmoa zuen eta pentsatzen ari zen sorkuntza gaztetuaren esparru amaibakotik, halabeharrez, hemen eta han atera bide zuen irudi pila nola antolatu bere begien aurrean ordena natural batean eta nola jarri bata bestearen segidan. Marmontel-ek zalantzarik gabe bere Eglogen kariaz hainbat poeta alemani gomendatu ziena egingo zukeen; irudi sorta bat, sentimenez urri horniturik zegoena, irudiz urri bilbaturiko sentimen sorta bihurtzeko^f.

XVIII

Eta, halere, Homero bera ere erori zen gorputzezko objektuen pintatze hotzean?

Espero dezadan oso pasarte gutxi daudela bakarrik horretarako aipa daitezkeenak; eta ziur naiz pasarte gutxi horiek ere, salbuespen diruditen araua egiaztatzen duten motakoak direla.

Bere hartan jarraitzen du auziak: denboraren segida poetaren alorra da, espazioa pintorearen alorra den bezala.

Elkarren artean urrundurik dauden bi une pintura bat berean jartzea, Fr. Mazzuolik neska sabinen lapurretan eta beren senarren bakeatzean bere gurasoekin egiten duen bezala; edo Tizianok seme galduaren historia osoa, bere bizitza galdua eta bere miseria eta bere damua: hori da pintorearen oldartzea poetaren alorrean, gustu onak onartuko ez duen zerbait.

Atal edo gauza desberdinak, naturan nik derrigor batera ikusten ditudanak, osotasun bat sortu behar dutenean, irakurleari banan-banan zenbatzea, era horretan guztiaren irudi bat egin ahal dezan: hori da poetaren oldartze bat pintorearen alorrean, eta horretan poetak iru-dimen asko alferrik galtzen du inolako onurarik gabe.

Halere, bi auzo adiskide onek onartzen ez duten bezala batak bestearen esparru barnekoenean egoki ez den ozarkeriarik har dezan, baizik aldiz mugarik nabarmenenean, batak bestearen eskubidekoan

presaren presaz gorabeheretik bultzaturik elkarri egin ohi dizkioten eraso txikiak konpontzen dituen elkarren arteko onberatasunak agin dezan egiten duten bezala: hala gertatzen da pinturarekin eta poesia-rekin ere.

Zentzu honetan ez dut azpimarratu nahi pintura historiko handietan une apartekoa ia beti apurtxo bat zabaltzen dela, eta agian ez dela iruditan oparoa den pieza bat bakarra, zeinetan irudi bakoitzak ekintza nagusiko unean dagozkion mugimendua eta jarrera dituen; batak apurtxo bat lehenxeagokoa dauka, besteak geroxeagokoa. Askatasun bat da hau maisuak antolaketaren fintasun jakin batzuen bidez zuritu behar duena, bere pertsonaiak hurbilduz edo urrunduz, gertatzen ari den horretan gehiago edo gutxiago parte harraraziz. Mengs jaunak^a Rafaelen jantziei buruz egiten duen oharkizun batez baliatuko naiz. «Tolestura bakoitzak, dio berak, badu berarengan zergati bat, dela bere pisua, dela atalen postura. Batzuetan antzematen da nola zeuden lehenxeago; Rafael saiatu da bide honetan ere. Tolesturetan igartzen da ea hanka edo besoa, mugimentu hori egin baino lehen, aurrerago edo atzerago egon den, ea kuzkurturik egon den atala luzatu den edo luzatzen ari den, edo luzaturik zegoena kuzkurtzen hasi den». Ez dago zalantzarik aukera honetan bi une desberdin bakar batera bildu dituela artistak. Izan ere, lehen atzean zegoen eta orain aurrera egiten duen hankari haren gainean dagoen jantziaren zati batek segitzen badio (oihala oso zurruna ez bada behintzat, eta hori oso deserosoa litzateke pintatzeko), ez dago unirik jantziak inondik ere beste tolestura bat egin dezan, ez bada menbruen oraingo egoerak eskatzen duena; aldiz, beste tolestura bat egiten bazaio, orduan jantziaren aurreko unea eta menbruen oraingoa azalduko dira. Hala eta guztiz ere, nork eskatuko dizkio kontu hain zorrotzak artistari, bi une hauek guri batera erakusteko abantaila era horretan aurkitu duenean? Nork ez du, aldiz, hura goraipatuko, adierazpenaren perfekzio handiago bat erdiesteko gisako okertxo bat egiteko burua eta bihotza eduki dituelako?

Barkamen bera merezi du poetak ere. Aldiko bere gorputzezko objektuaren alde bat bakarra, ezaugarri bat bakarra ukitzeko bide ematen dio bere segidazko imitazioak. Baina bere hizkuntzaren antolakuntza zoriontsuak hori hitz bakar batez eskaintzeko modua ematen badio, zergatik ez du sartu behar inoiz edo behin gisako bigarren hitz

bat? Zergatik ez hirugarren bat, nekeak merezi badu? Edo agian laugarren bat? Esan dut Homerorentzat, adibidez, itsasontzi bat edota itsasontzi beltza dela, edo intsasontzi ahurra, edo itsasontzi azkarra, gehienera itsasontzi beltz arraunez ondo hornitua. Bere estiloaz oro har ari naiz, noski. Hemen edo han aurkitzen da pasarte bat, pinturazko epitoren bat duena: *Καμπύλα κύκλα, χάλκεια, ὀκτάκνημα*^b, gurpil borobilak, kobrezkoak, zortzi erraildunak. Baita laugarren bat ere: *ἀσπίδα πάντοσσε εἶσιν, καλὴν, χαλπεῖν, ἐξήλατον*^c, ezkutu bat, erabat leundua, ederra, kobrezkoa, zizelkatua. Nork aurpegiratu-ko dio akatsik? Nork ez dio eskertuko oparotasun txiki hau, baldin sentitzen badu zein eragin ona sor dezakeen pasarte hautatu gutxietan?

Halere, ez dut hemen egin nahi ez poetaren ez pintorearen zuri-biderik, aipaturiko bi auzo baketsuen adibidean oinarri hartuz. Adibide soil batek ez du ezer frogatzen, ez zuritzen. Zuritu behar duena hauxe da, alegia: nola han pintorearengan bi une desberdinak hain hurbil aurkitzen diren, eta batak bestearekin mugan egiten duten hain era zuzenean non nekerik gabe bat bakartzat har baitaitezke; hala hemen, poetarengan espazioan dauden atal eta ezaugarri desberdinetarako marra desberdinek gisako laburtasun hertsia batean segitzen diote bata besteari eta denak batera entzuten ditugula uste dugu.

Eta honetan, diot nik, Homerori bere hizkuntza bikaina izugarri ongi datorkio. Ez bakarrik ematen dio askatasun osoa izenlagunen pilaketan eta elkarketan, baizik areago izenlagun ugari hauentzat ordena hain egokia aurkitu du, non horrela beren erlazioen etenaldi kaltegarria kendua den. Erosotasun hauetako bat edo gehiago falta zaie oro har hizkuntza modernoei. Frantsesak bezala, hizkuntza batzuek, *Καμπύλα κύκλα, χάλκεια, ὀκτάκνημα* hura: «gurpil borobilak, kobrezkoak zirenak eta zortzi errail zituztenak» itzuli behar dutenak, esanahia ematen dute, baina pintura xahutzen dute. Eta hala eta guztiz ere, esanahia ez da ezer, pintura da guztia; eta hark, hau gabe, poetarik biziena kalakari aspergarri bihurtzen du. Patu bat, Dacier anderearen luma artatsuaren pean Homerok sarri izan duena. Gure hizkuntza alemaniarrek, aldiz, Homeroren izenlagunak gehienera izenlagun baliokide hain laburretan itzul ditzake bai, baina grekeran duten ordena bikaina ezin dute imitatu. Guk esaten dugu bai «die runden, ehernen, achtspeichigten» (borobilak, kobrezkoak, zortzi

erraildunak)..., baina «Räder» (gurpilak) azkenean ipini behar dugu. Nork ez du sentitzen hiru predikatu desberdinek, subjektua jakin aurretik, irudi nahasi eta zalantzakor bat egin dezaketela? Grekerak subjektua segituan lotzen du lehen predikatuarekin, eta ondoren jar-tzen ditu gainerakoak; esaten du «gurpil borobilak, kobrezkoak, zor-tzi erraildunak». Horrela badakizu zertaz diharduen, eta, pentsatzea-ren ordena naturalari jarraiki, lehendabiziko gauza ezagutuko dugu, eta ondoren haren gorabeherak. Gure hizkuntzak ez dauka abantaila hori. Edo esan behar dut baduela, baina oso gutxitan erabil dezakeela nahasmendua sortu gabe? Biak batera. Izan ere, guk izenlagunak atze-an ipini nahi baditugu, in statu absoluto egon behar dute (deklinatu gabe); guk esan behar dugu: runde Räder, ehern und achtspeichigt (borobilak gurpilak, kobrezko eta zortzi erraildun). Egoera honetan bakarrik datoz guztiz bat gure izenlagunak adberbioekin, eta gauzari buruz predikatzen den hurrengo aditzari lotzen bazaizkio, ez gutxitan zentzu erabat faltsua eman dezakete, eta beti zentzu oso oker bat.

Baina huskeriatan ari naiz pausatzen eta badirudi ezkutua ahaz-tu dudala, Akilesen ezkutua; pintura ospetsua hau, hura kontuan har-turik Homero antzinatetik pintura^d irakasletzak hartua izan baita. Ezkutu bat, esango da, azken batean gorputzezko objektu bat denez, haren deskribaketa, bere atalen arabera, poetari zilegizta dakioko? Eta ezkutu hori gaiaren arabera, formaren arabera, haren zabalero izuga-rria betetzen zuten irudi guztien arabera Homerok ehundik gora ber-tsotan hain zabal eta hain zehatz desbrikatu du, non artista moderno-ei ez zaien zail gertatu zati guztietan bat datorren marrazkia hari jarraiki egitea.

Eragozpen honi erantzungo diot... lehendik erantzun diodala. Hain zuzen ere, ezkutua Homerok ez du guztiz buruturiko bezala pin-tatzen, baizik egiten ari den ezkutu bezala. Beraz, hemen bere triki-mailu ospetsua erabili du, alegia: berak irudikatu nahi duen objektuan koexistitzen dena kontsekutibo bihurtzen du, eta era horretan gorputz baten pintura aspergarria ekintza baten koadro bizi bihurtzen du. Guk ez dugu ikusten ezkutua, baizik jainkozko maisua ezkutua egiten ari dela. Mailua eta korrikak eskutan, bere ingudearen aurrean, eta meha xaffa bihurtu ondoren, ezkutua apaintzeko hautaturiko irudiak gure begien aurrean ateratzen dira, bata bestearen ondoren, kobretik bere kolpetxo finen eraginez. Ez dugu begien aurretik galtzen, dena buka-

tu arte. Jada egina dago, eta harrituta geratzen gara lanaren aurrean, baina egiten ikusi duen lekuko baten harridura sinesberaz.

Ezin esan daiteke gauza bera Virgiliok aurkezten digun Eneasen ezkutuari buruz. Poeta erromatarrek edo ez zuen hemen aurkitu bere ereduaren fintasuna, edo bere ezkutuan jarri nahi zituen gauzak ez zitzaizkion iruditu gure begien aurrean egiteko modukoak. Iragarpenak ziren, eta ez zen bidezko, noski, jainkoak gure aurrean gero poetak azalduko zituen bezain garbi esan zitzan. Iragarpenek, iragarpen badira, hizkuntza iluna eskatzen dute, eta horretan profetia dagokien etorkizuneko pertsonen izenak ez datoz ondo. Halere, izen egiazko hau zen, itxura guztien arabera, inportanteena poetarentzat eta gorteko gizonarentzat^e. Baina horrek Virgilio zuritzen badu ere, ez du kentzen Homeroren bidetik aldentzeak sortu duen keru txarra. Irakurle mokofinak arrazoi emango dit. Vulkanok bere lanerako egiten dituen prestakuntzak Homerok egin arazten dizkion kasik berberak dira Virgiliogan. Baina Homerok ez bakarrik lanerako prestakuntza baizik lana bera ikustarazten digun bezala, Virgiliok jainkoa bere ziklopeekin lanean erakutsi ondoren,

Ingentem Clypeum informant — —

— Alii ventosis follibus auras

Accipiunt, redduntque: alii stridentia tingunt

Aera lacu. Gemit impositis incudibus antrum.

Illi inter sese multa vi brachia tollunt

In numerum, versantque tenaci forcipe massam^f.

oihala jaisten du, eta erabat bestelako eszena batera aldatzen gaitu, eta handik astiro-astiro ibarrera garamatza, eta han Venusek, bitartean amaituta dauden armak, Eneasi ematen dizkio. Haritz baten enborrean uzten ditu jainkosak, eta heroiak nahikoa begiratu eta miretsi eta ukitu eta probatu ondoren, hasten da ezkutua deskribaketa edo pintura, betiko harekin alegia: hemen dago, eta hor dago, hurbil aurkitzen da, eta handik ez oso urruti ikusten da: hain da aspergarria, non Virgiliok eman diezaiokeen apainduria poetiko guztia beharrezko da erabat jasanenezko gerta ez dakigun. Pintura hau ez baitu Eneasek ikusten, baizik irudi soiletan gozatzen, eta haren esanahiaz ezer ez baitaki,

- — rerumque ignarus imagine gaudet;

ezta Venusek ere; nahiz honek bere ondorengo maiteen etorkizuneko patua ustez senar onberak bezain ongi jakin behar zuen; halere, poetaren beraren ahotik datorrenez, deskribaketa gauzatzen den bitartean ekintza geratu egiten da. Bere pertsonaietatik inork ez du horretan parte hartzen; ezkutuan hau edo bestea irudikaturik egoteak ez du inolako eraginik gero etorriko denean; gorteko gizon asmutsuak distiratzten du kontakizun guztian zehar, bere gaia era guztietako aipu lausengagarritz antolatzen du, baina ez du distiratzten bere obraren barneko indarraz idazten eta interesgarri izateko kanpoko baliabide guztiak mespretxatzen dituen jeinu handiak. Hartaz Eneasen ezkutua egiazki tartekatu bat da, erromatarren harrotasun nazionala lausengatzeko jarria bakarrik; erreka urrun bat, poetak bere uretara zuzentzen duena, hari bizitasun pixka bat gehiago emateko. Akilesean ezkutua, ordea, bere lur emankorraren emaitza da; izan ere, ezkutu bat egin egin behar da, eta beharrezko dena jainkotasunaren eskutik graziaz gabe ez datorrenez, ezkutuak ere apainduriak eduki behar zituen. Baina artea zegoen apainduria horiek apainduria soil bezala tratatzean, haiek gaian bilbatzean, eta gaiaren aukerarekin guri azaltzean; eta hori Homeroren estiloan egin daiteke bakarrik. Homerok apainduriak egiten erakusten digu Vulkano, honek ezkutu bat egiten badu, bere duin egin behar baitu. Virgiliogan, aldiz, badirudi ezkutua bere apainduriengatik eginarazten diola Vulkanori, apainduriak nahikoa garrantzizkotzat jotzen baititu, ezkutua egin ondoren oraindik berariaz deskribatzeko.

XIX

Ezagunak dira Scaligero zaharrak, Perrault-ek, Terrasson-ek eta beste batzuek Homeroren ezkutuaren kontra jartzen dituzten erreparotak. Orobat da ezaguna Dacier-ek, Boivin-ek eta Pope-k erantzun dutena. Nirekiko daukat, ordea, azken hauek ez ote diren urruntxo joan, eta, beren auziaren zuzentasunaz komentziturik, gauza batzuek baieztatzen dituztela, okerrak bezain poetaren zuritzeko alferrikakoak direnak.

Erreparo nagusiari heltzeko, alegia Homerok ezkutua irudi pila batez bete zuela, eta irudi horiek ezin kabi zitezkeela haren neurrien barruan, Boivinek hura eginarazi zuen, irudi bakoitzak izan behar zuen neurria finkatuz. Zirkulu kontzentriko desberdinen bere ustea

asmutsua da egiaz, nahiz poetaren hitzek ez duten horretarako inolako biderik eskaintzen, eta bestela ere antzinakoek gisako ezkutu zuindu bat eduki izanaren arrastorik batere ez den aurkitzen. Baina Homerok berak *ἄνθρωπος*, alde guztietatik artistikoki landuriko ezkutua aipatzen badu ere, nik nahiago nuke, esparru gehiago aurrezteko, alderdi ahurra hartzea; gauza ezaguna baita antzinako artistek alderdi hau ez dutela hutsik uzten, Fidiasek egindako Minervaren ezkutua egiaztatzen duen bezala^a. Eta aski ez izanik Boivin-ek abantaila horretaz ez baliatzea, premiarik gabe irudiak ugaldtu zituen, eta era horretan erdira murrizturiko esparruan haiei lekua egin behar izan zien, poetarengan irudi bakarra zena bi edo hiru irudi bereizitan banatzen baitzuen. Nik badakit ondo asko zerk eraman zuen horretara, baina ez zukeen eraman behar: aldiz, bere etsaien eskakizunak asetzen saiatu ordez, beren eskakizunak arrazoirik gabeak zirela erakutsi behar zien.

Adibide baten bidez hobeto argituko dut nire iritzia. Homerok hiri bati buruz esaten duenean^b:

Λαοὶ δ' εἰν ἀγορῇ ἔσαν ἀνδρῶν ἐνθα δὲ νεῖκος
 Ὡρώρετ' δύο δ' ἄνδρες ἐνεΐκων εἵνεκα ποιότης
 Ἀνδρὸς ἀποφθιμένου· ὁ μὲν εὖχετο, πάντ' ἀποδοῦναι,
 Λήμψαι πυφαιόμενον· ὁ δ' ἀναΐνετο, μηδὲν ἔλκεσθαι·
 Ἄμφο δ' ἰέσθην, ἐπὶ ἴστορι πεῖραρ ἔλκεσθαι.
 Λαοὶ δ' ἀμφοτέροισιν ἐπήκουον, ἀμφὶς ἀρωγοί·
 Κήρυκες δ' ἄρα λαὸν ἐρήτυον· οἱ δὲ γέροντες
 Εἶατ' ἐπὶ ξροστοῖσι λίθοις, ἱερῶ, ἐνὶ κύκλῳ·
 Σκῆπτρα δὲ κεράων ἐν χερσὶ ἔχον ἡεροφρονων.
 Τοῖσιν ἔπειτ' ἦϊσσον, ἀμοιβηδὺς δ' ἐδόκαζον.
 Καί τοι δ' ἄρ' ἐν μέσσοισι δύο χρυσοῖο τάλαντα

nik uste dut ez duela eman nahi izan pintura bakar bat baino: erailketa batengatik ezarritako diru-zigor nahikoa handi baten erabaki eztabaidazko bati buruzko jendaurreko auzi baten pintura. Gai hau gauzatu behar duen artistak ezin du baliatu auziaren une bat bakarra baino;

edo akusazioaren unea, edo lekukoen entzunaldia, edo ebazpenarena, edo beste bat edozein une hauen ondoren edo tartean erosoan iruditzen zaiona. Une bakar hori ahal bezain esanguratsua bihurtzen du, eta, poesia baino gehiago, ikus daitezkeen objektuen irudikapenean arteak daukan ilusio guztiekin gauzatzen du. Baina alderdi honetatik pinturak askoz atzerago uzten baitu, zer egin dezake gai hori hitzen bidez pintatu behar duen, eta horretan porrotik egin nahi ez duen poetak, bere aldetik dituen abantailez baliatu baino? Eta zeintzuk dira hauek? Une bakar horren iraganaz bezala gerokoaz bere artelanean luzatzeko askatasuna, eta, hartaz, artistak erakusten digunaz gaindi igartzen bakarrik uzten diguna erakusteko gaitasuna. Askatasun horren bidez, gaitasun horren bidez bakarrik hurbiltzen zaio berriro poeta artistari, eta bien lanak orduan, eraginaren aldetik berdin direnean, guztiz antzeko bihurtuko dira elkarren artean; ez ordea bata arimari belarriaren bidez besteak begiaren bidez irudika diezaiokeena baino gehiago edo gutxiago ekartzen dionean. Printzipio honen arabera ebatzi beharko zukeen Boivinek Homeroren pasartea, eta ez zituzkeen egin beharko han bereizi uste zituen une desberdin adina pintura desberdin. Egia da ezinezko dela Homerok esaten duen guztia osotoro pintura bakar batean biltzea; salaketa eta defentsa, lekukoen aurkezpena eta herri zatikatuaren oihuak, mezularien ahalegina harrabotsak isiltzeko eta epaileen azalpenak bata bestearen segidan datozen gauzak dira eta ez bata bestearen ondoan egon daitezkeenak. Halere, eskolako hizkuntzaz mintzatzeko, pinturan *izanean* jaso ez zegoena, *izan-gai* gisan zegoen han, eta pintura material bat hitzen bidez berriro emateko egiazko modu bakarra da izan-gai hau egiaz ikus daitekeenarekin lotzea, eta poeta artearen mugatan ez gelditzea, haren barruan poetak, bai, zenba baititzake pintura bat egiteko datuak, baina sekula ez berak pintura bat egin.

Era berean banatzen du Boivinek hiri setiatuarenc pintura hiru pintura ezberdinetan. Hirutan bezala hamabitan ere bana zezakeen, noski. Izan ere, poetaren espiritua ez zuenez ulertzen eta hari pintura materialaren batasunen menpe jar zedin eskatzen zionez, batasun hauen haustura askoz gehiago aurki zitzakeen, eta horrela kasik beharrezko zatekeen poetaren marra desberdin bakoitzarentzat esparru desberdin bat ezkutuan izendatzea. Nire ustez, ordea, Homerok ez dauzka hamar pintura desberdin baino gehiago ezkutu osoan; haietako bakoitza hasten da *ἐν μὲν ἑταύτῃ* batez, edo *ἐν δὲ ποιήσῃ* batez,

edo ἐν δ' ἐτίθει batez, edo ἐν δὲ ποικίλλει Ἀμφιπόλει batez^d. Hitz hauek falta badira, ez dago eskubiderik pintura ezberdin bat onartzeko; alderantziz, hitz hauek elkartzen duten guztia, —nahiz poeta horretara inondik ere beharturik ez egon— une bakar batean kontzentratze arbitrarioa falta zaion une bakar bezala ikusi behar da. Aldiz poetak adierazi izan balu, arau hori zorrotz bete izan balu, benetako osaketan harekin lotuko ez litzatekeen marrarik txikiena sartzen utzi izan ez balu, hitz batean: maxiatzen dutenek eskatzen duten bezala jokatu izan balu, egia da jaun horiek hemen ez zuketela ezer edukiko hari aurpegiartzeko, baina egiaz gusturik duen gizon batek ez zukeen mirestekorik ezer aurkituko.

Popek ez bakarrik onartu zuen Boivinen banaketa eta diseinua, baizik areago uste zuen gauza oso bereizia egiten zuela erakusten zuelarik gisa horretan banaturiko pintura bakoitza gaurko egunean ohiko den pinturaren arau zorrotzenen arabera egina dagoela. Kontrastea, perspektiba, hiru batasunak; guztia aurkitu zuen bertan, erarik onenean behatua. Eta nahiz ondo asko bazekien ere, lekuko sinesgarrien arabera, Troiako gudaren garaian pintura oraindik sehaskan aurkitzen zela, horretarako onartu behar zuen Homerok, bere jeinu jainkozkoari esker, ez bakarrik igarri zuela pinturak bere garaian lor zezakeena, pinturak oro har berez lor zezakeena ere igarri zuela; bestela lekukotasun horiek ez zuten izan behar oso sinesgarriak, ezkutu asmutsuaren adierazpen nabarmenak hobetsi zitzaizkienean. Bakoitzak onar dezake nahi duena; baina artearen historiaz historialarien datu soilak baino zerbait gehiago dakiena ez dute erraz komentzituko. Izan ere, pintura Homeroren garaietan oraindik haurtzaroan zegoela ez du sinesten Pliniok edo gisako batek esaten duelako, baizik batez ere antzinakoek aipatzen dituzten artelanetatik erabakitzen duelako mende asko geroago oraindik askoz gehiago ez dela aurreratu, eta, esaterako, Polignoto baten pinturak ez dute gainditu Popek Homeroren ezkutuaren pinturak gainditu uste zuen froga. Maisu honen bi pieza handiek Delfosen — Pausaniasek haren deskribaketa oso zehatza utzi digue — ez zuten perspektibarik. Artearen atal hau erabat ezinezko zitzaien antzinakoei, eta Homerok horren ideia bazuela egiaztatzeko Popek dakarrenak ez du egiaztatzen ezer, ez bada berak ere ideia oso azaleko bat zuela horretaz^f. «Homerok, dio berak, ezin izan zitekeen ezjakin bat perspektibari dagokionez, objektu batek beste baten aldean duen urruntasuna

berariaz ematen duelako. Esaterako, oharrarazten du berak, ispioiak gainerako irudiengandik ez oso urrun zeudela, eta haritza, zeinaren azpian segalarien bazkaria prestatu zen, albo batera zegoela. Berak artaldez eta txabolez eta ukuiluz beterik zegoen ibarrari buruz dioena, ingurune perspektibatsu handi baten deskribaketa da nabarmen. Hori frogatzeko arrazoi orokor bat atera daiteke beharbada ezkutuko irudi pilatik, ezin baitzuten irudikatuak izan beren handitasun osoan; hortik, beraz, nolabait zalantzarik gabeko da perspektibaren arabera irudiak txikiagotzeko artea garai haietan dagoeneko ezaguna zela». Gauza batek urrunetik hurbiletik baino txikiago dirudien esperientzia optikoaren behaketa soilak ez du sekula bihurtuko pintura bat perspektibaren araberako. Perspektibak ikuspuntu bat bakarra eskatzen du, ikusteko ingurune jakin bat, eta horixe da antzinako pinturei falta zaiena. Polignotoren pinturetako azaleroa ez zen horizontala, baizik atzeraka guztiz bortizki jasoa zen eta bata bestearen atzean zeudela uste izateko moduan egon behar zuten irudiak bata bestearen gainean zeudela zirudien. Eta irudi desberdinen eta haien taldeen jarrera hau orokorra izan bada, antzinako azpierzpieetatik igar daitekeen bezala, haietan atzean daudenak aurrean daudenak baino gorago baitaude, eta hauen gainetik begiratzen baitute: orduan naturala da hori onartzea Homeroren deskribaketan ere, eta pintura *batean* haren arabera loturik geratu behar duten bere irudiak beharrik gabe ez banatzea. Eztei festa bateko segizio alaiak gurutzatzen duen hiri baketsuaren eszena bikoitzak, plaza nagusian garrantzizko auzi bat egiten den bitartean, ez du eskatzen horregatik pintura bikoitzik eta Homerok bakar bezala pentsa zezakeen, hiri osoa ikuspuntu hain altutik azaltzen duenez, non era horretan kaleen bezala plazaren perspektiba librea eskuratzen duen.

Nirekiko daukat eszenen pinturaren bidez bakarrik erdietsi dela pinturan perspektibaren bereizitasuna; eta hori bere gailurrean zegoenean oraindik, ez zuen erraza izan behar haren arauak azalero bakar batean erabiltzea; hala ikusten da Herkulanoko hondakinen artean dauden antzinako pintura berantiarretan, gaur ikasle batek egingo ez lituzkeen perspektibaren kontra hain sarriak eta ugariak diren akatsetan^g.

Halere, Winckelmann jaunak aginduta daukan artearen historian lasaitasun osoa espero dudan puntu batean nire oharkizun sakanatuak biltzeko nekea ez dut nire gain hartu nahi^h.

XX

Hobe dut nire bidera itzultzen banaiz berriro, paseatzaile batek biderik izan badezake behintzat.

Nik gorputzezko objektuei buruz oro har esan dudanak arrazoi handiagoz balio du gorputzezko objektu ederrei buruz.

Kolpe bakar batean ikusten diren atal ugariak batera eragiten dutenean sortzen da gorputzezko edertasuna. Horrek eskatzen du, beraz, bata bestearen ondoan egon daitezela; eta beren atalak bata bestearen ondoan dituzten gauzak direnez pinturaren gai propioa, pinturak, eta pinturak bakarrik, imita dezake gorputzezko edertasuna.

Edertasunaren osagaiak bata bestearen segidan bakarrik azal ditzakeen poetak erabat alde batera uzten du horregatik gorputzezko edertasunaren deskribaketa, edertasun denez. Sumatzen du elkarren segidan antolaturiko osagai horiek ezin dutela izan bata bestearen ondoan egonik izango luketen eragina; osagaiak zenbatu ondoren, haien gainera bota dezakegun begiratu kontzentratzaileak ezin digula ziurtatu irudi adosturik; giza irudimena gainditzen duela aho horrek eta sudur horrek eta begi horiek elkarrekin zein eragin duten irudikatzeak, baldin naturatik edo artetik atal horien antzeko beste konposizio bat burura ekartzen ez badute.

Eta hemen ere Homero da eredu guztien eredu. Berak dio: Nireo ederra zen; ederragoa zen Akiles; Helenak jainkozko edertasuna zeukan. Baina inon ez da pausatzen edertasun horien deskribaketa zehatzagotan. Nahiz poema osoa Helenaren edertasunaren gainean eraikia egon. Zein gustura tematuko litzatekeen poeta moderno bat horretan!

Konstantino Manasses bat saiatu zen jada bere kronika idorra Helenaren pintura batekin edertzen. Eskertu behar diot bere ahalegina. Ez nuke jakingo-eta benetan bestela nondik atera nezakeen adibide bat guztiz nabarmen argitzeko zein ergela izan behar duen batek Homerok berak hain zuhurki albora utzi duen zerbait egiten ausartze-ko. Nik berarengan irakurtzen dudanean:

Ἦν ἡ γυνὴ περικαλλής, εὐόφρος, εὐχρυσάτη,
Εὐπάρειος, εὐπρόσωπος, βοῶπις, χιονόχρους,

Ἑλικοβλέφαρος, ἀβρά, χαρίτων γέμον ἄλσος,
 Λευκοβραχίον, τρυφερά· κάλλος ἀντικρὺς ἔμπνουν,
 Τὸ πρόσωπον κατάλευκον, ἡ παρειὰ ροδόχρους,
 Τὸ πρόσωπον ἐπίχαρι, τὸ βλέφαρον ὄφραϊον,
 Κάλλος ἀνεπιτήδευτον, ἀβάπτισον, αὐτόχρουν,
 Ἔβαπτε τὴν λευκότητα ροδόχρια πορίνη,
 Ὡς εἴ τις τὸν ἐλέφαντα βάψει λαμπρᾷ πορφύρᾳ.
 Δειρὴ μακρά, κατάλευκος, ὅθεν ἐμυθοῦργήθη
 Κυκνογενὴ τὴν εὖοπτον Ἑλένην χρηματίζειν.-

pentsatzen dut mendi baten gainera harriak eramaten ikusten dudala, haren gailurrean eraikuntza erraldoi bat jasotzeko, baina harri guztiak beste aldetik amiltzen direla. Zein irudi sortzen du hitz-uholde honek? Baina, zein itxura zeukan Helenak gero? Mila pertsonak hau irakurtzen badute, ez du bakoitzak haren irudi propioa egingo?

Baina egia da: lekaide baten bertso politikoak ez dira poesia. Entzun diezaioGUN orain Ariostori, bere Alcina liluragarria deskribatzen duenean^b:

Di persona era tanto ben formata,
 Quanto mai finger san pittori industri:
 Con bionda chioma, lunga e annodata,
 Oro non è, che piu risplenda, e lustrì,
 Spargeasi per la guancia delicata
 Misto color di rose e di ligustri.
 Di terso avorio era la fronte lieta,
 Che lo spazio finia con giusta meta.
 Sotto due negri, e sottilissimi archi
 Son due negri occhi, anzi due chiari soli,
 Pietosi a riguardar, a mover parchi,
 Intorno a cui par ch'Amor scherzi e voli,
 E ch'indi tuta la faretra scarchi,

E che visibilmente i cori involi.
Quindi il naso per mezzo il viso scende,
Che non trova l'invidia ove l'emende.
Sotto quel sta, quasi fra due vallette,
la bocca sparsa di natio cinabro,
Quivi due filze son di perle elette;
Che chiude, ed apre un bello e dolce labro,
Quindi escon le cortesi parolette,
Da render molle ogni cor rozzo e scabro;
Quivi si forma quel soave riso,
Ch'apre a sua posta in terra il paradiso.
Bianca neve è il bel collo, e'l petto latte,
Il collo è tondo, il petto colmo e largo;
Due pome acerbe e pur d'avorio fatte,
Vengono e van, come onda al primo margo,
Quando piacevole aura il mar combate.
Non potria l'altre parti veder Argo,
Ben si può giudicar, che corrisponde,
A quel ch'appar di fuor, quel che s'asconde.
Mostran le braccia sua misura giusta,
Et la candida man spesso si vede,
Lunghetta alquanto e di larghezza angusta,
Dove nè nodo appar, nè vena eccede.
Si vede al fin de la persona augusta
Il breve, asciuto e ritondetto piede.
Gli angelici sembianti nati in celo
Non si ponno celar sotto alcun velo.

Pandemonium dela-eta dio Miltonek: batzuek obra goraipatzen dute, beste batzuek obraren maisua. Bataren goresmena, beraz, ez da beti bestearena. Artelan batek denen txaloak irabaz ditzake, artistaren ospeari apenas ezer eman gabe. Alderantziz artista batek eskubide osoz

eska dezake gure miresmena, bere obrak guztiz asetzen ez bagaitu ere. Ez bedi ahaztu hau, eta hainbatean epai guztiz kontragarriak erkatu ahal izango dira. Hemen bezalaxe. Dolce-k, pinturari buruzko bere Elkarriketetan, Ariostoren estantzen izugarrizko laudorioak jartzen ditu Aretinoren ahotan^c; nik, aldiz, pinturarik gabeko pintura baten adibide bezala hautatzen dut. Biok daukagu arrazoi. Gorputzezko edertasunaz poetak erakusten duen ezagutza mirensten du hor Dolce^c; nik, aldiz, nire aldetik ezagutza horrek, hitzetan emanik, nire irudimenean eragiten duten eraginari begiratzen diot. Dolce^c ezagutza horietatik ondorioztatzen du poeta onak pintore onak ere badirela; eta nik eragin horretatik ondorioztatzen dut, pintoreek marren eta koloreen bidez ondoen irudika dezaketena hitzen bidez, hain zuzen ere, oso gaizki irudika daitekeela. Emakume ederraren eredurik perfektuena bezala gomendatzen die Dolce^c Ariostoren deskribaketa; eta nik poeta guztiei gomendatzen diet irakatsi handiz beteriko abisu bezala, ez daitezela setatu Ariosto bati gaizki atera zitzaion horretan, okerrago aterako zaielako. Litekeena da Ariostok esaten duenean:

Di persona era tanto ben formata,

Quanto mai finger san pittori industri,

era horretan berak, artistarik onenek naturan eta antzinatean ikasi duten bezala, proportzioen doktrina guztiz ulertu duela egiaztatzea^d. Edozein modutan, litekeena da hitz soil hauetan, alegia:

Spargeasi per la guancia delicata

Misto colore di rose e di ligustri,

koloristarik onen bezala, Tiziano bat bezala, azaltzea ere^e. Ikusirik berak Alcinaren biloa urrearekin bakarrik erkatzen duela, baina ez duela urrekara deitzen, orobat garbi ondoriozta daiteke egiazko urrearen erabilera kolore ematean gaitzetsi egiten zuela^f. Litekeena da bere sudur zuzenean,

Quindi il naso per mezzo il viso scende,

antzinako greziarren isla aurkitzea, eta artista greziarrek erromatarrei mailegatua^g. Zer inporta zaigu guri, irakurleoi, jakituria eta zorroztasun hori guztia, emakume eder bat ikusi uste badugu, edertasuna egiazki ikustearekin batera datorren odol-irakite goxoa sentitu nahi badugu? Baldin poetak badaki zein erlaziotatik sortzen den irudi eder bat, guk ere jakin behar dugu horregatik? Eta guk jakingo bage-

nu ere, uzten al digu erlazio horiek ikusten? Edo arintzen al digu apurrik txikienean erlazio horiek erarik bizienean eta sentsibleenean goratzeko zama? Bekoki bat dagozkion mugetan hertsia, la fronte

Che lo spazio finia con giusta meta;
sudur bat, non inbidiak ere ez duen zer hobeturik aurkitzen,
Ghe non trova l'invidia, ove l'emende;
esku bat, pixka bat luzexea eta zabalero estukoa,
Lungheta alquanto, et di largheza angusta:

zein irudi mota eskaintzen dute formula orokor hauek? Bere ikasleak eredu akademikoaren edertasunera erakarri nahi dituen marrazketa maisu baten ahotan izango dute esanahirik beharbada; izan ere, modelo horri begiratu bat bota eta bekoki alaiaren muga hertsia ikusten dizkiote, sudurraren isla ederra ikusten dute, esku apainaren estuera. Baina poetarengan ez dut ezer ikusten, eta zerbait ikusi nahi izateko nire ahaleginen hutsaltasuna sumatzen dut atseka-bez.

Virgilio —ezer egin gabe Homero imita zezakeen puntu hone-tan— nahikoa arteza izan zen. Bere Dido beretzat ez da *pulcherrima Dido* baino. Zerbait zehaztasunez deskribatzen duenean, bere apainduria oparoak, bere segizio naharoa deskribatzen ditu:

Tandem progreditur —
Sidoniam picto chlamydem circumdata limbo:
Cui pharetra ex auro, crines nodantur in aurum,
Aurea purpuream subnectit fibula vestem^h.

Baldin horregatik Virgiliori aurpegiratuko bagenio, artista zahar hark Helena oso apaindu bat pintatu zuen bere ikasleari esan ziona, alegia: «eder pintatu ezin izan duzunez, aberats pintatu duzu», Virgiliok erantzun zezakeen: «ez zegoen nire esku hura eder pintatu ahal izatea; nire artearen mugei dagokie larderia; nire ohorea bedi muga horien barruan jardun izana».

Ezin ahaz ditzaket hemen bere neskaren eta bere Batiloren edertasuna aztertzen duten Anakreonteren bi kantuakⁱ. Hemen erabiltzen duen trikimailuak dena on bihurtzen du. Aurrean pintore bat daukala uste du, eta bere begien aurrean lan egin dezan agintzen diola. Biloa, dio berak,

egidazu honela, bekokia honela, begiak honela, ahoa honela, lepoa eta bularrak honela, honela aldakak eta eskuak! Artistak zatika elkar dezakeena, poetak ere zatika agin ziezaiokeen. Ez zen bere asmoa, pintorea hitzen bidez gidatze horretan, guk objektu maitearen edertasun osoa eza-gutu eta sentitzea; berak ere sentitzen du ahozko adierazpenaren ezigauzatasuna, eta horregatik baliatzen da artearen adierazpenaz, arte horren ilusio-gaitasuna hain maila altukoa irizten baitu, non abesti osoak gehiago dirudien artearen gorespena, neskarena baino. Ez du ikusten estatua, ikusten du neska bera, eta uste du segituan irekiko duela ahoa hitz egiteko:

Ἀπέχει βλέπω γὰρ αὐτήν
 Τάχα, κηρέ, καὶ λαλήσεις.

Batiloren aipamenean ere, mutil ederraren gorespena halako moduan dago tratatua artearen eta artistaren gorespenarekin, non nekez asma daitekeen noren ohoretan egin duen Anakreontek bere abestia. Zatirik ederrenak biltzen ditu pintura desberdinetatik, zati horien edertasun apartekoa zenez haien bereizgarria; lepoa Adonis bati hartzen dio, bularra eta eskuak Merkurio bati, aldaka Polus bati, urdaila Bako bati; azkenik Batilo osoa artistak osaturiko Apolo batean azaltzen den arte.

Μετὰ δὲ πρόσωπον ἔστω,
 Τὸν Ἀδώνιδος παρελθοῦν,
 Ἐλεφάντινος τράχηλος·
 Μεταμάζιον δὲ ποίει
 Αἰδύμας τε χεῖρας Ἑρμοῦ
 Πολυδεύκεος δὲ μηρούς,
 Λιονοσίην δὲ νηδύν....
 Τὸν Ἀπόλλωνα δὲ τοῦτον
 Καθελὼν, ποίει Βάθυλλον.

Hala, Luzianok ere ez du asmatzen Pantearen ideia bat nola egin, ez bada antzinako artisten emakumezko estatua ederrenak aipatuz^k. Zer esan nahi du honek, ez bada hizkuntza berez indarrrik gabea dela aitortzea, poesia totelka dabilela eta mintzo ederra mututu egiten dela, baldin arteak nolabait interprete bezala laguntzen ez badio?

XXI

Baina, ez ote du gehiegi galtzen poesiak gorputzezko edertasunezko irudi guztiak kentzen bazaizkio? Nork kendu nahi dizkio, ordea? Bere arte ahizparen oinatzak segituz, berak gisako irudietara iristeko eduki uste duen bide bakarra, hartan antsiati han-hemenka dabilela, horrela haren helburu berera sekula iritsi gabe ordea, mozten zaiolako: mozten al zaio horregatik gainerako bide oro, arte plastikoak berriro leku egin beharko dionean?

Gorputzezko edertasunaren deskribaketa zehaztu oro hainbeste-ko arretaz ekiditen duen Homerok berak —haren bidez apenas dakigun bidenabar Helenak beso zuriak^a eta bilo ederra^b, zer zuen—; poeta horrek, hala eta guztiz ere, badaki ematen haren edertasunaren ideia bat, arteak, zentzu honetan, lor dezakeen guztia askogatik gaintitzen duena. Gogora bedi Helena Troiako herriko zaharrenen bilkurara sartzen den pasartea. Agure beneragarriek ikusten dute, eta elkarri esaten diote^c:

Οὐ νῆμεσις, Τρῶας καὶ εὐκνήμιδας Ἀχαιοῦς
Τοιῆδ' ἀμφὶ γυναικὶ πολὺν χρόνον ἄλγεια πάσχειν
Αἰνῶς ἀθανάτησι θεῆς εἰς ὅπα ἔοικεν.

Zerk eman dezake edertasunaren ideia biziagoa, zahartzaro hotzak Helena hainbeste odol eta hainbeste negar ekarri dituen gerra baten duin aitortzen duenean baino?

Homerok bere atalen arabera deskriba ezin zezakeena, bere eraginarene bidez ikusarazten digu. Margo iezaguzue, poetok, edertasunak sortzen duen atsegintasuna, erakarpena, maitasuna, liluramena, eta edertasuna bera margotu diguzue. Nork pentsa dezake itsusia dela Safok maite zuena, hura ikustean berak zentzuak eta burua galdu dituela aitortzen badu? Nork ez du usteko, gisako soin batek bakarrik sor dezakeen sentimenduaz gogatu bezain laster, soinik ederren eta bikainena ikusten duela? Ez Ovidiok bere Lesbiaren gorputz ederra atalez atal erakusten digulako:

Quos humeros, quales vidi tetigique lacertos!

Forma papillarum quam fuit apta premi!

Quam castigato planus sub pectore venter!

Quantum et quale latus! quam juvenile femur!

baizik berak hori gure desioa hain erraz esnatzen duen xarmadura gurienez egiten duelako, uste dugu berak gozatu zuen ikuspegiare gozatzen dugula guk ere.

Poesiak artea gorputzezko edertasunaren deskribaketan berdintzeko duen beste bideetako bat da hau, alegia: edertasuna xarma bihurtzea. Xarma da edertasuna mugimenduan, eta horregatik hain zuzen ere pintoreari ez zaio gertatzen poetari bezain eroso. Pintoreak mugimendua sumatzen bakarrik utz dezake, baina egiaz irudiak mugitzen ez direla daude. Hartaz, harengan xarma imintzio bihurtzen da. Baina poesian lehendik zena da beti; edertasun iragankor bat, berriro ikusi nahiko genukeena. Etorri eta joan dabil; eta mugimendu batez errazago eta bizikiago oroitzen garelarik forma eta kolore soilez baino, aukera beretan xarmak gudan eragin bortitzagoa izan behar du, edertasunak baino. Alcinaren pinturan atsegin eta hunkigarrien den guztia, xarma da. Bere begiek egiten duten inpresioa, ez dator beltzak edo sutuak direlako, baizik

Pietosi à riguardar, à mover parchi

samurtasunez inguruan begiratzen dutelako eta astiro mugitzen direlako, maitasuna inguruan hegaka dabilkiolako eta bere gezi-zorro osoa haietatik tiratzen duelako. Bere ahoak liluratzen gaitu, ez egiazko hargorritz estaliriko bere ezbainek perla hautatzuko bi lerro isten dituztelako, baizik hemen moldatzen delako irribarre maitagarria, berak bakarrik paradisu bat lurtean irekitzen duena; bera delako bihotz gogor oro biguntzen duten hitz adiskidetsuak esaten dituen. Bere bularrek liluratzen dute, ez hainbeste esneak eta marfilak eta sagarrak beren itxura zuri eta polita irudikatzen digutelako, baizik, firfira jolasti batek itsasoa erasotzen duenean uhinak bezala itsasertz bazterrean bigun joan eta datozelako:

*Due pome acerbe, e pur d'avorio fatte,
Vengono e van, como onde al primo margo,
Quando piacevole aura il mar combatte.*

Ziur naiz, xarmaren ezaugarri sotil batzuek, estantza batean edo bitan laburbildurik, eragin askoz handiago izango luketela, Ariostok haiek banatu eta forma ederraren ezaugarri hotzekin, gure gusturako eskolatuegiekin, bilbatu dituen bostek baino.

Anakreonte berak nahiago zukeen azaleko zabarkeria batean erortzea, pintoreari ezinezko gauza bat eskatzea, bere neskaren irudia xarmaz ez bizkortzea baino:

Τρυφεροῦ δ' ἔστω γενείου,

Περὶ λυγδῖνον τραχήλου

Χάριτες πέτουντο πόσσω.

Bere kokots samurra, agindu zion artistari, bere marmolezko garondoa hegaka ingura dezatela Grazia guztiek! Nolatan, gero, hori? Hitzaren zentzurik hertsienean? Hori ezin gauza dezake pinturak. Pintoreak eman ziezaiokeen kokotsari biribiltasun ederrena, zulotxo ederrena, Amoris digitulo impressum, (Izan ere, hitzak zulotxo esan nahi du nire ustez), lepoari mardultasun ederrena eman ziezaiokeen; baina ezin zuen gehiago. Lepo eder horren bihurketak, zulotxo hura behin gehiago behin gutxiago ikusteko moduan jartzen duen giharren jokoak, xarma bera, bere indarrez gaindi zeuden. Poetak bere arteak edertasuna sentitzeko moduan jartzeko gauzarik handiena esaten du, era horretan pintoreak adierazmolderik gorena bila ahal dezan bere artean. Adibide berri bat goiko oharrari, ikusteko nola poeta, artelanei buruz mintzo denean ere, ez dagoen behartuta bere deskribaketarekin artearen mugen barruan geratzera.

XXII

Zeuxis-ek pintatu zuen Helena, eta azpian agureek beren sentimendua aitortzen duten Homeroren pasarte ezagun hura jartzeko bihotza izan zuen. Pintura eta poesia sekula ez dira eramanak izan norgehiagoka parekoago batera. Erabaki gabe geratu da garaipena, eta biek merezikiko zuketena koroatuak izatea.

Izan ere, poeta zuhurrak, bere atalen arabera deskribatu ezin zuela sentitzen zuen edertasuna, bere eraginaren arabera erakusten zigun bezala, zuhurtzian hura baino gutxiago ez zen pintoreak bere aldetik bere atalen arabera erakutsi zuen hura bera, eta bere arteari zegokionez desgokitatzat jo zuen bestelako baliabideren bat erabiltzea. Bere irudian Helena zegoen bakarrik, zutik eta biluzik. Izan ere, lite-

keena da gutiz Helena hauxe izatea berak Krotonakoentzat pintatu zuena^a.

Konpara dezagun honekin, jakiteko besterik gabe, Caylusek Homeroren lerro haietan oinarriturik artista modernoei aurkezten dien pintura: «Helena, belo zuri batez estalia, azaltzen da gizon zahar batzuen erdian; Priamo bera ere haien artean dago; hau bere errege-jantziei esker ezagun daiteke. Artistak ardura bereizia izan behar du edertasunaren garaipena agure hotz horien aurpegietan ispilatzen diren begirada kutiziatsuetan eta miresmen harritu baten azalpen guztietan sumarazten. Hiriko ateetako baten gainean gertatzen da eszena. Pinturaren hondoa zero zabalean edo hiriko eraikuntza garaietan gal daiteke; lehenbizikoa ausartagoa litzateke, baina bata zein bestea ego-kiak dira».

Demagun pintura hau gure garaiko maisurik handienak egiten duela, eta Zeuxisen obraren parean jartzen dugula. Edertasunaren egiazko garaipena, nork erakutsiko du? Honek edertasuna hemen neuk sentitzen dudalako, edo hark bizar-zuri liluratuen imintzioetatik nik asmatu behar dudalako? Turpe senilis amor; begirada grinatsu batek barregarri bihurtzen du aurpegirik duinena, eta gazteen grinak agerian ikusten zaizkion agure bat objektu nazkagarri bat da. Ezin jar lekieke eragozpen hori Homeroren agureei; izan ere, beraiek sentitzen duten atxikimendua une bateko distira baino ez da, beren zuhurtziak segituan itotzen duena; Helenaren goresmena egiteko jarria bai, baina ez beren buruak itsusteko. Aitortzen dute beren sentimendua, eta segituan gaineratzen dute:

Ἄλλὰ καὶ ὅς, τοίη περ ἑοῦς ἔ, ἐν νηυσὶ νεέσθω,

Μηδ' ἤμιν τεκέσσει τ' ὀπίσσω πῆμα λίποιτο.

Azken hau gabe, zahar ero batzuek lirateke; hau da, Caylusen pinturan azaltzen direna izango lirateke. Eta nora zuzentzen dituzte agureok beren begi kutiziatsuak? Irudi mozorrotu, estali batera? Eta hori da Helena? Ulertezinezko egiten zait Caylusek hemen estalkia bertan utzi izana. Egia da Homerok berariaz hori jartzen diola:

Αὐτίκα δ' ἄρρεν νῆσι καλοῦσθαι μένη φθόνησιν

Ἰερμῶτ ἐκ θαλάμοιο

baina, kalean ibiltzeko; eta, halere, beloa berriro erantzi edo atzera bota baino lehen jada zaharrek beren miresmena azaltzen

badiote, ez da lehen aldia agureek ikusten dutena; beren aitorpena, beraz, ez litzateke sortuko une honetan ikusten dutelako, baizik sarri sentitua izan daiteke orain sentitzen dutena, baina aukera honetan lehen aldikoz aitortzen dute bakarrik. Pinturan ez da gisakorik gertatzen. Baldin hemen zahar liluratu batzuek ikusten baditut, segituan jakin nahi dut zerk lilurutzen dituen; eta jota geldituko nintzakeen, baldin, esan bezala, irudi moxorrotu eta estali bat soilik dela sumatzen badut, ahoa zabalik grinaz begiratzen dauzkana. Zer dauka irudi honek Helenatik? Belo zuria, eta bere ingurumen egokitik zerbait, ingurumen hori soinekoen azpian suma badaiteke behintzat. Beharbada kontearen iritzia ez zen izango haren aurpegia estalita egotea, eta orduan beloa bere jantziaren atal bezala aipatzen du. Hori hala balitz (bere hitzek ez dute biderik ematen era honetan ulertzeko: *Helène couverte d'un voile blanc*), beste zerbaitek harritzen nau oraindik: artistari hain zehatz gomendatzen dio zaharren aurpegietako espresioa; Helenaren aurpegiko edertasunaz, ordea, ez du hitzik esaten. Edertasun eratsu hau, begietan malko damutu baten distira bustia, beldurrez hurbiltzen... Nola? Hain ohikoa al da gure artistentzat edertasun gorena, harekin gogoratzeko premiarik izan ez dezaten? Edo espresioa edertasuna baino gehiago al da? Eta pinturan ohituta gaude, antzokian bezala, artistarik itsusiena printzesa miragarrien bezala hartzera, bere printzeak harenganako egiazko maitasun sutsua sentitzen duela azaltzen duenean?

Egiaz: Caylusen pintura Zeuxisen pinturaren parean, pantomima bat poesiarik bikainenaren parean dena litzateke.

Homero antzina gaur baino arreta handiagoz irakurria zen zalantzarik gabe. Halere, ez dago berarengandik artista zaharrek ateratako pintura askoren aipamenik^b. Poetaren hatz adierazlea, gorputzezko edertasun jakin batzuetara zuzendurik, badirudi, erabili dutela-lehiatsu; horiek pintatzen zituzten; eta objektu horietan sentitzen ziren gustura, eta honetan bakarrik uzten zitzairen poetarekin lehiatzen. Helenaz aparte, Penelope ere pintatu zuen Zeuxisek; eta Apelesen Diana Homeroren bera zen bere ninfak lagun zituela. Aukera honetan gogora ekarri nahi dut, Pliniok ninfak aipatzen dituen pasarteak zuzendu premia duela^c. Baina Homerogandik harturiko ekintzak pintatzea, konposizio oparoa, kontraste bikainak, argitze proposak dituztelako besterik gabe, badirudi ez dela izan antzinako artisten gus-

tuko; eta ezin zuen izan, harik eta artea bere helburu gorenaren muga estuetan egon zen arte. Horretarako poetaren espirituaz elikatzen ziren; haren ezaugarri bikainenez betetzen zuten beren irudimena; haren zoramenaren suak sutzen zuen beraiena; berak bezala ikusi eta sentitzen zuten: eta hala beren obrak Homerorenaren kopia ziren, ez erretratuak bere jatorrizkoarekin duen erlazioaren arabera, baizik seme batek bere aitarekin duen erlazioaren arabera; antzeko baina bestelako. Antzekotasuna sarri ezaugarri bakar batean dago; gainera-ko guztiek ez dute beste antzik beren artean, ez bada ezaugarri beraiekin batean bezala bestean harmonizatzen dutela.

Bestalde, Homeroren poesiako maisulana arteko edozein maisulan baino zaharrago denez; Fidias eta Apeles batek baino gehiago, pintorearen begiaz behatzen badu Homerok natura, ez da harritzeko baldin artistek beraientzat bereiziki baliagarri ziren oharketa desberdinak naturan egiteko astia hartu aurretik, Homerorengan eginak aurkitzen bazituzten, eta handik irrikaz hartzen, Homeroen bitartez natura imitatzeke. Fidiasek aitortzen zuen honoko lerro hauek^d, alegia:

Ἦ, καὶ κυανέησιν ἐπ' ὀφρύσι νεῦσε Κρονίων·

Ἀμφρόσιαι δ' ἄρα χαῖται ἐπερρώσαντο ἄνακτος,

Κρατὸς ἅπ' αἰθανάτοιο· μέγαν δ' ἐλέλιξεν Ὀλύμπου.

bere Jupiter Olinpikoa egiteko eredutzat balio izan ziotela eta haren laguntzari esker bakarrik aurpegi jainkotiar bat, *propemodum ex ipso coelo petitum*, erdietsi zuela. Baldin honekin beste ezer ulertzen ez badu, ez bada artistaren fantasia poetaren irudi bikainaren bidez sutua zela, eta horrela irudikapen bikainetarako gai bihurtu zela, horrek, nire iritzirako, garrantzizkoena ez du ikusten eta zerbait guztiz orokorraz asetzen da, han, poz askoz sakonago baterako, zerbait oso bereizia aurki daitekeenean. Nik ebatzi dezakedan heinean, Fidiasek aitortzen zuen orobat, bera pasarte honetan lehen aldikoz jabetu zela zenbateko espresioa zegoen bekainetan, *quanta pars animi*^e zegoen haietan. Agian bultzatu zuen biloan arreta gehiago ipintzera, Homerok bilo anbrosiazko deitzen duena hein batean adierazteko. Izan ere, gauza bat da ziurra, alegia: Fidias baino lehen antzinako artistek aurpegikeran mintzagarritasunaz eta adierazgarritasunaz gutxi zekitela eta bereiziki biloa oso utzia zeukatela. Miron berak bi alorretan ditu akatsak, Pliniok^f ohartarazten duen bezala, eta haren

ondoren Pitagoras Leontino izan zen bilo apainagatik nabarmendu zen lehena^g. Fidiasek Homerorengandik ikasi zuena, Fidiasek obretatik ikasi zuten gainerako artistek.

Mota honetako beste adibide bat aipatu nahi dut oraindik, niri beti atsegin eman didana. Gogoratu Hogarth-ek Bellvedereko Apolori buruz hauteman duena^h. «Apolo hau, dio berak, eta Antinoo, biak ikus daitezke palazio berean Erroman. Antinook ikuslea miresmenez betetzen badu, Apolok zoratu egiten du; eta hain zuzen ere, bidaiariak adierazten dutenez, gizatiar baino zerbait gehiago den eta oro har deskribatu ezin duten itxura bat duelako. Eta eragin hori guztiz harrigarria da, hura aztertuz gero, haren proportzio-eza begi arrunt batek garbi ikus baitezake. Azken aldian eskultura horiek ikus-teko hara bidaiatu duen Ingalaterrako eskulturgile onenetako batek puntuan esan dudana bermatu zidan, bereiziki oinak eta izterrek luze-egiak eta zabalegiak dituela gorputzeko goiko atalarekin konparatuz. Eta Andreas Sacchi, Italiako pintore handienetakoa, badirudi iritzi berekoa dela, bestela nekez (orain Ingalaterran dagoen pintura ospe-tsua batean) emango zizkiokeen Pasqualini musikalaria koroatzen duen bere Apolori Antinooren neurriak, egiaz Apoloren kopia dela dirudienean. Nahiz guk obra oso handitan sarri ikusi atal txiki bat arretarik gabe eginga dagoela, hau ez da kasua hemen. Izan ere, eskultura eder batean egiazko proportzia da haren funtsezko edertasunetako bat. Horregatik erabaki behar da nahita luzatu dituela atal horiek, bestela erraz eragotzi zezakeen hori-eta. Beraz, irudi horren edertasunak sakon aztertzen baditugu, arrazoiz erabakiko dugu bere itxura osoan deskriba ezinezko moduan bikain iruditu zaiguna atal batean duen oker batengatik datorrela antza». Nabaria dirudi guztionek; eta dagoeneko Homerok, gaineratzen dut nik, sentitu zuen eta adierazi ere badagoela iaiotasun bikain bat, besterik gabe oinen eta izterren neurrien gehiegizkoagatik sortzen dena. Izan ere, Antenor-ek Ulisesen irudia Menelaoren irudiarekin erkatu nahi duenean, hala esan arazten dioⁱ :

Στάντων μὲν, Μενέλαος ὑπείρεχεν εὐρέας ὄμους,

Ἄμφο δ' ἐξομένω, περικρότερος ἦεν Ὀδυσσεύς.

«Biak zutik zeudenean, Menelao bizkar zabalekin gailentzen zen; baina biak eserita zeudenean, Ulises zen soin ederragokoa». Beraz, Ulisek eserita zegoenean Menelaok zutik zegoenean ken-

tzen zion iaiotasuna gainditzen zuenez, erraz asma daiteke zein erlazio duten bien soinaren goiko atalek oinekiko eta izterrekiko. Ulisesek handitasun handiagoa zeukan goiko atalean, Menelaok oin eta izterretan.

XXIII

Atal desegoki bakar batek atal askok edertasunarekiko duten eragin zolia honda dezake. Baina ez da horregatik itsusia izango objektua. Itsusitasunak ere izan behar ditu atal desegoki batzuek, orobat kolpe bakar batean sumatu behar ditugunak, edertasunak sentiarazten digunaren kontrakoa sentitu behar badugu.

Hala, bada, itsusitasuna ere, bere izatearen arabera, ezin izango litzateke poesiak bere dituen gaietako bat; eta hala eta guztiz ere Homerok itsusitasunik handiena deskribatu du Tersitesengan, eta atalak bata bestearen ondoan ipiniz deskribatu ere. Zergatik onartu zitzaion berari itsusitasunarekin, berak edertasunarekin, hain zentzu onez, bere buruari debekatu ziona? Ez al da eragotziko itsusitasunaren eragina haren osagaiak bata bestearen ondoren ipiniz, edertasunaren eragina bere osagaiak gisa berean zenbatuz suntsitzen den bezala?

Hori da, noski, gertatzen dena; baina horretantxe datza Homeroren justifikazioa. Hain zuzen ere, itsusitasuna poetaren deskribaketan gorputzeko bikaintasun-ezaren azalpen ez hain nazkagarri bihurtzen denez, eta orobat, bere eraginaren aldetik, itsusitasun izateari uzten dionez, baliagarri gertatzen zaio poetari; eta berez erabil ezin dezakeena, osagarri bezala erabiltzen du sentsazio korapilatsu batzuek agertzeko eta areagotzeko, haiekin, sentsazio guztiz atseginik ezean, jostarazten digularik.

Barregarria eta beldurgarria dira sentsazio korapilatsu horiek.

Barregarri bihurtzeko egiten du Homerok itsusi Tersites. Baina ez da barregarri bere itsusitasun soilagatik; izan ere, itsusitasuna bikaintasun-eza da eta barregarri izango bada bikaintasunaren eta bikaintasun-ezaren arteko kontrastea du beharrezkoa^a. Hori da nire adiskidearen argibidea; eta horri nik gaineratu nahiko nioke, kontraste horrek ez duela izan behar zabarregia edo zorrotzegia,

kontrakoeak, pintoreen hizkeran segitzeko, bata bestearekin elkartze-ko modukoak izan behar dutela. Esopo zuhurra eta prestua ez da barregarri gertatzen Tersites bezain itsusia zela esaten bazen ere. Fraidekeria ergel bat izan zen irakatsi handiko bere ipuinetako (barregarria) bere ezainkeriaren bitartez bere pertsonara aldatu nahi izatea. Gorputz ezain bat eta arima eder bat, izan ere, olio eta ozpina bezala dira: biak nahastu arren, gustuak bereizturik sumatzen ditugu. Ez dute onartzen hirugarren bat; gorputzak nazka sortzen du, arimak gozamina; bakoitzak bere aldetik. Gorputz ezaina orobat gaixobera eta herbaila bada, arimari bere eraginean eragozten dionean, bere kontrako aurreiritzi ezkorren iturburu denean, orduan nazka eta gozamina elkartzen dira; baina handik sortzen den ondorioa ez da barrea, baizik errukia, eta hau gabe estimu handian eduki baino ez genuen objektua, interesante ere bihurtzen da. Pope ezain eta gaixoberak bere adiskideentzat askoz interesanteagoa izan behar zuen Wicherley eder eta osasuntsuak bereentzat baino. Baina Tersites bere itsusitasun soilagatik barregarri ez zen bezala, halaxe izango zen itsusitasunik gabe ere. Itsusitasuna; itsusitasun honen eta bere izakeraren adostasuna; berak bere garrantziarekiko duen ideia-ekin biek egiten duten kontraesana; bera bakarrik umiliatzen duen bere berriketa alferrikakoa eta gaiztoa: guztiak bat etorri behar du helburu hori lortzeko. Azken egoera da, Aristotelesek^b barregarriari dagokionez ezinbestekotzat jotzen duena; kontraste hori garrantziarik batere gabeko izatea eta gure intereseko ez izatea, nire adiskideak ezinbesteko baldintza bezala jartzen duen bezala. Izan ere, demagun Tersites berari Agamenon lotsagarriro umiliatzea garestiago atera balitzaio, alegia: ubeldura pare batekin ordaindu ordez, bere bizitzarekin ordaindu behar izan balu, segituan amaituko ziren gure barre guztiak. Izan ere, gizaki izugarri hau gizaki bat da azken batean, eta hura hiltzea bere akats eta gaiztakeria guztiak baino oker handiagoa iruditu beharko litzai-guke. Horren berri jakiteko, irakurri haren azkena Kinto Kalabriogan^c. Akilesek deitoratzen du Penteseila hil izana; edertasunak odoletan, hain kementsu isuririk, heroia-aren begirunea eta errukia pizten ditu; eta begirunea eta errukia maitasun bihurtuko dira. Baina Tersites mihigaiztoak gaiztakeria bihurtzen du maitasun hori. Gizon zintzoena erokeriara eramaten duen limurkeriaren kontra erasotzen du gizon honek,

.....ἦτ' ἄφρονες φῶτα τίθεισι

Καὶ πινυτὸν περ φόντα.....

Akiles sutan jartzen da, eta hitzik esan gabe, jotzen du hain bortizki matrailaren eta belarriaren artean, non haginak eta odola eta arima, denak batera, ateratzen zaizkion ahotik. Gogorregia! Akiles sutu eta hiltzaile hau gorrotagarriago egiten zait Tersites maltzur eta murruskaria bera baino; greziarrek egintza honen aurrean altxatzen duten pozezko lekaioak min ematen dit; bere senitarte-koaren hilketa mendekatzeko ezpatari heltzen dion Diomedesen albora noa: izan ere, Tersites nire senide dela, gizaki bat dela sentitzen baitut.

Baina demagun orain Tersitesen ziriketek altxamendua ekarri zutela, herri manugaitza egiaz itsasontzietara joan eta gudarosteko buruzagiek doilorkiro bertan utzi zutela, buruzagi horiek mendekugose ziren etsaien eskuetan erori zirela, eta orduan jainkozko zigor batek ontzidian eta herrian erabateko hondamendi bat sortu zuela: zer irudiko zitzaigukeen orduan Tersitesen itsusitasuna? Kalterik egiten ez duen itsusitasuna barregarri gerta badaiteke, kalte egiten duen itsusitasuna izugarria da beti. Ez nuke asmatuko hori hobeto argitzen Shakespeareren pasarte pare bikain baten bidez baino. Edmundo, Gloucesterko kontearen sasikoa, «*Lear Erregea*» obran, ez da Richard, Gloucesterko kontea, baino gaizkile txikiagoa: honek izugarrizko krimenak eginez ireki zuen Richard Hirugarrena izenez hartuko zuen tronurako bidea. Baina zergatik ez du sortzen Edmundok Richardek sortzen duen izua eta bihotz-ikara? Entzuten diodanean sasikoari esaten^d:

Thou, nature, art my goddes, to thy law
My services are bound; wherefore should I
Stand in the plague of custom, and permit
The curiosity of nations to deprive me,
For that I am some twelve, or fourteen moonshines
Lag of a brother? Why bastard? Wherefore base?
When my dimensions are as well compact,
My mind as gen'rous, and my shape as true

As honest madam's issue? Why brand they thus
 With base? with baseness? bastardy? base? base?
 Who, in the lusty stealth of nature, take
 More composition and fierce quality,
 Than doth, within a dull, stale, tired bed,
 Go to creating, a whole tribe of fops,
 Got' 'tween asleep and wake?

deabru bati entzuten diot, baina argizko aingeru baten irudian
 ikusten dut. Entzuten diodanean, ordea, Gloucesterko konteari esate-
 n^e:

But I, that am not shap'd for sportive tricks,
 Nor made to court an am'rous looking-glass,
 I, that am rudely stamp'd, and want love's majesty
 To strut before a wanton, ambling nymph;
 I, that am curtail'd of this fair proportion,
 Cheated of feature by dissembling nature,
 Deform'd, unfinish'd, sent before my time
 into this breathing world, scarce half made up,
 An that so lamely and unfashionably,
 That dogs bark at me, as I halt by them:
 Why I (in this weak piping time of peace)
 Have no delight to pass away the time;
 Unless to spy my shadow in the sun,
 And descant on mine own deformity.
 And therefore, since I cannot prove a lover,
 To entertain these fair well-spoken days,
 I am determined, to prove a villain!,

deabrua entzuten dut, eta deabrua ikusi ere ikusten dut; dea-
 bruak bakarrik eduki dezakeen itxura batean.

XXIV

Hala, bada, poetak formen itsusitasuna erabiltzen du: zein erabilera egin dezake, berriz, pintoreak?

Pinturak, lanbide imitatzailea denez, adieraz dezake itsusitasuna: pinturak, arte eder denez, ez du itsusitasuna adierazi nahi. Lanbide imitatzaile bezala, objektu ikusgai guztiak bere ditu; arte eder bezala, sentsazio atseginak pizten dituzten objektu ikusgaiak bakarrik hartzen ditu.

Baina ez al dira atsegingarriak sentsazio desatseginak ere imitazioan? Ez denak. Arte kritiko^a zorrotz batek nazkari buruz hauxe ohartarazi du: «Beldurraren irudipenak», dio, «tristurarenak, izuarenak, errukiarenak, etab. erdeinua bakarrik piz dezakete, gaizkia egiazkotzat hartzen dugun heinean. Hauek, beraz, arteko amarru bat dela oroituz, sentsazio atsegingarri bihur ditzakegu. Nazkaren sentsazio higuingarriak, ordea, irudimenaren legearen bitartez, arimako irudipen soilari segitzen dio, berdin diolarik objektua egiazkoa izan ala ez izan. Zer balio dio espiritu minduari, imitazioaren artea oso nabarmen igartzen bada? Zuen biguina ez zen sortu gaizkia benetan bazelako ustetik, baizik berorren irudikapen soiletik, eta hori bai, hori egiaz han dago. Nazka sentsazioak, beraz, beti dira natura, sekula ez imitazio».

Gauza bera esan daiteke formen itsusitasunari buruz ere. Itsusitasun horrek gure begirada mintzen du, ordenari eta adostasunari dagokionez dugun gustuari kontra egiten dio, eta zapuzteko gogoia pizten du, alde batera utzirik objektuaren benetakoa existentzia non sumatzen dugun. Ez dugu gogorik Tersites bera zuzenean edo erretratu batean ikusteko; eta bere erretratuak nazka gutxiago sortzen badiugu, ez da bere formaren itsusitasuna imitazioan ez delako jada itsusitasun, baizik guk itsusitasun horretatik abstraitzeko gaitasuna dugulako eta artistaren artean atsegin hartzen dugulako. Baina uneoro artea zein gaizki erabili den pentsatzeak eteten du atsegin hori, eta oso gutxitan huts egingo du artistaren gutxiespenak pentsamendu horretan.

Aristotelese^b beste arrazoi bat ematen du zergatik naturan ikustean biguina sortzen duten gauzek atsegina ekartzen duten kopiarik zehatzenetan: gizakiaren jakin-mina. Poztu egiten gara guk edo

kopiatik ikas dezakegunean, , zer den gauza bakoitza, edo handik ondoriozta dezakegunean, , gauza hori hau edo hura dela. Baina hemendik ez dator ezer imitazioan aurkitzen den itsusitasunaren alde. Gure jakin-mina asetzetik sortzen den gozamena unekoa da, eta asetzeko aukera eskaintzen digun objektuari halabeharrez atxikia; itsusitasuna ikusteari atxikirik dagoen nazka, berriz, iraunkorra da, eta hori sortzen duen objektuari funtsean lotua. Nolatan, beraz, berdindu dezake lehen sentimenduak bigarrena? Antzekotasuna sumatzeak guri eskaintzen digun jardueratxo atseginak gutxiago menperatuko du oraindik itsusitasunaren eragin desatsegina. Zenbat eta zehatzago erkatzen dudana kopia itsusia jatorrizko itsusiarrekin, orduan eta gehiago geratzen naiz jarria eragin horretara, eta erkaketaren atsegina berehala iraungiko da, eta niri itsusitasun bikoitza inpresio nazkagarria baino ez zait geldituko. Aristotelesek auzia argitzeko eskaintzen dituen adibideen arabera, badirudi berak ere ez zukeela sartu nahi formen itsusitasuna imitazioan atsegin gerta daitezkeen objektu desatseginen artean. Adibide hauek dira: piztia basatiak eta hilotzak. Piztia basatiek izulaborria sortzen dute, nahiz itsusiak ez izan; eta izulaborri hori da, ez haien itsusitasuna, imitazioaren bidez sentsazio atsegin bihurtzeko. Hala, orobat, hilotzak; erruki sentimendu biziena, gure deuseztapenaren oroitzatza izugarria da hilotz bat naturan objektu desatsegin bihurtzen duena; baina imitazioan erruki horrek, amarrua dela komentziturik gaudenez, sarkortasunetik duena kentzen dio, eta zirkunstantzia xarmagarri sorta batek edo erabat aldentu gaitzake oroitzatza zorigaiztoko horretatik, edo harekin guztiz hertsiki bateratu, eta han gehiago aurkitu usteko dugu zerbait desiragarria zerbait izugarria baino.

Baina formen itsusitasuna, berak sortzen duen sentsazioa desatsegina delako, eta halere imitazioaren bitartez atsegin bihurtzen diren sentsazio desatseginen motakoa ez denez, berez pinturaren —arte eder denez— gai ezin izan daitekeenez: orain ikusi beharko da ea itsusitasun hau pinturari baliagarri izan dakiokeen, ez poesiari bezala hain zuzen, bai ordea osagarri gisan, bestelako sentsazioak indartzeko.

Pinturak, barregarria eta izugarria erdiesteko, forma itsusiak erabili al ditzake?

Ez naiz ausartzen, horrela besterik gabe, ezezko batez erantzuten. Ezin uka daiteke kalterik sortzen ez duen itsusitasuna pinturan ere

barregarri izan daitekeela; bereiziki harekin xarma eta itxura usteekin loturik dagoenean. Baina ezin uka daiteke, orobat itsusitasun kaltegarriak, naturan bezala, pinturan ere izulaborria pizten duela; eta barregarri hark eta izugarri honek, berenez sentsazio nahasiak direlarik, imitazioaren bidez lilura eta atsegin maila berri bat erdiesten dute.

Baina ohartarazi behar dut, hala eta guztiz ere, pintura ez dela aurkitzen hemen guztiz poesiaren kasu berean. Poesian, adierazi dudan bezala, formaren itsusitasunak, bere atal koexistenteak segidazko atal bihurtzean, kasik osorik galtzen du bere eragin nardagarria; horrela alderdi horretatik itsusi izateari uzten dio, eta horregatik beste itxurapen batzuekin hertsikiago lot daiteke, eragin berri bereizi bat sorarazteko. Pinturan, ordea, itsusitasunak bere indar guztiak batera dauzka, eta ez dauka naturan bertan baino eragin askoz txikiagoa. Kalterik eragiten ez duen itsusitasuna, beraz, ezin izan daiteke luzaz barregarri; sentsazio desatseginak hartzen du gaina, eta lehen unetan jostari zirudiena, azkenean gorrotagarri bihurtzen da. Ez da besterik gertatzen itsusitasun kaltegarriaz ere; izugarritasuna poliki-poliki galtzen doa, eta formarik gabea geratzen da bakarrik eta aldagaitz.

Hau kontuan harturik, Caylus konteak arrazoi osoa zeukan Tersitesen pasartea Homeroren bere pinturetatik albora uzteko. Baina arrazoizkoa al da pasartea Homero berarengandik kendu nahi izatea? Ez dut gogoko, bestela oso gustu zuzen eta fina duen aditu bat uste horretakoa izatea^c. Beste aukera baterako utziko dut hau sakonago argitzea.

XXV

Aipaturiko arte kritikoak nazkaren eta arimako beste sentimen desatseginen artean aurkitzen duen bigarren desberdintasuna ere formen itsusitasunak gugan esnatzen duen garratzasunean nabarmentzen da.

«Bestelako sentimendu desatsegin batzuek», dio berak^a, «imitazioaz aparte, naturan bertan ere, balakatu dezakete espiritua; ez baitute garratzasun soil bat ekartzen, baizik bere mingostasuna beti gozamenaz nahasten. Gure beldurrak gutxitan kentzen du erabat itxaropen oro; izulaborriak biziarazten ditu gure indar guztiak arriskua ekidite-

ko; haserrea jakin-minarekin mendeka daiteke, tristura aurreko zorionaren ideia atseginarekin lotu, eta errukia maitasunaren eta atxikimenduaren sentimen samurretatik apartezinezkoa da. Sentimendu baten alderdi behin atseginen behin higuingarrian luzatzeko askatasuna dauka arimak, eta atsegin eta garraztasun nahasketa bat berak egitekoa, gozamen soila baino erakargarriagoa baita. Ez dago norberaren buruaz ardura gehiegi izan beharrik, hori sarri sumatzeko; eta nondik letorke bestela haserretiek beren haserrea, tristeek beren malenkonia, nahiago izatea haiek baretuko ditugula uste dugun irudi alai guztiak baino? Guztiz bestela jokatu ohi da nazkarekin eta harekin loturik dauden sentsazioekin. Arimak ez du sumatzen harengan poz arrasto nabarmenik. Nardak hartzen du honetan gaina, eta hartaz ezin onar daiteke ez naturan ez imitazioan inolako egoerarik, non espiritua irudi horietatik gorrotoz ez den urruntzen».

Arrazoi osoa; arte kritikoak berak nardatik hurbil dauden eta nazka baino sortzen ez duten beste sentsazio batzuek aitortzen ditueenez, zein egon dakioke hurbilago formen itsusitasunaren sentsazioa baino? Hau ere aurkitzen da naturan atsegin punturik batere gabe; eta imitazioaren bidez horretarako gai ez denez, ezin pentsa daiteke haren egoera bat, non espiritua ez den gorrotoz urruntzen haren irudikapenetik.

Gorroto hau, are, baldin nik nire sentimena nahikoa arretaz aztertu badut, erabat nazkaren motakoa da. Formaren itsusitasunari lagun egiten dion sentsazioa nazka da, maila apal batean inolaz. Hau, egiaz, arte kritikoaren beste ohar baten kontra doa, alegia: bere ustez zentzurik zabarronei, hau da gustuari, usainari eta ukimenari, utzia dagoela uste du. «Haiek biak, dio berak, goxotasun gehiegiagatik, eta azken hau gorputzen biguntasun handiegiagatik, ukitzen duten zuntzei behar bezalako moduan erantzun ezin dielako. Objektu hauek orduan begiari berari ere jasanezinezko bihurtuko zaizkio, baina kontzeptuak elkartzeagatik soilik, gustuari, usaimenari edo ukimenari sortzen dieten garraztasunarekin oroitzen garelako inolaz. Izan ere, zehatz hitz egiteko, ez dago nazka objekturik begiarentzat». Halere, nirekiko daukat, badaudela halako batzuek ere. Orin bat aurpegian, erbi-ezbain bat, sudur xapal bat zuloak oso agerian dituela, bekainen erabateko gabezia, ez dira ez usaimenari, ez gustuari ezta ukimenari ere oso gorrotagarri egiten zaizkion itsusitasunak. Baina, orobat,

gauza jakina da, gorputzeko bestelako itsusikerien aldean, oin oker baten edo bizkar konkor baten aldean sentitzen duguna baino nazkatik hurbilago dagoen zerbait sentitzen dugula horiekin; zenbat eta aztura samurragoa, orduan eta gehiago sentituko dugu akats horien aurrean, botaka egin baino lehen, gorputzean gertatzen diren mugimenduak. Baina, mugimendu horiek nahikoa azkar galtzen dira, eta nekez egingo dugu egiaz botaka; horren arrazoia inolaz bilatu behar da honetan, alegia: ikusmenaren objektu direla, eta honek haietan eta haiekin orobat errealtate pila bat jasotzen duela, eta errealtate horien irudikapen atseginaren bidez desatseginak hain ahultzen eta iluntzen direla non ez duten eragin nabarmenik gorputzaren gainean. Zentzu zabarrenek, gustuak, usaimenak, ukimenak ordea, ezin dituzte sumatu gisako errealtateak, gorrotagarri den zerbaitek ukitzen dituenean; hartaz, gorrotagarriak bakarrik eta bere indar guztiaz eragiten du, eta gorputzean zirrara askoz bortitzago batek lagundua izan behar du.

Bestalde, itsusiak bezalaxe, berdin-berdin, jokatzeko du nazkagarriak imitazioarekiko. Are oraindik, bere eragin desatsegina bortitzena denez, itsusia baino gutxiago izan daiteke berez bai poesiaren objektu, bai pinturarena ere. Baina orobat hitzen bidezko adierazpenaren bitartez oso ahuldua geratzen delako, ausartu naiz zinez esatera poetak zehaztasun nazkagarri batzuek bederen erabil zitzakeela sentsazio nahasien osagarri gisan, itsusiaren bidez sentsazio horiek arrakasta handiz sendotzen dituelarik.

Nazkagarriak barregarria areagotu dezake; edo duintasunaren eta itxura onaren irudiak nazkagarriarekiko kontrastean jarritz, barregarri gertatuko dira. Pilaka aurki daitezke gisako adibideak Aristofanesengan. Sokratesi bere behaketa astronomikoak moztu zizkion erbinudea datorkit gogora^b.

ΜΑΘ. Πρώην δέ γε γνώμην μεγάλην ἀθηρέφῃ

Ἵπ' ἄσκαλαβώτου. ΣΤΡ. Τίνα τρόπον; κάτευπέ μοι.

ΜΑΘ. Ζητοῦντος αὐτοῦ τῆς σελήνης τὰς ὁδοὺς

Καὶ τὰς περιφοράς, εἶτ' ἄνω κεχηνότος

Ἐπὶ τῆς ὁροθῆς νύκτωρ γαλεώτης κατέχευεν.

ΣΤΡ. Ἦσθην γαλεώτη καταχέσαντι Σοκράτους.

Demagun Sokratesen aho irekira erori dena ez dela nazkagarria, eta barregarri zena galdu da. Gisa honetako bitxiena *Tquassouw eta Knonmquaiha*, kontakizun hotentotea da, Lord Chesterfield-i egotzi ohi zaion «Ezagutzailea» asteroko ingelesean, umorez beterik, azaldu dena. Gauza jakina da zein zikinak diren hotentoteak; eta nola, guri nazka eta higuina sortzen diguten gauzak, beraiek eder eta xar-mangarritzat eta sagaratutzat jotzen dituzten. Sudurreko mintz xapal bat, zilborreraino zintzilik dauden bular zimurrak, gorputz guztia ahuntz-gantzez eta kedarrez égingako ore batez igurtzia, ile kiskurra koipea dariola, hankak eta besoak heste berriz bilduta: horiek hartu ohi dituzte maitasun sutsu, adeitsu eta samur baten objektutzat; entzun hori seriotasunaren eta harriduraren hizkera noblean esaten, eta nork eutsi barreari!^c

Badirudi nazkagarria hertsikiago nahas daitekeela izugarriarekin. Guk ikaragarri deitzen duguna ez da nazka sortzen duen izugarria baino. Longinori^d ez zaio gogoko Hesiodogan^e aurkitzen dugun tris-turaren irudia, Τῆς ἐκ μὲν βίων μύθοι ῥῆον; baina nirekiko daukat ez duela gogoko, ez inolaz ñabardura nazkagarri bat delako, baizik ñabardura nazkagarri soil bat baino ez delako, izugarriari ezertxo ere gaineratzen ez diona. Izan ere, hatzen gaindi ateratzen diren azkazalak (μικροὶ δ' ὄνυχες γείρεσσιν ὑπὲρσιν), badirudi ez dizkiola aurpegiatu nahi. Hala eta guztiz ere azkazal luzeak nazkagarri badira, sudur jarioduna ez da gutxiago. Baina azkazal luzeak izugarriak dira une berean, haiek baitira odola lurreraino lerratzeko moduan masailak urratzen dituztenak:

..... ἐκ δὲ παρειῶν
 Αἴμ' ἀπαλείβει ἔραζε.....

Aldiz, jariodun sudur bat ez da jarioa duen sudur bat baino; eta ahoa itxi dezala da tristurari eman diezaiokedan aholku bakarra. Irakurri Sofoklesengan Filoktetes zoritxarrekoaren leize hutsaren deskribaketa. Han ez da ikusten ez zer janik, ez erosotasunik batere; orbelezko ohatze zapaldu bat, itxurarik gabeko zurezko edalontzi bat, sua egiteko tresna dago bakarrik. Hori da gizon gaixo utziaren aberastasun osoa! Nola osatzen du poetak pintura triste eta beldugarri hau? Ñabardura nazkagarri bat gaineratuz. «Ah!» —ikaratzen da Neoptolemo— «hona zapi lehorrak eta txikituak, odolez eta zornaz beteta!»^f

NE. Ὅρθ' κενὴν οἴκησιν ἀνφρόπων δίχα.

ΟΔ. Οὐδ' ἔνδον οἰκοποιός ἐστί τις τροφή;

NE. Στειπτή γε φυλλὰς ὥς ἐναυλίζοντί τῃ.

ΟΔ. Τὰ δ' ἄλλ' ἔρημα, κούδέν ἐσθ' ὑπόσπεγον;

NE. Αὐτόξυλόν γ' ἔκπεμα, φαυλοῦργοῦ τινοῦ

Τεχνήματ' ἀνδρός, καὶ πυρεὶ ὁμοῦ τάδε.

ΟΔ. Κείνου τὸ θησαύρισμα σημαίνεις τόδε.

NE. Τοῦ, ἰοῦ· καὶ ταῦτα γ' ἄλλα θάλλεται

Ῥάκη, βαρείας τοῦ νοσηλείας πλά.

Gisa berean Homerogan ere, Hektor tarraka eramana, odolez eta hautsez aurpegia desitxuratua duela, eta ileak lingirdaturik,

Squallentem barbam et concretos sanguine crines,

(Virgiliok^s adierazten duen bezala) bihurtzen da objektu nazkagarri, baina hain zuzen ere horrexegatik bihurtzen da askoz izugarriago, askoz hunkigarriago. Nork ekar dezake burura Marsias-en zigorra, Ovidiogán, nazka sentitu gabe?^h

Clamanti cutis est summos derepta per artus:

Nec quidquam, nisi vulnus erat: cruor undique manat:

Detectique patent nervi: trepidaeque sine ulla

Pelle micant venae: salientia viscera possis,

Et perlucentes numerare in pectore fibras.

Baina nor ez da konturatzen, orobat, hemen nazkagarria bere lekuan dagoela? Izugarria beldurgarri bihurtzen du; eta beldurgarria, naturan bertan, gure errukia pizten duenean, ez da guztiz desatsegina; zenbat gutxiago imitazioan? Ez ditut ugaldut nahi adibideak. Baina, halere, hauxe aitortu behar dut: badagoela izugarriaren mota bat, eta hara iristeko bidea poetak kasik bakarrik nazkagarriaren bidez aurkitzen duela. Gosearen izugarria da. Bizitza arruntean ere gose egoera larria ez dugu beste era batean adierazten ez bada urdaila asetzeko jan behar diren gauzak ezjateko, kaltegarri eta bereiziki nazkagarrien kontakizunaren bidez. Imitazioak gosearen sentsazioa gugan piztu ezin duenez, imitazioak beste sentsazio desatsegin bate-

ra jotzen du, hura aitortzen baitugu gose gorriaren kasuan gaizkirik txikien bezala. Hau pizten saiatzen da, haren sentsazio desatseginetik ondoriozta dezagun zein bortitza izan behar duen sentsazio desatsegin hark, haren aldean oraingo hau pozik mespretxatuko genukeen ez. Zere sek gosetara bidali zuen Orkadarengatik esaten du Ovidiok¹ :

Hanc (famem) procul ut vidiť
refert mandata deae; paulumque morata,
Quanquam aberat longe, quanquam modo venerat illuc.
Visa tamen sensisse famem

Naturala ez den gehiegikeria! Goseti baten ikuskizunak, eta baita gosea bera balitz ere, ez du halako indar kutsatzailerik; errukia eta izulaborria eta nazka sentiarazi ditzake, baina ez gosea. Izulaborri hori ez du aurreztu Ovidiok *Famets* pintatzean, eta Eresikton-en gosearen pinturan, eta orobat Kalimakorenean^k, ñabardura nazkagarriak dira bortitzenak. Eresiktonek dena irentsi duenean, eta bere amak Vestari opaltzeko hazten zuen behia bera ere barkatu ez duenean, Kalimako zaldi eta katu bila eta kaleetan mahai arrotzetako apurrak eta hondar zikinak eskatzen jartzen du:

Καὶ τὰν βὲν ἔφαγεν, τὰν Ἑστία ἔτρεφε μήτηρ,
Καὶ τὸν ἀεθλοφόρον καὶ τὸν πολεμῆιον ἵππον,
Καὶ τὰν αἰλουρον, τὰν ἔτρεφε θηρία μικρά –
Καὶ τόθ' ὅτῳ βασιλῆος ἐνὶ τριόδῳσι καθῆστο
Αἰτίζων ἀκόλως τε καὶ ἐκβολὰ λύματα δαιτὸς.

Eta Ovidiok azkenik haginak bere atal propioetan hozka jartzen dizkio bere gorputza bere gorputzaz elikatzeko.

Vis tamen illa mali postquam consumserat omnem
Materiam
Ipse suos artus lacero divellere morsu
Coepit; et infelix minuendo corpus alebat.

Harpia itsusiak ere horregatik ziren hain kirastuak, hain zikinak, alegia jakiak ebatsiz sortu behar zuten gosea izugarriagoa izan zedin. Entzun dezagun Fineoren ahuenta Apoloniogan^l:

Τυτθὸν δ' ἦν ἄρα δὴ ποτ' ἔδητύος ἄμμι λίπῃσι,
 Πνεῖ τόδε μυδαλέον τε καὶ οὐ πλεον μενὸς ὁδμής.
 Οὐδέ τις οὐδὲ μίνυνθα βροτῶν ἀνσχοίτο παλάσσας.
 Οὐδ' εἰ σὶ ἀδάμαντος ἀηλάμενον κέαρ εἴη.
 Ἀλλὰ με πικρὴ δῆτά κε θάυτος ἐπίσχει ἀνάγκη
 Μῖμνειν, καὶ μίμοντα κακὴ ἐν γαστέρι θέσθαι.

Ikuspegi honetatik pozik zuritu nahi nuke Virgiliogan harpien sarrera nazkagarria; baina ez da egiazko gose presente bat haiek sortzen dutena, baizik gainera datorren gose bat da iragartzen dutena; eta gainera azkenean iragarpen guztia hitz joko batean desleitzen da. Dantek ere, ez bakarrik prestatzen gaitu Ugolinoren gosezko sufrikarioaren historiarako antzinako bere pertsegitzaillearekin infernuan egoerarik nazkagarrienean eta izugarrienean ipiniz, baizik areago goseak hiltzea bera ez dago nazkazko zertzeladarik gabe egina: bereiziki erasotzen gaitu semeak aitari bazkari bezala eskaintzen zaizkionean. Oharren artean Beaumont eta Fletcher-en antzerki bateko pasarte bat ekarri nahi dut, gainerako adibide guztien ordezt eman daitekeena, nahiz gehiegieriatxo bat dela aitortu behar dudana^m.

Orain nator pinturako objektu nazkagarrietara. Baldin zalantzarik ez balego ere, berez ez dagoela begientzat pinturak, arte eder bezala, alde batera utzi beharko lukeen objektu nazkagarrikerik batere, halere objektu nazkagarriak ekidin beharko lituzke ideien uztarketak hauek begientzat nazkagarri bihurtzen baititu. Pordenonek, Kristoren ehorzketaren pinturan, parte hartzaileetako bat sudurra itxita daukala jartzen du. Richardsonek gaitzetsi egiten du horiⁿ, Kristo hil zenetik gorpua usteltzen hasteko adina denbora ez delako igaro. Lazaroren berpiztean, ordea, berak uste du pintoreari zilegi zaiola parte hartzaileetako batzuek gisa horretan jartzea, historiak hitzez hitz esaten duelako bere gorpuak kiratsa botatzen zuela. Irudikapen hori hemen ere jasanezinezko iruditzen zait niri; izan ere, ez bakarrik egiazko kiratsak, baizik kiratsaren ideiak berak jada nazka sortzen baitu. Leku kirastuei ihes egiten diegu guk, baita marrantaturik gaudenean ere. Eta pinturak ez du bilatzen nazkagarria nazkagarri delako; poesiak bezala, nazkagarria nahi du haren bidez barregarria eta izugarria areagotzeko. Bera du arriskua, gero! Nik aukera honetan itsusiari buruz esan dudanak oraindik gehia-

go balio du nazkagarriari dagokionez. Ikustekoa den imitazio batean baino askoz gutxiago galtzen du bere eraginetik entzuteko den batean; barregarriaren eta izugarriaren osagaiekin barnetik nahasteko posibilitatea, beraz, askoz txikiagoa da han hemen baino; ustekabea pasatu bezain laster, lehen jakin-minezko begirada asetu bezain laster, nazkagarria erabat bereizten da, eta berriro azaltzen da bere irudi gorrian.

XXVI

Argitaratu da Winckelmann jaunaren *Antzinako Artearen Historia*. Ez naiz ausartzen beste urrats bat gehiago aurrera ematen obra hori irakurri gabe. Arteari buruzko ideia orokorren arabera zorrozkeriatan jarduteak, arteari buruzko obretan, luzera edo laburre-ra, norberaren lotsarako, kontraesanak aurkituko diren ametskerietara eramán dezake. Antzinakoek ere ezagutzen zituzten pintura eta poesia elkarrekin lotzen zituzten lokarriak, eta ez bide zituzten lotu biek jasan dezaketena baino hertsiago. Artista haiek egin zutenak irakatsiko dit zer egin behar duten artistek; eta halako gizaki batek historia-ren zuzia daramanean, espekulazioa ausar daiteke hari segitzen.

Garrantzizko obra batean lehenbizi orriak pasa ohi dira, seriotan irakurtzen hasi aurretik. Ezer baino lehen Laokooni buruz egileak zuen iritzia jakin nahi izan zuen nire jakin-minak; egiaz ez obraren arteari dagokionez jakin nahi nuen, horri buruz beste leku batzuetan dagoeneko azaldu baitu bere iritzia, baizik bere adinari dagokionez. Nori atxikitzen zaio honetan? Virgiliok multzoa begien aurrean eduki zuela uste dutenei? Edo artistek beren lanean poetari segitu diotela uste dutenei?

Gutziz nire gustuko da ez duela hitzik esaten elkarren arteko imitazioari buruz. Non dago horrela jokatzeko premia erabatekoa? Ez da ezinezko nik goian pintura poetikoaren eta artelanaren artean aipatu ditudan antzekotasunak halabeharrezko antzekotasunak izatea eta ez berariaz eginak; eta bata bestearen eredu izan gabe, biek eredu bera behar ez izatea ere. Halere, baldin Winckelmannek imitazio horren zantzu batek liluratu izan balu, lehenbizikoen alde jartzea beste erremediorik ez zukeen izango. Izan ere, berak uste baitu Laokoon gre-

ziarren artean artea bere perfektzioaren gailurrik gailurrenean zegoen garaietakoa dela, Alexandro Handiaren garaikoa, alegia.

«Beraiek xahutzen direnean ere, arteak zaintzen dituen patu onberak, dio berak^a, munduaren miresmen handirako artearen garai horretako obra bat gorde digu, hainbeste maisulan deuseztaturen bikaintasunaren historiaren egiazkotasuna bermatzeko. Laokoon, bere bi semeekin batera, Agesandrok, Apolodorok^b eta Rodasko Atenodorok egina, aztarna guztien arabera garai horretakoa da, hori zehaztasun osoz ezin zehaztu badaiteke ere, ezta, batzuek egin duten bezala, artista horiek distiratu zuten Olinpiada finkatu ezin badaiteke ere».

Ohar batean gaineratzen du: «Pliniok ez du hitz bakar bat bera ere esaten Agesandro eta bere laguntzaileek beren obran lan egin zuten garaiari buruz; baina Maffeik, antzinateko estatuen argibideetan, jakin uste du artista hauek laurogeita zortzigarren Olinpiadan distiratu zutela, eta beste batzuek, Richardsonek bezala, haren hitzari segitu diote. Hark, nire ustez, Polikletoren ikasleen artean zegoen Atenodoro bat hartu du gure Atenodorotzat, eta Polikletok laurogeita zazpigarren Olinpiadan distiratu zuenez, olinpiada bat geroago ipintzen du ustezko bere ikasle hori: ezin du eduki beste arrazoirik Maffeik».

Ezin eduki zezakeen besterik, egiaz. Baina zergatik asetzen da Winckelmann jauna Maffeiren ustezko arrazoi honekin? Bere esanari kontraesaten dio? Ez guztiz. Izan ere, beste arrazoiaren batean oinarritzen ez bada ere, honek berez egiantzekotasun txiki bat eskaintzen du, eta orduan ezin frogatu daiteke Atenodoro, Polikletoren ikaslea, eta Atenodoro Agesandroren eta Polidororen laguntzailea, ezin zitezkeela pertsona bat bera izan. Zorionez, hori frogatu daiteke, eta bien aberria desberdina delako hain zuzen ere. Lehenbiziko Atenodoro, Pausaniasek^c berariaz adierazten duen bezala, Arkadiako Klitor herrikoa zen; bigarrena, aldiz, Plinioren lekukotasunaren arabera, Rodaskoa.

Winckelmann jaunak ez du inolaz asmorik izan, Maffeiren tesia, zirkunstantzia hau gaineratuz, erabat zapaltzeko. Aldiz, obraren artetik, bere ezagutza zinezkoaren arabera, ateratzen dituen arrazoiak, hain garrantzizko iruditutako bide zitzaizkion, non kezkarik batere ez duen izan aztertzeko ea Maffeiren iritziak egiantzekotasunik bazuen

ala ez. Laokoonengan, zalantzarik gabe, Lisipok hain bere zituen *argutiae*^d gehiegi —maisu honek, beste inork baino lehen artea aberasteko erabili zituen baliabideak— ikusten ditu, garai bereko obratzat hartzeko.

Baina, Laokoon Lisipo bera baino zaharragoa ezin duela izan frogatuta badago ere, orobat frogaturik dago garai beretsukoa izan behar duela? Ezinezko dela geroagoko obra izatea? Arteak Grezian, monarkia erromatarraren hasiera bitarte, bere burua behin altxatu, behin makurtu zuen garaiak alde batera utzita, zergatik ez zuen izan behar Laokoonek lehen zesarrek beren handikeria xahutzaileekin artisten artean sortuko zuten lehiaren emaitza zoriontsu bat? Zergatik ezin zuten izan Agesandrok eta bere laguntzaileek Strongilion baten, Arkesilao baten, Pasiteles baten, Posidonio baten, Diogenes baten garaikide? Ez ziren, bada, maisu hauen obrak ere hein batean arteak sekula sortu dituen obrarik onenen artean jarriak izan? Baita ere gaur oraindik baleude zalantzarik gabe haienak diren obrak, baina beren egileen garaia ezezaguna balitz, eta beren artetik ez beste ezertik hori asma ahal balitz, zein dohain jainkozkok eragotz ziezaiokeen adituari, Winckelmann jaunaren ustez Laokoonen duin den garai bakarrean ez jartzeko?

Egia da Pliniok ez duela zehatz adierazten Laokoon egin zuten artistak bizi izan ziren garaia. Baina nik atera behar izango banu pasarte osoaren baitan dauden erlazioetatik, obra hau antzinako artisten artean edo geroagokoen artean non kokatu behar dudana: egiaz aitortzen dut azkenei egiantzekotasun handiagoa igarri uste diedala. Ikus dezagun.

Pliniok, eskulturgintzako maisu zaharrenei eta handienei buruz —Fidias, Praxiteles, Eskopas— nahikoa zabal mintzatu ondoren, eta segidan Erroman obraren bat zeukatenen izenak, ordena kronologikorik batere gabe, aipatu ondoren, gisa honetan segitzen du^e: *Nec multo plurium fama est, quorundam claritati in operibus eximiis obstante numero artificum, quoniam nec unus occupat gloriam, nec plures pariter nuncupari possunt, sicut Laocoonte, qui est in Titi Imperatoris domo, opus omnibus et picturae et statuariae artis praeponendum. Ex uno lapide eum et liberos draconumque mirabiles nexus de consilii sententia fecere summi artifices, Agesander et Polydorus et Athenodorus Rhodii. Similiter Palatinas domus Caesarum replevere*

probatissimis signis Craterus cum Pythodoro, Polydectes cum Hermolao, Pythodorus alius cum Artemone, et singularis Aphrodisius Trallianus. Agrippae Pantheum decoravit Diogenes Atheniensis, et Caryatides in columnis templi ejus probantur inter pauca operum: sicut in fastigio posita signa, sed propter altitudinem loci minus celebrata.

Pasarte honetan izendatzen diren artista guztietatik, Atenasko Diogenes da erarik zalantzarik gabeenaz garaia zertzen zaiona. Bera izan zen Agriparen Panteoia apaindu zuena; beraz, Augusturen garaian bizi izan zen. Baina Plinioren hitzak zorrotzago azter bitez eta nik pentsatzen dut era hain zalantzarik gabez aurki daitekeela finkaturik Krateroren eta Pitodororen garaia, Polidektesen eta Hermolaorena, bigarren Pitodororena eta Artemonena. Haiengatik dio: *Palatinas domus Caesarum replevere probatissimis signis*. Nire galdera: Horrek egiaz esan nahi du bere obra onenez zesarren palazioak beteta zeudela? Zentzu honetan, alegia: zesarrek alde guztietan bilatu eta Erromara beren etxeetara aldatu zituztela? Ez, noski. Aldiz, beren lanak berariaz zesarren palazio horietarako landu behar izan zituzten, beraz zesarren garaietan bizi izan behar zuten. Geroagoko artistak izan zirela, Italian bakarrik lan egin zutenak: hori orobat beren aipamena beste inon aurkitzen ez delako ondoriozta daiteke. Baldin Grezian lehenago lan egin izan bazuten, Pausaniasek ikusiko zuen haien obraren bat edo beste, eta gordeko zigun haien oroitzak. Pitodoro delako bat azaltzen da noski berarengan^f, baina Harduin oker dabil Plinioren pasartean azaltzen den Pitodorotzat hartzen duenean. Izan ere, Pliniok, Koronean, Beozian, ikusi zuen lehenak egindako Junoren estatuari ἀρχαία ἀρχαῖον (arte zaharreko lana) deitzen dio, eta izen hori artearen garai zaharren eta zabarrenetan, Fidias eta Praxiteles baino askoz lehenago bizi izan ziren maisuen lanei ematen die baka-
rrik. Eta, gauza ziurra da zesarrek ez zituztela apaindu beren palazioak gisa honetako obrekin. Askoz arreta gutxiago merezi du Harduinen beste usteak, alegia: Artemon izan daitekeela Pliniok beste pasarte batean aipatzen duen izen bereko pintorea. Izen adostasunak egiantzekotasun oso txikia ematen du, horrek ez baitu eskubiderik ematen faltsutu gabeko pasarte baten berezko ulermoldea behartzeko.

Baldin, beraz, zalantzarik ez badago Kratero eta Pitodoro, Polidektes eta Hermolao, gainerakoekin batera zesarren garaietan bizi

izan zirela eta haien palazioak obra egokiekin apaindu zituztela, nik uste dut ezin izenda dakiekeela beste garai bat, ez bada Pliniok *similiter* batekin lotzen dituenena. Eta hauek dira Laokoon egin zutenak. Pentsa bakarrik: Agesandro, Polidoro eta Atenodoro Winckelmann jaunak uste bezain artista zaharrak balira; zein zabarra izango litzatekeen adierazpenaren zehaztasuna gauza txikitat ez daukan idazle bat, baldin artista haietatik kolpe batean berrienetara jauzi egingo balu, jauzi hori *orobat* soil batekin eginez?

Halere aurpegiratuko zait *similiter* ez dagokiola garaiari, baizik maisu hain desberdinen garaia kontuan hartuz, hauek guztiek batera zuten beste zirkunstantzia bati. Plinio mintzo dela hain zuzen ere elkarrekin lan egin eta elkartasun horrengatik merezi zutena baino ezezagunago geratu ziren artistei buruz. Izan ere, inork ezin zuenez berak bakarrik bereganatu guztien artean egindako lanaren ohorea, baina hartan parte hartu zuten guztiak aipatzea luzeegia zenez (*quoniam nec unus occupat gloriam, nec plures pariter nuncupari possunt*), haien izen guztiak ahaztu egin ziren. Hori gertatu omen zitzaion Laokoon egin zutenei, hori bera zesarrek beren palazioetarako erabili zituzten beste hainbat maisuri.

Onartzen dut. Baina, hala eta guztiz ere, litekeena da Pliniok elkarrekin lan egiten zuten artista garaikideei buruz bakarrik hitz egin izana. Izan ere, antzinakoei buruz hitz egin nahi izan balu, zergatik aipatu behar zuen Laokoon egin zuena bakarrik? Zergatik ez gehiago? Onatas eta Kaliteles bat; Timokles eta Timarkides bat, edo Erromako Jupiter elkarrekin egin zuten Timarkides honen semeak^g. Winckelmann jaunak berak esaten du aita bat baino gehiago duten gisa horretako antzinako obretatik, zerrenda luzea egin zitekeela^h. Eta Pliniok Agesandro, Polidoro eta Atenodoro bakarrik hartu behar zituen gogoan, berariaz azken aldietara mugatu nahi zuenean?

Bestalde, uste bat hainbat eta probableago bada, zenbat eta gehiago eta handiagoak diren haren bidez argitzen diren zailtasunak, orduan maila oso altuan da ziurra Laokoonen egileek lehen zesarren garaietan distiratu zutela. Izan ere, Winckelmann jaunak finkatzen duen garaian Grezian lan egin izan balute, Laokoon ere lehenago Grezian egona izan balitz, orduan greziarrek gisa horretako obra bati buruz (*opere omnibus et picturae et statuariae artis praeponendo*) gorde zuten isiltasun erabatekoa harrigarria litzateke oso. Harrigarria

litzateke guztiz halako artistek aurrerantzean gehiago lan egin ez izana, edo Pausaniasek beren gainerako obra guztietatik Grezia osoan, Laokoonekin gertatu zitzaion bezala, bakar bat ere ikusi ez izana. Erroman, berriz, maisu handien hau luzaro egon zitekeen ezkutuan, eta, Laokoon Augusturen garaian burutua izan bazen, ez litzateke batere harritzeko Plinio izatea ikusi zuen lehena, lehena eta azkena. Izan ere, gogoratu besterik ez dago zer esaten duen Erroman Marteren tenpluan zegoen Eskopasen Venus bati buruzⁱ : *quemcunque alium locum nobilitatura. Romae quidem magnitudo operum eam obliterat, ac magni officiorum negotiorumque acervi omnes a contemplatione talium abducunt: quoniam otiosorum et in magno loci silentio apta admiratio talis est.*

Atseginez hartuko zuten orain arte esan dudana Laokoonen multzoan Virgilioren Laokoonen imitazio bat ikusten dutenek. Beste aieru bat bururatu zitzaidan oraindik, orobat desatsegin gertatuko ez zaiena. Beharbada, pentsa dezakete, Asinio Polion izan zela Virgilioren Laokoon artista greziarrei egin arazi ziena. Poetaren adiskide handia zen Polion, poeta baino gehiago bizi izan zen, eta badirudi obra propio bat idatzi zuela Eneidari buruz. Non, izan ere, egon zitezkeen poema honi buruzko obra propio batean ez bada, Serviok harengandik aipatzen dituen oharrak^k? Halaber zalea eta aditua zen Polion arte kontuan, antzinako artelan bikainen bilduma oparo bat zeukan, bere garaiko artistei berriak egin arazi zizkien, eta bere hautaketan erakutsi zuen gustua Laokoon bezalako pieza ausart baten duin zen^l: *ut fuit acris vehementiae sic quoque spectari monumenta sua voluit.* Halere, Plinioren garaietan, Laokoon Titoren palazioan zegoenean, Polionen bilduma oraindik banatu gabe leku bereizi batean pilaturik egon bide zegoenez, aieru horrek bere egiantzekotasunetik zerbait galduko luke. Baina zergatik ez zukeen egingo Titok berak, guk Polioni egotzi nahi dioguna?

XXVII

Nire iritzia, alegia Laokoonen egileek lehen zesarren garaietan lan egin zutela, Winckelmann jaunak uste duen bezain zaharra ezin

duela izan gutxienez, berak lehenbizikoz ezagutarazi duen albiste baten bidez indartu nahi dut. Hauxe da^a:

«Nettunon, antzinako Antium hirian, Alexandro Albani kardinal jaunak, 1717. urtean, itsasazpian zegoen leize batean pitxar bat aurkitu zuen, marmol beltz griskaraz egina, orain bigio deitzen zaion motakoa, irudi bat jarria eduki zuena; goiburu hau aurkitzen da bertan:

Atanodoro Agesandroren semeak, Rodaskoak, egin du. Goiburu honi esker dakigu aita-semeak landu zutela Laokoon, eta Apolodoro (Polidoro) ere Agesandroren semea zela beharbada: izan ere, Atanodoro honek ezin du izan Pliniok aipatzen duena baino. Idazki honek, gainera, egiaztatzen du Pliniok uste dituen hiru obrak baino gehiago daudela, artistek *egina* hitza denbora perfektu eta zehaztuan ezarri zienak, hau da ἐποίησε, fecit: Pliniok dio gainerako artistek, umiltasunez, denbora zehaztu gabea ezartzen zutela, ἐποίηι faciebat».

Winckelmann jaunak ez du eragozpenik izango onartzeko sinadura honetan azaltzen den Atanodoro, Pliniok Laokoonen egileetakoizat jotzen duen Atenodoro baino ezin duela izan. Atanodoro eta Atenodoro izen bera da, zalantzarik gabe, Rodakoek, izan ere, dialekto dorikoa erabiltzen baitzuten. Baina, berak hortik ondorioztatu nahi duenari buruz, nik ohar batzuek egin behar ditut.

Lehenbizi, Atenodoro Agesandroren semea izatea, litekeena da. Litekeena da, baina ez da ukaezinezkoa. Gauza jakina baita, badaudela antzinako artista batzuek beren aitaren izenaz deitu ordez, beren eskolako maisuaren izenaz deitzea nahiago izan dutenak. Pliniok Apolonio eta Taurisko anaiei buruz esaten duenak ez dauka ulertzeko beste modurik^b.

Baina, nola? Sinadura honek kontraesan behar al du halaber Plinioren ustea, alegia: hiru artelan baino ez direla aurkitu, non beren egileak denbora perfektuan (ἐποίηι ordez, ἐποίησε jarritz) ezagutzero eman diren? Sinadura honek? Zergatik jakin behar genuen sinadura honen bidez hain zuzen ere, beste askoren bidez aspaldi jakin genezakeena? Ez al da, bada, aurkitu Germanikoren estatuan Κλεομένης –

ἐποίησε ? Homeroren jainkotze delakoan Ἀρχέλοος ἐποίησε ? Gaetako pitxar famatuan, Σαλπίων ἐποίησε ?^c Eta abar.

Winckelmann jaunak esan dezake: «Nork daki hori nik baino hobeto? Baina, gaineratuko du, okerrago Pliniorentzat. Bere ustea askoz sarriago gertatu da gezurtatua; askoz ziurrago geratu da ukatua».

Erne! Hala bada, zer gertatuko litzateke baldin berak esan nahi duena baino gehiago esanarazten badio Pliniori? Zer beraz, baldin aipaturiko adibideek Plinioren ustea ez baino Winckelmann jaunak uste horretan sartu nahi izan duen gehiagoa kontraesaten badute? Eta hala da izan egiaz. Pasarte osoa aipatuko dut. Titori egiten dion gomendioan, osotasunerako zenbat falta zaion ondoen dakien gizon baten umiltasunez mintzatu nahi du bere obraz. Era horretako umiltasunaren eredu harrigarria aurkitzen du greziarren artean, eta beren izenburu arranditsu eta asko-agintzaileak (inscriptiones, propter quas vadimonium deseri possit) unetxo bat pausatu ondoren, esaten du^d: *Et ne totum videar Graecos insectari, ex illis mox vellim intelligi pingendi fingendique conditoribus, quos in libellis his invenies, absoluta opera, et illa quoque quae mirando non satiamur, pendenti titulo inscripsisse: ut APELLES FACIEBAT aut POLYCLETUS: tanquam inchoata semper arte et imperfecta: ut contra judiciorum varietates superesset artifici regressus ad veniam, velut emendaturo quidquid desideraretur, si non esset interceptus. Quare plenum verecundiae illud est, quod omnia opera tamquam novissima inscripsere, et tamquam singulos fato adempti. Tria non amplius, ut opinor, absolute traduntur inscripta ILLE FECIT, quae suis locis reddam: quo apparuit, summam artis securitatem auctori placuisse, et ob id magna invidia fuere omnia ea.* Mesedez, Plinioren pingendi fingendique conditores hitzei arreta eskaini. Pliniok ez du esaten beren obra aipatzeko denbora inperfektua erabiltzeko ohitura orokorra zenik; artista guztiek, garai guztietan betetzen dutenik: hitzez-hitz esaten du antzinako maisuek bakarrik, arte plastikoen sortzaileek, pingendi fingendique conditores, Apeles batek, Polikleto batek eta bere garaikideek umiltasun zuhur hori izan zutela; eta hauek bakarrik aipatzen ditueenez, isilpean, baina nahikoa garbi, ematen du aditzera, haien ondorengoek, geroagoko garaietan bereiziki, uste handiagoa azaldu zutela beren buruetan.

Alabaina, hau onarturik, onartu behar baita, Laokoonen hiru egileetako baten sinadura aurkitua guztiz zuzena izan daiteke, eta, hala eta guztiz ere, egiaz esan daiteke, Pliniok esaten duen bezala, hiru obra baino ez daudela, non beren sinaduretan egileek denbora perfektua erabili duten; alegia Apeles, Polikleto, Nizias, Lisiporen garaietako obra zaharrenetan. Baina horrek ez du frogatzen, orobat, Atenodoro eta bere lagunak Apelesen eta Lisiporen garaikideak izan zirenik, Winckelmann jaunak haien artean jarri nahi baditu ere. Aldiz, bestela ondorioztatu behar da. Baldin egia bada artista zaharrenen, Apeles, Polikleto baten eta bere mailako gainerakoen obren artean hiru inguru izan direla beren sinaduretan denbora perfektua erabili dutenak; baldin egia bada Pliniok hiru obra hauek beren izenez aipatu dituelae, orduan ezinezko da Atenodoro —hiru obra horietako bat bera ere ez baita berea, eta hala eta guztiz ere bere obran denbora perfektua erabiltzen du— garai horretakoa izatea; ezin du izan Apelesen eta Lisiporen garaikoa, eta geroagoko garai batean kokatu behar da.

Labur esanda: uste dut, iritzi oso fidagarri bezala har daitekeela, erabili duten artista guztiek Alexandro Handiaren garaian baino askoz geroago, zesarrek baino lehenago edo haien garaietan distiratu dutela. Kleomenes-i dagokionez, ez dago zalantzarik; Arkelaori dagokionez, litekeena da oso; eta Salpioni dagokionez, ezin da frogatu inolaz ere kontrakoa. Eta era berean gainerakoei dagokienez, Atenodoro kanpoan utzi gabe.

Winckelmann jauna izan dadila epaile auzi honetan! Baina alde zuzenetik protesta egiten dut kontrako tesiaren aurka. Baldin

hitza erabili duten antzinako artista guztiak berandukoak badira, orduan ez horregatik erabiltzen duten guztiak dira antzinakoak. Beranduko artisten artean ere batzuek eduki zezaketen egiaz gizon handi bati dagokion umiltasun hori, eta beste batzuek eduki bazituzten itxurak egin zitzaizkieten.

XXVIII

Laokooren ondoren beste ezerk ez zidan pizten jakin-mina, Winckelmann jaunak Borgheseko Gladiadore delakoari buruz esango

zukeenak baino. Uste dut estatua honi buruz egin dudala aurkikuntza bat, eta gisako aurkikuntza batekin bakarrik harrotu daitekeen adina harrotzen naiz ni honekin.

Beldur nintzen ez ote zidan aurre hartuko honetan Winckelmann jaunak. Baina ez dut halakorik ezer aurkitzen berarengan; eta baldin ezer balego nire aurkikuntzaren zuzentasunaz apur bat mesfidati bihurtuko nindukeena, nire beldurrak egiaztatu ez izana litzateke.

«Batzuek, dio Winckelmann jaunak^a, estatua hau diskobolo bihurtzen dute, hau da: diskoa edo metalezko xafila biribil bat botatzen duenarena, eta horixe zen Von Stoch jaunaren iritzia niri egin zidan idazki batean, baina gehiegi begiratu gabe non ipinia dagoen irudi hau. Izan ere, zerbait bota nahi duenak gorputzari atzeraka eragin behar dio, eta jaurtiketa gertatzen denean indarra eskuineko hankan ipintzen da, eta ezkerreko hanka ezer egin gabe geratzen da: hemen, ordea, alderantzizkoa gertatzen da. Irudi osoa aurreraka dago botata, eta ezkerreko hankan pausatzen da, eta eskuinekoa atzeraka dago erabat luzatua. Eskuineko besoa berria da, eta lantza puska bat jarri zaio eskuan; ezkerreko besoa berak eusten zuen ezkutuaren uhala ikusten da. Hautematen bada gorputza eta begiak aurrera zuzenduta daudela, eta irudiak ezkutuaz goitik datorren zerbaitetik babesten ari dela dirudiela, orduan arrazoi gehiagoz hartu zitekeen estatua hau egoera arriskutsu batean merezimendu bereiziak egin dituen soldadu baten irudikapen bezala: greziarren artean, izan ere, badirudi ikuskizunetako gladiadore batek ez duela sekula izan estatua baten ohorea: eta obra hau, badirudi, greziarren artean gladiadoreak sartu aurretikoa dela».

Ez dago zuzenago epaitzerik. Estatua hau ez da ez gladiadore bat, ez diskobolo bat ere; arriskuzko aukera batean horrela nabarmendu zen gudari baten irudikapena da. Baina Winckelmann jauna, hori hain ondo asmatu ondoren, nola gera zitekeen hortxe? Nolatan ez zitzaien burura etorri gudaroste baten erabateko hondamendia guztiz jarrera horretan ekidin zuen gudaria dela, eta bere aberriak eskerronez estatua bat jarrera horretantxe bertan egin ziola?

Hitz batean: estatua Kabrias da.

Jeneral honen bizitzaz Nepoteren idatziko hurrengo pasartea da frogab^b. *Hic quoque in summis habitus est ducibus: resque multas memoria dignas gessit. Sed ex his elucet maxime inventum ejus in pro -*

elio, quod apud Thebas fecit, quum Boeotiis subsidio venisset. Namque in eo victoriae fidente summo duce Agesilao, fugatis jam ab eo conductitiis catervis, reliquam phalangem loco vetuit cedere, obnixoque genu scuto, projectaque hasta impetum excipere hostium docuit. Id novum Agesilaus contuens, progredi non est ausus, suosque jam incurrentes tuba revocavit. Hoc usque eo tota Graecia fama celebratum est, ut illo statu Chabrias sibi statuam fieri voluerit, quae publice ei ab Atheniensibus in foro constituta est. Ex quo factum est, ut postea athletae, ceterique artifices his statibus in statuis ponendis uterentur, in quibus victoriam essent adepti.

Badakit unetxo bat iraungo duela oraindik niri baiezkoa eman aurretik; baina zinez unetxo bat izango dela espero dut. Badirudi Kabriasen jarrera ez dela erabat Borgheseko estatuan guk ikusten dugun bera. Lantza aurreraka botea, projecta hasta, bietan bera da, baina *obnixoque genu scuto interpreteek obnixoque in scutum, obfirmato genu ad scutum* bezala ulertzen dute: Kabriasek soldaduei erakusten zien nola eutsi behar zuten irmo ezkutua belautzen kontra, eta haren ostean itxaron behar ziotela etsaiari; estatuak ordea ezkutua goian eutsita dauka. Baina zer gertatuko litzateke, interpreteak oker baleude? Zer, *obnixoque genu scuto* hitzak elkarrekin batera ez baletoz, eta *obnixoque genu* alde batetik eta *scuto* bestetik jarriko bagenitu, edo ondoren datorren *projectaque hasta* hitzekin batera irakurriko bagenu? Koma bakar bat jarri eta berdintasuna ahal bezain erabatekoa da jada. Estatua gudari bat da, *qui obnixoque genu, scuto projectaque hasta impetum hostis excipit*: Kabriasek egin zuena adierazten du, eta estatua Kabrias da. Koma egiaz falta dela, *projecta* hitzari loturiko *que* horrek egiaztatzen du; izan ere, *obnixoque genu scuto* denak batera baleude, alferrikako litzateke, eta hala egin ere egiten dute zenbait argitalpenek.

Beraz, estatua honi egozten zaion antzinate handiarekin erabat ongi datorkio han aurkitzen den idazkian dauden hizkien forma; eta Winckelmann jaunak berak erabaki du Erroman dauden eta maisua ezagutzea eman den estatuen artean bera dela zaharrena. Bere begirada zorrotzari uzten diot ea arteari dagokionez nire iritzia hautsi dezakeen ezer sumatu duen han. Baldin honek bere txaloa merezikoa balu, lausengaturik sentituko nintzateke beste adibide bat eman dudalako —Spenceren infolio guztietan aurki daitezkeenak baino hobea—

adierazteko zein ongi ulertzen diren idazle klasikoak antzinako artelaren bitartez, eta zein ongi hauek beren aldetik haien bitartez.

XXIX

Ikusirik Winckelmann jaunak, bere obrari ekiteko, egin dituen irakurketa izugarri ugariak, arte ezagutza zabal eta finak, antzinako artisten konfiantza nobleaz lan egin du; hauek beren arreta guztia puntu nagusiari eskaini zioten; eta bigarren mailakoari dagokionez edota nahita hartutako zabarkeriaz erabili zuten edota bestela lehen esku arrotzari utzi zioten.

Edozeinek ekidin zitzakeen okerrak baino ez dituela egin esatea ez da laudoriorik txikiena. Lehen irakurketa arin batean nabarmen geratzen dira okerrok, eta hala seinalatzen badira, seinalatzen dira begiak badituela uste duen jende jakin bat oroi dadin horiek seinalatuak daitezen merezi dutela.

Artelan greziarren imitazioari buruzko bere idaztietan dagoneko, behin baino gehiagotan engainatu du Junius-ek Winckelmann jauna. Idazle oso amarrutsua da Junius; bere obra osoa nahasmahas bat da, eta beti antzinakoen hitzekin hitz egin nahi duenez, beren jatorrizko lekuan inolaz ere pinturarekin zerikusirik batere ez duten haien pasarteak erabiltzen ditu pinturari egotzirik. Adibidez, Winckelmann jaunak erakutsi nahi digunean naturaren imitazio soilaz ezin erdietsi daitekeela gailurra ez artean, ezta poesian ere, poetek bezala pintorek hobe dutela egiantzeko ezinezkoa hautatzea soilik posible dena baino: horrela segitzen du: «Longinok pintore bati, poetari eskatzen dion sinestezinezkoaren aldean, eskatzen dizkion posibilitateak eta egia hemen izan dezakete beren arrazoia». Hobe eranskin hau kanpoan geratu izan balitz; izan ere, bi arte kritiko handienak erakusten dizkigu batere funtsik ez duen kontraesan batean. Gezurra da Longinok sekula hori esan duenik. Antzeko zerbait esaten du mintzo-ederrari eta poesiari buruz, baina ez poesiari eta pinturari buruz. Ὡς δ' ἑτερόν τι ἢ ρητορικὴ φροντισία βούλεται καὶ ἔπειρον ἢ παρὰ ποιηταῖς, οὐκ ἂν λάθοι σε, idazten dio bere Terenzianori^a; οὐδ' ὅτι τῆς μὲν ἐν ποιήσει τέλος ἔστιν ἐκκλησίς, τῆς δ' ἐν λόγους ἐνάρ-

χειρ. Eta berriro: Οὐ μὴν ἄλλα τὰ μὲν παρὰ τοῖς ποιηταῖς
 μοθικοτέρων ἔχει τὴν ὑπερέκπρωσιν, καὶ πάντη τὸ πιστὸν ὑπε-
 ραΐτουσαν· τῆς δὲ ῥητορικῆς φαντασίας, κάλλιστον δὲ τὸ ἔμπ-
 ρωκτον καὶ ἐνοζηθέες. Baina Juniusek tartekatu zuen hemen
 pintura elederraren orde; eta hari irakurri zion Winckelmann jaunak,
 eta ez Longinori^b: Praesertim cum Poeticae phantasiae finis sit
 ἀκπληξίς Pictoriae vero ἀνάγκη. Καὶ τὰ μὲν παρὰ τοῖς ποιηταῖς!
 ut loquitur idem Longinus, eta abar. Oso ongi; Longinoren hitzak,
 baina ez Longinoren zentzua!

Hurrengo oharrarekin ere gauza bera gertatuko zaio:
 «Jakituriaren zigiluaz markaturik ez zeuden irudi greziarren ekintza
 eta jarrera guztiek, dio berak^c, baizik sutsuegiak eta basatiegiak zire-
 nek, antzinako artistek Parentirso deitzen zuten oker bat egin zuten». Atzinako artistek? Horren froga Juniusek bakarrik ematen du. Izan ere, Parentirso erretorikako hitz bat zen, eta beharbada, Longinoren pasarteak ulertzera ematen duela dirudien bezala, Teodororena propio bakarrik^d. Τοῦτο ποιῶμεναι τρίτον τι κακίως εἶδος ἐν τοῖς παθητικοῖς, ὅπερ ὁ Θεόδορος παρένθυσον ἑκάλεν ἐστὶ δὲ πάθος ἄκαιρον καὶ κενόν, ἐνθα μὴ δεῖ πάθους ἢ ἄμετρον, ἐνθα μετρίως δεῖ. Gainera baditut nik nire zalantzak ea hitz hori inolaz pinturara alda ote daitekeen. Elederrean eta poesian izan ere, bada *potos* bat, ahal bezain gora jaso daitekeena, parentirso bilakatu gabe; eta *potos* gorena okerreko lekuan bakarrik da parentirsoa. Pinturan ordea pathos gorena beti litzateke parentirsoa, hori adierazten duen pertsonaren zirkunstantzien bidez zuritu nahi bada ere.

Itxura guztien arabera, beraz, artearen historian aurkitzen diren oker batzuek datoz obran, azken batean Winckelmann jaunak, presagatik, Junius bakarrik kontsultatu duelako eta berak ez duelako jo zuzenean iturburuetara. Esaterako, berak adibideak erabiliz erakutsi nahi izan duenean greziarren artean era guztietako arte eta lanetan nabarmentzen zen guztia era bereizian zela estimutua, eta gauzarik txikienean langile onenak beren izenaren betikotzera iritsi zitezkeela^e: «Ezagutzen dugu pisu edo pisu-plater onak egiten dituen baten izena, Partenio zeritzon». Winckelmann jaunak Juvenalen hitzak —hura aipatzen baitu—, *Lances Parthenio factas*, Juniusen katalogoan bakarrik irakurri ahal izan ditu. Juvenal zuzenean irakurri izan balu, izan ere, orduan ez litzateke engainatua geratuko *lanx*

hitzaren esanahi bikoitzagatik, baizik testuingurutik aterako zukeen poetak ez dituela aipatzen pisuak edo pisu-platerak, baizik platerak eta erretiluak. Juvenalek hain zuzen Katulo goraiatzan du, itsasoan ekaitz txar batean, handik bizirik ateratzeko bere barrabilak erauzten dituen kastoreak bezala egin duelako; bere gauzarik baliotsuenak itsasora botatzen dituelako, itsasontziarekin batera hondora ez joateko. Gauza baliotsu horiek deskribatzen ditu, eta beste zenbaiten artean dio:

Ille nec argentum dubitabat mittere, lances
Parthenio factas, urnae cratera pacem
Et dignum sitiente Pholo, vel conjuge Fusci.
Adde et bascaudas et mille escaria, multum
Caelati, biberet quo callidus emtor Olynthi.

Zer beste izan litezke, hemen baso eta katiluen artean dauden *lances* horiek, ez bada platerak eta erretiluak? Eta zer esan nahi du Juvenalek besterik, ez bada Katulok zilarrezko baxera osoa —eta haien artean aurkitzen ziren Partenioren lana diren platerak ere— itsasora bota arazi zituela. *Partenius*, dio Eskoliasta zaharrak, *caelatoris nomen*. Baina Granäus-ek bere oharretan, izen honi gaineratzen diotenean: *sculptor, de quo Plinius*, halabehar hutsez baino ezin du hau idatzi izan; Pliniok, izan ere, ez du aipatzen izen honetako artistarik.

«Bai, segitzen du Winckelmann jaunak, gorde da Ajaxen ezkua larruz egin zuen uhalginaren —guk deituko geniokeen bezala— izena». Baina hau ere ezin hartu ahal izan du bere irakurleak igortzen dituen lekutik; Herodotok idatzi zuen Homeroren bizitzatik noski. Izan ere, hemen aipatzen dira, bai, larruzko lan hau egin zuenari poetak Tychius izena ematen dioten Iliadako lerroak; baina berariaz esaten da, hala deitzen zela Homerok ezagutzen zuen uhalgin bat, eta bere izena sartuz bere adiskidetasuna eta eskerrona erakutsi nahi izan ziolaf: Ἀπέδωκε δὲ χάριν καὶ Τυχίῳ τῷ σκυτεῖ, ὃς ἐδῆξατο αὐτὸν ἐν τῷ Νῆῳ τεῖχει, προσελθόντα πρὸς τὸ σκυτεῖον, ἐν τοῖς ἔπεσι καταζεύξας ἐν τῇ Ἰλιάδι τοῖσδε.

Αἴας δ' ἔγγυσθεν ἦλθε, φέρων σάκος ἡῶτε πύργον,
Χάλκρον, ἐπαβόειον· ὃ οἱ Τυχίῳ κάμει τεύχων
Σκυτοτόμων ὃχ' ἄριστος, ὣλῃ ἐνὶ οἰκίᾳ ναίων.

Beraz, Winckelmann jaunak ziurtatu nahi digunaren guztiz kontrakoa da; Ajaxen ezkutua egin zuen uhalginaren izena jada Homeroren garaietan erabat ahaztua zegoen, eta poetak haren ordeztu guztiz arrotz bat sartzeko askatasuna zeukan.

Beste oker batzuek oroimenaren oker hutsak dira, edo bidena-barreko argitasun bezala soilik ekartzen dituen gauzei dagozkie. Adibidez:

Herkules izan zen eta ez Bako, berak pintatu zuen itxuran agertu zitzaiolako harengatik Parrasio harrotzen zena^g.

Taurisko ez zen Rodaskoa, baizik Lidiako Tralleskoa^h.

Antigona ez da Sofoklesen lehen tragediaⁱ.

Baina utzi egingo diot gisako txikikeriak pilatzeari. Ez dut uste gaitzespen gisan har daitezkeenik; baina Winckelmann jaunarenaganako dudan begirunea ezagutzen duenak *krokilegmo* (huskeria-bilaketa) bezala har ditzake.

Lehen atalaren amaia.

Oharrak

I

^a Von der Nachahmung der griechischen Werke in der Malerei und Bildhauerkunst, 21-22. or.

^b Brumoy Theat. des Grecs t. II, 89. or.

^c Iliada, V, 343. b: μ
—

^d Iliada, 859. b.

^e Th. Batholinus, *De causis contemptae a Danis adhuc gentilibus mortis*, I. kap.

^g Odisea IV, 195. b.

^h Chateaubrun.

II

^a Antiochus (Antholog. II. lib. 43. kap.). Harduin-ek Pliniori buruzkoan (35.lib. 36. atala, p.m. 698) Piso delako bati egozten dio epigrama hau. Baina epigramalari greziarren artean ez dago gisako izenik duen inor.

^b Horregatik Aristotelesek gomen-datu zuen haren margoak gazteei ez erakustea, beren irudimena, ahal besteko neurrian, itsuaren irudi orotik garbi eduki zezaten (Polit. VIII. lib. 5. kap., 526 or. Conring ed.). Boden jaunak pasarte honetan Pauson orde

Pausanias irakurri nahi luke, ezaguna baita honek irudi lizunak margotu zituela (*De Umbra poetica, Comment.* I., XIII. or.). Gazteria atseginaren gisako kitzikaldietatik urruntzea legegile filosofo batek irakatsi behar-ko balu bezala. Poetikako (II. kap.) pasarte ezaguna ekar zezakeen konbarazio modura, bere ustea alde batera uzteko. Badira interprete batzuek (adibidez, Kühn, Aelian-i buruz, Var. Hist. IV. lib. 3. kap.) Aristotelesek hantxe bertan Polignoto, Dionisio eta Pausonen arteko desberdintasuna honetan jartzen dutenak, alegia: Polignotok jainkoak eta heroiak margotu zituela, Dionisiok gizakiak eta Pausonek abereak. Hirurek margotu zituzten giza irudiak, eta berak behin zaldi bat margotu omen zuelako, ezin froga daiteke abere margolaria izan zenik, Boden jaunak halakotzat badauka ere. Beren giza irudiei eman zieten edertasun mailak finkatzen du beren sailkapena, eta horregatik Dionisiok gizakiak baino ezin zituen margotu, eta horregatik, gainerako guztien aurretik antropografo deitura izan zuen, berak natura morroi baten gisan segitzen zuelako, eta idealera igo ezin zuelako, hari jarraiki jainkoak eta heroiak margotzea sakrilegio bat izango baitzen.

^c Aristofanes, Plut. 602. b. eta Acharnens, 854. b.

^d Plinio XXXV. lib. 37. atala. Hard edit.

^e De Pictura vet. II. lib., IV. kap., I.

^f Plinio, XXXIV. lib. 9. atala.

^g Oker dago sugea medizinako jainkotasun baten ezaugarritzat bakarrik jotzen duena, Spence bezala (*Polymetis*, 132. or.). Justino Martiriak (*Apolo.* II, 55. or., Sylburg edit.) gisa honetan dio:

μ μ μ μ -

; eta oso erraza

litzateke monumentu sail bat aipatzea non sugeak osasunarekin inolako zerikusirik ez duten jainkotasunei laguntzen dien.

^h Pasa bitez Pliniok eta Pausaniasek eta beste batzuek aipatzen dituzten artelan guztiak; errepasa bitez gaur oraindik dauzkagun antzinako estatuak, azpirliebeak, margoak: eta ez da inon aurkituko furia bat. Alde batera uzten ditut arteko baino gehiago sinbolologiako diren irudiak, txanponetan aurkitzen direnak batik bat. Spencek, furiak behar zituenez, hobe zukeen txanponetatik hartu izan balitu (*Seguini Numis*, 178. or. *Spanheim, de Praest. Numism. Dissert.* XIII, 639. or. *Les Césars de Julien par Spanheim*, 48. or.), egiaz ez dauden obra batean nahikari barregarri baten bidez sartu baino. Bere Polimetis-en (*Dial.* XVI. 272. or.) dio: «Furiak antzinako artisten obretan gauza oso urria badira ere, bada halere historia bat non beti jartzen dituzten. Meleagroren heriotzaz ari naiz; azpirliebeetan aurkitzen

den honen irudikapenean sarri ikusten dira Altea animatuz eta kitzikatuz, bere seme bakarra hilko duen zoritxarreko egurrari su eman diezaion. Izan ere, emakume bat ez litzateke hain urruti joango bere mende-kuan, deabruak apurtxo bat xaxatu izan ez balu. Azpirliebe horietako batean, Bellorirenean (Admirandis-etan) bi emakume ikusten dira, Altearekin aldarean daudela, eta itxura guztien arabera Furiak izan behar dutenak. Izan ere, nortzuek, Furiak izan ezik esku hartu nahiko zuketek ekintza honetan? Izakera horretarako nahikoa izugarri ez izatea, zalantzarik gabe marrazketan datza hori. Harrigarriena, inolaz ere, obra honetan disko borobila da, azpian erdi aldera, non nabarmen Furia baten burua azaltzen den. Beharbada Alteak, egite txarren bat egin nahi zuenean, otoitz egiten zion Furia da, une honetan bereiziki harengana jotzeko arrazoi guztiak zituen, etab.» Gisako birekin edozer gauza atera liteke alde guztietatik. Nortzuek bestela, galdetzen du Spencek, ez bada Furiak, esku hartu nahiko zuketek gisako ekintza batean? Nik erantzuten diot: Altearen neskameek, sua piztu eta zaindu behar zutenek. Ovidiok dio (*Metamorph.* VIII. 40-461. or.):

Protulit hunc (stipitem), genitrix, tae-
dasque in fragmina poni

Imperat, et positis inimicos admovet
ignes.

Taedas hauek, antzinakoek zuzitara-ko erabiltzen zituzten lerki pusketa luzeak, bi pertsonak daukate egiaz eskutan, eta haietako batek gisako zati bat puskatu berria du, bere jarre-

rak erakusten duen bezala. Diskoan, obraren erdi aldera, nik ez dut inolako Furiarik ikusten. Samin mingarri bat erakusten duen aurpegi bat da. Meleagroren beraren aurpegia zalan-tzarik gabe (Metmorph. a.l. 515. b.):

Inscius atque absens flamma Meleagros in illa

Uritur: et caecis torreri viscera sentit

Ignibus: et magnos superat virtute dolores.

Artistak irudi hau behar zuen istorio honen hurrengo unera pasatzeko, hark Meleagro hilzorian erakusten baitu. Spencek Furiatzat hartzen dituenak Montfaucon-ek Parkatzat dauzka (*Antiq.* expl. 1. T., 162. or.), diskoko burua izan ezik, hau berak ere Furiatzat baitauka. Bellorik berak (*Admirand.* 77. tab.) erabaki gabe uzten du ea Parkak edo Furiak zer diren. Edo horrek nahikoa erakusten du ez bata ez bestea direla. Montfauconen gainerako ulermoldeak ere zehatzagoa beharko zukeen. Ohearen ondoan ukondoaren gainean dagoen emaztekoa Kasandra deitu beharko zukeen eta ez Atalanta. Bizkarra ohearen kontra daukala, jarrera triste batean eserita dagoena da Atalanta. Artistak zuhurtzia handiz familiatik aparte jarri du, bera Meleagroren amorantea zelako, ez bere emaztea, eta berak, nahi gabe, sortu zuen zoriturak senitartekoak haserretu behar zituelako.

ⁱ Plinio, XXXV. lib. 36. atala. Cum moestos pinxisset omnes, praecipue patrum, et tristitiae omnem imaginem consumpsisset, patris ipsius vul-tum velavit, quem digna non poterat ostendere.

^k Summi moeroris acerbitem arte exprimi non posse confessus est. Valerius Maximus, VIII. lib. II. kap.

^l Antiquit. expl. I. t., 50. or.

^m Gisa honetan ematen ditu, hain zuzen, Timanthesek adierazten dituen tristezia mailak: Calchantem tristem, moestum Ulyssem claman-tem Ajacem, lamentantem Mene-laum.— Ajax garrasika, irudi itsusi bat izan behar zuen; eta ez Zizeronek ez Kintilianok pintura honen beren deskribaketetan hori aipatzen ez dutenez, zilegi bekit Valeriok bere kabuz hura goritzeko jarri duen eranskin gisan hartzea.

ⁿ Bellori, Admiranda, II.tab. 12.

^o Plinio XXXIV. lib., 19. atala.

^p Eundem, Myron alegia, irakurtzen da Pliniorengan (XXXIV. lib., 19. atala), vicit et Pythagoras Leontinus, qui fecit stadiodromen Astylon, qui Olympiae ostenditur: et Libyn pue-rum tenentem tabulam, eodem loco, et mala ferentem nudum. Syracusis autem claudicantem: cuius hulceris dolorem sentire etiam spectantes videntur. Azter bitez azken hitzak zehatzago. Ez al da hitz egiten hor nabarmen bere zauri mingarriengatik alde guztietan ezaguna zen norbaiti buruz? Cuius hulceris, e.a. Eta *clau-dicantem* soilari dagokio *cuius hau*, eta *claudicantem* hau berriz beharba-da urrunago dagoen *puerum* hari? Inork ez zuen Filoktetesek baino arrazoi gehiago zauri horrengatik ezaguna izan zedin. Nik, beraz, *clau-dicantem* ordeztu irakurtzen dut *Philoctetem*, edo uste dut gutxienez azken hitza soinu bera duen lehen hitzarekin trukatu dela, eta biak bate-

ra *Philoctetem claudicantem* irakurri behar dela. Sofoklesekin jartzen du Vibon kat anagkan erpein, eta horrek errena sortu behar zion, ezin baitzuen indarrez ezarri eri zeukan oina.

III

^a Philippo (Anthol. IV. lib., 9. kap., 10. ep.)

^b Vita Apoll. II. lib., 22. kap.

IV

^a Koruak Filoktetesen miseria testuinguru honetan begiztatzen duenean, badirudi haren bakardade beltz hark hunkitu egiten duela. Hitz bakoitzean entzuten dugu greziar gizartezalea. Halere badut zalantzarik honi dagokion pasarte batean. Hauxe da (701-705. b.):

Ontzat eman ohi den Winshem-en itzulpenak honela dio:

Ventis expositus et pedibus captus

Nullum cohabitorem

Nec vicinum ullum saltem malum habens, apud quem gemitum mutuum

Gravemque ac cruentum

Ederet.

Th. Johnsonen itzulpen tartekatua hitzetan bakarrik da bestelako:

Ubi ipse ventis erat expositus, firmum gradum non habens,

Nec quenquam indigenarum,

Nec malum vicinum, apud quem ploraret

Vehementer edacem

Sanguinem morbum, mutuo gemitu.

Sinestekoa litzateke aldaturiko hitz hauek neurridun Thumas Neogeorgus-en itzulpenetik hartu dituela. Honek izan ere, (bere obra oso bakana da, eta Fabricius berak Oporin-en bibliografiari esker ezagutzen du) honela adierazten du:

- ubi expositus fuit

Ventis ipse, gradum firmum haud habens,

Nec quenquam indigenam, nec vel malum

Vicinum, ploraret apud quem

Vehementer edacem atque cruentum

Morbum mutuo.

Baldin itzulpen hauek zuzenak badi-ra, gizartearen gorapenerako esan daitekeen bortitzena esaten du koruak: zoritxarrekoak ez dauka gizakirik bere inguruan; ez du ezagutzen auzo adiskidetsurik; zoriontsu litzateke auzo gaizto bat balu bederen! Thomsonek beharbada pasarte hau eduki zuen bere begien aurrean, gaizkile batzuek uharte mortu batean utzi duten Melisandrori esanarazten dihonean:

Cast on the wildest of the Cyclad Isles

Where never human foot had marked the shore

These Ruffians left me — yet believe
me, Arcas,

Such is the rooted love we bear man-
kind,

All ruffians as they were, I never
heard

A sound so dismal as their parting
oars.

Berak ere nahiago zukeen gaizkileen
jendartea batere ez edukitzea baino.
Burubide benetan bikaina! Baldin
gauza ziburra balitz Sofoklesek ere
benetan gisako zerbait esan duela.
Baina gogoz kontra aitortu behar dut
ez dudala halakorik ezer aurkitu
harengan; hobe litzateke baldin nik
eskoliasta zaharraren begiez irakurri
izan banu, era honetan kokatzen bai-
tutu poetaren hitzak: μ —

μ —
Aipaturiko itzul-
tzaileek ulermolde honi jarraitu dio-
ten bezala, Brumoy-k ere gauza bera
egin du eta gure azken itzultzaile ale-
manak. Hark dio: Sans société,
même importune; eta honek «gizarte
oro, baita txarrena ere, kenduta».
Hauek dira nire arrazoiak horietatik
aldentzeko. Hasteko, garbi dago
-etik
apartatu behar bada, eta atal bereizi
bat izan behar badu, partikula
-ren aurretik derrigor
errepikatu beharko litzatekeela.
Baina hala ez denez, garbi dago oro-
bat -rekin loturik
dagoela, eta ondoren dago-
en koma kendu egin behar dela.
Koma hori itzulpenetik lerratu da,
aurkitu baitut badaudela argitalpen
greko batzuek (adibidez, 1585eko

Wittenberg-ekoa 8.ean, Fabricius-ek
inondik ere ezagutu ez duena) koma
hori ez dutenak, eta, dagokion beza-
la, -ren ondoren jartzen
dute. Bigarren, auzo txar bat da,
eskoliastak argitzen duen bezala,

μ itxa-
ron dezakeguna? Gurekin batera
intzirika aritzea adiskide baten joka-
bidea da, ez ordea etsai batena.
Labur, beraz: hitza
oker ulertu da; onartu izan da kakos
izenlagunetik eratorria dela, eta egiaz
izenetik eratorria da; auzo
gaizto bezala adierazi izan da, eta
zoritxarrean auzo adierazi beharko
zitzatekeen. μ -ek ez pro-
feta txar bat, hau da, faltsu bat baizik
zoritxarraren profeta esan nahi duen
bezala, -ek ez du esan
nahi artista txar bat, trebeziarik
gabea, baizik artista zoritxarrean
esan nahi du. Zoritxarrean auzo
bezala poetak ulertzen du edota gure-
aren gisa bereko zoritxarrak hartua
edota adiskidetasunez gure ezbeha-
rrean parte hartzen duena; hala

hitzak «neque quenquam indigena-
rum mali socium habens» bezala
itzuli behar dira. Thomas Franklin
Sofoklesen itzultzaile berriak ere nire
iritzi berekoa izan behar du derrigor,
ez baitu aurkitzen auzo gaiztoa
hitzean, baizik *fellow-
mourner* bezala itzultzen:

Expos'd to the inclement skies,
Deserted and forlorn he lyes,
No friend nor fellow-mourner there,
To sooth his sorrow, and divide his
care.

^b Mercure de France, 1755eko apiri-
la, 177. or.

^c *The Theory of Moral Sentiments*, Adam Smith. I. partea, 2. atala, 1. kap. 41. or. (Londres 1761).

^d II. ekit., III esk. «De mes deguise-ments que panseroit Sophie?», esaten du Akilesen semeak.

^e Trak. 1088-89 b. (egiaz 1071-1072. bertsoak dira)

—

— —

V

^a *Topographia Urbis Romae*, IV. lib., 14. kap.: Et quanquam hi (Agesander eta Polydorus et Athenodorus Rhodii) ex Virgilii descriptione statum hanc formavisse videntur etc.

^b *Suppl. aux Ant. Explid.* I. t., 242. or. Il semble qu'Agesandre, Polydore et Athenodore, qui en furent les ouvriers, ayant travaillé comme à l'envi, pour laisser un monument, que répondoit à l'incomparable description qu'a fait Virgile de Laocoon etc.

^c *Saturnal.* V. lib., 2. kap. Quae Vigilius traxit a Graecis, dicturumne me putetis quae vulgo nota sunt? quod Theocritum sibi fecerit pastoralis operis autorem, ruralis Hesiodum? et quod in ipsis Georgicis, tempestatis serenitatisque signa de Arati Phaenomenis traxerit? vel quod eversionem Trojae, cum Sinone suo, et equo ligneo, caeterisque omnibus, quae librum secundum faciunt, a Pisandro pene ad verbum transcripserit? qui inter Graecos poetas eminet opere, quod a nuptiis Jovis et Junonis incipiens universas historias, quae mediis omnibus saeculis usque ad aetatem ipsius Pisandri contige-

runt, in unam seriem coactas redegerit, et unum ex diversis hiatibus temporum corpus effecerit? in quo opere inter historias caeteras interitus quoque Trojae in hunc modum relatus est. Quae fideliter Maro interpretando, fabricatus est sibi Iliacae urbis ruinam. Sed et haec et talia ut pueris decantata praetereo.

^d *Paralip.* XII. lib., 398-408. eta 439-474. bb.

^e Edo hobeto sugeari; izan ere, badi-rudi Likofronek bakar bat baino ez duela jartzen:

^f Gogoan daukat Eumolpok Petroniogan erakusten duen pintura aipa daitekeela honen aurka. Troiaren hondamendia irudikatzen zuen, eta bereiziki Laokoonen historia, hain zuzen ere Virgiliok kontatzen duen bezalaxe; eta Napolesen, Zeuxis, Protogenes eta Apelesen beste pintura zaharrak gordetzen zituen galeria berean zegoenez, uste izatekoa da hura ere pintura greziar zahar bat zela. Baina zilegi bekit bakarrik nobelagile bat historialaritzat har ez dezadan. Galeria hori, eta pintura hori, eta Eumolpo hori, itxura guttien arabera ez dira sekula izan ez bada Petronioren irudimenean. Ezerk ez du erakusten hobeto hori guztia irudimen hutsa dela, Virgilioren deskribatekaren kasik eskola egindako bezalako imitazio baten arrasto nabarmenek baino. Merezki du erkaketa egitea. Honela Virgiliok (*Aeneid.* II. lib., 199-224):

Hic aliud majus miseris multoque tremendum

Objicitur magis, atque improvida
pectora turbat.

Laocoon, ductus Neptuno sorte
sacerdos,

Sollemnis taurum ingentem mactabat
ad aras.

Ecce autem gemini a Tenedo tranqui-
la per alta

(Horresco referens) immensis orbi-
bus angues

Incumbunt pelago, pariterque ad lito-
ra tendunt:

Pectora quorum interfluctus arrecta,
jubaque

Sanguineae exsuperant undas: pars
cetera pontum

Pone legit, sinuatque immensa volu-
mine terga.

Fit sonitus, spumante salo: jamque
arva tenebant,

Ardentesque oculos sufflecti sangui-
ne et igni

Sibila lambebant linguis vibrantibus
ora.

Diffugimus visa exsanguis. Illi
agmine certo

Laocoonta petunt, eta primum parva
duorum

Corpora natorum serpens amplexus
uterque

Implicat, et miseros morsu depasci-
tur artus.

Post ipsum, auxilium subeuntem ac
tela ferentem,

Corripiunt, spirisque ligant ingenti-
bus: eta jam

Bis medium amplexi, bis collo squa-
mea circum

Terga dati, superant capite et cervici-
bus altis.

Ille simul manibes tendit divellere
nodos,

Perfusus sanie vittas atroque veneno:
Clamores simul horrendos ad sidera
tollit.

Quales mugitus, fugit cum saucius
aram

Taurus et incertam excussit cervice
securim.

Eta Eumolpok (noren kontura esan
daitekeen bat-batean ari diren poeta
guztien kontura bezala; bere bertsoe-
tan irudimenak adina parte hartzen
du memoriak):

Ecce alia monstra. Celsa qua
Tenedos mare

Dorso repellit, tumida consurgunt
freta,

Undaque resultat scissa tranquillo
minor.

Qualis silenti nocte remorum sonus

Longe refertur, cum premunt classes
mare,

Pulsumque marmor abiete imposita
gemit.

Respicimus, angues orbibus geminis
ferunt

Ad saxa fluctus: tumida quorum pec-
tora

Rates ut altae, lateribus spumas
agunt:

Dant caudae sonitum; liberae ponto
jubae

Coruscant luminibus, fulmineum
jubar

Incendit aequor, sibilisque indae tre-
munt.

Stupuerē mentes. Infulis stabant sacri
Phrygioque cultu gemina nati pigno-
ra

Laocoonte, quos repente tergoribus
ligant

Angues corusci: parvulas illi manus
ad ora referunt: neuter auxilio sibi,

Uterque fratri transtulit pias vices,
Morsque ipsa miseros mutuo perdit
metu.

Accumulat ecce liberūm funus
Parens,

Infirmus auxiliator; invadunt virum

Iam morte pasti, membraque ad
terram trahunt.

Iacet sacerdos inter aras victima.

Ezaugarri nagusiak berberak dira bi pasarteetan, eta gauza desberdinak hitz berekin adierazten dira. Baina hauek txikikeriak dira, berez ikusten direnak. Badira oraindik imitatu izanaren beste ñabardura batzuek, fina-goak bai, baina ez gutxiago seguruak. Baldin imitatzailea bere buruan uste handia duena bada, oso gutxitan imitatu du gauzak edertzen saiatu gabe; eta baldin edertze hau, bere ustez, ondo atera bazaio, nahikoa azeri izango da, berak ekarri duen bidea salatuko dioten hatz markak isatsaz estaltzeko. Baina hain zuzen ere edertzeko grina harro honek, eta orijinala izateko ahalegin honek salatzaren dute. Bere edertze hori izan ere, ez da gehiegikeria eta azaleko fintasun baino. *Sanguinae jubae* dio Virgiliok, Petroniok *liberae jubae luminibus coruscant*. Virgiliok *ardentes oculos suffecti sanguine et igni*, Petroniok *fulmineum jubar incendit aequor*. Virgiliok *fit sonitus*

spumante salo, Petroniok *sibilis undae tremunt*. Hala pasatzen da imitatzailea handitik gehiegizkora; harrigarritik ezinezkora. Sugeek kiribilduriko haurrak Virgiliogan pareragon (gehikuntza) bat dira, zertzelada esanguratsu gutxi batzuz sartzen duena eta haurren ezina eta atsekabea ezagutarazten dituen. Petroniok apaindu egiten du alboko osagarri hau, eta haurrak arima kementsudun pare bihurtzen ditu,

—— neuter auxilio sibi

Uterque fratri transtulit pias vices

Morsque ipsa miseros mutuo perdit
metu.

Nork itxaron dezake gizonengandik, haurrengandik, halako norberaren ukapena? Zein hobeto ezagutzen zuen greziarrak natura (Kinto Kalabrio, XII. lib. 459-61. b.), honek suge izugarriak azaltzean, amak beren haurrak uzten ipintzen baititu, halako neurrian, non bakoitzak bere bizia salbatzen bestetan ez duelarik pentsatzen.

μ , —
,
μ μ

Imitatzaileak, ezkutatze, saiatzen da oro har objektuei bestelako argitasun bat ematen, jatorrizkoaren itzalak agerrarazten eta argiak iluntzen. Virgiliok ahaleginak egiten ditu sugeen handitasuna agerian jartzen, handitasun horri lotua baitator hurrengo gertakariaren egiantzekotasuna; haiek sortzen duten zarata alboko ideia baino ez da, eta handitasunaren kontzeptua horrela biziago

egiteko jarria. Petroniok aldiz alboko ideia hau bihurtzen du muin, ahal duen oparotasunik handienaz deskribatzen du zarata, eta handitasunaren irudikapena halako moduan ahazten du non guk apenas susma dezakegun hura zaratagatik. Zail da sinesten zabarkeria honetan erori zitekeela baldin berak bere irudimen soilaren arabera deskribatu nahi izan balu eta aurrean imitatzeko bai baina imitatu zuela igar zekion nahi ez zuen eredu bat izan ez balu. Hala, bada, lasai asko har daiteke margo poetiko oro, zertzelada txikiz zamatua eta handiz urri dena, gaizki egindako imitazio-tzat, nahi adina edertasun txiki eduki arren eta jatorrizkoa adierazi badaiteke edo ezin badaiteke ere.

§ Suppl. aux Antioq. I. t., 243. or. Il y a quelque petite difference entre ce que dit Virgile, et ce que le marbre représente. Il semble, selon ce que dit le poète, que les serpents quittèrent les deux enfants pour venir entortiller le père, au lieu que dans ce marbre il tient en même temps les enfants et leur père.

^h Donatus ad v.227, lib. II. Aeneid. Mirandum non est, clipeo et simulachri vestigiis tegi potuisse, quos supra et longos et validos dixit, et multiplici ambitu circumdedisse Laocoontis corpus ac liberorum, et fuisse superfluum partem. Niri iruditzen zait bestalde, pasarte honetan *mirandum non est* hitzetatik, edota *non* kendu behar dela, edo azkenean proposizioaren bigarren zatia falta dela. Izan ere, baldin sugeak hain izugarri handiak baziren, harrigarri gertatzen da haiek jainkosaren ezkutuaren azpian gorde ahal izatea, bal-

din ezkutu hau bere aldetik oso handia ez bazen, eta irudi kolosal batena ez bazen. Eta horren baieztapena izan behar zuen falta den proposizioaren bigarren zatia; edo *non* horrek bestela ez du zentzurik batere.

ⁱ Drydenek egindako Virgilioren ingelesezko argitalpen bikainean (Londres 1697, folio handian). Eta halere, honek ere sugeen uztaiak irudikatzen ditu gorputzaren inguruan behin jarritz eta lepoaren inguruan apenas ukituz. Gisako erdipurdiko artista batek aitzakiak merezi baditu, aipa daiteke kobreak liburu batean apaingarri bezala bakarrik ikusi behar direla, ez berenez artelan baliara bezala.

^k Hala irizten du De Pilesek berak Du Fresnoy-ri buruzko bere oharretan, 210. b.: Remarquez, s'il vous plait, que les draperies tendres et légères n'étant données qu'au sexe féminin, les anciens Sculpteurs on évité autant qu'ils on pû, d'habiller les figures d'hommes; parce qu'ils on pensé, comme nous l'avons déjà dit, qu'en Sculpture on ne pouvoit imiter les étoffes et que les gros plis faisoient un mauvais effet. Il y a presque autant d'exemples de cette vérité, qu'il y a parmi les antiques de figures d'hommes nus. Je rapporterai seulement celui du Laocoon, lequel selon la vraisemblance devoit être vêtu. En effet, quelle apparence y-a-t-il qu'un fils de Roi, qu'un Prêtre d'Apollon se trouvât tout nu dans la cérémonie actuelle d'un sacrifice; car les serpents passèrent de l'Isle de Ténédos au rivage de Troie, et surprirent Laocoon et ses fils dans le temps même qu'il sacrifioit à Neptune sur

le bord de la mer, comme le marque Virgile dans le second livre de son *Enéide*. Cependant les artistes, qui sont les auteurs de ce bel ouvrage, ont bien vu, qu'ils ne pouvoient pas leur donner de vêtements convenables à leur qualité, sans faire comme un amas de pierres, dont la masse ressembleroit à un rocher, au lieu des trois admirables figures, qui ont été et qui sont toujours l'admiration des siècles. C'est pour cela que de deux inconvenients, ils ont jugé celui des Draperies beaucoup plus fâcheux, que celui d'aller contra la vérité même.

VI

^a Maffei, Richardson, eta azken aldean Von Hagedorn jauna (*Betrachtungen über die Malerei*, 37. or. *Richardson, Traité de la Peinture*, III. t. 513. or.). De Fontaines-ek ez du merezi gizon hauei gainera diezaidan. Bera ere, egiaz, Virgilioren bere itzulpeneko oharretan horren alde azaltzen da, alegia poetak multzoa begien aurrean eduki duela; baina hain da ezjakina, non Fidiasten obratzat hartzen baitu.

^b Honi dagokionez, Sadoletoren poesia baino ezer erabakigarriagorik ezin aipa dezaket. Antzinako poeta baten duin da poesia, eta kobrezko grabatu baten lekua oso ondo bete dezakeenez, hemen osorik sartzeko eskubidea dudala uste dut.

DE LAOKOONTIS STATUA

IACOBI SADOLETI CARMEN

Ecce alto terrae e cumulo, ingentisque ruinae

Visceribus, iterum reducem longinqua reduxit

Laocoonta dies: aulis regalibus olim
Qui stetit, atque tuos ornabat, Tite, penates.

Divinae simulacrum artis, nec docta vetustas

Nobilius spectabat opus, nunc celsa revisit

Exemptum tenebris redivivae moenia Romae.

Quid primum summumve loquar?
Miserumne parentem

Et prolem germinam? an sinuatos flexibus angues

Terribili aspectu? caudasque irasque draconum

Vulneraque et veros, saxo moriente, dolores?

Horret ad haec animus, mutaque ad imagine pulsat

Pectora, non parvo pietas commixta tremori.

Prolixum bini spiris glomerantur in orbem

Ardentes colubri, et sinuosis orbibus errant,

Ternaque multiplici constringunt corpora nexu.

Vix oculi suffere valent, crudele tuendo

Exitium, casusque feros: micat alter, et ipsum

Laocoonta petit, totumque infraque supraque

Implicat eta rabido tandem ferit ilia morsu.

Connexum refugit corpus, torquentia sese

Membra, latusque retro sinuatum a
vulnere cernas.

Ille dolore acri, et laniatu impulsus
acerbo,

Dat gemitum ingentem, crudosque
evellere dentes

Connixus, laevam impatiens ad terga
Chelydri

Obiicit: intendunt nervi, collectaque
ab omni

Corpore vis frustra summis conati-
bus instat.

Ferre nequit rabiem, et de vulnere
murmur anhelum est.

At serpens lapsu crebro redeunte
subintrat

Lubricus, intortoque ligat genua infi-
ma nodo.

Absistunt surae, spirisque prementi-
bus arcum

Crus tumet, obsepto turgent vitalia
pulsu,

Liventesque atro distendunt sangui-
nae venas.

Nec minus in natos eadem vis effera
saevit

Implexuque angit rapido, miseranda-
que membra

Dilacerat; jamque alteriur depasta
cruentum

Pectus, suprema genitorem voce
cientis,

Circumiectum orbis, validoque volu-
mine fulcit.

Alter adhuc nullo violatus corpora
morsu,

Dum parat adducta caudam divellere
planta,

Horret ad adspectum miseri patris,
haeret in illo,

Et jam jam ingentes, fletus lacrymas-
que cadentes

Anceps in dubio retinet timor. Ergo
perenni

Qui tantum statuistis opus jam laude
nitentes,

Artifices magni (quanquam et melio-
ribus actis

Quaeritur aeternum nomen, multo-
que licebat

Clarius ingenium venturae tradere
famae)

Attamen ad laudem quaecunque
oblata facultas

Egregium hanc rapere, et summa ad
fastigia niti.

Vos rigidum lapiden vivis animare
figuris

Eximii, et vivos spiranti in marmore
sensus

Inserere, aspicimus motumque iram-
que doloremque,

Et pene audimus gemitus: vos extulit
olim

Clara Rhodos, vestrae jacuerunt artis
honores

Tempore ab immenso, quos rursum
in luce secunda

Roma videt, celebratque frequens:
operisque vetusti

Gratia parta recens. Quanto praestan-
tius ergo est

Ingenio, aut quovis extendere fata
labore.

Quam fastus et opes et inanem exten-
dere luxum.

(ik. Leodegarii a Quercu Farrago
Poematum, II. t., 64. or.). Gruter-ek
ere poema hau sartu du Sadoletoren

beste batzuekin batera, bere bilduma ospetsuan (Delic. Poet. Italarum Parte alt. 582. or.); baina akats askorekin. *Bini* (14. or.) ordezkarak *vivi* irakurtzen du; *errant* (15. or.) ordezkarak, *oram*, etab.

^c De la Peinture, III. tomoa, 516. ord. C'est l'horreur que les Troïens ont conçue contre Laoccon, qui étoit nécessaire à Virgile pour la conduite de son Poème; et cela le mène à cette Description patétique de la destruction de la patrie de son Héros. Aussi Virgile n'avoit garde de diviser l'attention sur la dernière nuit, pour une grande ville entière, par la peinture d'un petit malheur d'un Particulier.

VII

^a Lehen argitalpena 1747koa da; bigarrena 1755ekoa eta izenburu hauxe dauka: *Polymetis, or en Enquiry concerning the Agreement between the Works of the Roman Poets, and the Remains of the antient Artists, being an Attempt to illustrate them mutually from one another. In ten Books, by the Revd. Mr. Spence, London, printed for Dodsley, fol. Orobat, N. Tindal-ek obra honetatik egindako laburpen bat behin baino gehiagotan izan da inprimatua.*

^b Val. Flacco, VI. lib., 55-56 be. *Polymetis* Dial. VI. 50. or.

^c Litekeena, diot nik. Baina hamar baten kontra egingo nuke apostu, ez dela.— Errepublikako lehen garaiez mintzo da Juvenal, luxurik eta handikeriarik ezagutzen ez zen garaiez, eta soldaduak harrapakinetako urrea eta zilarra bere zaldiaren tresnetarako

baino erabiltzen ez zuenekoa (Sat. IX, 100-107. b.).

Tunc rudis et Grajas mirari nescius artes

Urbibus eversis praedarum in parte reperta

Magnorum artificium frangebat pocula miles,

Ut phaleris gauderet equus, caelataque cassis

Romuleae simulacra ferae mansuescere jussae

Imperii fato, geminos sub rupe Quirinos,

Ac nudam effigiem clypeo fulgentis et hasta,

Pendentisque dei perituro ostenderet hosti.

Soldaduak basorik garestienak, artista handien maisulanak hautsi zituen, harekin otseme bat, Romulo eta Remo txiki batzuek egiteko, eta era horretan bere koraza apaintzeko. Dena da ulertzeko moduko, azken bi lerroetaraino, haietan poetak segitzen baitu antzinako soldaduen korazetan grabaturiko gisako irudietako bat deskribatuz. Irudi hori Marte jainkoa dela esateko adina ikusten da noski; baina zer esan nahi du itsasten dion *pendentis* izenlagunak? Rigault-ek antzinako glosa bat aurkitu zuen, berak *quasi ad ictum se inclinantis* bezala argitzen duena. Lubin-ek uste du irudia ezkutuan zegoela, eta ezkutua besoan zintzilik dagoenez, poetak ere irudia hegalaria dei zezakeela. Baina hori antolakuntzaren aurka doa. Izan ere, *ostenderet*-i dagokion subjektua ez da *miles* baizik *cassis*. Britanikok uste du, airetan dagoen oro zintzilik dagoela esan daitekeela,

eta gisa berean baita korazaren gaine-
an edo korazan bertan dagoen irudi
hau ere. Batzuek *perdentis* ere iraku-
rri nahi dute, geroago datorren *peri-
turo*-ri kontragartzeko, eta hori
beraiek bakarrik iritzi behar dute
eder. Eta zer dio, bada, Addisonen
zalantza honetan? Interprete guztiak,
dio berak, oker dabiltz, eta egiazko
ulermoldea hauxe da ezbairik gabe
(Ik. beren bidaia, alemanez itzulirik,
249. or.): «Soldadu erromatarrak
bere sortzaile eta beren errepublika-
ren gudazaletasunaz harro asko zeu-
delarik, beren kaskuetan Romuloren
lehen historia jartzeko ohitura zeuka-
ten, nola hura jainko batek ernaldu
eta otseme batek edoski zuen.
Jainkoaren irudia Ilia sazerdotisaren-
gana, edo beste batzuek izendatzen
duten bezala, Rhea Silviarengana
jaisten da, eta jaitsiera horretan bazi-
rudien birjinen gainean airean
hegatan ari zela, eta hori *pendentis*
hitzaren bidez egoki eta poetikoki
adierazia omen legoke. Niri argibide
hau burura ekarri zidan Belloriren-
gan dagoen azpierliebeaz aparte,
Antonino Pioren garaian jotako beste
txanpon batean aurkitu dut irudi
bera». Spencek Addisonen aurkikun-
tza hain izugarri bikaintzat jo due-
nez, non gisakoen artean eredutzat
eta adibide indartsuentzat jotzen
duen, antzinako artisten lanak poeta
erromatar klasikoak argitzeko zein
baliozko diren ikusteko, nik ezin etsi
dut hura hurbilagotik aztertu gabe
(Polimetis Dial. VII., 77. or.) Ezer
baino lehen ohartarazi behar dut
azpierliebeak eta txanponak soilik
nekez ekarriko ziotela burura
Juvenalen pasarte, baldin orobat
gogoratu izan ez balitzaio, eskoliasta

zaharrean, *Martis ad Iliam venientis
ut concumberet* glosa irakurri izan ez
balu, han azkenaurreko lerroan *ful-
gentis* ordez *venientis* irakurtzen
baita. Baina ez dezagun orain hartu
Addisonen hartzen duena, eta esan ea
orain arrastorik txikiena aurkitzen
den poetak Rhea buruan erabili duela
esateko? Esan, ea ez ote litzatekeen
benetako hysteronproteron (osagaiak
atzeko aurrera jartzea) bat, lehenbi-
zi otsemeaz eta haur txikiez mintza-
tzea, eta ondoren bere bizitza sor dio-
ten abenturaz? Rhea ez da oraindik
ama eta haurrak jada haitzaren
azpian daude. Esan ea maitasun ordu
bat zinez enblema egoki bat ote litz-
atekeen soldadu erromatar baten kas-
koan? Harro zegoen soldadua bere
fundatzailearen jainkozko jatorriaz;
ongi asko erakusten zuten hori otse-
meak eta haurrek; beharrezkoa al zen
oraindik Marte, benetako Marte bel-
durgarri bezala azalduko zuen jarre-
ran erakustea? Rhea ustekabeen
harrapatzen duen unea nahi adina
marmol eta txanpon zaharretan aurki
daiteke, baina horregatik egoki al
dator gudu jantzi baten atal baterako?
Eta zeintzuk dira, bada, marmolak
eta txanponak non Addisonen hori
aurkitu zuen, eta non berak Marte
jarrera hegalarian ikusi zuen? Berak
aipatzen duen azpierliebea Bellorik
eduki bide du. Baina antzinako
azpierliebe ederrenen bere bilduma
den «Admiranda» alferrik pasatuko
da orriz orri. Nik ez dut azpierliebe
hori aurkitu, eta Spencek ere ez han
ez beste inon ez bide du aurkitu, isil-
isilik pasatzen baita. Beraz, txanpo-
naren mende dago guztia. Begira
dezagun txanpona Addison beraren-

antzinako beste artelan batzuek, historia bera kontatzen dutenak, eta non Marte ez dagoen hegatan, baizik ibili dabilen. Ikus Montfauconen azpierrebea (Suppl. 1. t., 183. or.), oker ez banago Erroman Melliniren Palazioan aurkitzen dena. Rhea lo dago arbola baten azpian, eta urrats isilez hurbiltzen zaio Marte, eskuin eskua gure ostean daudenei atzean gelditze-ko edo isilik ibiltzeko agintzeko jartzan dugun bezala atzeraka luzatuz. Txanponean azaltzen den postura berbera da, bakarrik hemen lantza eskuinean daramala eta han ezkerrean. Estatua eta azpierrebea ospetsu nahikoa aurkitu da txanponetan kopiaturik, hemen ere gerta ez zedin; hemen ere grabatzaileak beharbada ez zuen ulertuko eta horregatik lantzez hobeto ulertuko zela usteko zuen. Orduan, honek guztiak batera jarrita, zenbateko probabilitatea gertatzen zaio Addisonen tesiari? Apenas batere, posibilitate hutsaz aparte. Baina nondik aterako dugu argibide hobea, honek balio ez badigu? Litekeena da Addisonen gaitzetsi dituenen artean bat hobea aurkitzea. Baina aurkitzen ez bada, zer orduan? Poetaren pasartea hondatuta dago; gera bedi halaxe, nahi badu. Eta hala gera ere gera daiteke, beste hogeitaz berri aterako balira ere. Halako bat izan liteke, esaterako, *pendentis* esanahi figuratuan hartzea, eta horrela zalantzazko, zalantzi, badaezpada-ko esan nahiko luke. *Mars pendens*, beraz izango litzateke *Mars incertus* edo *Mars communis* bezala. Dii communes sunt, dio Serviok (ad v. 118, lib. XII. Aeneid.). *Mars, Bellonna, Victoria, quia hi in bello utrique parti favere possunt*. Eta lerro osoak,

Pendentisque Dei (effigiem) perituro ostenderet hosti,

esan nahiko luke antzinako soldadu erromatarra ohituta zegoela, menderatuko zuen etsaiari jainko komunaren irudia erakustera. Ezaugarri oso fina, antzinako erromatarren garaienak gehiago beren kimen propioaren ondorio egiten dituen beren familiaren sortzailearen aldeko laguntzaren beldurrarena baino. Hala eta guztiz ere: non liquet.

^d «Nik aura hauek, airetako ninfa hauek ezagutu aurretik, dio Spencek (Polimetis Dialogue XIII. 208. or.), ezin nuen asmatu Cephalus eta Procris-en pasartea Ovidiogan. Ezin nuen inondik ere ulertu, nola Zefalusek *Aura venias* hots eginez, dei hori tonurik samur eta goxoenean eginda ere, norbaiti bere Prokris-ekiko desleial delakoaren susmo txarra sor diezaiokeen. Ohituta nengoez *aura* hitzaz haizea soilik, edo firfira samur bat ulertzera, zelorik zoroenak izan ohi diren baino askoz arrazoirik gabeagoak iruditu zitzaizkidan Prokrisen zeloak. Baina behin aurkitu nuenean *aura* neska gazte eder bat bezala airea izan daitekeela, auziak erabat bestelako esanahia hartu zuen, eta historiak itxura arrazoizkoa hartzen zuela iruditu zitzaidan». Spence hain harro daukan aurkikuntza honi testuan eskaini dizkiodan txaloak, ez dizkiot kendu nahi oharrean. Baina ezin utz dezaket azpimarratu gabe, hura gabe ere poetaren pasartea guztiz naturala eta ulergarria dela. Jakin behar da, izan ere, antzinakoen artean *aura* izen guztiz arrunta zela emakume esateko. Hala deitzen da, adibidez, Nonusengan (Dionys. XLVIII.

lib.) Dianaren jarraigoko ninfa bat; jainkosak zeukan edertasun gizatiarra baino gizatiarragoa omen zeukalako harrotzen zelako, bere lotsagabekeriagatik Bakoren besarkadak jasatera zigortua izan zen.

e Juvenal, Satyr. VIII, 52-55. b.

- - - - - At tu

Nil nisi Cecropides; truncoque simillimus Hermae:

Nulla quippe alio vinctis discrimine, quam quod

Illi marmoreum caput est, tua vivit imago.

Baldin Spencek idazle greziarrak beren egitasmoan sartu izan balitu, beharbada, baina beharbada ez, aurkituko zukeen Esoporen ipuin zahar bat, Hermesen pilare baten eraketatik Juvenalen pasarte honetatik baino argi askoz ederragoa eta bere ulerpenarako askoz beharrezkoagoa hartzen duena. «Merkuriok, kontatzen du Esopok, jakin nahi zuen zein irizitan zeukaten gizakiek. Bere jainkotasuna ezkutatu eta eskulturgile batengana joan zen. Han Jupiterren estatua begiztatu eta eskulturgileari galdetu zion zenbat balio zuen? Dagma bat, izan zen erantzuna. Merkuriok irribarre egin zuen: eta Juno honek? galdetu zion ondoren. Berdin gutxi gorabehera. Orduan bere irudi propioa sumatu zuen, eta bere baitan pentsatu: jainkoen mandataria naiz ni; nigandik dator irabazi oro; ni derrigor askoz gorago eduki behar naute. Eta hemengo jainko honek? (bere irudia adierazi zuen), zenbat balioko ote du horrek? Horrek? erantzun zion eskulturgileak. Oh, beste bi horiek erosten badiz-

kidazu, hirugarren hau dohan eman-go dizut». Txundituta geratu zen Merkuriok. Eskulturgileak ez baitzuen ezagutzen, eta hartaz ezin zuen izan haren berekoikeria mintzeko asmorik, baizik estatuen beraien izaeran oinarritua egon behar zuen, azkena hain gutxian estimatzeko arrazoia, hura erregalitzat emateko. Irudikatzen zuen jainkoaren duintasun txikiagoak ez zeukan horretan zerikusirik, eskulturgileak izan ere, bere obrak eskatzen duten trebeziaren, ahaleginaren eta lanaren arabera balioztatzen baititu, eta ez irudikatzen duten izakiaren mailaren edo balioaren arabera. Merkurioren estatua trebezia gutxiago, ahalegin eta lan gutxiago eskatu behar zukeen, Jupiter baten edo Juno baten estatua baino merkeago bazegoen. Eta hala gertatzen zen egiaz aukera honetan. Jupiterren eta Junoren irudiek jainko hauen soin osoa azaltzen zuten; Merkurioren estatua aldiz, hau ertzeko pilare txar bat zen, haren bularra bakarrik irudikatuz. Nola harritu, beraz, gehigarri bezala ematen bazuen? Merkuriok puntu hori ez zuen ikusi, bere begien aurrean ustezko merezimendu handiagoa baino ez zuelako, eta hala bere umiliazioa berezkoa bezain irabazia zen. Alferrik da Esoporen ipuin hauen interpreteen eta itzultzaileen eta imitatzailleen artean argibide honen arrastorik txikienaren bila ibiltzea; nik, gainera, pila oso bat aipa nitzake, mereziko balu, ipuina hitzez hitz ulertu duena, hau da batere ulertu ez duena. Guztiek han barruan dagoen desegokitasuna —baldin estatua guztiak zailtasun berekotzat jotzen badira— edota ez dute sumatu edo gehie-

gitu egin dute. Bestela ipuin honetan txokagarri gerta zitekeena, eskulturgileak bere Jupiterri ipintzen dion salneurria litzateke. Dagma bategatik ez luke eltzegile batek panpinik egingo. Dagma batek, beraz, gauza oso txiki baten esanahia dauka hemen (Fab. Aesop. 90. Edit. Haupt. 70. or.).

^f Tibulo, Eleg. 4., III. lib. Polymetis, VIII. Dial. 84. or.

^g Estazio, I. lib, Silb. 5, 8. b. Polymetis, VII. dial, 81. or

^h Lukrezio, de Rerum Natura, V. lib. 736-747 bb.:

It Ver, et Venus et Veniris praenuntius ante
Pinnatus graditur Zephyrus; vestigia propter
Flora quibus mater praespargens ante viai
Cuncta coloribus egregiis et odoribus opplet.
Inde loci sequitur Calor aridus, et comes una
Pulverulenta Ceres; et Etesia flabra
Aquilonum.

Inde Autumnus adit; graditur simul Evius
Evan:

Inde aliae tempestates ventique sequuntur,
Altitonans Volturnus et Auster fulmine
pollens.

Tandem Bruma nives adfert, pigrumque rigorem

Reddit, Hyems sequitur, crepitans ac dentibus
Algis.

Spencek pasarte hau Lukrezioaren poema osoko ederrenetakotzat dauka. Hauxe da gutxienez, Lukreziok poeta bezala duen ospea oinarritzen dutenetako bat. Baina egiaz haren ospea gutxitzea edo guztiz kentzea da, baldin esaten bada: badirudi deskribaketa hau guztia urtaro jainkotuen, beren jarraigo eta guzti, prozesio zahar

baten arabera egina dela. Eta zergatik hala? «Erromatarren artean, dio ingelesak, antzina gisako prozesioak, beren jainkoekin noski, gaurregun oraindik lurralde jakin batzuetan santuen ohoretan egiten direnak bezain ohikoak zirelako; eta gainera poetak hemen erabiltzen dituen adierazmolde guztiak prozesio bati guztiz egokitzten zaizkiolako» (come in very aptly, if applied to a procession). Bikainak arrazoiak, hauxek! Eta hainbat eragozpen jar lekizkioke azken honi. Hasteko, poetak abstraktu pertsonifikatuei ezartzen zizkien izenlagunek: *Calor aridus*, *Ceres pulverulenta*, *Volturnus altitonans*, *fulmine pollens* *Auster*, *Algidus dentibus crepitans* erakusten dute beren izateari berari, ez artistari esker daukatela izatea, honek erabat bestelako ezaugarriak ipini beharko baitzizkien. Badirudi, bestalde, prozesioaren ideia hau Abraham Preigem-i esker bururatu zitzaiola, honek poetaren pasarte honi buruzko oharretan esaten baitu: Ordo est quasi Pompae cujusdam, Ver et Vennus, Zephyrus et Flora etc. Poetak prozesio batean bezala paratzen ditu urtaroak; hori ongi da. Baina, prozesio batetik ikasi duela horrela paratzen... hori ergelkeria bat da.

ⁱ Eneida, VIII. lib. 728. b. Polimetis, Dial. XIV. 230. or.

^k Bere bidaietako eta antzinako txanponei buruzko bere elkarrizketako pasarte desberdinetan.

VIII

^a Polymetis, Dial. IX, 129. or.

^b Metamorph. IV. lib. 19-20 bb.

^c Begeri, Thes. Brandenb. III. t., 240. or.

^d Polymetis, Dial. VI, 63. or.

^e Polymetis Dialogue XX. 311. or. Scarce any thing can be good in a poetical description, which would appear absurd, if represented in a statue or picture.

^f Polymetis Dial. VII. 74. or.)

^g Argonat. Lib. II. 102-106. b.

^h Thebaid. Lib. Iv, 61-69. b.

IX

^a Valerio Flako, Kib. II, Argonaut., 265-273. b.

Serta patri, juvenisque comam vestisque Lyaei

Induit, et medium curru locat; aeraque circum

Tympanaque et plenas tacita formidine cistas.

Ipsa sinus hederisque ligat famularibus artus:

Pampineamque quantit ventosis ictibus hastam,

Respiciens; teneat virides velatus habenas

Ut pater, et nivea tumeant ut cornua mitra,

Et sacer ut Bacchum referat scyphus.

Azkenaurreko lerroko *Tumeant* hitzak, badirudi bestalde, adierazten duela Bakoren adarrak ez zituztela irudikatzen Spencek uste duen bezain txiki.

^b Erromako Medizitarren jardinean dagoen ustezko Bakok (Montfauconengan, Suppl. aux Ant. Expl. I. t., 154. or.) bekokian nabarmentzen diren adar txiki batzuek dauzka; baina badira aditu batzuek, horregati-

xe hain zuzen ere, faunotzat daukatenak. Egiaz, gisako adar naturalak giza irudiaren laido bat dira, eta gizakiaren eta aberearen arteko erdiko irudi moduko bat ematen zaien izaikiei dagokie bakarrik. Bestalde bere buruaren gainean eusten dituen mahatsei zuzentzen dien begiratu likitsa, egokiago datorkio ardoaren jainkoaren lagun bati, jainkoari berrari baino. Gogoan daukat hemen Klemente Alexandriakoak Alexandro Handiaz dioena (Protrept. 48. or., Edit. Pott):

μμ

μ

Alexandroren nahi agerikoa zen eskulturgileak adarrez irudika zezan: gogo onez onartzen zuen giza edertasuna berarengan adarren bidez itsusitua zedin, baldin jainkoazko jatorrizkotzat hartzen bazuten.

^c Nik gorago esaten nuenean antzinako eskulturgileek inolako furiarik ez dutela irudikatu, ez nuen ahazten furiek tenplu bat baino gehiago eduki dutela, eta tenplu hauek ez zeudela inondik ere estatuarik gabe. Zerineakoan Pausaniasek zurezko irudiak aurkitu zituen; ez ziren ez oso handiak, ez bereiziki miragarriak ere; badirudi haiengan azal ezin zitekeen artea, tenpluaren atarian zeuden bere sazerdotesen pilare-estatueta ezarri nahi izan zutela, harrizkoak eta lan oso ederrekoak zirenez (Pausanias «Acaic.» XXV. kap., 589. or. Edit. Kuhn). Gisa berean ez neukan ahaztuta haien buruak Chifflet-ek ezagutzera eman duen abraxas (harri landua, kutun bezala erabilia, irudi sinbolikoz hornitua)

batean, eta Liceti-rengan aurkitzen den argiontzi batean ikusi uste ditudala (Dissert. sur les Furies par Bannier. Memoires de l'Académie des Inscript., V. t. 48. or.). Baita ere ez da niretzat ezezaguna Gorigan (Tab. 151 Musei Etrusci) datorren eta Orestes eta Pylades azaltzen diren lan etruriar baten kutxa, nola han bi furia zuziak eskutan dituztela ari zaizkien molestatzten. Ni ordea arte-lanez ari nintzen, eta pieza hauek guztiak artelanean artetik at utzi uste ditut. Halere, beste alderdi batetik, azken hau bezala gainerakoak ere handik aldendu ezin banitu, horrek nire iritzia indartu egingo luke, ezeztatu orde. Izan ere, artista etruriarrek ederragatik lan egin ez duten bezala, hala orobat dirudi furiak ez dituztela irudikatu azpegi beldurgarriak jasoz, eta bai beren janzkera eta ezaugarriak kontuan hartuz. Furia hauek beren zuziak Orestesen eta Pyladesen begien azpian halako aurpegi bareez astintzen dituzte, non kasik badirudien bromatan izutu nahi dituztela. Orestesi eta Pyladesi zein izugarri iruditzen zaizkien, hauen beldurragatik iger liteke, ez inolaz furien itxuragatik. Beraz, furiak dira, baina orobat ez dira furiak; furien egitekoa betetzen dute, baina ez guk haien izenarekin uztartu ohi dugun amorru eta haserrearen itxuran; ez Katulok dioen *expirantis praeportat pectoris iras* agertzen duen bekokiak.— Duela gutxi oraindik Winckelmann jaunak Stoch-en kabinetean aurkitzen den agata gorri batean aurkitu uste du furia bat lasterka, gona eta ileak aireian, eta saskakai bat eskutan (Bibliothek der sch. Wiss. V. t., 30. or.). Aukera

honetan von Hagerdon jaunak gomendatu zien artistei aztarna hau hartu eta furiak beren pinturetan era honetan pinta zitzaizten (Betrachtungen über die Malerei, 22. or.). Baina Winckelmann jaunak geroago bere aurkikuntza hau berriro zalantzan jarri du, antzinakoek furiak zuzien orde zastakaiez hornitzen zituztela egiaztatu ez duelako (Descript. des Pierres gravées, 84. or.). Zalantzarik gabe beraz, Lyrba eta Mastaura hirietako txanponetan aurkitzen diren irudiak, eta Spanheim-ek furiatzat jotzen dituenak (Les Césars de Julien, 44. or.), berak ez dauzka halakotzat, baizik Hecate triformizat; izan ere, bestela hemen furia bat aurkituko litzateke, esku bakoitzean saskakai bana duela, eta harri-garria da hauxe hain zuzen ere bilo solte soiletan azaltzen dela, gainerakoetan oihala batez estalirik egon ohi direnean. Halere, demagun Winckelmann jaunari lehen unean iruditu zitzaion bezala direla kontuak, orduan harri landu horrekin kutxa etruriarrek gertatzen den gauza bera gertatzen dela, alegia lanaren txikitasunagatik ezin dela igarri azpeirik batere. Gainera, harri landu hauek, zigilu bezala erabili izan direlarik, hizkuntz sinbolikoari dagozkiola, eta beren irudiak jabearen artistaren obra libre baino sinbolo bereizi direla gehiago.

^d Polymetis, Dial. VII, 81. or.

^e Fast. lib. IV, 296-98 b.

Esse diu stultus Vestae simulacra putavi:

Mox didici cuno nulla subesse tholo.

Ignis inextinctus templo celatur in illo.

Effigiem nullam Vesta, nec ignis habet.

Ovidio Vestak Erroman zuen kultuaz ari da hemen, Numak eraiki zion tenpluaz bakarrik, aurreratxoago (259-60. b.) esaten duelarik:

Regis opus placidi, quo non metuentius ullum

Numinis ingenium terra Sabina tulit.

^f Fast. lib. III, 45.46 b.

Sylvia fit mater: Vestae simulacra feruntur

Virgineas oculis opposuisse manus.

Spence-k, beraz, Ovidio berarekin erkatu behar zuen. Garai desberdinez mintzo da poeta hemen. Hemen Numa aurreko garaiez, han haren ondorengo garaiez. Numa aurreko garaietan Italian irudi pertsonaletan zen gustua, Troian gurtua izan zen bezala, handik ekarri baitzuen Eneasek Italiara haren kultua.

— Manibus vittas, Vestamque potentem,

Aeternumque adytis effert penetralibus ignem:

dio Virgiliok Hektor-en espirituari buruz, honek Eneasi ihes egin dezan gomendatu ondoren. Hemen berariaz dago egina bereizkuntza betiko suaren eta Vesta beraren artean, edo haren irudiaren artean. Spencek ez bide ditu irakurri nahikoa arretaz poeta erromatarrak bere asmoetarako, pasarte honek ihes egin baitio.

^g Lipsius de Vesta et Vestalibus, 13. kap.

^h Pausanias Corinth. XXXV. kap. 194. or. Edit. Kuh.

ⁱ Idem Attic. XVIII. kap. 41. or.

^k Polyb. Hist. XVI. lib. § 11. op. t. II, 443. or. Edit. Ernest.

^l Plinio XXXVI. lib. 4. atala, 727. or. Edit. Hard: *Scopas fecit Vestam sedentem laudatam in Servilianis hortis*. Pasarte hau eduki bide zuen Lipsiok, idatzi zuenean (De Vesta, 3. kap.): *Plinius Vestam sedentem effingi solitam ostendit, a stabilitate*. Baina Pliniok Eskopasen pieza bakar batez dioena ez zukeen hartu behar ezaugarri orokor bezala. Berak ohar-tarazten baitu ohar-tarazten, txanponetan Vesta zutik bezain sarri azaltzen dela eserita. Baina horrekin ez zuen zuzentzen Pliniok dioena, baizik bere iritzi oker propio bat.

^m Georg. Codinus, «De Originib. Constant.», Edit. Venet. 12. or.

—
, μ
μ

. Suidas-
ek, Kodinorengandik edo biekin zaharrago batengandik hartuta, Estia hitzari buruz dio: «Lurra, Vesta hitzarenpean, bere barruan haize guztiak ezkutaturik dauzkalako tinpano bat daraman emakume baten gisan dago irudikatua». Arrazoia zabar samarra da. Jaramon gehiago egingo litzaioke baldin esan izan balu, tinpano bat alboan jarri zitzaio-lan haren irudia tinpanoaren antzeko zelako; μ μ —
(Plutarchus de placitis Philos. 10. kap. Id. De facie in orbe Lunae). Baina honetan Kodinok huts egin du ez bakarrik edo irudian, edo

izenean, edo beharbada bietan batera. Agian ez zekien Vestak zeukan hura izendatzeko tinpano baino beste ezer hoberik; edo honi tinpano deitzen entzungo zuen, eta horrekin guk danbor militar deitzen duguna izendatzeko musika tresna baino ez zitzaion bururatuko. *Tympana* gurpil mota bat ere baziren:

Hinc radios trivere rotis, hinc tympana plaustis

Agricolae —

(Virgilio, *Georgic.* II. lib. 444. b.). Eta gisako gurpil baten oso antzeko iruditzen zait niri Fabrettiren Vestan ikusten dena (*Ad Tabulam Iliadis*, 339. or.), eta aditu honek errotarritzat daukana.

X

a Polymetis Dial. VIII. 91. or.

b Statius Theb. VIII. 551. b.

c Polym. Dial. X. 137. or.

d Ibid. 139. or.

e Litekeena da Horaziok premiaz egiten duen pinturan, eta orobat antzinako poeta guztien artean ezaugarrietan oparoena den pinturan (*Lib. I*, 35. Oda):

Te semper anteit saeva Necessitas:

Clavos trabales et cuneos manu

Gestans ahenea; nec severus

Uncus abest liquidumque plumbum

—

litekeena da, ari nintzen esaten, pintura honetan iltzeak, ziriak, berun urtua, eusteko baliapide bezala edo zigortzeko lanabes bezala hartzea, baina halere beti gehiago dira eza-

garri poetikoak alegorikoak baino. Baina, gisa horretan ere, pilatuegiak daude, eta pasarte hau Horazioren hotzenetakoa da. Sanadon-ek dio: J'ose dire que ce tableau pris dans le détail seroit plus beau sur la toile que dans une ode héroïque. Je ne puis souffrir cet attirail patibulaire de clous, de coins, de crocs, et de plomb fondue. J'ai cru en décharger la traduction, en substituant les idées generales aux idées singulières. C'est dommage que le Poète ait eu besoin de ce correctif. Sanadonek begi zorrotza eduki zuen, baina hura egiaztatzeko erabili nahi duen arrazoa ez da zuzena. Ez erabiltzen diren ezaugarriak Attirail patibulaire bat direlako; bere esku zegoen, izan ere, beste argibide bat hartzea eta urkamendiko tresneria eraikuntzako euskarri irmoen bihurtzea: baizik, ezaugarri guzti horiek berariaz begiarentzat jarriak daudelako, eta ez belarriarentzat, eta guk begien bidez jaso behar ditugun ezaugarri guztiek, belarriaren bidez eman nahi bazaizkigu, neke gehiago eskatzen dutelako eta argitasun gutxiago emateko gai direlako.— Bidenabar, hona ekarri dugun Horazioren odaren segidak Spenceren oker pare bat dakartzat gogora, aipatzen dituen antzinako poeten pasarteak aztertu omen dituen zehaztasunari dagokionez, iritzirik onena sortzen ez dutenak, hain zuzen. Erromatarrek leialtasuna edo zintzotasuna irudikatzeko erabiltzen zuten irudiaz mintzo da (*Dial. X.* 145. or.): «Erromatarrek, dio, *Fides* deitzen zuten; eta *Sola Fides* deitzen bazuten, badirudi berezitasun horren mailarik gorena, guk erro-erroko zintzotasuna (ingelesez *downright*

honesty) deitzen duguna ulertzen zutela. Aurpegikera libre eta ireki batez eta gardentzat har daitekeen bezalako soineko fin eta mehe bat baino ez zuela. Horaziok horregatik bere odatako batean *mehe jantzia* deitzen du; eta beste batean *garden*». Pasarte labur honetan badaude gutxienez hiru oker nahikoa zabar. Lehenbizi, okerra da, *Sola* erromatarren Fides jainkosari ematen zioten izenlagun bereizi bat denik. Berak horren froga gisan eskaintzen dituen Liviores bi pasarteetan (Lib. I, c. 21, Lib. II. c.3) ez du esan nahi alde guztietan esan nahi duena baino, alegia gainerako guztia alde batera uztea. Pasarteetako batean gainera, badirudi kritikoari *solī* susmagarri iruditu zaiola, hain zuzen ere haren ondoan aurkitzen den *solemne* hitzaren eraginez testura iraulitako idazteko akats bat. Bestean, ordea, mintzagaia ez da leialtasuna, baizik errugabezia, zigor-ezintasuna, *Innocentia*. Bigarren: Horaziok bere odatako batean leialtasunari *mehe-jantzia* izenlaguna jarri omen zion; hain zuzen ere gora-go aipaturiko lehen liburuko hogeita hamabosgarrenean:

Te spes, et albo rara fides colit

Velata panno.

Egia da *rarus* mehe ere badela; baina hemen bakan esan nahi du, gutxitan gertatzen dena, eta *Fides* beraren izenlaguna da, eta ez haren jantziarena. Arrazoi luke Spencek baldin poetak esan izan balu: *Fides raro velata panno*. Hirugarren: beste pasarte batean deitu omen zuen Horaziok leialtasuna edo zintzotasuna *garden*; hain zuzen ere guk adiskidetasuna ziurtatzeko esan ohi duguna adieraz-

teko: nahiago nuke nire bihotza ikusi ahal izango bazenu. Eta pasarte horrek lehen liburuko hemezortzigarren odako bertso honek izan behar omen du:

Arcanique Fides prodiga, pellucidior vitro.

Nola engaina dezake bat horrela hitz bakar batek? *Fides arcani prodiga* leialtasuna al da? Edo ez al da gehiagoko leialtasun eza? Honengatik dio Horaziok kristala bezain gardena dela, haren esku utziriko sekretuak denen begien aurrean jartzen dituelako.

XI

^a Apolok Sarpedon-en gorpu garbitu eta gantzutua Herioaren eta Loaren esku uzten du, bere sorterrira eraman dezaten (II. XVI, 681-682 b.):

μ μ μ μ
μ μ μ μ

Caylus-ek ipuin hau pintoreari gomendatzen dio, baina gaineratzen du: Il est fâcheux, qu'Homère ne nous ait rien laissé sur les attributs qu'on donnait de son temps au Sommeil; nous ne connaissons, pour caractériser ce dieu, que son action même, et nous le couronnons de pavots. Ces idées son modernes; la première est d'une médiocre service, mais elle ne peut être employée dans le cas présent, ou même les fleurs me paraissent déplacées, surtout pour une figure qui groupe avec la mort (Tableaux tirés de l'Iliade, de l'Odysée d'Homère et de l'Enéide de Virgile, avec des observations générales sur le costume, à Paris 1757.8).

Honek esan nahi du bere estilo handiaz nekez batera daitekeen apainduriatxo txiki bat eskatzen zaiola Homerori. Loari eman ziezazkiokeen izenlagunik esanguratsuenek ez lukete inondik ere zertuko, askogatik ere ez lukete gugan irudi hain bizirik piztuko, herioaren anaia biki bihurtzen duen ezaugarri bakarrak bezain ongi. Saia bedi artista ezaugarri hau adierazten, eta utz ditzake lasai gainerako atributu guztiak alde batera. Guk bikien artean berezko ikusten dugun antz berarekin irudikatu dituzte zinez herioa eta loa antzinako artistek. Elisko Junoren tenpluan izeiezko kutxa batean biak atsedean hartzen daude mutiko bezala gauaren besoe-tan. Bata, ordea, zen zuria, eta bestea berriz beltza; hura lo zegoen, hau lo itxurak egiten ari zen; biek hankak bata bestearen gainean jarrita zituztela. Izan ere, Pausaniasen μ

μμ hitzak (Eliac. XVIII. kap. 422. or. Edit. Kuh) nahiago ditut horrela itzuli eta ez *hankak konkorturik zituztela*, edo *les pieds contrefaits*, Gedoyn-ek bere hizkuntzan egin duen bezala. Zer adierazi nahi dute, gero, hemen hanka konkortuek? Bata bestearen gainean jarritako hankak, berriz, lo egiteko postura ohikoa da, eta loa Maffei-gan (Raccol. Pl. 151) ez dago beste era batean. Loak eta herioak antzinakoengan beren artean duten antza erabat alde batera utzi dute gaurko artistek, eta ohitura bihurtu da herioa hezurdura soil bezala, edo gehienara azal soilez estaliriko hezurdura gisan irudikatzekoa. Ezer baino lehen Caylusek hemen artistari aholkatu beharko ziokeen ea herioaren irudikapenean antzinako usadioa

edo berria erabili behar zuen. Baina badirudi berriaren alde jokatzeko duela, herioa ikusten baitu lorez koroaturik dagoen beste batekin talde batean jarri nahiko ez lukkeen irudi bezala. Baina aukera honetan pentsatu al du zein gaizki letorkeen ideia moderno hau pintura homerotar batean? Eta nolatan ez zaio txokagarri gertatu ideia horren nazkagarrikeria? Ez zait buruan kabitzen Florentziako Dukeen galerian etzanda, beso batez errautsezko ontzi batean atsedean hartzen dagoen hezurdura bat irudikatzen duen metalezko irudi txikia (Spenceren Polymetis, Tab. XLI) benetan antzinakoa denik. Herioa behintzat ez du inolaz ere irudikatzen, antzinakoek hura beste era batera irudikatzen zuten. Antzinako poetek ere ez dute sekula pentsatu gisako irudi nazkagarri batean.

^b v. Hagedorn, Betrachtungen über die Malerei, 159. or. etah.

^c Ad Pisones, 128-30 b.

^d Lib. XXXV, 36. at. 700. or. Edit. Hard.

^e Pintura batean ikuslearen arreta irudi nagusitik ezerगतik ere, nahiz hori gauzarik ederrena izan, ez dela desbideratu behar agintzen duen araua argitzeko aipatzen du Richardsonek obra hau. «Protogenesek», dio berak, «Ialysus bere pintura ospetsuan eper bat jarri zuen tartean, eta hura halako arteaz pintatu ere pintatu zuen, non bizirik zegoela zirudien, eta Grezia osoak mirensten zuen; baina, irudi nagusiaren kaltetan, begi guztiak erakartzen zituen, hura guztiz ezabatu zuen» (Traité de la Peinture, I. t. 46. or. Richardson oker dabil. Eper hori ez zegoen Ialysusen, Satiroa atsedetan

edo nasaia, SaturoV anapauomenoV, zeritzon Protogenesen beste pintura batean baizik. Plinioren pasarte oker ulertu batetik sortu den akats hau nik ez nukeen ohartaraziko, baldin Meursius-engan ere aurkitu izan ez banu (Rhodi lib. I. 14. kap. 38. or.): In eadem, tabula sc. in qua Ialysus, Satyrus erat, quem dicebant Anapavomenon, tibias tenens. Gauza bera Winckelmann jaunarengan (Von der Nachahm. der Gr. W. in der Mal. u. Bilh., 56. or.). Estrabon da eperren istoriotxo honen berme bakarra, eta honek berariaz bereizi egiten du Ialysus eta gainean eper bat zeukan pilare batean apoiaturik dagoen satiroa (Lib. XIV. 750. or. Edit. Xyl.). Horregatik Plinioren pasarte (Lib. XXXV. 36. at. 699. or.) oker ulertu dute Meursiusek eta Richardsonek eta Winckelmannek, ez baitira konturatu han bi pintura aipatzen direla: bata, hura zela eta, Demetriok hiria ez zuen eraso, hura zegoen lekua eraso nahi ez zuelako; eta bestea, erasoaldi bitartean Protogenesek margotu zuena. Hura zen Ialysus, eta hau berriz Satiroa.

XII

^a Iliada XXIII, 385. b. eta h.

^b Jainkoen ikustezinezko borroka hau imitatu du Kinto Kalaber-ek bere hamabigarren liburuan (158-185. b.), bere erdua hobetzeko asmo garbiz. Badirudi, izan ere, gramatikariari desitxurosoa iruditu zaiola jainko bat harrikada batez lurrera botatzea. Egia da Ida menditik ateratzen dituzten haitz puska handiez elkarri harrika ematen jartzen dituela jainkoak; baina haitz hauek jainkoen atal hilez-korrak jotzean txikitu egiten dira, eta

hondarra bezala zabaltzen dira haien inguruan:

μ μ

μ

Funtsezkoena hondatzen duen atrikulu bat da. Jainkoen gorputzei buruz guk daukagun ustea handitu egiten du, eta elkarren kontra erabiltzen dituzten armak barregarri bihurtzen ditu. Jainkoek elkarri harriak botatzen badizkiote, harri horiek jainkoei min eman beharko diete, edo bestela mutiko bihurri batzuek ikusi uste ditugu, elkarri zokorrekin erasoka ari direla. Hala bada, Homero zaharra beti izango da jakintsuena, eta kritikotzak egin diezaiokeen gaitzespen orok, jeinu eskasagoek harekin egin dezaketen apostu orok, ez dute beste ezertarako balioko ez bada haren jakituria argi gardenagoan jartzeko. Halere ezin uka dezaket Kintoren imitazioan xehetasun egokirik aurkitzen ez denik, egile honenak direnak gainera. Baina xehetasun hauek ez dira hainbeste Homeroren handitasun zohardiari egokitzen zaizkionak, aldiz bai poeta berriago baten su oldartsuari ohore egingo lioketenak. Zeru goietan eta amiletan durundatzen duen jainkoen oihua, mendia eta hiria eta itsasoa astintzen duena, gizakiek ez entzutea, nire ustez baliabide oso esanguratsua da. Giza entzumenaren tresna txikiek jaso zezaketen baino handiagoa da garrasia.

. Iliada V. 744.

$$\begin{array}{l} \mu_1 = 1, \quad \mu_2 = 1 \\ \mu_3 = 1, \quad \mu_4 = 1 \\ \mu_5 = 1, \quad \mu_6 = 1 \\ \mu_7 = 1, \quad \mu_8 = 1 \end{array}$$

oihalean ikustera gaizki ohituta gauden handitasunean pentsatzen ditugunean. Baina, pinturari gisako neurri izugarriak irudikatzea onartzen ez zaion bezala, eskulturari hein batean onartzen zaio; eta ziur naiz, antzinarako maisuek, jainkoen forma bezala, beren estatuei maiz ezarri ohi dizkieten kolosalatasuna, Homerogandik mailegatu dutela (Herodoto, II. lib. 130. or. Edit. Wessel). Kolosalatunari buruzko ohar zenbait, eta zergatik hain eragin handikoa den, eta pinturak apenas eraginik duen, beste leku baterako uzten dut.

^e Iliada V, 23. b.

^g Iliada 446. b.

^h Iliada, id. 321. b.

i Egia da, noski, Homerok jainkota-
sunak inoiz edo behin hodei batean
babesten dituela, baina beste jainko-
tasunen aldetik ikusiak izatea nahi ez
dutenean bakarrik. Adibidez, Iliada
XIV, 282. b. Junok eta Loak hera
essamenw Ida aldera jotzen dutene-
an, jainkosa zuhurraren kezkarik
handiena zen Venusek aurki ez
zezan, erabat bestelako bidaia baten
aitzakian bakarrik utzi baitzion gerri-
koa. Liburu berean (344. b.) urrezko
hodei batek inguratu behar du
Jupiter, irritsez beterik, bere emazte-
arekin, honek bere ezezko lotsorrak
albora zitzaiz:

187

batzuetara Homerok Jupiterri esan arazten dionean:

$$\begin{array}{c} \mu \\ \mu \end{array}$$

hortik ez da ondorioztatzen hodei horrek ezkutatuko zukeela bakarrik gizakien begietatik; baizik horrekin nahi du hodei horretan gizakientzat beti den bezain ikustezinezko izatea jainkoentzat. Era berean, Minervak Plutonen burubabesa jantzi zuenean (Iliada, V. 845. b.), —horrek hodei batean ezkutatzek adinako eragina zuen—, ez zuen hori egin troiarrek ikus ez zezaten, hauek edota ez baitzuten ikusten edo Esteneloren itxurapean ikusten baitzuten, baizik azken batean Martek bera ezagut ez zezan.

XIII

^a Iliada, I, 44-53. b. Tableaux tirés de l'Iliade, 7. or.

^b Iliada, IV, 1-4. b. Tableau tirés de l'Iliade, 30. or.

XIV

^a Tableaux tirés de l'Iliade, Avert. p. V. On est toujours convenu, que plus un poème fournissoit d'images et d'actions, plus il avoit de supériorité en poésie. Cette réflexion m'avoit conduit à penser que le calcul des différents tableaux, qu'ofrent les poèmes, pouvoit servir à comparer le mérite respectif des poèmes et des poètes. Le nombre et le genre des tableaux que presentent ces grands

ouvrages, auroient été une espèce de pierre de touche, ou plutôt une balance certaine du mérite de ces poèmes et du génie de leurs auteurs.

^b Guk pintura poetiko deitzen duguna, fantasia deitzen zuten antzinakoez, Longinogan ikus daitekeenez. Eta guk ilusio, pintura hauen atzipetzaila deitzen duguna, enargia deitzen zuten haiek. Horregatik Plutarkok adierazten duen bezala, batek esan omen zuen (Erot. II. t. Edit. Henr. Steph. 1351 or.): fantasia poetikoak izango lirateke, bere enargiagatik, esna daudenen ametsak; —

Poztuko nintzateke baldin poetikako testuliburu berriak izendatzeko modu honetaz baliatuko balira eta pintura hitza guztiz albora utziko balute. Erdi egiazko diren arau pila bat aurreztuko zigutekeen, haien arrazoirik inportanteena izen arbitrario baten hoshkidetasuna baita. Gizon batek ez lituzke hain erraz hertsiko fantasia poetikoak pintura material baten esparruan; baina fantasiak pintura poetiko deitu bezain laster, jarria zegoen okerrerrako arrazoia.

XV

^a Iliada, IV. 105. b.

$$\begin{array}{c} \mu \\ \mu \end{array}$$

	μ	Lege zuzenena! indarra ezkon bedi graziaz,
μ	,	gorputz eder batean arima eder bat bizi da.
μ μ	,	Hemen lerratzen da belar apala, laino arrea antzo,
	μ	naturak bere hostoa gurutz gisan eman ziona;
	μ	lore samurrak erakusten ditu bi moko urreztatuak,
	μ	amatistaz egindako txori batek dakartzanak.

XVI

^a Iliada, V, 722-31 b.

* Iliada, ibid. 43-47 b.

^b Iliada II, 101-108 b.

^c Iliada I, 234-239 b.

^d Iliada IV. 105-111. b.

Han botatzen du hosto distiratsu batek, hatzetan bilbaturik, errekaeto argi batera dirdai orlegia; loreen elur samurra, purpura suabe batek koloreztatzen duena, biltzen du izar marraduna izpi zuritan.

Esmeralda eta arrosa loratzen dira orobat larre zapalduan,

eta haitzak purpurazko jantziz estaltzen dira.

XVII

^a Von Haller jaunaren Die Alpen.

Han altxatzen da errostarren buru garaia

belar arrunten koru apalaz gaindi,

lore herri oso bat zerbitzen bere ikur-rinpean,

bere anaia urdina bera makurtzen da eta ohoratzen du.

Loreen urre argia, izpietan inguraturik,

lehiatzen da zurtoinean, eta koroatzten du bere jantzi arrea.

Hostoen zuritasun dizdizaria, berde sakonez zuindurik,

diamante hezearen distira koloretuan.

^b Bretinger, Kristische Dichtkunst, II. t. 807. or.

^c Georg. III. lib. 51. eta 79. b.

^d De Ad Pisones, 16. b.

^e Prologue to the Satires, 340. b.

That not Fancy's maze he wander'd long

But stoop'd to Truth, and moraliz'd his song.

Ibid. 148. b.

- — — — who could take offence,

While pure Description held the place of Sense?

Warburton-ek azken pasarteari buruz egiten duen oharrak poetaren

beraren egiazko argibidetzat balio dezake. He uses *pure* equivocally, to signify either chaste or empty; and has given in this line what he esteemed the true Character of descriptive Poetry, as it is called. A composition, in his opinion, as absurd as a feast made up of sauces. The use of a picturesque imagination is to brighten and adorn good sense; so that to employ it only in Description, is like childrens delighting in a prism for the sake of its gaudy colours; which when frugally managed, and artfully disposed, might be made to represent and illustrate the noblest objects in nature. Poetak bezala komentariogileak badirudi auzia alderdi moraletik begiratu dutela gehiago artistikotik baino. Hala hobe, alde batetik bezala bestetik ere ezerezaren pareko baitirudi.

^f Poétique Française, II. t. 501. or. J'écrivois ces réflexions avant que les essais des Allemands dans ce genre (l'Eglogue) fussent connus par nous. Ils ont exécuté ce que j'avois conçu; et s'ils parviennent à donner plus au moral et moins au détail des peintures physiques, ils excelleront dans ce genre, plus riche, plus vaste, plus fécond, et infiniment plus naturel et plus moral que celui de la galanterie campêtre.

XVIII

^a Gedanken über die Schönheit und über den Geschmack in der Malerei, 69. or.

^b Iliada, V. 722. b.

^c Iliada, XII, 294. b.

^d Dionysius Halicarnass. in Vita Homeri, apud Th. Gale in Opusc. Mythol. 401. or.

^e Serviok Virgiliori beste aitzakia bat ematen diola iruditzen zait. Serviok, izan ere, sumatu du bi ezkutuak arteko alde: Sane interest inter hunc et Homeri Clypeum: illic enim singula dum fiunt narratur; hic vero perfecto opere noscuntur: nam et hic arma prius accipit Aeneas, quam spectaret; ibi postquam omnia narrata sunt, sic a Thetide deferentur ad Achillem (625. b., VIII. kib. Eneida). Eta zergatik hori? Servioren ustez Eneasen ezkutan ez bakarrik poetak aipatzen dituen gertaera gutxiak datozelako, baizik

- — — genus omne futurae

Stirpis ab Ascanio, pugnataque in ordine bella

jarrita zeudelako. Nola zitekeen, izan ere, Vulkanok ezkutua lantzen zuen azkartasun berarekin poetak aipa zezan ondorengoan zerrenda luze osoa izen eta guzti, eta haiek egindako guda guztiak sailez sail? Horixe da Servioren hitz ilunsamarren zentzua: Opportune ergo Virgilius, quia non videtur simul et narrationis celebritas potuisse connecti, et opus tam velociter expediri, ut ad verbum posset occurrere. Eta Virgiliok *non enarrabili texto Clypei*-ko zerbaitxo baino eman ezin zuenez, ezin zuen hori egin Vulkano lanean ari zen bitartean; aldiz dena amaitu arte itxaron behar zuen. Virgiliori opako nioke, Servioren argudio honek guztiak funtsik izan ez dezan; nire aitzakiak ohore handiagoa eskainiko lioke. Izan ere, nork agindu zion his-

toria erromatar osoa ezkutu batean ipini zezan? Koadro gutxi batzuekin bihurtu zuen Homerok bere ezkutua munduan gertatzen den guztiaren laburbilduma. Ez dirudi, bada, Virgiliok greziarra gainditu ezin zuenez pinturaren gaitan eta gauzatzean, haien kopuruan gutxienez gainditu nahi izango zuela? Eta zer litzateke hori baino funts gabekoagorik?

^f Eneida, VIII. lb. 447-54 b.

XIX

^a Scuto ejus, in quo Amazonum praelium caelavit intumescens ambitu parmae; ejusdem concava parte Deorum et Gigantum dimicationem. Plinius, XXXVI. lib. 4. atala, 726. or. Edit. Hard.

^b Iliada XVIII, 497-508. b.

^c 509-540. b.

^d Lehenbizikoa hasten da 483. bertsoan eta 489. eraino doa; bigarrena 490-509. artean doa; hirugarrena 510-540. artean; laugarrena 541-549. artean; bosgarrena 550-560. artean; seigarrena 561-572. artean; zazpigarrena 573-586. artean; zortzigarrena 587-589. artean; bederatzigarrena 590-605. artean; eta hamargarrena 606-608. artean. Hirugarren pinturak, halere, ez dauzka esan ditugun hasierako hitzok; baina nahikoa garbi ikusten da bigarrenaren hasierako en de duw poihse poleis hitzetatik, eta auziaren beraren izaeratik pintura bereizi bat izan behar duela.

^e Phoc. XXV-XXXI. kap.

^f Poperi buruz hau esatea ez dela gehiegi esatea frogatzeko bere hizkuntza berean aipatu nahi dut berak

dakarren pasartearen hasiera (Iliada, V. t. Obs. 61. or.): That he was no stranger to aerial Perspective, appears in his expressly marking the distance of object from object: he tells us etc. Nik diot Popek hemen *aerial Perspective*, aireko perspektiba (Perspective aërienne) oso oker erabili duela, alegia urruntasunaren neurriaren arabera gutxitzen den handitasunarekin zerikusirik batere ez balu bezala, baizik koloreen ahultzea eta aldatzea airearen edo hura ikusteko pasatu behar ditugun bitartean gaitasunaren arabera ulertzen du hura. Halako oker bat egiten duenari zilegi zaio auzi horretaz ezertxo ere ez jakitea.

^g Betracht. über die Malerei, 185. or.

^h 1763.eko urtean idatzia.

XX

^a Constantinus Manasses Compend. Chron. 20. or. Edit. Venet. Dacier anderea oso pozik zegoen Manassesen erretratu honekin, tautologiak salbu: De Helenae pulchritudine omnium optime Constantinus Manasses, nisi in eo tautologiam reprehendas (Ad Dictyn Cretensem I. lib. 3. kap. 5. or.). Mezeriac-i jarraiki (Comment. sur les Épîtres d'Ovide, II. t. 361. or.) Helenaren edertasunaz Dares Phrygius-ek eta Cedrenus-ek ematen duten deskribaketa ere aipatzen du. Nahikoa bitxi dirudien marra bat azaltzen da lehenean. Dares-ek esaten baitu Helenari buruz, bekainen artean orin bat zuela: notam inter duo supercilia habentem. Ez zen bada, hori, polita izango? Nahiago nukeen emakume

dutenak; hementxe eratzen da irribarre maitagarri hura, berez jada paradisu bat lurean irekitzen duena. Elur zuria da lepo ederra, eta esnea bularra, lepoa biribila, bularra betea eta zabala. Bi esfera samur eta biribil, marfilezko, doaz eta datoz bigun, firfira jolasti batek itsasoa erasotzen duenean uhinak bezala itsasertz bazterrean» (Gainerako atalak Argosek berak ere ezin ikusi ahal izango zituen. Baina erraz asma zitekeen ezkutuan zegoena begien aurrean zegoenarekin guztiz bat zetorrela). «Besoak dagozkien luzeeran azaltzen dira, esku zuria zerbait luzexegoa, eta zabalero estukoa, erabat berdina, ez da nabarmentzen zainik bere azalero leunean. Irudi bikain honen amaieran ikusten da oin txiki, lehor eta biribila. Ez dago oihalik zerutik sortu diren aurpegi aingeruzkoak ezkutatuko dituenik» (Meinhardt jaunaren itzulpenaren arabera *in Versuche über den Charakter und die Werke der besten Ital.* Dicht. II. t. 228. or.)

^c (*Dialogo della Pittura, intitolato l'Aretino*, Firenze 1735, 178. or.). Se vogliono i Pittori senza fatica trovare un perfetto esempio di bella Donna, legano quelle Stanze dell'Ariosto, nelle quali egli descrive mirabilmente le bellezze della Fata Alcina: e vedranno parimente, quanto i buoni Poeti siano ancora essi Pittori.

^d (Ibid.) Ecco, che, quanto alla proportion, l'ingeniosissimo Ariosto assegna la migliore, che sappiamo formar le mani de' piu eccellenti Pittori, usando questa voce industri, per dinotar la diligenza, che conviene al buono artefice.

^e (Ibid. 182. or.) Qui l'Ariosto colorisce, e in questo suo colorire dimostra essere un Titiano.

^f (Ibid. 180. or.) Poteva Ariosto nella guisa, che ha detto chioma bionda, dir chioma d'oro: ma gli parve forse, che havrebbe havuto troppo del Poetico. Da che si puo ritrar, che'l Pittore dee imitar l'oro, e nun meterlo (come fanno i Miniatori) nelle sue Pitture, in modo, che si possa dire, que' capelli non sono d'oro, ma par che risplendano, come l'oro. Dolce ondoren Athenäus-engandik harturrik, aipatzen duena harrigarria da, baina kontua da ez dela aurkitzen berak aipatzen duen eran. Beste leku batean mintzatuko naiz horretaz.

^g (Ibid. 182. or.) Il naso, che discende giu, havendo peravventura la consideratione a quelle forme de' nasi, che si veggono ne' ritratti delle belle Romane antiche.

^h Eneida, IV, 136. b.

ⁱ Od. XXVIII-XXIX.

^k , II. t. 461. or. Edit. Reitz.

XXI

^a Iliada, III, 121. b.

^b Iliada, 329. b.

^c Iliada, 156-56. b.

XXII

^a Val. Maximus III. lib. 7. kap. Dionisio Halikarnasokoa, Art. Rhet. 12. kap.

^b Fabricii Biblioth. Graec. II. lib. 6. kap. 345. or.

^c Pliniok Apelesi buruz dio (XXXV. lib. 36. atala, 698. ord. Edit. Hardt):

[illegible]

Qualis in Eurotae ripis, aut per juga
Cynthi

194

rrenek erabat beste modu batera fin-
katurik zeuden jainkoen ohituretara
aldatu behar zituzten? Horaziok
Venusen kontura esaten duenean
(Od. IV. I, lib.):

Iam Cytherea chorus ducit Venus,
imminente luna:

Iunctaeque Nymphis Gratiae decen-
tes

Alternò terram quatiunt pede — —

hauek ere jainkoen zerbitzuko dantza
sagaratuak ziren? Hitz gehiegi ari
naiz alferrik galtzen halako lelokerie-
kin.

^d Iliada I, 528. or. Valerius Maxi-
mus, III. lib. 7, kap.

^e Plinio IX. lib. 51. atala, 616. or.
Edit. Hard.

^f Idem XXXIV lib. 19. atala, 651.
or. Ipse tamen corporum tenuis curio-
sus, animi sensus non expressisse
videtur, capillum quoque et pubem
non emendatus fecisse, quam rudis
antiquitas instituisse.

^g Ibid. Hic primus nervos et venas
expressit, capillumque diligentius.

^h Zergliederung der Schönheit. 47.
or. Berlingo argitalpena.

ⁱ Iliada III, 210-211. b.

XXIII

^a Philos. Schriften des Hrn. Moses
Mendelsohn, II. t. 23. or.

^b De Poetica, V. kap.

^c Paralipom. I, kib. 720-775. b.

^d Lear Erregea, I. ekit. II esk.

^e The Life and Death of Richard III,
I. ekit. I esk.

XXIV

^a Briefe die neueste Literatur betref-
fend, V. t. 102. or.

^b De poetica, IV. kap.

^c Klotzii epistolae Homericae, 32. or.
eta hh.

XXV

^a Ibidem 103. or.

^b Nubes, 169-174. b.

^c The Connoisseur, I. lib. 21. zkia.
Knonmquaiharen edertasunari buruz
esaten da: He was struck with the
glossy hue of her complexion, which
shone like the jetty down on the black
hogs of Hessaqua; he was revished
with the prest gristle of her nose; and
his eys dwelt with amiration on the
flaccid beauties of her breasts, which
descended to her navel. Eta zer ekar-
pen egin zuen arteak hainbesteko
lilurari argi egokia emateko? She
made a varnish of the fat of goats
mixed with soot, with which she
anoined her whole body, as she
stood beneath the rays of the sun; her
locks were clotted with melted grea-
se, and powdered with the yellow
dust of Buchu: her face, which shone
like the polished ebony, was beauti-
fully varied with spots of red earth,
and appeared like the sable curtain of
the nighth bespangled with stars: the
sprinkled her limbs with wood-das-
hes, and perfumed them with the
dung of Stinkbingsem. Her arms and
legs were entwined with the shining
entrails of an heifer: from her neck
there hung a pouch composed of the
stomach of a kid: the wings of an
ostrich overshadowed the fleshy pro-
montories behind; and before she

wore an apron formed of the shaggy ears of a lion. Bikote enamoratuaren ezteien zeremonia gaineratuko dut: The Surri or chief priest approached them, and in a deep voice chanted the nuptial rites to the melodious grumbling of the Gom-Gom; and at the same time (according to the manner of Caffraria) bedewed them plentifully with the urinary benediction. The bride and bridegroom rubbed in the precious stream with extasy; while the briny drops trickled from their bodies; like the oozy surge from the rocks of Chirigriqua.

^d , μ μ , 18. or. edit. T. Fabri.

^e Scut. Hercul. 266. or.

^f Philoct. 31-39 b.

^g Eneida, II. lib. 277. b.

^h Metamorph. VI. 387. or.

ⁱ Ibid. VIII. lib.

^k Hym. in Cererem, 109-116. b.

^l Argonaut. II. lib. 228-33. b.

^m The Sea-Voyage, III. ekit. I. esk. Itsaslapur frantses bat bere itsasontziarekin uharte mortu batera botea da. Diru-nahiak eta inbidiak jendea banatzen dute, eta horrek uharte honetan premiarik larrienean denboraldia egin duten zoritxarreko biri aukera ematen die itsasontziaz itsasoratzeke. Jaki guztiak bat-batean galtzen dituztelarik, ezdeus haiek berehala ikusten dute heriotza lazgarriena begien aurrean, eta batak besteari adierazten dio bere gosea eta bere etsipena gisa honetan:

LAMURE. Oh, what a tempest have I in my stomach!

How my empty guts cry out! My wounds ake,

Would they would bleed again, that I might get

Something to quench my thirst.

FRANVILLE. O Lamure, the happiness my dogs had

When I kept house at home! They had a storehouse,

A storehouse of most blessed bones and crusts,

Happy crusts. Oh, how sharp hunger pinches me!

LAMURE. How now, what news?

MORILLAT. Hast any meat yet?

FRANVILLE. Not a bit that I can see;

Here be goodly quarries, but they be cruel hard

To gnaw: I ha' got some mud, we'll eat it with spoons,

Very good thick mud; but it stinks damnably,

There's old rotten trunks of trees too,

But not a leaf nor blossom in all the island.

LAMURE. How it looks!

MORILLAT. It stinks too.

LAMURE. It may be poison.

FRANVILLE. Let it be any thing;

So I can get is down. Why man,

Poison's a princely dish.

MORILLAT. Hast thou no bisket?

No crumbs left in thy pocket? Here is my doublet

Give me but three small crumbs.

FRANVILLE. Not for three kingdoms,

If I were master of 'em. Oh, Lamure,
But one poor joint of mutton, we
ha'scorn'd, man.

LAMURE. Thou speak'st of paradise.

FRANVILLE. Or but the snuffs of
those healths,

We have lewdly at midnight flang
away.

MORILLAT. Ah! but to lick the glas-
ses.

Baina hori apenas den ezer, itsason-
tziko kirurgialaria azaltzen den
hurrengo eszenarekin konparatuz:

FRANVILLE. Hore comes the
Surgeon. What

Hast thou discover'd? Smile, smile
and comfort us.

SURGEON. I am expiring,

Smile they that can. I can find not-
hing, Gentlemen,

Here's nothing can be meat, without
a miracle.

Oh that I had my boxes and my lints
now,

My stupes, my tents, and those sweet
helps of Nature,

What dainty dishes could I make of
'em.

MORILLAT. Hast ne'er an old sup-
pository?

SURGEON. Oh would I had, Sir.

LAMURE. Or but the paper where
such a cordial

Potion, or pills hath been entomb'd.

FRANVILLE. Or the best bladder
where a cooling-glisten.

MORILLAT. Hast thou no searchcloths
left?

Nor any old pultesses?

FRANVILLE. We care not to what it
heath been ministred.

SURGEON. Sure I have none of
these dainties, Gentlemen.

FRANVILLE. Where's the great wen
Rhou cut't from Hugh the sailor's
shoulder?

That would serve now for a most
princely Banquet.

SURGEON. Ay if we had it,
Gentlemen.

I flung it over-bord, Slave that I was.

LAMURE. A most improvident
Villain.

ⁿ Richardson, *De la Peinture*, I. t, 74.
or.

XXVI

^a Geschichte der Kunst, 347. or.

^b Ez Apolodoro, baizik Polidoro.
Plinio da artista hau aipatzen duen
bakarra, eta ez dut uste esku-izkri-
buek beren artean alderik dutenik
izen honi dagokionez. Harduin beste-
la jabetuko zen. Antzinako argitalpen
guztietan ere Polidoro irakurtzen da.
Winckelmann jaunak oker idatzi bide
du txikieria honetan.

^c

μ

. Phoc. 9. kap. 819. or.
edit. Hard.

^d Plinio, XXXIV. lib. 19. atala, 653.
or. Edit. Hard.

^e XXXVI. lib. 4. atala, 730. or.

^f Boeotie, XXXIV. kap. 778. or.
Edit. Kuhn.

^g Plinio, XXXVI. lib. 4. atala, 730. or.

^h Geschichte der Kunst, II. t., 332. or.

ⁱ Plinio, l.c. 727. or.

^k Ad ver 7, lib. II. Aneid. eta bereizi-ki ad ver. 183 lib. XI. Ez litzateke, bada, oker bat izango baldin gizon honen idatzi galduen zerrendari hau bezalako obra bat gaineratuko bali-tzaio.

^l Plinio, XXXVI. lib. 4. atala, 729. or.

XXVII

^a Geschichte der Kunst, II. t. 347. or.

^b Libr. XXXVI, 4. atala, 730. or.

^c Ikus antzinako artelanetako idaz-tien zerrenda Mar. Gudius-engan (ad Phaedri fab. I, V. lib.) eta begira Gronov-ek (Praef. ad Tom. IX. Thesauri Antiqu. Graec.) egiten diz-kion zuzenketak.

^d I. lib, 5. or. Edit. Hard.

^e Hala agintzen du behintzat egingo duela: «quae suis locis reddam». Baina erabat ahaztu ez bazaio ere, bidenabar egin du eta ez bere hitzeta-tik espero zitekeen moduan. Berak, adibidez, idazten duenean (Lib. XXXV. 39. atala): Lysippus quoque Aeginae picturae suae inscripsit, : quod profecto non fecisset, nisi encaustica inventa, garbi dago hori erabat bestelako gauza baterako erabiltzen duela. Baina baldin horrela, Hardui-nek uste duen bezala, orobat bere goiburua aoristoan idatzirik daukan obretako bat adierazi nahi badu,

orduan mereziko zukeen hari buruz hitz erditxo bat esatea. Gisa honetako beste bi obrak pasarte honetan aurki-tzen ditu Harduinek: Idem (Divus Augustus) in curia quoque, quam in comitio consecrabat, duas tabulas impressit parieti: Nemeam sedentem supra leonem, palmigeram ipsam, adstante cum baculo sene, cujus supra caput tabula bigae dependet. Nicias scripsit se inussisse: tali enim usus est verbo. Alterius tabulae admiratio est, puberem filium seni patri similem esse, salva aetatis diffe-rentia, supervolante aquila draconem complexa. Philochares hoc suum opus esse testatus est (Lib. XXXV, 10. atala). Augustok kontseiluko etxe berrian eskegi zituen bi pintura des-berdin deskribatzen dira hemen. Bigarrena Filokares-ena da, Nizias-ena lehenbizikoa. Hari buruz esaten dena argi eta garbi esana dago. Niziasen obran sortzen dira zailtasu-nak. Nemea irudikatzen zuen, lehoi baten gainean eserita, palmondo ada-rra eskuetan, eta ondoan gizon zahar bat makila eskutan duela; «cujus supra caput tabula bigae dependet». Zer esan nahi du honek? Bere burua-ren gainean pintura bat zeukala eske-gita, eta han bi zaldiko orga bat zego-ela pintatuta? Hauxe da hitz horiei eman lekiekeen zentzu bakarra. Beraz, pintura nagusiaren gainean beste pintura txikiago bat zegoen eskegita? Eta biak ziren Niziasenak? Hala ulertu bide du Harduinek. Izan ere, non leudeke bestela Niziasen bi pinturak, bestea berariaz Filokare-sena bada? Inscriptis Nicias igitur geminae huic tabulae suum nomen in hunc modum: *O NIKIAS ENEKAU - SEN*; atque adeo e tribus operibus,

quae absolute fuisse inscripta, ILLE FECIT, indicavit Praefatio ad Titum, duo haec sunt Niciae. Harduini galdetu nahiko nioke: baldin Niziasek ez aoristoa baizik inperfektoa erabili izan balu, baina Pliniok ohartarazi nahi izan balu soilik artistak, grajein orde,z, enkaiein erabili duela, ez al zukeen esan beharko bere hizkuntzan Nicias scripsit se inussisse? Ez dut tematu nahi honetan; baliteke Plinioren asmoa izatea, auzitan ditugun obretako bat era horretan adieraztea. Baina nor komentzituko du koadro bikoitzaren horrekin, bata bestearen gainean dagoela? Ni sekula ez. Cujus supra caput tabula bigae dependet hitzak faltsutuak baino ezin dute egon. Tabula bigae, pintura bat, bi zaldiko orga bat gainean pintatua daukana, ez du Plinioren zantzu handirik, Pliniok bigae singularrean erabiltzen badu ere. Eta zein motatako zaldizko orga? Esaterako, Joko Nemeatarretan lasterketetan erabiltzen zirenetakoa; orduan, koadro txikiago hau, zer irudikatzen duen kontuan hartuz, koadro nagusiarena litzateke? Ezinezko da hori; Joko Nemeatarretan, izan ere, ez ziren erabiltzen bi zaldiko orgak, lauokak baino (Schmidius in Prol. ad. Nemeonicas, 2. or.). Azken aldian bururatu zait Pliniok *bigae* hitzaren orde, z hitz greko bat idatzi zuela, kopistek ulertu ez zutena, alegia hitza. Guk, izan ere, badakigu Zenobiok (cfr. Gronovius, IX. t. Antiquit. Graec. Praef. 8. or.) dakarren Antigonus Carystius-en pasarte bati esker, antzinako artistek ez zituztela sarri ipintzen beren izenak beren obretan, baizik koadroari edo estatuari eskegitzen zitzaion taulatxo

batean. Eta halako taula deitzen zen . Litekeena da hitz hau eskuizkribuan glosa baten bidez *tabula*, *tabella* hitzez argitua izatea; eta azkenik *tabula* sartu zen testuan. Eta *bigae* bihurtu zen; eta horrela sortu zen *tabula bigae*. Ondoren datorrena dago horren alde. Pasarte osoa, beraz, irakurriko litzateke: *cujus supra caput dependet, quo Nicias scripsit se inussisse*. Baina zuzenketa hori, aitortzen dut nahikoa ausarta da. Oker dagoela frogatu daitekeen guztia zuzentzen jakin behar al da? Nik aski dut oker dagoela frogatzea, eta gainerakoa esku hobe bati uzten diot. Baina berriro auzira itzuliz, baldin Pliniok, beraz, Niziasen pintura batez badiardu, eta gisa horretako bigarren koadroa gorago aipaturiko Lisiporena bada, norena da hirugarrena? Nik ez dakit hori. Plinioz aparte, antzinako beste idazleren batean aurkitu ahal izango banu, ez nuke beldurrik. Baina Pliniogan aurkitu behar da; eta berriro diot: honengan ez dakit non aurkitu.

XXVIII

^a Gesch. der Kunst, II. t. 394 or.

^b I. kap.

^c Hala dio Estaziok, *obnixa pectora* (Thebaid. IV. lib. 863. or.)

- — — — rumpunt obnixa furentes

Pectora

eta hori Barth-en glosatzaile zahar-
rak *summa vi contra nitentia* bezala
argitzen du. Hala dio Ovidiok
(Halievt. 11. b.) *obnixa fronte*, arta-
rrainaz (Scaro) mintzo denean, ez

baita ausartzen bide egiten sareetan
barna buruaz baizik isatsaz:

Non audet radiis obnixa occurrere
fronte.

XXIV

^a Peri UyouVm tmhma id. Edit. T.
Fabri 36. 39. or.

^b De Pictura Vet. I. lib. 4. kap. 33. or.

^c Von der Nachahmung der griech.
Werke, e.a. 23. or.

^d μ μ .

^e Geschichte der Kunst, I. 136. or.

^f Herodoto, De Vita Homeri, 756.
or. Edit. Wessel.

^g Gesch. der Kunst, I. t. 167. or.
Plinio, XXXV lib. 36. atala.
Athenus XII. lib. 543. or.

^h Gesch. der Kunst, II. t. 353. or.
Plinio, XXXVI lib. 4. atala. 729. or. I.
27.

ⁱ Gesch. der Kunst. II. t. 328. or.
«Antigona, bere lehen tragedia, hiru-
rogeita hamazazpigarren Olinpiadan
antzeztu zuen». Garaia hori da gutxi
gorabehera, baina bere tragedia
Antigona zela guztiz oker dago.
Winckelmann jaunak oinean aipatzen
duen Samuel Petit-ek ez du hori ino-
laz ere esan; baizik Antigona lauro-
geita laugarren Olinpiadako hiruga-
rren urtean finkatu du. Sofokles
hurrengo urtean Samos-era joan zen
Periklesekin batera, eta ibilaldi horren
urtean zehaztasun osoz finka daiteke.
Nire Sofoklesen bizitzan erakusten
dut Plinio Zaharraren pasarte batekin
erkatuz, poeta honen lehen tragedia,
ziurrenera, Triptolemo izan zela.
Pliniok, izan ere, (Lib. XVIII. 12.

atala, 107. or.) lurralde desberdineta-
ko gariaren kalitateaz mintzo delarik,
bukatzen du: Hae fuere sententiae,
Alexandro magno regnante, cum cla-
rissima fuit Grecia, atque in toto
terrarum orbe potentissima; ita tamen
ut ante mortem ejus annis fere CXLV
Sophocles poeta in fabula Triptolemo
frumentum italicum ante cuncta lau-
daverit, ad verbum translata sententia:
«Et fortunatam Italiam frumento
canere candido».

Egia da, hemen ez dela zehazki min-
tzo Sofoklesen lehen tragediaz; baina
gutziz bat datoz Plutarkok eta
Skoliastak eta Arundelgo monumen-
tuek aho batez laurogeita hamazazpi-
garren Olinpiadan finkatzen duten
garaia eta Pliniok Triptolemo jartzen
duena, eta hain bat datoz non
Triptolemo hori Sofoklesen lehen
trajedia bezala onartu beste erreme-
diorik ez dagoen. Ehun eta hama-
laugarren Olinpiadan hil zen
Alejandro; ehun eta berrogeitabost
urtek hogeita hamasei Olinpiada eta
urte bat egiten dituzte, eta kopuru
hau hari kenduz, hirurogeita hama-
zazpi ematen du. Hirurogeita hama-
zapigarren Olinpiadan, beraz, toka-
tzen da Sofoklesen Triptolemo, eta
hain zuzen ere, nik frogatzen dudan
bezala, Olinpiada honetako azken
urtean dator poeta honen lehen trage-
dia: hartaz berez dator ondorioa, ale-
gia tragediak biak bat bera direla.
Hantxe bertan azaltzen dut Petitek
bere Miscellaneorum obrako biga-
rren erdi osoa (XVIII. lib. III,
Winckelmannek aipatzen duen pa-
sarte bera) aurreztu zezakeela. Ez
dago inolako beharrik berak zuzendu
nahi duen Plutarkoren pasartean
Archon Aphepsion Demotion, edo

aseysioV bezala bihurtzeko. Nahikoa izango zukeen 77. Olinpiadako hiru-garren urtetik laugarrenera pasatzea, eta han aurkituko zuen urte horretako arkontea antzinako idazleek sarri, ez bada sarriago, Afesio deitzen dutela Fedon baino. Fedon deitzen du Diodoro Sikulok, Dionisio Halikarnasokoak eta ezezagunak Olinpiaden beren zerrendetan. Afesio, berriz, deitzen dute Arundelgo marmolek, Apolodorok, eta azken honek aipatzen duen Diogenes Laertiok. Plutarkok bere aldetik bi eratara deitzen du: Fedon Teseoren bizitzan, eta Afesio Zimonen bizitzan. Horregatik litekeena da, Palmeriok uste duen bezala, Apheksionem et Phaedonem Archontas fuisse eponymos; scilicet uno in magistratu mortuo, suffectus fuit alter (Exervit. 452. or.). Sofoklesi buruz, gogoan daukat oraindik, Winckelmann jaunak Arte grekoetako

imitazioari buruzko obran (8. or) oker bat bota zuela. «Gazte ederrenek bilusik egiten zuten dantzan teatroan, eta Sofokles, Sofokles handia, zen lehena bere gaztetan ikuskizun hori bere herritarrei eman ziena». Teatroan ez du Sofoklesek biluzik dantzan egin; baizik trofeoen inguruan Salaminako garaipenaren ondoren, eta batzuen ustez biluzik eta beste batzuen ustez jantzita (Athen. I. lib. 20. or.). Sofokles, izan ere, Salaminara segurtasunera eramana izan ziren mutikoetako bat zen; eta uharte honetan izan zen tragediaren musak bere hiru kutunak mailaketa sinboliko batean bildu zituen lekua. Eskilo kementsuak garaitzen lagundu zuen; Sofokles gazteak trofeoen inguruan egin zuen dantzan, eta Euripides garaipenaren egunean jaio zen uharte zoriontsu honetan.

JOANHUARTEREN ZIENTZIETARAKO ARGIMENEN AZTERKETA

Non berak gizakien baitan aurkitzen diren gaitasun desberdinak
azaltzen dituen, bakoitzari zehazten dion berari dagokion
jakinduriaren atala,
eta azkenik gurasoei aholkuak ematen dizkien nola izan
ditzaketen haur kapazak eta jakintzetara grinatuak.

ITZULTZAILEAREN SARRERA

Jakitun espainiarretatik gutxi izango dira Joan Huarte bezain ezagunak, eta ez bere pertsonari dagokionez, bai ordea bere obrari, noren itzulpena hemen eskaintzen dugun: izan ere, berari dagokionean, Senekaren esakuna, edo haren ordeztu frantziar bat hobetsi nahi bada, de la Bruyere jaunarena egiaztatzen da: asko ezagutzen dira eta asko ezagutu beharko lirateke. Ezin zenbatuzko erdi-adituak sartu dira bere jaiotegunekin eta heriotza-egunekin, bere emazteekin eta haurrekin, bere idazti eta idaztitxoekin hilezkortasunaren erregistroan: gizona bera bakarrik, bere mendearen mugez gaindi pentsatzen zuena, ezer arruntarekin jarduten ez zuena eta bide berriak irekitzeko nahikoa zuhur zena, ez da aurkitzen han bere izenez, bere bizitzako gorabehera txikienekin bere obrako atal honetan edo bestean argi oso polita isur dezaketenean. Bien bitartean, halere, nire irakurleek niri eska diezadakete handik eta hemendik erdies daitekeen guztia eman diezaiedan.

Joan Huarte Donibane Garazin jaio zen, Behenafarroako hiri txiki batean, Errobi ibaiaren ondoan. Puntu hau ezaguna da, berak bere obraren izenburuan esaten baitu *natural de Sant Juan del pie del Puerto*. Bere jaioteguna, aldiz, ezezaguna da; eta Antoniusek (Nebrija) bere liburutegi espainiarrean ez daki besterik esaten ez bada 1580 urte inguruan bizi zela. Zerbait hurbilago jakin nahi duenak aski izango du hurrengo usteekin. Liburuak idaztea, esaten da

obra honen hasieran bertan, adimenak bera gauza den indar guztiak lortu dituen adinera arte atzeratu behar dela. Adin hori hogeita hamai-ka eta berrogeita hamaika urte bitartean finkatzen du berak. Uste baldin bada, egiantz handienaz uste behar den bezala, arau hau ematen duenak, berak bete egingo zuela, orduan atzeraka jo daiteke obra bakar hau lehen aldiz argitaratu zuen 1566tik, eta ziurtasun osorik gabe kalkula daiteke 1520. urte inguruan jaio zela. Eta baldin pentsatzen bada garai horretako eta aurreko urteetako gorabeheretan, ez da zaila izango beste uste baieztagarri bat ematea, alegia nola gure Joan Huarte espainiar bezala bere jaioterritik kanpo, Donibane Garazin, orain Frantziako koroarena den, baina garai hartan Nafarroako Erresumakoa zen hirian jaio zela. Nork ez daki, izan ere, 1512. urte inguruan Ferdinandus Catholicus Espainiako erregeak aita sainduaren anatema Johannes Labretanus-en kontra burutu zuela eta Nafarroako erresuma osoa bereganatu zuela? Ez al da, beraz, erraza gure Huarteren gurasoak armada espainiarrarekin ingurune honetara etorri izana?

Alcala de Henaresen egin zituela ikasketak, hein batean ondoriozta daiteke Antonius Nebrissensis-en hileta hitzaldiak dioenagatik; nahiz guk bere jaioturte bezala onartu dugun urtearen arabera ezinezko den guztiz, bera han egon izana, Antonius 1522an hila baitzen dagoeneko. Hemen estudiatu edo Salamancan estudiatu, garbi dagoena da bereiziki medikuntzara dedikatu zela eta fakultate honetan hartu zuela doktore titulua. Ondoren praktikatu egin zuen eta denborarik gehiena Madrilén geratu zen, eta han hil ere hil zen zalantzarik gabe. Bere heriotzaren garaiaz ez dakit nik ezer, ezpada 1590. urte inguruan ez zela gehiago bizi.

Eta hauxe da nik bere bizitzaz esan dezakedan guztia. Huskeria bat gaineratu nahiko nuke nik oraindik, barregarri delako bederen, jaso dadin merezi duena. Huartek zoroen artean kontatua izateko zoritxarra izan du, eta hain zuzen ere D. Seligman izan da bere *sciagrafia virium imaginationis* obran beragatik idatzi duena: *Huartus Hispanus se regem in delirio arbitratus prudentissimos de regimine faciebat discursus*. Oker harrigarri hau gezurtatzeko zilegi bekit irakurlea Huartek 56. orrialdean paje zoro bati buruz kontatzen duenera bidaltzea; eta segituan ikusiko da nirekin gogoratu gabe, edota D. Seligmanek berak edo Le Grand-ek —honen historia naturala aipatzen baitu hark— kontakizuna dagokionarekin nahastu duela kontatzen duena.

Huarteren bizitzari buruz esateko hain gutxi eduki dudan bezala, asko esan nezakeen bere obrari buruz, baldin sarrera baten denborak eta lekuak horretarako aukera emango balute. Bere hizkuntzan *Examen de Ingenios para las ciencias* eman zion izenburu. Alemanian *Scrutinium ingeniorum* titulupean egin da ezaguna. Hauxe da izan ere, Joachim Cäsar, edo berak hizkiak aldatuz bere burua izendatzen duen bezala, Aeschacius Major-ek 1612.ean argitaratu zuen latinezko itzulpenaren titulua. Gizon honek ongiegi egin nahi izan zuen lana, espainierazko argitalpenak, berak eskuratu ahal zituen guztiak, ez bakarrik beren artean erkatu zituelako, baizik denak batera bere itzulpenaren oinarritzat hartu zituelako. Beren eskua bere idaztietatik sekula kentzen ez dakiten aditu horietakoa zen Huarte. Azterketa bat egiten zuen bakoitzean, argitalpen berriak ez zuen kasik antzik aurrekoarekin. Aldatu, ezabatu, laburtu, luzatu egiten zuen. Orduan, latinezko itzultzaileak gidatzen azken argitalpena hartu ordez, denak batera bakar batean irauli zituen eta pasarterik gehienetan obra hain nahastua eta kontraesanez betea egin zuen, non higuinez baino ezin daitekeen irakurri. Harritzekoa da, orduan, baldin jokabide honen bidez bera jatorrizkoa faltsutu eta beretik asko sartu izanaren susmopean erori bada? Honetaz gainera aurpegiaratu nioke hainbat pasartetan espainieraren zentzua faltsutu izana, baldin honetan nire lanari abantaila bat emateko baliabide bezala ikusiko ez balitz. Gutxienez, ordea, onar bekik hau esatea, alegia arrazoirik inportanteenetako bat zergatik egin dudan alemanierazko itzulpen bat da hain zuzen ere orain arte erabil zitekeen latinezkoaren balio txikia. Liburuak ez du galdu oraindik bere bikaintasuna, nahiz han barruan aurkitzen den filosofatzeko modua nahikoa modatik pasatua den. Gaur oraindik bera da gai horretan daukagun bakarra, eta zientzia guztian izugarritzko eragina izan du. Eta gurasoek eta irakasleek, oro har ezagun bihurtzeko finegiak diren makina bat egia, han ikas ditzaketela ziur bada, orobat da ziur ezin aurpegira daki-daketela alferrikako zerbaite egin izana.

Bestalde, Huartek obra honetako 88. orrialdean adierazten duenean liburuak idaztea jeinu handi eta asmatzaileei bakarrik utzi behariko litzatekeela, esan nahi du zalantzarik gabe bere burua halakotzat zeukala. Baldin bere printzipioen arabera bera deskribatu beharko balitz, berarengatik esan beharko litzateke: ausarta da, ez du jokatzeko iritzi arrunten arabera, guztia era bereizi batean juzgatzen eta gidatzen

du, bere pentsamendu guztiak askatasunez azaltzen ditu eta bera da bere buruaren gidaria. Baina gauza jakina da gisako espirituak mila paradoxatan jausten direla; eta irakurle erazkoa ez da harrituko gisako pila desente aurkitzen badu. Gogoan hartzen bada idazlearen mendea, gogoan hartzen bada bere erlijioa, bere okerrei buruz ere iritzi on bat egingo du irakurleak. Gaurko garai askoz argituago hauetan begietara nabarmen azaltzen diren eta laburtasunagatik albo batera utzi ditugun oker nabarmenegi egindakoekin, erruki izan behar da. Nik, edozein modutan, bera konbaratzen dut zaldi kementsu batekin, sekula ez baitu horrek harrietatik surik ateratzen, ez bada estrapozo egiten duenean.

POPE, METAFISIKO?

Alferrik ukatu nahiko litzateke saiakera hau Jakintzen Erret Akademia Prusiarrak berriki jarritako egitekoak eragin duela; eta arrazoi hori ez da, hartaz, inolaz ezkutatu. Baldin, ordea, irakurleak horregatik, bere senargaia —bere lagunekin harentzat dantza egin baitu— erdietsi ezin duelako amorruz jendaurrean bere burua nabarmen jartzen duen neska polit bat gogora etorriko balitzaio, konbarazio ustel bat egingo luke ziurtasun osoz. Akademiako epaileek, beste inork baino hobeto, jakingo dute idazti honek ez diela inolako nekerik sortu. Izan dira gorabehera batzuek lana bidaltzea eragotzi dutenak, baina inprentaren bidez ezagutaraztearen kontrako ez direnak. Gorabehera horietako bat baino ez aipatzearren... bi *egile* ditu, eta horregatik ezin agertu ahal izango zuen beste goiburu batekin, ez bada honekin:

Compulerant — greges Corydon et Thyrsis in unum.

Eta demagun, garaile ateratzen zela! Nolako liskarra sortuko zen idazleen artean! Eta, hauek gustura daude liskarrik gabe.

EGITEKOA

Dena da on esakunean laburbiltzen den Poperen sistemaren azterketa eskatzen du akademiak. Gisa honetan, alegia:

Lehenbizi esaldiaren egiazko zentzua, sortzailearen hipotesiaren arabera, zehaztuz.

Bigarren, hura optimismoaren edo onenaren aukeraren sistemarekin zehatz konparatuz.

Hirugarren, arrazoiak emanaz, zergatik Poperen sistema honi eutsi edo uko egin behar zaion.

Dena da on esakunean laburbiltzen den *Poperen Sistemaren* azterketa eskatzen du akademiak.

Barkatzeko eskatzen dut, baldin hasiera bertatik aitortu behar badut gaia adierazteko modua ez zaidala egokiena iruditzen. Izan ere, Talesek, Platonek, Krisipok, Leibnizek eta Spinozak eta kontaezin ahala bestek, aho batez aitortzen dutenez: *dena on dela*, orduan hitz hauetan edota sistema guztiak edo bat bera ere ez dira kabitzen. Bakoitzak bere sistematik atera duen ondorio dira, eta agian beste ehunetatik aterako dena. Sistemarik gabe filosofatu dutenen aitortza dira. Baldin hor tartean aurkitzen diren arazo guztiak erabakitze kanon bihurtu nahi badira, erosotasuna aurkituko litzateke horretan arrazoa baino gehiago. *Jainkoak hala nahi izan du, eta Jainkoak hala nahi izan duenez gero, ona izan behar du*: erantzun oso erraza da, ezer konpontzen ez duena. Horrekin zapuztua izango da bat, ez argitua. Alferren mundu-jakituriaren zatirik garrantzitsuena da; zer da, izan ere, alferrago, naturako gertakari bakoitzaren aurrean Jainkoaren nahira jotzea baino, pentsatu gabe ea dagokigun kasu hau Jainkoaren nahiaren objektu bat izan zitekeen?

Baldin orduan sendo uste ahal izango banu egiteko akademikoa asmatu duenak *Dena da on* hitzetan egiaz sistema bat aurkitzea eskatzen duela, gogo onez galdetuko nioke ea sistema hitza ere hitz honek izan behar duen esanahi hertsian hartu behar den? Berak, arrazoiz, espero dezake ordea zentzuari bere hitzei baino hertsiago hel diezaiogun. Batez ere, okerreko hitzak arren, egiazko zentzua sumatzen bada, hemen esakunaren ondorengo xehetasunetan nahikoa garbi gertatzen den bezala.

Honen ondorioz, beraz, uste dut akademiak eskatzen duela Popek aurkitu edo onartu duen sistemaren azterketa, *dena on delako* egia horren bitartez sendotzeko edo handik ondorioztatzeko edo bestela nahi dena egiteko. Baina ezin esan daiteke sistema hitz horietan *dagoela*. Ez dago inolaz premisak ondorioan dauden bezala, ondoriozta zitekeen sail luze batetik bat baino ez baita.

Aurpegira dakiket beharbada txikikeria hauetan luzatu izana.
—Harira, beraz! *Poperen sistemaren azterketa bat*—

Ezin dut horretan pentsatu, aldez aurretik nolabaiteko harriduraz galdetu gabe: Nor da Pope? — Poeta bat — Poeta bat? Zer egiten du Saulek profeten artean? Zer egiten du poeta batek metafisikoen artean?

Halere, poeta batek ez dauka zertan denbora guztian poeta izan beharrik. Ez dut kontraesanik ikusten orobat filosofoa ere izatean. Bere bizitzako udaberrian maitasunaren jainkoen eta grazien artean, musen eta faunoen artean, abar-aga eskutan, hegabiraka dabilena bera ere bil daiteke bere urteen udazken helduan mantu filosofikoan, eta gaztetako irria gizonaren seriotasunaz truka dezake. Aldaketa hau, gure arimako indarrak garatzen diren moduari ondo dagokio.

Baina beste galdera batek deusezten zuen aitzakia hau. —Noiz? Non jokatu du Popek nik aitortzen ez diodan metafisiko bezala? — Hain zuzen, ere poesiako artean bere gaitasuna gehien erakusten zuenean. Poesia batean. Poesia batean, beraz, eta egiaz izen hori hertsienik merezi zuen poesia batean, akademia oso batek azterketa merezi duen bezalakotzat jo duen sistema eraiki du? Hala beraz, berarengan poeta eta filosofo zorrotza —sistematikoa baino zorrotzagorik ez dago— ez dira bi irudi elkarren artean trukutzen direnak, baizik bera da une berean biak; da bata, bestea den bitartean? Zaila egiten zitzaidan hori — Hala eta guztiz ere, era guztietan horretaz komentzitu nahi nuen. Eta azkenik honoko pentsamendu hauek hartu zuten leku.

BEHI-BEHINEKO AZTERKETA

ea poeta batek, poeta denez, sistema bat eduki ote dezakee
deitzen ditudanak.

Hemen agian aukera nukeen *Sistema* hitzaren argibide bat aurreti bidaltzeko. Baina, goian salatu dudan apaltasunean segituko dut. Hain desegoki bezain alferrikako al da filosofo bilkura bati, hau da, buru sistematiko bilkura bati esatea, zer den sistema bat?

Apenas komeni den hari esatea zer den poesia bat; baldin hitz hau era hain desberdinetan definitua izan ez balitz eta nik erakutsi beharko ez banu zein erizten dudan erosoena azterketarako.

Poesia da berbaldi *sensible* erabateko bat. Gauza jakina da zenbat hartzen duten beren esanahian *erabateko* eta *sensible* hitzek eta nola jarri behar den argibide hau gainerako guztien aurretik, poetaren naturaz hain arinki hitz egin nahi ez denean.

Sistema bat, beraz, eta berbaldi *sensible* bat. Oraindik ez da begien aurrean behar bezain argi jartzen bi gauza hauen kontraesana. Hemen eskuartean dugun kasu bereizira mugatuko naiz, eta sistema-tzat oro har sistema metafisikoa hartuko dut.

Egia metafisikoen sistema bat, beraz, eta berbaldi *sensible* bat; biak batera —Ez ote dute elkar deusezten?

Zer egin behar du, ezer baino lehenago metafisiko batek? — Erabiliko dituen hitzak argitu behar ditu; definitu dituen esanahian baino ez ditu erabili behar; ez ditu nahastu behar itxuraz berdina den beste inorekin.

Hauetatik zein betetzen du poetak? Bat bera ere ez. Soinu goxoa bera dagoeneko nahikoa arrazoi da beretzat, esamolde bat beste baten ordeztatzeko, eta sinonimoen aniztasuna edertasuna da beretzat.

Erantsi bekio honi figuren erabilera — Eta zertan datza haien esentzia? — Egia hertsian ez geratzean; batean gehiegi, hurrengoan gutxiegi esatean, — *Böhme* den gisako metafisiko bati bakarrik barka dakioke hori.

Eta metafisikoaren ordena? — Etengabeko ondorioetan, errazenetatik zailenetara doa metafisikoa; ez du ezer hartzen aurrez; ez du ezer uzten atzean. Baldin egiak era *sensible* batean hazten ikusi ahal balitezke, haiekiko dugun komentzimenduak igotzen dituen mailen arabera joango litzateke haien hazkuntza.

Ordena bakarrik! Zein zerikusi dauka poetak horrekin? Eta gainera ordena hain esklaboa. Poetaren ispirazioari dagokionez, ez dago ezer hori baino kontrakoagorik.

Nekez utziko lidateke pentsamendu apenas ukitu hauek aurrea eramaten, esperientzia kontragarri gabe. Baina esperientzia bera ere nire alde dago. Ba al dago niri galdetu beharrik ea Lukrezioaren poesia ezagun dudan; ea badakidan bere poesiak Epikuroren sistema jasotzen duela? Gisako beste batzuek aipatuko balizkidate, lasai-lasai erantzungo nuke: Lukrezio eta bere gisakoak bertsogileak dira, baina

ez poetak. Ez dut ukatuko sistema bat hitz neurtutan edo errima eta guzti eman daitekeenik; baina nik ukatu egingo dut hitz neurtutan edo errimaz ematen den sistema poesia bat denik. — Gogora ekarri besterik ez dago nik poesiatzat zer jotzen dudana; zertzuk aurkitzen diren berbaldi sentzible baten kontzeptuan. Nekez egotziko zaio bere zabaltasun osoan Poperen poesiari baino egokiago beste inolako poetaren poesiari. Parnasora igotzen ari den filosofoak eta jakintza serio eta barearen ibarretara jaisten ari den poetak erdibidean egiten dute topo, eta han, nolabait esateko, beren jantzia aldatzen dute beren artean eta atzera egiten dute. Bakoitzak darama bere etxera bestearen irudia; baina irudia baino gehiago ez. Poeta poeta-filosofiko bat bilakatu da, eta filosofoa filosofo-poetiko bat. Baina poeta-filosofiko bat ez da oraindik filosofoa, eta filosofo-poetiko bat ez da oraindik poeta.

Baina halakoak dira ingelesak. Beren espiritu handiek handienak izan behar dute, eta beren buru bereiziek mirariak izan behar dute beti. Ez bide iruditzen zitzaaien nahikoa ospe, Pope poeta-filosofiko bikainena deitzea. Poeta bezain filosofo handi izan dadin nahi dute. Hau da: ezinezkoa nahi dute, edo bestela Pope poeta bezala puska bat apaldu nahi dute. Azken hau ziur nahi ez dutenez gero, orduan lehenbizikoa nahi dute.

Orain arte erakutsi dut —edo erakutsi nahi izan dut bederen— poeta batek, poeta denez, *ezin duela* inolako sistematik egin. Segidan erakutsi nahi dut ez duela *nahi ere nahi* inolako sistematik egitea; emanik ere egin zezakeela; emanik, areago, nire zailtasunek ez luke-tela inolako ezintasunik bildu, eta bere jeinuak hori onez gainditzeko baliabideak eskura jartzen dizkiola berari.

Segituan heldu nahi diot Poperi berari. Bere poesia ez litzateke egia sorta idor bat. Poesia moral deitzen du berea, eta bertan Jainkoaren bideak gizonarekiko zuritu nahi ditu. Gehiago bilatzen zuen zirrara bizi bat, komentzimendu sakon bat baino. — Zer egin behar zuen, orduan, horretarako? Zalantzarik gabe, horretarako behar diren egia guztiak beren argi ederrenean eta indartsuenean irakurleari aurkeztu behar zizkion.

Baina pentsatu behar da sistema batean ezin izan daitezkeela atal guztiak nabaritasun berekoak. Hango egia batzuek zuzenean frogatzen dira beren printzipioetatik; beste batzuek ondorioak pilatuz

atera behar dira. Halere, azken hauek nabarienak izan daitezke beste sistema batean, lehenak aldiz beharbada ilunenak diren bitartean.

Filosofoa ez dute kezkatzen sistemaren neke txiki hauek. Ondorio baten bidez erdietsi duen egia ez da beretzat hogeï ondorio-ren bidez baizik erdietsi ezin dezakeena baino gehiago; hogeï ondorio horiek ziurrak badira, noski. Aski du denak erlazio batera erakarri baditu; aski du erlazio hori begirada batekin, osotasun bat bezala, gainbegira badezake, hango lotura finetan gelditu gabe.

Erabat bestela pentsatzen du, ordea, poetak. Berak esaten duen guztiak segituan eragin behar du zirrara bizi bat; bere egia guztiek sarkorki hunkitu behar dute. Eta horretarako, ez dauka beste biderik ez bada egia hau sistema honen arabera eta hurrengoa beste baten arabera adieraztea. — Epikurorekin mintzatuko da irritsa areagotu nahi duenean, eta Stoarekin bertutea goraipatu nahi duenean. Irritsak oso traza tristea izango luke Seneka baten bertsuetan, baldin alde guztietan bere printzipioei zehatz eutsi nahi balie; bertuteak ere orobat, epikureo betiberdin baten abestietan, emagaldu baten antza izango lukeen bezala.

Halere, kontraka jarri litezkeen erreparoei leku eman nahi diet. Onar dezadan; salbuespen bat izan daiteke Pope. Nahikoa *gaitasun* eta *borondate* izan zezakeen bere poesian, ez bada sistema bat osorik eratzeko, bai gutxienez sistema jakin bat hatzaz erakusteko. Sistema horren arabera sentsibleki azal daitezkeen egietara muga zitekeen nahi izanez gero. Gainerakoak hainbat errazago utzi zitzakeen bazterrera, poeta baten egitekoa ez denez dena ahitzea.

Oso ongi! Ikustagun, bada; eta ez da hobeto ikusiko ni akademiak finkaturiko puntuei zehatz atxikitzen banatzaie baino. Honen arabera nire saioak hiru atal izango ditu, eta haiei azkenik zenbait ohar historiko kritiko erantsiko dizkiet.

LEHEN ATALA

Poperen sistema laburbildu beharko luketen esakunen bilduma

Esakun hauek *lehen* gutunean, eta han eta hemen *laugarrenean* baino kasik beste inon ezin aurki daitezke.

Zerbaitetan itxura sistematikorik izan zezakeen bat bakarra ere ez dut alde batera utzi, eta duda egiten dut hurrengo *hamahiruez* aparte honi dagokionez aipatzea merezi duen beste bat aurkituko ote den.

Hemen emango diedan ordena ez da Popek bere azalpenean segitu zuen ordena bera. Aldiz bai Popek bere pentsamenduan jarraitu bide zuena; baldin bat jarraitu bazuen.

LEHEN ESAKUNA

Sistema posible guztien artean onena sortu behar zuen Jainkoak.

Esakun hau ez da propio Poperena; baina bere hitzek nahikoa garbi erakusten dute ontzat ematen duela eta beste bati hartu dizkiola.

1. gutuna, 43-44 lerroak

Of Systems possible, if 'tis confest,

That Wisdom infinite must form the best e.a.

Hau da: *baldin onartu behar bada, jakituria amaibako hatek sistema posible guztien artean onena sortu behar zuela. Baldin honek ezin badu hemen inolako ziurtasun gabeziarik adierazi; baizik gainerako esakunak baldintza honen ondorio direnez, hemen litzateke esan izan balu bezala: derrigor onartu behar denez e.a.*

BIGARREN ESAKUNA

Sistematik onen honetan dena elkarrekin lotua egon behar du, dena hankaz gora eroriko ez bada.

1. gutuna, 45. lerroa

Where all must fall, or all coherent be.

Nire aurrean daukadan ale arruntean, lerro honen azken erdiak dio: *or not coherent be*. Nik badaukat susmoa, eta ez arrazoirik gabe, *not* izan orde, *all* izan behar duela. Emanik, halere, Popek egiaz *not* idatzi duela, ezin egon daiteke hor beste zentzurik ez bada nik esakunean adie-

razi dudana. — Arazoa da zer ulertzen duen Popek munduko erlazioarekin. Egiaz ez da mintzo berariaz horri buruz; baina pasarte batzuek agertzen dute zer ulertzen duen antolaketa horrekin: horren arabera, perfektzioaren maila guztiak beteta leudeke, inon hutsarterik aurkitu ezin daitekeelarik. Horregatik, aipaturiko hitzei erasten die (46. lerroa) and *all that rises, rise in due degree*, hau da aurrekoarekin bat eginik: *Denak hankaz gora erori behar du, edo denak elkar loturik egon, eta goraka egiten duenak, dagokion mailan egin behar du gora*. Hartaz bere ustez elkar-lotura dago, munduan dena mailaka igotzean. Eta aurreraxeago esaten du (233. lerroa): izate batzuek erabateko izango badira, edota beheagoko izate batzuek haien lekura lerratu behar dute edo sorkuntza *betean* hutsarte bat geratuko da, mailadi osoa nahastuko bailitzateke maila bakar bat hautsi bezain laster. *Each System in gradation roll* (239. lerroa): *Sistema bakoitza mailaz maila garatzen da*; dio oro har honek. Eta hain zuzen etengabeko gradu-jaiste deitzen du berak kate handia, amaibakotik gizakietara, eta gizakiengandik ezerezera luzatzen dena (1. gutuna, 232.236 lerroak). Laugarren gutuneko hurrengo lerrook garbiago jartzen dute beharbada poetaren iritzia (47. lerroa eta hurrengoak).

Order is Heavy'n's great Law; and this confest,
Some are and must be, mightier than the rest,
More riche, more wise e.a.

Berak, beraz, antolaketa hau, zeinaren arabera perfektzioaren gradu guztiak desberdin baitira, ordenatzat hartzen du. Ondorengo esakunetatik ikusiko da berak munduan dagoen elkar-loturarekin ez duela beste kontzepturik gorapilatzen, ez bada puntuan argitu duguna.

HIRUGARREN ESAKUNA

Bizitzaren eta sentsibilitatearen katean, non edo han, gizakiak diren bezalako izakiek egon behar zuten.

I. gutuna, 47-48 lerroak

-in the scale of life and sense, 'tis plain

There must be, some where, such a rank as Man.

Esakun hau aurrekotik ateratzen da zuzen-zuzen. Izan ere, mundurik onenean perfektzioaren gradu guztiak egiazkotu behar badi-ra, gizakiari dagokion lekua ezin geldi daiteke hutsik. Gizakiak hartaz

ezin du ez mundu onenetik kanpo gelditu, ezta perfektoago sortua izan ere. Bi aukeretan, perfekzioaren gradu bat egiaztatu gabe geldituko zen, eta ez legoke inolako elkar-loturarik mundurik onenean.

Pentsa orduan zein gutxi hertsitzen duen Poperen ondorioak, munduko elkar-lotura aurreko esakunean ez bezala argitzen denean.

Of Systems possible, if 'tis confest,
That Wisdom infinite must form the best,
Where all e.a. — —
Then in the scale of life and sebse, 'tis plain
There must be, some where, such a rank as Man.

Gizakiak daukan bezalako perfekzio maila bat, gradu bat arrazoi bategatik geratu behar zuen egiaztaturik, alegia: mundurik onenean dena bata bestearen ondoren amildu edo elkar-loturik egon behar duelako, eta dagokion graduan igo behar duelako; hau da, ezin gera daitekeelako maila bat hutsik.

Popek, dirudienez, ez zuen asmatu nola aurre egin honoko eragozpenari alegia: zergatik gizakia bezalako izate bat sortua izan den, edo zergatik ez den sortua izan perfektuago? Azkenari zehatzago erantzuteko hartzen du (1. gutuna, 251. lerroa eta hurrengoa) lagungarritzat gauza guztien esentziaren alda-ezintasuna, eta dio eskakizun hau harako hura bezain barregarria litzatekeela, alegia: oinak esku, eskuak buru, eta buruak bere zentzuekin ez espirituaren tresna soil izan nahiko balute bezala. Laugarren gutunean (160. lerroa) bortizkiago mintzatzen da honetaz, eta adierazten du: gizakia zergatik ez den perfektoa sortua izan galderak, beste hitz batzuetan, ez omen luke beste ezer esan nahi ez bada hau: zergatik gizakia ez den jainko bat, eta lurra ez zeru bat?

LAUGARREN ESAKUNA

Sorkari ororen zorientasuna datza bere naturari dagokion egoera batean.

I. gutuna, 175. lerroa

All in exact proportion of the state.

eta gutun bereko 71. lerroan dio gizakiari buruz bereiziki:

His being measur'd to his state and place.

Hartaz, dio Popek, kontua da egiaztatu egin behar dela gizakia munduan bere izateari eta bere perfekzio-graduari dagokien egoera batean jarria izan dela:

I. gutuna, 49.50. lerroak

And all the question (wrangle e're so long)

Is only this, if God has plac'd him wrong?

BOSGARREN ESAKUNA

Berak izan behar duen bezain perfektua da gizona.

I. gutuna, 70. lerroa

Man's as perfect as he ought.

Hau da: Gizakiaren egoera bere izateari dagokiona da, eta horregatik gizakia perfektoa da. Eta hala dela garbi geratuko da gizakia bizi den egoera begiratzin bada, eta hala egiten du hurrengo lerroetan.

SEIGARREN ESAKUNA

Jainkoak lege orokorren arabera dihardu eta ez lege bereizien arabera; eta aukera bereizietan ez du jokatzin bere lege orokorren

kontra bere begiko batengatik.

4. gutuna, 33,34

— the universal cause

Acts not by partial but by general laws.

eta gutun bereko 119. lerroan

Think we like sme weak Prince th'eternal Cause

Prone for his Fav'rites to reserve his Laws?

Pentsamenedu hauek garatzen ditu zabalago poetak segidan, eta adibideen bidez argitzen. Baina badirudi, horrela bere egiten duela lege orokorrek Jainkoaren nahiaren objektu bakarrik egiten dituen Malebrancheren sistema, eta hala uste ere uste du munduaren egilea zuritzen duela lege orokor horietatik akatsak badatoz ere.

Filosofo honen jarraitzaileek, hartaz, uste dute Jainkoak bere jakituriaren arabera jokatu behar duela eta horregatik mundua bere

lege orokorren bidez zuzendu behar duela. Aukera bereizi batzuetan lege orokor hauen erabilerak, bere hartan edo berez edota erabat alferriko edota are kaltegarri, eta, hartaz, Jainkoaren asmoen kontrako den zerbait sor dezake: halere nahikoa litzateke lege orokorrak onura handikoak balira, eta handik kasu bereizi gutxitan etorriko litzatekeen gaizkia, borondate bereizi bat gabe ezin ekidin ahal izatea. Adibide gisan gaineratzen dute: lege mekanikoez —horien arabera euria garai jakin batzuetan egingo luke— ezin esan ahalako onura dutela. Baina zenbat bider ez du bustitzen euriak harri idor bat, inolako onurarik ekarri gabe; eta zenbat bider ez ote ditu uholdeak eragiten, erabat kaltegarri direlarik? Haien usteen arabera, beraz, perfekzio gabezia hauek mundurik onenean ere gerta daitezke, ezinezko baita Jainkoaren asmoak aukera bereizi guztietan asebeteko dituzten lege orokorrik izatea. Edo, galdetzen dute, Jainkoak, kutun baten mesederako — orain arteko filosofoa izan daiteke, adibidez, kutun hori — lege orokorrak hautsi behar al lituzke, lege horien arabera Etnak sua bota behar duenez?

4. gutuna, 121-122 lerroak

Shall burning Aetna, if a sage requires

Forget to thunder, and recall her fires?

ZAZPIGARREN ESAKUNA

Gaizkirik batere ez dator Jankoagandik.

Hau da: Munduan gertatzen den gaizkia, ez da sekula Jainkoaren nahiaren helburua.

4. gutuna, 110. lerroa

God sends not ill.

Popek hau aurrekotik gutxi gorabehera honela ondorioztatu du: baldin gaizkia aukera bereizietan bakarrik gertatzen bada eta lege orokorren ondorio bada, eta Jainkoak lege orokorrak bakarrik, lege orokor direnez, ontzat eman eta bere nahiaren helburu egin baditu: ezin esan daiteke berak berariaz nahi izan duenik haiengandik datorren gaizkia, hau gabe ez bailirateke izan ere, izango lege orokor. Gure poetak aitzakia asko indartzen du esaten duenean lege orokorretik datorren gaizkia oso urria dela. Horrekin esan nahi zuena beharbada

da Jainkoak aukera bereizietan gaizkirik txikiena ekar zezaketen erako lege orokorrak hautatu dituela. Baina era oso bereizian mintzo da; berak dio (1. gutuna, 43. lerroa): *th' exceptions are few*, eta beste leku batean, *Nature lets it fall*, gaizkiak hain zuzen. Puntu hau hirugarren atalean ukitu beharko dut.

ZORTZIGARREN ESAKUNA

Munduan ezin gerta daiteke aldaketarik, unibertsoa osatzen duten sistema guztietan nahaspila ekarri gabe.

1. gutuna, 233-236. lerroak

— on superior pow'rs

Were we to press, inferior might on ours:

Or in the full creation leave a Void

Where, on step broken, the great scale's destroy'd.

eta 239-242. lerroak

And if each System in gradation roll

Alike essential to th' amazing, whole;

The least confusion but in one, not all

That system only, but the whole must fall.

BEDERATZIGARREN ESAKUNA

Jainkoak osotasunaren on handienerako zuzendu edo borondate bereizi baten bidez, bere borondate orokorraren kontra jokatu ordez, hobetsi dituen lege orokorren ondorio dira gaitz naturala eta morala.

1. gutuna, 145-146 lerroak

If the great end be human happiness,

Then Nature *deviates*, and can man do less?

4. gutuna, 112-113 lerroak

Or partial ill is universal good

—— or Nature lets it fall.

1. gutuna, 161-162. lerroak

- all subsists by elemental strife
And Passions are the Elements of life.

HAMARGARREN ESAKUNA

*Ez da guztia gizakiaren kariaz sortua izan, aldiz gizakia bera beste
gauzaren baten kariaz sortua izan da.*

1. gutuna, 57. lerroa

-man, who here seems principal alone,
Perhaps acts second to some sphere unknown

3. gutuna, 24. lerroa

Made beast in aid of mari, and man of beast.

HAMAIKAGARREN ESAKUNA

*Gure etorkizuneko egoeraren ez ezagutzea. gure onerako eman
zitzagun*

Nork zezakeen, dio poetak, bere bizitza hemen jasan hori gabe?

(1. gutuna, 76. lerroa) eta berortan, 81. lerroa

Oh blindness, of the future! kindly giv'n
That each e.a.

Etorkizunaren ezagutzaren orde, halere, dio Popek, zeruak esperantza eman digu, gure azken uneak gozatu diezazkigukeen bakarra.

HAMABIGARREN ESAKUNA

*Gizakiak, beretzat kalterik gabe,
ezin desira ditzake zentzu zorrotzagoak.*

Hau frogatzen duen lekua luzeegia da hona aldatzeko. Lehen gutunean dago eta 185. lerrotik 198.era luzatzen da. Baina esakun hau eta aurreko biak bosgarren esakunaren froga berriak dira berez, eta agerian jarri behar dute gizakiari bere egoerari dagokion dohainak eta gaitasunak eman zaizkiola benetan. Eztabaida honen muinean dagoen arazoa, Poperen iritziz, erantzuna legoke:

If God has placed him (*man*) wrong?

HAMAIRUGARREN ESAKUNA

*Irritsak, norberaren maitasunaren aldagarriak baino ez
izaki, eta haiek gabe adimena sorgor geratuko litzatekeelarik,
bere onerako eman zitzaizkion gizakiari.*

2. gutuna, 83. lerroa

Modes of self-love the Passions we may call.

Berortan, 44. lerroa

Self-love to urge, and Reason to restrain.

eta 1. gutuna, 162. lerroa

Passions are the Elements of life.

Popek aitortzen du egiaz irritsetatik kontaezin ahala ahulezia eta huts datozela; baina hauek ere lege orokor batean oinarritzen dira, eta lege hori da: irrits horiek ontasun egiazko edo itxurazko batek higi arazten dituela. Jainkoak ordea (9. esakunaren arabera) lege orokorretatik datozen gaitz guztiak baitetsi behar izan ditu, bestela lege orokorrak borondate bereizi baten bidez baliogabetu beharko lituzkeelako.

2. gutuna, 84. lerroa

‘Tis real good, or seeming, moves them all.

AZKEN ESAKUNA

Esakun hauetatik guztietatik ondoriozta uste du Popek, *ezen dena dela on; que tout ce qui est, est bien*. Esakunaren zentzua itzul-tzailearen hizkuntzan ematen dut. Baina on al da honekin fidatzea? Zer gertatuko litzateke baldin Popek esan izan ez balu dena dela on, baizik hakarrik dena dela zuzen? Zuzen eta on berdintzat hartu beharko lirateke? Hona bere, hitzak (1. 286. lerroa)

- Whatever is, is *right*.

Ezin jarriko da Pope bezalako poeta bat lotsagarri eta esan erri-mak behartu duela *right* beste hitz bat edozeinen ordezt jartzera. Laugarren gutunean (382) gutxienez, esamolde bera errepikatzen duenean, errimaren premiatik libre zegoen, eta gogoeta serio baten ondoren erabaki behar zuen good edo well ez esatea. Eta zergatik ez du esan, orduan? Bere gainerako pentsamenduarekin tupust egingo luke-

elako dirudienez. Berak aitortzen duenez, *Naturak gaizki ugari gerta dadin baiesten duela*, esan zezakeen, hala eta guztiz ere, dena *zuzen* dela, baina ezin esan zezakeen dena *on dela*. *Zuzen* dena da, dena — eta gaizkia bera ere bai— Jainkoaren borondatearen helburua den legearen orokortasunean oinarritzen delako. *On*, ordea, litzateke gutxia lege orokor horiek beti Jainkoaren asmoekin bat etorriko balira. Egiaz, nik ere onartzen dut frantsesezko *bien* hitzak *bon* hitzak baino gutxiago esaten duela, kasik beste zerbait adierazten duela; orobat baita ere alemanezko *gut* hitzak, *adverbialiter* erabiltzen denean, eta ez *substantive*, berez *zuzen* baino ez dena adierazten duela. Arazoa, ordea, da, ea bereizkuntza fin horretan pentsatu behar den Poperen *es ist alles gut* edo *tout ce qui est, est bien* entzuten den bakoitzean?

Ez daukat beste ezer hemen gogora ekartzeko. — Baldin onbera izan nahi bada eta goian aipaturiko esakunak sistematzat hartu nahi badira, oraingoz benetan pozik gera naiteke. Desira nuke, sistema hori irakurlearen adimenean gera dadin hirugarren atalean bere egilearen arma berberak erabiliz jo eta txikitu dezadan arte gutxienez. Ni ez nintzateke hain kolokan dagoen eraikuntza bat dagoen horretan uzteko arriskuan jarriko, baldin lehenbizi Akademiak agindu dituen bigarren puntuari heldu beharko ez banio.

BIGARREN ATALA

Aurreko esakunak Leibnizen doktrinarekin gonbaratzea

Baldin nik Akademiari egotziko banizkio jakintzen sustapenerako elkarte bati egozten zaizkion asmoez aparte beste batzuek; nik galdetuko nuke: ea ezarri den konbarazio honen bidez Poperen esakunak filosofikotzat edo aldiz Leibnizen esaldiak poetikotzat deklaratu nahi diren?

Halere, esan bezala, nire galdera aurreztu dezaket eta konbarazio berera itzuli. Oinarrian gehienara ere ingelesaren espiritu gizatiarrez gaindikoaerikiko uste gehiegizkoa egon liteke.

Aurreko esakunen ordena segituko dut nire konbarazioan, baina guztiak ukitu gabe halere. Batzuek loturagatik bakarrik daude hor; eta bestetzuk oso bereiziak dira eta moralak gehiago metafisikoa baino. Bi motatakoak arrazoiz utzi ahal izango ditut albo batera, eta gonbarazioa halere erabat osoa izango da.

LEHEN ESAKUNA

Jainkoak, sistema posible guztien artean, onena sortu behar izan zuen. Hauxe dio Popek, eta Leibniz ere, pasarte batean baino gehiagotan, berdin-berdin mintzo da. Zer pentsatzen duen bakoitzak, gainerakotik argitu behar da. Erabat oker dabil Warburton, esakun hau, gainerako esakunak alde batera utzita, ez leibniztartzat baizik platondartzat hartu bide nahi duenean. Geroago azalduko dut hori. Hemen gogoratu bakarrik nahi dut galdera akademikoa izkiriari zuenak *dena da on* esakunaren ordeztu derrigor hauxe eta ez beste bat hautatu behar zuela, baldin esan nahi bazuen han sistema bat egon zitekeela, agian ez Leibniztarra, baina bai haren antzekoa zitekeena.

BIGARREN ESAKUNA

Sistematik onenean denak elkar-loturik egon behar du. Ikusi da Popek elkar-lotura horrenpean zer ulertzen zuen. Munduaren egitura hura, alegia: horren arabera perfektzioaren gradu guztiak ezereztatu jainkotasuneraino izakiz beteta leudekeela.

Leibnizek, alderantziz, elkar-lotura hori munduan dena bata bestearen bidez argitzean jartzen du. Mundua ikusten du gauza kontingente multzo bat bezala, hein batean bata bestearen ondoan existitzen direnak, hein batean bata bestearen ondoren datozenak. Gauza desberdin hauek ez lukete elkarrekin osotasun bat egingo, baldin guztiak makina bateko gurruplak bezala, elkarren artean bateraturik ez baleude: hau da, baldin gauza bakoitzetik garbi argituko ezin balitz zergatik gainerakoak horrela, eta ez bestela, elkarren ondoan dauden; eta gauza baten aurreko egoeratik zergatik segitu behar duen handik honek edo besteak. Adimen amaibako batek hau erabat ondorioztatu ahal izan behar du, eta munduaren zatirik txikienak ispilu bat izan behar du beretzat, han, haren ondoan dauden zati guztiak, eta orobat mundua egon den egoera guztiak edo inoiz izango dituenak, ikus ditzakeelarik.

Inon ez du, ordea, Leibnizek esan perfektzioaren gradu guztiek mundurik onenean beteta egon behar dutenik. Ezin esan ere esan zezakeen hori. Izan ere, Popekin batera esan bazezakeen *eresorkuntza osatuta dago*, hitz horiekin Popek lotu duen zentzuaren aldean, erabat

bestelakoa lotuko zuen. Leibnizekin mintzatzeko, sorkuntza mundurik onenean alde guztietan osatua dago, hain zuzen ere alde guztietan bata besteagan oinarritzen delako eta horregatik bata bestearen ondoan existitzen diren gauzen esparrua edo ordena ez dagoelako inon hautsia. Era berean dago *osatua* denborari dagokionez, bata bestearen ondotik datozen egoerak sekula amaitzen ez direlako, eragin eta kausa bezala bata bestearen gainean oinarriturik egotean. Zerbait guztiz bestelakoa ulertzen du Popek bere *full creation* horrenpean, bere hitzen loturatik ondoriozta daitekeenez:

1. gutuna, 235. lerroa

—On superior pow'rs

Were we to press, inferior might on ours:

Or in the full creation leave a Void.

Sorkuntza bere ustez *osatua* dago, han gradu guztiak beteta daudelako.

Eta hau da froga bat esateko bi idazle desberdin ez direla iritzi berekoak pasarte jakin batzuetan hitz berberekin azaltzen badira ere. Popek erabat bestelako kontzeptua zeukan *huts* eta *bete* ideei dagokionez sorkuntzari begira, Leibnizen aldean; eta horregatik biek esan zezaketen: *the creation is full*, handik aurrera ezer komunik biek eduki gabe, ez bada hitz hutsak.

HIRUGARREN ESAKUNA

Aurrekotik Popek a priori ondorioztatzen du, gizakiak munduan izan behar zuela, bestela hari izakien artean zegokion lekua hutsik geratuko zelako.

Leibnizek aldiz gizakiaren derrigorrezko existentzia a posteriori frogatzen du eta erabakitzen, gizakiak izan badirelako, gisako izakiek mundurik onenean izan beharra dutela.

SEIGARREN ESAKUNA

Pope, Ikusi denez, badirudi P. Malebranchekin iritzi berekoa dela esakun honetan. Uste baitu izan ere, Jainkoak munduan gaitza gertatzen uzten duela bere nahi orokorra erabaki bereizien bidez ez

duelako indargetu nahi. Derrigor, beraz, gertatu behar zuten munduan akatsak, Jainkoak, mundurik onenari ezer kendu gabe, ekidin zitzake-enak, baldin berak bere nahi orokorra aukera batzuetan erabaki berei-zi baten bidez indargetu nahi balu. Hurrengo pasarteak ikusi baino ez da behar ezagutzeko hau zela egiaz Poperen iritzia.

4. gutuna, 112. lerroa

Or partial ill is universal good

—or Nature lets it fall.

Edo edo honek nahikoa garbi erakusten du gaizkiak, bigarren aukeran, ez diola ezertan laguntzen munduaren perfektzioari, baizik naturak edo lege orokorrek gerta dadin baitesten dutela.

Baina zer dio Leibnizek guzti honetaz? Leibnizek uste du Jainkoaren erabaki orokorra erabaki bereiziz, guztiak batera harturik, osatua dagoela eta Jainkoak ezin duela, mundurik onenari kalterik egin gabe, gaizki bat erabaki bereizi baten bidez ezabatu. Izan ere, bere ustez, helburuen sistema hain zehatz dago loturik kausa eragile-en sistemarekin, non hau haren ondorio bezala ikusi behar baita. Ezin esan daiteke, hartaz, naturaren lege orokorretatik, hau da: kausa era-gileen sistematik, Jainkoaren helburuekin bateratzen ez den zerbait datorrela; izan ere, erabaki bereizien elkarlotze honetatik datoz kausa eragile orokorrak eta osotasun jakintsuena (ikus honetarako *Teodizea*, 204. 205. 206. §).

Eta hemendik argi geratzen da Pope eta Leibniz mundurik one-naren kontzeptuan bertan ere ezin etor daitezkeela bat. Leibnizek dio: Osotasun bat osatzeko perfektzioaren arau desberdinak elkartu behar direnean, derrigor hango batzuek beste batzuekin tupust egin behar dute, eta elkarren arteko tupust honen bidez edota kontraesanak sor-tuko dira edo beste aldetik salbuespenak etorriko dira.

Mundurik onena, beraz, bere ustez, da salbuespen gutxien dituen, eta salbuespen hauek gainera garrantzirik gutxien duten arauetatik gertatzen direnean. Hortik sortzen dira gure arranguragai diren akats moralak eta naturalak; baina salbuespen horiek ezin-ekidi-nezko egin dituen ordena goragoko baten bidez sortzen da. Baldin Jainkoak utzi izan balu munduan gaizki bat gutxiago sor zedin, bere aldetik salbuespenik batere onartzen ez duen ordena goragoko, per-fektzioaren arau garrantzizkoago baten kontra jokatu luke.

Popek eta Malebranchek, aldiz, onartzen dute Jainkoak, mundurik onenari kalterik egin gabe, gaizki batzuek aldendu zitzakeela, han ezer nabarmenik aldatu gabe. Baina, hala eta guztiz ere, nahiago izan du legeen orokortasuna, nondik datorren gaizki hau, eta hala nahi ere nahi du, bere erabaki hau, bere kutun batengatik, sekula aldatu gabe.

ZORTZIGARREN ESAKUNA

Gainera, ikusi dugunez, Popek uste du munduan egindako aldaketarik txikiena natura osora hedatzen dela, perfekzio handiago batera igotzen den izate bakoitzak hutsarte bat uzten duelako bere ostean, eta hutsarte honek edo hutsik geratu behar duela, elkar-lotura osoa kenduz, edo beheragoko izateek aurrera beharko luketela, horrek sorkuntza guztian zehar nahaspila baino ekarriko ez lukeelarik.

Leibnizek ez du ezagutzen gisako zulorik, Popek onartzen duen bezala, ez duelako baieztatzen izateen degradazio astirorik bate-re. Nire ustean, izateek bata bestearengan oinarritzeari uzten dioten lekuan baino ezin gerta daiteke zulo bat; han, izan ere, hautsiko da ordena, edo, gauza bera dena, esparrua hutsik geratuko da. Halere, Popek baino zentzu askoz hertsiago batean uste du Leibnizek munduan egindako aldaketarik txikienak osotasunean eragina duela, eta hain zuzen ere izate bakoitza gainerako izate guztien ispilu delako, eta egoera bakoitza egoera guztien laburpena delako. Beraz, sorkuntzako zatirik txikiena aldatzen bada edo bestelako egoera batean jartzen, izate guztietan barna azaldu behar du aldaketa horrek; erloju batean, nola espazioaren hala denboraren arabera, dena aldatzen den bezala, gurpiltxo batean huskeria bat limatu bezain laster.

BEDERATZIGARREN ESAKUNA

Akatsak gertatzen dira munduan, Poperen sistemaren arabera, *edota* osotasunaren mesederik handienerako (horretan sartzen delarik orobat akats handiago bat eragozte), *edo* inolako lege orokorrek ezin asebite ditzaketelako Jainkoaren erabakiak aukera guztietan.

Leibnizen ustean, ordea, munduko akats guztiek derrigor lagundu behar dute osotasunaren perfekziorako, edo bestela salbues-

pen hori lege orokorren ondorio da. Leibnizek adierazten du Jainkoak ez dituela apetz jarri lege orokorrak, baizik bere asmo bereizien lotura jakintsutik edo perfekzioaren lege sotiletatik sortu diren bezala jarri dituela. Akats bat dagoen lekuan, han salbuespen bat egon behar zuen ezinbestean. Baina ezin gerta daiteke salbuespenik ez bada perfekzioaren lege sotilek beren artean tupust egiten dutenean; eta salbuespen oro gertatu behar du goragoko ordena baten indarrez, hau da: osotasunaren perfekzioari zerbitzatu behar dio.

— Beharrezko al da Poperen esakunen eta Leibnizen doktrinaren arteko desberdintasun gehiago aipatzea? Ezetz uste dut nik. Zein beste desberdintasun izan beharko lukete? Tesi moraletan bereiziki, gauza jakina da filosofo guztiak bat datozela, beren printzipioak nahi adina desberdin izan arren. Lehenbizikoen adierazmolde soinukideek ez gaitu eraman behar azkenengoak oro berdintzat hartzera; izan ere, bestela oso erraza litzateke, inoiz munduaren moldaketaz espekulatu nahi luken beste edozein, Pope bera bezala, Leibniztar egitea.

Baldin, ordea, Popek izen hori merezi ez badu, orduan derrigor mundurik onenari buruzko Leibnizen sistemaren eztabaidaren aldean erabat bestelako zerbait izan behar du bere tesien azterketak. Gottschedek esaten dute, akademiak izan zedin nahi zuenaren aldean erabat bestelako zerbait izan dela. Baina zer inporta zait niri Gottschedek esaten dutena; hori kontuan hartu gabe ekingo diot nik azterketari.

HIRUGARREN ATALA

Poperen tesien azterketa

Gorago esana daukat jada, Pope, egiazko poeta bezala, sistema guztietatik edertasun sentsiblea ateratzen eta horrela bere poema eder- tzen gehiago saiatu bide zela, bere sistema propioa egiten, edo lehen- dik egina zegoen bat soilik eta bakarrik atxikitzen baino. Eta berak lehenbizikoa egin duela pasarte askok egiaztatzen dute bere gutune- tan; horiek ezin batera daitezke inolaz bere aurreko tesiekin, eta haie- tatik batzuek areago zuzen-zuzen haien kontra doaz.

Pasarte horiek seinalatu nahi ditut, tesiak berak arrazoiaren zorroztasunarekin aztertuz.

BIGARREN ESAKUNA

Zein arrazoren bidez froga dezake Popek gauzen katea mundurik onenean perfekzioaren degradazio jarraiaren arabera dagoela eratua?

Bota dezagun begirada bat gure aurrean ikus daitekeen mundura! Poperen tesiak oinarriak badu, ezinezko da gure mundua onena izatea. Mundu horretan gauzak ondorioen eta kausen ordenaren arabera daude jarriak, inolaz ere ez degradazio jarrai baten arabera, bata bestearen ondoan. Jakintsuak eta ergelak, abereak eta arbolak, eltxoak eta harriak munduan era harrigarrian daude elkarren artean nahasturik, eta atalak munduko alderdi urrunenetatik elkartu beharko lirateke, ezerezetik jainkotasuneraino doan gisako katea bat osatu nahi balitz. Popek elkar-lotura deitzen duena, beraz, ez da aurkitzen gure munduan, eta halere haxe da onena, halere ezin zaio zulorik aurkitu. Zergatik hori? Hemen itxuraz Leibnizen sistemara jotzen da, alegia Jainkoaren jakinduriaren bidez, izate guztiak mundurik onenean bata bestearengan oinarritzen dira, hau da: ondorioen eta kausen errenkadaren arabera eratu behar dira elkarren ondoan?

HIRUGARREN ESAKUNA

Eta orduan berez baztertuta geratzen da gauzen ustezko katea horretatik gizakiak betetzen duen mailaren ezinbesteko existentzia ondorioztatzen duen proposamena. Izan ere, zergatik zen beharrezko, bizitzaren eta sentsazioaren erreskada hori osatzeko, maila hori egiaz izatea, edozein modutan ere haren katebegi guztiak amaibako esparru batean zabaldurik baitaude, eta sekula ez baitaude bata bestearen ondoan degradazio jarrai horretan?

SEIGARREN ESAKUNA

Hemen dator Popek bere buruari kontraesaten dion lekua! — Bere iritzian, gorago agertu dugunez, lege orokorretatik zenbait gertakari osotasunaren perfekziorako ezer ez dakartenak, eta Jainkoak kutun batengatik, bere borondate orokorra aldatzen ez duelako baimenduak direnak.

Or partial ill is universal good,

Or change admits, or Nature lets it fall.

Hala esaten du laugarren gutunean. Baina zenbait gaizki, beraz, munduan baimenduak direnak, bere ustez, orokorki onak dira; beste batzuek ordea, orobat baimenduak direnak, ez dira onak. Baina berak aitortzen duenez, baldin ez badira onak, nola esan dezake halako konfiantzaz lehen gutunaren amaian:

All discord, harmony not understood:

All partial evil, universal good?

Nola konpontzen da oraingo *all* erabakigarri hau, goiko *or*, *or* horiekin Pentsa al daiteke kontraesan nabarmenagorik?

Halere, gehiago aztertu nahi dugu nola jokatzten duen nik bere bezala jo dudan sistemarekiko. Ikustagun inolaz, lehen gutuneko aipaturiko

— the first almighty Cause

Acts not by partial, but by gen'ral Laws

pasartearen ondoren gaineratzen duena:

Th' Eceptions few.

Salbuespenak gutxi dira? Zein salbuespen mota dira hauek? Alde guztietan gida bezala balio dioten lege orokor horien artean ere, zergatik egin ditu Jainkoak salbuespenak? Begiko batengatik ez ditu egin (ikus 4. gutuna, 119. lerroa), ezta akats bat ekiditeko ere; bestela, izan ere, ez zukeen Jainkoak akatsik batere onartuko. Salbuespen *gutxi bakarrik* egin ditu? Zergatik gutxi? Zergatik ez batere ez, ala behar adina?

Esan daiteke: Popek *Exceptions* hitzarekin Jainkoaren asmoekin bat ez datozen gertakariak, eta halere lege orokorretatik datozenak, ulertzen ditu. Hauetarik gutxi dago munduan; izan ere, aukerarik gehienetan bere asmoekin bat datozen lege orokorrak hautatu ditu Jainkoak. Ongi! Baina orduan *Exceptions* hitza ez legokioke *general laws*-i. Lege orokorraren aldetik Jainkoak ez du salbuespen txikiena egin, baizik salbuespen guztiak lege orokorraren eta Jainkoaren asmoen arteko adostasunari dagozkie. Orduan, ezikusia egin beharko poetaren hitzei:

—the first almighty Cause

Acts not by partial, but by general Laws;

Th'Exceptions few e.a.

Ba ote dagokio hemen *Exceptions* hitza *general Laws* ez den beste zerbaiti? Oh! Nahiago dut onartzea Popek poesia bakar batean bere burua ehun bider kontraesan duela metafisikari dagokionez, hari bertso gaizki lotu edo motz batek ihes egin diola onartzea baino; eta halakoa litzateke hau, baldin *th'Exceptions few* lehenxeago aipatu dituen lege orokorrezi ez, baizik hemen buruan ez dauzkan Jainkoaren asmoei balegokie. Ez! Segurtasun osoz hemen berriro gaizki oro lege orokorraren salbuespen bezala imajinatu du, eta hartaz uste gabe bestela etengabe onartu ohi duen —bat onartu badu— Malebrancheren sistemari zaputuz egin dio.

ZORTZIGARREN ESAKUNA

Popek tesi honetan dioena, —alegia, ezin gerta daitekeela aldatarik munduan, horren eragina osotasunean azaldu gabe—, nahikoa argitu daiteke bereak ez diren beste arrazoien bidez, haiek ez baitute ezer frogatzen. *Baldin guk*, dio berak, *goragoko indarrei bultza egiten badiegu*, *azpikoek gure lekura etorri beharko dute*, *edo hutsarte bat geratuko da sorkuntza betean*. Beharrezko al da konklusio honi kontra egitea, ikusi ondoren munduan ez dela dena mailaz maila igotzen, Popek onartzen duen bezala, baizik izate perfektu eta inperfektuak, ustezko ordena hori gabe, nahasturik daudela? Ez diot zortzigarren tesi honen egiaztapenerako ekarritako bigarren pasarteari ere kontra egingo. Popek beti jotzen du bere mundu poetikoan bakarrik errealitatea daukan, baina gurean lekurik batere ez daukan degradazio jarraira.

BEDERATZIGARREN ESAKUNA

Tesi honetan goian aipatu ditugu Poperen ustez munduko gaizkiaren bi kausa; poetak ematen duen hirugarren kausa bat alde batera utzi dut, ezin nuelako ulertu. Hona hemen laugarren gutuneko pasartea osorik:

Or partial ill is universal good

Or *change admits*, or Nature lets it fall.

Nature lets it fall hitzak poetak *Nature deviates* hitzekin esan nahi duena esan izan balu bezala hartu ditut. Hauek, hain zuzen, baldin zentzu bat izango badute, ez dute beste ezer esan nahi behar ez

bada naturak, Jainkoak alde z aurretik finkatu dion lege orokorrraren bidez, Jainkoaren asmoen kontra doazen hainbat gauza sortzen dituela, eta bere erabaki orokorra aldatu nahi ez duelako bakarrik baitetsi duela hori.

If the great end be human happiness,
Then Nature deviates, and can Man do less?

Hau da: *Baldin gizakiaren zoriontasuna bada helburu nagusia, eta natura sahiesten bada, e.a.* Hain zuzen ere, pentsamendu hau, uste dut nik, adierazi nahi izan du Popek, *Nature lets it fall, Naturak erortzen uzten du* hitzen bidez. Naturak hainbat gaizki sortzen du lege mekaniko orokorren ondorio bezala, Jainkoaren xederik horretan izan gabe.

Baina zein zentzu Iot geniezaioke *Or change admits, Edo aldatzea onartzen du* hitzei? Poperen sisteman —baldin oraindik sistema dei badakioke— beste zerbaitek zuri al dezake Jainkoaren jakinduria munduan gaizkia onartu duelako, ez bada atal bereizien aurretik jarri behar den osotasunaren perfekzioak, edo Jainkoak aldatu nahi izan duen legearen osotasunak? Zein hirugarren aitzakia eskain dezake aldatzeko edo bestelakotzeko?

Ez dut pentsatu ere egiten; eta nik benetan pozik jakin nahi nuke hala eta guztiz ere Poperen sistema batez mintzo direnek horretaz zer pentsatzen duten. Agian esango dute azken pasarte honek hain zuzen ere egiaztatzen duela poetaren benetako sistema huts egin dudala, eta erabat beste bat dela hura argitzeko bidea. Baina zein izan behar du? Guztiz berri bat izan behar du gutxienez, oraindik gizakiaren buruan asmatu ez dena; gai honi buruzko gainerako sistema ezagunak han eta hemen, gutunetan, ezeztatzen direnez.

Froga gisan, lehen gutunean aurkitzen den pasarte batera joko dut, Poperen ustezko gure sistemarekin bezala beste edozeinekin batera ezin daitekena. Honoko hau da:

259. eta hurrengo lerroak

All are but parts of one stupendous whole,
Whose body Nature is, an God the soul;
That, chang'd thro' all, and yet in all the same

Lives thro' all life, extends thro' all extent,

He fills, he bounds, connects, and equals all.

Hau da: *Gauza guztiak dira osotasun harrigarri baten atal, haren gorputza natura delarik eta Jainkoa arima. Gauza guztietan dago aldatua, eta halere alde guztietan da berbera — Bizi da bizi den orotan; hedatzen da zabaltasun guztian zehar eta zabaltzen da bera zatitu gabe — Berak betetzen, inguratzen eta lotzen du guztia, eta dena berdintzen du.* Oso urrun nago Poperen bizkarrera hemen iritzi ateoak botatzeko. Gogo onez hartzen dut, aldiz, Warburtonek Pope aldezteko Crousaz jaunaren kontra esan duena, honek uste baitu pasarte hau poetak Spinozaren sistema okerretik hartu duela. Oro har ezinezko da hau Spinozaren doktrinarekin lotzea. Hitzok, alegia:

Whose body Nature is, and God the soul

Horren gorputza natura delarik eta Jainkoa arima, Spinozak ezin zituen sekula esan; izan ere, badirudi gorputz eta arima esamoldeak aditzera ematen duela Jainkoa eta natura bi izate desberdin direla. Zein urrun dagoen hori Spinozaren iritzitik! Baina izan dira beste filosofo izun batzuek Jainkoa zinez naturaren arimatzat hartu dutenak, eta Spinozismotik egiatik bezain urruti zeudenak. Baldin, beraz, Popek esamolde hauek haiengandik mailegatu izan balitu, zer gertatuko litzateke Extends thro' all extent, *hedatzen da zabaltasun guztian* hitzekin? Doktrina hau Spinozarena ez baizik beste batena izango da? Nork eduki du naturaren zabaltasuna Jainkoaren tasuntzat, ez bada herexe omen den honek? Halere, esan bezala, ez da sinestekoa Popek, gutun hauetan hain zuzen ere, sistema arriskutsu bat azaldu nahi izan duenik. Berak, aldiz —eta hori da goian, nolabait a priori frogatu dudana, poeta batek aukera horretan egin behar duena oinarritzat hartuz— sistema bakoitzetik esamolde ederrenak eta sentisiblenak mailegatu ditu, bere zuzentasunaz kezkatu gabe. Eta horregatik ez du ardurarik izan Jainkoaren presentzia orokorra, zati batean Spinozatarren hizkuntzan, zati batean Jainkoa munduaren arimatzat daukatenean hizkuntzan adierazteko, adierazpen orokor ortodoxoetan idealistegi eta sentisibleetatik urrunegi geratu zelako. Thomsonek lau urtaroei buruzko bere ereserkian eragozpenik izan ez duen bezala esateko: these as the changes — are but the varied God. Esaldi oso

ausarta, baina inolako arte-kritikari arrazoizkok gaitzetsi ezin deza-keena.

Popek bere sistema propioa eratu izan balu, sistema hori erarik komentzigarrianean azaltzeko, poeta baten eskubide guztiak alde batera utziko zituen zalantzarik gabe. Baina hori egin ez duenez, horrek frogatzen du poetarik gehienek nire ustez lanari ekiten dioten bezala ekin diola berak ere. Lehenbizi bere gaiari buruz idazle hau edo bestea irakurri ditu, eta beren printzipioen arabera aztertu gabe, bakoi-tzarengandik bere ustez doinu ederreko bertsoetan egokien errima zitekeena hartu du. Uste dut gainera bere iturburuei dagokienez, aurkitu dudala haien arrastoa, eta horri buruz beste ohar historiko kritikoak egingo ditut, eta hurrengo gehigarria horiei eskainiko diet.

GEHIGARRIA

Jakina denez, Warburtonek gure poetaren defentsari ekin zion Crousaz-en salaketen kontra. Asmo horrekin idatzi zituen gutunek onespelik handiena jaso zuten Poperen aldetik. *Justizia osoa egin didazu*, idazten dio honek gutun batean bere salbatzaileari; *harrigarri badirudi ere. Nik egin behar nuen baina egin ahal ezin izan dudan bezain argi ipini duzu nire sistema* — Ikus pasarte guztia azpiko oharrean*, handik oraindik ondorengo hitzok aipatuko ditudalarik: *Zuk ulertzen nauzu nik neure burua ulertzen dudan bezain ondo; baina ni baino hobeto mintzo zara zu*.

Baina zer dio, poetaren beraren arabera, poetaren iritzia hain osoki ikusi duen gizon honek bere heroia-aren sistemaz? Dio: Popek ez omen dio segitu Leibniz jaunari, baizik Platoni esaten duenean Jainkoak mundu posible guztien artean, onena gauzatu zuela. Platon litzateke, orduan, gure poetaren lehen iturburua! — Baina, ikustagun.— Beno, Platon izan zen Leibnizen iturburua ere. Eta Pope beraz leibniztar bat izan zitekeen, platondar bat denez. Baina honetan, Warburtonek «Ez!» esaten du, izan ere, Leibnizek bortizki zabaltzen dituen Platonen doktrinak Popek dagozkien mugadurekin hartzen ditu. Platonek dio: *Mundurik onena hautatu zuen Jainkoak*. Leibniz jaunak aldiz: *Onena hautatu baino ezin zezakeen Jainkoak*.

Bi gauza era berean antzeko eta onen artean bata bestea baino nahiago izateko gaitasunean omen legoke bi tesi hauen arteko aldea;

eta gaitasun hau Platonek Jainkoari utzi omen zion; Leibnizek aldiz guztiz kendu. Ez dut hemen frogatu nahi makina bat bider dagoeneko frogatu dena, alegia gaitasun hori ergelkeria huts bat dela. Ez dut alegatu nahi hemen Platonek ere onartu behar izan zuela, hautu libre bakoitzean bere zioak dituela aitortzen baitu; Leibnizek dagoeneko hauteman zuen bezala (Teodizea, 1. zatian, 45. §). Ez dut setatu nahi esanez hartaz aldea berez erortzen dela; baizik Warburtonek finkatu duen bezala hartuko dut erabat.

Platonek, orduan, irakatsi bide zuen: Jainkoak mundu hau hautatu zuela, beste mundu batzuek, hau bezain onak, hauta bazitzakeen ere; eta Leibnizek finkatu bide zuen: Jainkoak ezin zuela onena baino hautatu. Eta zer dio Popek? Lehenbiziko eran ala bigarrenean azaltzen da? Irakurri hau:

Of systems possible, if 'tis confest

That Wisdom infinite *must* form the best e.e..

«*Baldin gauza erabakia bada jakituria amaibakoak sistema posible guztien artean onena hautatu behar duela e.a.*». Behar duela? Nolatan da posible Warburtonek esaldi hau isilpean uztea? Platoni jarraiki hitz egitea al da hau, Platonek Warburtonek nahi duenez, Jainkoagan ziorik gabe diharduen askatasun bat onartzen badu?

Aski Platonez, Popek hartaz segituan, lehen urratsetan, berak ere hura utzi zuela uste behar baitzuen! Warburtonek poetari ematen dion bigarren iturburura nator; eta hau da Lord Shaftesbury, harengatik esaten baitu Platonen tesia hartu eta argi garbiagoan jarri duela. Zenbateko neurrian hori gertatu den, zein den lord honen sistema hobetua, hori ez du jakin nahi orain akademiak. Beraz, hemen alegatu nahi dut soilik Popek egiaz Shaftesbury irakurri eta erabili zuela, baina askoz hobeto erabiliko zuela baldin behar bezala ulertu izan balu.

Benetan erabili duela egiaztatzeko, Popek, beretik silaben neurriaz eta errimaz aparte apenas ezer gehiago jarritz, bere gutunetan tartekatu dituen Shaftesburyren «Rhapsody»ko pasarte bat baino gehiago ekar dezaket nik hona. Guztiak ekarri orde, halere, hau bakarrik aipatuko dut. Shaftesburyk Filoklesi erantzun arazten dio gaizki fisikoa zuritzen duen baina moralaren aurrean tematsua den Palemoni: The very Stroms and Tempests had their Beauty in your account, those alone excepted, which arose in human Breast.

«Erauntsiak eta ekaitzak ere badute, zure iritzian, beren edertasuna, baina gizakiaren bularrean altxatzen direnak bakarrik ez». Ez al da hori hain zuzen Popek esaten duena:

If Plagues or earthquakes break not heav'n's design,
Why then a *Borgia* or a *Catiline*?

Baina Popek ez bide zuen ulertu Shaftesbury, edo erabat beste era batera erabiliko zuen bestela. Filosofo libre hau askoz sakonago joana zen gai honetan, eta beti zalantzati dabilen poeta baino askoz zuhurtasun handiagoz mintzo da. Baldin Popek honi segitu izan balio, bere pertsamenduek sistema baten itxura askoz handiagoa izango zuten; askoz hurbilago etorriko zen egiatik eta Leibnizengandik. Shaftesburyk dio, adibidez: *Era askotan jarri nahi izan da agerian zergatik egiten dituen erruak naturak, eta nola datorren errurik egin ezin dezakeen baten eskutik hainbeste ezintasun eta huts dituela. Baina nik ukatu egiten dut errurik egiten duenik, e.a.* Popek, ordea, zera dio: *natura desbideratu egiten da.— Aurrerago esaten du gure lordek: Natura beti berdina da bere egintzetan; ez du jokatzeko era oker edo makurrean; ez indarrik gabe edo zabar; baizik goragoko aurrakari batek edo beste izaera bateko indar bortitzago batek menderatzen du.*^{*} Leibnizek berak ez zukeen hobeto adieraziko perfekzio ataldun bateko arauen borroka. Baina zer daki honetaz Popek, halere Shaftesburyri jarraitu omen dionak? Honek oraindik dio: *Aldiz mirensten dugu, hain zuzen, beheko eta goiko izakien ordenagatik, elkarren artean kontragarririk dauden gauzetan oinarriturik dagoen munduaren edertasuna, gisako jatorrizko kausa anitz eta kontragarrietatik sortzen baita adostasun orokorra.*^{***} Jatorrizko kausa anitz eta kontragarri hitzek hemen berriro ordenaren arauak adierazten dituzte, sarri elkarren ondoan egon ezin daitezkeenak. Eta Popek horren susmorik batere izan balu, gutxiago makurtuko zen Malebrancheren aldera. Halaber ordenaz ideia erabat zuzena dauka Shaftesburyk, Popek, ikusi dugun bezala, ez zeukana. *Coherence or Sympathizing of Things* deitzen du; eta segituan *Consent and Correspondence in all*. Elkar-lotura hau, sinpatizatze hau, adostasun hau erabat beste gauza bat da poetak irudikatu duen ordena mailakatuaren aldean, hau gehienik poetikoki eder aitortu badaiteke ere.

Oro har aitortu behar dut iruditzen zaidala Shaftesbury sarri Leibnizekin beharrik ere ados datorrela, eta harritu egiten naiz harri-

tu zergatik ez diren aspaldi erkatu bi filosofia hauek. Harritu egiten naiz areago, zergatik *Akademiak* ez duen hobetsi Poperen sistemaren ordeztasuna Shaftesburyren sistema aztertzea eta Leibnizenarekin erkatzea enkargatzea. Orduan filosofoak filosofoen kontra, tinkotasuna tinkotasunaren kontra jarriko ziren gutxienez, poeta bat filosofoekin eta sentisiblerik abstraktuarekin borroka neketsu batean nahastu gabe. Beste gizon ospetsuren batekin nolabaiteko gonbarazio baten bidez, Leibniz gustura umiliatu nahi dutenek zer irabazi gehiago izango zuketean Shaftesburyrekin, Poperekin baino. Shaftesburyren obra, «*The Moralists, a Philosophical Rhapsody*», 1709an argitaratu zen; Leibnizen «*Teodizea*» aldiz 1710. urtearen azken aldera atera zen argitara. Gorabehera hori dela eta, nik uste dut egin zitekeela zerbait. Filosofo bat, filosofo ingeles bat, Leibnizek urte bete oso bat geroago pentsatu dituen gauzak pentsatu dituenak, ez ote zion honek hari zerbait lapurtu? *Akademiari* eskaintzen diot pentsa dezan!

Eta orduan Popek Shaftesburyrengandik hartu ditu bere mozerro**** metafisiko gutxiak. Nondik atera zitzakeen bestela? Nondik atera zitzakeen Leibniztar itxura zutenak? *Sistema posible* eta antzekoekin adierazten diren tesiez ari naiz. Warburtonen oharrak hemen uzten nau; baina orobat beste zerbait aurkitu dudala uste dut.

Gogora *De Origine mali* liburua, Teodizearen ondoren segituan Leibnizek komentatzen duena. Leibnizek uste zuen liburuaren egilea gaiaren lehen erdian, gaizkiari buruzkoan hain zuzen, eta gaizki fisikoari buruzkoan bereiziki, berarekin bat zetorrela, eta bigarrenean bakarrik, gaizki moralari buruzkoan, apartatzen zela berarengandik. W. King zen egilea, geroago Dublingo apaizpiku izango zena. Ingeles bat zen, eta bere obra 1702an dagoeneko argitaratua zen.

Honengandik, uste dut nik, hartu duela poetak harrapaka; eta hain zuzen ere, pasarte osoak latinetik itzultzen dituela eta loretxo poetiko batzuekin brodatzen dituela. Haietarik garrantzizkoenak ekarri nahi ditut frogatzen gisan, eta bi hizkuntzak ezagutzen dituen irakurlearen esku utzi.

1.

King. Cap. III. p.m. Ed. Brem. 56

Credendum vero est, praesens mundi Systema optimum fuisse, quod fieri potuit, habito respectu ad Dei mentem in eo fabricando.

Pope. Ep. I. v.43-44

*Of systems possible, if'tis confest,
That Wisdom infinite must form the best.*

2.

King. p.m.58

Oportet igitur multos perfectionum gradus, forte infinitos, dari in opificiis divinis.

Pope. Ep. I. v. 46-47

*Where all must fall or not coherent be
And all that rises, rise in due degree etc.*

3.

King. p.m.72

Opus erat in systemate mundi globo materiae solidae, qualis est terra, et eam quasi rotae vicem habere credimus in magno hoc automatico.

Pope. Ep. I. 4. 56 etc

*So man, who here seems principal alone,
Perhaps acts second to some sphere unknown,
Touches some wheel, or verges to some goale.
'Tis but a part we see and not the whole.*

4.

King. p.m. 89

— *Quaedam ejusmodi facienda erant, cum locus his in opificio Dei restabat, factis tot aliis, quot conveniebat. At optes alium tibi locum et sortem cessisse; fortasse. Sed si tu alterius locum occupasses, ille alter aut alius aliquis in tui locum sufficiens erat, qui similiter providentiae divinae ingratus, locum illum quem jam occupasti, optaret. Scias igitur necessarium fuisse, ut aut sis, quod es, aut nullus. Occupatis enim ab aliis omni alio loco et statu, quem sistema aut*

natura rerum ferebat, aut is, quem habeas, a te implendus, aut exulare te a rerum natura necesse est. An expectes enim, dejecto alio a statu suo, te ejus loco suffectum iri? id est, ut aliorum injuria munificentiam peculiarem et exsortem tibi Deus exhiberet. Suscipienda ergo est divina bonitas, non culpanda, qua ut sis, quod es, factum est. Nec alius nec melior fieri potuisti sine aliorum aut totius damno.

Hitz hauen eduki osoa aurkituko da Poperen lehen gutunean, bereiziki 157. eta 233. lerroen artean. Pasarteak luzeegiak dira hona aldatzeko, eta gainera, zati batean, gorago aipatu dira, ordenari buruzko Poperen ideiaz eta gizakiak gauzen errenkadan izan behar duen leku derrigorrezkoaz mintzo garenean.

Zer esan liteke Popek bere gaiaren zati metafisikoa pentsatu baino gehiago mailegatu egin duela dioten frogak hain nabarmenen aurrean? Eta zer esango da azkenik, baldin nik areago erakusten badut bera ez zela ezertaz konturatu? Entzun, beraz, zer idazten dion D. Swift bere adiskideari gutun batean. Gizakiari buruzko bere saioa, ize-nik gabe, argitaratu zuen Popek, eta Swiften eskuetara iritsi zen, Popek hari, horren berri eman baino lehen. Swiftek obra irakurri zuen, baina ez zuen hain antzeman bere adiskidea. Hori dela eta, Pope harritu egiten da eta idazten dio: *Pentsatzen nuen saio hauetako Iehenean ezagutu ez baninduzun ere, bigarrenean ordean ezagutuko ninduzula.* Ez du honek esan nahi gutxi gorabehera: Lehen gutunetik argitzen duen sakontasun metafisikoa nigan usteko ez bazenuen ere, gainerako gutunetan, materia errazagoa eta dotorezia poetikoa nabariagoa zenez, nire pentsatzeko modua ezagutu behar zenuen? — Swiftek deblauki aitortzen du bere erantzunean, berak ez zeukala Pope hain filosofo handitzat, Popek berak ere bere burua ez zeukan bezala. Nola idatziko zuen bestela, aurreko pasartearen segidan: *Gauza bat eskatuko dizut bakarrik; ez dezazula barre egin nire seriotasunaren kontura, baizik utz diezadazula bizar filosofikoa eramaten harik eta nik neuk ken dezadan arte eta hura barregarri bihur dezadan arte.* Asko esan nahi du horrek! Zenbat harrituko zen, bada, baldin jakingo balu *Akademia* ospetsu batek berak izun hori haren kontura azterketa serioak egiteko duin aurkitu zuela.

Oharrak

* I can only say, you do him (*Crousaz*) too much honour and me too much right, so odd as the expression seems, for you have made my system as clear, as i ouhgt to have done, and could not. It is indeed the same system as mine, but illustrated with a ray of your own, as they say our natural body is the same still when it is glorified. I am sure i like it better, than i did before, and so will every man else. I know i meant just what you explain, but i did not explain my own meaning so well as you. You understand me as well, as i do myself, but you express me beter, yhan i could express myself. Warburtoni 1739ko apirilaren 11.ean egindako gutun batean.

** Much is alledg'd in answer, to shew why Nature errs, and how she

came thus impotent and erring from an unerring hand. But i deny she errs — Natue still working as before, and not perversly or erroneously; not faintly or with feeble Endeavours; but o'erpower'd by superior Rival, and by another Nature's justly conquering Force. *Rapsodhy Part. 2. Sect. 3.*

*** 'Tis on the contrary, from this Order of inferiour and superiour Things that we admire the World's Beauty, founded thus on Contrarietys: whilst from such various and *disagreeing Principles* a Universal Concord is established. Leku berean.

**** Gure tituluko biñetaren bide-nabarreko argibide bat!

ARRAZOIMENAREN KRISTAUTASUNA

§1

Izaki guztiz bikain bakarrak guztiz bikainaren kontenplazioan baino ezin du jardun betikotasun guztitik.

§2

Guztiz bikaina bera berbera da; eta hartaz betikotasun guztitik Jainkoak beregan pentsatu besterik ezin zuen egin.

§3

Pentsatu, nahi eta egin Jainkoagan gauza batbedera da. Esan daiteke beraz, Jainkoari bururatzen zaion hori guztia egin ere egiten duela.

§4

Jainkoak norbera bi eratara pentsa dezake bakarrik: edota bere bikaintasun guztiak batera eta norbera haien bilduma bezala; edota pentsatzen ditu bere bikaintasunak banandurik, bata bestearengandik bereizirik eta bakoitza bere baitan mailen arabera zatikaturik.

§5

Betikotasun guztitik Jainkoak bere norbera pentsatu zuen bere bikaintasun osoan; hau da, betikotasun guztitik Jainkoak berak zituen bikaintasunetatik batbera ere falta ez zitzaion izaki bat sortu zuen.

§6

Izaki honi Idazteunak *Jainkoaren seme* deitzen dio, edo, hobeto legokeenez, *Seme Jainko*. *Jainko*, Jainkoari dagokion ezaugarrietatik bakar bat ere falta ez zaiolako. *Seme*, gure kontzeptuen arabera, irudikapena duenak, irudikapenaren aurretik nolabaiteko lehentasuna daukala dirudielako.

§7

Izaki hori Jainkoa bera da eta ezin da bereizi Jainkoagandik, hori pentsatzen baita Jainkoa pentsatu bezain laster eta hori ezin da pentsatu Jainkoa gabe; hau da, Jainkoa Jainkorik gabe pentsa ezin daitekeenez, edo Jainko ez litzatekeenez bere norberaren irudikapena kenduko balitzaio.

§8

Izaki honi Jainkoaren irudi dei lekiok, baina irudi orobateko.

§9

Zenbat eta gauza gehiago eduki bik komunean orduan eta handiagoa da beraien arteko harmonia. Harmoniarik handiena da beraz gauza guztiak komunak dituzten bi gauzen artekoa, hau da, elkarrekin bat egiten duten bi gauzen artekoa.

§10

Gisako bi gauza dira Jainkoa eta Seme Jainkoa, edo Jainkoaren irudi orobatekoa; eta haien artean dagoen harmoniari Idazteunak deitzen dio Espiritua, *Aitarengandik eta Semearengandik datorrena*.

§11

Harmonia horretan aurkitzen da Aitarengan aurkitzen den guztia, eta halaber Semearengan aurkitzen den guztia; harmonia hori beraz da Jainko.

§12

Harmonia hori hain da, ordea, Jainko, non ez litzatekeen Jainko izango, baldin Aita ez balitz Jainko eta Semea ez balitz Jainko, eta non biak ezin liratekeen Jainko izan, baldin Harmonia hori izan ere, izango ez balitz; hau da: *hiruak bat dira*.

§13

Jainkoak pentsatu zuen bere bikaintasuna banandurik, hau da, sortu zituen izakiak, bakoitzak bere bikaintasunetatik zerbait zuela; izan ere, beste behin errepikatzeko, pentsatu bakoitza da Jainkoagan sorkuntza bat.

§14

Izaki hauek guztiak batera deitzen dira mundua.

§15

Amaibako eratara banandurik pentsa zitzakeen Jainkoak bere bikaintasunak; beraz mundu kopuru amaibakoa izan zitekeen, baldin Jainkoak beti bikainena pentsatuko ez balu, eta horrela era horien

artean erarik bikainena pentsatu eta orobat egiaz egin ere egin izan ez balu.

§16

Erarik bikainena bere bikaintasunak banandurik pentsatzeko da haxe, alegia: gehiagoren eta gutxiagoren maila amaibakoaren arabera banandurik pentsatzen direnean, horiek halako moduan bata bestearen segidan baitaude non beraien artean ez baitago ez jauzirik ez tarterik.

§17

Hala beraz, maila horien arabera antolatu behar dira izakiak mundu honetan. Errenkada bat osatu behar dute eta errenkada horretan atal bakoitzak beheragoko atalek daukatena eta oraindik zerbait gehiago eduki behar du; zerbait gehiago horrek, ordea, ez du sekula erdietsi behar azken muga.

§18

Gisako errenkadak amaibako errenkada izan behar du, eta, zentzu honetan, eztabaida ezinezkoa da munduaren amaibakotasuna.

§19

Jainkoak ez du sortzen izaki bakuna baino, eta atalduna bere sorkuntzaren ondorio baino ez da.

§20

Izaki bakun horietako bakoitzak besteek ere badaukaten zerbait daukanez, eta inork ezin duenez eduki gainerakoek ez leukaketena, izaki bakun horien artean harmonia bat izan behar du, harmonia horretatik argitu behar delarik beraien artean, hau da, munduan gertatzen dena.

§21

Egunen batean kristau zoriontsuren batek honaino hedatuko du naturaren doktrinaren alorra: mende luzeen ondoren bakarrik gertatuko da hori, naturako fenomeno guztiak aztertuak izango direnean, fenomeno horiek beren egiazko iturburuetarako atzera eramatea baino beste egitekorik gera ez dadinean.

§22

Izaki bakun horiek nolerabait jainko mugatu direnez, beren bikaintasunek Jainkoaren bikaintasunen antzeko izan behar dute; zatiak osotasunarekiko bezala.

§23

Jainkoaren bikaintasunen artean dago hau ere, bera bere bikaintasunen jakitun izatea, eta baita ere bere bikaintasunen arabera jardun ahal izatea: biak dira nolabait bere bikaintasunen zigilua.

§24

Bere bikaintasunaren maila desberdinekin lotu behar dira beraz bikaintasun hauen kontzientziaren maila desberdinak eta haien arabera jarduteko gaitasunaren maila desberdinak ere.

§25

Bikaintasunak eduki, beren bikaintasunen jakitun izan eta haien arabera jarduteko gaitasuna duten izakiak deitzen dira izaki moralak, hau da lege bati segi diezaioketenak.

§26

Lege hau beren natura propiotik aterea da eta ezin izan daiteke beste bat ez bada: *jardun zure bikaintasun indibidualen arabera*.

§27

Izakien errenkadan jauzirik gerta ezin daitekeenez, izan behar dute beren bikaintasunen jakitun nahikoa garbi ez diren izakiak ere.

ERLIJIO ERREBELATUAREN JATORRIAZ

§

Jainko bat aitortzea, haren kontzepturik duinenak egiten saiatzea, kontzeptu duinen hauek kontuan hartzea gure egintza eta pentsamendu guztietan: hori da erlijio natural ororen laburpen osoena.

§

Erlijio natural horretarako joera eta betebeharra dauka gizon bakoitzak, bere indarren neurriaren arabera.

§

Baina neurri hori gizaki bakoitzean desberdina eta, hartaz, gizaki bakoitzaren erlijio naturala desberdina litzatekeenez, desberdintasun honek ekar dezakeen eragozpenari aurre egin uste zitzaion ez gizakiaren askatasun naturalaren esparruan, baizik bere gizarte-harremanen esparruan.

§

Hau da: ontzat onartu zenean erlijioa ere guztion artean praktikatzea, gauza eta adigai jakin batzuetan bat egin behar izan zen, eta

itunezko gauza eta adigai konbentzional horiei naturalki ezaguturiko erlijiozko egiak *berenez zuten* garrantzia eta ezinbestekotasuna *eman*.

§

Hau da: gizaki guztien artean modu berean praktikatzeko, ez-gauza zen erlijio natural batetik abiatuz, erlijio positibo bat eraiki behar zen: zuzenbide naturaletik, zergati berberetatik, zuzenbide positibo bat eraiki zen bezalaxe.

§

Erljio positibo honek, bere fundatzailearen itzalaren bidez jaso zuen bere onspena; fundatzaileak uste baitzuen erlijioaren konbentzionala Jainkoarengatik ziurki datorren —bere bitartez, noski— bezain ziurki datorrela erlijioaren funtsezkoa zuzenean bakoitzaren arrazoimenetik.

§

Erljio positibo baten ezinbestekotasuna, zeinaren bitartez erlijio naturala estatu bakoitzean izaera naturalaren eta akzidentalaren bitartez aldatua izango den, deitzen dut nik haren barneko egia, eta haren barneko egia hau batean bezain handia da bestean.

§

Erljio positibo eta errebelatu guztiak dira ondorioz neurri berean egiazko eta neurri berean gezurrezko.

§

Neurri berean egiazko: alde guztietan era berean beharrezko izan zenez gero gauza zenbaiti buruz ados jartzea herri erlijioan adostasuna eta batasuna erdiesteko.

§

Neurri berean gezurrezko: adostu zena funtsezkoaren ondoan egon ez, baizik funtsezkoa ahuldu eta kanpora botatzen duenez.

§

Erlijio errebelatu edo positibo *onena* da, erlijio naturalari egingako eranskin konbentzional gutxien dituen, erlijio naturalaren eragin onak gutxien mugatzen dituen.

ZERBAIT GEHIAGO EZEZAGUNAREN PAPERETATIK ERREBELAZIOARI DAGOKIONEZ

Aurreko aleko *Deisten Tolerantziari buruzko* ezezagun baten zatiak irakurle bati edo besteari —haien onarpena ez da niri gutxien interesatzen zaidana— aparteko eragina egin dio. Zenbat eta gutxiago espero zitekeen hemen gisako zerbait, orduan eta atseginagoa izan zen; «ustekabeen basamortuan jotzen den leku berde baten pareko». Konbarazioa ez da nirea, erraz pentsa daitekeenez. Idatziz saritu eta adorea eman nahi didaten idazle horietako batena da. Gaineratzen baitu, izan ere, benetako liburuzain-harropuzkeriatzat hartuko lukeela berak, baldin nik, hogeita hamar urte dituzten paperak, orain irakurtenezko eta nahikoa hondatuta ez daudelako, besterik gabe, berriro zokoan utziko banitu. Arren eskatzen dit areago, hurrengoan irakurleari gehiago emateko, eta, ahal izanez gero, hango lotsagabeena eta bortitzena ezagutarazteko, fede txikikoen artean zein gauza zentzugabeak hain ezkutuan gordetzen diren susmoa ez esnatzeko.

Beldur gehiegi diot isekari, eta, susmo horri dagokionez, ondo-egi nago jakinaren gainean zalantzarik txikiena egiteko, haren nahia —nik dakidala, beste askoren desio ere bada— asebetetzeko. Baina nekez mahairatuko nuke nik segituan lotsagabeena eta bortitzena. Paperak oso nahasturik daude oraindik eta, gutxien uste denean, eteten da haria. Beraz, ni haietan adituago izan arte, aski izan beharko du irakurleak bestelako sarrerarik gabe aurkezten ditudan hurrengo zatiekin.

Zilegi bekit bukatzeko iradokizun batzuek gainera ditzadan gure azken garai hauetan bereiziki guzti hau zapuzteko eta xahutzeko moduari buruz. Nire egitekotzat hartzen dut gisa honetako eranskin bat, ni neu horretarako gai sentitzen ez banaiz ere.

LEHEN ZATIA

Arrazoiaren izen txarra pulpituetan

BIGARREN ZATIA

Era oinarritu batean gizaki guztiek sines dezaketen errebelazio baten ezinezkotasuna

HIRUGARREN ZATIA

Israeldarrak Itsaso Gorrian barna igarotzea

LAUGARREN ZATIA

Itun Zaharreko liburuak ez zirela idatzi erlijio bat errebelatzeko

BOSGARREN ZATIA

Berpizkundearen historiaz

Eta orain, aski dugu zatietatik! Nire irakurleen artean norbaitek nahiago izan balu niretzat gorde nitzan, ziur da hala nahi duela *ikasia* baino *beldurtia* gehiago delako. Kristau oso *jaieratsua* izan daiteke, baina ez noski *argitua*. Asmorik onenak izan ditzake bere erlijioarekiko; baina gutxiago fidatu beharko luke harekin.

Isan ere, zenbat gauza ez ote lekiekeen erantzun eragozpen eta zailtasun hauei! Eta ezer erantzun ezin balitzaie ere, zer orduan? Teologo ikasia azkenean nahasturik gera daiteke; baina baita kristaua ere? Hau ziur ez. Hura gehienik ere nahasmenduan eror daiteke, erlijioari azpian ipini nahi zizkion euskarriak hain astindurik ikustean; berak, Jainkoari eskerrak, erlijioa hain ederki babesteko eraiki zituen pilareak txikituta aurkitzean. Baina zer inporta zaizkio kristauari gizon honen hipotesiak eta argibideak eta frogak? Beretzat kontua da kristutasuna, berak hain egiazko *sentitzen* duena, non bera hain zoriontsu *sentitzen* den. — Elbarriak argindarraren ziztada mesedegarria *sentitzen* duenean, zergatik kezkatu behar du ea Nolletek edo Franklinek, edo bietatik nork ez, eta nork bai duen arrazoia?

Labur esanda: letra ez da espiritua; eta biblia ez da erlijioa. Hartaz, letraren eta bibliaren kontrako eragozpenak ez dira espiritua-ren eta erlijioaren kontrako eragozpenak.

Izan ere, bibliak erlijioari dagokiona baino gehiago dauka nabarmen: eta hipotesia hutsa da gehiago horretan ere orobat hutsezi-na dela. Izan ere, bazen erlijioa biblia izan aurretik. Kristutasuna bazen, ebanjelariak eta apostoluek idatzi aurretik. Denboraldi bat igaro zen haietako lehenak idatzi zuen arte; eta denboraldi askoz luze-agoa oraindik kanona finkatu zen arte. Beraz, idatzi horien menpe gauza asko egon daiteke, nahi bada, baina ezinezko da erlijioaren egia osoa haietan oinarritzea. Izan ere, erlijioa oso zabaldurik zegoen garai bat, hainbeste arima bereganatu zituen, eta halere *gureganaino* iritsi den *horretatik* oraindik letra bat bera ere idatzi ez zen garai bat ere izan izan zen; hala beraz, litekeena da ebanjelariak eta apostoluek ida-tzi zuten guztia galtzea ere, eta halere haiek irakatsitako erlijioak irau-tea. Erlijioa ez da egiazkoa ebanjelariak eta apostoluek irakatsi zute-lako, baizik egiazkoa zelako irakatsi zuten haiek erlijioa. Beren bar-neko egari jarraiki argitu behar dira tradizio idatziak, eta tradizio ida-tzi guztiek ezin diote barneko egia bat eman, berak ez badu.

Hauxe litzateke, beraz, erantzun orokorra zati horien puska handi bati dagokionez —esan bezala, kasurik txarreanean. Une berean teologo ere baden kristauak, onaturik daukan bere sistemaren espiri-tuan, lasaituko duen erantzunik ematen asmatuko ez lukeen kasuan. Baina nola jakingo du ba ote dakien, nola fidatuko gara gu berarekin, baldin ez bada zilegi eragozpen mota guztiak libre eta zorrotz adie-raztea? Gezurra da dagoeneko eragozpen guztiak erantzunda daudena. Zati handi batean galdera pobrea bazen, hain pobrea zen erantzuna ere. Alde bateko arinkeria eta laidoari, ez gutxitan harrokeriaz eta mespretxuz erantzun zaio beste aldetik. Atsekabe handia sentitu da, alde batek erlijioa eta sineskeria berdintzat jo dituenean; baina ez da inolako kezkarik izan zalantza fedegabezia bezala, arrazoiak dioena nahikotzat hartzea eliza-etsaigo bezala hots egiteko. Han teologoa belabeltz bihurtu da, hemen filosofoa ateo izatera umiliatu. Hala, bakoitzak bere aurkaria munstro bihurtu du, hura, baldin garaitu ezin badu, legez kanpoko deklaratzeko gutxienez.

Egiaz, azalduko da, bi aldeetatik azalduko da, gaiak duen garrantziak eta duintasunak eskatzen duten bezala erlijioa eraso eta erlijioa defendatuko duen gizona. Ezagutza guztiarekin, egia-aren maita-sun guztiarekin, seriotasun guztiarekin! Gotorleku bakanen kontra erasoak jotzea eta atzera eragitea, ez setiatzea da, ezta setioa altxatzea

ere. Eta, halere, orain arte apenas ezer gehiago gertatu den. Etsaiak ez du oraindik inguratu guztiz gotorlekua; inork ez du jo oraindik eraso orokor bat harresitza guztiaren kontra. Beti eraso izan da kanpoko babeslekuren bat, eta sarri gainera oso garrantzi gutxikoa; baina orobat ez gutxitan setiatuen aldetik zuhurtasunez baino gehiago berotasunez defendatu izan da. Haien manua baitzen, kanoi-talde guztia eraso gertatu den leku bakarrera eramatekoa; kontuan hartu gabe, ea bitartean beste etsai bat hutsik utzitako harresian gora ari zen ala ez. Esan nahi dut: froga bakar bat izan da gehiegi tenkatua, besteen kaltetan, are bere beraren kaltetan; iltze batek eutsi behar zion guztiari, eta ez zion eutsi. Eragozpen *bakar* bati erantzuten zitzaion sarri, hura *bakarra* balitz bezala, eta gainera beren aldetik eragozpenak sortzeko oso egokiak ziren gauzekin. Eta jokabidea oraindik ergelagoa zen, eraso izan zen gotorlekua kontraerasorik gabe uzten zenean, etsaiari erdeinuz entregatzen zitzaionean eta norbera beste batera aldatzen zenean. Izan ere, horrela pixka batka-pixka batka, gotorleku guztietatik ez zen izan *erauzia*, baizik *uxatua*, eta aurki beharrezko izango da lehenago utzitakoei berriro erasotzea. Erlijio kristauaren egiari buruzko azken idaztiak apurtxo bat irakurri dituenari, errazak gertatuko zaizkio alegoria honetako adibideak bere atal guztietan.

Zati hauetatik hein batean igar daiteke bai, egiaz, zenbat hurbildu den egilea erlijio erasotzailearen idealera, baina ezin ezagut daiteke guztiz. Badirudi nahikoa leku hartu duela bere lubakiekin, eta serio ekiten dio lanari. — Ai esna baleza berak aurki gizon bat erlijioaren idealari bera adina hurbil dakiona!

Eta gizon horri aurre ez hartzeko, baizik ebatzi ahal dezan *berak* zenbat edukiko lukeen esateko, eta orain datorrenagatik irakurle izuti bati harrapa dezakeen ikara gorria eragozteko, gogora etorri zaizkidan pentsamendu batzuek gaineratzera noa zati bakoitzari. Baldin, ordea, horrela hasieran zilegi dakidan eskatu dudana baino zerbait gehiago egiten badut, hori gertatzen da hura *bakarrik* eginez, ni erraz erortzen naizen iseka tonua gorrotatzen dudalako. Egiaz badago jende bat, etsaiak erlijioa hobiratzeko erosi izan balute bezala hura defendatzen duena. Baina erlijioarekiko iraina litzateke baldin nik ulertzera eman nahiko banu gizon horiek ere egon baino ez dau dela hausturaren aurrean. Egiaz, nondik dakit nik ea gizon horiek ez ote dituzten munduko asmorik onenak? Baldin, beraz, beren asmoak

beraiek gerizatzen ez badituzte, nork gerizatuko nau *ni*, xedetik beraiek bezain urruti jotzen badut?

I.

Kristautasuna onargarri egiteko baino ez gutxiagotarako gai den auzi bat eztabaidatzen du lehen zatiak. Baldin, beraz, izan badira izan teologo batzuek horretan insistitu dutenak, benetan horren premiaz biziki komentziturik sentitu direlako insistitu dute. Jarriko zituzten, bestela, xederak, guztien begien aurrean, pasatzera animatzen zuten atearen azpian?

Eta izan da, noski, gisako teologorik: baina non dago gaur hala-korik? Ez al da aspaldi aldatu mantua bizkarrez? Pulpituek, arrazoia fedearen obedientziarenpean preso hartzeari buruz hots egin ordez, arrazoiaren eta fedearen arteko lotura benazkoenaz baino ez dute hots egiten. Mirariez eta zantzuez sendoturiko arrazoia da fedea, eta arrazoia fede arrazoitzaille bilakatu da. Erlijio errebelatu guztia ez da arrazoiaren erlijioaren onespén berritua baino. Horretan edota ez dago misteriorik edota, baldin badago, berdin dio ea kristauak horrekin ideia hau edo bestea edo bat bera ere ez badu lotzen.

Zein erraz egin dakieken aurka gaizki ulerturiko pasarte batzuez aparte beren alde beste ezer ez zeukaten, eta arrazoiaren kondena-zioaren bidez arrazoi kaltetua mintzen zuten gisako teologoputzei! Arrazoiak eduki nahi zuen eta eduki ere bazeukan guztia beraien kontra jarri zitzairen.

Zein nekeza den, aldiz, arrazoia goratu eta loarazten dutenekin bat etortzea, errebelazioaren kontrakoak giza adimen osasuntsuaren kontrako bezala itsusitzen dituztenean! Arrazoiak eduki nahi bai, baina ez daukan guztia limurtzen dute.

Halere, zalantzarik gabe hemen ere beti egon ohi den lekuan egon behar du egiak: bi muturren erdian. Ea errebelaziorik izan daitekeen, eta izan behar duen, eta horren ustea duten hainbesteren artean ausazkoena zein den, hori arrazoiak bakarrik erabaki dezake. Baina, baldin bat izan badaiteke, eta batek izan behar badu, eta egiazkoa aurkitu ere aurkitu bada, orduan arrazoiarentzat gehiago izan beharko

zukeen errebelazio horren egiazkotasunaren aldeko froga kontrako eragozpen baino, baldin haren alkantzua gaindituko luken gauzarik haren baitan aurkituko balu. Gauza hauek bere erlijiotik ezabatzen dituenarentzat berdin litzateke erlijiorik batere ez balu ere. Izan ere, zer da ezer errebelatzen ez duen errebelazio bat? Aski al da izena gordetzea, gauza bera kanpora bota denean? Eta izena gauzarekin batera ezabatzen duten sinesgabeekin baino ez al da gertatzen hau?

Fedearen obedientziaren menpeko gatibutasun *jakin* bat ez da, beraz, oinarritzen bibliako pasarte honetan edo hartan, errebelazio baten funtsezko kontzeptuan baizik. Gure idazleak hobeto ulertuko zituen beharbada bibliako pasarte hauek; eta nik ezagutzen dut exegeta bat baino gehiago hor barruan gehiago aurkitzen ez duena. Arrazoi osoa izan dezake inolaz semolari gizarajoen parean, lehen gurasoen jatorrizko bekatura jotzen baitute hauek froga beharrik ez duen gauza bat frogatzeko. Berak aitortzen du Moisesen historiak ez duela errurik hain gaizki erabilia izateko. Baina egia ez den bezala hortik giza arrazoiaren *geroagoko* hondatze bat ondoriozta daitekeela, niri iruditzen zait *berak* ere ez duela guztiz ikusi han barruan zegoena. Esaten duenean izan ere: «ezen, entzuleen irakaskuntzarako, sermolariek, benetako arimazain direnez, hobe luketela beren entzuleei arrazoi osasuntsua eta berorren erabilera Jainkoaren ezagutzaren eta bizibide debotaren eredu hutsezinezko bezala gomendatzea; hain zuzen ere gure lehen gurasoak beren arrazoiak baliatu ez zirelako erori baitziren erori ere»; horrela arazoaren erdia baino ez du ahitzen. Izan ere, horrezaz gainera horren arrazoia ere adierazten da, alegia nola eta zergatik geratu zen eraginik gabe beren arrazoia. Hitz batean: gure irritsaren eta gure irudikapen ilunaren indarra dago han intuizio bortitzenera eramana, ezagutza nahi adina garbien guztien gainetik. Indar honi dagokionez, Moisesen kontakizunak eskaintzen du edota lehen esperientzia tristea edota adibide egokiena. Gertakari edo alegoria: indar honetan dago gure oker guztien iturburua; indar hori Adanengan, Jainkoaren irudia arren, sortu gabea zen bezala, gudan jatorrizkoa da. Adanengan guk guztiok egin dugu bekatu, guk guztiok bekatu egin behar genuelako: eta Jainkoaren irudiari esker ez dugu bekatu egin baino egiten, guk gure esku daukagu indar hori ahultzea, eta guk egin-tza onetarako bezala txarretarako ere erabil dezakegu. Ulertzeko modu hau eman geniezaioke gutxienez Moisesen *ipuin* laidotuari, bal-

din guk geroko sistema batek egin zituen horren egokierak ez baditugu barruan sartzen, eta egokiera egokiera baino gehiago ez bada.

Esan bezala: arrazoiaren gatibutasun *jakin* bat fedearen obedientziare pean egotea errebelazio baten funtsezko kontzeptuan oinarritzen da. Edo, aldiz —*gatibutasun* hitzak badirudi alde batetik bortizkeria adierazten duela eta bestetik erresistentzia—, arrazoia preso *ematen* da, bere emate hori ez da bere mugen aitortzea baino, behin errebelazioaren errealitateaz segurantz daukanean. Hori da beraz, hori da lekua erabat eutsi behar dena; eta horrek salatzen du edota arinkeria triste bat isekari maltzurrek *barre* egiten diotenean, edo bestela errebelazio baten egiazkotasunaren aldeko frogetikiko desesperazioa, norbaitek iritzia *luzatzen* duenean, alegia: frogen kontu hori ez dela hain zorrotz ere hartu behar. Horrekin salbatu nahi dena, erremediorik batere gabe galtzen da; eta xedera soil bat da, erlijio kristauaren aurkeriek, erlijioak daukan ulertezintasuna areagotuz, beren auziaz oso ziur ez dauden erlijioaren aldezleei, eta beren adimen zorroztasunaren ohorea segurtatu behar dutela uste dutenei ipintzen dietena.

Beste xedera bat, motarik oneneko teologoei jarri ohi zaiena da gaur arteko doktrina-liburuen aurrean erabat nahigabeturik azaltzea eta erlijioak onarpenik ez izana haien antolaketa okerrari egozte. Egiaz nik ez dut ukatu nahi liburu hauetan gauza asko hobetu behar ez denik: baina ondo begiratu behar da presa gogatsuz jende jakin batek gustura hobetu nahiko lukeena hobetu aurretik; eta horietakoa da gure idazlea bera ere, «arrazoizko erlijio baten eta handik errebelaziorako pasatze arrazoizko baten falta» aurpegiratzen dienean.

Nire iritzian: akats hau hein batean ez da akatsa, eta hein batean arrisku handikoa litzateke hari erremedioa jartzea; *benetan* hari erremedioa jartzea. Horixe baita auzia; izan ere, gainetik apainkeria batzuek hari egitea, liburu maitagarri hauek geza eta antzu bihurtzea litzateke.

Erlijio errebelatuak ez du inolaz aurretik eskatzen arrazoizko erlijio bat, baizik hura barne hartzen du. Baldin hura aurrez eskatuko balu, hau da: hura gabe ulertezinezko balitz, orduan salatu den dotri-
nen gabezia benetako gabezia litzateke. Baina hura barne hartzen duenez, hark irakasten dituen egia guztiak jasotzen dituenetz, eta bestelako froga batekin indartzen dituenetz, orduan arazoa da ea frogatzeko moduaren forma bakarra haurrentzako eta jende arruntarentzako ikas-

liburuetan ez ote den erosoagoa eta baliagarriagoa tesi arrazoizko eta errebelatuen arteko bereizkuntza zehatz bat baino, bakoitza bere iturburu propioen arabera egiaztatuz.

Ziur da, gutxienez, arrazoizko egia soiletatik errebelatueta pasatzea izugarri irristakorra dela, bat lehendabizikoen froga hain zorrotz bezain garbietara ohitu denean. Bigarrenaren frogetan ere zorrozatasun eta garbitasun *berberak* espero eta eskatu ohi dira, eta hain zuzen ere *horrela* egiaztatu ez dena *batere* egiaztatu gabekotzat hartzen da. Gogora datorkit hemen gaztetan gertatu zitzaidana. Matematika ikasi nahi nuen nik, eta kiromantzia jakintza matematikoen artean jartzen duen Sturm zaharraren tabulak ipini zizkidaten eskuetan. Horra iritsi nintzenean, ez nuen asmatzen zer gertatu zitzaidan. Nire adimen kaskarra bizkortasunik batere gabe geratu zitzaidan; eta niri geroko patua ezagutuko nuela agintzen zidan arte bat bazen ere, ez zuen niretzat erakarpenik batere gehiago; ni geratu nintzen ardo goxoaren ondoren ur azukreztatu geza edan izan banu bezala, geometriatik beste aldera begiratu nuenean. Ez nekien zer pentsatu gauza hain desberdinak liburu *bat berean* elkartu zituen gizonaz: agur esan nion hari eta beste irakasle bat bilatu nuen. Baina sinetsi behar izan banu gizon hura hutsezina zela, eskaintzen zitzaizkidan kiromantziako printzipioek —haien apetazkotasuna nik hain nabarmen ikusten bainuen— beldurrez eta mesfidantzaz beteko ninduten nire adimenari biziki gustatzen zitzaizkion egia matematikoeikiko, nik hein batean memoriaz bakarrik jaso banituen ere. Ezin hartu ahal izango nituen biak, geometria eta kiromantzia, neurri bereko ziurtasundun bezala: baina zitekeena zen ni ohitzea kiromantzia eta geometria berdina ez-ziurtzat pentsatzera.

Ez dut uste merezi duenik errebelazioaren aldeko frogak eta kiromantziaren aldeko frogak pisu berekoak liratekeela nik ulertzeraz eman nahiko nukeelako susmotik nire burua defendatzea. Ez dute, noski, pisu bera; beren pisu espezifikoez ez dute inondik ere zerikusirik bata bestearekin; baina froga biak klase berekoak dira; bi-biak oinarritzen dira lekukotasunetan eta proposizio enpirikoetan. Eta gisa honetako froga indartsuenen eta gauzen naturatik datozen frogaren arteko aldea hain nabarmena da, non alferrik den nabarmentasun hau, diferentzia hau era guztietako ñabarduren bitartez bigunago egiteko amarru oro.

II.

Bigarren zatiak gauza erabat zuzen eta guztiz zalantzarik gabeko pila bat esaten du. Ailitu gisa horretako gauzak bakarrik! Gizaki *guztiek* era bakar batean oinarritutako eran sines dezaketen errebelazio bat ezinezkoa den frogaraz, ozo zorrotz eramana dago. Eta hala da izan ere.

Baina ez darama galderak erantzuna ere berarekin? Baldin *gisako* errebelazioa ezinezkoa bada, orduan, noski, Jainkoak ere ezin du posible egin. Baldin, hala eta guztiz ere, errebelazioa baliozkoa eta beharrezkoa bada, ez ote zukeen hobe Jainkoak *bat bera ere* ez ematea, *gisako errebelazio bat* eman ezin zuelako? Jainkoak gizadi osoari mesede hori kendu behar zion, berak gizaki guztiei *une bat berean*, neurri *berean* han parte hartzen utzi ezin zuelako? Nork dauka honi baiezkotzeko erantzuteko bihotzik?

Aski da errebelazioaren banaketan errebelazio hori orokortasun osoarekin eta garbitasun osoarekin eman ezin zezakeen jakinduria eta ontasun gorenak, denborarik *laburrenean* gizonik *gehienek* hartaz gozatzeko bidea hautatu izana. Edo norbait ausartzen da esatera ez dela hala gertatu? Alegia, errebelazioak, beste garai batean, beste herri bati, beste hizkuntza batean emana izan balitz, gizaki gehiago denbora laburragoan gaur kristauak, kristau bezala, harro daitezkeen egiekin eta bertuterako eraginekin hornituko zituela?

Hori uste duenak, izenda diezadala bidenabar beste herri bat, bere eskuetan, bere kontura jarritako errebelazioaren denarioa juduen eskuetan jarria baino era egiazkoago batean ugalduko lukeena. Herri hau, mila bider gehiago mespretxatua mespretxagarria baino, da historia guztian bere erlijioa ezagutaraztea eta zabaltzea zeregin bihurtu duen lehena eta bakarra. Juduek zeregin hori gauzatzeko zuten arretagatik Kristok dagoeneko zigortu zituen, eta Horaziok iseka egin ere egin zien. Gainerako herri guztiak ezkutuan zeukaten beren erlijioa edo inbidiaz beterik zeuden, edo jarrera hotzegia zuten haren aurrean, haren zabalkundean nekerik txikiena hartzeko. Herri kristauak, juduei arreta horretan jarraitu baitiete, hura ondare bezala hartu zuten, juduherriaren arbolan txertatuak zirenez.

Baldin, ordea, idazleak eutsiko balu errebelazioaren ezagutza oinarritu bat, gizaki *guztiek* ezin eduki dezaketena, gizaki *guztiek*

zoriontasunerako derrigor beharrezko dutela: nola iritsiko dira horretara hainbat milioiak...?

Ez dezagula halako pentsamendu hain garratzik pentsatu ere egin! Errukarria gizadia, baldin pentsamendu honen kontra jartzeko ezer ez badu, ez bada esatea... idazleak batuketa egin duela kontua oraindik itxi gabe, eta berari esan dakiokeela: «Kristautasuna betiko da; urteoro lur berriak irabazten ditu, ez misioek ezta bere egiaren froga jakintsuek lur berri hori irabazten laguntzen ez badiote ere; baldin azken mendeetan ez badira kristau bihurtu herri asko, herri kristau horien artean ordea jende gehiago egin da noski kristau; etorriko da ordua, hazkunde ezkutu hori munduari begien aurrean harrigarriro nabarmen jarriko zaiona; etorriko da haize-bolada bat, oraindik banandurik dauden gar guztiak, dena hartuko duen sute *batean* elkartuko dituen; halako moduan non azkenean galduen kopurua salbatuen kopuruaren aldean izango baita gaurko salbatuen kopurua galduen kopuruaren aldean bezalakoa».

Errukarria gizadia, baldin honek edo nolabaiteko beste bereizkuntza txatxar batek kontsolatu behar badu! Errebelazioaren eta errebelazioko liburuen artean bereizkuntza bat egin behar dela; errebelazioa egia bakar oso garbi bat dela, haren historia liburu hauetan gordetzen delarik; zoriontasuna ez dagoela lotua liburu hauen azterketa neketsuari, baizik errebelazioa bihotzez hartzeari, horrek kontuaren kopuru bakoitzean emaitza handiak egingo dituelarik...

Izan ere, errukarri gizadia, baldin *Salbazioaren Ekonomia* hau arima bakar batean ere gal baledi. *Denek* parte mingotsena hartu beharko dute bakar honen galeran, guztien arteko bakoitza izan baitzitekeen bakar hori. Eta zein da zoriontasun hain oparoa, gisako parte hartze batek mingostuko ez duena?

Baina zertarako parentirso (gehiegizko konbaraketa) hau? Gizakiaren gisako porrot merezi gabea, Jainkoaren beraren aldetik infernuari hain eskura jarritako garaipena, ametskeria miserable bat da. Hitz bat: eta konponduta dago.

Errebelazioa hain zuzen haren ezagutzarik batere, edo gutxieenez ezagutza oinarriturik batere erdietsi ezin duten gizakientzat ere zoriontasunerako ezinbestekoa dela: hori ez Kristoren irakatsia da, ezta elizaren irakatsi orokorki onartua ere izan da. Are, elizako elkar-

te desberdinen artean, horri buruz erarik gogorrean azaldu direnek, ezinbestekotasun orokor hori ezin utz daitekeela uste dutenek beraiek ere, ondorio tristemu ihes egin diete, eta esku batez kendu dutena bestearekin eman dute berriro. Berdin dio era politagoan edo itsusiagoan, nola egin duten; zein ez-filosofikoki jokatu duten horretan; zein leial edo ez leial jarraiki zaizkion bere sistema propioari: aski da egin egin dutela, eta pozik eta gogo onez egin dutela. Beren desioak zuritu du beren bihotza; eta teologoak salbuets ezin dezakeena Jainkoak salbue-tsi dezakeela, eta Jainkoak salbuespenik behar ez duten bideak jakin-go dituela aitortzeak bakeatzen ditu beren sistemarekin.

Eta hemen errepikatu behar dut berariaz lehenago gure idazle-aren kontra adierazi dudana ohar orokorra, bera zurrizko bezala salatzeko balio baitu. Liburu sinboliko jakin batzuetan datorren kristautasunaren sistema jakin bat hartzen du berak egiazko bakartzat, kristautasunaren bakartzat. Proposizio batzuek, zein gabe kristautasuna izan ere, izan ezin baitaiteke, sortzaileak berariazko hitzez esan dituenak, eta proposizio batzuek haien arteko lotura egokiago bat egiteko soilik sartu direnak, edo handik ondoriozta behar direla uste izan direnak, beretzat *gauza bera* dira. Halaber, bidezko eta zuzen da, kristautasunaren eztabaidan sekta guztiak gizon *bakartzat* jo behar direla, eta ezin har daitekeela baliozkotzat kristautasunaren kontra ezer, sekten artean inork erantzun ezin duena baizik. Baina ez dira egiaz mota honetakoak ez Jainkoaren gauzetarako giza adimenaren hondaketa osoari buruzko doktrina, horren kontra lehen zatian hain joko ona izan badu ere; ezta bigarren zatian ematen dion salbaziorako fede argi eta garbi baten ezinbestekotasunari buruzko doktrina ere; ezta ere Theopneustiaren (Idazteunaren Jainkozko ispirazioa) doktrina, berak dakarren bezala, eta hala ekarri ere ekarri behar zuen, bere eragozpen guztiei, baita hutsenei ere, interes maila bera eman nahi bazien. Hauxe da gutxienez nire ustea, aurrean daukaguna ikusita.

III.

Hirugarren zatiko eragozpena sarri izan da jarria eta sarri izan da erantzuna. Baina nola egin ziren bata bezala bestea? Ez inolaz hemen bezain sakon, hain zehatz, ihesbide guztiei aurre eginez. Eta

ikus bedi zer balio duten haren kontra Derieus baten, Ealmet baten, Saurin baten, Lilienthal baten erantzunek. Beldur naiz ez dutela asko balio. Ezinbestekoa izango da ortodoxoak zerbait berria pentsa dezan, baldin bere lekuari eusten asmatzen ez badu eta bere auziari hutsik egin nahi ez badio.

Ez ditu konponketa gutxi egin beharko, baldin halako pila handi batek halako denbora laburrean halako bide luzea ezin duela egin onartu eta horrela salbatu nahi balute esanez testuan lekuz aldatzen zen herriaren kopurua oker legokeela; gerrarako gai ziren seirehun mila gizon ordeztu, hirurogei mila bakarrik zirela, sei mila bakarrik zirela aldatu zirenak. Nik egiaz ez dakit gisako errakuntza batek zer hondatuko lukeen, nahita egingo izanda ere. Antzinako garaietan zenbaki handiekin lotu ohi ziren kontzeptu ilunak, eta sarri gertatu ohi zen nahi gabe erabat, kopuru oso handi bat orain zenbaki honekin eta hurrengoan beste batekin ematen zela. Nahikoa zalantza legoke egiteko, baldin antzinako guda guztietan zalantza egin beharko balitz: haietan etsai erorien kopurua idazle batek era batera, beste batek beste era batera, eta denek une berean kontatzen diren beste gorabeherekin adosteko baino askoz handiagoak ematen dituzte. Zergatik beharko litzateke zehaztasun handiagoa mirariekin, haietan mesedea edo zigorra jaso dutenen zenbakiak garrantziarik ez baitu... ez baitago kopuruaren menpe? Izan ere, ea Moisesek bere makilaz itsasoa banatu zuen, eta milioika oin-lehorrez igaro ziren, edo ea Eliseok bere maisuaren mantuaz gauza bera egin zuen Jordanen, bera bakar-bakarrik igarotzeko: ez al da hau hura bezain mirari ona?

Hala pentsatuko nuke nik, noski. Baina ortodoxoak ezin du izan hain etorkorra, auzia, letrarik txikienean ere, salbatzeko posibilitate bat bera saiatu gabe dagoen bitartean. —Hemen bezala, agian.— Izan ere, zer litzateke baldin miraria honoko eran gertatu izan balitz? Israeldarrak, atzetik segika zetozkienaren eskuetan erori nahi ez bazuten, derrigor pasatu behar zuten Itsaso Arabiarreko adarretako batera iritsi zirenean: haize bortitza batek —marearen laguntzaz, nahi bada— urari *itsas* adar horretatik atzera eragin zion, eta han atzean eduki zuen israeldarrak erosotasun osoz pasatu ziren arte. Bien bitartean atzera eragindako urak beste ubide bat bilatu zuen, israeldarren ostean ubidea ebaki zuen, *lurrean* bide berri bat egin zuen, eta adar berri hori izan zen egiptoarrek beren hondamendia aurkitu zuten lekua. Zer

naturalagoa, irudikapen hau baino? Ez al dago uraren izaeran bertan, bere ohiko ubidea eragozten zaiolarik, uberakako lehen leku ahul edo apala gainditu edo pasatzea eta ubide berri bat zulatzea? Eta gure zatiko zein eragozpen geratzen da horrela altxatu gabe? Israeldarrek, nahi adina izanda ere, ez dute zertan presaka ibili beharrik; abelburu eta haur, zaku eta fardel, guztiarekin behar bezain lasai pasa zitezkeen; goizeko beila ordua iristean ez badute igaro ere adar zabal lehorra, adar horretako ura beren ostean dago, eta beren etsaiak itotzen ari dira beraiek ihes egiten duten lurrean.

Ez dakit exegetaren batek gisako irudikapen bat egin eta testua horren arabera tratatu ote duen, testua izan ere, izugarri ongi etorriko baitlitzaioke, bere irudikapen oro baino hobeto etorriko litzaioke. Bai, gauza zorrotz harturik, Luteroren araberrako Moisesen kontakizunean hitz bakar bat ikusten dut adierazpen honen kontra etorriko litzatekeena. Hauxe da: *eta itsasoa berriro goizerako bere korrontera*; edo Michaelis jaunak itzultzen duen bezala: *orduan ura berriro etorri zen goizean eta bere ohiko ur-maila hartu zuen*. Baldin *bere* korrontera itzuli bazen itsasoa; baldin *bere ohiko* mailara itzuli bazen, badirudi adar berri bat, aho berri bat gogara hartzea gehiegizkoa litzatekeela. Luterok, antza, hemen Vulgata jarraitu du oinarritzko testu bezala, esaten baitu: *mare reversum est primo diluculo ad priorem locum*; eta Michaelis jaunak gehiegikeria bat egin zezakeen, bere hipotesiatik testura gehiegi garraiatuz. Izan ere, hitzei jarraiki hemen esaten baita bakarrik: *eta itsasoa berriro goizean bere indarrean itzuli zen*; eta ezin erabaki daiteke ea itsasoa bere indarrean itzuli zen, edo itzuli zen goiza bere indarrean zegoenean.

Izan bedi nahi duena. Ulertzeko nire moldea defenda daiteke edo ezin defenda daiteke: oso urrun nago ortodoxoak bere defentsarako nire burutapen baten beharra izango duela uste izatetik. Honek behar du, esan den bezala, bere lekuan eustea, eta bere laguntzara datozela diruditen burutapen burutsu guztiak alde batera utzi ditzake, egiaz bere lubakitik ateratzen saiatzen zaizkionean.

Bere leku deitzen dut ordea ingurune txiki baina orobat gaindiezinezkoa, handik kanpora ezingo baitu kezkatu eraso batek; lasaitzen duen erantzun *bakarra*, hainbeste eragozpeni eman diezaiokeena eta eman behar diena. Hemen bezala. «Esan dezake, besterik gabe, pasatze *osoa* mirari bat zela? Miraria itsasoaren hondoa lehortzean ez

zetzanean, pila hain handia halako denbora laburrean pasatu zen abiadura mirariaren zati zenean? Nik ez daukat ezer gertakari miragarri honen lehen zatian kausa naturalak ere eragile bezala hartzearen kontra; ez bakarrik idaztiak aipatzen duen haizea; baizik areago idaztiak aipatu ere egiten ez duen marea: eta baldin marea batekin aski ez bada, niregatik bata bestearen segidan datozen bi marea, marea marearen gainean, ez idazleak ez Cuxhaven-go almirantetzako praktikoak* aipatzen ez badu ere. Gogo onez onartzen dut mirari izateko aski zela kausa natural horiek ez zezaten ekin orduan, edo orduan ez zitezala izan hain eraginkorrak, eta orduko era horretako eraginkortasuna, Jainkoaren borondatean oinarritua, orobat aldez aurretik iragarria izan zedila. Gogo onez onartzen dut; baina nik *onartzen* dudana ez zait zigortu behar atzera; mirari batean gerta daitekeela onartzen dudana, mirariari ezer kendu gabe, mirariaren eskakizun ezinbestekotzat ez da jo behar oro har; Jainkoak horretarako erabiltzen dituen indar naturalik antzematen ez delako, ez da guztiz ukatu behar mirari bat. Itsasoko adarra lehortearekin eta haizearen bidez gertatu zela, ongi; eta halere mirari bat zen. Herriak pasatzeko erabili zuen abiadura ez dakit nola gauzatu zen: baina horregatik ez da miraria? Askoz gehiago da miraria. Gainera oso burutsu dirudi zuen idazleak onartzen ez duenean, *ezen Jainkoak Israeldarrei eta beren idiei eta gurdiei hegoak eman zizkiela*. Alabaina, Jainkoak berak dio *arranoen hegaletan* (Irt. 19, 4) atera zituela israeldarrak Egiptotik: Eta baldin hizkuntzak abiadura harrigarri honen mota adierazteko metafora hau baino ez balu? Zilegi bekit Jainkoak erabiltzen duen metafora batean nik ere errealtate gehiago ikus dezadan, zuen demostrazio sinboliko guztietan baino».

Eta ortodoxoak horrela erantzuten badu, nola harrapatu haren alderdi ahula? Astindu daitezke bizkarrak nahi adina bere erantzunaren aurrean, baina dagoen lekuan egoten utzi behar zaio. Hauxe da bere printzipioekiko *jarraikor* mintzatu eta jokatzeari baino, bere printzipioekiko leial jokatzeko eta printzipio *hain seguruak* ez jarraitzea hobesten duen gizonaren abantaila. Kontsekuentzia hau da, —horri esker iragar daiteke aldez aurretik gizaki batek kasu jakin batzuetan nola hitz egin edo jokatu duen— gizona gizon egiten duena, berari aztura eta irmotasuna ematen dizkiona, pentsatzen duen gizaki baten abantaila handiak guztiak alegia. Azturak eta irmotasunak denboraz

* Ikus, Niebuegh-en Beschreibung von Arabien, 414. orria.

printzipioak berak zuzentzen dituzte; ezinezkoa da, izan ere, gizon bat luzaz printzipioen arabera porta dadin, okerrekoak ote diren konturatu gabe. Kontu asko egiten dituenak berehala igartzen du ea biderketako taula zuzen batek laguntzen dion ala ez.

Ez da beraz ortodoxia bera nazkagarria, baizik ortodoxia begioker, erren, bere buruaz bat ez datorrena da zinez nazkagarria! Hain nazkagarria, hain higuingarria, hain okaztagarria! Hauexek dira gutxienez hitz zehatzenak *nik* sentitzen dudanerako.

IV.

Itun Zaharrak ez du ezagutzen arimaren hilezkortasunik baterre, bizi honen ondorengo sari eta zigorrik batere. Hala bedi. Bai, eman oraindik beste urrats bat aurrera. Onar bedi Itun Zaharrak edo Israelgo herriak, guk Babiloniako gatibutasun aurreko garaietako Itun Zaharreko idaztietatik ezagutzen dugun bezala, Jainkoaren batasunaren egiazko kontzepturik ez zuela. Baldin herria esaten bada, eta idazteuna idatzi zutenak bezalako arima argitu batzuek baztertzen badira, onarpen honi egiantz maila handia egotzi lekiok. Gauza ziurra da gutxienez Israelgo herriak bere Jainkoari egozten zion batasuna ez zela inolaz ere gaur teologia naturalaren oinarritzat daukagun batasun metafisiko transzendental. Gailur *horretaraino* ez zen iritsi oraindik giza adimen arrunta lehen garai haietan, eta oraindik gutxiago arte eta jakintzarako hain zabarra zen eta herri jantziekiko harreman oro hain setatsu ezabatu zituen herri batean. Jainko bakar bati buruz gisako kontzeptua izan balu, ezinezko zatekeen herri honek hain sarri hura ukatzea eta beste jainkoetara jotzea. Jainko izunei ez zien izen bera emango; egiazko Jainkoari ez zion deituko soilik *bere* Jainko, *bere* lurreko Jainko, *bere* arbasoen Jainko. Hitz batean, bakarrak ez zuen israeldarrentzat besterik esan nahi ez bada lehenbizikoa, nagusia, perfektuena bere erakoen artean. Paganoen jainkoak beretzat ere jainko ziren; baina hainbeste jainkoren artean batek behar zuen izan ahaltsuena eta jakintsuena; eta ahaltsuen eta jakintsuen hori bere Jehova zen. Bere Jainkoak gainerako herrien Jainkoak ahalez eta jakintzaz gainditzen zituela zalantzan jartzeko arrazoirik aurkitu ez zuen bitartean, hari lotuta bizi izan zen. Baina herri auzo honek edo bestea,

bere jainkoaren arretaren bidez, berak ez zeukan, bere Jehovah eman ezin zion edo eman nahi ez zion ongizate bat gozatzen zuela ezagutu uste bezain laster, bere Jainkoa uzten zuen eta ustezko herri zoriontsuaren jainkoezin lohitzen zen, eta haietatik ez zen urruntzen harik eta bere gogoaz ase arte eta ondasun handiagoen galeraren bidez, funtsezko ongizatea uztearen bidez ordaindu zuen arte. Bakarrik, Babiloniako gatibualdian bere adimena zerbait gehixeago erabiltzen ikasi zuenean; Jainko bakarra era duinagoan pentsatzen zuen herri bat ezagutu zuenean, bere legegeilearen eta bere profeten idaztiak azkenik beren artean arrunt bihurtu zirenean; ikusi zuenean zenbat egia handi eta ezezagun idazti horietan aurkitzen ziren edo bertan sar zitezkeen; jabetu zenean nola, idazti horien arabera hain zuzen, bere Jehovahi batasun askoz garaiagoa zegokion, gainerako jainko guztien gailurrean jartzen zuena baino: bat-batean erabat bestelako herri bihurtu zen, eta idolatria oro desagertu zen haren erditik. Baldin gizon batek inondik ere uka ezin dezakeen bapateko aldaketa hau ez bada argitzen bere Jainko propioaz egin zuen kontzeptu nobleago honen bidez, ezin da ezeren bidez argitu. Jainko nazional batenganako bilau izan daiteke bat, baina ez Jainkoarekiko, behin hura ezagutuz gero.

Esan bezala, eman bedi oraindik beste urrats bat laugarren zatiko eragozpenen gaindi, eta erantsi: Moisesek berak bere mandatuaren hasieran amaibakotasunaz inolako kontzepturik ez zuenez, —galdetuko zion bestela bere izenaz?— Jainkoa haren mailara makurtu zela eta ez zitzaioala *azaldu* amaibakoa bezala, baizik sineskeriak lurraldeak eta herriak banatu zituen jainkotasun bereizietako bat bezala soilik. Jainkoa hebertarren Jainkoa zen; eta hebertarrak bere Jainkoaz aspertu zirenean, zer naturalago beste Jainko batekin saiatu nahi izatea baino?

Orduan oraindik —baldin Israelgo herri zaharrari, egiazko Jainko bat bakarra ezagutu izana *frogatutzat* eman baino gehiago *ontzat* ematen bazaio ere— orduan oraindik ni ausartuko nintzateke Jainkoaren bideak harekin zuritzen.

Edozein modutan, gauza hauetatik ez dago ezer ateratzerik Itun Zaharreko liburuen jainkozkotasunaz. Hau, izan ere, han datozen erlijio naturaleko egietatik ez baino erabat bestela frogatu behar da. Mota honetako egia garbienak, gailenenak, sakonenak, hain zaharra den beste liburu batean aurki daitezke, eta horren froga badaukagu gaur; Bibliaren jainkozkotasunaren aldeko hainbat sorites jakitun balio gabe

uzten duten frogak, horretan Itun Zaharrean bakarrik irakasten den Jainkoaren batasuna kateabegi bat baino ez baita. Brahamandarren liburu sainduak antzinatasunez eta Jainkoaren irudikapenari dagokionez Itun Zaharreko liburuekin lehia daitezke, baldin gainerakoa ere fidatzeko gizonak eskaini dizkiguten laginen pareko bada. Izan ere, nahiz giza adimena oso astiro hezia izan, eta nahiz, gaur gizon arruntarentzat hain argiak eta garbiak diren egiak, garai batean ulertezinezko izan eta, hartaz, jainkotasunaren zuzeneko inspirazio itxura izan behar, eta nahiz orduan gisa horretan bakarrik hartuak izan; izan dira, hala eta guztiz ere, garai eta lurralde guztietan arima pribilejiatuak, beren indar propioz bere garaikideen esferaz gainetik pentsatzen zutenak, argi handirantz jotzen zutenak, eta arlo horretako beren aurkikuntzak, ez noski komunikatu, baina bai kontatu ahal zezaketenak.

Beraz, halako gizonengandik etor daitekeena — oraindik ere aldian-aldian sortzen dira halako batzuek, baina beti ere haiekiko jokatzeko modua ez da zuzena izaten inolaz— ezin erabil daiteke jainkozko jatorri zuzenaren froga bezala. Baldin jatorri hori ezin froga ahal badaiteke, hala izan ere, denean, ezin orobat uka daiteke jatorri hori, huts egiten duenean; eta liburu batzuek Jainkoagandik etor daitezke, Jainkoaren inspirazio goragoko batez eginak izan daitezke, haietan arimen hilezkortasunaz eta bizitza honen ondorengo ordaintzaz arrastorik apenas edo batere aurkitu ezin badaiteke ere. Liburu hauek erlijio doatsugile bat gorde dezakete barruan; erlijio bat, alegia, zeina jarraituz, gizakiak beretzat, berak uste baino zoriontasun handiagoa ziurta dezakeen. Izan ere, zergatik ez litzateke moldatu behar-ko gisako erlijio bat bere gogoen eta nahien mugen arabera? Zergatik zabaldu behar-ko luke derrigor gogo eta nahi horien esparrua? Jakina, gisako erlijio doatsugile bat ez litzateke erlijio kristau doatsugilea. Baina erlijio kristaua garai jakin batean eta barruti jakin batean azal zedin, izan diren gainerako garai guztiek, gainerako barrutiek ez zuten izan behar horregatik erlijio doatsugilerik? Teologoei gogo onez aitortuko diet *doatsugileak* erlijio desberdinetan beti *bera* izan behar duela: baldin trukean aitortzen badidate gizakiek beti ez dutela hori *kontzeptu berarekin* uztartu. Jainkoak erlijio guztietan nahi izan zukeen *kontenplazio berean*, *arrazoi beraiengatik* zoriontsu egitea, horregatik gizaki guztiei kontenplazio horri buruz, arrazoi horiei buruz *errebelazio bera* banatu gabe.

Adiskide giro jakin batean lantxo bat ibili da duela gutxi eskuizkribu gisan, liburu oso baten lehen lerroak zekartzana, eta hauxe zuen titulua: *Gizadiaren hezkuntza*. Aitortu behar dut lantxo horretako zenbait gogoeta hitzez-hitz erabili dudala. Zerk eragozten dit, edo hobeto esanda: zer da egokiago horren hasiera bere erlazio osoan zabaltzen badut, gure *laugarren* zatiaren edukiarekin hain zehatz datorrenean? Horrela egiten dudan zentzungabekeriari badakit nola erantzun; eta idazlearen asmoen gardentasunaz guztiz komentzi-turik nago. Ez da lehen begiratuan dirudien bezain heterodoxoa ere, irakurle zailenak ere aitortuko duenez, baldin lantxo guztia edo haren zabalero osoa argitaratzea ontzat ematen bada. Hemen, beraz, hasiera, —bere edukiaren erlazioagatik eta baliagarritasunagatik ematen dudana.

Gizadiaren hezkuntza

(Titulu bereko laneko lehen 53 paragrafoak ematen ditu)

ESPIRITUZKO ETA INDARREZKO FROGANTZARI BURUZ

Schumann zuzendari jaunari, Hanover-era.

Nire jauna,

Nori gerta lekiok e interesgarriago berorren azken idatzia segituan irakurtzea, niri baino? — Hain naiz komentzimenduen gose, non, Erikhonek bezala, jaki itxura duen oro irensten dudan.— Baldin berorrek orri hauekin gauza bera egingo balu, bata bestearen pareko ginateke biok ere. Egia-bilatzaileek elkarri zor dioten estimu handiz, agurrik ez,

Berorren, eta abar.

Gauza bat dira profezia egiaztatuak, nik egiaztatzen ikusi ditudanak; beste gauza bat profezia egiaztatuak, zeintzukengatik nik historikoki bakarrik dakidan beste batzuek egiaztatzen ikusi omen dituztela. Gauza bat dira mirariak, nik nire begiez ikusi eta aztertzeo aukera ditudanak; beste gauza bat mirariak, zeintzukengatik nik historikoki bakarrik dakidan beste batzuek ikusi eta aztertu omen dituztela. Eztabaida ezinezko da hori? Horren kontra ez dago zer esanik? Baldin ni Kristoren garaietan bizi izan banintz, zalantzarik gabe bere pertsonagan egiaztaturiko profeziek berarenganako arreta piztuko zidaten. Ikusi izan banu mirariak egiten, izan ez banu batere arrazoirik haiek benetako mirariak zirenaren kontra; eta zalantzarik gabeko esperientziak bere kontra ez leudeken guztietan sinetsiko niokeen.

Edo, baldin orain ikusten badut Kristori edo erlijio kristauari dagozkion profeziak, zeintzuen lehenagokotasunaz aspaldi ziur nagoen, ezin eztabaidatzeko eran bete direla; baldin oraindik ere kristau fededunek egingo balituzkete mirariak, nik miraritzat onartu beharko nituzkeenak: zerk eragotziko lidake ni *espirituzko eta indarrezko frogantza*, apostoluak deitzen duen bezala, horren menpe jar-
tzea?

Azken kasu honetan aurkitzen zen Origenes, arrazoi osoa baitzuen esateko erlijio kristauak espirituzko eta indarrezko demostrazio horretan dialektika greko guztiak eskaini zezakeen baino demostrazio propio jainkotiarrago bat zeukala. Izan ere, bere garaian oraindik «ez zen erretiratu gauza harrigarriak egiteko indarra» Kristoren aginduak jarraiki bizi zirengandik; eta baldin horren adibide zalantza gabeak bazituen, derrigor, bere zentzu propioak gezurtatu nahi ez bazituen, espirituzko eta indarrezko demostrazio hori onartu egin behar zuen.

Baina nik, inolaz ere Origenesen kasuan ez nagoen honek, 18. mendean, miraririk gehiago ez dagoen mendean bizi naizen honek, baldin nik, nire garaiari hobeto egokitzen zaion beste demostrazio baten bidez sines dezakedana, espirituzko eta indarrezko demostrazioagatik sinesteko zalantzak baditut, zergatik da hori?

Honexegatik da: espirituzko eta indarrezko proba horrek gaur ez daukalako ez espiriturik ez indarrik gehiago; aldiz espirituaren eta indarraren giza-lekukotzara jaitsi delako.

Honexegatik da: egiaztaturiko profeziei buruzko albisteak ez direlako egiaztaturiko profeziak; mirariei buruzko albisteak ez direlako mirariak. *Hauek*, nire begien aurrean egiaztaturiko profeziek, nire begien aurrean gertaturiko mirariek, zuzenean eragiten dute. *Haiek*, egiaztaturiko profeziei eta mirariei buruzko albisteek, indar guztia kentzen dien *bitarteko* baten bidez eragiten dute.

Origenes aipatzea eta hari esanaraztea «indarrezko frogak Kristoren irakatsia bermatzeko jazoriko mirari harrigarriengatik gertatzen dela», ez dago oso zuzen egina, baldin Origenesengan segituan ondoren datorrena irakurleari isiltzen bazaio. Izan ere, irakurleek Origenes berarengana joko baitute eta harriturik aurkituko dute, ezen berak kristautasunaren sorkuntzan jazoriko mirari haien egia

μ (beste era askotara), eta beraz *baita ere* ebanje-

larien kontakizunen bidez, baina batez ere eta bereiziki garai hartan oraindik gertatzen ziren mirarien bidez frogatzen duela.

Baldin, beraz, froga guztien froga hau orain erabat galdu bada; baldin, orduan, ziurtasun historiko oro ahulegia bada galdu den frogen froga nabarmenen hau ordezkatzeko; nola eskatuko zait niri, duela 16 edo 18 mendeko jendeek zergatirik indartsuenarengatik sinesten zituzten egia ulertezin berberak, zergati askoz txikiago batengatik era indartsu berean sines ditzadan?

Edo, salbuespenik gabe, historialari sinesgarrietan irakurtzen dudana, nik nirez ezagutzen dudana bezain seguru al da niretzat?

Ez nekien nik inork sekula hau esan zuenik: aldiz esan ohi da guk profetia haiei eta mirari haiei buruz ditugun albisteak egia historikoak izan ohi diren bezain fidagarri direla. Eta horri gaineratzen zaio, noski, egia historikoak ezin demostra daitezkeela: baina, hala eta guztiz ere, egia demostratuak bezain irmo sinetsi behar direla haiek ere.

Honi erantzuten diot nik. *Lehenbizi*: nork ukatzen du —nik ez— mirari eta profetia haiei buruzko albisteak egia historikoak bakarrik izan daitezkeen bezain fidagarriak direla? —Baina, orduan: baldin hain fidagarriak badira *bakarrik*, zergatik bihurtu ohi dira ohiko erabileran askozaz fidagarriago?

Eta nola? —Bada, egia historiko egiazkoen gainean eraiki litezkeen baino gauza desberdin eta gehiago eraikitzen direlako.

Baldin inolako egia historikorik froga ezin badaiteke, orduan ezin demostra daiteke ezer egia historikoen *bitartez*.

Hau da: *historiako egia halabeharrezkoak (contigente) ezin bilaka daitezke adimenezko egia ezinbestekoen froga*.

Nik ez dut ukatzen beraz inondik ere Kristorengan profeziak egiaztatu zirenik; ez dut ukatzen Kristok mirariak egin zituenik; baidiz nik ukatzen dut mirari horiek, gaur eskura edukiko genituzkeen mirarien bidez haien egia frogatzeko modua guztiz ahitu zenez geroztik; mirarien albiste baino ez direnetik (albiste horiek nahi bezain ezin kontraesanak, ezin kontraesangarriak izan arren) ezin nautela ni behartu, ezta behar ere, inolaz Kristoren bestelako edozein irakatsi sinestera. Bestelako irakatsi hauek bestelako arrazoiengatik onartzen ditut nik.

Izan ere, *bigarren*, zer esan nahi du adierazpen historiko bat egiazkotzat hartzeak? Egia historito bat sinestea? Esan nahi al du adierazpen hori, egia hori onartzea baino ezertxo gehiago? Haren kontra ezer esateko ez edukitzea? Onartzea beste batek haren gainean beste adierazpen historiko bat eraiki dezakeela, beste egia historiko bat ondoriozta dezakeela? Norberarentzat beste gauza historiko batzuek haren arabera balioztatzeko eskubidea gordetzea? Esan nahi al du beste ezertxo? Zerbait gehiago? Azter beza bakoitzak bere barnea!

Guk guztiok sinesten dugula behinola izan zela Alexandro bat, epe labur batean kasik Asia osoa garaitu zuena. Baina nor ausar liteke, fede horren ondorioz garrantzi iraunkor handiko eta haren galera osatu ezina gertatuko litzaigukeen zerbaitetara? Nork, sineste horren ondorioz, ukatuko luke betiko sineste horren kontra lijoaken ezagutza oro? Ez nik, egiaz. Nik ez daukat orain Alexandroren eta bere garai-penen kontra ezer: baina litekeena da hori guztia Alexandrori alde guztietara laguntzen zion Choerilius-en poesia soil batean soilik oinarritzea, Troiako hamar urteko setioa Homeroren poesietan oinarritzen den bezalaxe.

Baldin, ondorioz, historikoki nik ez badaukat ezer Kristok hildako bat berpiztu izanaren kontra; horregatik egiazkotzat eduki behar dut Jainkoak seme bat duela, berarekin izate bereko dena? Zein lotura dauka nik haren lekukotzaren kontra zerbait garrantzizko kontragartzeko ezintasunak, nire arrazoia ez onartzen tematzen den zerbait sinesteko obligazioarekin?

Baldin nik historikoki ezer ez badaukat kontragartzeko Kristo hori bera hilen artetik piztu izanari: nik horregatik egiazkotzat eduki behar dut Kristo berpiztu hori hain zuzen Jainkoaren Semea dela?

Kristo hori —haren berpizkundearen kontra ezer garrantzizko historikorik kontragartzeko ez daukat— horregatik Jainkoaren Semetzat azaldu dela; bere jarraitzaileek horregatik halakotzat hartu zutela: nik hori guztia zinez gogo onez sinesten dut. Egia hauek, mota bat eta bereko egia bezala, bata bestearen atzetik berez baitatoz.

Baina egia historiko horiekin beste egia mota guztiz bestelako batera jauzi egitea, eta niri eskatzea nire kontzeptu metafisiko eta

moral guztiak hartaz aldatu behar ditudala; niri eskatzea, nik Kristoren berpizkundeari inolako lekukotza sinesgarrikik kontragarri ezin diezaiokedalako, Jainkotasunaren izateari buruzko nire funtsezko ideia guztiak horregatik alda ditzadan: baldin, hau µ

bat ez bada; orduan nik ez dakit Aristotelesekin bestela izendapen horrekin zer ulertzen zuen.

Esan ohi da, noski: baina, hain zuzen ere, hildakoak piztu dituela, bera hilen artetik berpiztu dela zuk historikoki onartzen diozun Kristo berak esan du Jainkoak bere izate bereko Seme bat duela, eta Bera dela Seme hori.

Oso ondo legoke hori! Baldin ez balitz orobat gertaera historiko baino, Kristok hori esan duela.

Baldin niri oraindik ere esango balitzait: «Bai horixe! Hori historikoki baino ziurrago da; errurik egin ezin duten historialari inspiratuek ziurtatzen baitute hori».

Tamalez, hori bera ere historikoa da, alegia historialari horiek inspiratuak zirela eta ezin zutela errurik egin. Hauxe, hauxe da, jautzia sarri eta benaz saiatu arren, gaintitu ahal izan ez dudana zanga zabal nazkagarria. Inork gaintetik pasatzen lagundu ahal balit, egin beza; hala eskatzen diot, arren eta arren eskatzen diot hori. Jainkoak sarituko du.

Eta hala errepikatzen dut goian esandakoa, hitz berberak erabiliz. Ez dut ukatzen Kristorengan profeziak bete direnik; ez dut ukatzen Kristok mirariak egin dituenik: baina nik ukatzen dut mirari horiek, gaur eskura edukiko genituzkeen mirarien bidez haien egia frogatzeko modua guztiz ahitu zenez geroztik; mirarien albiste baino ez direnetik (albiste horiek nahi bezain ezin kontraesanak, ezin kontraesangarriak izan arren) ezin nautela ni behartu, ezta behar ere, inolaz Kristoren bestelako edozein irakatsi sinestera.

Zerk lotzen nau, beraz, horretara? Ezerk ez, ez bada irakatsi horiek beraiek, duela 18 mende egiaz hain berri, garai hartan ezaguturiko egien inguru guztiarekiko hain arrotz, hain ezin irentsizko zirela, non mirariak eta egiaztaturiko profeziak baino ezer gutxiago ez zen eskatzen, jendetzak horretan arreta ipini zezan.

Baina jendetzaren arreta zerbaitetara erakartzeak esan nahi du gizakien adimen osasuntsuari arrastoa segitzen laguntzea.

Horretara etorri da bera; horretan dago bera: arrasto horri jarraiki, ezker-eskuin biltzen dituenak, horiek, horiek dira mirari eta egiaztaturiko profezia haien fruituak.

Fruitu horiek nire aurrean heltzen eta umotzen ikusi eta haiekin ezin aserik geratu beharko nuke nik? Eta hain zuzen ere, antzina-ko ipuin bat badagoelako esaten duena ereiten duen eskua, eskukada bakoitzeko, zazpi bider garbitu behar dela barraskilo-odoletan ez dut ipuina ez ukatzen, ezta zalantzan jartzen ere; aldiz, bere lekuan jartzen? Zer axola niri ipuina gezurrezkoa ala egiazkoa den: fruituak oso onak dira.

Demagun balegokeela matematikako egia handi eta onuragarri hat, asmatzaileak sofisma nabarmen batez aurkitu lukeena: (baldin halakorik ez badago ere, egon egon zitekeen gisakorik) ukatuko al nuen nik horregatik egia hori? Uko egingo al nioke egia horretaz baliatzeari? Izango al nintzateke ni horregatik asmatzailearen irain-tzaile esker txarreko bat, nik bestela ere egiaztaturik dagoen bere zorroztasun horretan oinarri hartu nahiko ez nukeelako, egiara jotzen lagundu dion sofisma hori *ezin zitekeela* izan sofisma frogatu nahi izateko?

Bukatu eta opa dut: ai!, elkar litez Joanen testamentuak, Joanen ebanjelioak banatzen dituen guztiak! Aprozifoa da, noski, testamentu hau, baina ez horregatik da gutxiago jainkotiar.

GIZADIAREN HEZKUNTZA

Haec omnia inde esse in quibusdam vera,
unde in quibusdam falsa sunt.

Augustinus

Argitaldariaren aitzin argibidea

Artikulu honen erdia nire *Lankidetzak* sortan argitaratu nuen. Gainerakoa argitaratzeko egoeran nago orain.

Egilea hegia baten gainean jarri da, eta gaurko egunerako izendaturik daukan bidea baino zertxobait gehiago ikusi uste du.

Baina ez du desbideratzen gaueko etzangua azkar iritsi nahirik dabilen ibiltaria bere xendratik. Ez da bere asmoa bera liluratzen duen ikuspegiak gainerako begi guztiak liluratu behar dituenik ere.

Eta hala, pentsatzen nuen nik, bera dagoen eta harritzen den lekuan egoten eta harritzen utz lekiokela!

Ilunabar garbi batek bere begiradari ez guztiz ezkutatu ez guztiz agertzen ez dion urruntasun amaibako batetik, sarri ni nahastuta eduki nauenez berak oharpen bat ekarriko balu!

Hauxe aipatu nahi dut. Zergatik ez dugu hobesten erlijio positibo guztietan leku bakoitzean giza adimena garatzeko eskaintzen duen, eta are hura soilik eta bakarrik garatuko duen ibilbidea begiratzeari, haietako baten kontura edota barre egin edo haserretu ordeztu? Mundurik onenean ez legoke ezer gure irain hau, gure haserrea merezik lukeenik: eta erlijioek bakarrik merezi behar dute? Jainkoak gauza guztietan esku hartuko luke, eta gure okerretan bakarrik ez?

§ 1

Gizaki bakoitzarentzat hezkuntza dena, da errebelazioa gizadi osoarentzat.

§ 2

Gizaki bakoitzari gertatzen zaion errebelazioa da hezkuntza: eta errebelazioa da gizadiari gertatu zaion eta oraindik gertatzen zaion hezkuntza.

§ 3

Hezkuntza ikuspegi honetatik ikusteak pedagogian mesederik ekar ote dezakeen, ez dut nik aztertu nahi hemen. Baina teologian inolaz mesede handiak ekar ditzake, eta eragozpen asko konpondu, baldin errebelazioa gizadiaren hezkuntza bezala hartzen bada.

§ 4

Hezkuntzak ez dio gizakiari berez berak eduki ezin zezakeen ezer ematen; berez eduki zezakeena ematen dio, baina, hori bai, azkarago eta errazago. Beraz, errebelazioak ere ez dio gizadiari ematen giza-adimenak, bere hartan utzirik, erdietsi ezin zezakeenik ezer: baina eman zizkion eta ematen dizkio goizago gauza hauetako inportanteenak.

§ 5

Pedagogiarentzat berdin ez den bezala zein ordenatan garatzen dituen gizakiaren indarrak; nola ezin dakiokkeen eman gizakiari guztia batera: hala Jainkoak ere bere errebelazioan ordena jakin bat, neurri jakin bat gorde behar izan du.

§ 6

Lehen gizakia Jainko bakar baten ideiarekin hornitua izan bazen ere, ideia irakatsi eta ez erdietsi honek ezin iraun ahal izan zuen luzaz bere gardentasunean. Giza adimena bere hartara utzirik, hura lantzen hasi bezain laster, ezin neurtuzko bakarra neurrigarri diren zenbaitetan banandu zuen, eta hauetako bakoitzari ezaugarri bat eman zion.

§ 7

Horrela sortu ziren era naturalean politeismoa eta idolatria. Eta nork daki zenbat milioika urtez giza-adimena galduta ibiliko zen makurbide hauetan, nahiz alde eta garai guztietan gizaki bakan batzuek izan ere, izan diren hauek makurbideak zirela zekitenak: baldin Jainkoari ederretsi izan ez balitzaio kolpe berri batez norabidea iraultzea.

§ 8

Baina gizaki bakoitzari ezin zitzaionez errebelatu, ezta nahi ere, herri bakar bat hautatu zuen hezkuntza bereizi bat emateko; eta hain zuzen ere ohiesena, basatiena hautatu zuen, harekin berriro hasiera-hasieratik hasi ahal izateko.

§ 9

Hau izan zen herri israeldarra, norengatik jakina ere ez baita jakina zein kultu zeukan Egipton. Izan ere, egiptoarren kultuan ezin zuten parte hartu esklabo hain mespretxatuek: eta beren arbasoen Jainkoa guztiz ezezaguna bihurtu zitzaien.

§ 10

Beharbada egiptoarrek berariaz galarazi egin zieten jainkoren bat edo jainko batzuek edukitzea; beren sinestean itsatsi zieten ez zegoela jainko bat, ez zegoela jainko askorik; jainko bat, jainko asko

edukitzea egiptotar hobetsien eskubidea zela: eta hori zuzenbide-
-itxura handiagoz haiek tiranizatu ahal izateko. Askoz bestela porta-
tzen al dira kristauak gaur beren esklaboekin?

§ 11

Herri zabar honi, beraz, eman zion Jainkoak bere burua ezagu-
tzera bere arbasoen Jainko bezala, berari zegokion Jainko baten ideia
ezagutarazi eta hartara ohitzeko.

§ 12

Egiptotik ateratzeko eta Kanaanen bizitzen jartzeko egin zituen
mirarien bidez, handik gutxira beste jainko bat edozein baino botere-
tsuago zen Jainko bezala agertu zitzairen.

§ 13

Eta jainko guztien artean ahaltsuen bezala azaltzen segitzen
zuenez —eta hori bakarra baino ezin daiteke izan—, astiro-astiro
Bakarraren ideia ohitu zuen.

§ 14

Baina zein urrun zegoen bakarraren ideia hau, adimenak askoz
geroago amaibakoaren ideiatik segurtasunez ondorioztatu zuen baka-
rraren ideia transzendental egiazkotik!

§ 15

Bakarraren ideia egiazkora —nahiz horretara herriko onenak
gehiago edo gutxiago hurbildu ziren— herria ez zen hain azkar igoko:
eta hori izan zen arrazoia zergatik hain sarritan utzi zuen Jainko baka-
rra, eta bakarra, hau da ahaltsuena, beste herriren bateko jainkoren
batean aurkitu uste izan zuen.

§ 16

Baina herri bat, hain zabarra, hain baldarra zena pentsamendu abstraktuetarako, oraindik erabat bere haurtzaroan aurkitzen zena, zenbateko neurrian zen gauza hezkuntza *moral* baterako? Haurtzaroari dagokionerako baino ez. Zuzeneko zigor eta sarien bidezko hezkuntzarako, alegia.

§ 17

Beraz, hemen ere topo egiten dute hezkuntzak eta errebelazioak. Jainkoak oraindik ezin zion eman bere herriari beste erlijiorik, beste legerik, ez bada bat, alegia: hura betez edo ez betez hemen lurrean zorioneko edo zorigaiztoko izango zen esperantza edo beldurra sortuko ziona. Izan ere, bizitza honetatik haratago ez zen iristen bere begirada. Ez zuen ezagutzen arimaren inolako hilezkortasunik; ez zuen irrikatzen etorkizuneko bizitzarik. Gauza hauetarako prestaturik ez zeukan adimenari ordea, halako gauzak errebelatzea, zer litzateke Jainkoaren aldetik, ez bada pedagogo harroaren okerra egitea, honek nahiago izaten baitu haurra aurreraraztea eta horrekin harrotzea, sakon irakastea baino.

§ 18

Baina zertarako, galdetuko da, herri hain zabar baten heziketa, Jainkoak hasiera-hasieratik hasi behar zuenez herri horren heziketa? Nik erantzun: denbora igaro ahala hango kide bakan batzuek era askoz seguruagoan gainerako herrien hezkuntzarako erabili ahal izateko. Han hezi zituen gizadiaren etorkizuneko hezitzaileak. Horixe ziren juduak, juduak baino ezin zitezkeen izan, gisa horretan hezitako herri bateko gizonak.

§ 19

Goazen aurrera. Haurra, kolpe eta fereken artean, hazi eta arrazoiaren adinera iritsi zenean, aitik bat-batean atzerrira bota zuen; eta

hemen konturatu zen bat-batean bere aitaren etxean izan eta aitortu ez zuen ongiatz.

§ 20

Jainkoak bere herri aukeratua bere haur-hezkuntzako maila guztietan barna gidatzen zuen bitartean, lurrazaleko gainerako herriek arrazoiaren argitan segitu zioten beren bideari. Haietako gehienak herri aukeratuaren aldean oso atzean gelditu ziren: gutxi batzuek bakarrik hartu zioten aurre. Gauza bera gertatzen da beren kasa hazten uzten zaien haurrekin ere; asko oso gordin geratzen dira; batzuek harritzeko moduan hezitzen dituzte beren buruak.

§ 21

Baina gutxi batzuek horiek hezkuntzaren balioaren eta premiaren kontra ezer frogatzen ez duten bezala, hala gaurdaino Jainkoaren ezagutzan herri aukeratuaren aurretik abantaila dutela diruditen herri pagano gutxiak ere ez dute ezer frogatzen errebelazioaren kontra. Haurrak urrats astiro baina seguruez ematen dio hasiera hezkuntzari; naturak ondo hornituriko haurra berandu harrapatzen du; baina harrapatu egiten du zinez, eta handik aurrera ez da harrapatua izango.

§ 22

Era berean. Ezen, Jainkoaren batasunari buruzko doktrina, Itun Zaharrean aurkitzen dena eta ez dena, alde batera utzita ezen, diot nik, arimaren hilezkortasunaren doktrina, eta harekin loturiko geroko bizitzan izango den zigorraren eta sariaren doktrina handik erabat kanpo egoteak, ez du ezertxo ere frogatzen liburu hauen jatorri jainkozkoaren kontra. Barruan aurkitzen diren mirari eta profezia guztiekin, bere garbitasuna izan dezake. Demagun doktrina horiek han *huts eman* direla, doktrina horiek egiazko ere ez direla; demagun, gizakientzat mundu honetan dena amaitzen dela: Jainkoaren izatea horregatik gutxiago frogatua geratuko litzateke? Jainkoa ez

litzatekeela hain librea, jainkoari ez letorkiokeela hain egoki gizadi iragankor honetako edozein herriren patu tenporala bere kontura zuzenean hartzea? Juduentzat egin zituen mirariak, haien bidez idatzi zituen profeziak, ez ziren soilik judu hilkor gutxientzat, zeintzuen garaian haiek gertatu edo idatzi ziren: bere asmoak herri judu osora, gizadi osora zabaldu zituen, hemen munduan beharbada betiko iraungo dutenak, nahiz judu bakoitza, gizaki bakoitza hemen betiko hil.

§ 23

Beste behin oraindik. Irakatsi horiek Itun Zaharreko idaztietan ez egoteak ez du ezer egiaztatzen beraiei jainkozkotasunaren kontra. Moises Jainkoak bidalia zen, bere legearen onespena bizitza honetara mugatuta ere. Zergatik, izan ere, gehiago luzatu? Bera zen bidalia herri *israeldarrena* bakarrik, *garai hartako* herri *israeldarrera*: eta bere egitekoa garai hartako herri *israeldarraren* ezagutzetara, gaitasunetara, joeretara zegoen guztiz egokitua, orobat *etorkizunekoaren* patura. Horrekin nahikoa.

§ 24

Horrainoxe bakarrik iritsi behar zuen Warburtonek, eta ez aurrerago. Baina gizon aditu honek gehiegi tenkatu zuen uzaia. Aski ez izanik irakatsi horren gabeziak Moisesen egiteko zerutiarri kalterik ez egitearekin, Moisesen egiteko zerutiarra frogatu ere egin behar zuen honek. Eta baldin saiatu izan balitz froga hori gisako lege batek gisako herri batentzat zuen egokitasunetik ateratzen! Baina Moisesengandik Kristorenganaino etenik gabe iraun zuen mirari batera jo zuen; mirari horren arabera, Jainkoak judu bakoitza, legearekiko obediente edo desobediente izanik, merezi zuen bezain zorioneko edo zorigaiztoko egin bide zuen. Mirari honek ordezkatu bide zuen irakatsi haien gabezia, irakatsi hauek gabe ezin baitu iraun estatu batek; eta gisako ordezkatzeko batek frogatu bide egiten zuen irakatsi haien gabezia hark lehen begiratuan ukatzen zuela zirudiena.

§ 25

Zorionez, Warburtonek ezere bidez ez indartu ez egia-itxura handiagoa eman ahal izan zion, berak teokrazia israeldarraren muin bezala ipintzen zuen mirari iraunkor honi. Izan ere, egin ahal izan balu, egiaz... orduan zailtasuna aska ezinezko egingo zukeen. — Niretzat bederen.— Izan ere, Jainkoak orduan adierazi nahi ez, baina halere inolaz eragotzi ere nahi ez zuen autuan bertan zalantzarri egingo zuen Moisesen egitekoaren jainkozkotasunak berriro leheneratu behar zuena.

§26

Errebelazioari kontragarritz argituko dut. Haurrentzako oinarritzko liburu batek azaltzen duen jakintzako edo arteko puntu inportante hau edo bestea isilpean pasa dezake baldin pedagogoak uste badu haurren gaitasunak —haintzat idazten baitu— oraindik maila horretara ez direla iritsi. Baina inolaz ere ezin du barnean eduki alhora utzi diren zati inportanteetarako bidea hurrei moztu edo atzeratuko duenik ezer. Aldiz, harako sarbide guztiak arreta osoz zabalik utzi behar zaizkie: eta haurrak sarbide horietako bakar bate-tik aldentzea edo sarbidea geroago aurki dezaten eragitea, oinarritzko liburuaren osotasun gabezia soila zena, funtsezko akats bihurtuko luke.

§ 27

Hala bada, Itun Zaharreko idaztietan, herri zabar eta pentsatzen ohitu gabeko herriarentzako oinarritzko liburu horretan ere falta zitekeen arimaren hilezkortasunaren eta geroko ordaintzaren irakatsia: baina ezin zuen eduki egia handi horretarako bidean herria, norentzat idatzia zen, zerbait atzera zezakeenik ezer. Eta zer ez zuen horretan gehiago *atzeratuko*, gutxi esateko, ez bada ordaintza harrigarri hura bizitza honetarako agindu izan balitzaie, eta betetzen ez duenik ezer agintzen ez duena balitz aginduko liekeen?

§ 28

Baldin bertute eta grina txarrak, dirudienez, kontuan hain gutxi hartzen diren bizitza honetako ondasunen banaketa desberdinetik ezin atera badaiteke froga garbirik arimaren hilezkortasunaren eta geroko bizitzaren alde, non korapilo hori askatua izango den: guztiz ziur da, giza adimena korapilo hori gabe urrutitik ere ez zela —edo agian oraindik ez zela— froga hobe eta zehatzagotara iritsiko. Izan ere, zerk bultzatu behar zuen froga hobeak bilatzera? Jakin-min soilak?

§ 29

Israeldarren artean batek edo bestek nahiko zukeen, jakina, estatu osoari zegozkion agintza eta zemai jainkotiarrak kide bakoi-tzarenganaino zabaltzea eta fede sendoa izan ere, izan zezakeen jaieratsu zenak zoriontsu ere izan behar zuela eta zoritxarreko zenak edo halako bihurtzen zenak bere egintza txarraren zigorra zeramala, eta zigor hori segituan bihurtzen zela bedeinkazio egin-tza txarrak utzi bezain laster. Badirudi israeldar hauetako batek ida-tzi zuela Job-en liburua; beronen egitasmoa espiritu horretan koka-tzen baita.

§ 30

Baina ezinezko da egunoroko esperientziak sineste hau indar zezan: edo betikotz zegoen esperientzia hau zeukan herrian, *betikotz* oraindik ohiko ez zen egia bat ezagutu eta onartzeko. Izan ere, baldin jaieratsua, zorionsua bazen eta bere zorionari inolaz bazegokion bere poztasuna heriotza-pentsamendu batek eten ez zezan, zahar eta *bizitaz aseta* hil zedin: nola irrika zezakeen beste bizitza bat? Nola pentsa zezakeen berak irrikatzen ez zuen zerbaiti buruz? Baldin orduan jaieratsuak horretan ez bazuen pentsatzen, nork pentsatu behar zuen? Gaizkileak? Bere egintza txarraren zigorra sentitzen zuenak eta bizitza hau madarikatzen zuenean, gogo onez beste bati uko egingo zionak?

§ 31

Askoz gutxiago apartatzen zuen bidetik israeldarren batak edo besteak arimaren hilezkortasuna eta geroko ordaintza, legeak hori aipatzen ez zuelako, zuzenean eta hitzez hitz ukatu izanak. Bakar baten ukapenak —Salomon bera izanda ere— ez zuen geldiarazten adimen orokorraren aurrerapena, eta berez jada frogatzen zuen herria urrats handi batez hurbildu zela egiantza. Izan ere, banakakoek gehienek gogoan dutena ukatzen dute; eta lehen ezerk kezkatzen ez zuena gogoan edukitzea bada jada ezagutzarako bide erdia.

§ 32

Aitor dezagun obedientzia heroiko bat dela Jainkoaren legeak betetzea Jainkoaren lege direlako besterik gabe, eta ez haiek betetzen dituenari han eta hemen saria agindu zaiolako; heroiko da haiek betetzea, nahiz guztizko zalantza izan geroko sariari buruz, eta mundu honetakoa guztiz seguru ez denean.

§ 33

Jainkoarekiko obedientzia heroiko honetan hezitako herri bat ez zen egongo prest, ez zen kapaz izango beste ezeren gaitetik Jainkoaren asmo guztiz bereiziak gauzatzeko? Eman soldadu bat, bere kapitainari obedientzia itsua diona, orain haren zuhurtziaz ere komentzitu dena, eta esan zertara ez den ausartuko kapitain hori harekin egi-tera?

§ 34

Oraindik herri juduak bere Jehovan gehiago ohoratzen zuen Jainko Indartsuena, Jakitsuena baino; oraindik beldur gehiago zion Jainko jeloskor bezala, hura maitatu baino: hara froga oraindik bere Jainko goren bakarrari buruz zituen ideiak Jainko batengatik eduki

benar diren ideiak ez direla esateko. Baina iritsi zen garaia, bere ideia horiek zabaldu, noblethu eta zuzentzeko, eta horretarako Jainkoak baliabide erabat naturala erabili zuen, neurri hobe eta zuzenago bat, horren arabera Jainkoa balioztatzeko aukera herriak izango zuelarik.

§ 35

Orain arte bezala hurbileko nazio zabar txikietako idolo miserableekin konparatu ordez, haiekin eten gabeko etsaigoan bizi zelarik; hasi zen gatibutasunean pertsiar jakintsuen artean Jainko hori esentzia ororen esentziarekin neurtzen, arrazoi trebatu batek ezagutu eta oheratzen zuen bezala.

§ 36

Errebelazioak bere arrazoa gidatu zuen, eta orain arrazoiak kolpetik argitzen zuen bere errebelazioa.

§ 37

Hauxe izan zen elkarren arteko lehen zerbitzua, bata besteari eskaini ziotena; eta bien sortzaileari gisako elkarren arteko eragina hain gutxi lotsagarria gertatzen zaio, non bera gabe bietako bat alferrikako izango baitzen.

§ 38

Atzerrira bidalitako haurrak ikusi zituen, beste haur batzuek, gehiago zekitenak, txukunago bizi zirenak, eta lotsaturik galdetu zion bere buruari: Zergatik ez dakit nik hau? Zergatik ez naiz ni bizi hone-la? Ez zidatekeen hori irakatsi behar nire aitaren etxean; gainera ez zidatekeen han eutsi behar? Orduan aspaldi nazkagarri bihurtu zaion oinarritzko liburua bilatzen du, errua oinarritzko liburuaren gainera botatzeko. Baina, hara! Konturatzen da berea dela azken batean errua, zergatik ez zekien hori aspaldidanik, zergatik bizi den hain zuzen horrela.

§ 39

Nola juduek orain, doktrina pertsiar garbiagoaren eraginez, beren Jehovagan ez bakarrik ezagutzen zuten Jainko nazional guztien artean handiena, baizik Jainkoa; nola halako bezala berriro aztertutiko liburu santuetan aurkitu eta besteei erakutsi ere erakutsi ziezaieketen, han barruan baitzegoen; nola haren irudikapen sentsual guztien aurrean pertsiarrek betidanik zuten bezalako etsaigoa erakusten zuten, edo idazti hauetan zegoela irakatsi zitzaien: zergatik harritu baldin Zirok Sabeismo garbiaren aldean oso behekotzat, baina orobat juduen lurralde utzia bereganatu zuten idolo zabarren aldean oso gaindikotzat jotzen zuen Jainkoaren kultu batekin Zioren begietan grazia aurkitu bazuten?

§ 40

Beren altxor ezezagunari buruz argiturik, beraz, itzuli ziren, eta herri bat erabat bestelakoa bihurtu ziren, eta beronen lehen kezka izan zen argidura hori beren artean iraunkor bihurtzea. Aurki ez zegoen herri horretan erorketan edo idolatrian gehiago pentsatzerik. Izan ere, Jainko nazional batekiko desleial izan daiteke, baina ez Jainkoarekiko, behin hura ezagutuz gero.

§ 41

Teologoak saiatu dira era oso desberdinetan argitzen herri juduaren erabateko aldakuntza hau; eta argibide desberdin hauen guttira eskastasuna oso ondo erakutsi duen batek nahi zuen azkenik horren egiazko zergati bezala ematea «Babiloniako gatibu-garaiari buruz eta errestituzioari buruz hitzez eta idatziz egindako iragarpenen betetze nabarmena». Baina zergati hau bera ere egiazko izan daiteke bakarrik baldin aurretik Jainkoaren ideia nobleku berria jartzen bazaio. Juduek lehenbizi aitortu behar zuten mirarigintza eta geroa iragartzea Jainkoari bakarrik zegokiola; biak bestela idolo faltsuei egotzi zizkietela, horregatik mirariek eta profeziek orain arte beraien baitan eragin hain ahul eta iragankorra egin zutelarik.

§ 42

Zalantzarik gabe, juduek kaldeoen eta pertsiarren artean sakondu zuten arimaren hilezkortasunari buruzko doktrina. Ohituago egin ziren dortina horrekiko filosofo greziarren eskoletan Egipton.

§ 43

Baina nola doktrina hau, beren idatzi santuak kontuan hartuz, ez zen Jainkoaren batasunari eta tasunei buruzko doktrina bezalako kasua; nola herri sentsualak doktrina hau zabarkiro albora utzia zuen, bilatu egin behar zenez; nola honi dagokionez, *prestakuntza ariketak* behar izan ziren, eta *aipuak* eta *zantzuak* bakarrik zeuzkaten: arimaren hilezkortasunean sinestea, beraz, ez zen izan berez herri osoaren sinestea. Hango sekta jakin baten sinestea izan zen eta hala iraun ere iraun zuen.

§ 44

Prestakuntza-ariketa bat deitzen dut arimaren hilezkortasunaren doktrinarako, adibidez, jainkozko mehatxua, alegia aitaren egintza txarra bere haurretan hirugarren eta laugarren belaunaldiraino zigortuko zuela. Honek arbasoak ohitzen zituen beren ondorengo urrune-kin pentsamenduan bizitzen, eta haien errurik gabe haien gainera eramango zuten zorigaitza aldeztu aurretik sentitzen.

§ 45.

Aipua deitzen dut nik jakin-mina piztu eta galdera bat sortuko zukeena. Hala sarri azaltzen den esaera hiltzea esateko: bere arbasoe-kin elkartu zen.

§ 46

Zantzu bat deitzen dut nik, dagoeneko hazi bat daukana, nondik gara daitekeen egia ezkutua. Gisa honetakoa zen Kristoren ondo-

rioa *Abrahamen, Isaaken eta Jakoben Jainkoa* izendapenetik dago-kiona. Edozein modutan, zantzu hau froga zehatz bihur daitekeela iru-ditzen zait niri.

§ 47

Gisako prestakuntza-ariketetan, aipuetan, zantzuetan datza oinarritzko liburu baten perfekzio *positiboa*; orobat goian aipaturiko bereizitasuna, alegia oraindik agerian ez dauden egietarako bidea ez eragoztekoa edo moztea, zen haren perfekzio *negatiboa*.

§ 48

Horri gaineratu behar zaizkio oraindik jantzia eta estiloa 1) Albora utzi ezin daitezkeen egia abstraktuak alegoriatan eta benetan gertatu bezala kontatuko diren kasu irakatsiz betetan janztea. Gisa honetakoak dira sorkuntza, etorri datorren egunaren irudipean kontatua; gaizki moralaren iturburua, galarazitako arbolaren kontakizunean; hainbat hizkuntzen jatorria, Babelgo dorregintzan, eta abar.

§ 49

2) estiloa — behin laua eta sotila, hurrengo poetikoa, tautologiaz betea, baina ernetasuna lantzen dutenetakoa, orain beste zerbait esan nahi dutela baitirudi eta gauza bera esaten dutenez, orain gauza bera esan nahi dutela baitirudi eta funtsean beste zerbait adierazten dutenez edo adieraz dezaketenez.

§ 50

Eta hor dauzkazue bai haurrentzako, bai herri haur batentzako oinarritzko liburu baten tasun on guztiak.

§ 51

Baina oinarritzko liburu bakoitza adin jakin baterako izan ohi da. Kalterako izaten da uste izan den baino luzaragoz liburu horretan

haur jada hazi bat geldiaraztea. Izan ere, hori nolabait onuraz egin ahal izateko, barruan dagoena baino gehiago sartu behar da; har dezakeena baino gehiago sartu. Gauza gehiegi zer bilatu eta egin ipini behar baita aipuetan eta zantzuetan, alegoriak gehiegi marruskatu, adibideak zehaztasun gehiegiz argitu, hitzak indar gehiegiz lauskitu. Horrek haurrari ematen dio adimen hertsiegia, bihurria, minkorra; horrek misterioitsu, sinesbera, uler daitekeen eta erraz den ororekiko mespretxuz betea bihurtzen du haurra.

§ 52

Hara Rabinoek beren liburu santuak erabiltzen zituzten era, hain zuzen! Hara beren herriaren espirituari horrela itsasten zioten izaera bera!

§ 53

Pedagogo hobe batek etorri behar du eta haurrari oinarritzko liburu ahitua eskuetatik erauzi behar dio. Kristo etorri zen.

§ 54

Jainkoak hezkuntza egitasmo *batean* elkartu nahi zuen gizadiko zatia helduta zegoen jada bere hezkuntzako bigarren urrats handia emateko Jainkoak, ordea hizkuntzaren, ekintzaren, gobernuaren eta bestelako erlazio natural eta politikoen bidez lehendik elkaturik zeudenak bakarrik elkartu nahi izan zituen *batean*.

§ 55

Hau da: gizadiaren zati hau bere arrazoiaren ariketetan hain aurrera iritsia zen, non bere egintza moraletarako zergati eragile nobleagoak eta duinagoak behar baitzituen, orain arte gidatu zuten mundu honetako sariak eta zigorrak baino. Haurra mutiko bihurtu du. Bere senide zaharragoak diren bezain libre, ohoratu, zorionsu

izateko irrika jaio berriari egiten diote leku gozokiek eta jostai-luek.

§ 56

Aspaldidanik zeuden ohituta gizadiaren zati horretako onenak beren buruak gisako zergati eragileen *itzal* baten bidez gidatzera. Bizitza honen ondoren beren hirikideen memorian bizirik irauteagatik bakarrik edozer gauza egingo zukeen greziarrak eta erromatarrak.

§ 57

Garaia zen beste bizitza *egiazko* batek, bizitza honen ondorenerako itxarotekoak, bere egintzen gainean eragina har zezan.

§ 58

Eta hala, Kristo izan zen arimaren hilezkortasunaren lehen irakasle *fidagarria eta praktikoa*.

§ 59

Lehen irakasle *fidagarria*.— Fidagarria berarengan bete ziren profezien bidez; fidagarria berak egiten zituen mirarien bidez; fidagarria bere heriotzaren ondorengo berriz-bizitzearen bidez, haren bidez zigilatu baitzuen bere irakatsia. Gaurkoz berriz-bizitze hau, mirari hauek frogatu ote ditzakegun: hori bere horretan uzten dut. Bere horretan uzten dudana bezala Kristo horren pertsona nor izan zen. Hori guztia garrantzizko izan zitekeen orduan bere irakatsiaren *onartzeko*: gaur ez da hain garrantzizko irakatsi honen egiazkotasuna ezagutzeko.

§ 60

Lehen irakasle *praktikoa*. Gauza bat baita arimaren hilezkortasuna, espekulazio filosofiko bezala, susmatzea, desiratzea, sinestea;

eta beste bat norberaren barneko eta kanpoko egintzak, horren arabera antolatzea.

§ 61.

Eta Kristo izan zen lehena hau irakasten. Izan ere, bere aurretik zenbait herritan sarturiko sinestea bazen ere ondorengo bizitzan portaera txarrak zigortuak zirela, gizarte zibilari kaltea ekartzen zioten portaerak bakarrik zeuden zigortuen artean, eta horregatik gizarte zibilean jada ziren zigortuak. Bihotzaren barneko garbitasun bat beste bizitza bati begira gomendatzea, berari, Kristori, bakarrik gordea zitzaion.

§ 62

Bere ikasleek leialtasunez utzi zieten ondorengoei irakatsi hau. Eta baldin, Kristok juduentzat bakarrik jarri zuela zirudien egia bat herri askoren artean orokorki zabaltzea baino beste merezimendurik ez balute, gizadiaren zaintzaile eta ongileen artean ipintzea mereziko lukete horregatik, besterik gabe, ikasle hauek.

§ 63

Baina irakatsi handi hau egia ez hain nabarmena, balio ez hain garrantzitsua zuten beste doktrina batzuekin nahastu zutela? Nola izan zitekeen, bestela? Ez ditzagun gaitzetsi, aldiz bai seriotasunez aztertu: ea horiekin nahasturiko doktrinak ere ez ote diren *norabide kolpe* bat giza adimenarentzat.

§ 64

Esperientziagatik dagoeneko garbi dago handik gutxira doktrina hauek jaso zituen Itun Berriko idaztiek gizadiarentzat oinarrizko bigarren libururik onena osatu zutela eta osatzen dutela oraindik.

§ 65

Idazti hauek hamazazpi mendez gainerako liburu guztiek baino gehiago jardunarazi dute giza adimena; eta adimena argitu ere bai gainerako liburu guztiek baino gehiago, argi hori adimenak berak han barruan jarri duena baino ez bada ere.

§ 66

Ezinezko da beste liburu bat edozein herri hain desberdinen artean hain orokorki ezaguna izan zedin: eta ezin eztabaida daiteke pentsamolde hain desberdinak liburu honekin berarekin jarduteak giza adimenari gehiago lagundu diola, herri bakoitzak berariaz bereztat oinarrizko liburu propioa izan balu baino.

§ 67

Orobat, beharrezko zen herri bakoitzak liburu hau denboraldi batean bere ezagutzen Non plus ultra bezala har zezan. Izan ere, mutikoak bere oinarrizko liburua beste guztien gainetik jarri behar baitu; hain zuzen ere, azkar bukatzeko urduritasunak bera prestaturik ez dagoen gauzataraz eraman ez dezan.

§ 68

Eta gaur oraindik garrantzirik handienekoa dena: Kontu zuk, oinarrizko liburu honen azken orrialdean ostikoka eta haserre zabil-tzan gizaki kapazago horrek, kontu zuk usnatzen duzuna edo dagoe-neko ikusten hasia zarena zure ikaskide ahulagoei igararazten badie-zu.

§ 69

Ikaskide ahulago hauek zu zauden lekuan egon arte, hobe duzu oinarrizko liburu horretara beste behin itzuliko bazina, eta aztertu ea

zuk metodo aldakuntzat, didaktikaren ordezkotzat daukazuna ea ez ote den zer bait gehiago.

§ 70

Ikusi duzu gizadiaren haurtzaroan Jainkoaren batasunaren doktrinan, Jainkoak arazoizko egia soil direnak ere zuzenean errebelatzen dituela; edo onartu eta bideratzen duela denboraldi batean arrazoimenaren egiak zuzenean errebelaturiko egia bezala irakas daitezen: egia hauek azkarrago zabaltzeko eta sendoago oinarritzeko.

§ 71

Zuk, gizadiaren mutiko garaian, arimaren hilezkortasunari buruzko doktrinan gauza bera esperimentatzen duzu. Oinarrizko bigarren liburu onenean errebelazio bezala izango da *predikatua*, *irakatsia* giza ondorioen emaitza bezala.

§ 72

Jainkoaren batasunari buruzko doktrinan jada Itun Zaharra alde batera utz dezakegun bezala; orain poliki-poliki arimaren hilezkortasunari buruzko doktrinan Itun Berria ere uzten hasi gaitezkeen bezala; ez litzateke posible honetan guk, harriduraz, hain luzaz errebelazio bezala hartu ditugun gisako egia gehiago egotea, arrazoiak, berak frogatu dituen beste egia batzuetatik, eratorri eta haiekin lotzen ikasi dezan arte?

§ 73

Esaterako, Hirutasunari buruzko doktrina. Zer gertatuko litzateke, baldin doktrina honek, ezker eta eskuin amaibako okerrak egingen ibili ondoren, giza adimena azkenik ekarriko balu aitortzera Jainkoa ezin izan daitekeela *bat* gauza mugatuak adimenean *bat* diren eran; bere batasunak berak ere, nolabaiteko aniztasun bat guztiz alde

batera uzten ez duen, batasun trszendental bat izan behar duela? Ez al du Jainkoak gutxienez bere beraren irudikapen erabatekoena eduki behar? Hau da: bere baitan dagoen guztia jasoko duen irudikapen bat? Baina berarengan dagoen guztia berarengan aurkituko ote litzateke, baldin han bere *errealitate ezinbestekoaren* bezala gainerako bere tasunen irudikapen bat, posibilitate bat balego soilik? Posibilitate honek ahitzen du bere gainerako tasunen muina: baina baita ere bere errealitate ezinbestekoarena? Nirekiko daukat ezetz. Hartaz, edota Jainkoak bere beraren irudikapen erabatekorik ezin du eduki: edota irudikapen erabateko hori bera den bezain ezinbestean da egiazko, e.a. Jakina, nire irudia ispiluan nire irudikapen huts bat baino ez da, argi-izpiek azalean uzten dutena baino ez baitauka niretik. Baina baldin irudi horrek *dena*, salbuespenik gabe, nik neuk daukadan guztia balu: orduan oraindik irudikapen huts bat litzateke edo aldiz ni neronen bikoizketa egiazko bat? Baldin nik uste badut Jainkoagan horrelako bikoizketa bat sumatzen dudala; beharbada oker hori egiten dut hizkuntzak nire kontzeptuekiko huts egiten duelako bakarrik; eta zalantzarik ez dagoelako, ideia hori herriko egin nahi dutenek nekez asmatuko luketela era ulergarriagorik eta egokiagorik hori adierazi ahal izateko Jainkoak betidanik sortu duen *Seme* bat aipatuz baino.

§ 74

Eta jatorrizko bekatuaren doktrina. Zer gertatuko litzateke, baldin azken batean denak eramango bagintu esatera gizakia, bere gizatasuneko maila lehen eta apalenean, ez dela inolaz bere egintzen jaun lege moralak bete ahal izateko?

§ 75

Eta Semearen ordainketari buruzko doktrina. Zer gertatuko litzateke baldin denak behartuko bagintu onartzera, Jainkoak, giza-kiaren jatorrizko ezintasun hura alde batera utzita, nahiago zukeela honi lege moralak ematea eta bere hutsegite guztiak *Semearen* ederragatik barkatzea, hau da bere perfekzio guztien zabalero independentearen ederragatik, haren parean eta harengan norbanakoaren

inperfekzio oro desagertzen baita; lege horiek hari eman eta lege moralik gabe pentsa ere ezin litekeen zoriontasun moral orotik bera kanpoan utzi ordez?

§ 76

Inork ez dezala kontraargudia debekaturik daudela gisako zorrozkeriak erlijioko misterioen gainean.— Kristautasunaren lehen garaietan guk gaur hitz horrekin ulertzen dugunaren aldean zerbait guztiz bestelakoa esan nahi zuen misterio hitzak; egia errebelatuak arrazoimenaren egiak bihurtzea beharrezkoa da azken batean, gizadiari era horretan laguntzen bazaio. Errebelatuak izan zirenean, ez ziren noski arrazoimenaren egiak; baina hala izan zitezkeen izan ziren errebelatuak. Nolabait esateko, aritmetikariak bere ikasleei kalkulatzeko orduan aurreratzen dien emaitza da, hura hein batean gidari izan dezaten. Baldin ikasleek nahikoa badute aurreraturiko emaitza, ez lukete ikasiko kalkulatzeko eta maisu onak aztar-na bezala beren lanerako emaitza ematean izan zuen asmoa gaizki erabiliko zuket.

§ 77

Eta zergatik ez genukeen gidatuak izan behar erlijio baten bidez —horren egia hitorikoa, nahi bada, nahikoa baldarra izan arren—, giza-arrazoia berez sekula iritsiko ez zen jainkozko izateari, gure naturari, Jainkoarekiko gure harremanei buruzko ideia zehatzago eta hobeetara?

§ 78

Ez da egia gauza hauei buruzko espekulazioak sekula zoritxarrik sortu eta gizarte zibilarentzat kalterako gertatu direnik. Ez espekulazioei, baizik espekulazio hauek eragozteko okerrari, tiraniari egotzi behar zaio gaitzespen hau; beren espekulazio propioak izanik, beren buruei zilegiztatzen ez zieten gizonei.

§ 79

Aldiz gisako espekulazioak —bakarka huts egin badezakete ere— zalantzarik gabe giza-adimenaren ariketa *egokienak* dira, giza-bihotza bertutea, bere betiko ondorio zoriontsuengatik bakarrik, maitatzeko gai den bitartean.

§ 80

Izan ere, adimena bera ere gure gorputzeko premiei dagokienetan bakarrik jardutea nahi duen giza bihotzaren egoismo hau dela eta, gehiago eramango luke adimena kamustera hura doitzera baino. Adimenak bereiziki gauza espiritualetan jardutea nahi du behin bere erabateko argikundera iritsi denean eta bertutea, bertutea delako besterik gabe, maitatzeko gai egiten gaituen bihotzeko garbitasuna sortzen duenean.

§ 81

Edo gizadiak ez du sekula iritsi behar argikundeko maila goren honetara? Sekula ez?

§ 82

Sekula ez? Ez dezadala birao bat pentsatu, Ahalguztiduna! Hezkuntzak badu bere helburua; gizadian bezala norbanakoagan. Hezitzen dena zerbaitetarako hezitzan da.

§ 83

Gazteari irekitzen zaizkion ikuspegi atsegingarriak; berari amarru gisan aurkeztzen zaizkion ohorea eta ongizatea, zer dira ezpada bitarteko bat hura gizon bezala hezitzeko, gizon hori, ohore eta ongizate ikuspegiek huts egiten badute ere, kapaz dadin bere betebeharra egiteko.

§ 84

Horretara jotzen du giza hezkuntzak: eta jainkozkoa ez da horretaraino iritsiko? Arteak norbanakoarekin erdiesten duena, ez du erdietsi behar naturak osotasunarekin? Birao! Birao!

§ 85

Ez; iritsiko da, ziurtasun osoz iritsiko da akabantzaren garaia, gizakiak, bere adimena etorkizun beti hobe batez komentzituago sentitzen den neurrian, etorkizun horretatik orobat bere egintzetarako arrazoi eragilerik hartzeko premiarik sentituko ez duena; ongia, ongia delako egingo duena, eta ez, ongiaren barneko sari hobeak ezagut ditzan, bere begirada aldabera inolaz hertsu eta sendotuko duten apetzako sari batzuek horretarako jarri direlako.

§ 86

Ziur etorriko dela *ebanjelio berri betiko* baten garaia, guri Itun Berriko oinarritzko liburuan bertan agindu zitzaiguna.

§ 87

Beharbada hamahirugarren eta hamalauugarren mendetako burubero jakin batzuek betiko ebanjelio berri horren izpiren bat harra-patu zuten; eta haren hasiera oso hurbilerako iragartzean bakarrik huts egin zuten.

§ 88

Ez zen izan beharbada beraien *munduaren aro hirukoitzarena* arlotekeria hain hutsa; eta ziur da ez zutela inolako asmo txarrik irakasten zutenean Itun Berria bera ere *atzeratua* geratuko zela, Zaharra geratu zen bezala. Haiengan Jainko berberaren ekonomia berberak segitu zuen. Beti —nire hitzak erabiltzeko— gizakiaren hezkuntza orokorreko plangintza berbera.

§ 89

Bakarrik azkartu egin zutela; bakarrik haurtzaroa oraindik utzi ez zuten, argikunderik gabe, prestakuntzarik gabe zeuden beren garai-kideak kolpetik beren *hirugarren aroaren* duin izango diren gizon egin ahal izango zituztela uste zutela.

§ 90

Eta hain zuzen horretxek bihurtu zituen burubero. Buruberoak sarri begirada oso zuzenak botatzen ditu etorkizunera: baina ez da gauza etorkizun horri itxaroteko. Etorkizun hori aurreratu egin nahiko luke; eta nahi ere, nahi du beraren bidez aurreratua dadin. Egiteko naturak mendeak behar izan duenak, bere bizitzako denboran umotu behar du. Izan ere, zer erdietsi behar du berak, baldin berak hobe bezala aitortzen duena bera bizi den artean hobe bihurtzen ez bada? Bera itzuliko da, ala? Berriro itzuliko dela uste al du? Harrigarria, buruberokeria hau buruberoen artean bakarrik gehiago modako bihurtu nahi ez izana!

§ 91

Segi zure urrats oharkaitza, probidentzia betikoa! Baina ez dezadala zугanako zalantzarik izan oharkaiztasun hau dela eta.— Ez dezadala zure zalantzarik izan, baldin iruditzen bazait ere zure urratsak atzeraka doazela! — Ez da egia lerrorik laburrena zuzena dela beti.

§ 92

Zenbat gauza ez duzun hartu behar, zenbat itzulinguru egin behar zure betiko bidean! Eta zer gertatuko litzateke baldin gizadia bere akabantzara daraman gurpil handi eta geldoa gurpil txikiago eta azkarragoren bidez bakarrik jarriko balitz martxan, hauetako bakoi-tzak bere bereizitasuna horretara ekartzen duelarik?

§ 93

Ez dago besterik! Gizadia bere akabantzara daraman bidea pasatu behar du gizaki bakoitzak (batak lehenago, besteak geroago). «Bizitza bat eta berean pasatu behar du? Bizitza bat berean izan ahal daiteke haragiz judu eta espirituz kristau? Bizitza bat eta berean biak pasa ahal ditzake?»

§ 94

Hau ez, noski! Baina zergatik ezingo zukeen bizi gizaki bakoitzak behin baino gehiagotan mundu honetan?

§ 95

Hipotesi hau barregarri gertatzen da zaharrena delako? Giza-adimenak, eskolako sofistakeriak hutsaldu eta xahutu aurretik, segituan aurkitu zuelako?

§ 96

Gizakiari mundu honetako zigorrek eta sariak bakarrik ekar diezaioketen perfekziorako urrats guztiak, zergatik ez nituzkeen nik hemen jada emanak izango?

§ 97

Eta behin betiko sariaren itxaropenak ematen hain bortizki laguntzen dizkiguten urrats guztiak, zergatik ez eman beste behin?

§ 98

Zergatik ez nuke itzuli beharko, ezagutza berriak, gaitasun berriak erdiesteko gauza naizen bezain sarri? Berriro itzultzeak ez merezitzeko adinako bidea egin al dut kolpe bakarrean nik?

§ 99

Horregatik ez? Edo nik ahaztu egiten dudalako lehenago hemen izana naizena? Zorionekoa ni ahazten dudalako. Nire aurreko egoeren oroitzapenak oraingoaren erabilera txarra egiteko aukera baino ez lidake emango. Eta nik orain ahaztu *behar* dudana, betiko ahaztu dut beharbada?

§ 100

Edo nirekin denbora galduko litzatekeelako? Galdu? Eta zer daukat bada nik galtzeko? Ez al da nirea betikotasun osoa?

F.H. JACOBI, LESSINGEKIN IZANDAKO ELKARRIZKETAZ

Beti estimutu nuen nik gizon handia; baina hura hurbilagotik ezagutzeko gogoia nigan sutsuagoa bihurtu zen bere eztabaida teologikoan ondoren eta nik «Parabola» irakurri ondoren. Nire zoriak nahi izan zuen berari Allwill-en paperak interesatu zitzaizkiola; berak, hasieran bidaiariaren bidez mezu adiskidetsu zenbait bidali zizkidala, eta azkenik hirurogeita hemeretzigarren urtean idatzi zidala. Nik erantzun nion hurrengo udaberrian bidaia bat egiteko asmoa nuela, ni Wolfenbütel-era eramango ninduen, eta gauza jakin batzuei buruz hitz egitera nik ezin eraman nitzakeen jakintsu zenbaiten espirituak han berarengan konjuratzeko irrikatzen nengoela.

Nire bidaia gauzatu zen, eta uztailaren bostean arratsaldean hartu nuen lehen aldiz Lessing nire besoetan.

Egun berean oraindik garrantzizko gauza askori buruz mintzatu ginen; baita pertsonei buruz ere, nahiz izan moralak eta inmoralak, ateoak, deistak eta kristauak.

Hurrengo goizean etorri zen Lessing nire gelara, nik idatzi behar nituen gutun batzuek oraindik amaitu gabe neuzkanean. Nik zenbait gauza luzatu nizkion nire karteratik, horrela denbora igaro zezan. Itzultzerakoan, galdetu zidan: ea ez ote neukan berak irakur zezakeen beste ezer gehiago. «Bai, noski!», esan nion nik (gutunak zigilatzekeo puntuan nengoen): «poesia bat daukat hemen oraindik:

Zuk nahikoa eskandalu sortu duzunez, behin gutxienez bat har ezazu zeuk ere».

LESSING. (Poesia irakurri eta itzultzen zidala). Ez dut eskandalurik izan; aspaldidanik dakit nik hau lehen eskutik.

NI. Ezagutzen duzu poesia?

LESSING. Poesia irakurri gabe neukan; baina ona iruditzen zait.

NI. Bere erara, niri ere bai, ez nizun bestela erakutsiko.

LESSING. Beste gauza bat esan nahi dut... Poesiak hartzen duen ikuspuntua nire ikuspuntu bera da... jainkotasunari buruzko ideia ortodoxoak ez dira gehiago intereseko niretzat; ezin dasta ditzaket.

! (Bata eta Guztia!). Ez dakit beste ezer. Hortik doa poesia hau ere; eta atsegin dudala aitortu behar dut.

NI. Orduan, nahikoa ados etorriko zara Spinozarekin.

LESSING. Nik norbaiten izena eraman behar badut, ez dut beste bat ezagutzen.

NI. Nahikoa ona da Spinoza niretzat: baina bai irtenbide txarra bere izenean aurkitzen duguna!

LESSING. Bai! Hala nahi baduzu! ... Eta, halere ... Ezagutzen duzu beste bat hobe? ...

Bitarte horretan Wolke zuzendari dessautarra sartua zen, eta elkarrekin joan ginen bibliotekara.

Hurrengo goizean, gosalduta ondoren jantzera nire gelara itzulia nintzen; geroxeago etorri zen Lessing ere. Orrazten ari zitzaizkidan, eta bitartean Lessing gelako bazter batean jarri zen lasai, mahai batean. Bakarrik geratu ginenean, eta ni Lessing jarrita zegoen mahaiaren beste aldean eseri nintzenean, ekin zion: Zurekin nire honi buruz hitz egitera etorri naiz. Izutu egin zinen atzo.

NI. Ustekabean harrapatu ninduzun, eta gorri eta zurbil jarri ere jarriko nintzen beharbada, nire nahasmendua sentitu ere sentitzen bainuen. Izua ez zen. Egiaz ez nuen ezer gutxiago esperoko, zugar spinozista bat edo panteista bat aurkitzea baino. Eta zuk hain xaloki esaten zenidan hori. Spinozaren kontra zuregandik laguntza erdieste-ko etorria nintzen gehienbat.

LESSING. Orduan, zuk ezagutzen duzu?

NI. Oso gutxik ezagutu duten bezain ondo, uste dut.

LESSING. Orduan alferrik da laguntza. Hobe da erabat haren adiskide bihurtzen bazara. Ez dago beste filosofiarik, Spinozaren filosofia baizik.

NI. Baliteke egia izatea. Izan ere, deterministak, zindoa izan nahi badu, fatalista izan behar du: hortik aurrera dena dator berez.

LESSING. Sumatzen dut, elkar ulertzen dugula. Horregatik hainbat eta jakin-min handiagoa dut zugandik jakiteko: zer iruditzen zaizun spinozismoaren espiritua; Spinozaren barruan zebilena, esan nahi dut.

NI. Ez da izan «*a nihilo nihil fit*» guztiz zahar hura baino, alegia Spinozak, ideia abstraktuenen arabera, bere aurretik kabalistek eta beste batzuek bezala, aipatu zuena. ideia abstraktuenen horien arabera aurkitu zuen, ezen, amaibakoan zerbait sortzearen bidez, edozein delarik ere hura estaltzeko erabiliko den irudia, han egiten den aldaketa bakoitzaren bidez *ezerezetik zerbait* bat sortuko dela. Berak, beraz, ukatu egin zuen amaibabotik amaidunerako *iragaite* oro; erabat «causas transitorias», «causas secundarias» edo «remotas» guztiak; eta Ensoph *immanente* bat ipini zuen; berebaitako bat, beti *berez* aldaezinezko den munduaren kausa bat, bere ondorio guztiekin batera harturik bat eta bera litzatekeena... Kausa inmanente amaibako honek, berez, explicite, ez dauka ez adimenik ez nahimenik, berak, bere *bata-sun* transzendentalaren eta amaibakotasun orokor eta erabatekoaren ondorioz, ezin baitu eduki pentsatzearen eta nahi-izatearen inolako objekturik; eta ideia bat ideia *aren aurretik* ateratzeko gaitasuna, edo ideia bat bere objektuaren aurretik eta *bere beraren kausa erabatekoa* litzatekeena, edo bestela nahimen bat, nahi-izatea ekarriko lukeena eta erabat bere bera finkatuko lukeena, zentzun gabeko gauzak baino ez dira...

...Eragintza ilada amaibako bat ezinezko den eragozpena (eragintza *soilak* ez dira, kausa inmanentea beti eta alde guztietan baitago), bere hartan kontraesaten da, izan ere, *ezerezetik* abiatzen ez den hilada orok, azken batean amaibakoa izan behar du. Eta hortik ondorioztatzen da berriro, ezen ideia bakoitza beste batetik datorrenez, eta *zuzenean lehen badagoen objektu bati egiaz* egotzi behar zaionez,

lehen kausan, natura amaibakoa baita, ezin egon daitekeela ez pentsamendu partikularrik, ez nahimenaren erabaki partikularrik — aldiz aurkitu daiteke bakarrik lehen materia barneko eta orokorrean... Lehen kausak ezin du jardun ez asmoen ezta helburu-kausen arabera ere, bera ere ez dagoenez han asmo edo helburu-kausa jakin batzuen-gatik; orobat ezin eduki dezake *hasiera*-arrazoirik edo *helbururik* zerbait egiteko, berez denez *hasiera* eta *amaia*... Funtsean guk segida edo iraupen deitzen duguna, erokeria soil da; izan ere, *eragintza egiazkoa* berekausa *erabateko* egiazkoarekin batera eta bere irudikapenaren arabera bakarrik haren desberdin denez, segida eta iraupena, *egiaz*, modu eta era soil bat dira aniztasuna amaibakoan ikusteko.

LESSING. ...Gure kredoari buruz, orduan, ez gara bananduko.

NI. Inondik ere, ez dugu hori nahi. Baina nire kredo ez dago Spinozagan.

LESSING. *Inolako* liburutan ez dela egongo espero dut.

NI. Ez hori bakarrik. Nik munduaren kausa pertsonal adimendunagan sinesten dut.

LESSING. Oh, hala hobe! Zerbait guztiz berria entzungo dut orduan.

NI. Ez poztu gehiegi horregatik. Salto mortale bat emanez ateratzen naiz arazo hortatik. Eta zuk *burumakur* egotean ez duzu aparteko pozik aurkitzen.

LESSING. Ez ezazu esan honelakorik; ez al dut sekula honela egon beharrik izango. Eta zu berriro altxatuko zara. Beraz —baldin sekreto bat ez bada— nik eskatu egin nahi dizut.

NI. Nigan ikus dezakezu beti. Auzi guztia datza honetan, alegia: nik fatalismotik fatalismoaren kontra eta harekin lotzen duen guztia-aren kontra atera ditudala ondorioak. Baldin kausa eragilerik soilik badago eta kausa finalik ez, orduan pentsatzeko gaitasunak naturan begiratzea beste egitekorik ez dauka; bere egiteko bakarra indar eragileen mekanismoari jarraitzea da. Une honetan guk biok dugun elkarritzeta gure gorputzen apeta baino ez litzateke; eta elkarritzeta honen edukia, bere osagaietan banandurik: zabaltzea, mugitzea, azkartasun maila, horri hurrzko ideiekin batera eta ideia horien ideiekin batera. Erlojua asmatu zuenak ez zuen erlojua asmatu funtsean:itsu-itsuan garatzen ziren indarrek nola moldatzen zuten ikusi zuen

bakarrik. Gauza bera Rafaelek, Atenasko eskola proiektatu zuenean; eta Lessingek, bere Nathan idazten zuenean. Gauza berak balio du filosofia, arte, gobernu-mota, uretako eta lehorreko guduatarako, Iabur esanda: posible den guztirako. Izan ere, atxikimenduak eta grinak ez lirateke izan ere, izango, sentimendu eta pentsamendu diren heinean; edo zuzenago sentimenduak eta pentsamenduak *beraiekin daramatzaten* neurrian. Guk *uste* dugu, uste, amorrugatik, maitasunagatik, eskuzabaltasunagatik, edo arrazoizko erabakiengatik jokatzeko dugula. Erokeria hutsa! Kasu hauetan guztietan gu mugitzen gaituena *zerbait bat da*, horretaz guztiaz *ezer ez dakiena* eta, *hein horretan* (horregatik) sentimendutik eta pentsamendutik gabetua dena. Sentimendua eta pentsamendua, ordea, zabaltze, mugitze, azkartasun mailaren ideia baino ez dira, etab. Norbaitek hau onar badezake, nik ez diot erantzungo haren iritzari. Baina hori onartu nahi ez duenak Spinozaren antipoda izan behar du.

LESSING. Jabetzen naiz nahimen librea eduki nahiko zenukeela. Nik ez dut irrikatzen nahimen librerik. Zuk oraintxe puntuan esaten zenuenak ez nau batere izutzen. Giza aurreiritzien artean aurkitzen da guk pentsamendua lehen eta gailenen bezala ikustea, eta gainerakoa handik eratortzea, dena, irudikapena bera ere barne, printzipio goragokoen mende dagoenean. Zabaltzea, mugitzea, pentsamendua, gisako ekintzetan inondik ere ahitzen ez den goragoko indar batean oinarritzen dira nabarmen. Eragin hau edo bestea baino mugarik gabe bikainagoa izan behar du; eta horrela atsegin moduko bat eman dezake beretzat, ez bakarrik ideia guztiak gainditzeko dituelako, baizik areago ideiaz guztiz *kanpora* dagoelako. Guk haren ezer aipatu ezin izan, ez du posibilitatea deskegiten.

NI. Spinoza baino haruntzago zoaz zu; honentzat ezagutza dago guztiaren gainetik.

LESSING. Gizakiarentzat! Baina asmoen arabera jokatzeko gure era miserablea metodorik goren bezala onartzetik, eta pentsamendua guztiz goian jartzetik oso urruti zegoen.

NI. Ezagutza da *natura mugatu guztietan* zatirik onena, bera delako natura mugatu orok bere mugatutasuna gainditzeko daukan zatia. Nolabait esan zitekeen berak ere izaki bakoitzari bi arima izendatu zizkiola: bat oraingo gauza bakoitzari dagokiona, eta beste bat osotasunari dagokiona. Bigarren arima honi hilezkortasuna ere izen-

datzen dio. Spinozaren substantzia bakar amaibakoari dagokionez, honek, berez bakarrik eta gauza partikularrez aparte, ez dauka existentzia jakin edo beterik. Baldin edukiko balu bere batasunarentzat (horrela adieraz badezaket) errealitate propio, bereizi eta indibidualik; baldin nortasuna eta bizitza balitu, ezagutza hargan ere zatirik onena litzateke.

LESSING. Ondo. Baina, zein kontzepturen arabera ulertzen duzu zuk zure jainkotasun pertsonal eta munduz kanpoko? Leibnizen kontzeptuen arabera, agian? Beldur naiz, bihotzez bera ere spinozista bat zela.

NI. Benaz diozu?

LESSING. Dudatan jartzen duzu benaz? Egiari buruz muga hertsiegiak jartzea ezin onartzeko moduan zeuden eginak Leibnizen ideiak. Bere iritzi asko pentsamolde horretatik datoz, eta, zorroztasunik handienaz ere, zail da oso sarri bere beraren iritzia aurkitzea. Horregatik hain zuzen ere daukat hain baliozkotzat: esan nahi dut, pentsatzeko modu handi honengatik; eta ez, berak eduki bide zuen, edo benetan eduki zuen iritzi honengatik edo bestearengatik.

NI. Oso ondo. Leibnizek gustura «aterako zuen sua sukarriz guztietatik». Baina zuk esan duzu iritzi jakin batez, spinozismoaz, Leibniz *bihotzez haren oso zalea zela*.

LESSING. Gogoan al daukazu Leibnizen pasarte bat Jainkoaz, esaten duena: hau etengabeko espansioan eta kontrakzioan aurkitzen dela: hori litzatekeela munduaren sorkuntza eta existentzia?

NI. Ezagutzen ditut bere distirak; baina pasarte hori ezezaguna zait.

LESSING. Nik bilatuko dizut, eta zuk esango didazu Leibniz bezalako gizon batek horretan zer pentsa zezakeen, edo zer pentsatu behar zuen.

NI. Erakus iezadazu pasarte hori. Baina aldez aurretik esan behar dizut, Leibniz horren beraren beste pasarte asko, hainbat gutun, lan, bere «Teodizea» eta «Nouveaux essais» gogoan hartuz, bere ibilbide filosofiko osoa, asaldatu egiten naizela gizon honek munduaren kausa munduz gaindikorik batere ez, baizik mundu barruko bat bakarrik sinesten zuelako hipotesiaren aurrean.

LESSING. Alderdi horretatik amore eman behar dizut. Eta lehenetasuna ere edukiko du; eta onartzen dut gehiegitxo ere esan dudala. Hala eta guztiz ere nik aipatu dudan pasartea —eta beste hainbat gehiago— harrigarri gertatzen da beti.— Baina ez dezagun ahaztu! Zein ideen arabera uste duzu, bada, zuk, spinozismoaren kontrakoa dela? Leibnizen printzipioek amai bat ematen diotela uste duzu?

NI. Nola uste dezaket nik hori, irmo komentziturik egonik, nagoen bezala, determinista zindoa ez dela fatalistatik bereizten?... Monadek, beren *Vinculis*-ekin batera, zabaltzea eta pentsatzea, *errealityatea* oro har, lehen bezain ulertezinezko uzten dizkit, eta orain ez dakit eskuinera edo ezkerrera nora jo. Eta gainera sakeletik zerbait aterako balitz bezala nago... Bestalde, ez dut ezagutzen beste sistema bat Leibnizena bezala, spinozismoarekin bat gehiago datorrenik; eta zail da esaten bi egile hauetik nork jotzen digun adarra guri eta bere buruari: ohore osoz, bada! ... Mendelsohnek agerian jarri du «hharmonia praestabilita» Spinozagan aurkitzen dela. Hortik ateratzen da Spinozagan jada Leibnizen printzipio asko aurkitzen direla, edo Leibniz eta Spinoza (honi nekez egin bide zion onurarik Wolfen irakaskuntzak) zalantzarik gabe, ez zirela izan benaz buru zindoak egiaz hala zirenean. Ni ausartzen naiz Spinozagan Leibnizen arimari buruzko doktrina guztia agerian jartzen... Funtsean biek ere doktrina bera dute askatasunari buruz, eta amarru batek bereizten ditu beren teoriak. Baldin Spinozak («Epist.» LXII. «OP-.Posth.» 584-585 or.) askatasunaren gure sentiera harri baten adibide baten bidez argitzen badu: harri honek pentsatuko eta jakingo zukeen bera saiatzen dela bere mugimendua aurrera segitzen; Leibnizek gauza bera argitzen du («Theod.» § 50) orratz magnetiko baten adibidearekin: orratz honek gogoa luke iparralderantz mugitzeko, eta usteko luke beste kausa batetik libre biratzen dela, materia magnetikoaren mugimendu sumaezinaz konturatzen ez denez.-...Helburu-kausa argitzen du Leibnizek «Appetitus» baten bidez, «Conatum immanentem (conscientia sui praeditum)» baten bidez. Gauza berbera Spinozak: honek, zentzu honetan, guztiz onar zezakeen, eta harengan, Leibnizengan bezala, *arimaren izatea kanpokoaren errepresentazioan eta irritsean jartzen da*.— Labur, baldin auziaren muinera jotzen bada, aurkitzen da bai Leibnizengan bai Spinozaren helburu-kausa bakoitzak kausa eragile bat eskatzen duela aurretik... Pentsatzea ez da sustantziaren itur-

burua; baizik substantzia da pentsatzearen iturburua. Hala bada, pentsatzearen aurretik onartu behar da zerbait pentsatzen ez duena, lehenbiziko bezala; zerbait, baldin ez bada erabat errealtatean, bai irudikapenaren, izatearen, barneko naturaren arabera, lehenbiziko bezala pentsatua izan behar duena. Nahikoa zintzoki, bada, deitzen ditu Leibnizek arimak «des automates spirituels». Baina nola (Leibnizen zentzu sakonenean eta osoenean ari naiz hemen, nik ulertzen dudan neurrian, noski), nola iraun dezake *tinko* eta *eragin* berez nolabait arima guztien printzipioak...; espirituak materiaren aurretik; pentsamenduak objektuaren aurretik? Gu larrialditik ateratzeko askatu beharko zituzkeen korapilo handi hauek, lehen zeuden bezain ktramilatu utzi zituen...

LESSING. ... Ez dizut bakerik ematen, paralelismo hori egun argira atera behar duzu... Jendeak oraindik Spinozagatik esaten du zakur hil baten pareko dela ...

NI. Hala hitz egingo dute lehen bezala gero ere. Spinoza ulertzeko, espirituaren ahalegin luzeegia eta gogorregia behar da. Eta inork ez du ulertuko, baldin «Ethikari» lerro *bat* ilun geratu bazaio; bere filosofiaz berak hain sarri eta hain garbi egun argitan jarri zuen barneko komentzimendu sendoa nola zeukan gizon handi honek ulertzen ez duen inork. Bere egunen amaieran idazten du oraindik: ...»non praesumo, me optimam *invenisse* philosophiam; *sed veram me intelligere scio*». Gisako arimako bake bat, gisako zero bat adimenean, buru argi eta garbi honek sortu zuena bezalakoa, gutxik dastatu ahal izan dute.

LESSING. Eta zu ez zara spinozista, Jacobi!

NI. Ez, zinez.

LESSING. Zinez, zure filosofiaren arabera, filosofia orori bizkar eman beharko zenieke.

NI. Eta zergatik bizkar eman filosofia orori?

LESSING. Beno, orduan zu erabateko eszeptikoa zara.

NI. Alderantziz, eszeptizismo erabatekoa beharrezko egiten duen filosofia batetik erretiratzen naiz.

LESSING. Eta nora jo orduan — nora?

NI. Argirantza, harengatik esaten baitu Spinozak bere bera eta iluntasuna ere argitzen dituela. Nik gogoko dut Soinoza, berak, beste

filosofo guztiek baino gehiago, eraman nauelako gauza batzuek ezin gara daitezkeen komentzimendura, haien aurrean ez direla itxi behar begiak horregatik, baizik aurkitzen diren bezala onartu behar direla ikus-tera. Ez daukat helburu-kausarena baino barnekoago litzatekeen ideia-rik; ez komentzimendu biziagorik, *pentsatzen dudana egiten dudala* baino; *egiten dudana pentsatu behar dudala soilik* baino. Onartu behar dut noski horretan pentsatzearen eta ekitearen iturburu bat, niretzat era-bat argitu ezinezko geratuko dena. Baldin ordea nahi badut argitu, biga-rren proposamenera iristen naiz, horren erabilera kasu partikularretan eta bere ingurune osoan begiraturik, giza-adimenak ezin baitu jasan.

LESSING. Augsburgeko batzarra bezain bortizki mintzo zara; baina ni luterotar zintzo bat naiz oraindik eta nik baieztatzen dut «abe-reen errua eta biraoa gehiago dena gizakiena baino, nahimen librerik ez dagoela» esatea, eta hori ere onartzen zuen zure Spinozaren buru *argi eta garbiak*.

NI. Spinozak ere ez zuen gutxi makurtu behar izan bere fata-lismoa ezkutatzeko giza-portaerari hura egoztean, bereiziki bere lau-garren eta bosgarren ataletan, non, nik esango nuke, sofistetaraino apaldu den inoiz edo behin.— Eta hori zen nik adierazten nuena: bururik handienak berak, dena egiaz argitu, ideia garbien arabera elkarrekin egokitu, eta bestela ezer ez onartzea nahi duenean, zentzun gabeko gauzetara jo behar izaten du.

LESSING. Eta argitu nahi ez duenak?

NI. Ulertezinezkoa dena argitu nahi ez duenak, baizik jakin muga non hasten den, eta aitortu han dagoela: horregatik uste dut nik egiazko giza-egiarentzat bere baitan toki gehiena irabazten duela.

LESSING. Hitzak, Jacobi maitea, hitzak! Zuk finkatu nahi dituzun mugak ezin dira zehaztu. Eta beste aldetik, ametskeriari, iru-dikeriari, itsutasunari leku libre zabala ematen diezu.

NI. Nire ustez, muga horiek zehaztu beharko lirateke. *Finkatu* ez nuke nik egin nahi, baizik lehendik jarriak aurkitu eta bertan utzi. Eta irudikeriari, ametskeriari eta itsutasunari dagokienez ...

LESSING. ideia nahasirik dagoen leku guztietan aurkitzen dira horiek.

NI. Gehiago oraindik: *gezurrezko* ideiak dauden lekuan. Fede itsuenak, zentzu gabekoenak, ez bada ergelenak, dauka han bere jar-

goi altua. Izan ere, argibide batzuetan behin maitemintzen denak, berak indargetu ezin duen bukaera baten arabera handik aterako den ondorio oro itsu-itsuan onartzen du, eta pozik, burua galtzen ez badu.

...Nire iritzian, ikertzailearen merezimendurik handiena da *existentzia* estalgetzea, eta errebelatzea.... Argitzea beretzat bitarteko bat da, helbururako bidea, hurrengo —sekula ez azken— xedea. Argitu ezin daitekeena da bere azken xedea: erabaki-ezina, zuzeneko, bakuna.

...Argibide bilatze gehiegizkoak orokorra hain sutsu bilararazten digu, non desberdinari ez diogun kontu egiten; gorapilatu nahi dugu beti, abantaila handiagoz banandu beharko genukeenean... Sortzen da orobat, gauzetan argigarri dena *elkartu* eta *batera* jartzen denean, ariman distira bat argitu baino gehiago itsutzen duena. Orduan, Spinozak —sakon eta bikain— mota gorenaren ezagupena deitzen duena, beheko motaren ezagupenari opaltzen diogu; arimak Jainkoa eta norbera ikusteko daukan begia isten dugu, era horretan askoz arreta gutxiagoz gorputzeko begiez soilik begiratzeko...

LESSING. Ondo, oso ondo! Nik ere erabil dezaket guzti hori, baina ezin dut horrekin gauza bera egin. Egiaz, ez zait gaizki iruditzen zure salto mortal hori, eta ulertu ere ulertzen dut gizon burutsu batek burua makur dezakeela era horretan, aurrera egiteko. Har nazazu zurekin, zilegi bada.

NI. Ni aurreraka bultzatzen nauen leku malgua zapaldu nahi baduzu, berez doa orduan.

LESSING. Horretarako ere jauzi bat behar da, nik nire hanka zaharrei eta nire buru astunari ezin eska diezaiekedana.

Elkarriketa honi —funtsezkoena bakarrik eman dut hemen— beste zenbait segi zioten, bide batetik baino gehiagotik, gai berberetara eraman gintuztenak.

Behin esan zuen Lessingek, erdi barrezka, bera litzatekeela izate gorena, eta une honetan kontrakzio handieneko egoeran. Nire existentziagatik erregutu nion. Erantzun zidan ez zuela esaten zentzu horretan, eta Heinrich Morus eta von Helmont gogora ekarri zizkidan modu batean erantzun zidan. Lessing argiago mintzatu zen: baina nik derrigor behin eta berriz kabalazale izatea aurpegira niezaiokeen moduan. Ez zuen gutxi dibertitzen horrek, eta hortik aukera hartu

nuen Kibbel edo Kabbala gaiez hitz egiteko *zentzurik hertsienean*, honoko *ikuspegitik*, alegia: berez eta berenez amaibakoa amaidunetik garatzea, eta batetik besterako pasabidea, edo beren proportzioa, nola-baiteko formula batez ateratzea ezinezko dela; hartaz, horri buruz zer-bait esan nahi bada, errebelaziotik abiatu behar dela. Lessingek bere-ari eutsi zion: dena «*naturalki lortu nahi zuela*»; eta nik: ezin izan dai-tekeela goi-naturari buruzko filosofia naturalik, eta egiaz, nabarmen zegoela biak (naturala eta goi-naturala) izan bazirela.

Lessingek jainkotasun *pertsonal* bat irudikatu nahi zuenean, osotasunaren arima bezala pentsatzen zuen; eta osotasuna gorputz organiko baten analogiaren arabera. Osotasunaren arima orduan, gai-nerako arima guztiak bezala, sistema guztien arabera, *arima direnez*, efektu bakarrik da. Berorren esparru organikoa ordea, horren *zati* organikoen analogiaren arabera, ezin pentsatua izan daiteke berataz aparte baden ezeri lot dakiokela, ezta ere handik hartu edo hari itzu-li dakiokela. Beraz, bizirik irauteko, aldian-aldian bere baitara gibe-leratu beharko luke; heriotza eta berpiztea, bizitzarekin berarengan bateratu. Gisako izate baten ekonomia dagokionez, ordea, hainbat irudikapen egin omen litezke.

Lessing oso atxikia zegoen ideia honi, eta behin seriotan, behin bromatan, era guztietako kasuetarako erabiltzen zuen, Gleim-en etxe-an, gu mahaian eserita geunden bitartean ustekabea euria egin zue-nez, eta Gleim arranguratzen zenez bazkal ondoan jardineria joan behar genuelako, Lessingek esan zidan, nire ondoan baitzegoen: «Jacobi, badakizu, beharbada egin egingo dut». Nik erantzun: «Edo nik». Gleimek begiratu gintuen, erotuta ote geunden edo; bere etxean egin genituen hiru egunetan bezala inolaz, neke handia hartu zuen gurekin, aspertu gabe ordea etengabe bere umore zentzu eta espirituz bete eta alaia, bere grazia barretsua, eta betiko broma malitagarriak eta halaber zorrotzak guri kontragarri.

Ez zettorren Lessing gogo onez bat, bere perfekzio gorenaren dastaketa etengabea legokeen izate erabat pertsonal baten ideiarekin. *Amaibako asperduraren* ideia halako irudi bat lotzen zuen horre-kin, antsiakor eta mingarri egiten baitzitzaion.

Gizakiaren iraupen bat, nortasunarekin lotua, heriotzaren ondo-ren, ez zitzaion sinesgaitza iruditzen. Berak esan zidan, berriro irakur-tzen ari zen Bonnet-engan gai honi buruz bereekin eta oro har bere sis-

tema osoarekin izugarri bat zetozen ideiak aurkitu zituela. Elkarriketaren joanak eta nik nuen Bonneten ezagutza zehatzak (bere idazti guztiak kasik buruz ikasi nituen lehenago) ekarri zuten gai honi buruz gehiago galdetu ez niezaion. Harrez gero ere, Lessingen sistema ez iluna ez bikoitza iruditzen ez zitzaidanez, ez dut Bonnet asmo horrekin irakurri, oraingo aukera honek horretara eraman nauen arte. Lessing garai hartan irakurtzen ari zen Bonneten idaztia, *zuk ondo ezagutzen duzun* «Palingenesie» baino ez da; eta I. ataleko VII. txatalak «Contemplation de la nature»-eko IV. txataleko XIII. kapituluarekin loturik —hori aipatzen baitu hantxe bertan Bonnetek— eduki ditzake agian Lessingek aipatzen dituen ideiak. Pasarte batek (lehen argitalpeneko 246. orria) erakarri dit atentzioa, han esaten baitu Bonnetek: «Seroit ce donc qu'on imagineroit que l'Univers seroit moins *harmonique*, j'ai presque dit, *moins organique*, qu'un Animal?»

Ni Lessingengandik banandu nintzen egunean nire bidaia Hamburgora jarraitzeko, gai honi buruz luze eta serio hitz egin zen oraindik. Gure filosofian ez geunden oso urruti, bai ordea fedean. Hemsterhuis gaztearen hiru idatzi eman nizkion nik Lessingi, eskulturgintzari buruzkoa ezik ezagutzen ez zituenak: «Lettre sur l'homme et ses rapports», «Sophile» eta «Aristée». Nik Münster-etik pasatzean eskuratu berria nuen «Aristée» gogo txarrez eman nion, irakurri gabe bainean; baina Lessing-en irrika handiegia zen.

«Aristée» honekin, hain zuzen, guttiz liluratuta aurkitu nuen nik Lessing itzuli nintzenean, hain liluratuta non erabakia baitzegoen liburua alemanera itzultzeko. — Spinozismo garbia omen zen, esaten zuen Lessingek, eta estalki exoteriko hain ederrean, non estalkiak berak lagun egiten omen zion barneko doktrinaren garatzeari eta argitzeari.— Nik ziurtatu nion, nik nekiela (ez nuen nik oraindik Hemsterhuis pertsonalki ezagutzen), Hemsterhuis ez zela inondik ere spinozista; Diderotek berak ziurtatu zidala hori.— «Irakur ezazu liburua», erantzun zidan Lessingek, «eta ez duzu zalantzarik izango gehiago».

«Sur l'homme et ses rapports» gutunean oraindik pixka bat herren egiten du, eta litekeena da Hemsterhuisek bere spinozismoa guttiz ezagutu ez izana; baina orain guttiz garbi dago horretan.

Iritzi hau paradoxala aurkitu nahi ez bada, Lessing zen bezain aditua izan behar da spinozismoan. Berak «Aristée»-ren estalki exote-

riko deitzen zuena arrazoi osoz amaibakoaren eta amaidunaren arteko, indar orokor (eta hartaz) indeterminatuaren eta determinatuaren arteko lotura askaezin, barneko eta betikoaren eta ezinbesteko kontrasesanaren —bere norabide guztietan— doktrinaren garapen soil beza-la ikus daiteke. Gainerako «Aristée» nekez erabil ahal izango du norbaitek spinozista baten kontra.— Hala eta guztiz ere, handikiro aitortu behar dut Hemsterhuis ez dela seguru spinozista bat, aldiz guztiz doktrina honen kontrakoa dela bere punturik funtsezkoenetan.

Lessingek garai hartan irakurri gabe zeukan oraindik Hemsterhuisen «Sur les désirs» artikulua. Pakete batean iritsi zen, ni alde egin berria nintzenean. Lessingek idatzi zidan bere jakin-min pazientziarik gabeak ez zuela bakean utzi harik eta paketea ireki zuen arte, eta paketearen gainerako edukia Kasselerara bidali zidan. «Idatzia-ri berari dagokionez» (gaineratu zuen), izugarrizko atsegina eman baitit, hurrengoan gehiago».

Bere azkena baino lehenxeago, abenduaren 4an, idatzi zidan: «***gatik, datorkit burura hitz eman nizula maitasunari buruzko Hemsterhuisen sistemari buruz nire pentsamenduak jakin araziko nizkizula. Eta ez duzu sinetsiko zein zehatz datorren bat nire pentsamendua sistema honekin; sistema honek, nire ustean, ez du ezer argitzen eta niri iruditzen zait, analistekin mintzatzeko, formula bat beste batez ordezkatzea baino ez dela, eta horrela gehiago erortzen naiz okerreko bidetan, ondoriotara hurbildu baino.— Orain, ordea, *nahi dudana* idazteko egoeran al nago bada? Ezta behar dudana idazteko ere, e.a.»

Lessingen iritziak orain arte kontatu dudan eran nik ezagutu aurretik, eta lekukotan oinarriturik erabat komentziturik nengoelarik Lessing deista ortodoxo bat zela, bere «Gizadiaren hezkuntza»n zenbait gauza guztiz ulertezinezko egiten zitzaidan, bereiziki § 73.a. Jakin nahi nuke ea inork pasarte hori argi dezakeen ideia spinozisten arabera ez bada. Hauei jarraiki, ordea, oso erraza da komentarioa. Spinozaren Jainkoa errealtatearen Principium *soila* da erreale den orotan, *izatearena* existentzia orotan, guztiz indibidualtasunik gabea, eta erabat amaibakoa. Jainko horren batasuna oinarritzen da bereiz ezin daitekeenaren identitatean, eta hartaz ez du bazterreratzen aniztasun moduko bat. *Soilik* batasun transzendental honetan ikusirik, jainkotasunak ordea erabat errealtatez gabetua izan behar du, hau norbanako jakinetan aurki baitaiteke bakarrik adierazia. Hau, *errealitatea*, bere

kontzeptuarekin, *Natura naturata*-n (Semea betikotasunetik) datza; hura, *possibilitatea*, *esentzia*, *amaibakoaren sustantziala*, bere kontzeptuarekin, *Natura naturante*-an (Aita) datza.

Spinozismoaren espirituaz lehenago azaltzen saiatu naizenak, garapen zabalago bat alferrikako egiten du hemen.

Eta nola irudi hainbatek irudikapen hauek berberak, gehiago edo gutxiago mordoiloturik, jasotzen zituzten gizakiengan antzinate zaharrenetik jada, nik bezain ongi dakizu zuk ere. «Hizkuntza kontzeptuen azpian dago hemen egiaz», kontzeptu bat beste baten azpian bezala.

Askok egiazta dezake Lessingek , bere teologiaren eta filosofiaren laburpen gisan, sarri eta azpimarratuz erabiltzen zuela. Esan eta idazten zuen, aukera zuenean, bere goiburu bete gisan. Hala dago Gleimen jardinean ere, nire goiburu baten azpian, Lessingen eskuz idatzia.

Honi dagozkion hainbat gauza Luchesini markesaren bidez jakin daitezke. Ni baino zertxobait lehenago izan zen Wolfenbüttelen, eta buru argiko gizon bezala asko goraipatu zidan Lessingek.

Nik kontatu dudana, formari eta adierazpenari dagokienez, memoriak Iagundu izan balit, konta nezakeenaren hamarrena ere ez da. Horregatik kontatu dudan honetan, nik, ahal bezain urri, utzi diot hitza Lessingi. Egun osoan zehar eta hainbat gai desberdinez batak bestearekin hitz egiten denean, galdu egiten dira ñabardurak. Eta honi gaineratu behar zaio hau. Nik behin guztiz garbi jakin nuenean: *Lessingek ez du sinesten munduaz desberdin den gauzen kausa bat; edo Lessing spinozista bat da* — ondoren, honi buruz esaten zuena, era batera edo bestera esan arren, ez zitzaidan tinkoago finkatzen buruan. Bere hitzak gordetzea ez zitzaidan bururatu ere egin; eta Lessing spinozista bat zela, oso ulergarria iruditu zitzaidan niri. Baldin berak kontrakoa baieztatu izan balu, —eta nire jakin-mina horretarako kitzikaturik zegoen— asmatuko nuen oraindik garrantzizko hitz bakoitzaren kontu ematen.

NATHAN JAKINTSUA

Poema dramatikoa bost ekitalditan.

Introite, nam et heic Dii sunt.

APUD GELLIUM

PERTSONAIAK

SALADINO SULTANA

SITTAH, haren arreba

NATHAN, Jerusalemgo judu aberatsa

REHA, haren alabatzakoa

DAIA, kristaua, baina juduaren etxean, Reharen damalagun gisan

TENPLARIOA GAZTEA

DERBITXEA

Jerusalemgo PATRIARKA

KOMENTUKO FRAIDEA

EMIR BAT, Saladinoren zenbait MAMELUKOREKIN batera.

Eszenategia Jerusalem da.

LEHEN EKITALDIA

LEHEN ESZENA

(Eszenategia: Nathanen etxeko ataria)

Nathan bidaiatik etxeratzen.

Daia ateratzen zaio

DAIA. Bera da! Nathan! —Jainkoari eskerrak beti, berori azkenean behintzat etxeratzen delako.

NATHAN. Bai, Daia; Jainkoari eskerrak! Baina zergatik *azke-nean?* Lehenago etxeratu nahi al nuen, bada? Eta etxeratu al nintekeen? Jerusalem berrehun milia on urrun dago Babiloniatik, nik derri-gor hartu behar nuen bidean barna, behin eskuinera, behin ezkerrera joz; eta zorrak kobratzea ere ez da noski egiteko bat, nabarmen aurre-ra egiten duena, besterik gabe eskutik utz daitekeena.

DAIA. Oh Nathan, zein errukarri, errukarri aldiz gerta zekio-keen hemen. Berorren etxea...

NATHAN. Erre egin da. Jakin dinat jada. Jainkoak nahi beza jakin beharreko guztiak jada jakinda edukitzea!

DAIA. Eta erraz erreko zen oinarrietatik beraietatik.

NATHAN. Orduan, Daia, berri bat egingo gintinan; eta eroso-agoa.

DAIA. Hori ere egia da! Baina hutsa falta zen *Reha* ere erre zedin.

NATHAN. Erre? Nor? Nire Reha? Bera? Entzun gabe neukan hori. Orratio! Orduan ez nukeen beharko beste etxerik gehiago. Hutsa falta erretzeko! Ah! Bera erre egin da bai! Benetan guztiz erre da! Esan behingoz! Esan! Hil ni: baina ez hilduratu gehiago. Bai, erre egin da.

DAIA. Hala izan balitz, nire ahotik entzungo zuen berorrek?

NATHAN. Zergatik beldurtzen naun orduan? Oh Reha! Oh Reha nirea!

DAIA. Berorrena? Berorren Reha?

NATHAN. Berriro galdu beharko banu haur hori nire haur dei-tzeko ohitura!

DAIA. Berorrek daukana eskubide berez deitzen du berorren?

NATHAN. Ezer ez handiagoz! Nik bestela daukadan guztia naturak eta zoriak eman zidaten. Ondasun hau bakarrik zor zionat bertuteari.

DAIA Oh, zein garesti ordainarazten didan, Nathan, berorren ontasuna! Baldin ontasun dei badaiteke asmo horrekin gauzaturiko ontasuna!

NATHAN. Asmo horrekin? Zein asmorekin?

DAIA. Nire kontzientzia...

NATHAN. Daia, utzi ezer baino lehen kontatzen...

DAIA. Nire kontzientzia, ari nintzen esaten...

NATHAN. Zein zapi ederra erosi dinadan Babilonian. Hain aberatsa, eta hain gustu aberatsekoa! Reha berarentzat ez zekarrenat ederragorik.

DAIA. Zertarako balio du horrek? Bada, nire kontzientzia, esan behar diot xalo, ezin sorgor daiteke luzaroago.

NATHAN. Eta zein atsegin izango ditunan nik Damaskon hiretzat hautatu ditudan orratza, belarritakoak, eratzuna eta katea: irrikatzen nagon ikusteko.

DAIA. Betikoa berori! Berori, opariak egin ahal izanez gero! Opariak egin ahal izanez gero!

NATHAN. Hartu hik nik ematen dinadan bezain gustura: —eta isildu!

DAIA. Eta isildu! — Nork egiten du zalantza berori prestutasun eta bihotz-zabaltasun berbera denik? Eta halere...

NATHAN. Halere judua baino ez naun. — Hori esan nahi dun, ez da?

DAIA. Hobeto daki berorrek nik zer esan nahi dudana.

NATHAN. Isildu orduan!

DAIA. Isiltzen naiz. Hemen gertatzen ari denetik Jainkoaren aurrean zigorgarri dena, eta nik eragotzi ezin dudana, alda ezin dudana, — ezin dudana, —betor berorren gainera!

NATHAN. Betor nire gainera! — Baina non dun bera? Non ezkutatu dun? — Daia, erruki niri iruzur egiten badidan! — Ba al daki inolaz ni etorria naizela?

DAIA. Hori galdetzen diot nik berorri! Oraindik izuaren izuz dardarka dauka kirio bakoitza. Oraindik bere fantasiak sua margotzen du berak margotzen duen orotan. Lo dagoela esna dauka, esna dagoela lo dauka bere espiritua: batean da aberea baino gutxiago, hurrengo da aingerua baino gehiago.

NATHAN. Haur errukarria! Zer garen gero gizakiok!

DAIA. Gaur goizean luzaro egon da etzanda begiak itxita, eta hilda bezala zegoen. Bat-batean altxatu eta hots egin du: «Ixo! Ixo! Hara non datozen nire aitaren gameluak! Ixo! Hara bere ahots samurra!» Horrekin batera, begiak ireki ditu berriro: eta bere burua, bere besoaren euskarria utzirik, burkoan amildu da. — Ni atera irten naiz! Eta hara: berori dator egiaz! Berori dator egiaz! — Hau miraria! Bere arima osoa denboraldi guztian berorrekin bakarrik zegoen — eta harekin. —

NATHAN. Harekin? Norekin harekin?

DAIA. Sutatik libratu zuen harekin.

NATHAN. Nor izan zen? Nor? — Non zagon? — Nork salbatu dit nire Reha? Nork?

DAIA. Tenplarioa gazte batek, egun gutxi lehenago hona preso ekarri eta Saladinok asketsi zuen batek.

NATHAN. Nola? Tenplarioa bat, Saladino sultanak bizia utzi diona? Ez zegoen Reha salbatzerik mirari txikiago baten bidez? Jainkoa!

DAIA. Uste gabe berak irabazi zuena berriro segituan arriskatu izan ez balu, akabo zen neskarekin.

NATHAN. Non zagon, Daia, gizon prestu hori? Non zagon? Eraman nazan bere oinetara. Emango zenioten, bada, hasteko hemen utzi nizkizuen ondasunetatik? Dena emango zenioten? Gehiago agindu zenizkieten? Zenbat gehiago?

DAIA. Nolatan egin genezakeen guk hori?

NATHAN. Ez? Ez?

DAIA. Etorri zen, eta inork ez daki nondik. Joan zen, eta inork ez daki nora. — Etxea batere ezagutu gabe, bere belarriak bakarrik gidatzen zuela, jo zuen, mantua aurretik zabalduz, ausart garren eta kearen erditik laguntza eskatzen zigun ahotsarantz. Galdutzat ematen genuen, ke eta garren artetik gure aurrera azaldu zenean, bere beso sendoan jasota bera ekarriz. Hotz eta eskerrezko gure lekaioekiko arrotz, bere harrapakina lurrean utzi, jendearen artean sartu eta... kito!

NATHAN. Ez betiko, hala espero dut.

DAIA. Gero, lehen egunetan han, berpiztuaren hilobiari itzala ematen dioten palmondoen azpian ikusi genuen gora eta behera. Harrimenez hurbildu nintzaion, eskerrak eman nizkion, goraipatu, gonbidatu, arren egin, — behin bederen ikus zezan bere oinetan negarez urturik eskerrak eman arte bakerik ez zuen izaki jaiateratsua.

NATHAN. Eta?

DAIA. Alferrik! Gorra zen gure eskakizunarekiko; eta laido hain mingotsa isuri zuen bereiziki nire gainera...

NATHAN. Non horregatik izuturik...

DAIA. Ezta gutxiago ere! Egunoro aurkeztu nintzaion berriro; egunoro nire bizkarretik burla egin zezan utzi nion. Zertzuk ez nituen jasan berarengandik! Zertzuk ez nituen nik pozik jasango oraindik! — Baina aspaldi da ez datorrela gehiago gure berpiztuaren hilobiari itzala ematen dioten palmondoak bisitatzera; eta inork ez daki nora ezkutatatu den. — Harritu egiten da berori? Gogoetatan dabil?

NATHAN. Pentsatzen nago zer-nolako zauskada eragin behar dion horrek Reharena bezalako arima bati. Estimatu handian edukitzea hain beharturik gauden baten aldetik hain zapuzturik sentitzea; hain lekutua, eta halere hain erakarria izatea; egiaz, kalapita luzea izan behar dute bihotzak eta buruak beren artean, zeinek garaitu behar duen gizakiarekiko gorrotoak ala tristura sakonenak. Sarri ez bata ez besteak garaitzen du; eta fantasiak, liskarrean nahasten delarik, bero-bero bihurtzen ditu, haietan behin buruak bihotzarena eta hurrengo bihotzak buruarena egin behar baitu. — Aldaketarik okerrenea! — Azkena da, Reha gaizki ezagutzen ez badut, Reharen kasua: bero-bero zagon.

DAIA. Baina, era hain xaloan, hain maitagarrian!

NATHAN. Baina bero-bero zagon inolaz!

DAIA. Bereiziki... ideia bitxi bat da, berorrek hala nahi badu, beretzat guztiz baliozkoa. Bere tenplarioa ez omen da lurtiarra ezta lurrekoa ere; aingerua omen da, eta haren babespean uste zuen bere bihotz txikiak zegoela jarria haurtzarotik jada, eta bestela ezkutaturik egon ohi den bere hodeitik, bera sutan zegoela bere inguruan hegatan ibili omen zen, eta bat-batean tenplarioa gisan azaldu. — Ez barrerik egin! — Nork daki? Egin barre, baina utzi berari amets bat bederen, non juduak eta kristauak eta musulmanak bat egiten duten; — amets hain goxo bat!

NATHAN. Niretzat ere hain da goxoa! — Hoa, Daia zintzoa, hoa: begira zer egiten duen; ea nik hitz egin diezaiokedan. — Berehala bilatuko dut aingeru goardako basati eta alai hori. Eta baldin hemen behean gure artean mugitzea oraindik ontzat badauka; oraindik ontzat badauka zalduniria hain zabarra praktikatzea: nik seguru aurkituko dudala; eta hona ekarriko dut.

DAIA. Ez da makala asmoa.

NATHAN. Orduan amets goxoak egia goxoagori egingo dio leku: — izan ere, Daia, sines niri: gizakiari maitagarriago zaio beti gizaki bat, aingeru bat baino — Hala beraz nirekin, nirekin ez haiz haserretuko aingeru-ametslaria sendatu dudalako?

DAIA. Hain da berori ona, eta orobat hain da gaiztoa! Banoa! Halere, entzun! Halere ikusi! — Hortxe dator bera.

BIGARREN ESZENA

Reha eta aurrekoak

REHA. Orduan, berori da bete-betean, nire aita? Nik uste nuen berorren ahotsa aurretik bidali zuela. Non dago berori? Zein mendik, zein mortuk, zein ibaik banatzen gaitu oraindik? Hormaz horma hartzen du berorrek arnas berarekin, eta ez dator azkarrago berorren Reha besarkatzera? Reha errukarria, bitartean kiskali zena! — Ia-ia, ia-ia kiskali zena! Ia-ia bakarrik. Ez beldurtu! Heriotza nardagarria, kiskaltzea! Oh!

NATHAN. Nire haurra! Nire haur maitea!

REHA. Eufrates, Tigris, Jordan gaindi behar zuen berorrek; nork daki zenbat uren gaindi? Zenbat bider egon naizen dardarka berorrengatik, sua niregana hain hurbil etorri aurretik! Izan ere, sua hain hurbil etorri zitzaidanetik, uretan hiltzea iruditzen zait eztidura, gozaldi, salbazio. — Bai, berori ez da ito; ni, ni ere ez naiz kiskali. Poztu gaitezen eta Jainkoa, Jainkoa gores dezagun! Berak, berak eka- rri zuen berori eta berorren txalupa bere *ikustezinezko* aingeruaren hegotan korronte maltzurraz bestaldera. Berak, berak egin zion keinu nire aingeruari, berak *ikusteko eran* bere magal zurian ni suaren erdi- tik eraman nintzan.

NATHAN. (Magal zurian! Bai, bai! Tenplarioaren kapa zuri zabaldua).

REHA. Berak ikusteko eran, ikusteko eran, suaren erditik era- man nindezan, bere kapaz estalirik. — Nik, beraz, nik, aingeru bat ikusi dut begitartez begitarte; eta *nire* aingerua.

NATHAN. Rehak hori merezi zuen; eta neskak ez zukeen ain- geruak berarengan ikusi duena baino ezer ederragorik ikusiko.

REHA (*Irribarreka*). Nor lausengatzen du berorrek, aita? Nor? Aingerua, edo berorren burua?

NATHAN. Halere, gizaki batek ere — gizaki batek, naturak egunoro erakusten duen bezala, eskain ziezaiokeen zerbitzu hori: hire- tzat aingeru bat izan beharko zukeen. Beharko zukeen eta izan izango zen.

DEHA. Ez gisako aingeru bat; ez! egiazkoa; egiazkoa zen zinez! — Ez dit berorrek, berorrek hain zuzen, niri irakatsi aingeruak badirela, Jainkoak bera maite dutenen onerako mirariak ere egin ditza- keela? Nik maite dut Jainkoa.

NATHAN. Eta berak maite hau; eta hire eta hire antzekoaren alde orduoro egiten ditin mirariak; bai, betikotasun osoan dagoeneko egin ditin zuen alde.

REHA. Pozik entzuten dut hori.

NATHAN. Nola? Erabat naturala, egunorokoa dirudielako, hi zinezko tenplarioa batek salbatu izana, horregatik ez luke miraria izan behar? — Mirariaren gauzarik handiena da ezen guretzat mirari egiaz- ko eta benetakoak hain egunoroko bihur dakizkigukeela, behar zaiz-

kigula. Mirari orokor hori gabe, pentsatzen duen batek nekez deituko lioke inoiz mirari, haurrentzat hala deitu behar denari, hauek liluraturik ez ohikoa bakarrik, azken berriena bakarrik segitzen baitute.

DAIA. (*Nathani*) Zer? Reharen buru dagoeneko beroegia gisako zorrozkerien bidez lehertu nahi du berorrek?

NATHAN. Utzi bakean! — Nire Reharentzat ez litzateke nahikoa mirari bere burua inolako mirari txiki batez aurretik salbatua izan den *gizaki* batek bera salbatu izana? Bai, inolako mirari txiki batez! Izan ere, nork entzun du sekula Saladinok inoiz tenplarioa bati bizia barkatu dionik? Inoiz tenplarioa batek Saladinori bizia barka diezaion eskatu dionik? Espero izan duenik? Bere buruaren askatasunaren truke bere ezpata, edo gehienez bere sastakaia daraman larruzko bere gerrikoa baino ezer gehiago eskain diezaionik?

REHA. Horrek nire alde epaitzen du, aita.— Horregatik hain zuzen ere, ez zen hori tenplarioa bat; — itxura zeukan bakarrik tenplarioarena. — Ez dago tenplarioa presorik Jerusalemara datorrenik hiltzeko ez bada; Jerusalem hain libre mugitzen denik: nola salba nintzake gauez bere kabuz?

NATHAN. Ikus! Zein asmotsua. Orain, Daia, hartu hitza. Hiregandik jakin dinat preso hartuta hona bidalia izan dela. Hik gehiagoko dakin, zalantzarik gabe.

DAIA. Ongi da. — Hala esaten dute; — baina orobat esaten da Saladinok tenplarioari barkatu diola oso maite zuen anaia baten antz handia omen duelako. Baina hogeitaz luze direlarik anaia hori bizi ez dela, — ez dakit nola zeritzon —; ez dakit non galdu zen: — Honek ordea hain dirudi, hain dirudi ezin sinetsizko, non litekeena da horretan guztian ezer ez izatea.

NATHAN. Ai, Daia! Zergatik zatekeen hori hain ezin sinetsizkoa? Ez litzateke beharbada, —egiaz hala izaki— ezin sinetsizkoago zerbait ordainetan sinesteko? — Zergatik ez zukeen Saladinok, bere anaiak hain maite izaki, gaztetan anaia bat bereiziki maitatu ahal izango? — Ez da gertatzen bi aurpegik elkarren antza izatea? — Zirrara zahar bat galduagoa al da? — Antzekoak ez al du antzekoa eragiten? — Noizdanik? — Non dago hemen ezin sinetsizkoa? Hori, Daia zuhurra, ez hukeen noski hiretzat gehiago mirari bat; eta *hire* mirariak sinestea beh... merezi dute, esan nahi nuen.

DAIA. Irri egin dit berorrek.

NATHAN. Hik niri irri egiten didanalako. — Egiatan, horrela ere, Reha, hire salbazioa mirari bat dun, betiere posible bakarrik erregeen erabaki zorrotzenak, egitasmo gehiegizkoenak, bere jokoa — ez bada bere irria — gustura haririk ahulenez gidatzen dituenarentzat.

REHA. Aita! Aita, badaki berorrek huts egiten badut, ez dudala gustura huts egiten.

NATHAN. Alderantziz, gustura uzten dun hiri irakasten.— Ikusi! Bekoki bat, era honetako edo besteko okerdura duena; sudurra-
ren isla, era honetan baino gehiago bestean moldatua; bekainak, hezur
biziago edo kamutsago baten gainean era honetan edo bestean kara-
bilkatzen direnak; lerro bat, okerdura bat, angelu bat, zimurdura bat,
orin bat, huskeria bat europar basati baten aurpegian: — eta hik ihes
egiten dion suari... Asian! Hori ez litzateke miraria, herri mirarizalea?
Zergatik nekarazten duzue orduan aingeru bat?

DAIA. Zer inporta du — Nathan, hitz egin badezaket — azken
batean gizaki batek ez baina aingeru batek salbatua izatea pentsatze-
ak? Ez al da sentitzen horrela askoz hurbilago bere salbazioaren lehen
zergati ulertezinezkotik?

NATHAN. Harrokeria! Eta harrokeria baino ez! Burdinezko
lapikoak pozik nahi izaten du zilarrezko kurrikak erabiliz surtatik
atera dezaten, bera ere zilarrezko lapikoa dela pentsatu ahal izateko.—
Bah! Eta zer inporta duen galdetzen dun hik? Zer inporta duen?
Zertarako balio du? galde nezake nik ere kontrara. — Izan ere, hire
«Jainkoarengandik hurbilago sentitzeko» hori zentzugabekeria bat
edo biraoa dun.— Berez inporta du; bai horixe inporta duela. —
Zatozte! Entzun niri. — Ez da egia hi salbatu hintuen izakiari — ain-
geru bat izan edo gizaki bat —, zuek, eta bereiziki hik, pozik egingo
zenizkioketela zerbitzu handi asko? — Ez da egia? Orduan, aingeru
bati, zein zerbitzu, zein zerbitzu handi egin diezaiokezue zuek?
Eskerrak eman diezazkiozueke; suspirioak hari zuzendu, erregutu;
berarekiko zorabioz urtu zaitezket; bere festa egunean barau egin
dezakezue, limosna eman. — Guztia ezer ez. — Izan ere, niri irudi-
tzen zait beti, zuek eta zuen auzoek honetan berak baino askoz gehia-
go irabazten duzuela. Bera ez da gizenduko zuen barauen bidez; ez da

aberastuko zuen emanketen bidez; ez da bikainago egingo zuen zora-bioen bidez; ez da indartsuago izango zuen konfiantzaren bidez. Ez da egia? Gizon bat bakarrik!

DAIA. Bai, gizaki batek aukera gehiago emango liguke, noski, bere alde zerbait *egiteko*. Eta ondo daki Jainkoak, zein prest geunden gu horretarako! Baina berak ez zuen nahi, ez zuen behar ezertxo ere; aingeruak bakarrik dauden, aingeruak bakarrik egon daitezkeen bezain asebetterik zegoen bere baitan, bere buruarekin.

REHA. Azkenik, erabat desagertu zenean...

NATHAN. Desagertu? — Nolatan desagertu, gero? — Palmondoen azpian ez zen agertu gehiago? Nolatan hori? Edo zuek ez duzue egiaz gehiago bilatu?

DAIA. Egia esan, ez.

NATHAN. Ez, Daia? Ez? — Ikusi orduan zer inporta duen! — Burubero ankerrok! Baldin aingeru hori orain... orain gaixo balego!...

REHA. Gaixo!

DAIA. Gaixo! Ez al da hala izango!

REHA. Hau dardara hotza eraso didana! — Daia! — Uki nire bekokia, hain beroa egon ohi dena! Bat-batean izotz da.

NATHAN. Franko bat da, ez dago ohituta klima honetara; gaztea da; ohitu gabea bere egoeraren lan gogorrera, gosera, beilara.

REHA. Gaixo! Gaixo!

DAIA. Litekeena dela, esan nahi du bakarrik Nathanek.

NATHAN. Jota dago! Ez du ez adiskiderik, ez dirurik adiskideak bere kontura hartzeko.

REHA. Ah, aita nirea!

NATHAN. Jota, sorospiderik gabe, baliabiderik eta adorerik gabe, saminaren eta heriotzaren hatzamarretan hantxe!

REHA. Non? Non?

NATHAN. Berak ezagutzen, ikusi ere egin ez zuen baten alde — aski da, gizaki bat zen — sutara amildu zena...

DAIA. Nathan, erruki zakizkio!

NATHAN. Zer salbatzen zuen hurbilagotik ezagutu nahi ez zuena, gehiago ikusi ere ikusi nahi ez zuena, — eskerrak eman beharrik izan ez zezan...

DAIA. Erruki zakizkio, Nathan!

NATHAN. Berriro ikustea eskatu ere ez zuen egin, — ez bazen bigarrenez neska salbatzeko —, aski baita gizaki bat izatea...

DAIA. Amaitu, eta ikusi!

NATHAN. Horrek, horrek, hiltzeko dagoela ez dauka kontsolatzeko beste ezer — ez bada egintza honen kontzientzia!

DAIA. Amaitu! Hilko du berorrek neska!

NATHAN. Eta hik bera hil dun! — Horrela hil dezakenari. — Reha! Reha! Sendagaia dun, ez pozoina, luzatzen dinadana. Bizi da! — Itzuli hire onera! — ez dago gaixo ere; ez dago inolaz gaixo!

REHA. Ziur? — Ez dago hilda? Ez dago gaixo?

NATHAN. Ziur, ez dago hilda! — Jainkoak ongia eskertzen baitu, hemen egina, hemen bertan oraindik. — Hoa! — Ulertzen dun, ordea, askoz errazago dela *jaieratsu buruberotzea, ongi jokatzeta* baino? Zein gustura gizakirik nagiena buruberotzen den, soilik — batzuetan horren guztiz jakinaren gainean ez egon arren — soilik ongi jokatu beharrik ez izateko?

REHA. Ah, aita! Ez utzi, ez utzi berorren Reha berriro baka-rrik! Ez da egia bidaia bat egitera joana izan daitekeela?

NATHAN. Hoa. — Bai, horixe. — Ikusten dut nola han jakin-minezko begiez begiratzen dituen musulman batek nire gamelu zama-tuak. Ezagutzen duzue?

DAIA. Ah! Berorren derbitxea.

NATHAN. Nor?

DAIA. Berorren derbitxea; berorren xakeko laguna!

NATHAN. Al-Hafi? Al-Hafi da?

DAIA. Orain sultanaren ondasun-zaina da.

NATHAN. Nola? Al-Hafi? Ametsetan habil berriro? — Bera da? — Egiaz bera da eta! — Guregana dator. Barrura zuek, galdu bis-tatik! — Zer ez dut nik entzun behar!

HIRUGARREN ESZENA

Nathan eta derbitxea

DERBITXEA. Ireki bitza begiak ahal beste zabal!

NATHAN. Hi haiz? Ez haiz hi? — Hain harranditsu, derbitxea bat!...

DERBITXEA. Eta? Zergatik ez? Zer, ez al dago, bada, zer egirik derbitxea batekin, zer eginik ez?

NATHAN. Bai horixe, nahikoa! — Nirekiko neukan beti derbitxeak — benetako derbitxea zintzoak — ez zuela utziko berarekin ezer egin zezaten.

DERBITXEA. Profeta arren! Ni derbitxea zintzoa ez izatea, egia ere izan liteke. Egiaz, hala behar denean —

NATHAN. Behar! Derbitxeak! Derbitxeak behar? Inolako gizona ez dago behar izatera behartuta, eta derbitxea batek beharko luke? Zer beharko luke bada?

DERBITXEA. Zuzenki eskatzen zaiona eta berak ontzat ematen duena: hori behar du derbitxea batek.

NATHAN. Gure Jainkoarren! Egia diok horretan. — Hator besarka haitzadan, gizon. — Nire adiskidea haiz, ala?

DERBITXEA. Eta ez du galdetzen berorrek zer bilakatu naitzen?

NATHAN. Edozer bilakatu haizela ere!

DERBITXEA. Ezin al nintekeen nor bilakatu gobernuan, noren adiskidetasuna berorri desegoki litzaiokeena?

NATHAN. Hire bihotzak derbitxea irauten badik, horretan ausartuko nauk. Gobernuko nor, hire jantzia baino ez duk.

DERBITXEA. Ohoratua izan dadin eskatzen duena, ordea. — Zer iruditzen zaio? Asmatu! — Zer nintzateke ni berorren gortean?

NATHAN. Derbitxea; ez beste ezer. Halere, bidenabar, behar-bada — sukaldari.

DERBITXEA. Bai, orratio! Nire lanbidea berorren etxean ahazteko. — Sukaldari! Gainera ez zerbitzari? — Aitor, Saladinok hobeto ezagutzen nauela. — Ondasun-zain bilakatu naiz haren etxean.

NATHAN. Hi— Haren etxean?

DERBITXEA. Hara: ondasun txikiarena, — handiena bere aitak zuzentzen du oraindik —, bere etxeko ondasuna.

NATHAN. Handia duk haren etxea.

DERBITXEA. Berorrek uste baino handiagoa; eskale oro bere etxekoa baita.

NATHAN. Egiaz Saladino eskaleen hain duk etsai...

DERBITXEA. Non erro-errotik eskaleak desagerrazteko erabakia hartu baitu, — baita berak eskale bihurtu beharko balu ere.

NATHAN. Bejondeiala! — Hala pentsatzen diat nik ere.

DERBITXEA. Eta hala da izan, esanak gorabehera! — Bere ondarea, izan ere, egunoro ilunabarrean hustua baino hustuago gertatzen da. Itsasaldia, goizean hain garai sartzen bada ere, eguerdirako aspaldi joana da.

NATHAN. Betetzen bezala hesitzen orobat ezinezko diren kanalek hein batean irensten dutelako.

DERBITXEA. Asmatua!

NATHAN. Ezagutzen dut nik hori!

DERBITXEA. Ez du ezertarako balio baldin printzeak arranoak badira sarraskiaren erdian. Halere, baldin sarraskiak arranoen artean badira, askoz gutxiago balio du oraindik.

NATHAN. Oh, ez esan honrelakorik, derbitxe! Ez esan honrelakorik!

DERBITXEA. Esan beza nahi duena. — Gatozen harira: Zer emango dit berorrek nire lekua berorri uzten badiot?

NATHAN. Zer ematen dik hire lekuak?

DERBITXEA. Niri? Asko ez. Baina berorri, berorri biziki ugari eman diezaioke. Izan ere, ondarean itsasgora denean, — sarri gerta ohi den bezala, — berorrek giltzak ireki ditzake: mailegu bat egin, eta berorrek nahi duen adina jasoko du interesetan.

NATHAN. Baita interesen interesaren interesa ere?

DERBITXEA. Baita ere!

NATHAN. Nire kapitala interes soil bilaka dadin arte.

DERBITXEA. Ez du horrek kilikatzen? — Orduan gure adis-kidetasunaren eten-gutuna bertatik sina dezake! Izan ere, egiaz berorangan uste osoa neukan.

NATHAN. Egiaz? Nolatan? Nolatan baina?

DERBITXEA. Berorrek nire lanbidea ohorez betetzen lagunduko zidala uste nuen; berorren kutxa nik beti irekita eskura izaten. — Buruari eragiten dio?

NATHAN. Ea elkar ondo ulertzen diagun! Hemen bereizi egin behar da. Hi? Zergatik ez hi? Al-Hafi derbitxea ahal dudan guztirako ongi etorria zaidak. Baina Al-Hafi Saladinoren ondasun-zaina, hori... horri...

DERBITXEA. Ez nuen, bada, nik esaten? Beti dela berori zuhur bezain ona, jakintsu bezain zuhurra! — Pazientzia! Hafigan bereizten duena, aurki apartatua izango da. — Ikusi hor Saladinok eman zidan ohorezko jantzia. Bere kolorea galdu aurretik, derbitxea bati dagokion bezala piltzar bihurtu aurretik, iltze batetik zintzilik egongo da Jerusalemen eta ni Gangesen egongo naiz, arin eta oinutsik paseatzen hondar berotan nire ikasleekin.

NATHAN. Hire antzekoak denak!

DERBITXEA. Eta haiekin xakean jokatzten.

NATHAN. Hiri ontasunik handiena!

DERBITXEA. Pentsa, ordea, zerk atzipetu ninduen! — Horrela ez nuela gehiago eskean ibili beharrik izango? Gizon aberatsarena egin nezakeela eskaleen artean? Gauza nintzatekeela bat-batean eskalerik aberatsena aberats txiro bihurtzeko?

NATHAN. Hori, ordea, seguru ezetz.

DERBITXEA. Zerbait askoz zentzugabeagoa gabeagoa! Lehen aldiz sentitzen nintzen balakatua; Saladinoren uste biozbera baten bidez balakatua.

NATHAN. Zein uste huen hori?

DERBITXEA. «Eskale batek bakarrik omen daki nolakoa den eskaleen alimoa; eskale batek bakarrik ikasi omen du nola eman modu onez eskaleei. Hire aurretikoa, esan zuen, hotzegia iruditzen zitzaidan, zabarregia. Hain gaiztoa huen, ematen zianean. Hain sutsuki ikertzen zian eman aurretik hartzekoduna; ez aski izaki premia ezagutzeaz, premiaren zergatia ere jakin nahi zian, ematekoa zergati horren arabera zeken pisatzeko. Ez duk halakoa izango Al-Hafi! Saladino ez duk azalduko hain desatseginkiro atsegin Hafigan! Al Hafik ez zaukak, ur garbi eta geldia hartu eta hain zikina eta burbuilatsua ematen duten hodi itxien antzik. Al Hafik nik bezala pentsatzen dik; Al-Hafik nik bezala sentitzen dik». Hain maitagarria dirudi txori-ehiztariaren apauak, txonta sarean erori arte. — Inozoa ni! Inozoetan inozoena ni!

NATHAN. Lasai, derbitxea nirea, lasai!

DERBITXEA. Bai zera! Ez litzateke inozokeria gizakiak mila-ka zapaltzea, argaltzea, bipiltzea, hilduratzea, urkatzea; eta giza-lagun bezala azaldu nahi izatea bakoitzari dagokionez? Ez litzateke inozokeria, onaren eta gaiztoaren artean eta iharraren eta mortuaren artean hautatu gabe eguzkiarekin eta urarekin barreiatzen den Gorenaren eskuzabaltasuna barregarriro imitatzea, eta Gorenaren esku betea beti ez edukitzea? Zer? Ez litzateke inozokeria...

NATHAN. Aski da! Isildu!

DERBITXEA. Utz biezait *nire* inozokeria gutxienez aipatzen! Zer? Ez litzateke inozokeria gisako inozokeriatan halere alderdi ona bilatzen saiatzea, alderdi on hori dela-eta, inozokeria horretan parte hartzeko? Eh? Hori ez?

NATHAN. Al-Hafi, itzul hadi, mesedez, azkar hire mortura. Beldur nauk ez ote zaian ahantziko gizon izaten gizakien artean.

DERBITXEA. Hori da. Beldur bera dut nik ere. Ongi bizi!

NATHAN. Horrenbesteko presa? Itxaron, Al-Hafi. Ihes egingo al dik, bada, mortuak? — Itxaron! Entzungo al dit! — Eh, Al-Hafi, hemen! — Joana da jada; eta nik hain gustura galdetuko niokeen gure tenplarioaren kontura. Seguru ezagutzen duela.

LAUGARREN ESZENA

Daia presaka sartzen da. Nathan

DAIA. Oh Nathan! Nathan!

NATHAN. Esan. Zer da?

DAIA. Berriro agertu da! Berriro agertu da!

NATHAN. Nor, Daia? Nor?

DERBITXEA. Bera! Bera!

NATHAN. Bera? Bera? — Noiz ez dun agertzen *hori*! — Bai, noski, hire bera bakarrik deitzen dun bera. — Ez zukeen hori egin behar! Ezta aingerua balitz ere!

DAIA. Palmondoen azpian ari da paseatzen gora eta behera; eta tarteka datilak kraskatzen ditu.

NATHAN. Eta jaten ditin? — Eta tenplarioa gisan?

DAIA. Zergatik atsekabetzen nau berorrek? — Berorren begi jakinguratsuak sumatzen du dagoeneko palmondo sarrien ostean; eta so eta so segitzen dio berari. Alabak eskatzen dio — otoika eskatzen dio — berandu gabe harengana joan dadin. Oh, joan azkar! Alabak keinu egingo dio leihotik ea bera goraka doan edo beheraka jotzen duen. Joan azkar!

NATHAN. Gamelutik jaitsi naizen bezala? — Itxurazkoa al dun hori? Hoa, hoa azkar harengana; eta adieraz iezaion nire itzulera. Kontu izan, gizon zintzo horrek ez din nire etxera etorri nahi izan bakarrik ni kanpoan nengoela; eta ez huken gogo txarrez etorriko aitak hots egiten bazion. Hoa, esaion nik eskatzen diodala, bihotzez eskatzen diodala...

DAIA. Dena alferrik! Ez da etorriko berorrengana. — Labur esanda: ez da etorriko inolako judurengana.

NATHAN. Hoa edozein modutan, hoa hura geldiaraztera; hire begiez hari segitzera, besterik ez bada. — Hoa, segituan naun ni ere hire ostean.

(Nathan presaka sartzen da, eta Daia joaten)

BOSGARREN ESZENA

Eszenategia: Plaza bat palmondoz jantzia, haien azpian tenplarioa gora eta behera dabilelarik.

Fraide bat jarraikitzen zaio urrutitxoan, alde batetik, beti ere hitz egin nahiko balio bezala.

TENPLARIOA. Hau segika datorkit aspaldi ez dela! — Hara, nola begiratzen dizkidan eskuak zeharka! Anaia ona,... aita ere dei diezaioket, ez da?

FRAIDE. Anaia bakarrik — anaia legoa bakarrik; berorren esanetara.

TENPLARIOA. Bai, anaia ona, nik zerbait banu sikira? Hala Jainkoa! Hala Jainkoa! Ez daukat ezer —

FRAIDE. Eta hala eta guztiz ere, eskerrik beroenak! Jainkoak eman diezaiola mila bider berorrek pozik emango lukeena. Izan ere, borondatea da, eta ez oparia, emalea egiten duena. — Gainera, ez naute bidali jaunarengana limosnagatik.

TENPLARIOA. Baina, bidali egin dute.

FRAIDE. Bai, komentutik.

TENPLARIOA. Puntuan erromes-bazkari txiki bat aurkitu espero nuen komentutik?

FRAIDE. Mahaiak hartuta zeuden dagoeneko: baina betor jauna berriro nirekin.

TENPLARIOA. Zertarako? Aspaldi da okela jan ez dudala: baina, zer inporta dio? Datilak helduta daude.

FRAIDE. Kontuz ibil bedi jauna fruitu horrekin. Ez da egoki gehiegi jatea; barea idortzen du; odola malenkoniasten du.

TENPLARIOA. Eta ni malenkoniatsu gustura sentituko banintz? — Baina, ez zuten berori bidaliko niri hori gaztigatzera?

FRAIDE. Oh, ez! — Berorren berri jakin behar dut nik: berori ikertu.

TENPLARIOA. Eta hori niri esaten dit?

FRAIDE. Zergatik ez?

TENPLARIOA. (Hau fraide pikaroa!). Berori bezalako gehiago badauka komentuak?

FRAIDE. Ez dakit. Obeditu egin behar dut nik, jaun maitea.

TENPLARIOA. (Xalokeriak beti arrazoi izan behar duela gero!) — Zilegi izango du berorrek niri esatea, nor den ni zehatzago pozik ezagutu nahiko nindukeena? — Ez dela berori, zin egingo nuke nik.

FRAIDE. Komeni al zait niri? Onik ekarriko al dit?

TENPLARIOA. Nori komeni eta nori onik ekar diezaiokeen, hainbesteko jakin-mina izateko? Nori, ordea?

FRAIDE. Patriarkari; hala uste behar dut nik. — Berak bidali bait nau berorregana.

TENPLARIOA. Patriarkak? Ez al du, bada, hori baino hobeto ezagutzen gurutze gorria mantu zurian?

FRAIDE. Ondo ezagutzen dut nik hori!

TENPLARIOA. Orduan, anaia? Orduan? — Tenplarioa bat naiz ni; eta preso bat. — Gaineratzen dut: preso Tebnin-en, meniaren azkeneko orduaz pozik asko eskuratu nahiko genukeen gotorlekuan, handik segituan Sidonera jotzeko; — gaineratzen dut: beste hogei lagunekin batera bahitua eta Saladinok barkatu zion bakarra: beraz badaki patriarkak jakin behar duena; behar duena baino gehiago.

FRAIDE. Baina nekez dagoeneko dakiena baino gehiago. — Jakin nahiko luke zergatik barkatu dion Saladinok; berorri bakarrik.

TENPLARIOA. Ba al dakit, bada, neuk ere? — Biluzik jada lepoa, belauniko nire mantuan, kolpearen zain: Saladinok bere begietan zorrotzago hartzen nau, hurbilago jauzi egin eta keinu egiten du. Altxa egiten naute; lokarriak askatu; eskerrak eman nahi dizkiot; bere begiak malkotan ikusten ditut: mutu dago bera, mutu nago ni; bera joan egiten da, ni gelditu egiten naiz. — Nola konpontzen den hau guztia, asma dezala patriarkak berak.

FRAIDE. Hortik ateratzen du berak Jainkoak gauza handietarako, gauza handietarako gorde bide duela berori.

TENPLARIOA. Bai, handietarako! Neska judu bat surtatik libratzeko; Sinaira erromes non-ze-berriak gidatzeko; eta gisako beste gauza batzuetarako.

FRAIDE. Etorriko da etorri beharrekoa! — Baina bitartean ez zaio gaizki joan. — Beharbada patriarkak egiteko askoz garrantzitsuagoak eduki litzake berorrenzat.

TENPLARIOA. Bai? Hala uste du, anaia? — Utzi dio jada zer-bait antzematen?

FRAIDE. Ah, bai horixe! — Hasteko jauna ikertu behar dut, ea bera den gizon egokia.

TENPLARIOA. Beno, bada; ikertu orduan! (Ikusi nahi dut nik, nola ikertzen duen honek!). — Eta?

FRAIDE. Modurik laburrena izango da inolaz, nik jaunari azal diezaiodala goitik behera zein den patriarkaren gogoia.

TENPLARIOA. Ongi!

FRAIDE. Jaunaren bitartez berak pozik bidaliko zukeen gutuntxo bat.

TENPLARIOA. Nire bitartez? Ni ez naiz mandatari bat. — Hau, hau litzateke neska judu bat sutatik libratzea baino egiteko askoz ospetsuago hori?

FRAIDE. Hala izan behar du inolaz! Izan ere, —dio patriarkak—, gutuntxo hori kristautasun osorako interes handienekoa da. Gutuntxo hori eramango duena —dio patriarkak—, bere garaian zeruan Jainkoak koroa guztiz bereizi batez sarituko du. Eta koroa horren duin —dio patriarkak— ez omen da inor nire jauna beste.

TENPLARIOA. Ni beste?

FRAIDE. Izan ere, koroa hori irabazteko —dio patriarkak— nekez aurki omen daiteke nire jauna baino prestuagorik.

TENPLARIOA. Ni baino?

FRAIDE. Libre omen da hemen; alde guztietan ibil daiteke; badaki nola eraso eta nola gerizatu hiri bat; baliozta dezake ondoen —dio patriarkak— Saladinok barruan egin berri duen bigarren harresia, hura deskriba diezaieke erarik zehatzenean Jainkoaren gudariei —dio patriarkak—.

TENPLARIOA. Anaia zintzo, baldin nik gutuntxoaren edukia ere hobeto jakin ahal baneza.

FRAIDE. Bai, hori —hori ez dut ezagutzen guztiz ondo. Baina gutuntzua Errege Feliperi zuzendua dago. — Patriarkak... Sarri harrituta geratu naiz, nolatan santu bat, bestela erabat zeruan bizi dena, orobat hain ondo informatua egon daitekeen mundu honetako gauzez. Nekagarri egin behar zaio.

TENPLARIOA. Orduan? Patriarkak? —

FRAIDE. Oso zehatz daki, erabat seguru, nola eta non, zein indartsu, zein aldetatik Saladinok, berriro erabat hasiko balitz, bere eraso irekiko duen.

TENPLARIOA. Badaki hori berak?

FRAIDE. Bai, eta Errege Feliperi pozik jakinarazi nahiko lioke: era horretan hark gutxi gorabehera neurtu ahal dezan ea arriskua hain izugarria den, Saladinorekin, berorren ordenak hain bipilki hautsi duen menia, kosta ahala kosta, berriro hitzartu dadin.

TENPLARIOA. Hori patriarka, hori! — Bai, bai! Gizon maitagarri eta saiatsuak ez nau nahi mandatari arrunt izateko; nahi nau... espioitarako. — Esan berorren patriarkari, anaia zintzoa, ni ikertu ahal izan nauzun neurrian, ez litzatekeela hori niretzako gauza. — Oraindik presotzat hartu behar dudala nire burua; eta tenplarioen lanbide bakarra ezpataz jotzea dela, ez espioitzan jardutea.

FRAIDE. Pentsatzen nuen, bai, nik! — Ez nioke jaunari hau txarrean hartu nahi. — Egiaz, orain dator onena. — Patriarkak gainera atzeman du nola deitzen den eta Libanon non dagoen Saladinoren aita zuhurak ejerzitoari ordaindu eta gerrako prestakuntzak kitatzeko dauzkan dirutza izugarriak gordetzen dituen gotorlekua. Saladino aldian-aldian joan ohi da, bide apartatuetan barna, gotorleku horretara, apenas babesik gabe. — Konturatzen da berori?

TENPLARIOA. Ezta batere!

FRAIDE. Zer legoke errazagorik Saladino bahitzea baino? Bertan bera akabatzea? — Dardarka dago berori? — Oh, dagoeneko Jainkoaren beldur diren maronita pare batek bere burua eskaini du kolpea jotzeko, baldin gizon bipil batek gidatuko balitu.

TENPLARIOA. Eta patriarkak ni izendatu nau, noski, gizon bipil hori izateko?

FRAIDE. Berak uste du errege Felipek esku bat ederki bota dezakeela hona Ptolomeidatik.

TENPLARIOA. Niri? Niri, anaia? Niri? Ez du entzun bero-rrek? Ez du entzun nolako lotura daukadan nik Saladinorekin?

FRAIDE. Entzun dut, noski.

TENPLARIOA. Eta orduan?

FRAIDE. Bai —hala uste du patriarkak— oso polita litzateke: baina Jainkoak eta ordenak...

TENPLARIOA. Horiek ez dute ezer aldatzen! — Ez didate agintzen inolako zitalkeriarik!

FRAIDE. Ez horixe! — Halere —hala uste du patriarkak—, gizakien aurrean zitalkeria dena ez da zitalkeria Jainkoaren aurrean.

TENPLARIOA. Nire bizia zor diot nik Saladinori: eta berea kendu behar diot?

FRAIDE. Orratio! — Halere —hala uste du patriarkak— Saladino beti da kristautasunaren etsai, berorren adiskide izateko inolako eskubiderik aipatu ezin duena.

TENPLARIOA. Adiskide? Harenganako ez dut nik gizatxar bezala geratu nahi. Gizatxar esker txarreko bihurtu?

FRAIDE. Bai horixe! Egiaz —hala uste du patriarkak— eskerretik libre geratzen gara Jainkoaren eta gizakien aurrean, baldin mesedea ez bada gertatu guregatik. Eta hortik zehar esaten omen dute —hala uste du patriarkak— berorri Saladinok barkatu diola berorren antzean, berorren izakeran bere anaiaren zerbait azaldu bide zaiolako...

TENPLARIOA. Hori ere badaki patriarkak, eta? — Ah! Hori izan zen seguru! Ah, Saladino! — Nola? Naturak eratu bide zuen nire azpegi bat soilik hire anaiaren gisan: eta horri ez letorkioke ezer nire ariman? Horri letorkiokeena nik ezabatu al dezaket patriarka bati gustu emateko? — Natura, hik ez duk horrela gezurrik esaten! Horrela ez da kontraesaten Jainkoa bere eginetan! — Bihoa, anaia! — Ez haserretu horrela nire behazuna! Bihoa! Bihoa!

FRAIDE. Banoa; eta etorri nintzena naino gusturago noa. Barka biezait jauna. Gu, komentukook, gure goikoei obeditzera behartuak gaude.

SEIGARREN ESZENA

Tenplarioa eta puska batean tenplarioa urrundik
begiztatu eta orain hurbiltzen zaion Daia.

DAIA. Fraideak, uste dut, ez du berori umorerik onenean utzi.
— Nik, halere, proba egin behar dut derrigor.

TENPLARIOA. Hara, ezin hobeto! — Gezurra esaten al du
esaerak: fraidea eta emakumea, eta emakumea eta fraidea direla dea-
bruaren bi hatzamarrak? Gaur batetik bestera botatzen nau.

DAIA. Zer ikusten dut nik? — Zaldun noblea, berori? —
Jainkoari eskerrak! — Esker mila Jainkoari! — Non ezkutatu da bero-
ri denbora honetan guztian? — Berori ez da, noski, gaixorik egon?

TENPLARIOA. Ez.

DAIA. Osasuntsu, orduan?

TENPLARIOA. Bai.

DAIA. Oso kezkaturik geunden gu zuregatik?

TENPLARIOA. Bai, eh?

DAIA. Kanpora joana zen orduan berori?

TENPLARIOA. Asmatua!

DAIA. Eta gaur itzuli da?

TENPLARIOA. Atzo.

DAIA. Reharen aita gaur iritsi da. Eta orduan Rehak espero
dezake?

TENPLARIOA. Zer?

DAIA. Berorrek hainbestetan eska arazi duena. Bere aitak
berehala etor dadin eskatzen dio bizi. Babiloniatik dator; hogei
gamelu guztiz zamatua, eta Indiak, Pertiak eta Siriak eta are Txinak
ere onkailuetan, harrietan eta ehunetan baliozkorik eskain dezaket
guztia ekarri.

TENPLARIOA. Ez dut erosten nik.

DAIA. Bere herriak printze bat bezala ohoratzen du. Halere,
hura Nathan jakintsua deitzen dutela eta ez hobeto Nathan aberatsa,
horrek harritu nau.

TENPLARIOA. Bere herriarentzat aberats eta jakintsu, gauza bera izango dira beharbada.

DAIA. Ezer baino gehiago ona deitu beharko zuketen. Izan ere, berorrek ezin pentsa ere dezake zein ona den. Jakin zuenean zenbat zor dion Rehak berorri: zer ez zukeen egingo une horretan berorren-tzat, zer ez emango!

TENPLARIOA. Ai!

DAIA. Egin aproba, eta etorri eta ikusi!

TENPLARIOA. Zer ordea? Zein azkar igarotzen den unea?

DAIA. Onartuko al nukeen nik, bera hain ona izan ez balitz, hain luzaz bere etxean egotea? Berorrek uste du agian nik ez dudala sentitzen kristau izatearen balioa? Niri ez zidaten sehaskan inondik ere abestu nik nire senarrari Palestinara segitu behar niola, neska judu bat hezitzeko baino ez bestetarako? Nire senar maitea zerbitzari noble bat zen Federiko kaiserraren gudarostean.

TENPLARIOA. Jaiotzez suitzar bat, haren ohorea eta grazia izan zelarik bere maiestate kaiserrarekin batera ibai batean itotzea. — Emakume! Zenbat bider kontatu dit berorrek hori? Ez al du sekula utzi behar nire segika ibiltzeari?

DAIA. Segika ibili! Jainko maitea!

TENPLARIOA. Bai, bai, segika ibili. Berori berriro ez ikustea nahi dut nik orain. Ez entzutea! Ez dut nahi berorrek gogora ekar die-zadan ezer pentsatu gabe egindako egintza bat; hura, horretan pentsa-tzen badut, nire buruaren asmakizun bihurtzen zait. Egiaz, ez nuke horretaz damutu nahi. Baina, ikusi; gisako aukera bat berriro gertatu-ko balitz: berorrek izango du errua, baldin nik hain azkar esku hartzen ez badut; aldeztu aurretik informatzen banaiz, — eta erretzen uzten badut erretzen dagoena.

DAIA. Jainkoak goarda gaitzala!

TENPLARIOA. Gaurdanik egin biezait mesede, eta ez biezait ezagutu gehiago. Arren eskatzen diot. Kendu aita ere nire bizkarretik. Judua judua da. Ni suabiar arrunt bat naiz. Aspaldi joana da nire ari-matik neskaren irudia; inoiz han izan bada.

DAIA. Berorrena, ordea, ez da joan harenetik.

TENPLARIOA. Zer egiten du, ordea, han? Zer egiten du?

DAIA. Nork daki! Gizakiak ez dira beti diruditena.

TENPLARIOA. Gutxitan, ordea, hobeak (*Badoa*)

DAIA. Itxaron! Zergatik presa hori?

TENPLARIOA. Emakume, ez biezazkit gorrotarazi palmondoak, haien azpian ni hain gustura paseatzen naizenean.

DAIA. Joan hadi, orduan, hartz alemaniar hori! Joan hadi! — Eta halere, ez dut galdu behar piztiaren arrastoa.

(*Urrundik hari segika doa*)

BIGARREN EKITALDIA

LEHEN ESZENA

Eszenategia: Sultanaren palazioa
Saladino eta Sittah xakean jokatzen ari

SITTAH. Non hago, Saladino? Nola ari haiz jokatzen gaur?

SALADINO. Ondo ez, ala? Baietz uste ninan, ba, nik.

SITTAH. Niretzat bai; baina ezta ere. Zuzendu jokaldi hori.

SALADINO. Zergatik?

SITTAH. Zaldia babesik gabe geratzen duk.

SALADINO. Egia dun. Orduan, horrela!

SITTAH. Orduan urkulura jotzen diat nik.

SALADINO. Berririo egia. — Xake orduan!

SITTAH. Zertarako balio dik horrek? Aurrera egiten diat: eta hi lehen hengoen bezala hago.

SALADINO. Ongi ikusten dinat estualdi honetatik ezin atera naitekeela ordaindu gabe. Jo! Hartu zaldia.

SITTAH. Ez diat nahi zaldia. Albotik pasatuko nauk.

SALADINO. Ez didaan ezer oparitzen. Leku horri inportantzia gehiago ematen dion zaldiri baino.

SITTAH. Litekeena da.

SALADINO. Atera kontuak, baina ez ugazaba gabe. Ikusi, izan ere! Zer apostu, ez huen hau espero.

SITTAH. Egiaz, ez. Nola uste ere uste nezakeen nik, hi hire erreginarekin hain nekatuta hengokeenik?

SALADINO. Ni nire erreginarekin?

SITTAH. Ikusten diat, bai: gaur nire mila dinareak irabazi behar ditiat, ez naserin bat gehiago.

SALADINO. Nolatan hori?

SITTAH. Galdetu ere... — Hik ahalegin guztiz, indar guztiz galdu nahi dualako. — Baina horretan ez zaizkidak kontuak ondo ateratzen. Izan ere, gisako joko bat dibertigarriena izateaz gainera, ez nuen nik hirekin gehien irabazten, galtzen nuenean? Hik, jokoak galdu nuelako kontsolatu nahirik, ez didak diru-kopurua biderturik oparitu?

SALADINO. Ah, ikusi! Orduan *hik* ez hunan, bada, galtzean galduko ahalegin guztiz, arreatxo?

SITTAH. Gerta zitekeen gutxienez, hire eskuzabaltasunaren errua izatea, nire nebatxo, baldin nik ikasi ez badiat hobeto jokatzeko.

SALADINO. Jokotik urruntzen ari gaitun. Bukatu!

SITTAH. Horrela gelditzen da? Orduan, xake! Eta xake bikoitza!

SALADINO. Egia esateko, nire erregina orobat botatzen didan xake bikoitza ez ninan ikusi.

SITTAH. Ba al zegoen, bada, eragozteko modurik? Ikus dezagun.

SALADINO. Ez, ez; hartu nire erregina. Ez dinat sekula izan zori handirik harri horrekin.

SITTAH. Harriarekin soilik?

SALADINO. Kendu hortik! Ez zidan ezer egiten horrek. Izan ere, horrela berriro dena babesturik geratzen dun.

SITTAH. Erreginekin zein adeitsuki portatu behar den: nire nebak ondo asko irakatsi zidan. (*Bertan uzten du*)

SALADINO. Hartu edo ez hartu! Ez zaukanat besterik

SITTAH. Zertarako hartu? Xake! — Xake!

SALADINO. Segi aurrera.

SITTAH. Xake! — eta xake! — eta xake!

SALADINO. Eta mate.

SITTAH. Ez guztiz; zaldia tartean jarri dezakek; edo egin nahi duana. Berdin ziok!

SALADINO. Oso ongi! — Hik irabazi dun: eta Al-Hafik ordainduko din. — Hots egin diezaiotela! Segituan! Ez huen arrazoi faltarik, Sittah; ez nengonan guztiz jokoan sartuta; distraiturik nengonan. Eta gainera: nork eman zizkigun eten gabe harri leunak? Gogora ezer ekartzen ez dutenak, ezer adierazten ez dutenak. Imanarekin jokatu al dinat apika? — Halere, zer? Galtzaileak aitzakia nahi. Ez ditun izan moldatu gabeko harriak galtzera eraman nautenak: hire artea, hire begirada bareagoak eta azkarragoak...

SITTAH. Horrela ere galeraren arantza kamustu nahi duk bakarrik. Aski da, hi distraiturik hengoen; eta ni baino gehiago.

SALADINO. Hi baino? Zerk distrai hintzakeen *hi*?

SITTAH. Hire distraizioak ez behintzat! — Oh Saladino, noiz jokatuko dugu berriro behar den arretaz?

SALADINO. Horrela hainbat irrika handiagoz jokutzen dugu! — Ah! Berriro hasten delako, esan nahi dun? — Litekeena da! — Baina aurrera! — Ez naiz izan ni ateratzen lehena; pozik luzatuko nukeen nik menia: nire Sittahri pozik, pozik inguratuko niokeen gizon on bat, eta gizon horrek Rikardoren anaia izan behar du: Rikardoren anaia da, egiaz.

SITTAH. Hire Rikardo goraipatzen baino ez dakik!

SALADINO. Baldin ondoren gure anaia Meleki Rikardoren arreba izendatuko baliote: Ah! Zer nolako etxea guztiok elkarrekin! Ah, munduko lehen etxeen, onenen artean onena! — Ikusten dun, nire burua goraipatzen ere ez naizela ustel geratzen. Nire adiskideen duin naizela pentsatzen dinat. Horrek bai emango lituzkeela gizonak, horrek!

SITTAH. Ez nion barre egin bertatik amets eder horri? Hik ez dituk ezagutzen kristauak, ez dituk ezagutu ere nahi. Beren harrokeria da: kristauak izatea: ez gizakiak. Izan ere, oraindik beren fundatzaile-arengandik datorrelarik, basa-sinestea gizatasunarekin usain-gozotzen duena bera, hori maite ditek, ez gizatiar delako, Kristok irakasten duelako baizik: Kristok egin duelako. Zorionekoak beraiek, bera hain

gizon ona zelako! — Zorionekoak beraiek, haren bertutea uste osoz har dezaketelako! — Zein bertute, ordea? — Bere bertutea ez: bere izena da alde guztietara hedatu behar dena; gizaki on guztien izenak lotsarazi, irentsi behar ditu. Izena da, izena bakarrik, inporta zaiena.

SALADINO. Esan nahi dun: zergatik eskatu hiri eta Meleki kristau izenda zaitezten, ezkondu bezala kristau batzuek maita ditzazuen baino lehen?

SITTAH. Hori da! Sortzaileak arra eta emea hornitzeko ipini duen maitasuna kristauengandik bakarrik, kristau direnez, espero behar balitz bezala!

SALADINO. Kristauek huskeria gehiegi sinesten ditziten, *hori* ere ez sinesteko! — Eta orobat uste dinat oker hagola hi ere. Tenplarioek, ez kristauek, dituen errua: ez ditun errudun kristau direnez, tenplarioa direnez baizik. Horiengatik ustel aterako dun auzia. Ez dituen inondik ere eskutatik utzi nahi Acca, gure anaia Meleki Rikardoren arreba ezkon-saritzat ekarriko liokeena. Zaldunaren abantailak arriskurik izan ez dezan, monjetara jokatzeko dituen, monje ergetetara. Eta beharbada bidenabar kolpe on bat lor daitekeela-eta, ezin itxaron ahal izan zitenan menia amaitu arte. Pozgarria! Segi horrela aurrera! Zuek, jaunok, segi horrela aurrera! Niri ongi datorkit! Gainerako guztia egon liteke behar duen bezala.

SITTAH. Eta? Zerk eraman hinduen horretara? Zerk atera hintzakeen bestela hire onetik?

SALADINO. Ba, betidanik nire onetik atera nauenak. — Libanon izan naun, gure aitarekin. Erabat kezkatu zagon oraindik...

SITTAH. Ai ene!

SALADINO. Ezin din gehiago; alde guztietan estutzen dituen; batean hemen falta dun, hurrengoan han —

SITTAH. Zerk estutzen du? Zer falta du?

SALADINO. Zer izango da ba, izendatzea ere apenas ontzat ematen ez dudana? Daukadanean, hain alferrikako iruditzen zaidana, eta ez daukadanean hain beharrezko. — Non galdu da Al-Hafi? Ez da inor joan haren bila? — Diru zikin, madarikatua! — Zorionez etorri haiz, Hafi.

BIGARREN ESZENA

Al-Hafi derbitxea. Saladino. Sittah.

AL-HAFI. Egiptoko diruak iritsi bide dira. Asko izango al dira!

SALADINO. Baduk albisterik?

AL-HAFI. Nik? Nik ez. Nik uste nuen hemen jaso behar nituela.

SALADINO. Ordaindu mila dinar Sittahri! (*pentsakor, batera eta bestera dabilela*).

AL-HAFI. Ordaindu! Jaso ordeztu! Politu kontua! Eta hori deusez baino gutxiago den zerbaitengatik. — Sittahri? — Berririo Sittahri? — Eta galdu egin du? — Berririo xakean galdu du? Jokoa oraindik hor dago!

SITTAH. Poztu egingo haiz, bada, nire zoriagatik?

AL-HAFI. (*Jokoa ikuskatuz*). Zergatik poztu? — Halere — berorrek ondo asko daki.

SITTAH. (*Berari keinuka*). Pst! Hafi! Pst!

AL-HAFI. (*Oraindik jokoa ikertuz*). Poztu bedi lehenbizi berori!

SITTAH. Al-Hafi, pst!

AL-HAFI. (*Sittahri*). Zuriak ziren berorrenak? Xake ematen zuen?

SITTAH. Eskerrak ez duena ezer entzun!

AL-HAFI. Orain beraren txanda da?

SITTAH. (*Harengana hurbilagotuz*). Esan orratio nire dirua jasoko dudala.

AL-HAFI. (*Oraindik jokoari arretaz begiratzuz*). Hara, bada: berorrek jasoko du beti jaso ohi duen bezalaxe.

SITTAH. Nola? Erotuta hago?

AL-HAFI. Jokoa amaitu gabe dago oraindik. Berorrek ez du galdu, Saladino.

SALADINO. (*Jaramonik egin gabe*). Bai, bai! Ordaindu! Ordaindu!

AL-HAFI. Ordaindu! Ordaindu! Hor dago oraindik berorren erregina.

SALADINO. (*Lehen bezala*). Ez dik balio; ez zagok gehiago jokoan.

SITTAH. Beno, baina esan dirua jasotzera bidal dezakedala.

AL-HAFI. (*Beti oraindik jokoan murgilduta*). Garbi dago, beti bezala. — Hala eta guztiz ere, erreginak balio ez badu ere: berori ez dago oraindik mate.

SITTAH. (*Hurbildu eta jokoa iraultzen du*). Ni nagok mate; nik egon nahi diat mate.

AL-HAFI. Bai, orduan! Jokoa bezala irabazia! Irabazi bezala, ordaintzen da.

SALADINO. (*Sittahri*). Zer esaten din horrek? Zer?

SITTAH. (*Aldian-aldian Hafiri keinu eginez*). Ezagutzen duk hik. Oso gustura esaten dik ezetz; gustura uzten dik eska diezaieten; eta inbidia pixka bat ere bazaukak, noski.

SALADINO. Ez din hire inbidia izango, ba? Ez nire arrebarena, ala? Zer entzuten diat, Hafi? Inbidia? Hik?

AL-HAFI. Litekeena da! Litekeena da! Nahiago nuke bere burua banu neuk; nahiago nuke bera bezain ona banintz.

SITTAH. Edozein modutan, berak beti zuzen ordaindu dik. Eta hala ordainduko dik gaur ere. Utzi bakean! Hoa, Al-Hafi, hoa! Aginduko diat dirua ekar diezadaten.

AL-HAFI. Ez; nik ez dut gehiago parte hartu nahi komeria honetan. Behingoz jakin egin behar du.

SALADINO. Nork? Eta zer?

SITTAH. Al-Hafi! Hori al duk hire promesa? Horrela betetzen didak hitza?

AL-HAFI. Nola pentsatu behar nuen hain urruti joango zenik.

SALADINO. Eta? Ez dut ezer jakin behar nik?

SITTAH. Mesedez eskatzen diat: izan hadi zuhurra.

SALADINO. Harrigarria duk, gero, hau! Zer izan zitekeen Sittahk hain handikiro, hain bero arrotz bati, derbitxea bati, bere neba-

ri baino nahiago eskatu nahi ziokeena? Al-Hafi, orain nik agintzen diat. — Mintza, derbitxe!

SITTAH. Ez iezaiok eman txikikeria bati merezi duena baino arreta gehiago. Badakik nik zenbait aldiz diru-kopuru bera jaso dudala xakean hire eskutik. Eta une honetan diru hori behar ez dudanez: orain Hafiren kutxan dirua ez baita hain zuzen ere oso ugaria: kontuak geldi geratu dira. Baina ez kezkatu! Nik ez zizkioat ez hiri, nire nebari, ez Hafiri, ezta kutxari ere erregalatuko.

AL-HAFI. Bai, hori bakarrik balitz! Hori!

SITTAH. Eta gisako gehiago. — Hik izendatu didaan errenta ere kutxan gelditu duk; duela ilargi gutxidunik gelditu duk.

AL-HAFI. Ez da oraindik dena.

SALADINO. Oraindik ez? — Hitz egingo duk?

AL-HAFI. Egiptoko diruaren zain gaudenetik, berak...

SITTAH. (*Saladinori*). Zertarako entzun honi?

AL-HAFI. Ez bakarrik ez du ezer jaso...

SALADINO. Jatorra neska! — Bidenabar, dirua jarri ere egi-ten dik. Ez da?

AL-HAFI. Gorte osoa mantendu du; berorren arrandi guztiari berak bakar-bakarrik eutsi dio.

SALADINO. Ah! Hauxe duk nire arreba! (*Hura besarkatuz*).

SITTAH. Hori egin ahal izateko, nork egin ninduen hain aberatsa, hik, nire nebak, ez bada?

AL-HAFI. Oraindik eskekoa bezain pobre egingo du, bera den bezalaxe.

SALADINO. Ni pobre? Neba pobre? Noiz eduki diat nik gehiago, noiz gutxiago? — Jantzi bat, ezpata bat, zaldi bat, — eta Jainko bat! Zer gehiago behar diat nik? Noiz falta dakiket hori? Eta halere, Al-Hafi, bazaukaat hirekin larderiatzeko.

SITTAH. Ez larderiatu, neba nirea. Gure aitari ere kezkak horrela arindu ahal baniezazkio!

SALADINO. Ah! Ah! Orain bat-batean ondu dun nire poza! — Niri, nireztat ez zaidan ezer falta, eta ezin falta ere dakiket. Baina berari, berari falta zaion; eta berarengan, guri guztiori. — Esan, zer

egin behar diat? — Egiptotik beharbada luzaz ez da ezer etorriko. Jainkoak daki zergatik. Han, edozein modutan, dena bare zagok. — Kimatu, kobratu, aurreztu: pozik egingo nuke; prest nago ni, niri bakarrik badagokit; niri baino ez, beste inork horregatik sufritu gabe. — Baina zer konpon dezake horrek? Zaldi bat, jantzi bat, ezpata bat, hori eduki behar dut nik. Eta Jainkoari ere ezin murriz dakioke ezer. Berak dagoeneko hain gutxirekin du aski; nire bihotzarekin. — Oso kontuan neuzkaan, Hafi, hire kutxako soberakinak.

AL-HAFI. Soberakinak? Esan beza berorrek, ea ez ote ninduen zikaiaz zulatuko, gutxienez itoko, baldin berorrek soberakinekin harrapatu baninduen. Bai, iruzurretan! Horretan ausartu behar nuen.

SALADINO. Orduan, zer egin behar diagu, bada? — Sittahrengandik baino ezin huen hik mailegatu?

SITTAH. Eskubide hori ken ziezadaten utzi behar al nian, bada, neba? Horrek niri? Oraindik hori eusten zioat nik. Oraindik ez nagok zuku guztia erabat aterata.

SALADINO. Erabat aterata ez! Hori falta zitzaigun! Hoa segituan, egin prestakuntzak, Hafi! Mailegatu ahal duanarengandik! Eta ahal duan bezala! Hoa, mailegatu, agindu. — Baina, Hafi, ez mailegatu nik aberastu ditudanengandik. Hoa zuhurrengana; horiek izango dituk gustura mailegatuko didatenak. Horiek jakin bazakitek nola ugaltzen den beren dirua nire eskuetan.

AL-HAFI. Ez dut ezagutzen horietako bat bakarra bera ere.

SITTAH. Oraintxe datorkit burura, entzun berri dudala, Hafi, hire adiskidea itzuli dela.

AL-HAFI. (*Harrituta*). Adiskidea? Adiskidea nirea? Nor litzateke hori?

SITTAH. Hire judu hain goraipatu hori.

AL-HAFI. Judu goraipatua? Nik goraipatua?

SITTAH. Jainkoak — hik herorrek behinola erabili huen adierazmoldea gogoan zaukat oraindik—, bere Jainkoak mundu honetako ondasunetatik txikiena eta handiena parrastaka eman dizkiona.

AL-HAFI. Hala esan nahi nuen nik? Zer adierazi nahi ote nuen nik horrekin?

SITTAH. Txikiena: aberastasuna. Eta handiena: jakituria.

AL-HAFI. Nolatan? Judu batengatik? Judu batengatik esan nuela nik hori?

SITTAH. Ez hukeen hik hori esango hire adiskide Nathanengatik?

AL-HAFI. Beno, bai! Horrengatik! Nathanengatik! Hori ez zitzaidan bururatu. — Benetan? Etxeratu da benetan? Ai! Badirudi gauzak ez dihoazkiola oso gaizki. Egia da: herriak behin jakituna deitu zuen!

SITTAH. Sekula baino gehiago orain deitzen dute aberatsa. Hiri guztian zabaldu da zelako bikaintasunak, zelako altxorrek ekarri dituen.

AL-HAFI. Beraz, orain berriro da aberatsa: berehala izango da berriro jakituna.

SITTAH. Zer iruditzen zaik, Hafi, horrengana joko bahu?

AL-HAFI. Eta zertarako horrengana? Ez mailegu eske, noski? Bai, ondo ezagutzen du berorrek! — Horrek mailegatu! Bere jakituria da, hain zuzen, egundo inori ez mailegatzeta.

SITTAH. Bada, bestetan horren erabat bestelako irudia egin didak.

AL-HAFI. Beste erremediorik ez badago, salgaiak mailegatu-ko dizkio berorri. Baina, dirua, dirua? Dirua sekula ez! — Gainera gutxi bezalako judua da. Ezagutza dauka; badaki bizitzen; ongi jokatzen du xakean. Bestalde, gauza txarretan bezala onetan nabarmen-tzen da gainerako juduen artean. — Horrekin, horrekin ez kontu egin. — Pobreei ematen die egiaz; eta agian Saladinok bezalaxe eman ere. Eta baldin hainbeste ematen ez badu, pozik ematen du halere; nabarmenkeriarik gabe halere. Judu eta kristau eta musulman eta parsi, gauza bera da berarentzat.

SITTAH. Eta halako gizon bat...

SALADINO. Baina nolatan izan daiteke gizon horren entzute-rik nik ez izatea?...

SITTAH. Horrek ez diola mailegurik egingo Saladinori? Beretzat ez, baizik besteentzat behar duen Saladinori mailegurik egin ez?

AL-HAFI. Hortxe dauka berriro judua begien aurrean; judu guztiz arrunt bat! — Sinets biezait egiaz! — Emateari dagokionez,

berorrekiko erabat jeloskor da, erabat inbidiatsu! Lurrean esan daitekeen *Jainkoaren sari oro*, pozik gordeko luke beretzat bakarrik. Horregatik ez dio hain zuzen inori mailegatzten: alegia, beti emateko edukitzeko. Karitatea legeak agintzen dionez, baina gozatasuna ez zaionez agintzen: karitateak munduko arima gozagaitzena bihurtzen du bera. Egia da, denboralditxo bat badela berarekin harreman nahikoa hotzak ditudala; baina ez beza pentsa horregatik zuzentasunik gabe jokatzten dudala harekin. Gauza guztietarako da ona: baina horretarako bakarrik ez; baina horretarako egiaz ez. Beraz, oraintxe bertan joan nahi dut beste atetara deitzera... Puntuan etorri zait gogorra mairu bat, aberatsa eta zekena dena. — Banoa; banoa. —

SITTAH. Zertarako presa hori, Hafi?

SALADINO. Uztan! Uztan!

HIRUGARREN ESZENA

Sittah. Saladino

SITTAH. Badoa benetan presaka, ni begien aurretik pozik galduko banindu bezala! — Zer esan nahi du horrek? Zinez berarekin atzipetu egin da, edota — gustura atzipetu nahi gintuzke?

SALADINO. Nolatan? Niri galdetzen didan hori? Nik ez zakinat nori buruz ari zineten; eta gaur dun lehen aldia zuen judu horretaz, zuen Nathan horretaz entzuten dudala.

SITTAH. Baina nola liteke ez ezagutzea gizon bat norengatik esaten baita Salomonen eta Dabiden hilobiak arakatu dituela eta haien zigilua misteriozko hitz indartsu baten bidez badakiela irekitzen? Handik ateratzen ditik argitara aldian-aldian hura baino iturburu txikiagorik merezi ez duten ondasun neurrigabeak.

SALADINO. Baldin gizon horrek bere ondasunak hilobietatik atera baditin, hilobi horiek ez ditun seguru ez Salomonenak, ezta Dabidenak ere. Eroak zauden han hobiratuak!

SITTAH. Edo gaizkileak! — Eta bere ondasunen iturburuak askoz oparoagoa, askoz emankorragoa izan behar dik, gisako hobi Mammonaz betea baino.

SALADINO. Merkataria baita, entzun dudanez.

SITTAH. Bere zamariak bide guztietan zabiltzak, mortu guztietan barna; bere itsasontziak portu guztietan aurkitzen dituk. Hala esan zidak lehenago Al-Hafi berak, eta berotasunez beterik gaineratu zidak zein handikiro, zein nobleki erabiltzen omen duen bere adiskide honek, hainbesteko zuhurtziaz eta ekinez irabazteko txikiegiztat jotzen ez duena: gaineratu zidak, zein libre omen den bere espiritua aurreiritzietatik; bere bihotza zein irekia den bertute orotarako, zein bat omen datorren edertasun ororekin.

SALADINO. Eta puntuan mintzo zen Hafi hain segurtasunik gabe, hain hotz bere kontura.

SITTAH. Hotz; hotz, ez; lotsakor. Arriskutsu irudituko bali-tzaio bezala hura gorestea, eta orobat merezi gabe hura gutxiestea. — Nolatan? Edo egiaz litzateke ezen herriko onenak berak bere herriari ezin diola ihes egin? Ezen, benetan Al-Hafik, alderdi horretatik, bere adiskidearengatik lotsatu egin beharko lukeela? Izan bedi, nahi duena! Judua izan daiteke judua baino gehiago edo gutxiago, baina bedi abe-ratsa: horrekin aski diagu guk!

SALADINO. Baina ez dion berea indarrez kendu nahiko, arre-ba?

SITTAH. Bai, zer esan nahi dik hirezat indarrak? Suaz eta ezpataz? Ez, ez, zein indar behar duk ahulekin ahuleziaz aparte? — Hator orain nirekin nire haremera, atzo erosi nuen neska kantari bati entzutera. Bitartean beharbada nire asmoan heldu egingo duk Nathan horrentzat daukadan trikimailu bat. — Hator!

LAUGARREN ESZENA

Eszena: Nathan etxe aurrean, Palmondoetara jotzen duen aldean.

Reha eta Nathan ateratzen dira. Haiengana dator Daia.

REHA. Asko atzeratu da berori, aita. Ezin aurkituko dugu gehiago.

NATHAN. Beno, beno; baldin hemen, hemen palmondoen azpian ez badago gehiago, beste nonbait izango dun.- Hago orain lasai. — Ikusi! Ez dun Daia han guregana datorrena?

REHA. Seguru galdu duela.

NATHAN. Agian ez.

REHA. Azkarrago etorriko litzateke bestela.

NATHAN. Ez gintuen ikusiko oraindik...

REHA. Orain ikusi gaitu.

NATHAN. Eta bere urratsak bizkortzen ditin. Ikusi! — Egon, baina, lasai! Lasai!

REHA. Hemen lasai legokeen alaba nahiko luke berorrek? Bere bizitza zor dion egintza onak axola gabe utziko lukeena? Bere bizitza — hain maite dudana bakarrik, lehenbizi berorri zor diodala-ko.

NATHAN. Haizen bezala, ez bestela, nahi haunat: baita jakin-go banu ere hire ariman zerbait erabat bestelakoa ari dela ernetzen.

REHA. Zer, ene aita?

NATHAN. Niri galdetzen didan? Hain ahalketi, niri? Edozer delarik ere hire barnean gertatzen ari dena, natura dun eta errugabezia. Ez kezkatu horregatik. Ni, ni ez naun kezkatzen. Baina hitz eman niri: hire bihotzak argiago edukiko duenean, ez iezadan bere irritsetatik bakar bat ere ezkutatu.

REHA. Nire bihotza berorri ezkutatzearen posibilitateak jada dardarka jartzen nau.

NATHAN. Aski honetatik! Behin betiko konponduta geratu dun. — Hor zagon Daia. — Eta?

DAIA. Oraindik palmondoen azpian ari da paseatzen; eta berehala azalduko da murru horren ostetik. — Ikusi, hor dator!

REHA. Ah! Eta nora jo ezin erabakirik dirudi? Edo aurrera? Edo behera? Edo eskuinera? Edo ezkerrera?

DAIA. Ez, ez; oraindik sarri egingo du monastegiaren inguruko bidea; eta orduan hemen aurretik pasatu behar du. — Zenbat, apostu?

REHA. Ongi! Ongi! — Hitz egin dion jada? Eta nola zagon gaur?

DAIA. Beti bezala.

NATHAN. Baina kontu, ez zaitzaten hemen aurkitu. Jarri atzerago. Hobe barrura sartuko bazinate.

REHA. Beste begirada bat bakarrik! Ah! Hesitura hori, niri gizona lapurtzen didana.

DAIA. Betor! Betor! Aitak arrazoi du. Berori ikusten badu, bertatik atzera egingo duen arriskua dauka.

REHA. Ah! Hesitura!

NATHAN. Eta bat-batean azaltzen bada haren atzetik, zuek ikusi baino beste erremediorik ez dauka. Zoazte, beraz, barrura!

DAIA. Betor! Betor! Ezagutzen dut nik leiho bat nondik bera suma dezakegun.

REHA. Bai?

(Biak barrura)

BOSGARREN ESZENA

Nathan eta, gutxira, Tenplarioa

NATHAN. Kasik atzera egin nuen gizon bitxiaren aurrean. Kasik zur eta lur uzten nau bere bertute latzak. Gizaki batek beste gizaki bat hain jota utzi dezakeenik, gero! — Ah! Badator. — Hala Jainkoa! Gazte bat, gizon egina. Atsegin dut bere begirada onbera, harroa! Bere ibilera irmoa! Izan liteke eskola mingotsa: muina, ordea, seguru ez dela — Non ikusi dut nik beste bat parekorik? — Barka, franko prestua...

TENPLARIOA. Zer?

NATHAN. Zilegi bekit...

TENPLARIOA. Zer, judua, zer?

NATHAN. Ausart nadin berorri hitz egitera.

TENPLARIOA. Eragotzi al diezaioket. Labur, ordea.

NATHAN. Barka, eta ez pasa presaka hain harro, hain mespretxakor betiko esker onez berorri loturik daukan gizon baten aurretik.

TENPLARIOA. Nolatan hori? — Ah, kasik asmatu nuen. — Ez da izango? Berori da...

NATHAN. Nathan nahiz; berorren bihotz handiak sutatik salbatu duen neskaren aita; eta natorkio...

TENPLARIOA. Baldin eskertzeko bada: — utzi hori! Eskerraren huskeria horregatik dagoeneko gehiegi jasan behar izan dut. — Bereiziki berorrek, berorrek nirekiko inolako zorrik ez duenean. Ba al nekien, bada, nik neska hori berorren alaba zenik? Tenplarioen egitekoa da premian ikusten duten lehenengoari laguntzea. Nire bizitza, bestalde, une horretan nekagarri zitzaidan. Pozik, oso pozik hartu nuen nik bizitza arriskuan jartzeko aukera: beste baten truke... baita hori neska judu baten bizitza baten ere.

NATHAN. Bikain! Bikain eta gorrotagarri! — Halere pentsatzekoa da aldaketa. Handitasun eratsu gorrotagarriaren ostean ezkutatzen da miresmenari ihes egiteko. — Baldin miresmenaren eskainteari uko egiten badio, zein eskaintzari egiten dio berorrek uko gutxiago? — Zaldun, baldin berori hemen ez balitz arrotz eta gatibu, ez nioke nik hain ausarkiro galdetuko. Esan beza, agindu beza: zertan zerbitza dakioket berori?

TENPLARIOA. Berorrek? Ezertan ez.

NATHAN. Gizon aberatsa naiz.

TENPLARIOA. Judu aberatsena ez da niretzat judurik onena.

NATHAN. Horregatik berori ez da baliatuko inolaz hark daukan onenaz? Ez da baliatuko haren aberastasunaz?

TENPLARIOA. Hara, bada: horri ere ez diot guztizko ezetza esan nahi; nire mantuagatik, hain zuzen. Erabat eta guztiz andeatua edukiko dudanean, ez adabakirik ez sareztaturik gehiago onartuko ez duenean, etorri eta berorrengan berri bat egiteko mailegu bat hartuko dut, oihaletan edo dirutan. — Ez begiratu hain ilun! Oraindik seguru dago berori; oraindik ez dago erabat hondatuta. Ikusten du berorrek: nahikoa ondo dago oraindik. Mutur batek bakarrik dauka orban nazkagarri bat; gardoztatua dago. Eta berorren alaba sutan barna eraman nuenean egin zitzaidan.

NATHAN. (*Muturra hartu eta hura aztertuz*). Harritzekoa da egiaz, gisako orban txar batek, gisako erre-marka batek gizonari leku-kotza hobea ematen diola bere ahoak baino. Bertatik muin emateko gogoa ematen dit — orbana! — Ah, barka! — Nahi gabe egin dut.

TENPLARIOA. Zer?

NATHAN. Malko bat erori da gainera.

TENPLARIOA. Ez dio axolarik! Nahikoa tanta badauka lehen-dik ere. — (Azkar hasi zait, ordea, judu hau ni nahasten).

NATHAN. Egingo al lidake mesede, eta bidaliko al lioke mantu hori orobat nire alabari?

TENPLARIOA. Zertarako?

NATHAN. Berak ere bere ahoa orban horretan estutu dezan. Izan ere, berorren belaunak berak besarkatzea, alferrik nahi izango du.

TENPLARIOA. Baina, judua — Nathan deritzo berorri? Baina, Nathan — Berorrek hitzak ipintzen ditu oso — oso ondo — oso zorrotz — Txokatuta nago — bestalde — nik...

NATHAN. Itxurak eta komeriak egin ditzake, nahi duen beza-la. Hortik ere garbi jakingo dut. Onegia zen berori, zintzoegia, arrait-suagoa izateko. Neska, guztiz sentimendu; emakumezko bidalia, guztiz prest zerbitzatzeko; aita oso urrun — Berori arduratuta zegoen izen on batengatik; uko egiten dio hura aztertzeari; uko, ez garaitzearren. Eta horrengatik eskertzen diot nik berorri.

TENPLARIOA. Aitortu behar dut berorrek badakiela nola pentsatu beharko luketen tenplarioek.

NATHAN. Tenplarioek bakarrik? *Luketen* bakarrik? Eta hori bakarrik ordenako arauak horrela agintzen dutelako? Nik badakit nola pentsatzen duten gizaki onek; badakit lurralde guztietan badaudela gizaki onak.

TENPLARIOA. Baina desberdintasunekin, ustez?

NATHAN. Bai horixe; kolorean, jantzian, itxuran desberdin.

TENPLARIOA. Hemen gehiago, edo gutxiago, han baino.

NATHAN. Desberdintasun horiek ez dira garrantzi handiko. Gizon handiak lur asko behar du alde guztietan; eta askok, elkarren hurbilegi sartuak, adarrak elkarri puskatzen dizkiote. Gu bezalako erdi-onak, aldiz, pilaka aurkitzen dira nonahi. Aski da batak bestea ez kritikatzearren. Aski da txaparra eta ttarta elkarrekin ondo konpontzea. Aski da, baldin gailurtxo ez bada harropuzten bera litzatekeelako lurretik ernetzen ez den bakarra.

TENPLARIOA. Oso ongi esana! — Halere, ezagutzen du berorrek gizakien arteko kritika hori lehenbizikoz egin zuen herria? Badaki berorrek, Nathan, zein herrik bere burua hautatu deitu zuen lehenbizikoz? Zer, baldin nik herri hori, ez dut esango gorrotatu, baina bere harrokeriagatik mespretxatu gabe utzi ezingo banu? Alegia, bere Jainkoa bakarrik zela egiazko Jainkoa zioen harrokeriagatik? Harritu egiten da berori, kristau bat, tenplarioa bat, gisa honetan mintzo delako? Noiz eta non azaldu da Jainko hobeia edukitzearen amorru jaieratsu hori eta Jainko hobe hori mundu guztiari onena bezala ezartzeko amorru jaieratsu hori bere aurpegirik beltzenean hemen eta orain bezala? Hemen, orain ezkatak begietatik erortzen ez zaizkionari... Beraz, izan bedi itsu, hala nahi duena! — Ahaztu esan dudana; eta utzi ni! (*Joateko keinua egiten du*)

NATHAN. Ah! Ez daki berorrek zein setatsuago itsatsiko natzaion berorri. — Betor, izan behar dugu, izan behar dugu adiskide! — Gutxietsi nire herria berorrek nahi duen adina. Guk biok ez dugu hautatu gure herria. Gure herria al gara gu? Zer esan nahi du herriak? Kristaua eta judua gizaki baino lehenago al dira kristau eta judu? Ah! Baldin aurkitu izan banu berorrengan gizakia deitzearekin aski duen horietako bat!

TENPLARIOA. Bai, hala Jainkoa, halako bat aurkitu du berorrek, Nathan! — Halako bat aurkitu du! — Esku hori! — Lotsatzen naiz une batez berorri ulertu ez diodalako.

NATHAN. Eta ni harro nago horregatik. Arrunta bakarrik ez da ulertzen noizbehingoan.

TENPLARIOA. Eta noizbehingoa nekez ahazten da. — Nathan, bai; izan behar dugu, izan behar dugu adiskideak.

NATHAN. Bagara dagoeneko. — Nola poztuko den nire Reha! — Eta, ah! Zein urruntasun zohardia iruditzen zaion nire begiradari! — Ezagun beza bertatik.

TENPLARIOA. Kiskaltzen nago irrikaz. — Nor ateratzen da lasterka berorren etxetik? Ez da berorren Daia?

NATHAN. Bai, bera da. Hain antsiasi?

TENPLARIOA. Ez zitzaion bada ezer gertatuko gure Rehari?

SEIGARREN ESZENA

Aurrekoak eta Daia presaka

DAIA. Nathan! Nathan!

NATHAN. Zer da?

DAIA. Barkatu, zaldun noblea, moztu behar badiot.

NATHAN. Eta, zer gertatzen da?

TENPLARIOA. Zer gertatzen da?

DAIA. Sultanak mandataria bidali du. Sultanak berorrekin hitz egin nahi omen du. Jainkoa, Sultanak!

NATHAN. Nirekin? Sultanak? Jakin-minez egongo da zein gauza berri ekarri dudan ikusteko. Esan bakarrik, orain gutxi edo ezer ez dugula atera bilduretatik.

DAIA. Ez, ez; ez du ezer ikusi nahi; berorrekin hitz egin nahi du, aurrez aurre, eta segituan. Berorrek ahal bezain azkar.

NATHAN. Oraintxe joango naiz. — Hoa berriro, hoa!

DAIA. Ez hartu gaizki, zaldun zorrotza. — Jainkoa, guztiz kezkatu-rik gaude Sultanak zer nahiko ote duen.

NATHAN. Ikusiko da hori. Hoa, baina, hoa!

ZAZPIGARREN ESZENA

Nathan eta Tenplarioa

TENPLARIOA. Orduan, ez du ezagutzen berorrek? Buruz buru esan nahi dut.

NATHAN. Saladino? Oraindik ez. Ez dut ekidin, ezta bilatu ere hura ezagutzea. Herriko ahotsak ondoegi hitz egiten zuen bere kontura, eta nahiago izan nuen sinestea ikustea baino. Hala eta guztiz ere, — bestela balitz ere —, berorren bizitza barkatuz...

TENPLARIOA. Bai; egiaz hala da. Nik bizi dudan bizitza bere erregalia da.

NATHAN. Horren bidez niri bizitza bikoitza, hirukoitza erregalatu dit. Gure arteko guztia aldatu du horrek; bat-batean soka bat

bota dit gainera, betiko bere zerbitzura lotu nauena. Prest nago edo-zertarako; prest nago berari aitortzeko berorri esker nagoela hala.

TENPLARIOA. Nik neuk ere oraindik ezin eskertu ahal izan diot, bidera sarri atera banatzaio ere. Berari egin nion inpresioa hain azkar etorri bazen, azkar desagertu ere desagertu zen. Nork daki nirekin oroitu ere egingo ote den. Eta hala eta guztiz ere, beste behin oraindik gogoratu beharko du nirekin, nire patua erabat erabakitzeko. Askiz ez bada bere esanera oraindik egotea, bere borondateagatik bizi naiz oraindik: orain berarengandik espero behar dut noren borondatearen arabera bizi behar dudana.

NATHAN. Ez dago besterik; horregatik, hain zuzen, ez dut atzeratu nahi. — Beharbada hitzen bat aterako da berori aipatzeko aukera emango duena. — Zilegi bekit, barka — presa daukat — Noiz, noiz ikusiko dugu berori gurean?

TENPLARIOA. Nik ahal bezain azkar.

NATHAN. Berorrek nahi bezain azkar.

TENPLARIOA. Gaur bertan.

NATHAN. Eta berorren izena? — Mesedez.

TENPLARIOA. Nire izena zen — da, Curd von Stauffen. — Curd!

NATHAN. Von Stauffen? — Stauffen? — Stauffen?

TENPLARIOA. Zergatik harritzen du hainbeste?

NATHAN. Von Stauffen? — Familia horretatik badira, noski, batzuek...

TENPLARIOA. Oh, bai! Hemen izan ziren, hemen usteldu ziren familiako batzuek. Nire osaba bera, — nire aita esan nahi nuen — Baina zergatik zorrozten da gero eta gehiago berorren begirada nire gainean?

NATHAN. Oh, ez da ezer! Oh, ez da ezer! Nola neka naiteke berori ikusteaz?

TENPLARIOA. Horregatik utzi nahi nuen berori puntuan. Ikerlearen begiradak aurkitu nahi zuena baino gehiago aurkitu ohi du sarri. Beldur diot berorri, Nathan. Utzi denborari astiro, eta jakin-minari, gure kidetza egin dezan (*Badoa*).

NATHAN. (*Harrituta, atzetik begiratzten diola*). «Ikerleak aurkitu nahi zuena baino gehiago aurkitu ohi du sarri». — Badirudi nire ariman irakurtzen zuela! Bene-benetan; niri ere gerta dakiket hori. — Ez da bakarrik Wolfen gorpuzkera, Wolfen ibilera: bere ahotsa da. Horrela, erabat horrela, botatzen zuen burua ere; ezpata ere horrelaxe eramaten zuen besoan Wolfek; era horretantxe pasatzen zuen Wolfek eskua bekainetatik bere begiradaren sua ezkutatzeko. — Nola egon daitezkeen gauzak lo hain sakon markatuak denboraldi batean, hitz batek, soinu batek berriro esnatzen dituen arte. — Von Stauffen! — Hori da, hori da; Filneck eta Stauffen. — Hau guztia zehatzago jakin nahi dut eta azkar; azkar. Baina lehenbizi Saladino. — Baina, zer da? Ez da Daia han zelatan dagoena? — Hator hona, Daia.

ZORTZIGARREN ESZENA

Daia, Nathan

NATHAN. Apostu, bion bihotzak taupaka dituzuela, Saladinok niregandik zer nahi duen ez, baizik beste gauza bat jakiteko?

DAIA. Hori aurpegiratzten dio? Oraintxe puntuan berori hasia zen konfiantza handiagoz berarekin hitz egiten, Sultanaren mandataria leihotik uxatu gaituenean.

NATHAN. Esan, bada, berari, edozein unetan espero dezakeela.

DAIA. Benetan? Benetan?

NATHAN. Fida naiteke, Daia, hirekin? Erne ibili; mesedez. Ez zain damutuko. Hire kontzientziak horretan aurkitu behar din bere kontua. Baina ez hondatu niri ezer nire egitasmoan. Kontatu eta galdetu xalotasunez, zuhurtasunez...

DAIA. Berorrek hori gogorarazi behar didanik, gero! — Banoa; bihoa berori ere. Ikusi, izan ere! Uste dut zinez han datorrela Sultanaren bigarren mandatari bat, Al-Hafi, berorren derbitxea (*Kanpora doa*).

BEDERATZIGARREN ESZENA

Nathan. Al-Hafi

AL-HAFI. Hara! Hara! Berorregana nahi nuen nik berriro.

NATHAN. Hain presakoa al da, bada? Zer nahi dik niregandik?

AL-HAFI. Nork?

NATHAN. Saladinok. — Banator, banator.

AL-HAFI. Norengana? Saladinorengana?

NATHAN. Ez hau bidaltzen Saladinok?

AL-HAFI. Ni? Ez. Norbait bidali du, ala?

NATHAN. Bai horixe, bidali duela.

AL-HAFI. Orduan, horrela ongi dago.

NATHAN. Zer? Zer zagok ondo?

AL-HAFI. Bada... Nik ez dut errurik; Jainkoak badaki nik ez dudana errurik. — Zer ez dut nik esan, gezurretan esan berorren kontura, hori eragozteko.

NATHAN. Zer eragozteko? Zer zagok ongi?

AL-HAFI. Berori bihurtu dela haren diruzain. Sentitzen dut berorrengatik; halere ez dut nik hori ikusi nahi. Une honetantxe banoa ni; banoa, berorrek entzun du dagoeneko nora; eta bidea ere badaki. — Bidenabar enkarguren bat egin ahal banio, esan: berorren esanetara nauka. Inondik ere biluzik doan batek berarekin eraman dezakeena baino ezin du izan. Ni banoa, esan azkar.

NATHAN. Pentsa, gero, Al-Hafi. Pentsa nik oraindik ez dakidala ezertxo. Zer berriketa dabilkik hik hor?

AL-HAFI. Berorrek soinean darama poltsa?

NATHAN. Poltsa?

AL-HAFI. Beno, Saladinori berorrek aurreratu behar dion dirua.

NATHAN. Eta ez duk beste ezer?

AL-HAFI. Nik begira egon behar dut nola berak egunetik egunera hatzamarretaraino murriztuko duen berori? Egiaz begira egon behar al nuen nik nola bestela hutsik egoten ez diren aletegietatik xahuketak hain luzaz mailegatu egiten duen, eta mailegatu eta mailegatu egiten duen, harik eta jatorrizko xagutxo pobreak barruan goseak hiltzen diren arte? Berorrek pentsatzen al du agian berorren diruaren beharretan dagoenak berorren aholkua segituko duela? — Bai; hark aholkuak segitu! Nori eskatu dio aholku Saladinok? — Pentsa bakarrik, Nathan, oraintxe puntuan berarekin gertatu zaidana.

NATHAN. Eta?

AL-HAFI. Bere arrebaz xakean jokatzen ari dela, iristen naiz ni berarengana. Sittahk ez du gaizki jokatzen; eta Saladinok galdutzat jotzen zuen bere jokoa, emana zeukana, oraindik hantxe bertan zegoen. Hara begiratzen dut, beraz, eta ikusten dut jokoa ez dagoela galduta, ezta gutxiago ere.

NATHAN. Oh, hori aurkikuntza bat huen hiretzat!

AL-HAFI. Erregea pioiaren ondora aurreratu baino ez zuen behar, bere xakearen aurrean. — Oraintxe erakutsi ahal baniezaio!

NATHAN. Oh, hitaz fido nauk!

AL-HAFI. Izan ere, horrela dorreak lekua hartzen zuen, eta Sittah galduta zegoen. — Hori guztia, beraz, adierazi nahi diot eta deitzen diot. — Pentsa!

NATHAN. Bera ez duk hire iritzikoa?

AL-HAFI. Ez dit entzuten batere, eta joko guztia hankaz gora botatzen du mespretxuz.

NATHAN. Posible al da hori?

AL-HAFI. Eta esaten du bertatik nahi duela mate egotea; hala nahi duela. Hori al da jokatzea?

NATHAN. Ez, noski; hori da jokoaz jokatzea.

AL-HAFI. Halere ez zuten jokatzen huskeria bat.

NATHAN. Dirua hara, dirua hona! Hori da gutxiena. Baina hiri ez entzutea! Halako garrantziko puntu batean hiri ez entzutea, gero! Hire arrano-begirada ez mirestea! Horrek mendekua eskatzen dik, ez da?

AL-HAFI. Bai zera! Zelako buru klasea den jakin dezan bakarrik kontatu diot nik hori berorri. Labur: nik, nik ez dut gehiago etsitzen berarekin. Orain hor nabil mairu zikin guztiengana joanez eta galdetuz ea nork mailegatu nahi dion. Nik, niretzat sekula eskean ibili ez naizen honek, beste batentzat eskatu behar dut maileguan. Maileguan eskatzea ez da eskean ibiltzea baino askoz hobea: mailegatzea, lukurreriaz mailegatzea lapurreta egitea baino hobea ez den bezala. Nire gebren artean, Gangesen, ez dut ez bata ez bestea behar, eta ez dut bien tresna izan beharrik. Hemen berori bakarrik da Gangesen bizitzeko duin den bakarra. — Nahi du etorri nirekin bero-

rrek? — Bertan behera utz beza berorrek halako zeregina ematen dion bere zirtzileria guztiekin batera. Gero eta gehiago hondamendira eramango du berori. Horrela amaituko litzateke kolpetik tormentua. Longaina bat eskuratuko diot. Betor! Betor!

NATHAN. Irtenbide hori beti eskura geratuko zaigula usteko nuen nik. Baina, Al-Hafi, pentsatu egin behar diat hori. Itxaron...

AL-HAFI. Pentsatu? Ez, halako gauza bat ez da pentsatzen.

NATHAN. Sultanarengandik itzuli arte bakarrik; nik agur esan arte...

AL-HAFI. Pentsatzen duenak ez egin ahal izateko arrazoiak bilatzen ditu. Beretzat bizitzeko, itsumustuan erabakitzeke gauza ez dena, betiko biziko da beste baten esklabo. — Berorrek nahi duen bezala! — Ongi bizi! Berorrek nahi duen bezala. — Nire bidea han dago; berorrena hor.

NATHAN. Al-Hafi! Baina, aldeztu aurretik, hire arazoak koponduko dituk?

AL-HAFI. Hori zirtza, hori! Nire kuxtaren kitoak ez du zenbaitzea merezi ere; eta nire kontua kitatu, berorrek edo Sittahk egingo duzue. Ongi bizi! (*irten*).

NATHAN. (*Hari atzetik begiratu*). Nik kitatuko ditiat! — Basati on, noble — Nola deituko dut? — Egiazko eskalea da egiaz bakarrik eta benetan egiazko erregea! (*Beste aldetik irten*).

HIRUGARREN EKITALDIA

LEHEN ESZENA

(Eszena: Nathanen etxean)

Reha eta Daia

REHA. Nola adierazten zuen, Daia, aitak? «Edozein unetan espero dezakedala?» Horrek badirudi —ez da hala?— segituan azalduko balitz bezala. — Zenbat une igaro diren dagoeneko! — Ah, baina nork pentsatzen du igarotakoetan? — Hurrengo datorren une bakoitzean bakarrik bizi nahi dut nik. Iritsiko da inoiz, ordea, hura ekarriko duen unea.

DAIA. Oh Sultanaren mezu madarikatua! Nathanek, izan ere, mezu hori gabe, bera ekarriko zinan hona.

REHA. Eta une hori iritsi dadinean, nire desio sutsuena, barnekoena bete dadinean: orduan zer? — Zer orduan?

DAIA. Zer orduan? Orduan nire desiorik sutsuena ere beteko dela espero dinat.

REHA. Zer sartuko den orduan nire bularrean haren lekuan, ez baitaki nire bularrak desio nagusi bat gabe desio guztietara zabaltzen? — Ezer ez? Ah, izututa nagon!...

DAIA. Nire, nire desioak hartuko din bete denaren lekua; nireak. Nire desioa hi Europan, hire duin diren eskuetan hagola ikustea dun.

REHA. Oker hago. — Desio hori hire egiten duenak berak, hain zuzen, eragozten din desio hori sekula nire bilaka dadin. Hire aberriak erakartzen hau hi: eta nireak, nireak ez nindukenan eutsi behar? Hire ariman oraindik galdu ez den hire aberriaren irudi batek, indar gehiago eduki behar ote din nik ikusi, oratu eta entzun dezakedan nireak baino?

DAIA. Zarra hadi, nahi adina! Zeruko bideak zeruko bideak dira. Eta baldin beraz, hire salatzaile hori bera balitz bitartekoa noren bidez hi bere Jainkoak —haren alde gudukatzen baitu— eraman nahi-ko hintuen lurralde eta herri jakin batera, lurralde eta herri horrentzat jaioa haizenez hi?

REHA. Daia! Zertaz ari haiz orain berriro, Daia maitea! Hik bai ditunala burubideak, hik! «Bere, bere Jainkoa! Norentzat gudukatzen duen!». Norena dun Jainkoa? Zer Jainko klase dun hori, gizaki batena dena? Beretzat gudukatzea behar duena? — Eta nola jakin zein txoko-*rentzat* bat jaio den, baldin bada hi jaio hintzenana *bera*? — Nire aitak entzungo bahintu! — Zer egiten din hiri, nire zoriona beti harengandik ahal bezain urrun ailegatu diezadanan? Zer egin din hiri, berak nire ariman hain garbi erein zuen arrazoiaren hazia bezala, hire lurraldeko belar gaizto edo loreekin hain gustura nahas dezanan? — Daia maite-maitea, berak ez ditin nahi hire lore koloretsuak nire lurrean! — Eta esan behar dinat, nik neuk nire lurra, hain ederkiro janzten badute ere, hain ahitua, hain sakaildua sentitzen dudala hire loreen eraginez; beren usainean, beren usain gozoan, ni sentitzen naun hain

lelotua, hain zorabiatua! — Hire garuna ohituagoa zagon horretara. Nik ez ditinak gutxiesten hura jasan dezaketen kirio indartsuak. Baina niri ez zagokidan; eta hire aingerua bera, zein gutxi falta zen ni erotu nindezan? Nire aitaren aurrean oraindik lotsatu egiten naun trikimai-luagatik.

DAIA. Trikimailua! — Adimena hemen bakarrik balego beza-la! Trikimailua! Trikimailua! Hitz egin ahal baneza!

REHA. Ezin dun, ala? Noiz ez naun egon arreta osoz, fedeko hire heroiei buruz niri hitz egitea gogoak ematen zinan bakoitzean? Bere egintzei ez diet beti harridura eskaini? Eta beren sufrikariei mal-koak ordaindu? Halere ez zitzaidan iruditzen beraengan beren fedea harrigarriena. Aldiz, askoz kontsolagarriagoa hunan niretzat Jainkoarekiko menpekotasuna ez dagoela inondik ere Jainkoaz guk dinagun iritzi okerraren menpe dioen doktrina. — Daia maitea, hori esan zigun hain sarri nire aitag; horri buruz hi heu ere hain sarri ados egon haiz berarekin: zergatik porrokatzen dun orain hik bakarrik, harekin batera eraiki dunana? — Daia maitea, hau ez dun elkarrikizke-ta egokiena gure adiskideari itxaroteko. Niretzat egiaz, bai! Izan ere, niri, niri izugarri inporta zaidan, ea bera ere... Entzun, Daia! Ez dator norbait gure atara? Bera balitz! Entzun!

BIGARREN ESZENA

Reha, Daia eta Tenplarioa, honi norbaitek
irekitzen dio atea kanpotik, hitz hauek esanez:

— Hemendik, mesedez!

REHA. (*Izutu egiten da, bere onera etorri, eta oinetara erori nahi zaio*). Bera da! — Nire salbatzailea, ah!

TENPLARIOA. Hauxe ekiditeko azaldu naiz, bada, ni hain berandu: eta halere —

REHA. Gizon prestu honen oinetan Jainkoari bakarrik eman nahi dizkiot eskerrak, ez gizonari. Gizonak ez du nahi eskerrik; sua itzaltzen hain eginkor azaldu zen ur-ontziak bezain gutxi nahi ditu. Bete zezaten,ustu zezaten utzi zuen, besterik gabe: gauza bera gizonak. Hura ere garretara bultzatua izan zen; han halabeharrez besoetan

erori nintzaion; han geratu nintzen halabeharrez, txinparta bat bere mantuan bezala, bere besoetan; berriro, nik ez dakit zerk biok garretatik atera gintuen arte. — Ba al dago hor zergatik eskertu beharrik? — Europan ardoak beste ekintza askoz bitxiagotara behartu ohi du. — Tenplarioek, horiek horrela jokatu behar dute; ongi bezaturiko zakurrek baino hobeto sutatik bezala uretatik ere atera behar dute.

TENPLARIOA. (*Denbora guztian harriduraz eta ezinegonez neska begiratu duelarik*). Oh, Daia, Daia! Baldin kezka eta samintasun unetan nire umoreak gaizki tratatu bahintuen, zergatik eraman hion honi nire mihiari ihes egiten zion ergelkeria oro? Gogorregi mendekatzea hunan hori, Daia! Ai aurrerantzean bere aurrean hobeto ordezkatu nahi banindunan!

DAIA. Ez dut uste, zalduna, ez dut uste haren bihotzera jaurtikitako arantza txiki hauek berorri kalte handirik egin diotenik.

REHA. Nolatan? Kezkatuta zegoen berori? Eta berorren kezkekin zekenago zen berorren bizitzarekin baino?

TENPLARIOA. Haur on eta goxoa! — Nola dagoen, gero, nire arima zatiturik begiaren eta belarriaren artean! — Ez zen hau neska, ez, ez, ez zen hau nik surtatik atera nuena. — Nork, izan ere, ezagutu eta ez zukeen surtatik aterako? Nork itxarongo zuen ni iritsi arte? Egia da — desitxuratu egiten du — izuak. (*Geldialdia, eta bitartean bera, neska begiztatuz, galduta bezala dago*).

REHA. Bada, nik lehengo bera topatzen dut berori (*lehen bezala dago; berak segi egiten du mutila bere liluramendutik ateratzeko*). Beno, zalduna, esan biezaigu non egon den hain luzaz? — Kasik galde ere egin nezake: non da berori une honetan?

TENPLARIOA. Ni nago... egon beharko ez nukeen lekuan beharbada.

REHA. Non egon zen berori? — Beharbaka egon beharko ez zukeen lekuan? Hori ez dago ongi.

TENPLARIOA. Ba... ba... nola deritzo mendiari? Sinain.

REHA. Sinain? Zein ongi! Orain behingoz ziurtasunez jakin dezaket ea egia den...

TENPLARIOA. Zer? Zer? Ea egia den oraindik ikus daitekeela la Moises Jainkoaren aurrean egon zen leku berbera, eta...

REHA. Ez, hori ez. Edozein lekutan egon zelarik ere, Jainkoaren aurrean egon baitzen. Hortaz nahikoa dakit nik lehendik ere. Ea egia den jakin nahi nuke nik egiaz berorren ahotik ezen... ezen mendi horretan askoz gehiago nekatzen dela jaisterakoan igotzerakoa baino? Hara, izan ere: igo naizen mendi guztietan guztiz kontrakoa gertatzen zait. — Eta, zalduna? — Zer? — Aldendu egiten da nigan-dik? Ez nau ikusi nahi?

TENPLARIOA. Berorri entzun egin nahi diodalako.

REHA. Berorrek ez didalako utzi nahi igartzen nire burutazio-ari berorrek barre egiten diola; barre egiten diola, nik ez dudalako asmatzen mendi guztien artean mendi santu horri buruz zerbait garrantzitsuagorik galdetzen? Ez da hala?

TENPLARIOA. Orduan begietara begiratu beharko diot berri-ro. — Zer? Orain apaldu egiten ditu? Orain berorrek eusten dio bere-ari? Nola irakurri nahi dut nik imintzioetan, hala-honelako imintzioe-tan, hain garbi entzuten dudana, berorrek hain zehatz esaten didana? — Isildu egin da berori? — Ah, Reha! Reha! Zein ongi esan zuen beste hark: «Ezagutu bera lehenbizi!»

REHA. Nork esan du? Norengatik? Nork esan dio hori?

TENPLARIOA. «Ezagutu bera lehenbizi!», berorren aitak esan dit; berorrengatik esan ere.

DAIA. Eta nik ere ez nuen esan? Ez nuen nik esan akaso?

TENPLARIOA. Baina, non da bera? Non da berorren aita? Sultanarekin dago oraindik?

REHA. Zalantzarik gabe.

TENPLARIOA. Oraindik, oraindik han? — Ahazkorra naizela ni, gero! Ez, ez; nekez egongo da han oraindik. — Han behean egon-go da, komentuarien ondoan niri itxaroten; seguru. Hala hitzartu genuela uste dut. Zilegi bekit! Banoa, hura ekartzera...

DAIA. Utzi hori niri. Geratu hemen, zalduna, geratu hemen. Neuk ekarriko dut berandu baino lehen.

TENPLARIOA. Ez, ez! Ni espero nau; ez berori. Gainera erraz gerta zitekeen... nork daki?... Sultanarekin erraz gerta zitekeen... Berorrek ez du ezagutzen Sultana!... Erraz gerta zitekeen larrialdiren batean. — Sinetsi niri; arriskua dago, ni joaten ez banaiz.

REHA. Arriskua? Zein arrisku?

TENPLARIOA. Arriskua niretzat, berorrentzat, harentzat: ni azkar, oso azkar joaten ez banaiz (*Kanpora*).

HIRUGARREN ESZENA

Reha eta Daia

REHA. Zer da hau, Daia? — Hain azkar? — Zer gertatu zaion? Zer bururatu zaion? Zeren bila zabilen?

DAIA. Utzi, utzi. Nire ustez, ez da seinale txarra.

REHA. Seinalea? Eta zerena?

DAIA. Barrutik zerbait aurrera doanarena. Borborka ari da, eta ez du gainezka egin behar. Utzi berari. Orain berorren txanda da.

REHA. Zein txanda da nirea? Bera bezain ulergaitz ari haiz hi ere.

DAIA. Aurki itzuli ahal izango dizkio berorrek berari, berak eragin dizkion kezka guztiak. Baina ez bedi izan zorrotzegia, ezta mendekuzaleegia ere.

REHA. Hik herorrek jakingo dun zertaz mintzo haizen.

DAIA. Orduan, berriro guztiz bare dago?

REHA. Hala nago; halaxe nago, bai...

DAIA. Gutxienez aitortu haren artegasunaz poztu egiten dela berori; eta bere artegasunari zor diola baldin orain lasaitasuna dastatzen badu.

REHA. Guztiz nahi gabe! Gehienez aitor diadana dun, ni — ni neu txokatuta nagoela nola halako ekintzaren ondoren nire bihotzean halako baretasuna bat-batean etorri den. Bere itxura guztia, bere hizketa, bere egintzak ni...

DAIA. Ase egin du.

REHA. Ase, ez niken esango; ez — ezta gutxiago ere —

DAIA. Gose amorratua baretu bakarrik.

REHA. Beno, bai; hala esan nahi badun.

DAIA. Ni, halabeharrez, ez.

REHA. Betiere estimutuko dinat; betiere nire bizitza baino balioitsuago izango zaidan: nahiz nire pultsua gehiago ez aldatu bere izen soila entzutearekin, ezta nire bihotzak, berarekin pentsatzen dudak bakoitzean azkarrago eta bortitzago jotzen ez badin ere, — Zer kalaka da gero hau? Hator, hator, Daia maitea, palmondoetara jotzen duen leihora.

DAIA. Orduan egiaz ez da ase gose amorratu hori.

REHA. Orain berriro begiratuko ditinat palmondoak, ez bera soilik palmondoen azpian.

DAIA. Hoztasun horrek sukar berri bati emango dio hasiera.

REHA. Zein hoztasun? Ni ez naun hotza. Ez dinat atsegin gutxiagoz begiratzen baretasunez begiratzen dinadana.

LAUGARREN ESZENA

(Eszenategia: audientzia-areto bat Saladinoren palazioan) Saladino eta Sittah

SALADINO (*Sartuz, ate aldera mintzo*). Ekarri judua hona, iritsi bezain laster. Ez dirudi presa asko duenik.

SITTAH. Ez zegoan, egon, eskura, segituan aurkitzeko.

SALADINO. Arreba! Arreba!

SITTAH. Borroka baten atarian bahengo bezala jokutzen duk.

SALADINO. Eta hori, nik erabiltzen ikasi ez ditudan armez. Itxurak egin behar ditinat; kezkatu egin behar dinat; amarruak ipini; adarra jo behar zionat. Noiz jakin dinat nik hori egiten? Non ikas nezakenan halakorik? — Eta guztiori egin behar dinat, ah, zertarako? Zertarako? Dirua atzemateko; dirua! — Dirua, izuaren bidez judu bati, dirua ateratzeko; dirua! Gisako maltzurkeria txikietara eramana izan naun, txikikeriarik txikiena erdiesteko?

SITTAH. Gehiegi mespretxatzen den txikikeriak, ondoren mendekua hartzen dik, neba.

SALADINO. Egia da, tamalez. — Eta baldin judu hori gizon on eta zuhur bat badun, derbitxeak lehenxeago adierazi dian bezala, zer?

SITTAH. Oh, orduan? Orduan ez zagok horren premiari! Judu zeken, goganbehartsu, izutuari bakarrik ipintzen zaiok xedera: ez gizon onari, ez jakintsuari. Hori xederarik gabe ere gurea duk. Gisako gizon batek zer aitzakia jartzen dituen entzuteko atsegina; zein indar ausartekin edota soka mozten duen, edota zein ardura maltzurrekin ihes egiten dion sareari: atsegin hori gehigarritzat emana zaik.

SALADINO. Beraz, gaizki jokatu behar dinat nik, gaiztoak nitaz gaizki pentsa ez dezan.

SITTAH. Hori da, noski! Baldin hik gaizki jokatzea deitzen baduk gauza bakoitza bere gisara erabiltzea.

SALADINO. Apaintzen jakingo ez duenik zer ez din asmatuko emakume baten buruak?

SITTAH. Apaindu?

SALADINO. Beldur naun ez ote den txikituko gauza fin eta zorrotz hori nire esku zabarretan! Halako zerbait asmatu den bezala erabili behar dun: maltzurkeria osoz, jasez. — Baina, litekeena da, litekeena da! Ahal dudan bezala egiten dinat nik dantzan; eta zinez nahiago niken — okerrago hobeto baino.

SITTAH. Ez duk hire buruan hain uste gutxi izan behar! Ni izango natzaik hire berme! Hik hala nahi baduk, noski. Hire gisako gizonak gu hain gustura komentzitu nahi izatea gero, beren ezpatak bakarrik, beren ezpatak bakarrik eraman dituela hain urrutira! Lehoia lotsatu egiten duk azeriarekin ehizean egiten duenean: azeriagatik lotsatzen duk, ez maltzurkeriagatik.

SALADINO. Eta zein pozik eratsiko lituzketen gizonak beren mailara! — Hoa orain, hoa! — Nire ikasgaia ondo dakinala uste dinat.

SITTAH.- Zer? Joan egin behar dudala?

SALADINO. Ez hunan gelditu nahi, ez da?

SITTAH. Gelditu, gelditu, ez... zuen aurrez aurre gelditu — Bai ordea alboko gelan.

SALADINO. Handik entzuteko? Hori ere ez, arreba; garaile atera behar badinat. — Alde, alde! Gortina mugitu dun; badator! Ez hadi hor gelditu! Ikustera noa.

(Sittah ate batetik ateratzen den bitartean, Nathan sartzen da beste batetik; eta Saladino eseri egin da).

BOSGARREN ESZENA

Saladino eta Nathan

SALADINO. Hurbildu hona, judua! — Gehiago! — Hona ondoraino! Beldurrik gabe!

NATHAN. Hori bego zure etsaiekin!

SALADINO. Nathan deitzen haiz?

NATHAN. Bai.

SALADINO. Nathan jakintsua?

NATHAN. Ez.

SALADINO. Ez noski! hi ez haiz deitzen; herriak deitzen hau.

NATHAN. Baliteke; herriak!

SALADINO. Ez duk pentsatuko bada, nik mespretxuz erizten diodala herriaren ahotsari? — Aspaldidanik nian gogoia herriak jakintsu deitzen duen gizona ezagutzeko.

NATHAN. Eta isekaz hala deituko balute? Herriaren ustez, jakintsua zuhurra baino ez balitz? Eta zuhurra, berriz, bere buruaren mesedetan dabilena bakarrik?

SALADINO. Bere buruaren egiazko mesedetan esan nahi duk noski?

NATHAN. Orduan egoistena huke zuhurrena. Orduan, zuhurra eta jakintsua gauza bera hituzke, noski.

SALADINO. Kontraesan nahi duana frogatzen entzuten diat. Herriak ezagutzen ez duen gizakiaren benetako abantaila ezagutzen duk hik. Edo ezagutzen saiatu haiz gutxienez; horretaz gogoeta egin duk: horrek berak dagoeneko egiten dik bat jakintsu.

NATHAN. Bakoitzak izan uste duena.

SALADINO. Aski diagu apaltasunetik! Izan ere, denbora gutxian hori entzuteak, arrazoi soila espero denean, nazkatu egiten du.

(*Aulkitik jauzi egiten du*). Goazen hariral Baina, baina zintasunez, judua, zintasunez!

NATHAN. Sultan, nik hi zerbitzatu nahi haut halako moduan, non hire bezeroen artean segitzeko duin izan nadin.

SALADINO. Zerbitzatu? Nola?

NATHAN. Hik guztietatik onena izan behar duk; preziorik merkenean izan behar duk gainera.

SALADINO. Zertaz mintzo haiz? Ez, noski, hire merkagaiez? — Tratuak hirekin, nire arrebak egingo ditik. (Hau kuxkuxkariarentzat!) — Nik ez zaukat zereginik saleroslearekin.

NATHAN. Orduan nik nire bidean berriro mugitzen hasi den etsaiari buruz sumatu edo ikusi dudana jakin nahiko duk, zalantzarik gabe? — Baldin nik argi eta garbi...

SALADINO. Horretan ere ni ez noak, hain zuzen ere, hirekin batera. Bazakiat nik horretaz behar hainbat. — Labur —

NATHAN. Agindu, Sultan.

SALADINO. Hire irakaskuntza erabat bestelako gauza batean eskatzen diat; alor erabat bestelako batean. — Hain jakintsua haizenez: esadak zein fedek, zein legek argitu hau gehien?

NATHAN. Sultan, judua nauk ni.

SALADINO. Eta ni musulamana. Kristaua zagok gu bion erdian. Hiru erlijio hauetatik batek baino ezin dik izan egiazkoa. — Hi bezalako gizon bat ez duk gelditzen mugitu gabe jaiotzak hala-beharrez bota duen lekuan: edo baldin gelditzen baduk, gelditzen duk onena ulertu, arrazoitu eta hautatu duelako. Ekin! Emaidak uler-tu duanaren berri. Esan nik aztertzeo astirik izan ez ditudan arrazoiak. Jakinarazi iezadak arrazoi horiek finkatzen duten hautaketa, konfiantzaz, noski, nire egin dezadan. Nola? Harritu egiten haiz? Begiaz neurtzen nauk? Litekeena da gisako kasketa duen lehen sultana izatea ni; kasketa hori, halere, ez zaidak iruditzen sultan baten-tzat desegokia. — Ez duk hala? — Hitz egin orduan! Esan! — Edo unetxo bat nahi duk pentsatzeko? Ongi; unetxo hori ematen diat. — (Entzuten egongo ote da? Zelatatu egingo dut; ondo egin dudan entzun nahi dut-). Ausnar ezak! Ausnartu azkar! Ez nauk berandu-tuko itzultzen.

(*Alboko gelara doa, lehenago Sittah joan den gelara, alegia*).

SEIGARREN ESZENA.

Nathan bakarrik

Jm! Jm! — harrigarria!- Zertan nago ni sartuta? — Zer nahi du sultanak? Zer? — Ni diruagatik nator; eta berak nahi du — egia. Egia! Eta nahi du — hain borobila, hain distiratsua —, egia txanpon bat balitz bezala! — Bai, baldin oraindik antzina-antzinako txanpona balitz sikiera, pisatzen zen horietakoa! — Oraindik! Baina gisako txanpon berri bat, zigilua bakarrik daukana, tabernan ordaintzeko baino balio ez duena, hori ez da inolaz egia! Dirua poltsan bezala, poltsaratuko litzateke egia ere buruan? Nor da hemen judua? Bera ala ni? — Baina nola? Ez luke eskatu beharko egiaz egia? — Zinez, zinez, berak egia amarru bezala erabiltzen duen susmoa, benetan txikiegia litzateke! — Txikiegia? — Zer da handi batentzat txikiegia? Hori da, hori da: ateak amilduz sartu zen etxean! Atean deitzen da, eta lehenbizi entzun egiten da, bat adiskide gisan datorrenean. — Kontu handiz ibili behar dut! — Eta nola? Nola hori? — Goitik behera judu izan nahi izatea, ez da egoki.— Eta erabat eta guztiz ez judu izatea, oraindik gutxiago. izan ere, inolaz judu ez banintz berak galde liezadake zergatik ez naizen musulman? — Horixe da! Honek salba nazake! — Ez haurrak bakarrik elikatzen dira ipuinez. — Badator. Datorrela, ba!

ZAZPIGARREN ESZENA

Saladino eta Nathan

SALADINO. (Hemen alorra garbi dagol) — Azkarregi itzuli nauk? Amaitu duk hire gogartea.— Orain hitz egin! Ez ziguk inork entzuten.

NATHAN. Berdin dio baldin mundu osoak entzuten baziguk ere.

SALADINO. Hain seguru zagok Nathan bere auziaz? Ah! Horri deitzen diot nik jakintsua! Egia ez ezkutatzea! Harengatik dena jokoan jartzea! Gorputza eta bizia! Ondasunak eta odola!

NATHAN. Bai, bai. Beharrezko eta baliozko denean.

SALADINO. Hemendik aurrera espero zezakeat, nire titulueta-ko bat, munduaren eta legearen hobetzailearena, eskubidez eramango diadala.

NATHAN. Titulu ederra, zinez! Halere, sultan, nire ustea guztiz hire eskuetan laga aurretik, zilegi izango al zaidak hiri ipuintxo bat kontatzea?

SALIDINO. Zegatik ez? Beti izan nauk ondo kontaturiko ipui-nen zale.

NATHAN. Bai, *ondo* kontatzea, ez duk hori egiaz nire trebezia.

SALADINO. Berriri hain harro umila? Ekin! Kontatu, kontatu!.

NATHAN. Aspaldiko urtetan bizi huen ekialdean gizon bat, esku maite batetik jaso zian neurtu ezinezko balioa zuen eraztun bat. Harria opalo bat huen, ehun kolore eder jokutzen zituena eta uste horretan eramaten zuena jainkoaren eta gizonen aurrean begiko egiteko ahalmena zuena. Ez da harritzeko beraz, baldin ekialdeko gizonak eraztuna atzetik kentzen ez bazuen eta betiko bere etxean edukitzeko erabakia hartu bazuen? Gisa honetan, hain zuzen ere. Eraztuna semen artean kutunenari utzi zion; eta agindu zuen honek bere aldetik eraztuna maiteen zuen semeari utziko ziola; eta beti maiteena, jaiotza kontuan hartu gabe, eraztunaren indarrez bakarrik, etxeko buru, printze izango zela. Ulertzen didak, sultan?

SALADINO. Ulertzen diat. Segi!

NATHAN. Hala iritsi huen eraztun hori, semez seme, azkenik hiru seme zituen aita batengana; hirurak zituan neurri berean esaneko, eta ondorioz hiruak neurri berean maite zitian aita. Aldian-aldean bakarrik iruditzen zitzaioan orain hau, hurrengo hura, azkenik hirugarrena —hiruetako bakoitza berarekin bakarka aurkitzen zenean eta beste biek bera bihotzaren isurietan parte hartzen ez zutenean — zela eraztunaren duinena; eta bakoitzari eraztuna agintzeko ahulezia eduki zian. Hala joan hituen gauzak, luzaz joan hituen era honetan.— Baina iritsi huen heriotzako ordua, eta aita onbera zalantzan zagok. Min ematen zioke bere hitzaz fidatu zituan bi seme era horretan atsekabetu beharrak — Zer egin, orduan? Artista batengana jotzen diki ezkutuan eta beste bi enkargatzen zizkiok bere eraztunaren arabera, eta agintzen zioke ez kostuari ez nekeari begiratzeko haren berdinak, era-

bat berdinak egiteko. Hala lortu ere lortzen dik artistak. Eratzunak ekartzen dizkionean, aitik berak ezin dik bereizi jatorrizko eratzuna. Gogatsu eta pozik deitzen ziek bere semeei, bakoitzari bere aldetik; bakoitzari ematen ziok bereiziki bere bedeinkazioa, — eta bere eratzuna, — eta hil egiten duk.— Entzuten duk, ez da, sultan?

SALADINO (*Hunkiturik, harengandik apartatzen delarik*). Entzuten diat! — Bukatu azkar hire ipuina.— Bale?

NATHAN. Bukatu diat. Oraindik geratzen dena, izan ere, berez ulertzen duk. — Aita hil bezain laster, han zatorrek bakoitza bere eratzunarekin, eta bakoitzak izan nahi dik etxeko printze. Ikertu, eztabaidatu, arranguratu: dena egiten ditek. Alferrik; ezin erabaki daiteke egiazko eratzuna; —

(*Sultanaren erantzunaren zain egindako geldialditxo baten ondoren*) Kasik hain ezin erabakia, guretzat orain — egiazko fedea den bezala.

SALADINO. Nola? Eta hori duk nire galderaren erantzuna?

NATHAN. Ni zuritu behar nauk, inolaz, ni ez naizelako ausartu bereizten aitik, bereizi ezin zitezen, eginarazi zituen eratzunak.

SALADINO. Eratzunak! — Ez ibili jolasean nirekin! Nik uste nian aipatu nitian erlijioak beren artean bereizi zitezkeela. Jantzian bertan; janarietan eta edarietan!

NATHAN. Baina beren oinarrien aldetik ez.— Ez al dituk, bada, guztiak historiaren gainean oinarritzen? Idatziaren edo ahoz helaraziaren gainean! — Eta historia ez al duk onartu behar konfiantzaz edo fedez bakarrik? — Ez? — Baina noren konfiantza eta fedea jartzen dituk gutxien zalantzan? Bakoitzaren leinukoena, ezta? Gure odol berekoena? Hautzaroaz geroztik beren maitasunaren probak eman dizkigutenena? Engainatuak izatea hobe zenean bakarrik engainatu gintuztenena? — Nola sinets ziezaieket nire gurasoei hik hireei baino gutxiago? Edo alderantziz. — Hiri eska al diezaiaket hik hire arbasoen gezurrak gezurta hitzaan, nireenak kontraesan ez ditzaten? Edo alderantziz. Gauza bera balio dik kristauentzat ere. Ez duk hala?

SALADINO. (Bizidunaren izenean! Arrazoi dik gizonak. Isildu egin behar diat).

NATHAN. Gatozen berriro gure eraztunetara. Esan bezala: semeek auzitara jo zitean; eta bakoitzak zin egin zioan epaileari, aita-ren eskutik zuzenean jaso ziala eraztuna.— Eta egia huen! Aspaldidanik baitzeukan promesa eraztunaren pribilejioa egunen batean gozatuko ziala.— Eta ez zen hori egia txikiagoa! — Aitak, azpimarratzen zian bakoitzak, ezin zian izan gezurti berarekin; eta horren susmoa harengandik, aita maitearengandik goganbehartu baino lehen, bere anaiei aurpegiratu behar ziek joko zikina, bestela haiengatik onena bakarrik gustura sinetsiko balu ere; eta berak traidorea aurkitu duela eta segituan mendekatu.

SALADINO. Eta orduan, epaileak? — Badiat gogoia entzuteko epaileari zer esanarazten dioan. Mintza!

NATHAN Epailea mintzatu zen: baldin zuek ez badidazute ekartzen zuen aita segituan hona, auzitegitik bota egingo zaituztet. Asmakariak asmatzeko nagoela uste duzue, ala? Edo egiazko eraztunak ahoa ireki arte itxarongo duzue? — Baina zaudete! Egiazko eraztunak maitatua izateko ahalmen miragarria duela entzun dut; Jainkoaren eta gizonen aurrean begiko izateko. Horrek erabakiko du. Izan ere, gezurrezko eraztunek ezin egin ahal izango dute hori! — Orduan, nor maite dute gehien zuetako bik? — Ekin, aitortu! Isildu egiten zarete? Atzeraka bakarrik dute eragina eraztunek? Eta ez kanporaka? Zuetariko bakoitzak bere burua bakarrik maite du gehien? — Oh, orduan hiruok zarete engainatzaile engainatuak! Zuen hiru eraztunak ez dira egiazkoak guztiak. Egiazko eraztuna galdu egin zen ziu-rrenera. Galera ezkutatzeke, ordezkatzeko, baten ordezkari egiteko agindu zuen aitak.

SALADINO. Bikaina! Benetan bikaina!

NATHAN. Hala, bada, jarraitu zian epaileak, nire epaiaren ordezkari aholkua nahi baduzue: zoazte! — Baina hona nire aholkua: har ezazue gauza dagoen bezala. Zuetako bakoitzak aitarengandik hartua du bere eraztuna: hala uste du bakoitzak bere eraztuna dela egiazkoa. — Litekeena da aitak eraztun baten tirania bere etxean luza-roago jasan nahi ez izatea! — Eta gauza ziurra da berak zuek hiruok maite zintuztetela, eta neurri berean maite ere: ez baitzuen nahi bi zapaltzea, bat nabarmentzeko. — Hara, bada! Saia bedi bakoitza haren maitasun aurreiritzietatik librea imitatzen! Ahalegin bedi zuetako bakoitza bero harrian dagoen indarra egun argitara ateratzen! Betor

laguntzera indar hori samurtasunarekin, bihotzezko eroapenarekin, egite onekin, Jainkoarekiko menpekotasun barnenekoarekin! Eta baldin harriaren ahalmena azaltzen bada zuen haurren haurren haurretan, nik deitzen zaituztet hemendik milaka eta milaka urtetara auzitegi honen aurrera. Orduan ni baino gizon jakintsuago bat egongo da eserita aulki honetan, eta hark hitz egingo du. Zoazte! Hala mintzatu huen epaile apala.

SALADINO. Jainkoa! Jainkoa!

NATHAN. Saladino, baldin uste baduk hi haizela aginduriko gizon jakintsuago hura...

SALADINO. (*Haren gainera jausten delarik, eta azkeneraino askatuko ez duen haren eskua hartuz*). Ni, hauts hau? Ni, ezerez hau? Oh, Jainkoa!

NATHAN. Zer gertatzen zaik, sultan?

SALADINO. Nathan, Nathan maitea! — Hire epailearen milaka eta milaka urteak ez dituk pasatu oraindik. Haren epaile-aulkia ez duk nirea.— Hoa! — Hoa! — Baina izan hadi nire adiskide.

NATHAN. Eta Saladinok ez zeukan beste ezer niri esateko?

SALADINO. Ezer ez.

NATHAN. Ezer ez?

SALADINO. Ezertzo ere ez. — Eta zergatik?

NATHAN. Hiri eskakizun bat egiteko aukera eduki nahi nikek oraindik

SALADINO. Aukera bat behar duk niri eskakizun bat egiteko? —Mintza!

NATHAN. Bidaia batetik iritsi nauk, non zorrak kobratu ditudan. Dirutan kasik gehiegi zaukaat.— Garaia kezkatzekoa bihurtzen ari duk berriro; — eta ez diat asmatzen leku seguru bat non ipini.— Orduan pentsatzen nian ea hik beharbada, — gerra hurbil batek diru gero eta gehiago behar izaten duenez, zerbait beharko ote hukeen.

SALADINO. (*Begietara irmo begiraturaz*) Nathan! Ez diat galdetu nahi Al-Hafî dagoeneko hirean egon ote den; — ez diat ikertu nahi ea bestela errezelo batek bultzatzen hauen eskaintza hori hire borondatez niri egitera...

NATHAN. Errezelo batek?

SALADINO. Merezia zaukaat. — Barkatu niri! — zer axola dio? Aitortu behar diat, — baniala nik asmoa —

NATHAN. Ez huen izango, bada, gauza bera niri eskatze-koa?

SALADINO. Bai horixe.

NATHAN. Orduan biori datorkigu ondo! — Baina nire dirutza guztia hiri bidali ezinaren arrazoia tenplarioa gaztea duk.— Ezagutzen duk jada bera. — Mesede handi bat ordaindu behar zioat oraindik.

SALADINO. Tenplarioari? Ez diok, bada, lagundu nahiko nire etsairik okerrenari hire diruaz?

NATHAN. Hik bizitza barkatu hion horri buruz ari nauk...

SALADINO. Ah! Hori gogorarazten didak — Gaztetxo hori erabat ahaztuta neukan! — Hik ere ezagutzen duk? Non zagok?

NATHAN. Nola? Orduan hik ez dakik harekiko hik izan duan graziagatik zenbat isuri den haren bidez nire gainera? Berak, berak bizitza hartu berria arriskuan jarritz, nire alaba salbatu zian sutatik.

SALADINO. Berak? Berak egin dik hori? — Ah! Bazeukan horren itxura. Nire anaiak, noren hain antza handia daukan, hark ere gauza bera egingo zian seguru — Oraindik hemen duk orduan? Ekarri segituan hona! — Nik hainbeste gauza kontatu zizkioat nire arrebari berak ezagutu ez zuen bere beste nebari buruz, non haren irudi bizia erakutsi behar bainion! — Hoa, ekarri bera! — Nola egintza on bate-
tik, nahiz grina soil batetik jaioa izan, sortu diren, gero, beste egintza on asko! Hoa, ekarri gizona hona!

NATHAN (*Saladinoren eskua askatzen duelarik*). Oraintxe bertan! Eta besteari dagokionez, esandakoan geratzen gaituk? (*Kanpora*)

SALADINO. Ah, eta nik utzi ez entzuten nire arrebari! Harengana! Harengana — Nola konta diezaioket, izan ere, guztiau? (*Irten beste aldetik*)

ZORTZIGARREN ESZENA

(Eszenatokia: Palmondoen azpian, komentutik hurbil, Tenplarioa Nathanen zain dagoen lekuan)

TENPLARIOA. (*Gora eta behera dabil, bere buruaz borrokan; azkenik lehertzen den arte*) — Hemen gelditzen da opagaia unaturik. — Beno, bada! Nik ez dut nahi, ez dut jakin nahi gehiago zer gertatzen zaidan: ezin dut aldeztu aurretik usnatu nahi zer gertatuko den. — Aski da, alferrik ihes egin dut! Alferrik. — Baina, zer egin *nezakeen* nik, ihes egin baino? — Orain betor etorri beharrekoa — Hari itzurtzeko, kolpea azkarregi iritsi zen; luzaz eta biziki aurka egin nion haren azpian jartzeari. — Neska ikusi, nik hura ikusteko irrika hain gutxi nuenean, — bera ikusi, eta segituan begietatik ez gehiago galtzeko erabakia — Zer erabaki, gero? Erabakia asmoa da, egintza: eta nik, nik jasan egin dut, jasan baino ez. — Bera ikusi eta berarengan korapilatua, berarengan ehuna nintzela sentitzea, bat izan zen. — Bat da oraindik. — Pentsa-ezinezkoa egiten zait berarengandik aparte bizitzea; nire heriotza litzateke, — eta heriotzaren ondoren egongo garen lekua edozein izanda ere, han ere nire heriotza litzateke. — Baldin hau maitasuna bada, zaldun tenplarioak maitatu egiten du noski, kristauak neska judua maite du noski. — Jm! Zer egingo dugu, ba? — Agindutako lurraldean, — eta horregatik hain zuzen betiko *agindua* zait! — aurreiritzi asko utzi ditut. — Zer nahi du nire ordenak berak? Tenplarioa bezala hilda nago; Saladinoren preso egin nintzen une beretik nago hilda ordenarentzat. Saladinok erregalatu zidan burua, nire lehengo bera da? — Berri bat da; hari kalakatu zitzaion, hura ertsi zuen guztitik ezer ez dakiena. — Eta hobe da; aitaren zerurako gehiago egina. Hala igartzen dut nik egiaz. Izan ere, harekin hasi naiz pentsatzen nire aitak hemen pentsatu bide zuen bezala; baldin berari buruz gezurrezko ipuinak kontatu ez badizkirate. — Ipuinak? — Baina guztiz sinesgarriak; ez zaizkit iruditu orain baino sinesgarriagoak, bera erori zen lekuan ni ere estropezu egiteko arriskuan nagoenean. — Erori egin zen? Nahiago dut gizonekin erortzea, haurrekin zutik egotea baino. — Bere ereduak bermatzen dit bere onespena. Eta noren onespena axola dit bestela? — Nathanena? Horren onespena baino gehiago alimoa bera ez zait faltako. — Hori judua, hori! — Eta judu baino azaldu nahi ez duena, gainera! Hortxe dator bera;

presaka dator; poz zohardiz gainezka. Nor etorri beste gisa batean Saladino ikusita? — Eh! Eh, Nathan!

BEDERATZIGARREN ESZENA

Nathan eta tenplarioa

NATHAN. Nola? Berori da?

TENPLARIOA. Luzaz oso egon da berori Sultanarekin

NATHAN. Ez hain luzaz ere. Hara joaterakoan luzatu naiz gehiegi. — Ah, egiaz, Curd; bere ospearen pareko da gizona. — Bere itzala baino ez da bere ospea. Baina ezer baino Iehen zilegi bekit berorri gauza bat segituan esatea...

TENPLARIOA. Zer?

NATHAN. Berorrek hitz egin nahi du; berorri berandutu gabe berarengana joan dadin nahi du. Lagun egin biezait etxeraino, han, oraindik beste zerbait antolatu behar baitut beretzat: eta orduan elkarrekin joango gara.

TENPLARIOA. Nathan, nahiago dut ez sartzea berriro berorren etxean...

NATHAN. Orduan, bitartean, han egona da berori? Eta? — Esan: zer iruditu zaio Reha?

TENPLARIO. Ez dago hitzik esateko! — Baina, — berriro bera ikusi — hori ez dut nik egingo! Ez! Ez! Oraintxe bertan agindu beharko dit berorrek: — nik bera beti, beti — ikusi ahal izango dudala.

NATHAN. Nola ulertu behar dut nik hori?

TENPLARIOA. (*Geldialditxo labur baten ondoren, bat-batean hura besarkatuz*). Nire aita!

NATHAN. Gazte!

TENPLARIOA. (*Lehen bezain bat-batean askatuz*). Ez seme? Mesedez eskatzen diot Nathan!

NATHAN. Gazte maite!

TENPLARIOA. Seme ez? — Mesedez eskatzen diot Nathan! — Naturaren lehen loturen izenean arren eskatzen diot! Ez hobetsi

haiei geroagoko diren eragozpenak! — Izan beza aski gizon bat iza-
nez! Ez biezait ohildu berorrendik!

NATHAN. Adiskide maite, maite!...

TENPLARIOA. Eta seme? — Seme ez? Ezta ere, ezta inolaz
esker onak maitasunari bidea ireki badio ere berorren alabaren biho-
tzera? Ezta inolaz baldin biek berorren keinu bat espero badute ere bat
egin daitezen? — Isildu egiten da?

NATHAN. Harritu egiten nau, zaldun gazte.

TENPLARIOA. Harritu egiten dut berori? — Nik harritu bero-
ri, Nathan, berorren pentsamenduekin beraiekin? — Ez zaizkio, bada,
ezezagun gertatuko nire ahoan? — Nik harritzen dut berori?

NATHAN. Aurrez jakin behar dut zein Stauffen adarreko zen
berorren aita!

TENPLARIOA. Zer dio berorrek, Nathan? Zer? Une honetan
jakin-mina baino ez du sentitzen berorrek?

NATHAN. Hara, izan ere! Lehenago ezagutu nuen nik Stauffen
bat, Conrad zeritzona.

TENPLARIOA. Beno — eta baldin nire aita horrela deitzen
bazen?

NATHAN Benetan?

TENPLARIOA. Nire aitarengatik deitzen naiz ni horrela: Curd
Conrad da.

NATHAN. Orduan, nire Conrad hori ez zen zure aita, noski.
Nire Conrad hori berori dena zen: tenplarioa; ez zen ezkondu sekula.

TENPLARIOA. Oh, horregatik bada!

NATHAN. Nola?

TENPLARIOA. Oh, horregatik berdin izan zitekeen nire aita.

NATHAN. Bromatan ari da berori.

TENPLARIOA. Eta berorrek hertsiegi hartzen du hori! —
Baina, azken batean, zer? Sasikoa edo isilumea edo, izango nintzate-
keela! Kolpea ez da kontuan ez hartzekoa ere. — Egiaz askatu egiten
nau beti nire odol-garbitasun frogatik. Nik nire aldetik berorrenetik
askatzen dut berori. Ez noski, nik berorren belaunzugaitzean inolako
zalanzarik ipintzen dudalako. Jainkoak anpara! Berorrek orriz orri

egiazta dezake Abrahamganaino. Eta handik aurrera, neuk ere ezagutzen dut; nik neuk gogoraziko dut.

NATHAN. Erretxinduta jartzen ari da berori. — Baina merezi al dut nik halakorik? Ukatu al diot, bada, nik ezer orain arte? — Ez nion nik berorri une honetan bertan hitza hartu nahi. Besterik ez.

TENPLARIOA. Egiaz? — Besterik ez? Oh, barkatu orduan...

NATHAN. Baina betor, betor!

TENPLARIOA. Nola? Ez! — Berorrekin berorren etxera? Hori ez! Hori ez! — Han erre egiten da bat! Hemen itxarongo diot. Bihoa! — Ikusi behar badut, nahikoa sarri ikusiko dut oraindik. Ikusi behar ez badut: nahikoa eta gehiegi ikusi dut dagoeneko...

NATHAN. Ahalik eta azkarren ibiliko naiz.

HAMARGARREN ESZENA

Tenplarioa eta handik gutxira Daia

TENPLARIOA. Nahikoa eta gehiegi dagoeneko! — Gizakiaren buruak neurririk gabe hartzen du; baina batzuetan kolpetik geratzen da bete-bete eginda! Txikikeria batez bat-batean bete-bete eginda! — Alferrik da, alferrik da; edozer delarik ere betetzen duena. — Baina, beno, pazientzia! Arinak segituan estutzen du material puztu hori guztia, leku egiten du, eta argia eta ordena itzultzen dira berriro. Lehen aldia al da, bada, maitatzen dudana? Edo nik maitasun bezala ezagutzen dudana, ez zen maitasuna? — Orain sentitzen dudana bakarrik ote da, bada, maitasuna?

DAIA (*Alde batetik isil-isilik sartu delarik*). Zaldun! Zaldun!

TENPLARIOA. Nork deitzen du? — Ah, Daia, berori?

DAIA. Isil-isilik pasatu naiz haren ondotik. Baina oraindik ikus gaitzake berori dagoen lekuan — Horregatik hurbildu niregana, arbola honen osterara.

TENPLARIOA. Zer gertatzen da, bada? Hain misteriozko da? Zer da?

DAIA. Bai, badu zerikusirik sekretu batekin berorregana nakarrenak; eta bikoitz batekin gainera. Bata nik bakarrik dakit; bes-

tea berorrek bakarrik daki.— Zer iruditzen zaio, elkarrekin trukatuko bagenu? Esan niri berorrena, eta nik esango diot nirea

TENPLARIOA. Pozik. — Baina lehenbizi jakin behar dut zein uste duen berorrek dela nirea. Baina hori berorrenaren bidez argituko da. Has bedi beraz.

DAIA. Hara, orratio! — Ez, zaldun jauna: lehenbizi berori; ni ondoren. Izan ere, seguru da nire sekretuak ez dizula ezertarako balio-ko, baldin nik aurrez berorrena ez badut ezagutzen. — Orain azkar! Izan ere, hasten banaiz ni galdetzen, orduan ez zenidakeen ezer esango. Orduan nire sekretua nire sekretua litzateke betiere; eta berorrena galdu egingo luke berorrek. — Baina, zaldun errukarria! Zuek gizonok uste izatea ere gisako sekretu bat gu, emakumeon aurrean, eduki zenezaketela!

TENPLARIOA. Guk geuk sarri badaukagula jakin ere ez daki-gularik.

DAIA. Litekeena da. Horregatik eduki behar dut lehenbizi berorren sekretua ezatzeko adiskide-legea. — Esan: Zer esan nahi du berori kolpetik desagertu zela? Bertan ez nora ez hara gu utzita? — Berori orain Nathanekin ez etortzea? — Hain eragin eskasa izan zuen Rehak berorrenan? Edota, gehiegi? — Gehiegi! Gehiegi! — Likatan itsatsirik, hegoei eragiten dien txori errukarria bezala ikusten dut berori! — Labur: aitortu niri oraintxe segituan, berorrek bera maite duela, erotzerairo maite; eta gauza bat esango diot ...

TENPLARIOA. Erotzeraino? Egiaz, berori zinez aditua da horretan.

DAIA. Orduan, aitor biezait maitasuna; erotzea barka diezaio-
ket.

TENPLARIOA. Hori berez ulertzen delako? — Tenplarioa batek neska judu bat maitatzea!...

DAIA. Badirudi zentzu gutxi daukala — Baina batzuetan gauza batek guk uste baino zentzu gehiago izan ohi du; eta ez litzate-ke ezta ere entzungabea, Salbatzaileak gu, zuhurak berez erraz har-
tuko ez lituzkeen bideetatik berarengana erakartzea.

TENPLARIOA. Hau guztia hain handikiro? (Eta salbatzailea-
ren ordezkari probidentzia esan izar balu: ez luke arrazoirik?) — Ni izan ohi naizena baino jakingurago egiten nau berorrek.

DAIA. Oh, hau mirarien lurraldea da!

TENPLARIOA. (Baina! — miragarriarena. Izan al daiteke, bada, bestela? Mundu guztia hona inguratzen da.) — Daia maitea, hartu onartutzat berorrek eskatzen duena: nik maitatzen dudala, alegia; nik ez dudala ulertzen nola biziko naizen berarekin; ni...

DAIA. Benetan? Benetan? — Orduan, hitz eman biezait, zalduna, berorren arteko egingo duela bera; hura salbatu egingo duela; hemen denboran eta han betiko salbatuko duela.

TENPLARIOA. Eta nola? Nola eman dezaket nik hori? Zin egin al dezaket nire ahalmenetan ez dagoena?

DAIA. Berorren ahalmenetan dago hori. Hitz bakar baten bidez ekarriko dut berorren ahalmenen mendera.

TENPLARIOA. Aitak berak horren kontra ezer ez izateko moduan?

DAIA. Eh, zer aita eta zer aita ondol Aita behartuta geratuko da.

TENPLARIOA. Behartuta, Daia? Ez da erori oraindik lapurren eskutan. Ez du egon behar behartuta.

DAIA. Baina, hala nahi beharko du; azkenean pozik nahi beharko du.

TENPLARIOA. Behar eta pozik! — Baina, Daia, esaten badiot ni ere ahalegindu naizela soka hori jotzen?

DAIA. Zer? Eta ez zuen nahi izan?

TENPLARIOA. Ni mindu ninduen ahots txar batekin atera zen.

DAIA. Zer esaten bu berorrek? — Nola? Reharenganako desioaren itzal bat baino ez zion berorrek hari erakutsi, eta ez zen hasi pozarren jauzika? Guztiz hotz itzuli zitzaion? Zailtasunak jarri zizkion?

TENPLARIOA. Hala, gutxi gorabehera.

DAIA. Orduan ez dut une bat gehiago gogoetatu nahi — (*geldialditxo*)

TENPLARIOA. Gogoetatu egiten du oraindik berorrek?

DAIA. Hain ona baita gizona bestelal — Nik neuk ere, hainbeste zor diot! — Ez duela ezertxo ere entzun nahi! — Jainkoak daki bihotza odoletan daukadala bera era horretan derrigortzeko.

TENPLARIOA. Arren eskatzen diot, Daia, atera biezait azkar eta ondo zalantza horretatik. Baldin, ordea, berori seguru ez badago egin nahi duena ona den edo txarra, kaltegarria edo mesedegarria, isildu! Nik ahaztuko dut berorrek bazuela isildu beharreko zerbait.

DAIA. Horrek zirikatu egiten du, eutsi ordeaz. Orduan, jakin beza: Reha ez da judua; — kristaua da.

TENPLARIOA. (*Hotz*) Bai? Zorionak! Nekeza gertatu zaio? Ez zaitzatela izutu erdiminek! — Segi sutsu zerua populatzen, lurra gehiago populatu ezin duzunez!

DAIA. Nola, zalduna? Nire albisteak burla hori merezi al zuen? Reha kristaua dela, horrek ez du pozten bera maite duen kristau bat, tenplarioa bat?

TENPLARIOA. Bereiziki, berorren egiturako kristau bat denean.

DAIA. Ah! Horrela ulertzen bu berorrek? Horrela, litekeena da! — Ez! Nik ikusi egin nahi dut, hura konbertituko duena! Bere zoria da, aspaldidanik jada berari izaten eragotzi diotena.

TENPLARIOA. Argitu hori, edo — joan!

DAIA. Kristauen alaba da; guraso kristauengandik jaioa; bataiatua dago...

TENPLARIOA. (*Presaka*) Eta Nathan?

DAIA. Ez da bere aita!

TENPLARIOA. Nathan ez dela bere aita? — Badaki berorrek zer ari den esaten?

DAIA. Egia, niri sarri odolezko malkoak isurarazi dizkidana.— Ez, ez da bere aita...

TENPLARIOA. Eta bere alaba bezala hezi zuen? — Ez zuen Nathanen ahotik jakin, kristau jaio zela, eta ez judu?

PAJA. Ez!

TENPLARIOA. Orduan, ez bakarrik hezi zuen neskatxa okerreko iritzi horretan, baizik areago okerreko iritzi horretan utzi zuen neska?

DAIA. Tamalez!

TENPLARIOA. Nathan — Nola? — Nathan jakintsu eta onak bere esku hartuko zukeen naturaren ahotsa gisa horretan faltsutzea?

— Bihotz baten gehiegia halako gisan desbideratzea non, bere hartan utzirik, bide erabat bestelakoak hartuko zituen? — Daia, egiaz gauza bat esan dit berorrek — garrantzizkoa—, ondorioak izan ditzakeena, ni nahasten nauena, eta zeinekin nik zer egin ez dakidana. Utzi niri astia, beraz. Joan, horregatik! Hemendik barna pasatuko da berriro. Harrapa egin gaitzake. Joan!

DAIA. Hiltzeko nago!

TENPLARIOA. Orain ez gauza naiz erabat berarekin hitz eginge. Baldin bidean harekin topo egingo balu, esan Sultanarenean ikusiko dugula elkar.

DAIA. Baina ez utzi igartzen berorrek bere kontra ezer due-nik.— Horrek azken bultzada eman behar dio auziari; Rehari dago-kionez, eskrupulu guztiak kendu behar dizkio berorri! — Baldin orduan neska Europara eramaten badu, ez al nau ni hemen utziko?

TENPLARIOA. Hori ikusiko da. Orain, joan, joan!

LAUGARREN EKITALDIA

LEHEN ESZENA

Eszenategia: Komentuko klaustroetan.
Fraidea eta segituan ondoren Tenplarioa.

FRAIDE. Bai, bai! Arrazoi osoa dauka patriarkak! Egia da, nire esku ipini zituen gauzetatik asko ez direla ondo atera. — Baina zergatik segitzen du gisako gauzak nire eskuetan ipintzen? — Ez dut gustuko fina izatea; ez dut gustuko inoren buruan ezer sartzea; ez dut gustuko nire sudurtxoak alde guztietan sartzea; ez dut gustuko eskuak alde guztietan sartuta edukitzea. Horregatik alde egin nuen mundutik, ni niretzat, ni gainerakoentzat munduan berriro zinez nahasteko?

TENPLARIOA. (*Presaka harengana hurbilduz*). Anaia ona! Hemen dago berori, bai. Aspaldi nenbilen berorren bila.

FRAIDE Nire bila, jauna?

TENPLARIOA. Ez nau gehiago ezagutzen?

FRAIDE. Bai, bai! Nik uste nuen, ordea, nik ez nuela berriro ikusiko jauna nire bizitza guztian. Hala espero nuen Jainko onarengan.

— Jainko onak, horrek ondo daki zein mingarri zitzaidan jaunarekin bete behar nuen egitekoa. Berak daki ea nik berorren gan aurkitu nahi nuen belarri ireki bat; berak badaki nola poztu nintzen barne-barnetik poztu ere, berorrek, asko pentsatu gabe, zaldun bati ez dagokion guztia berorrengandik argi eta garbi urrundu zuelako.— Orain ordean, berori etorri egin da; hark egiaz bere eragina izan du!

TENPLARIOA. Berorrek badaki, orduan, zergatik natorren? Nik neuk ez dakit.

FRAIDE. Orain egin duzu gogoeta horretaz; konturatu zara patriarkak ez zuela arrazoi faltarik; ohorea eta dirua irabaz daitezkeela bere egitasmoarekin; etsaia etsaia dela, zazpi bider gure aingeru izan bada ere. Hauxe, hauxe neurtu du berorrek berorren erraiekin, eta etorri eta burua eskaintzen du.— Ai, Jainkoa!

TENPLARIOA. Nire gizon jaieratsu eta maitea! Lasai bedi. Ez nator horregatik; ez diot mintzatu nahi patriarkari horregatik. Oraindik, oraindik puntu horretan lehen pentsatu nuen bezala pentsatzen dut nik, eta munduan ezergatik ez nuke hondatu nahi gizon zintzo, jaieratsu eta maite batek nigatik zuen iritzi ona.— Patriarkari gauza bati buruz kontseilua eskatzera baino ez nator...

FRAIDE. Berorrek patriarkari? Zaldun batek, apaiz... narras bati? (*lotsor ingurura begiraturaz*)

TENPLARIOA. Bai; arazoa nahikoa klerikala da.

FRAIDE. Ordainetan apaizak ez dio galdetzen zaldunari, auzia zaldunekikoa izanda are.

TENPLARIOA. Berak arauak hausteko eskubide bereizia duelako; guk apenas inbidiatzen diogun eskubidea bestalde. — Egiaz, baldin nik niretzat bakarrik egin beharko banu; egiaz, baldin nire buruari bakarrik kontu eman behar banio: zertarako beharko nuke berorren patriarka hori? Baina gauza jakin batzuek nahiago egin nahi ditut gaizki, beste batzuen borondateari jarraiki, nireari bakarrik jarraiki ondo baino. — Gainera ondo ikusten dut orain erlijioa partidu ere badela; eta nahiz batek uste bera gorago egonik partidu gabea dela, berak jakiteke, halere bereari laguntzen dio. Hau horrela denez gero: hala izan beharko du izan ere.

FRAIDE. Horri buruz hobe dut isiltzea. Ez baitiot zuzen ulertzen jaunari.

TENPLARIOA. Eta hala eta guztiz ere! — (Ikus dezagun, zergatik egiaz egin behar dudan! Azken epaia edo aholkua izateko? — Aholku arrunta edo aditua izateko?) — Eskertzen diot, anaia; esker-tzen diot albertentzi onagatik. — Zer patriarka? — Izan bedi berori nire patriarka! Nik nahi dudana gehiago baita kristauari patriarkan galdetzea patriarkari kristauan baino.— Kontua da...

FRAIDE Ez segi, jauna, ez segi! Zertarako? — Jaunak ez nau ezagutzen. Askok dakienak kezka asko ditu; eta nire ohorea kezka bat baino ez izatea da. — Oh, ondo! — Entzun! Ikus! Han dator, nire pozerako, bera. Gelditu hementxe. Dagoeneko ikusi du berori-

BIGARREN ESZENA

Patriarka, elizako ponpa guztiaz klaustrora sartzen delarik, eta aurrekoak.

TENPLARIOA. Hobe dut albo batera egiten banaiz. — Ez dirudit gizon egokia! — Prelatu gizen, gorri, adiskidetsua! Eta zelako arrandia!

FRAIDE. Gortera igotzen denean, orduan ikusi beharko luke! Gaixo bat ikustetik baino ez dator orain.

TENPLARIOA. Nola ez da, bada, lotsatuko Saladino, hau ikusita!

PATRIARKA. (*Hurbiltzen ari delarik, keinu bat egiten dio fraideari*). Hona! — Hau da, noski, tenplarioa. Zer nahi du?

FRAIDE. Ez dakit.

PATRIARKA (*Harengana hurbilduz, fraidea eta segizioa apartatzen direlarik*) Eta zaldun jauna! Biziki pozten naiz gazte bipi-la ikustean! Ai, eta hain gaztea oraindik! Egiaz, Jainkoaren laguntzaz hortik zerbait atera anal izango da.

TENPLARIOA. Nekez, Jaun ohoretsua, dagoeneko atera dena baino gehiago. Agian gutxiago.

PATRIARKA. Gutxienez desiratzen dut ezen gisako zaldun jaierratsu bat oraindik luzaz loratu eta joritu dadin kristautasun maite-aren eta Jainkoaren ohore eta mesederako! Horrek ez du huts egingo, baldin adore gazteak zahartzaroaren aholku umotua segi nahi badu! — Zerekin zerbi dezaket bestela jauna?

TENPLARIOA. Nire gaztetasunari falta zaionarekin, hain zuzen: aholkuarekin.

PATRIARKA. Atsegin handiz! — Baina aholkua onartu ere egin behar da.

TENPLARIOA. Itsu-itsuan, ordea, ez?

PATRIARKA. Jainkoak berari eman dion adimena ez du inork utzi behar erabili gabe, noski, — hala behar denean.— Baina, hala behar al du aukera guztietan? — Oh, ez! — Adibidez: Jainkoak bere aingeruetako baten bidez, — esan nahi baita, bere hitzaren zerbitzari baten bidez, — aintzat hartzen duenean kristautasun osoaren aurrerapena, elizaren salbazioa, nolabaitoko modu bereizi batean sustatzeko, sendotzeko bide bat ezagutaraztea; nork du eskubide adimena sortu duenaren nahikundea adimenaren arabera aztertzen ausartzeko? Eta zeruko maiestatearen betiko legea ohore hutsal baten arau txikien arabera arakatzeko? — Baina aski da gai hauetaz.— Zeri buruz, beraz, eskatzen du orain jaunak gure aholkua?

TENPLARIO.— Demagun, aita ohoragarria, judu batek haur bat bakarra daukala — demagun, neska dela — arretarik handienaz ontasun guztietarako hezi duela, bere arima bera baino maiteago duela, hark bere aita maitasunik beroenaz maitatzen duela. Eta orain gutariko bati jakinarazi zaiola neska hori ez dela juduaren alaba; haur zela kaletik jaso zuela, erosi, lapurtu, — berorrek nahi duen bezala; gauza jakina dela ezen neska kristauen alaba dela eta bataiatuta dagoela; juduak judu bezala baino ez duela hezi; gisa horretan judu eta bere alaba bezala jarraiarazten diola: — esan, aita ohoretsua, zer egin beharko litzateke kasu horretan?

PATRIARKA. Ikaratuta nago! — Baina, ezer baino lehen, argitu beza jaunak ea gisako kasu bat *faktum* bat edu hipotesi bat, zer den. Esan nahi baita: ea jaunak hori asmatu baino ez duen egin, edo hori gertatu zen, eta gertatzen ari den.

TENPLARIOA. Nik uste nuen berdin ziola berorren iritzi itzal handikoa soilik entzuteko.

PATRIARKA. Berdin? — Hor ikus dezake jaunak nola huts egin dezakeen giza adimen harroak espirituak gauzetan. — Inondik ere ez! Izan ere, baldin adierazitako kasua asmamenaren joko soila baino ez bada, ez du merezi — kasu hori seriotasunez aztertzeak.

Jaunak antzerkira jo dezake horretarako, non *pro et contra* gaia arrakasta handiz erabil daitekeen.— Baina baldin jaunak antzerkiko fartsa batez ziria sartu nahi izan ez badit; gertakaria *faktum* bat bada; baldin gure elizbarrutian, gure hiri maite Jerusalemen gertatu balitz: — bai, orduan —

TENPLARIOA. Eta orduan, zer?

PATRIARKA. Orduan Aita Santuaren eta kaiserraren zuzenbideek gisako sakrilegio batentzat, gisako galdukeria batentzat jarri duten zigorra bete beharko da bete-betan.

TENPLARIOA. Bai?

PATRIARKA. Eta egiaz, aipaturiko zuzenbideek finkatzen dute kristau bat apostatatzerara eramaten dutenentzat, — sua, — egur-pila.

TENPLARIOA. Bai?

PATRIARKA. Eta zenbat arrazoi gehiagoz haur kristau gajo bat indarrez bere bataioko elkartasunetik apartatzen duena! Ez al da, bada, indarra haurrei egiten zaien guztia? Esan nahi baita: — salbu, elizak haurrei egiten diena.

TENPLARIOA. Baina, baldin haurra, judua kupitu izan ez balitzaio, beharbada miserian hil izan balitz?

PATRIARKA. Berdin dio! Judua erre egin behar da. Hobe baita hemen miserian hil izan balitz, bere betiko hondamendirako gisa horretan salbatua izatea baino. — Gainera, zergatik hartu behar dio aurre juduak Jainkoari? Bera gabe ere salba dezake Jainkoak salbatu nahi duena.

TENPLARIOA. Baita bera arren, uste dut nik, eman diezaioke grazia santutzailea.

PATRIARKA. Berdin dio! Erre egin behar da judua.

TENPLARIOA. Sentitzen dut zinez! Bereiziki esaten delako neska ez zuela ez bere fedean, ezta ere beste edozeinetan ez zuela hezi, eta Jainkoaz irakatsi ziola ez gehiago ezta gutxiago ere adimena asetzen duena baino.

PATRIARKA. Berdin dio! Erre egin behar da judua... Bai, horregatik jada hiru bider erre dezaten mereziko luke! Zer? Haur bat inolako federik gabe haztea? — Nola? Ez irakatsi haur bati sinesteko

obligazio handia? — Gogorregia da hori! — Harrituta nago, zaldun jauna, berori bera...

TENPLARIOA. Jaun agurgarria, gainerakoa, Jainkoak nahi badu, aitortzerakoan (*joan egin nahi du*).

PATRIARKA Zer? Erantzunik eman ere ez niri? — Ez esan niri nor den gaizkilea, judua? — Ez ekarri hona oraintxe bertan? — Oh, badakit nik ondo asko zer egin! Segituan noa sultana-rengana. — Saladinok, guri zin egin dizkigun hitzarmenen bidez, gu, gu babestu behar gaitu; gure erlijio guztiz santuko direla beti uste ditzakegun eskubide guztiak, doktrina guztiak babestu behar ditu! Jainkoari eskerrak, jatorrizkoa daukagu guk. Bere sinadura daukagu, bere zigilua. Guk!. — Gainera erraz asko ulertaraziko diot zein arriskutsua den estatuarentzat berarentzat ezertan ez sinestea! Gizarteko lotura guztiak askatuta gertatzen dira, hautsita, baldin gizakiari ez sintestea zilegi bazaio.— Kanpora! Kanpora halako sakrilegioa!...

TENPLARIOA. Hau tamala, gisako sermoi bikaina asti gehia-
goz ezin entzun ahal izana! Saladinoren aurrera deitua nago.

PATRIARKA. Bai? —Beno, ba — beno, bai — orduan —

TENPLARIOA. Sultana prestatuko dut, berorren agurgarritasunari ongi baderitzaio.

PATRIARKA. Oh, Oh! — Badakit jaunak grazia aurkitu duela Saladinoren aurrean! — Haren aurrean nitaz onerako gogorra dadin eskatzen diot.— Jainkoaren sugarrak bultzatzen nau azken batean. Gehiegikeriarik egiten badut, harentzat egiten dut. — Kontuan har beza hori jaunak! — Eta ez da egia, zaldun jauna, orain puntuan aipatzen zuen juduarena, prolema soil bat baino ez zela? — Esan nahi baita —

TENPLARIOA. Problema bat (*Kanpora doa*).

PATRIARKA. (Nik sakon bilatu behar dudana inolaz. Hau beste egiteko berri bat litzateke Bonafides anaiarentzat.) — Etorri, seme! (*Badoalarik, fraidearekin mintzo da*).

HIRUGARREN ESZENA

Eszenategia: Saladinoren palazioko gela bat, non esklaboek poltsa pila bat ekarri eta lurrean bata bestearen ondoan ipintzen dituzten.

Saladino eta handik gutxira Sittah

SALADINO. (*Une horretan iristen delarik*). Egiaz, orratio, honek ez duela azkenik! - Asko gelditzen da oraindik?

ESKLABO BAT. Erdi bat bai oraindik.

SALADINO. Eraman orduan gainerakoa Sittahrenera. Eta non galdu da Al-Hafi? Hau guztia Al-Hafik eramane behar du segituan. — Edo ez ote nioke aitari bidali behar? Hemen hatz artetatik ihes egin baino ez dit egingo. — Egiaz, azkenean bat gogortu egiten da; eta orain, egiaz, majo kostatuko da niri asko kentzea. Egiptoko diruak hona iritsi bitartean gutxienez, pobreziak berak asmatu beharko du nola konpontzen den! — Hilobi ondoko emaitzak, segituko al dute! Esku hutsik itzuliko al dira erromes kristauak! Ez ote —

SITTAH. Zer da, gero hau? Zer egiten dik diruak nire etxean?

SALADINO. Ordaindutzat eman haiteke; eta gorde hornidura gisan zerbait sobratu geratzen bada.

SITTAH. Nathan ez al dun etorri oraindik tenplarioarekin?

SALADINO. Alde guztietan haren bila ari ditun.

SITTAH. Ikusi zer aurkitu dudane alhaja zaharrak eskuartearen nerabiltzan bitartean. (*Margo txiki bat erakutsiz*)

SALADINO. Ah, nire anaia! Bera da, bera da! — Bera zen! Bera zen! Ah! — Ah, gazte segail maitea, nik hi hain goiz galdu izana, gero! Nire ondoan edukita, zeri ez nion nik helduko? —, Sittah, emaidan erretratua. Nik ere ezagutzen dinat: hire ahizpa zaharrenari, bere Lillari, eman zion, goiz batez bere besoetatik askatu nahi ez zuelarik. Azken aldia izan zen zaldiz ateratzen zena. Ah, zaldiz ibiltzen utzi nion, eta bakarrik! — Ah, Lilla atsekabez hil zen, eta ez zidan barkatu zaldiz bakarrik ibiltzen utzi izana. — Ez zen gehiago azaldu!

SITTAH. Neba errukarria!

SALADINO. Hara, bada! Egunen batean gu guztiok ere ez gaitun gehiago azalduko! — Gainera —nork daki?- Heriotza ez dun bere gisako gazte bati helburua irabia diezaiokeen bakarra. Baditin etsai gehiago; eta sarri ahulenaren aurrean jausten da indartsuena.— Beno, izan bedi nahi duen bezala! — Nik, inolaz, erretratua tenplarioa gaztearekin erkatu behar dinat; ikusi behar dinat zenbatean nahastu nauen nire fantasiak.

SITTAH. Horrexegatik ekarri diat. Baina, ekarri hona, ekarri! Nik esango diat ondo; emakumearen begiak daki hori hobeto.

SALADINO. (*Sartzen den atezain bati*) Nor da hor? — Tenplarioa? — Datorrela!

SITTAH. Hiri oztopo ez egiteko, eta bera ez nahasteko (*sofa batean esertzen da alde batera eta buruko oihala erasten du*).

SALADINO. Ondo da horrela, ondo da! — (Eta bere ahotsa orain! Nolakoa izango ote da! — Assaden ahotsa lokartuta dago non edo han oraindik nire ariman!)

LAUGARREN ESZENA

Tenplarioa eta Saladino

TENPLARIOA. Ni, hire gatibua, Sultan ...

SALAMINO. Nire gatibua? Bizitza erregalatu diodanari, ez al diot bada askatasuna ere erregalatuko?

TENPLARIOA. Hiri egoki iruditzen zaiana egitea, niri iruditzen zaidak egoki lehenbizi jakitea, ez aldeztu aurretik uste izatea. Baina, Sultan, — eskerrak, esker bereiziaz hiri bizitzagatik aitortzea, ez zatorrek bat nire mailarekin ezta nire izakerarekin ere. — Edozein modutan, hire zerbitzura jartzen diat berriro nire bizitza.

SALADINO. Aski da nire kontra erabiltzen ez baduk! — Egia da, pozik utziko niekeela beso pare bat gehiago nire etsaiei. Baina gisako bihotz bat gehiago haiei uztea, zail egiten zaidak.— Ez diat ezertan huts egin hirekin, nire gazte bipila! Hi haiz, arima eta gorputz, nire Assad. Hara, galde diezaiokeen: non ezkutatu haiz denbora guztian? Zein kobazulotan lo egin duk? Zein lurrade miragarritan, zein maitagarri onberaren eskutik geratu duk lore hau beti eta beti fresko? Hara, nik

gogora ekarri hiezadaketa han eta hemen biok elkarrekin egin genuena. Liskarrean hasi nintekian hirekin, niri sekretu bat ezkutatu diadalako! Abentura bat gorde diadalako: — bai, hori egin nezakeen; baldin hi bakarrik ikusiko bahindut, eta ez ni. — Beno, baliteke! Ametskeria goxo honetatik gauza bat duk egiazkoa, alegia, nire udazkenean Assad berri bat loratzen zaidala. — Hi pozik hago, ez da zalduna?

TENPLARIOA. Higandik niregana datorren guztia, —edozer delarik ere — hori bazegoen nire ariman desio bezala.

SALADINO. Egin dezagun segituan proba.— Nire etxean geratuko haiz? Nirekin? — Kristau bezala, musulman bezala: berdin dio! Mantu zuriz edo txilabaz; turbantez edo feldroz: hik nahi bezalal Berdin dio! Ez diat nik eskatzen arbola guztioi azal bera haz dakien.

TENPLARIOA. Bestela nekez izango hintzateken haizena: Jainkoaren lorezain izatea nahiago luken heroia.

SALADINO. Beno, orduan; nitaz okerragorik pentsatzen ez baduk, erdi konforme egongo ginатеke, ez da?

TENPLARIOA. Guztiz!

SALADINO. (*Hari eskua eskainiz*). Hitz hitz?

TENPLARIOA. (*Eskua hertsiz*). Gizona gizon — Honekin hik niri hartu— keena baino gehiago jaso ezak. Erabat hire!

SALADINO. Irabazi gehiegia egun bakar baterako! Gehiegia! — Ez duk etorri bera hirekin?

TENPLARIOA. Nor?

SALADINO. Nathan.

TENPLARIOA. (*Hotz*). Ez. Bakarrik etorri nauk.

SALADINO. Zein egintza handia hirea! Eta zein zori doatsua, halako egintza halako gizonaren mesederako ekarri zuena.

TENPLARIOA. Bai, bai!

SALADINO. Hain hotz? — Ez, gazte! Jainkoak gure bitartez zerbait ona egitentbadik, ezin izan zitekek hain hotza! — Apaltasunagatik beragatik ere, ezin har zitekek itxura hain hotza!

TENPLARIOA. Gauza bakoitzak munduan hainbeste alderdi izatea, gero! Alderdi horiek nola konpontzen diren elkarren artean sarri ezin pentsa ere pentsa zitekek.

SALADINO. Eutsi hik beti onenari, eta goratu Jainkoa! Berak badaki nola datozen bat. Baina, baldin hik hain zaila izan nahi baduk, gazte, nik ere oso erne jokatu beharko diat hirekin? Tenplez ni ere alderdi asko dituen gauza bat nauk, sarri, elkarren artean oso ondo ez direla konpontzen diruditelarik.

TENPLARIOA. Min ematen dik horrek! — Mesfidantza, izan ere, oso gutxi dago bestela nire akatsen artean.

SALADINO. Beno, esan orduan nor hartu duan begitan? Badirudi guztiz Nathan dela. Nola? Nathanekiko mesfidantza? Hik? — Argitu hori! Mintza! Hator, emadak hire konfiantzaren lehen proba.

TENPLARIOA. Ez zaukat ezer Nathanen kontra. Nire burua-rekin nagok haserre —

SALADINO. Eta zergatik?

TENPLARIOA. Amets egin dudalako judu batek egiaz judu izatea ahantz zezakeela; hori esna amestu dudalako.

SALADINO. Kanpora amets esna hori!

TENPLARIOA. Hik ezagutzen duk Nathanen alaba, Sultan. Bere alde egin nuena, hori egin nuen, — hori egin nuelako. Harroegia izaki erein ez nuen lekuan eskerrak jasotzeko, egunetan eta egunetan neska ikusteari uko egin nion. Aita ur run zen; itzuli zen; entzuten du; bilatzen nau; eskertzen dit; bere alaba atsegin gerta dakidan desiratzen du; aipatzen du itxaropena, urruntasun argiak. — Limur nazaten uzten dut, banoa, ikusten du, aurkitzen dut neska bat zinez... Ah, lotsatu egiten nauk, Sultan!

SALADINO. Lotsatu? — Neska judu batek inpresio egin dialakoa: sekula ez.

TENPLARIOA. Inpresio horri, aitaren kalaka goxoaren eraginez, nire bihotz oldartsuak hain gutxi kontra egin diolako! — Ergela ni! Bigarrenez egin nuen jauzi sutara. — Izan ere, orain *ni* nintzean eskatzen ziana, eta ni nintzean orain uko egiten zitzaiona.

SALADINO. Uko?

TENPLARIOA. Aita jakintsuak ez dik, noski, aho betez ezetz esaten. Aita jakintsuak, ordea, lehenbizi jakinean jarri behar dik, lehenbizi gogoeta egin behar dik. Jakina! Ez nuen, bada, nik ere gauza

bera egin? Ez nintzean jakinean jarri, gogoeta egin, neskak sutan garrasi egin zuenean? — Jakina! Hala Jainkoa! Benetan zerbait ederra duk, hain jakintsua, hain zuhurra izateal

SALADINO. Beno, beno! Barka iezaioz zerbait zahar bati! Zein luzaz iraun zezaketek, bada, bere ukapenek? Hiri eskatu egingo al dik, bada, hi lehenbizi, judu bihur hadin?

TENPLARIOA. Nork daki!

SALADINO. Nork dakien? — Nathan hori hobeto ezagutzen zuenak.

TENPLARIOA. Gu hazi garen sineskeriak ez du galtzen, guk hala onartzen badugu ere, horregatik gure gain duen indarra.— Ez dira libre haren katei barre egiten dieten guztiak.

SALADINO. Zentzuzkoa benetan gogoeta! Baina Nathan zinez, Nathan ...

TENPLARIOA. Sineskeriarik okerrena da, norberarena eraman errazen bezala jotzea...

SALADINO. Litekeena da! Baina Nathan...

TENPLARIOA. Horren esku bakarrik gizadi ergela jartzea, egiairen egun argitsura ohitu arte; horren esku bakarrik...

SALADINO. Ongi! Baina Nathan! — Nathanen patua ez da ahulezia hori.

TENPLARIOA. Hala uste nuen nik ere!... Baldin une berean gizaki guztien eredu hori judu zikin bat balitz, kristauen haur bat esku-ratzen saiatzen dena, hura judu bezala hezitzeko: orduan, zer?

SALADINO. Nork aurpegiratzen dio halako zerbait?

TENPLARIOA. Neska bera, ni erakartzeko erabiltzen duena, itxaropentzat eskaini bide zidana, nik beretzat dohan egin izango ez omen nukeena pozik ordaintzeko; neska hori bera — ez da bere alaba; galdutako kristauen haur bat duk.

SALADINO. Hala eta guztiz ere hiri eman nahi ez diana?

TENPLARIOA. (*Gartsu*). Bai eta ez! Agerian jarria izan duk!. Tolerante berritsua agerian jarria izan duk! Jakingo diat nik ardi-larru filosofikoz jantziriko otso judu horren atzetik zakurrak bidaltzen, astin dezaten.

SALADINO. (*Serio*). Lasaitu, kristaua!

TENPLARIOA. Zer? Lasai kristaua? — Juduak eta musulmanak judu eta musulman izateari eusten diotenean, kristatuak bakarrik utzi beharko kristau bezala jokatzeari?

SALADINO. (*Serioago oraindik*) Lasai, kristaua!

TENPLARIOA. (*Serio*). Sentitzen diat Saladinok hitz horretan laburbiltzen duen gaitzespenaren zama osoa! Ah, baneki Assadek nire lekuan aukera honetan nola jokatuko zukeen!

SALADINO. Ez askoz hobeto! — Agian hik bezain suharki! — Baina, nork irakatsi zuen orduan, berak bezala, ni hitz batez limurtzeko? Jakina, dena hik esaten didaan bezala izango balitz: ez nintzateke inondik ere bateratuko Nathanekin.— Halere, nire adiskidea duk, eta nire adiskideen artean inork ez dik lehiatu behar beste batekin. — Utzi irakas hazaten! Ibili kontuz! Ez jarri bertatik hire jendailako buruberoen esku! Ez diat aipatuko hire apaizeriak, berarengan mendeku hartzeko, zer iradokiko lidakeen! Ez hadi izan kristau inolako juduren, inolako musulman amorruez!

TENPLARIOA. Aurki berandutxo izan zitekek horretarako! Baina patriarkaren odol egarriari esker, noren lanabes bihurtzeko izua nuen!

SALADINO Nola? Patriarkarengana joan haiz, niregana baino lehen?

TENPLARIOA. Grinaren ekaitzean, erabaki ezintasunaren zurrunbiloan! — Barka! — Beldur nauk ez duala nigan Assadenik ezer gehiago ikusi nahiko.

SALADINO. Inolaz ere ez halako beldurrik! Nirekiko zaukat badakidala zein okerretatik sortzen den gure bertutea. Etorkizunean zaindu hau, eta haiek nire begietan kalte gutxi egingo diate.— Baina hoa! Bilatu hik orain Nathan, berak hi bilatzen hauen bezala; eta ekarri hura hona. Ados jarri behar zaituztet biok. — Neskari dagokionez, hirea serio badoa, hago lasai. Hire duk! Nathanek ere sentitu behar dik berak zerrikirik gabe ere kristau bat hezi duela! — Hoa! (*Tenplarioa ateratzen da, eta Sittahk sofa uzten du*)

BOSGARREN ESZENA

Saladino eta Sittah

SITTAH. Harrigarria zinez!

SALADINO. Bai, ez da, Sittah? Nire Assadek ez al zian izan behar gizon gazte bipil eta eder bat?

SITTAH. Baldin bera bazen, eta ez aldiz tenplarioa erretratu hori egiteko eseri zena! — Baina nola ahaz hezakeen hik bere gurasoen berri galdetzea?

SALADINO. Eta bereiziki, noski, bere amaren berri? Ea bere ama ez ote hunan lurralde honetan egon? Ez da hala?

SITTAH. Hik konponduko duk hori!

SALADINO. Oh!, ezer ez litzateke posibleago! Izan ere, Assad dama kristauen artean hain hunan ongi etorria, dama kristau politekin hain setatua, non behin ahotsa zabaldu ere zabaldu hunan — Beno, beno; ez da hitz egiten hortaz gustura.— Aski dun; berriro zaukanat; berriro eduki nahi dinat bere akats guztiekin, bere bihotz samurraren apeta guztiekin! — Oh! Nathanek eman egin behar zion neska. Ez zain iruditzen?

SITTAH. Eman? Utzi egir behar ziok!

SALADINO. Jakina! Zein eskubide zukeen Nathanek bere aita ez den unetik? Bizitza horrela salbatu zionak hartzen ditin, bizitza eman zionaren eskubideak.

SITTAH. Zer gertatuko litzateke, Saladino, baldin oraintxe bertan neska hire etxera eramango bahu? Eskubiderik gabe daukanari orain kenduko bahio?

SALADINO. Beharrezkoa dun hori?

SITTAH. Beharrezkoa ere ez, noski! — Jakin-mina baino ez duk aholku hori hiri ematera bultzatzen nauena. Izan ore, gizon batzuen kontura oso pozik jakin nahi niake, ahalik eta lasterren, zein neska klase maita dezaketen.

SALADINO. Orduan, bere bila joan eta ekar dezaten aginduko dinat.

SITTAH. Egingo al diat nik, neba?

SALADINO. Ez mindu, ordea, Nathan! Nathanek ez din inondik ere uste behar bera neskarengandik indarrez apartatu nahi diagula.

SITTAH. Ez izan kezkarik.

SALADINO. Eta nik, nik neuk ikusi behar dinat non ezkutatu den Al-Hafi.

SEIGARREN ESZENA

Eszenategia: eskaratza irekia, Nathanen etxean, palmondoen aldera; lehen ekitaldiko lehen eszenan bezala. Aipatuko diren merkantzia eta balio handiko gaien puska bat, lurrean zabaldua dago.

Nathan eta Daia

DAIA. Oh, dena bikaina! Dena apartekoa! Oh, dena — berorrek bakarrik horni dezakeen bezalakoa. Non egiten da zilarrezko ehun hau, urrezko zintzilikarioak dituen? Zenbat balio du? — Honi deitzen diot nik andregai-soinekoa! Ezta erregina batek ere eskatuko luke hoberik.

NATHAN. Andregai-soinekoa? Zergatik andregai-soinekoa hain zuzen?

DAIA. Beno! Berorrek ez zuen horretan pentsatzen erosi zue-nean. — Baina egiaz, Nathan, hori izan behar du eta ez beste ezer! Andregai- soinekotarako ezta apropos egina ere. Azpi zuria, erruga-beziaren irudi bat; eta urrezko uhinak azpi hori alde guztietan irteten; aberastasunaren irudi bat. Ikusten du? Poxpolina!

NATHAN. Zer broma dun hori? Noren andregai-soinekoaz egiten ditun hik era hain adituan alegoriak? — Hi al haiz, bada andregai?

DAIA. Ni?

NATHAN. Bada, nor orduan?

DAIA. Ni? Jainko maitea!

NATHAN. Nor orduan? Noren andregai-soinekoaz mintzo haiz? Hau guztia hirea dun eta ez beste inorena.

DAIA. Nirea da? Nirea izan behar du? — Ez da Reharentzat?

NATHAN. Reharentzat ekarri dudana beste fardel batean zagon. Ekin! Eraman hemendik! Eraman hire gauzatxoak hemendik!

DAIA, Tentatzaile! Ezta mundu osoko alhajak balira ere! Ez ditut ukituko, baldin aldez aurretik zin egiten ez badit zeruak berorri bi bider eskainiko ez dion aukera bakar honetaz baliatuko dela.

NATHAN. Baliatu? Zertaz? — Aukera? Zertarako?

DAIA. Oh, ez egin ezjakinarena! — Hitz gutxitan! Tenplarioak Reha maite du: eman biezaio berari, era horretan behingoz nik gehiago isildu ezin dezakedan berorren bekatuak azken bat izango du. Horrela neska berriro kristauen artera itzuliko da; bera dena izango da berriro; bera zena izango da berriro: eta berorrek, berorrek, guk aski eskertu ahal ezin izango diogun tasun guztiaz ez ditu pilatuko ikatz sutuak berorren buruaren gainean.

NATHAN. Baina, musika zaharra berriro? — Orain hari berri bat jarrita, beldur naun, ez doitu ezta eutsi ere egingo ez dena.

DAIA. Nolatan?

NATHAN. Niri egoki iruditzen zait tenplarioa. Nik berari emango nioke Reha beste inori baino gehiago munduan. Baina... Beno, hartu pazientzia.

DAIA. Pazientzia? Pazientzia, ez da berorren musika zaharra?

NATHAN. Egun gutxi batzuez oraindik pazientzia!... Begira! — Nor dator hor? Fraide bat? Hoa, galdetu ea zer nahi duen.

DAIA. Zer nahiko du, bada? (*Harengana doa eta galdetzen dio*)

NATHAN. Ematea orduan! — eta berak eskatu baino lehen.— (Asmatuko banu, inolaz, tenplarioarengana hurbiltzen, nire jakin-minaren zergatia berari esan gabe! Izan ere, esaten bazionat eta susmoak oinarririk ez badin: erabat alferrik jarriko dinat jokoan aitatasuna). — Zer da?

DAIA. Berorri hitz egin nahi dio.

NATHAN. Orduan, sarrarazi ezan; eta hi joan hadi bitartean.

ZAZPIGARREN ESZENA.

Nathan eta fraidea

NATHAN. (Pozik segituko nuke egiaz Reharen aita izaten! — Egiaz ezin segi dezaket izaten, nahiz hala deitzen ez banau gehiago? — Berarentzat, berarentzat hala deituko naiz beti ere, berak jakiten badu zein pozik izango nintzatekeen). — Zoaz! — Zertan zerbitza diezaioket, anai jaieratsu?

FRAIDE. Ez da asko, inolaz. — Pozten naiz, Nathan jauna, berori ondo dagoelako.

NATHAN. Ezagutzen nau, orduan?

FRAIDE. Beno, nork ez du ezagutzen berori? Hainbati utzi dio berorren izena eskuan markatua. Nirean ere jarrita dago, aspaldiko urteetan.

NATHAN. (*Bere poltsari eskua botaz*). Betor, anaia, betor; oraintxe berrituko dut.

FRAIDE. Eskerrik asko! Pobreagoei lapurtuko nieke, ordeaz; ez dut ezer hartuko. — Baldin berorrek baimena ematen badit, berorri *nire* izena freskatzeko. Izan ere, ni ere harrotu bainaiteske *berorren* eskuan mespretxatzeko ez den zerbait jarri izanaz.

NATHAN. Barkatu! — Lotsatuta nago — Esan, zer izan zen? — Eta ordain gisan har beza zazpi bider haren balioa.

FRAIDE. Ezer baino lehen entzun beza, nola gaur oroitu naitzen nik berorren eskuan jarri nuen bitxiaz

NATHAN. Nire eskuan jarritako bitxia?

FRAIDE. Aspaldi ez dela ermitau gisan bizi nintzen oraindik Berrogei-aldiko mendian, Jerikotik ez urruti. Orduan, bidelapur arabe batzuek iritsi ziren, txikitu zituzten nire ermitatxoa eta nire gela, eta ni eramane ninduten. Zorionez, nik ihes egin nien, eta hemen, Patriarkaren etxean hartu nuen babesleku, beste txokotxo bat eskatzeko, han nire Jainkoari bakardadean nire azken zorientsuraino zerbitza niezaion.

NATHAN. Sutan nago anaia ona. Laburtu beza. Bitxia! Nire eskuetan jarritako bitxia!

FRAIDE. Oraintxe bertan, Nathan jauna. — Beno, patriarkak bakartegi bat agindu zidan Tabor mendian, bat libre geratu bezain laster; eta bien bitartean, anaia lego bezala komentuan gera nendin agindu zidan. Hantxe nago orain, Nathan jauna; eta egunean ehun bider eskatzen dut Tabor mendia. Patriarkak era guztietako gauzatarako erabiltzen bainau, eta horren aurrean nik nazka handia sentitzen dut. Adibidez:

NATHAN. Harira, mesedez!

FRAIDE. Beno, banator! — Orduan, gaur norbaitek belarrira esan dio: hemen bizi omen dela judu bat kristaua bat, bere alaba bezala, hazten ari dena.

NATHAN. Nola? (*Hunkiturik*).

FRAIDE. Entzun azkeneraino! — Orain, berak enkargatu dit judu horren arrastoa ahalik eta azkarren ateratzeko eta biziki haserretzen zen gisako sakrilegio batengatik, bere ustez Espiritu Santuaren kontrako benetako bekatua delako; — hau da, guretzat bekatu guztietan bekaturik handientzat daukaguna, soilik ordea, Jainkoari eskerrak, guk ez dakigula oso garbi zertan datzan zehatz; orduan esnatzen da nire kontzientzia; bururatzen zait nik eman nezakeela barka ezinezko bekatu handi horretarako aukera. — Esan: ez al zion ekarri zaldi-mutil batek duela hemezortzi urte aste gutxi zituen alabatxo bat?

NATHAN. Nolatan hori? — Bai, horixe — jakina —

FRAIDE. Eh, begira biezait zuzen! Zaldi-mutil hura ni naiz.

NATHAN. Berori da?

FRAIDE. Niri eman zidan jauna zen —zuzen, banabil- von Filneck jaun

bat.— Wolf von Filneck!

NATHAN. Hala da!

FRAIDE. Ama lehenxeago hil zenez; eta aitak —hala uste dut- bat-batean Gazzara jo behar zuenez, eta haurtxoak segitu ezin zionez: berorri bidali zion. Ez nuen berori berarekin Darun-en aurkitu?

NATHAN. Halaxe da!

FRAIDE. Ez litzateke harritzeko baldin nire memoriak huts egingo balit. Hainbeste jaun kementsu izan dut nik; eta honi denbora

laburregian zerbitzatu nion. Handik gutxira Askalonen erori zen; eta egiaz jaun maitagarria zen bestela.

NATHAN. Bai, halaxe zen! — Halaxe zen! Nik asko, benetan asko eskertu behar diot! Behin baino gehiagotan libratu ninduen ezpatatik!

FRAIDE. Oh, oso ongi! Orduan gusturago hartuko zuen berorrek haren alabatxoa.

NATHAN. Pentsa!

FRAIDE. Beno, eta non dago orain? Ez zen, bada, hilko? — Hobe, hil ez bada! — Baldin bestela inork ezagutzen ez badu auzia, irtenbide ona dauka.

NATHAN. Benetan?

FRAIDE. Fida nitaz, Nathan! Izan ere, hara, nik gisa honetan pentsatzen dut! Nik egin uste dudan ongiaren oso hurbil zerbait oso txarra badago, nik nahiago dut ongia ez egitea; guk txarra egiaz nahikoa ziur ezagutzen baitugu, baina ongia inondik ere ez. — Izan ere, guztiz berezkoa da, baldin berorrek kristauen alabatxoa guztiz zuzen hezi behar bazuen, berorren alabatxo bezala hezi behar zuela. — Hori berorrek maitasun eta leialtasun osoz egin eta era honetan saritua izan behar zuen? Nik ez dut onartzen hori. Garbi dago berorrek zuhurrago jokatu zuela baldin bigarren esku bati utzi izan balio neska kristaua kristau gisan hazi zezan: baina horrela berorrek ez zukeen maitatuko berorren adiskidearen haurtxoa. Eta haurrek maitasuna gehiago behar dute, piztia basati baten maitasuna izanda ere, urte horietan, kristautasuna baino. Kristautasunerako beti dago astia. Baldin, orde, neska bestela osasuntsu eta jaieratsu hazi bazen berorren begietan, Jainkoaren begien aurrean ere zena izango zen. Eta gainera, ez dago bada kristautasun guztia judutasunaren gainean eraikia? Sarri haserretu nau, eta nahikoa malko kosta ere kosta izan zait, kristauak ahazten dutenean gure Jauna bera judua zela.

NATHAN. Berorrek, anaia ona, izan behar du nire euskarri, gorrotoa eta hipokresia nire kontra altxa daitezenean, — egintza batengatik — ah, egintza batengatik! — Berorrek bakarrik, berorrek jakin behar du! — Baina eraman berorrekin hilobira! Harrokeriak ez nau oraindik tentatu beste inori kontu diezaiodan. Berorri bakarrik kontatzen diot nik hau. Xalotasun jaieratsuari bakarrik kontatzen diot.

Horrek bakarrik ulertzen baitu zein ekintzekin bere burua gaindi dezakeen Jainkoari opalduko gizonak.

FRAIDE. Hunkiturik dago berori, eta begiak malkoz beterik dauzka?

NATHAN. Darun-en aurkitu ninduen berorrek haurrarekin. Baina berorrek ez daki, egun gutxi batzuk lehenago, Gazan kristauak judu guztiak, haur eta emakume eta guzti, hil zituztela; ez daki horien artean nire emaztea zazpi seme itxaropenez beteekin batera aurkitzen zirela, nik hara eramanik nire anaiaren etxean denak erre zirelarik.

FRAIDE. Jainko justiziazkoa!

NATHAN. Berori iritsi zenean, hiru egun neramatzan nik errautsez eta hautsez estalirik Jainkoaren aurrean, eta negarrez. — Negarrez? Orobat Jainkoarekin eztabaidatzen, haserre, suminduta, nire burua eta mundua madarikatzen; kristautasunari baketu ezinezko gorrotoa zin eginez.

FRAIDE. Ah, sinesten diot, bai, berorri!

NATHAN. Baina berriro poliki-poliki ezagumena itzuli zitzaidan. Ahots samurrez hitz egin zuen: «eta hala eta guztiz ere badago Jainkoa! Baina hori Jainkoaren erabakia zen! Hara, bada! Zatoz, egin aspaldidanik ulertu duzuna; egiaz egiten ulertzen baino zailago ez dena, zuk hala nahi baduzu. Altxa!» — Altxatu nintzen! eta Jainkoari hots egin nion: Nahi dut! Zuk nahi baduzu nik nahi izatea! — Bien bitartean, berori jaitsi zen zalditik, eta niri eman zidan haurra, berorren mantuan bildurik.— Une horretan berorrek esan zidana, nik esan niona: horiek ahaztuta dauzkat. Hauxe dakit bakarrik: haurra hartu nuela, eraman nuela nire etzangura, belaunikatu eta zotinka esan nuela: Jainko! Zazpietatik, badaukat bat berriro!

FRAIDE. Nathan! Nathan! Kristaua da berori — Hala Jainkoa, berori kristaua da! Sekula ez da izan kristau hoberik!

NATHAN. Zorionekoak gu! Ni berorrentzat kristau egiten nauena hain zuzen da berori niretzat judu egiten duena! — Baina ez gaitezen luzatu elkar hunkitzen. Hemen ekitea da beharrezko! Eta baldin zazpi maitasunak berehalaxe neska arrotz honi atxiki banindun ere; baldin, nire zazpi semeak berarengan berriro galduko ditudan pentsamenduak hiltzen banau ere: — baldin probidentziak neska nire eskutatik eskatzen badit, — obeditu egingo dut nik!

FRAIDE. Hara, azkenik! Berorri horixe aholkatzeko egon naiz ni hain luzaz zalantzan! Eta berorren espiritu onak aholkatu dio orain!

NATHAN. Baina ez dit lehenengo etorriak eramango neska!

FRAIDE. Ez horixe!

NATHAN. Harekiko nik baino eskubide handiagoak ez dituenak; nik baino lehenagokoak izan behar ditu gutxienez —

FRAIDE. Bai, noski!

NATHAN. Berari naturak eta odolak emango dizkietenak.

FRAIDE. Hala uste dut nik ere.

NATHAN. Horregatik esan berehala izena, nor den gizona, neba edo osaba bezala, lehengusu edo bestela ahaide bezala senitarteko duena: haren aurrean ez dut gordeko eskubiderik gabe neska — etxe ororen, fede ororen apainduria izateko sortua eta hezia izan zena. — Ustez, berorrek nik baino hobeto daki berorren jaun horren eta haren leinuaren berri.

FRAIDE. Hori, Nathan ona, egiaz zaila izango da! — Berorrek dagoeneko entzun dit ni oso labur izan nintzela berarekin.

NATHAN. Ez daki gutxienez zein leinutakoa zen ama? Ez zen, agian, Stauffen bat?

FRAIDE. Baliteke! — Baietz, uste dut.

NATHAN. Haren neba ez zen deitzen Conrad von Stauffen? — Eta ez zen tenplarioa?

FRAIDE. Oker ez banago. Une bat! Oraintxe gogoratzen, naiz badaukadala liburutxo bat jaun horrena — Jaunak beza berarekin —. Bularretik atera nion Askalonen hobiratu genuenean.

NATHAN. Eta?

FRAIDE. Otoitzak dakartza. Brebiario deitzen diogu guk. — Hau, pentsatu nuen nik orduan, baliagarri izan dakioke kristau bati. Niri ez, noski — ez dakit irakurtzen eta —

NATHAN. Berdin dio! — Goazen harira.

FRAIDE. Liburutxo horretan, aurrean eta atzean, badaude, nik aztertu nuenez, jaunaren eskuz idatzita beraren, eta emaztearen ahai-deak idatzita.

NATHAN. Oh, zorionean! Joan! Azkar! Ekarri niri liburutxoa. Segituan! Bere pisua urretan ordaintzeko prest nago; eta mila esker gainera! Azkar! Korri!

FRAIDE. Bai pozik! Arabieraz dago, ordea, jaunak idatzi zuena.

NATHAN. Berdin dio! Baina, ekarri — Jainko! Nik neska oraindik nirekin gorde ahal baneza, eta horrela gisako suhi bat erosi ahal baneza! — Zaila da, ordea! — Beno, gerta bedi nahi duen beza-la! — Nor ote da, ordea, halako eskakizun bat patriarkaren aurrean aurkeztu duena? Ez dut ahaztu behar hori galdetzea. — Ez ote da izan, gero, Daia?

ZORTZIGARREN ESZENA

Daia eta Nathan

DAIA. (*Presaka eta nahastuta*). Pentsa, gero, Nathan!

NATHAN Zer da?

DAIA. Haur gaixoa benetan izututa geratu da. Hara non bidaltzen duen..

NATHAN. Patriarkak?

DAIA. Sultanaren arrebak, Sittah printzesak ...

NATHAN. Patriarkak ez, orduan?

DAIA. Ez, Sittahk! — Berorrek ez du entzuten, ala? — Sittah printzesak bidali du hona eta eraman dezaten agindu du.

NATHAN. Nor? Reha eraman dezaten? — Sittahk eraman dezaten agindu du? — Beno, Sittah bada eraman dezaten agindu duena, eta ez patriarka...

DAIA. Zergatik aipatzen du patriarka?

NATHAN. Orduan, azken aldian, ez dun ezer entzun haren kontura? Seguru ezetz? Ezta hari ezer helarazi ere?

DAIA. Nik? Hari?

NATHAN. Non daude bidaliak?

DAIA. Aurrean.

NATHAN. Nik neronek hitz egingo diet, badaezpada. Hator!
— Ez al da patriarkarenik ezer ezkutatuko hor. (*Badoa*).

DAIA. Eta ni — ni beldur naiz ez ote den beste zerbait gertatuko. Zer apostu? Gisako judu hain aberats baten alabatzako bakarra ez litzateke, noski, txarra izango musulman batentzat, ala? — Hui! Galdua da tenplarioa. Galdua da, baldin ni ausartzen ez banaiz bigarren urrats bat ematera; neskari ere argitzen ez badiot bera nor den! — Alimo! Berarekin bakarka egongo naizen lehen unea erabiliko dut horretarako. Eta hori izango da — beharbada oraintxe bertan, nik lagun egingo diodanean. Lehen saiotxo batek bidenabar ez du kalterik egingo gutxienez. Bai, bai! Ekin! Orain edo sekula ez bestela! Ekin! (*hari jarraiki*).

BOSGARREN EKITALDIA

LEHEN ESZENA

Eszenategia: Gela bat Saladinoren palazioan, nora eramán dituzten oraindik ikus daitezkeen diru-poltsak. Saladino eta, segituan berehala, zenbait mameluko.

SALADINO (*Sartuz*). Oraindik hor dago dirua! Eta inork ez du asmatzen derbitxea bilatzen, seguruenera xake-taula batekin topo egin eta bere buruaz ahaztu ere egingo zen; — eta zergatik ez nitaz? — Beno, Pazientzia! — Zer da?

MAMELUKO BAT. Albiste onak, Sultan! Poza, Sultan! .. Kairoko karabana badator; zorionez iritsi da! Nilo aberatseko zazpi urtetako zergak ekarriz.

SALADINO. Bejondeizula, Ibrahim! Benetan mezulari, ongi etorria haiz niretzat! — Ah, behingoz azkenik! Azkenik! — Eskerrik asko albiste onagatik.

MAMELUKOA. (*Itxaroten*). (Eta? Bota zerbait!)

SALADINO. Zeren zain hago? — Hoa berriro.

MAMELUKOA. Ongietorriari, bestela ezer ez?

SALADINO. Zer, bada, gehiago bestela?

MAMELUKOA. Mezulari onari, mezulari-saririk ez? — Ni nintzateke orduan, Saladinok hitz onez saritzen azkenik ikasi ondoren

datorren lehenbizikoa? — Hori ere bada, bada, ohorea! — Lehenbizikoa norekin zeken izan dena.

SALADINO. Hartu, orduan, hortik poltsa bat.

MAMELUKOA. Ez, orain ez! Alferrik erregalatuko dizkit guztiak.

SALADINO. Egoskorra! Hator hona! Hor dituk bi. — Benetan? Joan egiten da? Aurre hartzen dit eskuzabaltasunean? — Izan ere, ziur da berari mingarriago egin behar zaiola hori uztea, niri ematea baino. — Ibrahim! Nola bururatzen zait, baina, niri, erretiratu baino lehenxeago bat-batean erabat bestelakoa bihurtu nahi izatea? — Ez al du Saladinok Saladino bezala hil nahi? — Orduan, ez du bizi ere behar Saladino bezala.

BIGARREN MEMELUKOA. Eia, Sultan! ...

SALADINTO. Baldin bahatorkit gaztigatzera ...

BIGARREN MAMELUKOA. Egiptotik datorren garraioa iritsi dela!

SALADINO. Bazakiat.

BIGARREN MAMELUKOA. Berandu iritsi naiz orduan!

SALADINO. Zergatik berandu? — Hartu hortik, hire borondate onagatik poltsa bat edo bi.

BIGARREN MAMELUKOA. Hiru dira!

SALADINO. Bai, baldin kontuak egiten badakik! Hartu, besterik gabe

BIGARREN MAMELUKOA. Hirugarren bat etorriko da oraindik, — baldin etor badaiteke.

SALADINO. Nolatan hori?

BIGARREN MAMELUKOA. Hara, gero! Lepoa hautsiko zuen beharbada! Izan ere, hirurak garraioa iritsi zela jakin bezain laster, bakoitza bere aldetik abiatu gara lasterka. Aurretik zihoana, erori egin zen; eta horrela ni jartzen naiz aurrena, eta aurrena iristen naiz hiriraino; baina Ibrahim bihurriak hobeto ezagutzen ditu karrikak.

SALADINO. Oh, eroria! Adiskide, erorial — Hoa haren bila.

BIGARREN MAMELUKOA. Horixe da egingo dudana — Eta bizi bada, poltsa honen erdia beretzat izango da (*joan egiten da*).

SALADINO. Hara, zein mutil on eta iaioa hau ere! — Nor harrotu daiteke honelako mamelukuez? Eta ez al du pentsatu behar, nire ereduak lagundu diela hezitzen? — Utikan nire burutik beste batenera ohitu behar duten ideiak.

HIRUGARREN MAMELUKOA. Sultan...

SALADINO. Hi haiz erori dena?

HIRUGARREN MAMELUKOA. Ez. Nik bakarrik jakinarazten diot Mansor emira, karabana gidatu duena, zalditik jaisten ari dela...

SALADINO. Ekar iezadak hona! Azkar! — Hemen da!

BIGARREN ESZENA

Mansor emira eta Saladino

SALADINO. Ongietorri, emir! Eta, zer moduz joan da? — Mansor, Mansor, luzaz itxaronarazi diguk!

MANSOR. Gutun honek gaztigatzen du zein istilu zapaldu behar izan dituen hire Abulkasemek Teбайдan, gu abiatzen ausartu baino lehen. Ondoren ostea ahal beste bizkortu diat.

SALADINO. Sinesten diat! — Eta hartu orain, Mansor ona, hartu segituan... Hik hori gogo onez egingo duk, ez da?... Hartu eskolta berri bat segituan. Aurrera segi behar duk segituan; diru parterik handiena eraman behar diok aitari Libanora.

MANSOR. Gogo onez! Oso gogo onez!

SALADINO. Eta ez hartu eskoIta ahulegia. Libano inguruan, gauzak ez zabiltzak oso seguru ere. Ez duk entzun? Tenplarioak mugitzen hasi dituk. Erne ibili, beraz! Beno, hator! Non gelditu da karabana? Ikusi egin nahi dut; eta guztia neuk finkatu nahi diat.— Eh, zuek! Oraintxe bertan nauk Sittahrekin.

HIRUGARREN ESZENA

Eszenategia: Palmondoak Nathanen etxearen aurrean non Tenplarioa gora eta behera dabilen.

Ettxera ez dut inolaz ere sartu nahi. — Azkenean burua agertuko du, bada! Lehenago ni antzematen ninduten hain azkar, hain gogo-

tsu! — Ikusi nahi dut nola ezin eraman duen bere etxe aurrean hain sarri errondan ibil nadin.— Jum! — Ni ere oso minduta nago.— Zerk mindu nau era horretan bere kontra? — Baietz esan zuen: ez dit ezer ukatu oraindik? Eta Saladinok bere kontura hartu du bera ezützea. — Nolatan? Benetan nigan kristauak habia sakonago egin behar zuen berarengan juduak baino? — Nork ezagutzen du bere burua ondo? Nola ez niokeen onartuko bestela lapurreta txiki hori, berak halako aukeraz baliatuz, kristaua lapurtzeko egina? — Lapurreta txikia ez, inondik ere, halako kreatura! — Kreatura? Eta norena? Ez noski, bizi-tzaren hondartza bakartian harrimokorra utzi eta handik alde egiten duen esklaboarena? Aldiz, bai, han botatako harrimokorrean berak irudikatuko duen irudi jainkotiarra pentsatzen duen artistarena. Ah! Reharen egiazko aita izango da, hura sortu zuen kristaua arren, — izango da betiko judua. — Baldin nik bera neska kristau bezala kontsideratzen badut, baldin gisako judu batek bakarrik eman zie-zaiokeen guztia gabe kontsideratzen badut: — mintza, bihotza, — zer legoke harengan zuri atsegin litzaizukeena? Ezer ez! Gutxi! Bere irribarrea bera ez litzateke bere giharren higidura samur eta ederra baino; irribarre eragiten ez luke mereziko bere ahoan janzten duen lilura: — ez; ezta bere irribarreak ere ez luke mereziko! Ikusi dut, bai, ederragoa xahutzen lokalditan, limurkeriatan, burlatan, lausengutan eta maitakeriatan! — Ni ere liluratu ninduen? Nigan ere piztu zuen horrek niri bizitza haren eguzki-argitan itzul inguruka ibiltzeko gogo? — Nik dakidala, ez. Eta zergatik jartzen naiz umore txarrean balio handi hori berari eman zionarekin? Nola liteke? Zergatik? Eta irabazi izan banu Saladinok hori sinetsi zezakeena bera ere! Zein txikia irudituko nintzaion! Zein mespretxagarria! — Eta hau guztia neska batengatik? — Curd! Curd! Hau ezinezko da gehiago. Aldatu! Baldin, azken batean, Daiak nekez egiazta daitekeen zerbait xuxurlatu balit? — Ikusi, hara, non ateratzen den bera bere etxetik, elkarriketan sakon murgilduta! Ah! Eta norekin! — Horrekin? Nire fraidearekin? — Ah! Orduan, berak dena daki dagoeneko! Dagoeneko patriarkari saldu diote! Ah! Zer sortu dut nik, astakirten horrek! — Grina honen txinparta bakar batek gure garunean halako zatia erre dezakeenik ere, gero! — Erabaki segituan hemendik aurrera egin behar duzuna! Alde batera egin eta itxarongo diet; ea, agian, fraideak uzten duen.

LAUGARREN ESZENA

Nathan eta fraidea

NATHAN. (*Hurbiltzen delarik*). Eskerrik asko berriro, anaia ona!

FRAIDE Baita berorri ere!

NATHAN. Niri? Berorrek? Zergatik? Berorrek behar ez duena hartzera berori bultzatzeko setagatik? — Bai, baldin berorrek seta horren aurrean amore eman izan balu, berorrek indarrez ni baino abe-ratsagoa izatea nahi izan ez balu.

FRAIDE. Liburua, edozein modutan, ez da nirea; edozein modutan, alabarena da; hori da egiaz alabaren aitagandiko ondare osoa. — Beno, berori dauka.— Jainkoak eman diezaiola berorri ez dakiola gehiegi damutu haren alde hainbeste egin izana!

NATHAN. Hori egin nezakeen nik? Hori ezin dut nik. Ez izan kezkarik.

FRAIDE. Bego, bego! Patriarkak eta tenplarioek...

NATHAN. Ezin egin ahal izango didate hainbeste kalte, ni zer-baitetaz damutu nadin: Askoz gutxiago hau! — Eta berori guztiz segu-ru dago tenplarioa bat dela berorren patriarka xaxatzen duena?

FRAIDE. Kasik ezinezko da beste norbait izatea. Tenplarioa batek hitz egin du aurretxoagoan berarekin; eta nik entzun nuenak horren itxura zeukan.

NATHAN. Bada, orain bakar bat baino ez dago Jerusalemen. Eta hori, nik ezagutzen dut hori... Hori nire adiskidea da. Gizon gazte, noble eta ireki bat.

FRAIDE. Halaxe da, izan; hori bera da! Bat dena eta batek munduan izan behar duena, ez dira sarri bat etortzen.

NATHAN. Tamalez, ez.— Edozein delarik ere, ahal dezakeen gaizkia edo ongia egin dezala! Berorren liburuaz, anaia, tematu naite-ke guztien kontra; eta orain, zuzen-zuzenean, Saladinorengana noa berarekin.

FRAIDE. Aldi on! Orduan, hemen utziko dut berori.

NATHAN. Eta ez du bera ikusi sekula? — Etorri, beraz, aurki eta sarri etxera.— Patriarkak gaur ezer jakingo ez balu! — Baina, zer? Esan gaur bertan, berorrek nahi duena.

FRAIDE. Ez nik. Ongi bizi! (*Irten egiten da*).

NATHAN. Ez gaitza ahaztu, anaia! — Jainko! Hemen, zeru azpi ireki honetan ezin eror naitekeela ere belauniko!! Nola askatzen den berez ni hain sarri izutzen ninduen lakioa! — Jainko! Zein arin gertatuko zaidan, ez dudanez ezer gehiago munduan ezkutatzeko! Gizakien aurrean zure aurrean bezain libre mugi naitekeenez, zuk bakarrik ez baituzu beharrik gizakia hain gutxitan bere egite diren egi-teen arabera juzgatzeko, oh Jainko!

BOSGARREN ESZENA

Nathan eta albo batetik berarengana datorkion tenplarioa

TENPLARIOA. Eh, itxaron, Nathan; hartu ni hirekin.

NATHAN. Nor ari da deika? — Berori da, zalduna? Non egon da, Sultanaren etxean berori ez aurkitzeko?

TENPLARIOA. Biok elkarri huts egin diogu. Ez hezak gaizki hartu.

NATHAN. Nik ez; baina Sultanak...

TENPLARIOA. Berori puntuan joana zen.

NATHAN. Hitz egin du, orduan, berarekin? Ondo dago, orduan.

TENPLARIOA. Baina bioi batera hitz egin nahi digu.

NATHAN. Hala hobe oraindik. Etorri orduan. Bestela ere harengana nindoan.

TENPLARIOA. Galde diezaioket egiaz, Nathan, nork utzi duen berori hor?

NATHAN. Ez duk orduan ezagutzen?

TENPLARIOA. Ez zen hori zeruko katua, anaia legoa, patriarkak hain gogo onez zakur bezala erabiltzen duena?

NATHAN. Baliteke! Patriarkarenean dago, edozein modutan.

TENPLARIOA. Ez batere txarra amarrua: xalotasuna doilorkeriaren aurretik, bidaltzea.

NATHAN. Bai, xalotasun ergela; — ez, jaieratsua.

TENPLARIOA. Ez dago patriarkarik jaieratsuan sinesten due-nik.

NATHAN. Horren alde nago, ordea, ni orain. Horrek lagundu-ko dio berorren patriarkari behargaberik ezer ez egiten.

TENPLARIOA. Hala dirudi behintzat.— Baina berak berorri ez dio nitaz ezer esan?

NATHAN. Berorri buruz? Berorri buruz berariaz ezer ez, bero-rrren izena ere nekez jakin behar du, ala?

TENPLARIOA. Nekez.

NATHAN. Tenplarioa bati buruz, bai, esan dit...

TENPLARIOA. Eta zer?

NATHAN. Berorri dagokionez, inondik ere ezin esan daiteke-en zerbait!

TENPLARIOA. Nork daki? Esan, entzun dezadan.

NATHAN. Batek bere patriarkaren aurrean salatu egin nauela

...

TENPLARIOA. Berori salatu? — Hori, berorren graziaz — gezurra da. — Entzun, Nathan! — Ni ez naiz zerbait ukatzeko egoe-ran dagoen gizona. Nik egin dudana, egin egin dut nik! Baina ez naiz ni egin duen guztia, ondo egindako bezala defendituko duena. Zein okerrengatik lotsatu beharko nuke? Ez daukat hura zuzentzeko asmo sendoa? Eta ez dakit nik adibidez noraino eraman daitezkeen gizonak horrekin? — Entzun, Nathan! — Ni naiz anaia legoaren, tenplarioa, berori salatu bide duena; bai, horixe. — Berorrek badaki zerk hase-rretzen ninduen! Zerk jartzen zuen sutan odola nire zain guztietan! Babua ni! — Berorren besoetan gorputz eta arima nire burua jaurtiki-tzeko etorri naiz. Nola hartu ninduen berorrek — zein hotz — zein epel — epel izan ere, hotz baino okerrago baita; zein neurritsukiro saiatzen zen berori ezjakinarena egiten; haizetarik hartutako zein gal-derekin erantzun itxurak egiten zituen: ezin ekar dezaket orain hau guztia burura baldin bare egon nahi badut.— Entzun, Nathan! Galgara horretan nengoela Daia etorri zitzaidan eta bere sekretua bota zidan burura, eta hori iruditut zaitzaidan berorren jarrera harrigarriaren argi-bidea.

NATHAN. Nolatan, gero?

TENPLARIOA. Entzun azkeneraino! Niri iruditzen zitzaidan berorrek ez zuela berriro kristau baten eskutan galdu nahi behinola kristauei kendua. Eta horrela bururatu zitzaidan besterik gabe eta onez onean aiztoa berorri zintzurrean jartzea.

NATHAN. Besterik gabe? Eta onez onean? — Non dago hor ona?

TENPLARIOA. Entzun, Nathan! — Garbi dago: ez nuen ondo jokatu! — Berorrek ez dauka errurik, Daia kaskalak ez daki zer esaten duen — Berorren kontrario da — Horrekin auzi txar batean sartu nahi du berori! Ni gazte txatxu bat naiz, beti bi muturrekin ametsetan dagoena; bateko gehiegi egiten du, hurrengo berriz gutxiegi — Hori ere litekeena da! Barkatu, Nathan.

NATHAN. Baldin berorrek horrela ulertzen banau...

TENPLARIOA. Labur, ni joan nintzen Patriarkarengana! — Baina ez nuen berori izendatu. Hori gezurra da, esan bezala! Kasua erabat oro har kontatu diot, bere iritzia entzuteko. — Hori ere bertan behera utz nezakeen: bai horixe! — Ez al nekien, bada, nik patriarka gizatxar bat zela? Ezin al nizkion, bada, nik neronek berorri argibideak eskatu? — Neska errukarria halako aita bat galtzeko zorian jarri behar al nuen? — Beno, zer axola dio? Beti berdin jokutzen duen patriarkaren bilaukeriak nire baitara eraman nau biderik laburrenetik. — Entzun, izan ere, Nathan; entzun azkeneraino! — Demagun berak bazekiela berorren izena: zer axola dio, zer axola dio? — Berak berorri neska kendu egin diezaioke, baldin berorrena baino ez bada bakarrik. *Berorren* etxetik komentura eraman baino ezin dezake.— Beraz — eman neska niri! Eman biezait niri; eta datorrela patriarka hori. Ah! Hobe du, hobe, niri nire andrea kendu gabe utzi! — Eman biezait niri; segituan! — Berdin dio berorren alaba bada edo ez bada! Berdin kristau edo judu, edo ez bata eta ez bestea ez bada ere! Berdin dio! Berdin dio! Ez orain ez sekula nire bizitzan galdetuko diot horri buruz. Bedi nahi duen bezala!

NATHAN. Berorrek pentsatzen du nik egia ezkutatzeko premia dudala?

TENPLARIOA. Bedi nahi duen bezala!

NATHAN. Hori ez diot ukatuko ez berorri ezta bestela jakiteko eskubiderik duenari, bera kristaua dela, eta nire alaba-ordea baino

ez dela. Baina zergatik ez diodan berari hori argitu? — Horretan bera-
ri bakarrik azaldu behar dizkiot nire aitzakiak.

TENPLARIOA. Ez dio azaldu beharrik ere. — Eman berari
aukera bestelako begiz begira ez diezaion! Aurreratu berari aurkikun-
tza hori! — Berorrek, berorrek bakarrik dauka beraren gain agintzeko
ahalmena. Eman niri! Arren, Nathan; eman niri! Ni naiz bigarrenez
berorrentzat salba dezakedana — eta nahi dudana!

NATHAN. Bai, berorrek, zezakeen! Zezakeen! Orain ez gehia-
go. Berandu da horretarako.

TENPLARIOA. Nolatan? Berandu?

NATHAN. Eskerrak patriarkari ...

TENPLARIOA. Patriarkari? Eskerrak? Hari eskerrak?
Zergatik? Gure artean esker bila dabil *hori*? Zergatik? Zergatik?

NATHAN. Orain badakigulako nor den Reharen senitartekoa;
orain badakigu noren eskuetan ipini dezakegun segurtasun osoz —

TENPLARIOA. Eskertu diezaiola, gehiagoagatik eskertu
behar dionak!

NATHAN. Esku horietatik jaso beharko du orain berorrek, eta
ez nireetatik.

TENPLARIOA. Reha errukarria! Zenbat zorigaitz datorkian
errukarria! Beste hainbat zurtzentzat zoriona litzatekeena, da hirezat
zoritxarra! — Nathan! — Eta non daude ahaide horiek?

NATHAN. Non daude?

TENPLARIOA. Eta nortzuk dira?

NATHAN. Bereiziki neba bat azaldu da, eta hari eskatu behar-
ko dio berorrek Reharen eskua.

TENPLARIOA. Neba bat? Eta zer da neba hori? Soldadua?
Elizgizona? —

Ikus dezagun zer agindu diezaiokedan nire buruari.

NATHAN. Nire ustez, bietatik ez bata ez bestea — edo biak
dela. Oraindik ez dut ongi ezagutzen.

TENPLARIOA. Eta bestela?

NATHAN. Gizon jator bat! Reha ez da gaizki sentituko haren
etxean.

TENPLARIOA. Kristau bat, noski! — Alditan ez dakit zer pentsatu behar dudan berorri buruz: — ez hartu alde txarrera, Nathan, ez al du azkenean kristauarena egin behar izango, kristauen erdian? Eta nahikoa luzaz jokatu duena ez al da azkenean izango? Ez al du itoko azkenean belar txarrak berorrek erein zuen gari ona? — Eta horrek berori hain gutxi kezkatzen du? Hala eta guztiz ere, esan deza-ke berorrek — berorrek? — Reha ez dela gaizki aurkituko bere nebarenean?

NATHAN. Hala uste dut nik! Hala espero dut nik! — Baldin haren etxean zerbait faltako balitzaio, ez al gauzka berori eta ni beti?

TENPLARIOA. Oh! Zer faltako zaio, bada, haren etxean, egonda! Ez du hornituko nebatxoak oparo jakiz eta jantziz, goxokiz eta apainduriaz bere arrebatxoa? Eta zer gehiago behar du arrebatxoak? — Bai, noski: baita gizon bat ere! — Beno, beno; hori ere, hori ere inguratuko dio bere nebatxoak bere garaian; berak bila diezaioken onena! Kristauena izango da onena! — Nathan, Nathan! — Nolako aingerua osatu duen berorrek, orain beste batzuek honda diezaioten.

NATHAN. Ez da derrigorrezkoa! Beti iraungo du aingeru horrek gure maitasunaren duin.

TENPLARIOA. Ez esan hori! *Nire* maitasunaz ez esan hori! Nireari ezin ken dakioko ezer; ezer ez. Zatik txikiena izanda erel Ezta izenik ere! — Baina, une bat! — Badu berak susmorik gertatzen denaz?

NATHAN. Baliteke; nahiz nik jakin ez nondik dakien.

TENPLARIOA. Berdin dio; bi aukeratan, bere patua mehatxatzen duenaz nik esanda jakin behar du — derrigor jakin behar du. Bera nire deitu arte, berririo ez ikusteko, ez hitz egiteko nire pentsamendua baliorik gabe geratzen da. Banoa azkar

NATHAN. Egon! Nora?

TENPLARIOA. Berarengana! Ikustera ea emakume arima horrek gizonetik nahikoa daukan bere duin litzatekeen erabaki bakarra hartzeko!

NATHAN. Zein?

TENPLARIOA. Hauxe: berorrengatik eta bere nebarengatik aurrerantzean gehiago ez galdetzekoa —

NATHAN. Eta?

TENPLARIOA. Niri segitzekoa; — baita musulman baten emazte bihurtu beharko balu ere.

NATHAN. Egon! Ez du aurkituko berorrek. Sittahren etxean dago, Sultanaren arrebaren etxean.

TENPLARIOA. Noizdanik? Zergatik?

NATHAN. Eta haiekin bere neba aurkitu nahi badu, etorri nirekin.

TENPLARIOA. Neba? Zein neba? Sittahrena edo Reharena?

NATHAN. Beharbada biak. Betor nirekin! Arren eskatzen diot, betor!

(*kanpora eramaten du*).

SEIGARREN ESZENA

Eszenategia: Sittahren Haremean.

Sittah eta Reha elkarrizketan murgildurik

SITTAH. Zenbat ez naizen pozten hiregatik, neskatila goxoa! — Ez egon hain kezkatuta! Hain artega! Hain ikaratuta! — Hago alai! Izan hadi lagunkoiagoa. ! Fidakorra goa!

REHA. Printzesa ...

SITTAH. Ez, ba! Zer printzesa, gero! Esan niri Sittah, — hire adiskidea, hire ahizpa. Deitu hire amatxo! — Kasi, izan ere, izan nintekenen. — Hain gaztea! Hain zuhurra! Hain jaieratsua! Zer ez dun hik jakingo! Zer ez dun hik irakurria izango!

REHA. Irakurri, nik? — Sittah, hi barre egiten ari haiz hire ahizpa ergelaren bizkarretik. Ez zakinat apenas irakurtzen.

SITTAH. Apenas dakinala, gezurti!

REHA. Aitaren letra apurtxo bat! — Liburuengatik ari hintzela uste ninan.

SITTAH. Jakina! Liburuengatik

REHA. Beno, liburuak kosta egiten zait irakurtzea.

SITTAH. Benetan?

REHA. Bene-benetan. Nire aitak ez din hatere gogoko zeinu hilez garunean itsasten den jakitate teoritsu hotza.

SITTAH. Baina, zer esaten dun, gero! Edozein modutan, ez dabil oso oker ere! — Eta hik dakinaretik asko ...

REHA. Bere ahotik, zakinat bakarrik. Eta gehienei buruz esango dinat oraindik nola, non, zergatik irakatsi didan.

SITTAH. Horrela, jakina, dena hobeto kateatzen da. Horrela arima osoaz ikasten da.

REHA. Ziur Sittahk ere gutxi edo ezer ez duela irakurri.

SITTAH. Zer esan nahi dun? Ez nagon harro kontrakoagatik. — Baina, zer esan nahi dun? Eman arrazoia! Mintza beldurrik gabe. Eman arrazoia!

REHA. Hain da bera sotila eta leiala; hain harrokeriarik gabea; erabat eta guztiz bere buruaren antzeko...

SITTAH. Eta?

REHA. Liburuek oso gutxitan ematen omen dute itxura hori: hala dio nire aitak.

SITTAH. Oh, hori gizona, hire aita!

REHA . Ez da hala?

SITTAH. Zein hurbil jotzen duen, orratio, jomugatik!

REHA. Ez da hala? — Eta aita hori...

SITTAH . Zer gertatzen zain, maite?

REHA . Aita hori —

SITTAH. Jainko! Negar egiten dun?

REHA. Eta aita hori — Ah! Lasaitu egin behar dinat! Arnasa behar din nire bihotzak, arnasa behar din... (*malkotan urturik, haren oinetara amiltzen da*).

SITTAH. Haurra, zer gertatzen zain? Reha?

REHA. Aita hori nik — galdu egir behar dinat nik!

SITTAH. Hik? Galdu? Bera? Nolatan? — Hago lasai! — Sekula ez! Altxa!

REHA. Ez haiz alferrik eskaini nire adiskide, nire ahizpa iza-teko!

SITTAH. Hala naun, bai! Hala naun! — Altxa behingoz! Laguntza eskatu beharko dinat bestela.

REHA. (*Adore hartu eta altxatuz*) Ah! Barka! Asketsi! — Nire atsekabeak ahaztu erazi dit nor haizen. Sittahren aurrean ez din balio negarrak, ez etsimenak. Arrazoi hotz, bareak bakarrik dauka ahalmena bere gain. Harekin arrazoiak gidatzen, duenaren auziak irabazten du!

SITTAH. Eta orduan?

REHA. Ez; nire adiskide, nire ahizpa, ez zilegitu hori! Ez zilegitu sekula niri beste aita bat harrarazi diezadaten!

SITTAH. Beste aita bat? Harrarazi? Hiri? Nork zezaken hori? Nork nahi ere egin zezaken hori, maite?

REHA. Nork? Nire Daia gaizto onpuskak nahi zezaken hori. — Nahi din ahal izatea. — Bai; ez dun ezagutzen Daia gaizto onpuska hori? Bada, Jainkoak barka diezaiola! — Saritu diezaiola! Hainbeste on egin dit, hainbeste gaitz!

SITTAH. Gaitz, hiri? — Orduan onetik egiaz gutxi eduki behar din.

REHA. Bai, bai! Benetan asko, benetan asko!

SITTAH. Nor da bera?

REHA. Kristau bat, nire haurtzaroan zaindu ninduen; eta nola zaindu ere, gero! — Ez dun sinetsiko! — Apenas ama bat huts emateko moduan — Jainkoak barka diezaiola! — Baina orobat hainbeste izularritu ninduen! Hainbeste min eman!

SITTAH. Eta zertan? Zergatik? Nola?

REHA. Ah! emakume errukarria, — esango dinat, bai — kristaua da; maitasuna dela-eta min eman behar din; — Jainkoarenganako bide egiazko eta guztientzako bakarra ezagutu uste duten burubero horietako bat dun!

SITTAH. Ulertzen dinat, bai!

REHA. Eta bide hori huts egiten duen bakoitza hara zuzentzera beharturik sentitzen direnetakoa. — Nekez joka dezakete bestela. Izan ere, baldin egia bada bide horrek bakarrik daramala zuzen: nola ikus dezakete kezkatu gabe beren adiskideak betiko hondamendian amiltzen den beste batean ibiltzen? Posible behar luke gizaki bera une berean

maitatzea eta gorrotatzea. — Ez da hori ere azken batean harengatik arranguratzera naramana. Bere hasperenak, bere oharrak, bere otoitza, bere zemaia gogo onez eramango nitinan nik luzaroago; gogo onez! Beti zuzentzen ninduen on eta baliozko ziren petsamenduetara. Eta nor ez da lausengatzen norbera beste norbaitentzat, edozein delarik ere hori, hain baliotsu eta kutun dela sentitzeak, eta horrek ezin, dezakeela jasan egunen batean gu gabe betiko egon beharko duen pentsamendua?

SITTAH . Egia-egia!

REHA. Baina — baina — urrunegi doa gauza! Horri ezin diodala nik ezer kontragarri; ez pazientzia, ez gogoeta; ezer ez!

SITTAH. Zer? Zeri?

REHA. Orain puntuan nitaz omen jakinarazi didanari.

SITTAH. Jakinarazi? Eta orain puntuan?

REHA. Oraintxe puntuan! Honuntzako bidean, eliza kristau erori batera ari gintunan hurbiltzen. Bat-batean gelditu egin da; bere buruaz borrokan ari zela zirudien; begiak malkotan behin zerura, behin niregana begiratzeko zuen. Hator, mintzatu da azkenik, goazen zuzenean eliza honetan barna! Badoa bera; nik segitzen diot, eta nire begirada izuturik alderrai zebilen hondakin gainbehera etorrietan barna. Berrirori gelditu da; eta hondoa jotzeko dagoen aldare bateko eskailera suntsituetan aurkitzen naiz berarekin. Zer gertatu zitzaidan? Bera, malko sutsuekin, esku bihurrituekin nire oinetan belaunikatzen zaidanean

SITTAH. Haur gajoa!

REHA . Eta han hainbat otoitz entzun, hainbat mirari egin omen dituen Jainkotasunaren izenean arren eskatzen dit, benetako errukizko begiradekin arren eskatzen dit nitaz erruki nadila! — Gutxienez barka niezaiola berak argitu benar bazidan zeintzuk esku-bide zituen elizak nire gain.

SITTAH. (Zoritarrekoa! — Banuen susmoa!)

REHA. Etorki kristauekoa nintzela; bataiatua; ez nintzela Nathanen alaba; bera ez zela nire aita! — Jainkoa! Jainkoa! Bera ez zela nire aita! — Sittah! Sittah! Hemen naun berriro hire oinetan...

SITTAH. Reha! Ez egin hori! — Altxa! — nire neba dator! Altxa!

ZAPIGARREN ESZENA

Saladino eta aurrekoak

SALADINO. Zer gertatzen da hemen, Sittah?

SITTAH. Bere onetik irtenda dago! Jainkoa!

SALADINO. Nor dun?

SITTAH. Hik badakik...

SALADINO. Gure Nathanen alaba? Zer behar din?

SITTAH. Oneratu hadi, neska! — Sultana ...

REHA. (*Belauniko Saladinoren belaunetara lerratuz, burua lurrera makurturik*). Ez naiz altxatuko! Ez besterik gabe! — Nahiago dut sultanaren aurpegia ez begiztatzea. — Nahiago dut betiko zuzentasunaren eta ontasunaren distira bere begietan, bere bekokian ez mirestea....

SALADINO. Altxa... altxatu gora!

REHA. Lehenbizi hitz ematen badit...

SALADINO. Hator! Nik hitz ematen dinat... edozer gauza!

REHA. Ez gehiago, ez gutxiago, ez bada nire aita niri, uztea; eta ni berari! — Oraindik bestela ez dakit nork eskatzen duen nire aita izatea; — nork eska ere egin lezakeen. Jakin ere ez dut jakin nahi. Baina odolak bakarrik egiten al du, bada, aita? Odolak bakarrik?

SALADINO (*Reha altxatzen duela*). Jabetzen naiz! Nor izan da hain bihozgabea hiri heuri — hiri heuri halako gauza bat buruan sartzeko? Guztiz erabakita al dago, bada, hori? Egiaztatua?

REHA. Hala behar du, itxuraz! Daiak nire inudearengandik omen daki eta.

SALADINO. Hire inudearengandik!

REHA. Isilpean berari esan beharrean aurkitu omen zen hiltzeko zegoela.

SALADINO. Hiltzen zegoela ere! Burua jada galduta zeukala ez? — Eta egia balitz ere! — Bai, noski: odolak, odolak bakarrik ez du inondik ere egiten aita! Ez du egiten apenas abere batena bera ere eta! Gehienik ere izen hori irabazteko lehen eskubidea ematen din! —

Ez izan beldurrik! — Eta badakin zer? Hiregatik bi aita eztabaidan hasi bezain laster: utzi biak bertan behera; hartu hirugarren bat! — Orduan hartu ni hire aitatzat!

SITTAH. Oh, egin hori! Egin hori!

SALADINO. Nik aita on bat izan nahi dinat, zinezko aita on bat! — Baina, hago! Gauza bat oraindik askoz hobea bururatu zaidan. — Zertarako behar dun hik aita? Eta hiltzen direnean? Garaiz bilatu behar dun norbait inguruan, zein luzaroago bizi gurekin apustu eginez biziko dena! Ez dun inor ezagutzen oraindik?

SITTAH. Ez ezak gorritu!

SALADINO. Horixe zen, noski, nire asmoa. Gorrituak itsusiak hain egiten ditu eder: eta ez ditu ederrak ederrago egingo? — Hire aita Nathan, eta oraindik beste bat —beste bat deitu ditut hona.

Asmatuko hukeen nor den? — Honaxe! Hik zilegituko didan, ez da, Sittah?

SITTAH. Neba!

SALADINO. Bai gorri-gorri jarriko haizela bere aurrean, neska maitea!

REHA. Noren aurrean? Gorri-gorri?...

SALADINO. Itxuratitxo! Orain zurbildu, nahi badun! — Nahi eta ahal dun bezala! —

(Neska esklabo bat sartzen da eta Sittahri hurbiltzen zaio)

Ez al dira iritsi, bada?

SITTAH. *(Neska esklaboari)*. Ongi! Sar daitezela. — Beraiek dira, neba!

AZKENENGO ESZENA

Nathan eta Tenplarioa eta aurrekoak

SALADINO. Ah, nire adiskide on maiteok! — Hiri, hiri, Nathan, ezer baino lehen adierazi behar diat, orain, nahi bezain laster, hire dirua eraman dezakeela!...

NATHAN. Sultan! ...

SALADINO. Orain ni ere, hire zerbitzura nagok...

NATHAN. Sultan! ...

SALADINO. Karabana iritsi duk. Aspaldi izan ez naizen bezain aberatsa nauk berriro. — Hator, esadak zer behar duan gauza bat benetan handia egiteko! Izan ere, baita zuek ere, baita zuek, merkatariok, ere, sekula ez duzue gehiegi edukitzen eskutan!

NATHAN. Eta zergatik mintzo txikieria honetaz? — Begi batzuek ikusten ditiat hor malkotan, eta horiek xukatzea gehiago interesatzen zaidak. (*Reharengana doa*). Negar egin dun? Zer falta zain? — Nire alaba haiz oraindik, ala?

REHA Nire aita!...

NATHAN. Elkar ulertzen dinagu. Aski! Egon hadi alai! Egon hadi bare! Baldin hire bihotza oraindik hirea badun! Baldin hire bihotza beste inolako galerak mehatxatzen ez badin! — Hire aita ez dun hik galdu!

REHA. Beste galerarik ez, bat ere ez!

TENPLARIOA. Beste galerarik ezetz? — Beno, orduan okerrenbilen ni. Galdu beldurrik ez dagoen gauza, ez da uste izan edukitzen zenik, ezta desiratu ere ez zen egin. — Oso ongi! Oso ongi! Horrek dena aldatzen du, Nathan, dena aldatzen du! — Saladino, hire aginduz etorri gara gu. Nik, ordea, okerrera eraman hintudan: ez saiatu orain gehiago!

SALADINO. Berriro zalapartaka, gazte! Dena ondo atera behar zaik, ala? Dena gogara atera behar zaik?

TENPLARIOA. Baina, entzuten duk! Ikusten duk, sultan!

SALADINO. Hara, egia da! — Hainbat txartoago hire auziaz hi seguruago ez bahengoen!

TENPLARIOA. Orain, ordea, banagok.

SALADINO. Nolanahiko egintza on batean setatzen denak, hura atzera botatzen du. Hik salbatzen duana, ez duk horregatik hire jabetzako. Bestela bere dirugoseak sutara daraman lapurra hi adinako heroi bat lukek!

(*Reharengana hurbilduz, hura tenplarioarengana eramateko*)
Hator, neska maite, hator! Ez hartu horren gauzak hain zehatz. Izan

ere, bestelakoa balitz, hain beroa eta harroa izango ez balitz: bertan behera utziko zuen hi salbatzea. Bata bestearekin orekatu behar dun.— Hator! Lotsa hezan! Egin hik berari egitea dagokiona! — Aitor iezaion hire maitasuna! Eskaini hire burua berari! Eta zapuzten bahau, ez ahantzi sekula urrats honetan askoz gehiago egin dunala hik bere alde, berak hire alde baino... Zer egin din, bada, hire alde? Gaietik apurtxo bat erre! Ez dago gaizki! — Beraz, ez dauka ezer nire anaia-renik, nire Assadenik!! Haren kareta darama bai, baina ez haren biho-tza. Hator, maite ...

SITTAH. Hoa! Hoa, maite, hoa! Gutxitxo da hire esker onera-ko; ezer ez, egiaz.

NATHAN. Geldi, Saladino, Sittah!

SALADINO. Hi orain?

NATHAN. Bada oraindik hemen norbait, zerbait esan behar duena...

SALADINO. Nork ukatzen du hori? — Ezin ukatua, Nathan, halako aita- orde batek ahotsa izan behar duela! Lehenbizikoa, nahi baduk. —Entzuten duk, auziaren egoera osoa zakiat nik.

NATHAN. Ez oso-osoa ere! — Ez nauk ari nitaz. Beste bat da, oso-osoa beste bat, Saladino, lehenbizi entzuteko eskatzen diadana.

SALADINO. Nor?

NATHAN. Bere neba!

SALADINO. Reharen neba?

NATHAN. Bai.

REHA. Nire neba? Neba bat daukat, orduan?

TENPLARIOA. (*Bere ohargabezia basati eta betilumetik bat-batean esnatuz*). Non? Non da neba hori? Ez da hona iritsi oraindik? Nik hemen egin behar nuen topo berarekin.

NATHAN. Hartu pazientzia!

TENPLARIOA. (*Guztiz garratz*). Aita bat aurkitu dio berari; — ez dio, bada, neba bat aurkituko?

SALADINO. Horixe falta zitzaigun! Kristaua, hain susmo txarra ez zen

aterako Assaden ezbainetatik. Ongi da, segi horrela!

NATHAN. Barka iezaiok! — Gogo onez barkatzen zioat nik. — Nork daki guk zer egingo genukeen bere lekuan, bere adinean! (*adiskidetsu hurbilduz*). Bai horixe, zalduna! — Mesfidantzaren ostean dator susmoa! — Baldin berorrek berorren egiazko izena segituan esan izan balit...

TENPLARIOA. Nola?

NATHAN. Berori ez da Stauffen bat!

TENPLARIOA. Nor naiz ni orduan?

NATHAN. Berorren izena ez da Curd von Stauffen!

TENPLARIOA. Zein da, bada, nire izena?

NATHAN. Berorren izena da Leu von Filneck.

TENPLARIOA. Nola?

NATHAN. Harritu egiten da?

TENPLARIOA. Arrazoiz! Nork esaten du hori?

NATHAN. Nik; eta oraindik gehiago, askoz gehiago esan diezaioket. Halere, ez diot gezurtatuko hori.

TENPLARIOA. Ez?

NATHAN. Litekeena da, izan ere, izen hura ere berorrena izatea.

TENPLARIOA. Hala esango nuke nik! (Hori da Jainkoak hitz egiten diola!).

NATHAN. Izan ere, berorren ama — hura zen Stauffen bat. Haren neba, berorren osaba, berori hezi zuena, noren eskuetan utzi zuten berori Alemanian, haiek, zeru garratz hark handik jaurtikirik, berriro lurralde honetara etorri zirenean: — Curd von Stauffen zen haren izena; eta baliteke haurretan berori hark hartu izana! Denbora asko da harekin berori hona etorri zela? Bizi da oraindik?

TENPLARIOA. Zer esan behar dut nik? — Nathan! Jakina! — Honelaxe da! Bera hila da. Gure ordenaren azken indarrekin etorri nintzen ni. — Baina, baina — Zee ikusirik dauka Reharen nebak honekin guztiarekin?

NATHAN. Berorren aita.

TENPLARIOA. Nola? Hura ere ezagutu zuen berorrek? Hura ere bai?

NATHAN. Nire adiskidea zen.

TENPLARIOA. Berorren adiskidea? Litekeena al da, Nathan! ...

NATHAN. Wolf von Filneck deitzen zen, baina ez zen alemaniarra ...

TENPLARIOA. Hori ere badaki?

NATHAN. Emakume alemaniar batekin ezkontuta zegoen; denbora labur batez segitu zion berorren amari Alemaniara ...

TENPLARIOA. Gehiago ez! Arren eskatzen diot! — Baina Reharen neba? Reharen neba. . .

NATHAN. Berori da!

TENPLARIOA. Ni? Ni bere neba?

REHA. Bera nire neba?

SITTAH. Neba-arrebak!

SALADINO. Neba-arrebak beraiek!

REHA (*Nebarengana nahi du*). Ah! Nire neba!

TENPLARIOA. (*Atzera eginez*). Bere neba!

REHA. (*Gelditu eta Nathanengana bueltatuz*). Ezin du izan! Ezin du! Bere bihotzak ez daki horren berri! — Iruzurgile batzuek gara gu! Jainkoa!

SALADINO. (*Tenplarioari*). Iruzurgileak? Nola? Hori uste duk hik? Hori pentsa ere pentsa dezakek? Iruzurgilea, hi! Dena baita iruzurra higan: aurpegia eta ahotsa eta pausakera! Ez da ezer hirea! Honelako arreba bat ezagutu nahi izatea, gero! Hoa!

TENPLARIOA. (*Apal hurbilduz*). Ez bota alde txarrera nire harridura, Sultan! Hik Assad sekula nekez ikusiko hukeen bezalako aukera batean, ez epaitu gaizki ez hura ez ni! (*Nathanengana joz*). Kendu eta eman egiten dit, Nathan! Esku beteka, biak! Ez! Gehiago ematen dit berorrek, kendu baino! Mila bider gehiago! (*Reha besarkatuz*). Ah, nire arreba! Nire arreba!

NATHAN. Blanda von Filneck!

TENPLARIOA. Blanda? Blanda? — Reha ez? Ez da gehiago berorren Reha? Jainkoa! Berorren ondotik urruntzen du! Bere izen

kristaua ematen dio berriro! Niregatik urruntzen du berorrek!
— Nathan! Nathan! Zergatik ordainarazten dio berari? Berari!

NATHAN. Eta zer? — Oh, nire seme eta alaba! Nire seme eta alaba! Izan ere, nire alabaren neba ez da izango nire semea, —berak hala nahi badu?

*(Bera bere besarkadekin ari den bitartean, Saladino bere arre-
barengana*

hurbiltzen da, harridura kezkatiz).

SALADINO. Zer dion hik, arreba?

SITTAH. Hunkituta nagok.

SALADINO. Ni ere bai, — Kasik ikaratuta nagon beste hunkidura handiago baten aurrean! Presta hadi horretarako, ahal bezain ondo.

SITTAH. Nola?

SALADINO. Nathan, entzun! Entzun! —

*(Nathan berarengana hurbiltzen den bitartean, Sittah hurbil-
tzen da*

*neba-arrebengana, bere atxikimendua azaltzeko; eta Nathanek
eta*

Saladinok, isilka hitz egiten dute).

Entzun! Entzun, baina, Nathan! Ez duk lehenxeago esan...

NATHAN. Zer?

SALADINO. Bere aita ez zela jaiotzez Alemaniakoa; ez zela jaiotzez alemaniarra. Zer zen, orduan? Nondarra zen?

NATHAN. Hori ez zidan berak sekula esan nahi izan. Bere ahotik ez dakit nik ezer horretaz.

SALADINO. Eta frankoa ere ez huen? Mendebaldar bat?

NATHAN. Oh! Hori ez zela, zabal-zabalik aitortzen zian.— Pertsiera zian hizkuntzarik gustukoena...

SALADINO. Pertsiera? Pertsiera? Zer nahi dut nik gehiago?
— Bera duk!

Bera zuan!

NATHAN. Nor?

SALADINO. Nire anaia! Seguru-seguru! Nire Assad! Seguru!

NATHAN. Beno, hi herori heurez konturatzen bahaiz: — Liburu honetan daukak segurtasuna! (*Brebiarioa berari emanaz*).

SALADINO. (*Jakin-irrikaz irekiz*). Ah! Bere letra! Ezagutzen diat!

NATHAN. Horiek ez dakite ezer honetaz! Hire esku zagok oraindik bakarrik, honetaz zer jakin behar duten erabakitzea!

SALADINO. (*Orriak pasatzen dituen bitartean*). Nire anaiaren seme-alabak nik ezagutu ez? Nire ilobak — nire seme-alabak ezagutu ez? Nik? Hiri utzi? (*Berriro ozenki*). Beraiek dira! Beraiek dira, Sittah, beraiek! Beraiek dira! Biak dira nire... hire nebaren seme-alabak! (*lasterka doa haiek besarkatzera*).

SITTAH. (*Hari jarraituz*). Zer entzuten dut nik! — Baina, nola izan zitekeen bestela, nola izan zitekeen bestela!

SALADINO. (*Tenplarioari*). Orain derrigor maite beharko nauk, kaskagogor horrek! (*Rehari*) Eta, ez al naiz orain, izango nintzela hitz eman nuena? Nahi badun eta nahi ez badun!

SITTAH. Ni ere bai, ni ere bai!

SALADINO. (*Tenplarioarengana itzuliz*). Nire seme! Nire Assad! Nire Assaden seme!

TENPLARIOA. Hire odolekoa nauk ni! Orduan nire haurtzaroa kumatzen zuten ametsak, amets baino gehiago ziren! (*haren oinetara jausiz*)

SALADINO. (*Hura altxatuz*). Begira lotsagaldu hau! Berak bazekien zer bait, eta ni kasik bere hiltzaile bihurtu! Hago!

(*Denak hitzik esan gabe elkarren artean besarkatzen ari diren bitartean oihala erortzen da*).

Aurkibidea

HITZAURREA.....	7
BIBLIOGRAFIA	43
LAOKOON.....	47
OHARRAK.....	163
JOAN HUARTEREN ZIENTZIETARAKO ARGIMENEN AZTERKETA	203
POPE METAFISIKO?.....	207
OHARRAK.....	239
ARRAZOIMENAREN KRISTAUTASUNA	241
ERLIJO ERREBELATUAREN JATORRIAZ.....	247
ZERBAIT GEHIAGO EZEZAGUNAREN PAPERETATIK ERREBELAZIOARI DAGOKIONEZ.....	251
ESPIRITUZKO ETA INDARREZKO FROGANTZARI BURUZ.....	269
GIZADIAREN HEZKUNTZA	275
F. H. JACOBI, LESSINGEKIN IZANDAKO ELKARRIZKETAZ.....	301
NATHAN JAKINTSUA	315

